

Miren Azkarateri esker onez

David Lindemann (arg.)



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Miren Azkarateri
esker onez

Miren Azkarateri esker onez

David LINDEMANN
(arg.)

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Miren Azkarateri esker onez [Recurso electrónico] / David Lindemann (arg.) – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2023]. – 1 recurso en línea : PDF (364 p.)

Incluye referencias bibliográficas.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-537-7.

1. Azkarate, Miren, 1955- . 2. Euskara (Lengua). I. Lindemann, David, ed. II. Azkarate, Miren, homenajeado.

(0.034)809.169



Azaleko argazkia: Mitxi. UPV/EHU.

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-537-7



Aurkibidea

Hitzaurrea: Zintzotasuna, Leialtasuna	
<i>Pello Salaburu</i>	11
Morfologia Konputazionala Euskaraz, 35 urte	
<i>Itziar Aduriz, Manex Agirrezabal, Eneko Agirre, Iñaki Alegria, Xabier Arregi, Jose M. Arriola, Xabier Artola, Arantza Diaz de Ilarraza, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Nerea Ezeiza, Kepa Sarasola</i>	15
Bernakulizazioa eta normatibitate berriak: ‘euskara onena’ sare sozialen tes- tuinguru multieskalarrean	
<i>Jokin Aiestaran Etxabe, Agurtzane Elordui Urkiza</i>	31
Euskararen eredutik hizkuntza-ereduen euskarara	
<i>Izaskun Aldezabal Roteta, María Jesús Aranzabe Urruzola</i>	57
Hiztegi-gintzaren bilakaera Elhuyarren ikuspegitik: iragana, oraina eta... geroa?	
<i>Amaia Astobiza, Klara Ceberio, Antton Gurrutxaga, Eli Pociello</i>	77
Aturrialdeko <i>heskuararen</i> berrikuntzen kokagune geografikoa	
<i>Iñaki Camino</i>	97
Euskararen irakaskuntzaren garabidean	
<i>Ines M.^a Garcia-Azkoaga</i>	121
Zenbait gertakari morfologiko Orozkoko euskararen	
<i>Asier Gonzalez Casado</i>	135
Glosak Azkarate eta Perez Gazteluren lan baten inguruan	
<i>Oroitz Jauregi, Miren Lourdes Oñederra</i>	155
Orotariko Kasu Markak eta «MAE ohiak»: ustezko bitxikerien garrantzia	
<i>Joseba A. Lakarra</i>	167
Inguma eta Wikidata uztartuz, euskarazko zientziaren ezagutza-graforantz	
<i>David Lindemann, Aitzol Astigarraga, Marije Bidaguren, Emilio Delgado, Galder Gonzalez, Kepa Sarasola</i>	193

Akademiaren sukaldeko lanetan, goxo-goxo <i>Jesus Mari Makazaga</i>	211
Itxaropenako artxibategiko altxorrak: Gabriel Arestiren bi liburuen makiniz- kribuak <i>Lourdes Otaegi, Alexander Gurrutxaga</i>	225
Historian ez gara, beharbada, hain bakarrik ibili <i>Pello Salaburu</i>	243
Jite adjektiboak eta aditz psikologikoak euskaraz <i>Leire Sanchez-Dorronsoro, Beatriz Fernández, Ane Berro</i>	257
Zuberoan <i>usantzatan ez ziraden</i> hitzak Leizarragaren obran <i>Blanca Urgell</i>	279
Euskararen erregistro akademikoen garapenaz: hiztegia eta fraseologia <i>Igone Zabala Unzalu</i>	313
Gehiago <i>Hirugarren Zelestinako</i> euskal pasarteaz: Leideneko eta Municheko aleak (1536) <i>Eneko Zuloaga, Dorota Krajewska</i>	333
Eranskina: Miren Azkarateren argitalpenak	353

Hitzaurrea: Zintzotasuna, Leialtasuna

Pello Salaburu*

Euskara Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Zintzotasuna, eta leialtasuna. Hitz horiek definitzen dute, beharbada, beste edozeinek baino hobeki, Miren Azkarate irakaslearen izaera. Berarekin lan egin dugunok badakigu zein zintzo eta leiala den. Beraren adiskide garenok ere badakigu ongi aski hori, zein zintzoa den, eta haren leialtasuna noraino ailegatzen den.

Bera ez da oroituko, baina 1979an ikusi nuen Miren lehenbiziko aldiz, Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia egiten ari nintzela. Mikel Zarate irakaslea bat-batean zendu zen, ezustean, bihotzeko batek joa. Eta berehala hasi zen unibertsitatea ordezko beste irakasleren baten bila, hark bete gabe utzitako orduak bere gain hartuko zituen. Gogoan dut ikasturtea betetzeko hilabeteak gelditzen zirela oraindik. Horretan, Miren izan zen gure gelan agertu zen irakasleetako bat, Donostiatik etorria. Orduan ez zen arazo gehiegi autoa aparkatzeko unibertsitate atean. Eskola batzuk eman zizkigun, ez dakit zenbat. Orduan ezagutu nuen nik. Berak ni, ordea, pixka bat geroago, baina handik gutxira.

Aste batzuk geroago, Euskaltzaindiak Gramatika Batzordea abian jarri zuen. Nik egunkariren batean leitu nuen Euskaltzaindiak asmo hori zuela, alegia, batzorde berri hori sortzekoa, Akademiaren arauak aspalditik espresuki agintzen zutena (esan nahi baita, euskararen gramatika bat idaztea) pixkanaka betetzen hasteko. Hasierako bilera haietara (Gipuzkoako Foru Aldundiko Urkixo liburutegian egiten genituen) jende multzo handi samarra inguratzen zen, nahiz nahiko fite gelditu zen batzordea behar bezala taxutu eta mugatua. Lafitte zen buru, Haritschelhar buruorde, Goenaga idazkari eta M. P. Lasarte idazkariorde. Gainerakoek tropela osatzen genuen: Altuna, King, J.A. Mujika, Rotaetxe, Akesolo, Larrarte, Oyharçabal, eta gu biak, Miren eta ni. Gazteenak, beharbada. 80ko hamarkadaren hasierako kontuak

* Pello Salaburu. Euskara Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Abandoibarra, 3 (48009 Bilbao). salaburu@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0001-8788-0925>.



dira, eta orduan hasi ginen elkarrekin lanean, misterioz betetako ordenagai-luak argazkietan bakarrik ikusten genituen garai hartan. Gure kasuan juxtu-juxtu idazmakina hobetu baten lana egiten hasi ziren behin eskuratu genituelarik. Aski sinbolikoa gertatzen zen Gasteizko fakultatean erosi ziren eskuko bi ordenagailu haiek (bi mac baitziren, ez gehiago) —ordua eskatu eta irakasleek erabiltzen ahal zituztenak—, Seminarioko kaperaren aldarean ikus-tea. Santutegiko saindu laiko berrien itxura zuten. Orduan hasi ginen lanean, eta urte hauetan zehar orain arte segitu dugu elkarrekin lanean eta harremanetan. Harreman horiek bi familien arteko harremanetara ere hedatu dira. Tartean, bai berak bai nik, beste ardura batzuk ere izan ditugu, unibertsitatean berean eta unibertsitatekanpo, baina berriz ere itzuli gara gero unibertsitateak eskatzen dituen zereginetara.

Bizitza osoa. Bizitza osoa eman du Mirenek, hortaz, gramatika kontuekin, etengabe lanean. Batzuetan kanpotik galdetzen digute ea amaitu dugun euskal gramatikaren ikerketekin, ea badugun euskararen azkeneko gramatika, azken bertsioa, betikoa izanen dena, betiko balioko duena. Edo noizko izanen dugun. Hori galdetzen duenak ez daki, segur aski, zer den gramatika bat, ez baitzaio inori ere bururutzen galdetzea biologo bati, edo mediku bati, ea bihotzaren edo gibelaren ikerketekin bukatu duen. Ea baduten azken bertsio bat. Ez: inoiz ere ez da izanen azken bertsiorik, baina seguruena da, hala behar luke bederen, azkeneko bertsioa aitzineko guztiak baino hobea izanen dela. Mirenek anitzetan egin ditu gramatikaren puntu batzuen azken bertsioak, eta beti hobetu du aurretik egina zuena.

Miren Azkaratek etengabe erakutsi du, urte hauetan zehar, bere leialtasuna Euskaltzaindian (trukean Akademiak merezi duen mailan berea erakutsi ez badio ere), Unibertsitatean, egon den administrazioko erantzukizun bereziko postuetan, lagunaren artean, adiskideen artean, lankideen artean..., egon den tokietan, azken batean. Gauza bat edo bestea egin, aspalditik konbentzitu nago gutako bakoitzak zerbait egiten duelarik ahalik eta modurik egokienan bete nahi duela egiteko hori. Asmatzen duen edo ez beste kontu bat da, jakina, denetarik egonen baita, baina zail gertatzen zait norbaiten borondatea zalantzan jartzea. Honen harira, nekez aurkituko dugu, berarekin modu batera edo bestera harremanetan ibilirik, Mirenen leialtasun eta zintzotasuna zalantzan jarriko duenik. Etxeko marka da.

Baina denborak aurrera egin ahala, une batean akademikoak bere bizitza akademikoari amaiera ematea erabakitzen du: bortxaz, urteak gainera etorri zaizkiolako, edo borondatez, behin epeak beterik, pentsatzen duela garaia dela bizitzan atzenduak edo baztertuak ziratekeen beste eginkizun batzuei tokia egiteko. Hau izan da Mirenen kasua ere. Badute hasiera guztiak bere amaiera ere. Jakina, horrenbeste urtetako garaia iraganik, erretiroak zulo bat uzten du, huts bat, beste norbaitek beteko duena bizitzaren gizalegea segituz. Eta huts inguruan gelditzen direnak astintzen ditu, aurrera begira haien erre-

ferentziak ere aldatzen hasten direlako. Gero jendea berriz ere egokituko da egoera berrira, ezinbestez.

Holakoetan, inguruko lankide, adiskide eta lagunek erabaki dezakete joan denari, joateko asmoa erakutsi duenari, omenaldi bat egitea. Eta hori gertatu da orain ere. David Lindemann hasi zen aspaldi urratsak egiten omenalditxo xume hau prestatzeko. Hola adierazten baitugu akademikoek gure esker ona, lan akademiko bat idatziz. Eta liburu honek biltzen ditu inguruko batzuek prestatu ditugun lanak. Eta «batzuek» diot, hemen ez baitaude guztiak. Mirenek harreman estua izan du, urtetakoa, hemen ageri ez diren beste lankide batzuekin ere. Baina hori bere testuinguruan ulertu behar da: zenbaitetan ezinezkoa gertatzen baita zerbait idaztea. Osasun arazoak eta urteak, batzuen kasuan. Denbora, beste zenbaitetan, «Idatziko duzu lan bat?» galderari erantzuna ematea ez baita batere erraza, eta orduak eskatzen baititu. Eta astia hor nonbait izanik ere, beste batzuetan ez dakizu zer moldatu liburu-rako. Hori bere horretan konprenitu behar da, eta onartu, garrantzirik eman gabe. Hala ere, zailtasun guztien gaintetik, hemen multzo ederra osatu du Davidek. Eta jende berriaren izenak ageri dira, horrek alaitasuna dakarkigu, etorkizuna haiena baita. Eskerrik asko guztiei.

Gazte ginen, gazte, hasi ginelarik. Lertxundik *ez gaude konforme* kantatzen zuen, eta Moustakik hamazazpi urteko neskatxari esaten zion beste hura (*Et je le suis encore / En découvrant ton corps / Comme un fruit éclaté / Comme un cri révolté*) ez genuen hain urrun, garai hartan aspaldi joandako beste mundu bat iruditzen bazitzaigun ere. Baina adin batetik aurrera atzera begiratzen hasiak gara, inguruan gure artatze eta arreta eskatzen duten ondorengoak ditugula babeseko inguruan. Ez dakit, bada, horrenbeste denbora pasatu den honako hau kantatzen zenetik ere: *Zahartzen naizenean, hirurogei urte / emaztea orduan balitz on laiteke / estofa balinbada salda egin lezake / deusik ez balinbada esker txarra merke*. Honetan Lertxundirena nahiago: ez gaude batere konforme lerro horiek adierazten duten bizimodu eta kulturarekin. Gizartean suposatzen duen aldaketa Mirenek berak ikusi du. Eta zerua batzuetan goibelez betea bada ere, erretiroarekin gertatzen den bizimodu zoragarri hau G. Harrisonen begiekin ikusi behar da: *Here comes the sun, Here comes the sun, and I say It's alright*. Egoera berria bai: baina Mirenek beti segituko du zintzo eta leial adiskide eta lagunekin. Eta eginen duen lanak fruitu emankorra izanen du. Urteetan egin bezala, beti segituko baitu pentsatzen *eman eta zabalzazu* dela egin dezakeen hoberena. Eskerrik asko zuri, Miren.

Morfologia Konputazionala Euskaraz, 35 urte¹

Itziar Aduriz,^{*1,3} Manex Agirrezabal,² Eneko Agirre,³ Iñaki Alegria,³
Xabier Arregi,³ Jose M. Arriola,³ Xabier Artola,³
Arantza Diaz de Ilarraza,³ Ainara Estarrona,³
Izaskun Etxeberria,³ Nerea Ezeiza,³ Kepa Sarasola³

¹ Universitat de Barcelona

² Centre for Language Technology, Kopenhage (CST), University of Copenhagen (KU)

³ HiTZ Zentroa - Ixa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Laburpena: Artikulu honetan morfologia konputazionalaren garapena azalduko dugu, Ixa taldeak euskararako egindako aplikazioa azpimarratuz. Bilakaera historikoa jaso nahi izan dugu, teknologiaren bilakaera eta aplikazioen bilakaera uztartuz, beti euskararen gainean egindakoa adibidetzat hartuta. Teknologiaren bilakaerari dagokionez, ezagutzen oinarritutako ereduak ohikoak eta nagusi izan dira morfologian, baina hurbilpen estatistikoan, eta, batez ere, ikasketa sakonean oinarritutakoak, ugalduz joan dira azken urteetan, horietako asko datuak eta gramatikak eskuragarriak ez dituzten hizkuntzetarako (edo dialektoetarako). Aplikazioak direla eta, ezagunena eta erabiliena zuzentzaile ortografikoa da, baina irakaskuntzarekin edo bertsogintzarekin lotutakoak ere aipagarriak dira.

Hitz gakoak: morfologia konputazionala, zuzenketa ortografikoa, hizkuntz teknologia.

1. SARRERA

Miren Azkarateren omenezko liburuari gure ekarpena egin nahi diogu Mirenek landu duen arlo nagusietako batean, morfologian hain zuzen. 1988 urtean Ixa taldea sortu zenean, erabaki estrategiko garrantzitsua izan zen euskararen morfologiaren tratamenduari lehentasuna ematea. Lanari ekin genionean gazteak eta berriak ginen arloan, geneuzkan konputagailuak oso

* Itziar Aduriz. Filologia Catalana i Lingüística General. Facultat de Filologia i Comunicació (Universitat de Barcelona). Gran Via de les Corts Catalanes, 585 (08007 Barcelona). itziar.aduriz@ub.edu. <https://orcid.org/0000-0001-8681-9778>.

¹ Lan hau bi ikerketa-proiektu hauei atxikitzen zaie: Ixa Taldea. A motako Talde Finkatua (Eusko Jaurlaritzza: IT-1570-22) eta HARTAvas (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, MCIN: PID2019-109683GB-C22).



oinarrizkoak ziren, baliabideak urri, nazioarteko zientzia kontsultatzeko aukerak, zailak; baina bagenuen urteekin baloratzen ikasi dugun altxor bat: euskara batuaren definizioa, eta bere barruan guretzat ezinbestekoak ziren bi osagai: lexikoa eta morfologia. Horrez gain, arauari jarraitzen zioten testuak eta lankidetzarako prest zegoen komunitate zabal bat. Hori gabe nekez lortuko genuen urte hauetan lortutakoa, Xuxen zuzentzaile ortografikoa edo artearen egoeran dagoen itzultzaile automatikoa, esaterako. Miren Azkarate komunitate horren partaide eta bidelagun izan dugu hasieratik. Ez da kasualitatea, Ixa taldean egindako hizkuntzalaritzako lehen tesian (Urkia 1997) Miren Azkarate zuzendari izatea. Lehen kolaborazioa estua izan zen, baina ez zen azkena izan. Izan ere, Ixa taldeko hainbat eta hainbat tesitako epai-mahaietan partaide izan da eta ikerketa-proiekturen batean ere lankide.

Horrela, morfologia konputazionalaren funtsa eta bilakaera, eta bereziki euskararen gainean egindako aplikazioak, joango gara azaltzen artikuluan honetan. Atalen banaketa bi ardatzen gainean dago eraikita: teknologiaren bilakaera eta izaera, batetik, eta eratorritako aplikazioak, bestetik. Teknologiar dagokionez, ezagutza linguistikoa oinarritutako ereduak ohikoak eta nagusi (izan) dira morfologian, baina hurbilpen estatistikoan, eta, batez ere, ikasketa sakonean oinarritutakoak ugalduz joan dira azken urteotan, horietako asko datuak eta gramatikak eskuragarriak ez dituzten hizkuntzetarako (edo dialektoetarako). Aplikazioei dagokienez, ezagunena eta erabiliena zuzentzaile ortografikoa da, baina irakaskuntzarekin, itzulpen automatikoarekin edo bertso-gintzarekin lotutakoak ere aipagarriak dira.

Horrela, euskal morfologiaren modelizazio konputazionala azalduko dugu bigarren atalean, modelizazio horretatik abiatutako zenbait aplikazio ikusiko ditugu hirugarrenean, eta azken urteotan arloko ikergai den morfologiaren inferentzia, datuetatik informazio morfologikoa erauztea, hain zuzen ere, laugarren kapituluan. Amaieran dator ondorioak eta etorkizunari begirako gakoak biltzen dituen atala.

2. EUSKAL MORFOLOGIAREN MODELIZAZIOA

Esan bezala, Ixa taldeak, sorreratik, estrategia bat definitu zuen euskararen prozesaketa modu iraunkorrean garatu ahal izateko (Aduriz *et al.* 2011), eta estrategia horren barruan lexikoak eta morfologiak erabateko lehentasuna zuten. Artikuluan azaltzen denez, strategiaren puntu nagusiak hauek ziren:

- Hasieran oinarrizko baliabide eta tresna sendoak sortu behar dira.
- Lexiko-morfologia-sintaxia-semantika progresioa aplikatu behar da.
- Formatu estandarrak erabili behar dira.
- Ahal den guztietan saiatu behar da software librea erabiltzen eta sortzen.

Horrela, bada, lexikoari eta morfologiari ekin genion. Euskara batuaren lexikoa eta gramatika aztertuta, lexikoaren datu-basea osatzera jo genuen eta morfologia modelizatzeko formalismo baten bila hasi ginen, euskal morfologia konputazionalki landu ahal izateko.

Eredu baten bila, arloko antzeko lanak bilatzen hasi eta ageriko kontu batekin egin genuen topo, alegia, ikerketa gehiena ingeleserako egiten zela eta ingeleserako aplikatzen ziren tresnak ez zirela egokiak euskara bezalako hizkuntza eranskari bati aplikatzeko. Eranskaria izanda, ingelesak baino morfologia aberatsagoa du euskarak.² Hizkuntzen tipologia morfologikoaren inguruko sailkapenetik dator eranskari terminoa, morfemen fusioaren edo uztartze mailako irizpidea aplikatuta. Horrela, hizkuntza eranskarietako hitzen morfemek esanahi bakarra dute, bakoitzak bat, eta ez dago fusiorik, latinean topatzen ahal dugun moduan, non morfo bakarrak morfema bati baino gehiagori egiten baitio erreferentzia. Espero izatekoa da, beraz, hizkuntza eranskarietan morfema kopuru altuagoa hitzeko, beste hizkuntza malgukariek edo flexiboekin konparatuta. Are gehiago, hizkuntzen sailkapen morfologikorako tipologia erabiltzen den beste irizpidea aplikatuta, hots, sintesiarena. Irizpide honi jarraituz, kontuan hartzen da hitz batek dituen morfema kopurua. Sailkapen honetan daude hizkuntza analitikoak, isolatzaileak ere deituak, morfema bakarrek, eta beste muturrean, polisintetikoak, hiru morfema baino gehiago dituztenak hitzeko. Tartean eranskariak daude. Hizkuntza bakartzaileen eredurik argiena txinera da eta ingelesa ere bai, neurri handi batean. Esan dezagun, hala ere, sailkapen honetako kategoria hauek guztiak idealak direla, hizkuntza-tipologia puruei dagozkielako. Hizkuntzak, ordea, ez dira tipologikoki puruak, baina hurbiltzen dira ideal horietara. Hori dio, adibidez, Manterolak bere artikuluan euskararen eranskaritasunari buruz, nahiz eta ikuspegi diakronikoa izan (Manterola 2008).

Gauzak horrela, behin informazio lexiko eta morfologikoa ordenagailuan txertatua izan genuenean erraza izan zitzaigun frogatzea euskal morfologiaren aberastasuna. Eta frogatuta geratu zen euskararen aberastasun hori forma flexionatuak sortzeko duen ahalmen izugarrian dagoela. Aberastasun horren adibideak ditugu honako hauek (Alegria 1995: 70):

Adibidez, izen-sarrera batetik abiatuz 135 forma flexionatu lor daitezke gutxienez. Horietako 77 determinazioa, numeroa eta deklinabide-kasua konbinatuz lortutako forma ez-emankorrek diren bitartean, gainerako beste 58ak forma emankorrek dira bi genitiboetako batez bukatutako forma sinple edo deklinatuak baitira. Genitiboen atzetik teorikoki hasierako eman-kortasun-ahalmen guztia dago, genitiboaren atzetik flexiorik agertzean elipsi bat dago eta. Elipsi bat baino gehiago posible izanik, atzizki-hartzea

² Horrela aipatzen da, adibidez, SEG gramatikan: «Egia da euskaraz morfologiak garrantzi handia duela, hizkuntza eranskaria baita (izen sintagmari dagokionez) eta aditza bera ere morfologia aldetik oso aberatsa baita». (Salaburu, Sareko Euskal Gramatika, SEG).

errekurtsiboa izan liteke, maila teorikoan behintzat, eta ondorioz, eman-kortasun-ahalmena infinitua litzateke. Izan ere, elipsi bat baino gehiago agertzea ohizkoa ez bada ere oso arraro ez diren forma batzuek bi elipsi edo gehiago dute. Aurrekoaren ondorioz eta bi elipsi kontuan hartuz izen bati dagozkion forma flexionatuak honako hauek lirateke : $77 + 58$ ($77 + 58$ ($77 + 58$)) = 458683 (Agirre *et al.* 92). Izen bakoitzeko horiek baino gehiago ezagutzeko eta sortzeko gai izan behar du euskararako prozesadore morfologiko batek (Alegria 1995; Alegria *et al.* 1996). Emankortasun morfologiko hori adjektiboen kasuan are handiagoa da, gradu-flexioa dela eta lau aldiz handiagoa baita.

Egoera honen aurrean, esan bezala, ez zen erraza izan aurkitzea morfologia konplexu bati aurre egiteko gaitasuna izango lukeen formalismo bat. Zorionez, Lauri Karttunen eta Kimmo Koskenniemi finlandiarrek proposamen interesgarriak eginak zituzten, eta bigarrenengoaren tesian oinarritu ginen deskribapen morfologikoaren osagaiak modelizatzeko eta prozesatzeko programak idazteko orduan.

Argitaratutako lehen artikuluan (Agirre *et al.* 1991), Elhuyar aldizkari historikoan, formalismo horren ezaugarri nagusiak azaltzen ziren:

- Eredu orokorra da, edozein hizkuntzari aplika dakiokena.
- Ezagutza linguistikoa eta algoritmoa bereizi egiten ditu eta, ondorioz, programa berak edozein hizkuntzatarako balio dezake.
- Baliagarria da hitzen analisi morfologikorako zein hitz-sorkuntzarako.
- Analizatu edo sortuko den hitzaren azaleko maila eta hiztegiko sisteman (sistema lexikoan) errepresentatzen den maila lexiko edo sakonekoa argi eta garbi bereizten ditu.

Programazioari dagokionez, zoritxarrez zeuden bi inplementazioak ez ziren libreak, eta gureari ekin genion C lengoia erabilia (PCetan eraginkortasunez exekutatu ahal izateko) (Alegria 1995). Gaur egun martxan dagoen arren, bi inplementazio aurreratu eskuratu genituen hurrengo hamarkadetan: Xerox enpresak lizentziatutakoa garai batean, eta Mans Hulden-ek software librean sortutako Foma³ azken urteotan (Alegria *et al.* 2009). Software librearekin posible izan da baliabide urriko hizkuntza askotarako halako prozesadoreak garatzea (gaur egun 40tik gora izango dira).

Ikuspuntu linguistikotik interesgarriena eta zailena formalismoaren osagaiak ondo definitzea izan zen. Bi osagai nagusi ditu (Agirre *et al.* 1991, Alegria 1995, Urkia 1997, Alegria & Urkia 2002): sistema lexikoa eta erregela morfologikoak.

³ Foma Mans Hulden-ek sortutako egoera finituko automatak eta transduktoreak erabiltzeko kode ireki eta libreko tresna multzoa da.

Sistema lexikoa. Sistema lexikoan morfema-multzoa definitzen da, morfemen artean egon daitezkeen kateamenduen arabera sailkapena eginez (morfotaktika edo paradigmak deitzen zaio atal horri). Definitutako azpilexiko horiez gain, lemen eta aurrizki/atzizkien sekuentzia posibleak arautzen dituzten jarraitze-klaseak ere definitzen dira, azpilexiko multzoak direnak.

Morfemak definitzean «bi mailak» definitu behar dira, azaleko forma (*zakur*, *da* zein *Gasteiz* lemak, edo *-ri* eta *-la* atzizkiak, esaterako), eta sakoneko forma informazio morfologikoarekin. Horrela *-ri* atzizkiari dagokion informazioa datibo mugagabea da, eta sakoneko informazioa *Ri* da. *R* hori marka bat da (bi motatakoak dira, morfofonema eta hautapen-markak; aipatu den kasuan, morfofonema da), adierazteko bokal ondoren *r* hori gauzatu behar dela, baina kontsonante ondoren ez. Adibidez, *zakur* leman azken *r*-a markatzen da (*zakuR* esaterako) *r* gogorra dela adierazteko, eta *da* formaren kasuan marka bat jartzen da amaieran adierazteko *a* hori *e* bihur daitekeela *-la* eta *-n* moduko atzizkien aurrean.

Erregela morfofonologikoak. Transformazio morfofonologikoen eraginez sakoneko eta azaleko mailen artean sortzen diren diferentziak adierazteko erregelak erabiltzen dira. Erregela horiek automata edo transduttore bihurtzen dira, normalean konpiladore baten bitartez (hasiera hartan eskuz egiten genuen). Konpiladorearen arabera aldatzen dira erregelak idaztean erabiltzen diren sinboloak (espresio erregularretatik gertu, beti), eta *r*-aren kasuan, adibide sinplifikatu bat emanez, hauexek lirajteke aipatutako Foma konpiladorerako erregelak:

$R \rightarrow r \parallel _ \llcorner \llcorner \ggtracket$ Bokal ; # *R* gogorra bikoizten da bokal aurrean
Adibidea: *zakuR*+*a* -> *zakurra*

$R \rightarrow r \parallel \llcorner \llcorner \ggtracket _ \llcorner \llcorner \ggtracket$ Bokal; # *R* mugagabeko marka *r* da bokal aurrean
Adibidea: *ume*+*Ri* -> *umeri*

Garapen hura talde-lana izan zen, lan handia eta emankorra, hainbat argitalpen, batzuk nazioartekoak (Alegria *et al.* 1996), eta bi tesi sortu baitziren, aipatutako Alegriarena eta Urkiarena. 60.000 sarrera baino gehiago sartu ziren datu-basean (EDBL, Euskararen Datu-Base Lexikala) eta hogeita hamar bat erregela konplexu sortu ziren. Urteetan zehar deskribapena, lexikoa batez ere, aberastuz eta arau berrietara egokituz joan da, eta gaur egun ere euskararen prozesaketarako oinarritzko elementua da. Gainera, taldeko hurrengo tesiatarako eta aplikazioetarako oinarri garrantzitsua izan zen. Adibidez, Itziar Adurizek, hizkuntzaren aldetik eta Nerea Ezeizak, alde informatikotik, beren tesietan (2000 eta 2002, hurrenez hurren), urrats bat gehiago eman zuten anbiguotasun morfosintaktikoa ebatzi ahal izateko, hitzak analizatu ondoren analisi posibleen artean erabakitzeke (adibidez, *zuen* forma aditz laguntzailea edo izenordaina den erabakitzeke).

Bestalde, aukera izan dugu aholkulari gisa aritu eta, beste hizkuntzetako prozesadore morfologikoetako garapenean laguntzeko, morfologia konplexuko eta baliabide urriko hizkuntzetan batez ere. Zehazki, bi mailatako morfologia edota Foma honako hizkuntza hauetan baliatu dute: kitxua, aimara, guarani, nahuatl eta maputxe.

3. APLIKAZIOAK: XUXEN, ITZULPEN AUTOMATIKOA, BERTSOGINTZA ETA BESTE

Analizatzaile morfologiko izenarekin jende gutxik irudikatzen du zenbat aplikazio sor daitezkeen. Baina oinarri horrekin oso tresna interesgarriak gara daitezke, batez ere aukeratutako formalismoarekin, non analisisiaz gain sorkuntza ere lor baitaiteke. Asko dira oinarri horretatik egin diren erabilpenak. Hona hemen horietako batzuk:

- Zuzenketa ortografikoa: hitz batek analisisia badu zuzentzailearen hiztegiaren parte da, bestela ez (eta azpimarratzen da). Proposamenak sortzeko modulu bat gehitu behar da, eta horretarako sorkuntza morfologikoak laguntzen du.
- OCR (Optical Character Recognition): zuzenketa ortografikoaren parekoa da, baina zuzenketa egiteko karaktereen formarekin lotutako erregelak gehitu behar dira, eta akatsak automatikoki ordezkatzeko aukera.
- Hitzen normalizazioa: testu historikoetan, dialektaletan edo sare sozialetan maiz erabiltzen diren aldaerak identifikatzea eta dagozkien forma estandarrekin lotzea funtsezkoa da halako testuetan (Etxeberria 2016). Erregela fonologiko eta lexiko gehigarriekin azkar gara daiteke halako sistema bat, nahiz eta ataza horretarako, batzuetan, inferentziak emaitza hobek eman, gero ikusiko dugunez.
- Ikasleentzako laguntzak. Jokoak sortzeko, hiztegi-kontsultak errazteko edo ariketak automatikoki sortzeko tresna interesgarria da. *Nor-nori-nork* taula lantzeko joko bat egitea oso sinplea da, adibidez; edo *dagozkion* moduko aditz-forma jokatuak hiztegian bilatzen laguntzeko (halakoak, noski, ez baitaude zuzenean hiztegian).
- Itzulpen automatikoan laguntzeko. Ezagutzan oinarritutako eremuan analisi eta sorkuntza morfologikoak ezinbesteko elementuak dira; nahiz eta, gero ikusiko dugunez, gaur egungo sistema eraginkorrenetan beste modu batez egiten den.
- Bertsotan ikasteko edo automatikoki osatzeko elementu garrantzitsua da, errima egiaztatzea edo sortzea nahiko erraz gertatzen baita.

Azken bi aplikazioak eta zuzenketa ortografikoarena aztertuko ditugu apur bat sakonago ondoko azpiataletan.

3.1. Xuxen

Xuxen zuzentzaile ortografikoa (<https://eu.wikipedia.org/wiki/Xuxen>) izan zen analizatzaile ortografikoaren lehen aplikazioa, eta bai arrakastatsuen ere. 1994an sortutako lehen bertsioa, EHUko Ixa taldearen, UZEIren eta Baionako Hizkia enpresaren artean merkaturatua, aparteko programa bat zen, testu-editoreetatik independentea. PC edo Mac batean MS-Word edo WordPerfect-ekin testua editatu eta amaitu ondoren zuzentzea errazten zuen formatu-kontu guztiak errespetatuz. Hasieran garestia zen, eta nagusiki argitaletxeetan eta irakaskuntzan erabili zen. Euskara batua finkatzeko berebiziko tresna izan da. Izan ere, esan dezakegu Xuxen laguntza handikoa izan dela azken bi hamarkada hauetan, euskara idatziaren normalizazioan, Euskaltzaindiaren hiztegi-arauak eta gomendioak kaleratu eta gutxira normaltasunez onartuak eta erabiliak izan zitezten. Kontuan izanik, gure ustez, baturaren etorkizuna euskararen etorkizuna dela (Aduriz *et al.* 2018), aplikazio giltzarria dugu normalizazioaren bidean.

Euskarak duen konplexutasun/aberastasun morfologikoa dela eta, hitz bat ondo dagoen ala ez erabakitzeke ezin zen, beste hizkuntza batzuetarako egiten zen bezala, hitz-zerrenda batean oinarritu; lema batetik abiatuta sor daitezkeen zilegi diren formak asko direnez, zerrenda izugarria izango bailitzateke. Hori dela eta, egindako hurbilpena teknologia aldetik oso berritzailea izan zen, zuzentzaile gehien-gehienak hitzetan oinarritzen baitziren, eta ez morfologian (Aduriz *et al.* 1997). Esan bezala, analisirik ez zuen edozein hitz susmagarritzat jotzen zuen, eta, ondorioz, azpimarratu egiten zuen. Gainera, bi ezaugarri ahaltsu zituen:

- Proposamenak egiteko ohiko bideez gain (hitzaren karaktere bat gehitzea, aldatzea edo ezabatzea) «ohiko akatsak» hartzen zituen kontuan. Horretarako erregela morfofonologiko eta lexiko-sarrera berriak idatzi ziren. Adibidez, lexikoan *haundi* lema gehitu zen dagokion *handi* estandarrarekin lotuta. Erregelei dagokienez, hainbat fenomeno aurreikusten ziren: *h*-a ez jartzea, *x/j* aldaketa, *o/u* nahastea lemaren amaieran, erdararen eraginez *v* edo *c* idaztea, esate baterako.
- Erabiltzailearen hiztegia. Hitz-forma berriak gehi zitezkeen, eta, horri esker, aurrerantzean hitz-forma hori ez ezik, haren flexio osoa ezagutuko zen, beste ezer egin gabe. Erabilpen teknikorako oso garrantzitsua den ezaugarria, eta zoritxarrez, gaur egungo sistemetan integratzen ez dena.

Arrakastatsua izan arren, ortografia testua amaitu ondoren egiaztatu behar zen, ez baitzegoen integratuta testu-editoretan, Word eta Word Perfect-eko formatua errespetatzen bazuen ere. Hori dela eta, eskaera handia zegoen integratuta egon zedin ohiko testu-editoretan, batez ere argitaletxeetan eta administrazioan.

Microsoftekin akordioa bideratu eta gero, hala gertatu zen; eta hurrengo urteetan, Eleka-Elhuyarrek egindako lanari esker, beste enpresa batzuetako aplikazioetan integratzen joan da (<http://xuxen.eus/eu/deskargatu>). Software librearen bertsioa ere lortu zen, nahi baino beranduago, morfologikoki konplexu diren hizkuntzetarako zeuden zuzentzaile estandarrak desegokiak zirelako (Alegria *et al.* 2011). Hungariatik proposatutako *Hunspell* estandartzat hartu zenean, berriz, dena erraztu zen.

Hizkuntzaren aldetik, osatuz eta eguneratuz joan da, eta zuzentzaile ortografiko berriak sortu dira euskararako: Hobelex (UZELk kaleratua eta ezagutza berean oinarritua) edo multinazionalak gaur egun, zorionez, eskaintzen dituztenak (Microsoftena dagoeneko ez da Xuxen, eta Google Docs-ek berea du).

Bizkaierarako ere bertsio bat egin genuen enkarguz Eleka-Elhuyarrek in batera (Alegria *et al.* 2010), Labayrurekin lankidetzan. Datu-basean forma berriak sartu ziren lehenetsitako estandarrekin lotuta (*deutso-dio*, *uri-hiri*, *gixi-gutxi*...) eta hautazko erregela morfologikoki berriak gehitu ziren morfemetan eta azalean aldaketak eragiteko (*-sino -> -sio*, *-e->-a*, *-ea->-a*, esate baterako, *television/televizio*, *laballabe* eta *alabe/alaba* onartu eta proposatu ahal izateko). Arrakasta mugatua izan da, bizkaiera «estandarizatua» ez dagoelako ondo definituta, besteak beste.

3.2. Beste aplikazioak: itzulpen automatikoa eta bertsolaritza

Morfologia funtsezko osagaia dugu itzulpen automatikoan ere, ezagutzan oinarritutako teknologian erabiltzen denean, batez ere. Gaztelania-euskara (es-eu) bikoterako garatu genuen Matxin itzultzailean (Mayor 2007), deskribatu dugun prozesadore morfologikoa berrerabili genuen, baina analisiari baino gehiago sorkuntzari atera genion etekina.

Gaur egun, itzulpen automatikoan emaitza onenak sistema neuronalekin lortzen dira, baina horretarako testu-masa handiak behar dira. Egoera horretan ez dauden hizkuntzen kasuetan, ezagutzan oinarritutako hurbilpena erabiltzen da oraindik.

Bertsolaritzari dagokionez, prozesadore morfologikoak erraztu zигun bertsogintzako hainbat ataletan errima egiaztatzea eta hitz errimatuak sortzea, batez ere, eta neurria kontrolatzea.

Lehen urrats batean (Arrieta *et al.* 2001), hitz errimatuak gure inplementazioa erabiliz sortzea izan zen helburua, hitzak eta morfema-sistema osoa atzekoz aurrera bihurtu genituen, horrela posible eginez sorkuntza abiatzea amaieratik hasita.

Bigarren urrats batean (Agirrezabal 2012), aurreko elementua asko sinplifikatu genuen, garaiko teknologiak ahalbidetzen zuelako konpilazio automatikoan

reverse eragilea erabiltzea. Gero, eta teknologia berarekin silaba-banatzaille edo -kontatzaile batekin osatuta, bertso-bilketa bat egin zen eta bertso-eskoletako ikasleei begirako aplikazio bat garatu zen (arbel digitala). Eta azkenik, Bertso-bot izeneko proiektuari hasiera eman genion, non epe luzeko helburua zen adimen artifizialeko erronka handi bati ekitea: bertso-sorkuntza.

2012rako eginak zeuden hurbilpen oinarritzkoenak: 1) Memoria hutseko lana, 2) Corpusen gaineko bilaketa arrunta, eta 3) Corpusen gaineko bilaketa adimenduna. Horrez gain, sorkuntza librean urrats batzuk eman ziren.

Hortik aurrera, Bertso-botek garapen interesgarria izan du EHUko beste talde bitan: robotikan (Astigarraga 2019) eta kantaeraren sorkuntzan (Sarasola 2020). Aurrerapen horiekin guztiekin, eta adimen artifizialean testu-sorkuntzan gertatzen ari diren aurrerapen izugarrieekin ez litzateke harriztekoa laster Bertso-bot errealitatea izatea.

4. MORFOLOGIAREN INFERENTZIA

Aipatutako Koskenniemiaren eta Karttunenek ekarpenetatik abiatuta egoera finituko morfologia asko garatu zen, eta horrek euskarari eta morfologikoki konplexu diren beste hizkuntza askori lagundu zien irtenbide konputazionala bideratzen. Ildo horretatik, Karttunen-ek esan zuen «from a computational point of view morphology was a solved problem» (Karttunen 2007). Hizkuntza semitikoetarako ere irtenbidea bilatu zitzaion bi mailako ereduari mailak gehituz.

Baina, zer gertatzen da hizkuntza baten lexikoa eta arau morfologikoak ezezagunak direnean? Edo, ezagutu arren, garapen konputazional azkar bat egin nahi dugunean? Hor aukera interesgarria izan daiteke morfologia inferitzea. Azken bi-hiru hamarkadetan funtsezko ikergaia bihurtu da, bi urratsetatik igaroz: eredu estatistikoa eta ikasketa sakona.

4.1. Eredu estatistikoa

Testu hutsetatik abiatuta hitzak osatzen dituzten morfemak inferitzea proposatu da. Metodoen oinarria testuetako hitzen hasierak eta, batez ere, amaierak estatistikoki aztertzean datza, aurrizkiak, artizkiak eta atzizkiak identifikatuz, eta bide batez stem-ak (azaleko lema edo sasi-lema). Azaleko mailan lan egiten duten metodo hauek, beraz, forma kanonikoen ordeztu hitz-zatiak identifikatzen dituzte, aldaketa morfofonologikoak kontuan hartu gabe (horregatik lema baino stem-ak identifikatzen dira).

Arrakasta handienetako metodoen artean Morfessor aipa daiteke, flexio handiko hizkuntzetarako egokia delako. Ixa taldeko tesi batean (Etxe-

berria 2016) tresnaren funtsa azaltzen da eta euskararen testu historikoei aplikatzen zaie (garaiko osagai morfologikoak identifikatu nahian). Etxeberriak (2016: 141) dioenez:

...tresnaren helburua da hizkuntza-eredu bat indultzzea modu ez-gain-begiratuan testu hutseko corpus batetik abiatuta. Oinarrizko hizkuntza-eredua (Baseline model deitzen diote) morfemaz osatutako lexikoi bat da (M), beraz, helburua da lexikoi onena bilatzea sarrerako corpora segmentatzeko.

Eta adibideak ere ematen ditu:

Horrela lortu ditugu, esaterako, *amoreakgatik* → amore + ak + gatik edota *elkharri* → elkhar + ri moduko segmentazioak...

Itzulpen automatiko neuronalean oso hedatua dagoen BPE metodoa (Senrich *et al.* 2015) ere saiatzen da atzizki adierazgarriak lortzen hitz ezezagunetan, eta bide batez hitz horiei dagozkien lemak asmatzen. Euskararako ere erabili izan da eta emaitza onak ematen ditu.

Baina Etxeberriaren tesian helburu nagusia testu historikoen normalizazioa da, eta horretarako forma historiko bakoitza gaur egungo idazkeran dagoen forma estandarrekin lotzen da, testu historikoen kontsulta errazteko asmoz (Estarrona *et al.* 2020). Hori lortzeko, erregela morfofonologikoak inferitzen dira, baina ezagutzen oinarritutakoetan ez bezala sortzen diren transduktoreak eredu probabilistiko batean konbinatzen dira. Horrela, *amoreakgatik* lotzen da *amorengatik* forma estandarrekin eta *elkharri*, *elkarri* formarekin, eta horretarako *ak/en* aldaketa ikasten da, baita *h*-ren galera ere zenbait testuingurutan. Tesian frogatzen da helburu horretarako ezagutzen oinarritutako erregelatan baino emaitza hobekien lortzen direla eredu estatistikoekin, betiere eskuz prestatutako bikote (aldiera/estandarra) zerrenda batetik abiatuta.

Teknika estatistiko horiek testu historikoak edo dialektalak prozesatzeko asko erabiltzen dira, baita OCR (*Optical Character Recognition*) akatsak zuzentzeko edo sare sozialetako testuak normalizatzeko ere.

4.2. Ikasketa sakona morfologian aplikatuta

Aipatu den bezala, azken urteotan morfologia konputazionalaren ikerkuntzan lerro nagusia morfologia inferitzea izan da, hau da, adibideetatik paradigmak eta aldaera fonologikoak orokortzea, salbuespenak ere bereiziz. Horretarako bide emankorrenetako bat *shared task* edo partekatutako atazak izan dira. Horietan erronka bat planteatzen da modu irekian, eta mundu osoko edozein ikertzaile edo ikertzaile taldek parte har dezake solu-

zio onena bilatzen. Horrelako erronketan ohikoak izaten dira ikasketa sakon-ean oinarritutako sistemak, eta morfologia konputazionala ez da salbues-pena izan.

Horren adibidea SIGMORPHON ataza partekatua da. Hasieran helbu-rua datuetatik abiatuta sortzaile morfologikoak garatzea izan zen eta aurre-rago bestelako atazak gehitu zituzten. Morfologiara aplikatutako ikasketa sakonaren gorakada nagusia LMU-MED (Kann & Schütze 2016) sistemare-kin hasi zen, 2016an (Cotterell *et al.* 2016), non Kann-en sistema hoberena izan zen beste guztiakin alderatuta, eta sistema neuronalen egokitasuna age-rian geratu zen ataza honetarako. Hurrengo urteetan ataza partekatuetan era-bili ziren sistema gehienek modu batean edo beste batean ikasketa sakoneko ereduren bat erabili dute, dela LSTMdun sare errekkurrenteak edo gaur egun puri-purian dauden *Transformer* ereduak. Ataza horietan frogatuta geratu da datu nahikoa eskura izanez gero, sortzaile morfologikoak sortzea erlatiboki erraza dela.

Azken urteotan, baina, interesa piztu dute datu gutxirekin sortutako sis-temek eta honako galderi erantzuten saiatu dira: zenbat aditz jokatu behar ditugu aditzetarako sortzaile morfologiko bat sortzeko? Horrelako galde-rak planteatu zituzten 2018ko sorkuntza morfologikoko ataza partekatuan, non 100 hizkuntzatarako sortzaile morfologikoak sortzea zen ataza. Datu gutxi zuten hizkuntzetan enfasia egitearren, hiru modalitatetan lan egiteko aukera eskaini zuten: txikia, ertaina eta handia; entrenamendurako, berriz, 100, 1.000 edo 10.000 datu-instantzia ematen ziren. Gai hauetan egiten di-ren aurrerapenak baliabide urriko hizkuntzetarako baliagarriak izan daitezke. 100 hizkuntza horien artean euskara zegoen eta sistema onenak, % 98,90ko asmatze-tasa izan zuen datu-multzo handienarekin, % 88,10ekoa datu-mult-zo ertainarekin eta % 13,30ekoa txikienarekin.

Orokorrean, urtez urte emaitzak hobetuz badoaz ere, badaude oraindik mugak. Egoera finituko makinetan (FSM) oinarritutako sistemak oso era-ginkorrak dira, teorikoki modu oso konpaktuan sistema oso konplexuak kodetzen baitituzte. Gainera, jakintza linguistikoa eskuz kodetuta dagoe-nez, arazo bat baldin badago, nahiko erraza da arazoaren muina aurkitu eta konpontzea. Sistema neuronalen arazo bat, berriz, gaur egun puri-pu-rian dagoena, irakurgarritasun edo interpretabilitatea da. Sare neuronaletan oinarritutako sistema guztiak sarrerako edozein datu emanik emaitza bat itzultzen dute, eta askotan irteera hori nola eta zergatik itzuli duten inter-pretatzea ez da erraza. Horregatik, maiz sare neuronalok kutxa beltzak di-rela esan ohi da.

Bestalde, ematen du ikasketa sakoneko hurbilpenean, oro har, informa-zio linguistikoa ez duela toki handirik eta, corpus erraldoiak izanez gero, emaitza ona itzultzen duela, askotan, informazio linguistikoa erabiliko ba-genu baino hobea, itzulpen automatikoko hainbat kasutan ikusi izan dugun

bezala. Hala ere, badira ahotsak itsu-itsuan ibiltze horrekin oso ados ez, eta informazio linguistikoa oinarrian erabilia sistema neuronalak martxan jarri dituztenak, emaitzak hobetuz morfologian (Nzeyimana & Niyongabo Rubungo 2022).

5. ONDORIOAK

Hogeita hamabost urte luze joan dira, estreinako euskararen morfologia konputazionalaren tratamenduari ekin genionetik. Denbora joan da, beraz, eta denbora horretan zehar aurrera egin du morfologia konputazionalak, bilakaera historikoan ikusi dugun bezala, hainbat eredu desberdinen garapenarekin.

Horren guztiaren adibide gisa, Ixa taldean morfologiak izandako ibilbidea ikusi dugu, eta agerian geratu da modulu morfologikoa dagoela hainbat tresna eta aplikazioen oinarrian. Seguru asko, Xuxenek, aplikazio ezagunena izateaz gain, eragin nabarmenena izan du euskara batuaren normalizazioan.

Eta ez da kasualitatea, azkenean, izenburuan aipatzen diren 35 urte horietako estrategia eta ikerkuntza dago atzean. Ixa taldeak hizkuntzaren tratamendu automatikoaren arloan egiten du ikerketa, eta euskararen tratamendua du ardatz: hor daude, besteak beste, oinarritzko tresna eta baliabideak, hainbat eta hainbat aplikaziotan euskara presente egotea, webean kontsultagarri dauden corpus eta hiztegiak, bertako eta nazioarteko kongresu eta aldizkarietan egindako argitalpenak. Ixa taldeak mantentzen ditu Xuxenen oinarri den hiztegia —EDBL— eta Xuxenen motorra; izan ere, euskarazko zuzentzailea ez baita hiztegi huts batean oinarritzen, segmentatzaile morfologikoa behar baitu hitz bat zuzen idatzita dagoen ala ez erabakitzeko.

Ondorio nagusi gisa, puntu hau azpimarratu nahi dugu: euskararen etorkizunari begira, oro har, eta bereziki, hizkuntzak ingurune digitalean dituen erronkei begira, funtsezkoa da hizkuntza-teknologiaren arloak duen garrantzi estrategikoa azpimarratzea eta inplikaturiko eragile guztien indarrak biltzea.

Esker onez

Lan honen bukaerara iritsi gara xuxen-xuxen eta, esker-hitzak idazteko unea dugu. Hitz egokirik ezin aurkitu Miren Azkarateri gure esker on guztia adierazteko.

Sarreran aipatu bezala, Ixa taldearen lanen baitan, morfologia konputazionalerako lehen tesia berak zuzendu zuen: Miriam Urkia euskaltzainarena, hain zuzen ere (Urkia 1997).

Horren ondoren, halaber, hainbat eta hainbat ixakideren tesietan egon da epaimahaian. Hauexetan:

Itziar Aduriz (Aduriz 2000), Mikel Lersundi (Lersundi 2005), Maxux Aranzabe (Aranzabe 2008), Ruben Urizar (Urizar 2012), Aitziber Atutxa (Atutxa 2014), Mikel Iruskieta (Iruskieta 2014) eta Uxoia Iñurrieta (Iñurrieta 2019).

Tesi horietako gaiak askotarikoak dira. Morfologia bai, Adurizenean, adibidez, baina sintaxia ere bai: Aranzaberenean edo Atutxarenean, adibidez. Mirenek hain gogoko duen eratorpenetik pasatuz (Lersundirenean), edo hitz-konbinazioen gaia ukituz (Urizarrenean eta Iñurrietarenean).

Honek erakusten du Miren Azkarateren ezaugarri handienetako bat: euskara maite du eta, euskaltzalea denez ezinezkoa da aurkitzea haren interesekorik ez den euskarari buruzko gairik.

Mila esker.

6. BIBLIOGRAFIA

- Aduriz, Itziar, Miriam Urkia, Iñaki Alegria, Xabier Artola, Nerea Ezeiza & Kepa Sarasola. 1997. A spelling corrector for Basque based on morphology. *Literary and Linguistic Computing* 12(1). 31-38. <http://ixa.ehu.es/node/3350>.
- Aduriz, Itziar. 2000. *EUSMG: Morfologiatik sintaxira murriztapen gramatika erabiliz. Euskararen desanbiguazio morfologikoaren tratamendua eta azterketa sintaktikoaren lehen urratsak*. PhD Thesis. UPV/EHU. <http://edtb.euskomedia.org/id/eprint/5790>.
- Aduriz, Itziar, Iñaki Alegria, Xabier Artola, Arantza Díaz de Ilarraza & Kepa Sarasola. 2011. Teknologia garatzeko estrategiak baliabide urriko hizkuntzetarako: euskararen eta Ixa taldearen adibidea. *Linguamática* 3(1). 13-31. <http://ixa.ehu.es/node/3873>.
- Aduriz, Itziar, Iñaki Alegria, Izaskun Aldezabal, Xabier Artola, Arantza Díaz de Ilarraza, Nerea Ezeiza, Kepa Sarasola & Ruben Urizar. 2018. Euskara (batua) ingurune digitalean: bidean ikasiXa eta etorkizuneko erronkak. In *Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra (Arantzazutik mundu zabalera)*. Arantzazu. <http://ixa.ehu.es/node/12744>.
- Agirre, Eneko, Iñaki Alegria, Xabier Arregi, Xabier Artola, Arantza Diaz de Ilarraza, Patxi Goenaga, Montse Maritxalar, Kepa Sarasola & Miriam Urkia. 1991. Bi mailatako morfologiaren euskararako egokitzapena. *Elhuyar* 17. 6-14. <https://www.ix.ehu.es/node/3365>.
- Agirre, Eneko, Iñaki Alegria, Xabier Arregi, Xabier Artola, Arantza Diaz de Ilarraza, Montse Maritxalar, Kepa Sarasola & Miriam Urkia. 1992. XUXEN: A spelling checker/corrector for Basque based on Two-Level morphology. In *Third Conference on Applied Natural Language Processing*, 119-125. <https://aclanthology.org/A92-1016/>.

- Agirrezabal, Manex. 2012. *BertsoBot: lehen urratsak*. Master Amaierako Lana. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/11253>.
- Alegria, Iñaki. 1995. *Euskal morfologiaren tratamendu automatikorako tresnak*. Doktore Tesia. UPV/EHU. https://www.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Inaki_Alegria_TESI.pdf.
- Alegria, Iñaki & Miriam Urkia. 2002. *Morfologia konputazionala: euskararen morfologiaren deskribapena*. Udako Euskal Unibertsitatea. <http://ixa.si.ehu.es/node/3341>.
- Alegria, Iñaki, Xabier Artola, Kepa Sarasola & Miriam Urkia. 1996. Automatic morphological analysis of Basque. *Literary and Linguistic Computing* 11(4). 193-203. <http://ixa.si.ehu.es/node/3355>.
- Alegria, Iñaki, Garbiñe Aranbarri, Klara Ceberio, Gorka Labaka, Bittor Laskurain & Ruben Urizar. 2010. A morphological processor based on foma for Biscayan (a Basque dialect). In *Proceedings of the Seventh International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'10)*. <https://aclanthology.org/L10-1096/>.
- Alegria, Iñaki, Izaskun Etxeberria, Mans Hulden & Montse Maritxalar. 2009. Porting Basque morphological grammars to foma, an open-source tool. In *International Workshop on Finite-State Methods and Natural Language Processing*, 105-113. Springer. https://doi.org/10.1007/978-3-642-14684-8_11.
- Aranzabe, Maxux. 2008. *Dependentzia-ereduan oinarritutako baliabide sintaktikoak: zuhaitz-bankua eta gramatika konputazionala*. PhD Thesis. <http://edtb.euskomedia.org/id/eprint/5304>.
- Arrieta, Bertol, Iñaki Alegria & Xabier Arregi. 2001. An assistant tool for verse-making in Basque based on two-level morphology. *Literary and linguistic computing* 16(1). 29-43. <http://www.ix.a.eus/node/3343>.
- Astigarraga, Aitzol. 2019. *Bertsobot: gizaki-robot arteko komunikazio eta elkarrekintzarako portaerak*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/24049>.
- Atutxa, Aitziber. 2014. *Aditzen inguruko informazio lexikala eta anbiguotasun sintaktikoen ebazpena*. PhD Thesis. <http://www.ix.a.eus/node/4130>.
- Cotterell, Ryan, Christo Kirov, John Sylak-Glassman, David Yarowsky, Jason Eisner & Mans Hulden. 2016. The SIGMORPHON 2016 shared task—morphological reinflection. In *Proceedings of the 14th SIGMORPHON Workshop on Computational Research in Phonetics, Phonology, and Morphology*, 10-22. <https://aclanthology.org/W16-2002/>.
- Estarrona, Ainara, Izaskun Etxeberria, Ricardo Echepare, Manuel Padilla & Ander Soraluze. 2020. Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa eraikitzen. In *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari*, 237-251. Gobierno de Navarra. <http://www.ix.a.eus/node/13186>.
- Etxeberria, Izaskun. 2016. *Aldaera linguistikoen normalizazioa inferentzia fonologikoa eta morfologikoa erabiliz*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <https://www.ix.a.eus/node/8336>.
- Ezeiza, Nerea. 2002. *Corpusak ustiatzeko tresna linguistikoak. Euskararen etiketatzaile morfosintaktiko sendo eta malgua*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://www.ix.a.eus/node/4123>.
- Iñurrieta, Uxo. 2019. *Aditza+izena Unitate Fraseologikoak gaztelanitik euskarara: azterketa eta tratamendu konputazionala*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/41483>.

- Iruskieta, Mikel. 2014. *Pragmatikako erlaziozko diskurtso-egitura: deskribapena eta bere ebaluazioa hizkuntzalaritza konputazionalan*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://ixa.si.ehu.es/node/4126>.
- Katharina, Kann & Hinrich Schütze. 2016. MED: The LMU system for the SIG-MORPHON 2016 shared task on morphological reinflection. In *Proceedings of the 14th SIGMORPHON Workshop on Computational Research in Phonetics, Phonology, and Morphology*, 62-70. <https://aclanthology.org/W16-2010/>.
- Karttunen, Lauri. 2007. Word play. *Computational Linguistics* 33(4). 443-467. <https://direct.mit.edu/coli/article-abstract/33/4/443/1958>.
- Lersundi, Mikel. 2005. *Ezagutza-base lexikala eraikitzeke Euskal Hiztegiko definizioen azterketa sintaktiko-semanticoa. Hitzen arteko erlazio lexiko-semanticook: definizio-patroiak, eratorpena eta postposizioak*. Doktore Tesia. EUPV/EHU. <https://www.ix.eus/node/4119>.
- Manterola, Julien. 2008. Is Basque an agglutinative language? A proposal for the diachrony of nominal morphology. In *Proceedings of the Basque Studies Symposium May 14th, 2008*. TINTA, Research Journal of Hispanic and Lusophone Studies, Department of Spanish and Portuguese, UCSB. <https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00350108>.
- Mayor, Aingeru. 2007. *Matxin, erregeletan oinarritutako itzulpen automatikoko sistema baten eraikuntza estaldura handiko baliabide linguistikoak berrerabiliz*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://ixa.si.ehu.es/node/4103>.
- Nzeyimana, Antoine & Andre Niyongabo. 2022. KinyaBERT: a Morphology-aware Kinyarwanda Language Model. In *Proceedings of the 60th Annual Meeting of the Association for Computational Linguistics* (Volume 1: Long Papers), 5347-5363. Dublin, Ireland. Association for Computational Linguistics. <https://doi.org/10.48550/arXiv.2203.08459>.
- Salaburu, Pello. 2011. Morfologia, hitzaren gramatika. In *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. <https://www.ehu.es/seg/morf/4>.
- Sarasola, Xabier. 2020. *Application of singing synthesis techniques tobertsolaritza*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/50503>.
- Sennrich, Rico, Barry Haddow & Alexandra Birch. 2015. *Neural machine translation of rare words with subword units*. <https://arxiv.org/abs/1508.07909>.
- Urizar, Ruben. 2012. *Euskal lokuzioen tratamendu konputazionala*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://ixa.si.ehu.es/node/4134>.
- Urkia, Miriam. 1997. *Euskal morfologiaren tratamendu informatikorantz*. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://www.ix.eus/node/4110>.

Bernakulizazioa eta normatibitate berriak: 'euskara onena' sare sozialen testuinguru multieskalarrean¹

Jokin Aiestaran Etxabe, Agurtzane Elordui Urkiza*

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Artikulu honek bernakulizazioa aztertzen du behinolako estandar/bernakulu erlazio indexikalen urraketa ideologikoa dakarren aldaketa soziolinguistiko gisa. Sare sozialen ingurune polizentrikoan arakatzen du lerratze ideologiko hori, sareok hizkuntzen eta aldaeren balioak eta funtzioak birkokatzen eta batzen diren espazio mediatizatuak direnez gero. Lanean argudiatzen dugu Instagram espazio emankorra dela euskararen aldaeren arteko hierarkiak aztertzeko, eta azterketa horrek agerian jar litzakeela euskaldun gazteen artean gertatzen ari diren aldaketa soziolinguistikoak. Gure ikerketa estilistiko eta etnografikoan, unibertsitateko 30 euskal ikasleren Instagrameko ekoizpena jasotzen duen Gaztesare proiektuaren corpusetik atera ditugu datuak. Eztabaidan nabarmentzen dugu zaila dela 'hizkuntza hobereña' zein den galderari erantzun soil bat ematea, eta eskala anitzeko perspektibaren erreferentzia nabarmentzen dugu euskaldun gazteen eskema ideologiko konplexu eta multidimentsionalak aztertzeko, baita euskararen aldaeretan balio eta hierarkia berriak hautemateko ere.

Hitz gakoak: euskara; ordena indexikalak; Instagram; eskala-maila; hizkuntza estandarren ideologia; bernakulizazioa.

1. SARRERA

Bernakulizazioa aldaketa soziolinguistiko bat da, aldaera linguistikoaren karga ideologikoa berrantolaketa dakarrena; zehazkiago, aldaera bernakularren balorazio positiboagoa dakar, bai eta hizkuntza estandarren

* Agurtzane Elordui Urkiza. Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Saila. Gizarte eta Komunikazio Zientzien-Fakultatea (UPV/EHU). Leioako Campusa, z/g (48940 Leioa). agurtzane.elordui@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-7787-8714>.

¹ Ikerlan honek egitasmo hauen laguntza izan du: Estandarev (PID2021-124673NA-I00) eta NOR ikertaldea (IT1438-22).

Hona hemen, Miren, zuri eskerrak bihotzez emateko gure aletxoak.



ideologiaren ahultzea ere (Coupland 2014). Hizkuntza estandarren ideologiak bereizgarri du hizkuntza-bariazioarekiko intolerantzia, Milroy & Milroyk (1985) eta Milroyk (2005) azaltzen duten moduan. Milroyk estandarizazioaren ‘berri onei’ eta ‘berri txarrei’ buruz dihardu, eta argudiatzen du estandarizazio-prozesuak abantaila sozialak dituela: «The availability of a standard variety is in fact highly functional in human affairs» (Milroy 2005: 134). Baina, aldi berean, hizkuntza estandarren kulturaren ezaugarri murriztaile eta diskriminatzaileak kritikatzeko ditu; bereziki, aldaera estandarrek ‘zuzentasunarekin’ eta ‘hizkuntza onenaren’ kontzeptuarekin lotzea.

Hizkuntza ‘zuzena’ forma idatzi eta kultuari lotzen zaio, eta aurrerabidearen, modernitatearen ahostzat hartzen da, baita testuinguru minoritarioetan ere (Gal 2006, 2018; Heller 2006). Spotti-ren (2011: 31) arabera, hizkuntza-ideologia modernistak bi printzipiotan ardatzen dira: «the establishment of a standard or norm for language behaviour that is common to all inhabitants of a nation-state, and the rejection of hybridity and ambivalence in any form of linguistic behaviour». Bi kasuetan, batasunaren eta homogeneotasunaren balioak daude ‘hizkuntza onenaren’ kontzeptuaren atzean. Estandarizazioa uniformetasunaren aldeko joera ideologikoa izaki, estandarra ‘the voice of everyone’, ahots *anonimoa* bihurtzen da (Gal & Woolard 2001).

Bernakulizazioak, berriz, hizkuntzaren uniformetasunaren aurka egiten du, hitz egiteko modu ‘on’ bakarra dagoen ideiarekin aurka. Aniztasunaren eta ezberdintasunaren aldeko joera ideologikoa da, eta, Couplanden (2010) arabera, hedatuz joan da Modernitate Berantiarren baldintza soziohistoriko berrietan. Britainia Handian izandako aldaketa sozialak adibidetzat hartuz, Couplandek 1960ko hamarkadatik aurrera Europako gizarte askotan gertatu diren aldaketa zenbait nabarmentzen ditu, hala nola komunikazio-teknologiaren ugaritzea, kulturaren mediatizazio gero eta handiagoa, arlo pribatu eta publikoen arteko bereizketaren lausotzea, mugikortasun geografikoaren hazkunde izugarria, eta mundu globalizatuan herrialdeen arteko mugak gero eta iragazkorragoak bihurtzea (Coupland 2010: 58).

Couplandek (2010) argudiatzen du, berebat, halako aldaketa sozialek aldaketa ideologiko handiak ekarri dituztela, eta horiek ‘hizkuntza estandarren kulturaren’ eragiten dutela; horrenbestez, aldaketok *bernakulizazio* terminoan aztertzea proposatzen du. Aldaera bernakularrak erabiltzeak, berez, ez luke frogatuko bernakulizazioaren eskutik funtsezko aldaketa soziolinguistiko bat gertatu dela. Gisa berean, hizkuntza estandarren erabilerak ez du esan nahi Milroy & Milroyk (1985) aipatzen duten hizkuntza estandarren kulturak oraindik ere indarrean jarraitzen duenik. Couplanden hitzetan, Britainia Handiko ingelesaren kasuan zaila da ‘hitz egiteko modurik onentzat’ hartu den aldaera bernakular jakin bat identifikatzea. Baina honako hau gehitzen du: «also there is informal evidence of RP [Received Pronunciation] increasingly failing to unquestioningly attract attributions of power, status

and authority, and the results is indeed a sort of democratisation» (Coupland 2010: 74). Bernakulizazioak, beraz, aurreko estandar/bernakular erlazio indexikalen haustura ideologikoa dakar, eta horren bidez hizkuntza-aldaeren eta gizartearen arteko harreman berriak eratzen dira (Coupland 2014: 86).

Azterlan honetan bernakulizazioak euskal gazteen hizkuntza-praktiketan duen eraginari heldu diogu, eta arreta berezia jarri dugu estandar/bernakular erlazio indexikaletan. Gazteen ekimenez sortutako euskarazko hedabideen bernakulizaziorako joeren lehen aztarnak Urlak (2012) nabarmendu zituen, 90eko hamarkadako irrati libreei eta herri-aldizkarietara buruz egindako lanean. Gure lanean, berriz, Instagram sare sozialeko hizkuntza-erabileraren analisi xehean ardatzen ditugu berrantolaketa ideologiko horren interpretazioak. Izan ere, Instagrameko esparru kultural mediatizatuan idazkera bernakularrak inoiz ez bezalako espazioa eta ikusgarritasuna hartu du. Instagram moduko sare sozialetan, euskararen aldaerak testuinguru berri batean lehiatzen dira, non idatzizko hizkuntzaren arauak birkonfiguratu ari diren, eta ordena indexikal berriak sortzen (Androustopoulos 2010: 155). Bernakulizazioaren azterketa, testuinguru hain mediatizatu eta globalizatu batean, «need[s] to be understood as developing at several different scale-levels where different orders of indexicality dominate» (Blommaert 2010: 42). Pertsona batek esku artean dituen baliabide linguistikoak, eta haren hizkuntza-jarduna baldintzatzen duten autoritate-guneak (Blommaert 2007a), nabarmen alda daitezke eskala-maila batetik bestera, bai eta egokitzen zer jotzen den ere. Instagram, hemen azaltzen saiatuko garen moduan, bereziki interesgarriak dira normatibitateen arteko eskala-jauzi horiek aztertzeko (Blommaert 2010: 35). Instagramen, erabiltzaileak testuinguru lokalaren eta translokalaren artean jauzi egiten ari dira etengabe, baina baita euren burua aurkezteko modu konplexuen eta espontaneo edo pertsonalagoen artean ere. Horregatik argudiatzen dugu Instagram euskararen aldaeren arteko hierarkiak aztertzeko eremu oparoa dela, eta baliagarria izan daitekeela euskal gazteengan gertatu bide diren aldaketa soziolinguistikoetan sakontzeko.

Artikulu honetan jasotako analisiak ikerkuntza zabalago bat du abiapuntutzat. Ikerketa horretan, 18 eta 25 urte arteko unibertsitateko 30 ikasleren hautu estilistikoak aztertu ziren, eta Gaztesare ikerketa-proiektuaren parte gisa bildu zen 2019an (Elordui *et al.* 2020). Gaztesare proiektuan interesatzen zaigu aztertzeko Euskal Herriko gazteek Instagram gisako testuinguruetan, eta eskala-maila ezberdinetan, nola negoziatzen eta eraikitzen dituzten beren irudia eta identitatea hautu estilistikoaren bidez. Gaztesarearen corpusa unibertsitateko ikasle boluntario horiek 2013 eta 2019 artean Instagrameko *timeline*-ean eta txatetan egindako idatzizko ekoizpenaz dago osatuta. Bestalde, elkarriketetan eta eztabaida-taldeetan (Instagramen izandako ekoizpenean oinarritutakoak, gehienbat) parte hartzea onartu zuten ikasleen hautu estilistikoei buruzko analisi etnografikoa ere biltzen du ikerketak. Alde horretatik, garrantzitsua iruditzen zaigu gure ikerketa unibertsitateko ikasleetan zentratzea. Izan ere, pentsatzekoa da ikasleak direla gazteen artean aldaera estandarren erabiltzaile

nagusiak, eta proiektzio translokal handiena dutenak haien eguneroko bizitzan. Bi ezaugarri horien artean dira ikasleak hain interesgarri ikerketa honetan, zeinaren xedea den normatibitatean gertatzen ari diren aldaketa soziolinguistikoak eta, zehazki, bernakulizazioaren fenomenoaz aztertzea.

Artikulu honen analisiaren datu nagusiak bost ikasleren idatzizko ekoizpenean eta gogoeta metalinguistikoetan oinarritzen dira. Parte-hartzaile guztiak batzuetan zentratu gara, haien posizionamendu eta hautu estilistikoaren inguruan duten pertzepzioa modu sakonean aztertze aldera. Aukeratu ditugun bost ikasleek gure metodologiaren fase guztiak bete zituzten, eta beren *timeline* eta txaten ekoizpen guztiak eman zizkiguten. Gainera, bost parte-hartzaile horiek historia soziolinguistiko eta kultural ezberdinak dituzte, eta horrek, hein handi batean, euskal hiztun gazteen aniztasun linguistiko eta kulturala islatzen du.²

Sarrera honen ondoren (1. atala), euskararen estandarizazio-prozesuaren laburpen bat azalduko dugu, inkestako ikasle gazteek autoritate-guneetatik (hala nola eskolatik eta hedabideetatik) jasotako eskema ideologikoak dagozkien testuinguruetan kokatzeko (2. atala). 3. atalean, Instagramen zentratuko gara, normatibitate-mailen arteko jauziak ahalbidetzen dituen gune digitala den heinean. 4. atalean, parte-hartzaileak laburki aurkeztuko ditugu, bai eta Gaztesare corpusaren bilketarako eta hautaketarako erabilitako metodoak ere. Ondoren, 5. atalean, gure analisiaren bidez lortutako emaitza esanguratsuenak azalduko ditugu. Horretarako, ikasleek euskara estandarrekin eta tokiko aldaera bernakularrekin edo euskalkiekin lotzen dituzten balio indexiketan eta, bestalde, bernakulizazioarekin lotuta dauden balizko aldaketa ideologikoetan sakonduko dugu. Amaitzeko, emaitzak eztabaidatu (6. atala) eta gure azken gogoetak aurkeztuko ditugu (7. atala).

2. EUSKARAREN NORMATIBIZAZIOA 1960. HAMARKADATIK AURRERA

1960ko hamarkadatik aurrera, Euskal Herrian izandako hainbat aldaketa soziopolitikok idatzizko estandarra sortzeko behin betiko bultzada eman zuten. Euskaltzaindiak hainbat hamarkada zeraman horri buruz eztabaidatzen. Funtsezko faktore bat ikastolen sorrera izan zen (Zuazo 2005, 2019). Koldo Mitxelena (Euskaltzaindia 1968) 1968an Euskaltzaindiari aurkeztutako *Ortografia* txostenak idatzizko euskara estandarren oinarriak finkatu zituen. Spottik (2011) azalduko printzipio modernistak estandarizazio-prozesuaren

² Generoari dagokionez, hautatutako ikasle guztiak emakumezkoak dira. Izan ere, parte-hartzaileak boluntarioak izatea funtsezkotzat jotzen da Gaztesarearen metodologian, eta 30 ikasle parte-hartzaileetatik bat bakarra zen gizonezkoa. Gure ikerketan hutsune bat dagoela aitortzen dugu, eta genero-ikuspegi hori etorkizuneko ikerketa-ildoetan txertatzen ari gara.

gidalero nagusiak izan ziren hasieratik: euskal hiztunen komunitatearen homogeneotasun linguistikoa eta batasuna bermatuko zuen idatzizko arau supralokal bat finkatzea, hain zuzen ere. Euskara batuaren aldeko argudio nagusietako bat historikoa zen: Mitxelenak argudiatu zuen euskalkiak agertu baino lehen antzinako euskara bateratu bat existitu zela, eta euskalkien agerpenak hizkuntzaren zatitzea ekarri zuela (Euskaltzaindia 1979; Mitxelena 1968; Villasante 1994). Euskara batua, halaber, banaketa hori eta garai hartako euskalkien hiztunen artean elkar ulertzeko eragozpenak gainditzeko modutzat hartzen zen. «Ezin-bestekoa, il-edo-bizikoa» (Mitxelena 1968: 203). Horiek izan ziren Mitxelenak erabili zituen hitzak, euskara estandarizatzeko eta helburu bateratzaile hori betetzeko premia bizia azaltzeko, batez ere hezkuntzaren arloan. Beste pertsona askorentzat, era berean, euskara batua Euskal Herriaren batasunaren ikurra ere bazen (Urla 2012). Izan ere, Hualde & Zuazok (2007) adierazi moduan, «the rapid acceptance of the new standard within Basque society is undoubtedly related to the strength of Basque nationalistic feelings at the time of its adoption» (Hualde & Zuazo 2007: 14). Batasunaren ikuspegi hori Euskaltzaindiak garai hartan euskarazko eskolentzat egindako proposamenetan antzeman zitekeen (Euskaltzaindia 1979), bai eta euskal hedabide instituzionalen 1980ko hamarkadako hizkuntza-politikan ere: homogeneotasuna eta batasuna printzipio ideologiko linguistikoa nagusiak izan ziren hedabide horietan, hala nola EITBn (Euskal Irrati Telebista); eta euskara batua sortu berria lehenetsi zen, euskal komunitatearen batasuna helburu.

Hibridazioaren ukapena, hizkuntza-ideologia modernistaren bigarren printzipioa Spottiren (2011) arabera, gai garrantzitsua bihurtu da euskararen estandarizazioan. Milroyk (2005) *genetic purism* deitzen duen fenomenoaren adibide garbiak daude. Milroyren hitzetan, proposamen purista ideia honetan oinarritzen da: ‘the alleged corruptions result exclusively from the effect of other languages’ (Milroy 2005: 326). Purismo horren hainbat adibide aurki ditzakegu euskara batua hezkuntza-sisteman ezarri zenez geroztik. Gazteen hizkuntza-erabileraren harira, Pello Salaburu Euskaltzaindikoko kideak honako hau adierazi zuen: «Hemen auzian dagoena ez da batasuna, hizkuntza bera baizik» (Salaburu 1994: 682). 1990eko hamarkadan, hibridazioa fenomeno deitoratuenetarikoa bihurtu zen Euskaltzaindiarentzat. Hala islatzen da hizkuntzaren inguruko arauketa berrietan, zeinetan euskararen muga gramatikalak zedarritzea auzi nagusietako bat bihurtu den.

Baina euskararen estandarizazioaren eztabaidan bada bereziki nabarmentzen den alderdi da: aldakortasun geografikoaren onarpena. Aldaera dialektalak ‘egokitizat’ jo izan dira, eta estandarra eratzeko ekarpen garrantzitsutzat hartu ere. Euskara batua ez da estandar monolitiko gisa sortu. Tokiko euskalkiek euskararen estandarizaziorako dituzten baliabideei dagokienez, ez dago Milroyk (2005) *sanitary purism* deitzen duen fenomenoaren adibiderik. Halaber, estandarraz besteko formak oso kasu gutxitan jotzen dira ez-zuzen edo okertzat.

Gal & Woolardek (2001) proposatutako *anonimo/benetako* parearekin lotutako balioei dagokienez, euskararen estandarizazioa Galek hizkuntza minoritarioei begira proposatutako *fractally recursive move* fenomenoaren adibide da:

It does not question standardization as part of the modernist axis and its configuration of values, but rather subdivides the authenticity/emplaced / particular side of the modernist axis into yet another anonymous/authentic pair, recreating at a more limited scale the very same contrast. (Gal 2018: 235)

Euskararen kasuan, Urla *et al.*-ek (2016) aurkeztu zuten lehen aldiz benetakotasuna/anonimotasuna pare euskara batuaren eta euskalkien arteko erlazioa aztertzeko, estandarraren eta euskalkien *enregisterment* edo balio-aldaketei buruzko eztabaidan. Alde horretatik, ahalegin handia egin da batua aldaera anonimoa bihurtu dadin, hots, «the voice of everyone because there is the voice of no one in particular» (Gal 2018: 233), euskal hiztun guztien aldaera unibertsala, euskal komunitate osoan zehar erabiltzekoa. Aldi berean, batua hizkera-maila jasotzeko tresna gisa sortu da, euskara iraganaren adierazle, hezkuntzarik gabeko letragabeen hizkuntza zelako ideari aurre egiteko. Idazkera lantzeak, Mitxelenaren ustez (Euskaltzaindia 1968), euskarak behar zuen prestigioa areagotu zezakeen, eta euskal hiztunek pairatzen zuten estigma desagerrarazi. Idatzizko euskarak, gainera, gero eta handiagoa zen hizkuntzaren abandonua eta transmisio-eza geldiarazi zezakeen. 1980ko hamarkadatik aurrera, batua euskara biziberritzeko politikaren ardatz nagusia bihurtu da hezkuntza-sisteman, lehen hezkuntzatik unibertsitatera, eta idatzizko ekoizpen gehienetan erabiltzen da.³

Hainbat hamarkadatan zehar, euskalkiak kultura-eremu horietatik bazter utziak izan dira. Euskal eskolak 2000ko hamarkadatik aurrera soilik hasi ziren euskalkiak hezkuntza-sisteman sartzeko aukera kontuan izaten, batik bat Euskaltzaindiak eta Ikastolen Konfederazioak 2005ean egindako proposamenari jarraikiz (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa & Euskaltzaindia 2005). Baina proposamen horrek tokiko euskalkien ‘benetakotasuna’ ere nabarmen zuen. Ardatz modernistaren beste aldea da hori: Galen arabera, estandarraz besteko baliabideek benetakotasunarekin lotutako balioak hartzen dituzte (Gal 2018: 233). Izan ere, proposamena, berriro ere, diagnostiko jakin bati erantzuteko egin zen, zeinaren arabera euskal gazteriak ‘artifizializat’ eta ‘ez-euskalduntzat’ jotzen zuen batuaren erabilera. Kasu horretan, diagnostikoa Euskararen Aholku Batzordeak egin zuen (2004), baina Koldo Zuazoren eragin handiko *Euskararen Sendabelarrak* (2000) saiakeran ere oi-

³ Batuaren erabilera hezkuntzan eta idatzizko ekoizpenean orokorra izan arren, beste hainbat aldaera testuinguru zehatzetan erabiltzen dira, hala nola bizkaiera landua zenbait hezkuntza-erakundetan, edota Iparraldeko aldaera batu bat edo zuberera Ipar Euskal Herrian.

narritu zen. Zuazoren ustez, euskalkiak ziren batua artifizialtasunetik salba zezaketen sendabelar bakarrak (2000: 154), bai eta arriskuan zegoen hizkuntza baten usteltzearen eta gainbeheraren aurkako antidoto bakarra ere (2000: 155). Zuazoren lanean, *historikotasuna* funtsezko kontzeptua da, eta hizkuntzaren egokitasunarekin eta zilegitasunarekin estuki lotuta dago. Euskalkien erabilera pedigri historiko horretan oinarrituta aldarrikatzen da, Milroyren *purismo genetikoaren* (2005) ildotik.

Euskalkien balio historikoa gorabehera, Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak ikastetxeei begira egindako proposamenean argi ikus daiteke tokiko forma dialektalak erabilera informalerara mugatzen direla. Proposamen horrek, izan ere, euskararen aldaera linguistikoen estratifikazio soziolinguistikoa sustatzen du: «Lagunarteko hizkera edo egoera informaleko hizkera euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen da. Hizkera landua, berriz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan» (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa & Euskaltzaindia 2005: 38). Ikastetxeak ez ezik, EITB ere eskema horri lotu zaio hainbat hamarkadaz. Forma estandarren erabilera, orain dela oso gutxi arte, albistegietako aurkezle ‘serioekin’ lotu izan da. ‘Estandarraz besteko’ aldaerak, ordea, umorista bakar batzuen eta kale-elkarrizketen ahozetara mugatu da ideologikoki (Elordui 2020).

Edonola ere, 2000ko hamarkadatik aurrera, eta azken hamarkadan zehazki, hizkuntza-jardunbide eta -balio berriak agertuz joan dira, Couplandek (2010) Modernitate Berantiarrean kokatzen duen aldaketa ideologikoein lotuta egon litezkeenak. Joera hori bereziki agerikoa da euskal hedabideen kasuan, non aldaketa teknologikoei behetik gorako praktika horizontalagoak ahalbidetu dituzten. Horien artean daude, adibidez, erabiltzaileek berek eta gizarteko media-sortzaile arruntek garatutako ekimenak (Elordui 2020). Hedabideetako profesional berrien hizkuntza-politikak asko aldendu dira euskal hedabideen hasierako paradigmatetik, non aldaera estandarra bakarrik onartzen zen. Xede duten ikusleen erreperitorio eleaniztun eta heteroglosiko osoaz baliatzen dira profesional berriak, eta tokiko aldaerak leku nabarmena hartzen ari dira haien diseinu linguistiko digitalean. Jardunbide berri horiek, halaber, aldaketak eragiten ari dira hedabideen ekologia horretan lehiatu behar diren hedabide instituzionaletan. Gaztea, gazteei zuzendutako EITBko web-irratia, hizkuntza-politika heteroglosiko horren adibide ona da, zeinetan euskalkiek eta tokiko aldaerek leku garrantzitsua duten (Elordui 2018).

3. INSTAGRAM, NORMATIBITATE-ESKALETAN ZEHAR JAUZIKA

Lan honetan, bernakulizazioa euskal gazteen artean hartzen ari den lekua aztertuko dugu. Sare sozialen ingurune polizentrikoetan jarri dugu arreta; izan ere, sare sozialak gune mediatizatuak dira, non hizkuntzen eta beren aldaeren balioak eta funtzioak berrebaluatzen eta biltzen baitira. Gune digital

horietan ordena hierarkiko berriak gara daitezke normatibitatearen eskala lokaletan eta translokaletan (Androutsopoulos 2014).

Eskala soziolinguistikoen ideiak, Blommaertek (2005, 2007b, 2010, 2020) azaltzen duen moduan, komunikazio global zein translokalaren izaera ez-bateratu eta ez-uniformeari egiten dio erreferentzia. *Eskalaren* metafora baliatuz, Blommaerten xedea da komunikazio globalizatuaren ‘testuinguruko’ baldintza konplexuak hobeto ulertzea: «Scales need to be understood as levels or dimensions at which particular forms of normativity, patterns of language use and expectations thereof are organized» (Blommaert 2010: 36) Horrekin batera, beste esanahi bat ere badu: «a metaphor that suggests that we have to imagine things that are of a different order, that are hierarchically ranked and stratified» (Blommaert 2010: 33).

Blommaertek argudiatzen du *eskala* terminoaren anbigualentzia hori oso emankorra dela, soziolinguistika tradizionalerako *erregistro* kontzeptutik harago joatea ahalbidetzen duelako:

It refers to what we could call scope of communicability, which is, if you wish, a horizontal image spread, dimension, degree; but it refers simultaneously to value, distinction, quality in the sociolinguistic field, which is a vertical image of stratification. (Blommaert 2020: 1)

Horrekin batera, honako hau eranstean du: «What *scale* does, is to express an intersection of scope and value, and this is why the ambivalence is productive» (Blommaert 2020: 1). Blommaertek azaltzen duen moduan, erabilera-esparrua eta balioa lotuta daude: elkarrekintzan ari diren baliabideen balioa beren erabilera-esparruari lotuta egon ohi da, hots, solaskideak, gaiak eta komunikazio-jardunbideak barnean hartzeko edo baztertzeko ahalmenari (Blommaert 2020: 3). Bestela esanda, hizkuntza-baliabide edo -aldaera horiei ahalmen ezberdinak aitortzen dizkiegu, eta horiek esparruaren eta balioaren arteko elkargunean dauden ezberdintasunak uzten dituzte agerian (Blommaert 2020: 2).

Eskala bakoitzak normatibitate-patroi ezberdinak antolatzen ditu, eta, sare sozialen testuinguruan, erabiltzaileak, maiz, ordena indexikal ezberdinen artean ibili behar du, ‘as emic regulators of meaning-making’ (Blommaert 2020: 5). Sarreran esan dugun moduan, Instagram bereziki interesgarria da aukera ematen duelako normatibitatean antzematen diren eskala-jauziak aztertzeko, «from the individual to the collective, the temporally situated to the trans-temporal, the unique to the common, the token to the type, the specific to the general» (Blommaert 2010: 35), eta erabiltzaileengan eragiten duten erreferentziazko autoritateak nola aldatzen diren analizatzeko.

Instagram argazkiak eta bideoak partekatzeke sare sozial bat da. Baina Instagrameko *timeline*-era igotako argazkiek testu laburrak ere badituzte ar-


gazki-oinetan: argazkiarekin zerikusia duten komentarioak ageri dira, batzuetan baita traolak (#) ere, erabiltzaileei argazkiak zein bata bestea aurkitzen laguntzeko (1. irudia). Argitalpenak eta istorioak —eta 24 ordu igaro ondoren ezabatzen diren argazkiak eta bideo laburrak— publikoki edo aurretik onetsitako jarraitzaileekin partekatzen dira, erabiltzailearen kontua publikoa edo pribatua den.



1. irudia

Instagrameko *timeline*-ean argitaratutako argazkia

Instagramen zuzeneko mezuak ere igor daitezke (2. irudia). Elkarri jarraitzen dioten erabiltzaileek bata besteari mezu pribatuak bidaltzeko aukera dute, argitaratutako istorioei, argazkiei eta bideoei buruz. Askotan, zuzeneko mezu horiek lagun hurkoei mezuak bidaltzeko erabiltzen dira. Batzuetan, ordea, erabiltzaile ezezagunekin harreman berriak sortzeko ere erabiltzen dira.



2. irudia

Instagrameko zuzeneko mezua

Marwick & Boyd-ek (2011) Twitterri buruz esan zutena Instagrami ere aplikatu dakioke: *testuinguru-kolapsoa* gertatzen da eraturako sare-egituretan. Instagramek testuinguru geografiko, kultural eta linguistiko ezberdinetako erabiltzaileak biltzen ditu sare bakar batean, batez ere *timeline*-etan. Hau da, Instagramek Internetetik kanpo guztiz sakabanatuta dauden hainbat sare-tako erabiltzaileak bil ditzake. Baina, sare sozialetako erabiltzaileak askotarikoak izan daitezkeen arren, erabiltzaileek audientzia jakin bat izan ohi dute buruan mezuak bidaltzen dituztenean. Hots, mezua, irudikatutako audientzia bati bidaltzen diote. Hori da, hain zuzen ere, Litt & Hargittaik (2016) aztertu zutena, Facebookeko eta Twitterreko 119 parte-hartzaileekin egindako ikerketa batean. Ikerketa horretan bi audientzia-mota bereizten dituzte: audientzia abstraktua eta xede-audientzia. Sailkapen hori balagarria izan daiteke Instagrameko audientzia ulertzeko ere. Izan ere, Instagrameko erabiltzaileak beren mezuak etengabe moldatzen ari dira audientzia ezberdinentzat: Instagramera argazkiak igotzen dituztenean, audientzia ezezagun eta orokorrago

bat dute gogoan: ‘edonor/denak’, ‘publiko orokorra’, ‘mundu guztia’ edo ‘hau aurkitu duen edonor’; audientzia abstraktua da, Litt & Hargittairen hitzetan (Litt & Hargittai 2016: 6-7). Instagrameko txatean zuzeneko mezuak bidaltzean, ordea, xede-audientzia jakin bat dute buruan: audientzia-talde homogeneo bat, askotan beren familia edo lagun-taldea, edo ikaskideak eta lan-kideak; eguneroko bizitzatik, aurrez aurreko harremanetatik gertuago dagoen audientzia bat.

Horrez gain, eskala batetik bestera jauzika aritzeak beste era bateko eraldaketa semiotikoak (Blommaert 2010: 35) egitea eskatzen dio erabiltzaileari bere irudia eraikitzeko orduan: *timeline*-etan, komunikazioa konplexuagoa da, iraunkorragoa eta kolektiboagoa. Norberaren irudia lantzean, komunikazioa askoz arretatsuagoa da audientzia abstraktuen kasuan (Litt & Hargittai 2016: 7). Txateko zuzeneko mezuak, berriz, askoz espontaneoagoak dira, Instagramera igotako argazkiei eta istorioei buruzko komentarioei egindako unean uneko erantzunak diren heinean. Mezu indibidualago eta pertsonalagoak dira, testuinguruan kokatutakoak.

Laburbilduz, sarearen erabiltzaileak audientzia-kolapsoa negoziatu behar du, audientzia lokal, translokal eta are globalak kontuan hartu behar dituelarik. Bestalde, *timeline* konplexu eta iraunkor batetik espontaneo eta iragankoragoak diren zuzeneko mezuetara —eta alderantziz— etengabe jauzi egiten du. Erabiltzaileak etengabe aldatuz doazen ‘arau’ edo ordena indexikaletan barrena ibili behar du, eta arau horiek xedatzen dute, hain zuzen ere, kasu bakoitzean zer den ‘ona’ eta ‘normala’ edo ‘egokia’ eta ‘onargarria’, eta zer ‘desbideratua’ eta ‘anormala’. Lan honetan aztertzen den euskararen kasuan, litekeena da tokiko euskalkiek eta batuak ikasleei transmititzen dizkieten balioak aldatzea, ordena indexikal ezberdinetan mugitu ahala. Zenbait autoritate-zentronen eragina ere hein berean alda liteke. Blommaertek adierazi moduan, gure jardunbidea baldintzatzen duten autoritate horiek izen, aurpegi eta errealitate propioak dituzte (Blommaert 2010: 39). Lan honetako euskal ikasleen kasuan, adibidez, zentro horiek askotarikoak izan daitezke: pertsonak (gurasoak, irakasleak, klaseko lider bat...), kolektiboak (kuadrilla, ‘instagramer’ baten irudiak, ‘influencer’ bat, abeslari bat...), erakundeak (Euskaltzaindia, eskola, hedabideak) edota entitate abstraktuak (euskal komunitatea, euskal nazioa).

4. PARTE-HARTZAILEAK, CORPUSA ETA METODOA

Sarreran aipatu dugun moduan, ikerlan hau Gaztesare proiektuaren parte da. Proiektuan corpus handi bat bildu zen, parte hartzea onartu zuten 30 unibertsitate-ikaslek 2013 eta 2019 artean Instagramen egindako argitalpenek osatua. Gure corpusean bildutako materiala pertsonala izaki, ezinbestekoa iruditu zitzaigun parte-hartzaileek modu boluntarioan parte hartzea ikerketa-

ren fase bakoitzean. Hainbat parte-hartzailek ez zituzten beren Instagrameko txatetako zuzeneko mezuak partekatu. Oro har, idatzizko corpusak Instagrameko 2.400 argitalpen eta 23.000 zuzeneko mezu inguru biltzen ditu, eta datu-base batean antolatuta dago. Datu-base horrek ikerketarako interfazea dauka, eta ikasleek beren *timeline*-etan eta txatetan egindako hizkuntza-hautuak alderatzea ahalbidetzen digu.

Gaztesarek, era berean, gazte horien hizkuntza-jardunbideen oinarri ideologikoak ulertzea du xede. Horretarako, *Discourse-Centred Online Ethnography*-n (Androutsopoulos 2008) proposatu diren metodo etnografikoak baliatu dira Gaztesareren gidalerro metodologikoetan. Proiektuak 20 elkarriketaz eta bost eztabaida-taldez osatutako ikerketa etnografiko bat hartzen du barne. Ikerketa horretan, ikasleei haien hautu estilistikoei buruzko galderak egin zitzaizkien, corpusetik ateratako adibideak oinarri hartuta. Helburu nagusietako bat zen ikasleek beren identitate digitala deskribatzea, eta beren hautu estilistikoei buruz libreki hitz egitea, tankera honetako galderei erantzunez: zein hizkuntza/aldaera hobesten duzu *timeline*-ean? Zuzeneko mezuetan besteren batzuk erabiltzen d(it)uzu? Zergatik? Beste 'zu' bat al zara batua edo zeure euskalkia erabiltzean? Eztabaida-talde eta elkarrizketa horietan egindako galdera asko Gaztesare corpuseko ikasleen hautu linguistikoetan oinarritu ziren, hala nola: zeure euskalkiko baliabideak erabiltzen dituzu Instagrameko zuzeneko mezuetan, maiz erabiltzen al dituzu txatean? Zer tonu edo ñabardura ematen dizu euskalkiak? Batuari dagokionez, txatean erabiliko zenuke? Zergatik?

Lehen azaldu dugun moduan, artikulu honen analisiaren atalean Gaztesare proiektuaren bost ikasleren Instagrameko *timeline*-etako eta txatetako ekoizpenean jarriko dugu arreta, bai eta egindako elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan ere. Ikerlana egin zen garaian, ikasleek 18 eta 25 urte bitartean zituzten, eta Leioako campusean ikasten ari ziren, Euskal Herriko Unibertsitatean. Lau ikasle Komunikazioa ikasten ari ziren, eta idatzizko eta ikus-entzunezko komunikazioan lan egin nahi lukete. Bosgarrena Erizaintza ikasten ari zen. Denek euskaraz ikasi zuten eskolan, 'normalizazio'- edo biziberritze-testuinguru batean, non batua irakas-hizkuntza baita. Batek (Silvia)⁴ gaztelania erabiltzen du etxean. Gainerako lauren (Maite, Aizpea, Miren, Ainara) ama-hizkuntza euskara da, azken bien kasuan gaztelaniarekin batera. Maitek eta Aizpeak bizkaieraren aldaera bana hitz egiten dute, Mirenek nafarreraren aldaera bat, eta, azkenik, Ainarak gipuzkeraren aldaera bat. Azken lau kasu horietan, euskara da hizkuntza nagusia adiskideen arteko komunikazioan. Silviak, ordea, euskara testuinguru akademikoan soilik erabiltzen du. Denek, hein batean, kontsumitzen dituzte euskal gazteei zuzendutako media-produk-

⁴ Ikasle hauen anonimotasuna bermatzeko, izen faltsuak erabiliko ditugu haiei buruz hitz egiteko.

tuak, hala nola Gaztea web-irratia edota euskal musika eta ikus-entzunezko produktuak.

5. EUSKARAREN ALDAEREN GIZARTE-ESANAHIA ESKALA-MAILAREN ARABERA

Elkarrizketetan, ikasleek azaldu zuten Instagrameko erabiltzaile gisa etengabe mugitzen ari direla *timeline*-eko argitalpenen eta zuzeneko mezuen artean. Haiak adierazten dutenez, batetik besterako etengabeko mugimendu horren ondorioz, beren jardun linguistikoa ere etengabe aldatuz doaz testuinguru bakoitzaren ezaugarri eta espektatiben arabera. 1. taulan testuinguru bakoitzaren ezaugarri horietako batzuk biltzen saiatu gara.

1. taula

Eskala-mailak Instagramen

<i>Timeline</i> -eko argitalpenak	Zuzeneko mezuak
Translokala-hedapen handikoa	Lokala, tokian tokikoa
Iraunkorra, behin betikoa	Iragankorra, unean unekoa
Inpertsionala, kolektiboa, audientzia abstraktua	Pertsionala, indibiduala, xede-audientzia
Arretatsua	Bat-batekoa
Uniformetasuna, homogeneousuna	Subjektibitatea, aniztasuna
Testuinguru zehatzik gabea	Testuinguruan kokatua

Ikasleek Instagrameko *timeline*-etan argazkiak argitaratzean, audientzia ezezagun eta orokorrago batekin ari dira elkarrekintzan, hots, audientzia abstraktu batekin, Litt & Hargittairen (2016) hitzetan. Hala gertatzen da, batez ere, Instagramen kontu publikoa duten erabiltzaileekin. Guztiek adierazi zuten *timeline*-etan audientzia zabalekin eta batzuetan *translokalekin* komunikatzen direla, eta unean uneko jardunetik haragoko harremanak izaten dituztela. Instagrameko txataren bidez zuzeneko mezuak bidaltzean, berriz, gertuko pertsonak dituzte xede, hala nola senideak eta lagunak, ikaskideak eta lankideak. Mezu horiek, ikasleen aburuz, lokalki esanguratsuak dira, tokian tokiko jarduerekin lotuta dauden neurrian.

Garrantzitsua izan arren, audientzia ez da eskala-jauzietan kontuan hartu beharreko irizpide bakarra. Aurrez adierazi moduan, Instagrameko eskaletan zehar mugitzean erabiltzaileek bestelako eraldaketa semiotikoak ere kontuan hartu behar dituzte: Gaztesareko ikasleek *timeline*-eko argitalpenak *iraunkor*

edo *behin betiko*-tzat hartzen dituzte, ‘beti hor egongo den zerbait’; batzuek irudi publikoarekin lotzen dituzte, eta zenbaitek komunikazioaren arloko irudi profesionalarekin. Denek onartzen dute arreta handiagoa jartzen diotela *timeline*-etan eraikitzen duten irudiari, eta askoz *arretatsuagoak* direla idaztean, mezu horien izaera iraunkorragoa dela-eta. Maitek azaltzen duen moduan:

- (1) Igual berrietan igoten ditudan gauzak dira oroipenak edo... Eta argazki bat igotzen badot, apur bat pentsatuagoa da gauza. [...] Instastoryetan 24 ordutan desagertuko da eta ez doste ardura zer igoten dodan, eta bestea da apur bat, mentendu behar dut nire estetika...

Mirenek, halaber, *timeline*-etan hizkuntzari eta estetikari arreta handiagoa jartzearen garrantzia nabarmendu zuen:

- (2) Hortan diferentziatuko nun. Lehen aipatu dudan bezela, berrietan bai egiten dut batuaz ze iruditzen zait gauza bat formalagoa, beti egon behar dena hor, eta storyetan, ez dakit, *pollita* idazten dut bi l-rekin eta holako gauzak, nire euskalkin, ez diot begiratzen ezta euskarari aunitz storyetan.

Aitortzen dute *timeline*-etan, batzuetan ari diren aktore gisakoak direla, neurrira egindako identitateak sortzen dituztela, eta hainbatek identitate guztiz faltsua ere eraikitzen dutela, Silviak azpimarratzen duen bezala:

- (3) Badago jendea zuk ezagutzen duzuna, adibidez herrikoa, eta ikusten duzu igotzen dituela argazkiak oporretan... eta ematen du egu-nero dagoela bidaiatzen mundu osotik [...] Baina azkenean bera ez da horrelakoa, eta ni ere ez naiz ni...

Zuzeneko mezuetan, ordea, denek diote espontaneoagoak direla lagun hurkoekin jardutean. Argazki eta istorioei buruzko iruzkinei emandako unean uneko erantzunetan, berriz, mezuak indibidual eta pertsonalagoak izan ohi dira, sarritan adiskideen arteko harreman informalekin zerikusia baitaukat.

Hautatutako bost ikasleen ekoizpenaren estilo-analisiak argi uzten du hizkuntza-aukera ezberdinak egiten dituztela Instagrameko bi testuinguru horietan.⁵ 2. taulan, bost ikasleek *timeline*-eko argitalpenetan eta zuzeneko

⁵ Translinguismo-jardunbideak oso hedatuta daude euskal gazteriaren lagunarteko erregistroetan, eta Gaztesare corpusaren ezaugarriarik nabarmenenetako bat dira. Artikulu honetan jardunbide horien zenbait adibide daude. Aurrera begira, jardunbideok aztertzen ari gara egungo ikerketetan, eta emaitzak laster argitaratuko dira.

mezuetan erabiltzen dituzten aldaerak jasotzen dira: lagun eta gertukoekin euskara erabiltzen duten ikasle gehienek tokiko aldaerak erabiltzen dituzte txaten bidezko harremanetan. Hala ere, gehienek, beti ez bada ere, batua aukeratzen dute *timeline*-etan. Letra lodiz markatu ditugu ikasleen artean ohi-koenak diren hizkuntza-hautuak.

2. taula

Ikasleek hautatutako aldaerak Instagrameko generoen arabera

Ikaslea	<i>Timeline</i> -eko argitalpenak	Zuzeneko mezuak
Maite	Euskara batua , bizkaiera	Bizkaiera
Miren	Euskara batua , nafarrera	Nafarrera
Silvia	Euskara batua , bizkaiera	Euskara batua , bizkaiera
Ainara	Euskara batua , gipuzkera	Gipuzkera
Aizpea	Euskara batua	Bizkaiera

Hainbat ondorio atera ditzakegu banaketa horren analisitik, eta hala egingo dugu, ikasleen pertzepzioak ere aintzat harturik. Ikasleekin egindako elkarrizketetan eta talde-etzabaidan oinarrituta, euskalkiek transmititzen dituzten balioen ikuspegi orokorra azalduko dugu, lehenik eta behin. Ondoren, aztertuko dugu ea euskalkiak modu ezberdinean hautematen diren eskalamailaren arabera, hau da, *timeline*-ean eta zuzeneko mezuetan, eta kasu ba-koitzean zein baliorekin lotzen diren. 3. taulan, ikasleek euskalkieei atxikitzen dizkieten balio nagusiak bildu dira.

3. taula

Euskararen aldaerei atxikitako balioak

Euskalkia edo tokiko aldaera	Euskara batua
Tokiko atxikimendua	Translokala, orokorra
Benetakoa	Artifiziala, akademikoa
Dibertsioa, erosotasuna eta gertutasuna	Seriotasuna, neurritasuna
Informala, arina	Landua, formala, profesionala, autoritadeduna
Pertsonala, indibiduala	Inpersonala, kolektiboa
Subjektibitatea, aniztasuna	Uniformetasuna, homogeneousasuna

Ikasleek tokiko atxikimendua eratzeko aingura gisa hartzen dituzte euskalkiak. Adibidez, Maitek euskara erosotasunarekin eta gertutasunarekin lo-

tzen du, tokikotasunarekin eta elkartasunarekin. Balio indexikal horiek bizkaierarekin estuki lotzen ditu: ‘Bizkaieraz egiten dodanean ez dot ikusten irudi hori horren serioa danik, baizik eta hurbilagoa dan pertsona batena. [...] Eta hori da benetako ‘ni»’. Hori da lagineko hiztun natiboen patroio korra. Euskara batua, bestalde, ahots autoritadeduna da, erakundeei eta goitik etortzen diren politikei lotutako aldaera. Alde horretatik, akademikotzat eta ‘ezarritzat’ hautematen da, gertuko harremanetarako arauekin alderatuta. Halaber, batuak neurritasuna eta seriotasuna iradokitzen ditu, Mirenen hitzetan ikus dezakegunez: «Batua da gehiago seriotasun puntu bat ematen diona Miren mota horri». Maitek ere uste du, hein batean, bi Maite ezberdin agertzen direla sare sozialetan, etxeko aldaera darabilena bata, eta batua darabilena bestea:

- (4) Nik esango neuke bai nazela apur bat diferentea. Euskara batua erabiltzen dodanean nik ikusten dot Leire serioago bat, igual jendarean garrantzi handiagoa hartu leiken Leire bat, indar handiagoa espresatzen dauelako...

Baina eskala anitzeko ikuspegi batetik begiratuta, euskalkien beste balio batzuk azaleratzen dira. Are gehiago, balio bakoitzak garrantzi handiagoa edo txikiagoa hartzen du testuinguruaren arabera. Txataren testuinguruan, adibidez, lagun-taldearen arauak lehenesten dira, eta ‘lokaltasunaren’ edo tokiko atxikimenduaren balioa nabarmen gailentzen da. Ikasleek elkarrizketetan esandakoaren arabera, Instagramen bidez lagunekin jardutean beren ‘benetako nia’ sentitzen dute euskalkiak erabiltzean, eta Instagramen euskalkiak erabiltzen dituzten pertsonak ‘benetakoak’ iruditzen zaizkie. Adibidez, euskalkia funtsezkoa da Mirenen autopertzepzioan Instagrameko txatean identitate benetako eta informal bat eraikitzeke. Zuzeneko mezuen eremua intimagoa eta aldi berean informalagoa iruditzen zaio, eta horietan Miren ‘benetakoagoa’ dela uste du bere euskalkia erabiltzen duenean. Hala da, halaber, Maiteren kasuan. Instagrameko txatean euskaraz aritzean, ia beti bizkaiera erabiltzen du. Maiteren txaten analisiak erakusten du bizkaieraren erabilera ez dela haren gertukoekin jarduteko egokitzapen-estrategia bat. Maite beti jarduten da bizkaieraz txatetan, audientzia zeinahi ere den. Corpusean hainbat adibidetan ikus dezakegu hori, Euskal Herriko beste lekuetako pertsonekin nahiz batua erabiltzen dutenekin ari delarik, hala nola honako elkarrizketa honetan:

- (5) 1c84ffe2. Bueno bueno, zara un chico ocupado eee ajjaaj Gabonak ospatu ez, baina gustetan jatzune iten dozu orduen bebai super ondo.

Maitek oso modu kontzientean egiten du hautu estilistiko hori txatean, ezen «batua ez jata urtetan». Horrekin batera, hau eransten du:

- (6) Eta badekodaz hainbat lagun egiten dauenak batueraz, baina nik badakit eurek ulertzen dostiela nik haiei euskaraz egiterakoan, orduan ni horregaz paretan naz, eta nik bizkaieraz jarraituten dot.

Hala gertatzen da Mirenen, Maiteren eta Ainararen kasuan. Hirurek euskara erabiltzen dute beren lagunekin eta familiarekin. Gure lagineko hiztun berria ere bere hautuez kontziente da oso. Silviak eskolan ikasitako euskara akademikoa asko aldentzen da txateko elkarrizketetan behar duen ‘eguneroko’ eta ‘lagunarteko’ hizkeratik, eta, beraz, oso zaila suertatzen zaio euskara erabiltzea testuinguru horretan. Instagramen euskalkiak erabiltzearen egokitasunari buruz galdetu genionean, horiek ez erabiltzea defendatu zuen. Eztabaida-taldean, ordea, Silviak aitortu zuen euskalkiak erabiliko lituzkeela horretarako gai izanez gero. Gainera, Ainara bere ikaskidearekin gipuzkera ikasten ari zela aitortu zuen horretarako. Hautu esanguratsua da, Silvia Bilbotik gertu dagoen herri batean bizi baita, eta bertako biztanleak bizkaieraz jarduten baitira. Silviaren kasuan, badirudi euskararen baliabide dialektalak funtsezkoak direla, gertuko sare lokaletan jarduteko baino, euskaraz bere ‘benetako’ irudia negoziatu ahal izateko. Haren idatzizko corpusaren estilo-analisiak interpretazio hori baieztatzen du. Silviak oso gutxitan erabiltzen du euskara, baina, erabiltzen duenean, bizkaierazko ñabardurak txertatzen ditu etengabe. Eta, behin baino gehiagotan, euskalki-aldaerak ageri dituzten kantuetako letrak eransten ditu Instagrameko argitalpenetan.

Gure azterlaneko ikasleek artifizialtzat jotzen dute euskara batua txatean erabiltzea. Euskalkiak subjektibitatearen, aniztasunaren eta autoirudikapen pertsonalaren sinonimo dira. ‘Inposatutako’ batuak ez du ahalbidetzen norberaren irudi ‘dibertigarri’, ‘ireki’ eta ‘naturala’ eskaintzea, eta hori da, hain zuzen ere, ikasleek Instagrameko txaten bidez beren gertukoekin eraiki nahi duten irudia. Batua ‘faltsutzat’ dute txaten bidezko elkarrizketa horietan, mundu akademikoarekin lotzen baitute, zeina Instagrameko txatak berezko duen informaltasunetik asko aldentzen den. Mirenen hitzetan:

- (7) Igual euskalkian ateratzen da betiko Miren hori, dibertigarriagoa dena, irekiagoa dena, ze azkenikan euskalkia kontrolatzen dut eta da nik naturaltzat jotzen dudana nire euskara. Ta batua, berriz ere bueltatzen gara ezarritako... aber, ezarritako ez, ezta, baina denek entenditzeko moduko euskara hortara. [...] Iruditzen zait artifiziuala bezala. Ez da nire euskara, da akademikoki erlazionatzen deten euskara mota bat.

Ikasleek idatzizko corpusean egindako gogoeta metalinguistikoen analisiak erakusten du, bestalde, akademiaren arau ortografikoak urratuz gazte hauek autoritatearen aurkako erresistentzia ageri dutela eta, aldi berean, al-

daera bernakularrean idazkera-estilo informal bat negoziatzen ari direla. Negoziatio horren adibide argia da txateko elkarrizketa hau:

- (8) 40fda639. Aina kontutzen zue kulpaz naigabe bada re «h»-a geoz ta geyo ainazela erabiltzen nazkarriya 😊
 f1faf73f. Zeoze txarra izango balitz bezela satezu...
 40fda639. Onbre... **Pos eztut batuaz euskaltzaindiak bezela lagunekin itzeiteakuan batuaz itzeinai**
 f1faf73f. H-ak jartziak eztu sanahi batuan aizeanik e 😊
 40fda639. Bezela f1faf73f. Aztu 40fda639. Pos bai f1faf73f. Ala f1faf73f. A nik batuan iteizut ez? 40fda639. Bezela f1faf73f. Aio 40fda639. 😊😊😊😊😊😊

Parte-hartzaile bat ‘h’-aren erabilera zalantzan jartzen ari da txatean. Euskaltzaindiaren autoritatearekin lotzen duen arau ortografikoa da, eta guztiz desegokia iruditzen zaio lagunekin hitz egiten ari denean erabiltzea: «Pos eztut batuaz euskaltzaindiak bezela lagunekin itzeiteakuan batuaz itzeinai». Parte-hartzailearen tonuagatik ondoriozta dezakegu batua estilo *posh* edo dotore-ustekotzat duela, eta haren ustez gertukoekin jarduteko barne-arauak hausten dituela. Beste parte-hartzaileak zalantzan jartzen du ‘h’ hizkia erabiltze hutsak batuan aritzera adierazten duenik: «H-ak jartziak eztu sanahi batuan aizeanik e». Edonola ere, agerian uzten dute txatean euskara batua erabiltzea desegokia dela haientzat.

Adibide horietan, ikasleak zalantzan jartzen ari dira elkarrizketa informal batean, hala nola txat batean, batua erabiltzearen zilegitasuna. Ordea, ikasleok oso arau ezberdinak dituzte *timeline*-ean ari direnean. Adibidez, Mirenek gehienbat batua erabiltzen du *timeline*-etan, eta hori da Gaztesare corpusean ikus daitekeen joera nagusia. Agerikoa da ikasleek beste balio batzuk lehenesten dituztela eskala translokal eta iraunkorrako horretan. Euskararen aldaera estandarra, oro har faltsutzat eta elkarrizketa formaletan soilik erabiltzeko modukotzat jotzen dutena, gehiago balioesten dute audientzia translokalagoetara, euskara uler dezakeen edonorengana heldu nahi dutenean. Batuak *uniformetasuna* eta *homogeneotasuna* transmititzen ditu, eta ulergarritasunaren mesederako dela uste du Mirenek:

- (9) Gero erabiltzen dut pixkot nahasketa dena... osea, formaltasun hortara hurbildu nahian (...) igual pixkot denok entenditzeko moduan bai moldatzen dut. Eta gero ja kantetatik eta aterea, aipukin (kaxkak eskuekin), ta literal, batua.

Batua lagungarri zaio Mireni, bestalde *timeline*-ean autoirudikapen *arretatsu* eta *iraunkorragoa* eraikitzeko, eta iruditzen zaigu uste hori nahiko hedatuta dagoela gure corpuseko ikasleen artean. Aizpearen kasua nahiko esan-

guratsua da alde horretatik: bizkaiera erabiltzen du bere lagun-taldearekin txateko elkarrizketa gehienetan, baina beti erabiltzen ditu euskara batuaren baliabideak *timeline*-ean. Aizpea eta Mirenentzat ere batuaren bidez norberaren irudi sofistikatu eta konplexuago bat transmiti daiteke. Mireni, bestalde, batua egokiagoa iruditzen zaio komunikabideetako *profesional* baten ahotsa eraikitzeko, batez ere Instagrameko *timeline*-ean, 2. adibidean ikusi dugun moduan.

Elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan, ikasleek ez zuten inoiz ‘egokiagoa’ hitza erabili euskara batuari buruz hitz egitean, baina, batez ere bere mezuak publiko direnean, batuaren arau ortografikoei men egiten diete: «Publikoa denean bai, baina mezu pribatuetan ez, WhatsAppetan eta halakoe-tan». Lagineko ikasle guztiak ados zeuden iritzi horrekin, Ainararen adibide honetan ikus dezakegun bezala. ‘H’-aren erabilera eta testuaren gramatikal-tasuna defendatzen ditu, zehazki *timeline*-eko testuinguru publiko eta lan-duagoan:

- (10) Baina bai daukat oso argi, igual bizitza osoan erabili detelako, ba ergatiboak non joan behar dun, eta horri bai ematen diodala garrantzia. «H»-a, hitz bat ez da iguala «h» gabe...

6. EZTABAIDA

Kristiansen-ek (2016: 94) argudiatzen duenez, hizkuntza estandarren ideologiaren inguruan gertatzen ari den aldaketa soziolinguistikoa, Couplandek (2014) *bernakulizazio* deitzen duena, nabarmenagoa da gaur egun hainbat mendez politikoki independenteak izan diren Europako herrialdeetan, eta ez hainbeste estandarizazio-prozesua oraindik hizkuntzen biziberritze-plangintzen alderdi garrantzitsua den testuinguruetan. Azken hori izan liteke euskararen kasua azken hamarkadetan. Ados gaude, neurri batean, ikuspegi horrekin: bistan denez, euskararen bernakulizazio-prozesua ingeles edo danielaren prozesuekin alderatuz gero, ezberdintasunak agerikoak dira hainbat alderditan. Baina, aldi berean, ezin uka daiteke azken hamarkadetan euskal hitzunek —eta hizkuntza-politikaren gidarritza daramaten erakundeek— Modernitate Berantiarraren testuinguru soziokulturala partekatzen dutela Europako beste hizkuntza batzuetako hitzunekin. Couplandek (2010: 59; 2014) Erresuma Batuaz ari dela dioen moduan, «it is inconceivable that language use and language ideologies have not been reshaped by it». Gaineratuko genuke hori are pentsaezinagoa dela euskal belaunaldi gazteenen kasuan, bereziki euskarazko testuinguru mediatiko heteroglosikoan murgilduta bizi direnengan.

Horren harira, eta ikerketa gehiagoren beharrean gaudela onarturik, uste dugu bilakaera soziokultural horrek, aribidean dagoen euskararen estandari-

zazio-prozesuarekin batera, eragina izan bide duela prozesu horretan diharduten eragileen eredu eta balioetan, eta, horrenbestez, baita gure ikasleek autoritate-guneetatik —hala nola eskola eta hedabideetatik— jaso dituzten balioetan ere. Gaztesareko ikasleentzat, euskara batua ez da hitz egiteko ‘modu on bakarra’. Ikuspegi horren atzean egon liteke, alde batetik, estandarizazioaren aldeko mugimendu sozialak aldaera dialektalekiko agertu zuten tolerantzia (Urla *et al.* 2018: 41), eta, bestetik, euskararen estandarizazioan jardun ziren eragile akademiko zein instituzionalen ahalegin kontzientea nabarmentzeko batua ez zela euskararen aldaera hobea edo zuzenagoa. Alde horretatik, estandarraz besteko tokiko aldaerak ez dira ‘arbuigarritzat’ edo ‘okertzat’ jo euskararen estandarizazioaren eztabaidan. Baina kontuan hartu behar dugu, halaber, batuaren corpusa lantzean ikuspegi nagusia purismo genetikoan izan dela eta horrek zuzentasunaren kontzeptu jakin bat bultzatu duela, batez ere hezkuntzan eta hedabideetan, euskararen eta gaztelaniaren/frantsesaren arteko mugak zorrotz gordetzearen aldekoa. Euskalkiekin, aldiz, ez dira horrelako irizpide zorrotzak erabili, segur aski akademian eta hedabideetan presentzia txikiagoa izan dutelako.

Hala ere, gure ikerketako ikasleen artean, batuarekin lotutako beste hainbat balio antzeman ditugu; esaterako, ‘zuzentasuna’, Milroy & Milroyk (1985) estandar ‘arretatsurekin’ erlazionatzen dutena. Lehen azaldu dugun moduan, inork ez du ‘zuzena’ hitza erabili bere adierazpenetan. Baina, batuari buruz aritzean, ‘arretatsua’, ‘serioa’, ‘idatzizkoa’ eta ‘literarioa’ hitzak erabili dituzte. Balio horiek guztiak, corpusean, irudi publiko arduratsu batekin lotzen dira, eta azaltzen digute ezen batua «is enregistered in public awareness as indexical of speaker’s class and level of education» (Agha 2007: 191).

Anonimo/benetako pareak (Gal & Woolard 2001; Gal 2018) biltzen dituen balio modernistei dagokienez, ikerketa honen emaitzetan ikus dezakegu euskara batua aldaera *anonimoa* bihurtzeko asmoak arrakasta izan duela hainbat alderditan. Aztertutako laginean, batuak «the voice of everyone... the voice of no one in particular» kontzeptuarekin (Gal 2018: 233) lotutako balioak bereganatu ditu. Ikasleek azaldu dute batua erabiltzen dutela sare sozialetako audientzia abstraktuarekin komunikatzeko. Izan ere, formarik egokiena iruditzen zaie beren mezua ‘denei’, ‘publiko orokorrari’ edo ‘euskara ezagutzen duen edonori’ bidali nahi diotenean. Gure elkarrizketetako ikasleen artean, inork ez zuen batua nazio-estatuaren eraketarekin lotu. Hori, segur aski, euskal gazteriaren arteko diskurtso postnazionalaren beste adibide bat da (Pujolar 2007). Baina batua, ikasle guztien arabera, euskal hitzun guztien aldaera da. Euskal komunitate osoari hitz egitean erabiltzen da. Ikasleen hitzen atzean, euskara batuarekin lotutako batasunaren eta uniformetasunaren ideien oihartzunak entzun ditzakegu. Aldaera supralokal gisa ikusten dute, Aghak estandarren sorrerarekin lotzen duena (Agha 2007).

Ardatz modernistaren beste aldean (Gal 2018), dialektoek benetakotasunarekin lotutako balioak bereganatu dituzte, euskal gazteriaren jarrerei buruzko ikerketek erakusten dutenez (Urla *et al.* 2016). Txatetan euskara erabiltzen dutenak, oro har, euskalkiez baliatzen dira. Eta, elkarrizketetan ageri den moduan, euskalkiak lagunartean eta harreman informaletan erabiltzeko euskararen forma ‘sinesgarri’ bakartzat jotzen dituzte. Euskalkirik ez duten ikasleek ez dute euskara erabiltzen Instagrameko zuzeneko mezuetan, edo oso gutxitan; agurtzeko edo zorionak emateko, edo ikaskideekin izandako elkarrizketa laburretan soilik. Halako hautu estilistikoa ikasleek elkarrizketetan batuari buruz esandakoarekin bat dator. Aldaera estandarra, ikasle guztientzat, estilo artifizial eta faltsu baten ezaugarri da testuinguru informaletan, ‘benetako ni’ horretatik aldentua. Batua ez da egokitzen hartzen Instagrameko txatean ‘benetako identitate informal bat’ sortzeko. Hiztun berriek ere, Silviak adibidez, batua erabiltzean euskalkietara lerratutako hautu estilistikoak egiten dituzte. *Crossing* estrategia horiek (Rampton 1995) aintzat harturik, ondoriozta genezake Silvia pasaporte bat bilatzen ari dela tokiko sare sozialetan benetakotasun preziatua lortzeko, Urla *et al.*-ek (2016) proposatzen duten moduan.

Blommaertek (2010) komunikazioa testuinguru globalizatu batean aztertzeko proposatutako eskala anitzeko ikuspegi horretan, Galen eta Woolarden (2001) *anonimo/benetako* parela lausoago bihurtzen da. Are gehiago, euskal ikasle horientzat oso zaila suertatzen da hizkuntza ‘onena’ zein den galderari erantzun sinplea ematea. Hori horrela da, hein batean, eta Blommaertek (2007b, 2010) azaltzen duen moduan, komunikazio-testuinguru globalizatuetan hainbat prozesu garatzen direlako aldi berean, hainbat eskalatan eta hainbat normatibitate-zentrori erreferentzia eginez. Lehenik eta behin, hizkuntza-baliabideei hainbat balio atxikitzen zaizkie, eskalaren arabera. Batua ‘faltsu’, ‘*posh*’ eta ‘artifizialtzat’ jotzen da txatetan erabiltzeko, baina goragoko eskalatan ahots malgua eskaintzen du, denbora-espazio tarte oso ezberdinetan zehar esangura handia aitortzen zaion neurrian. Izan ere, *timeline*-etako eremu translokaletan eta globaletan antzeman dugu aldaera jaso izateak aukera ematen diola euskara batuari munduan zeharreko espazioetan gora eta behera ibiltzeko, askotariko gizarte-esparru eta -eskalatan zehar: «to move to adjacent places where people speak similar dialects, as well as across social spaces, into the elite» (Blommaert 2010: 46). Goragoko eskala horretan, batuak prestigioa du, eta mugak gainditzea eta mundu profesional mediatizatuarekin lotu ohi duten nolabaiteko estatus sozial bat bereganatzea ahalbidetzen die ikasleei.

Analisiak, halaber, agerian uzten du eskala lokalean balio handia atxikitzen zaien euskalkiek txatetan direla baliagarri eta prestigiodun, hainbestearaino non horiek erabiltzeko gai ez izateak ikasleek harreman horietan euskaraz parte hartzea eragotz dezakeen. Baina euskalkiek erraz gal dezakete balio hori idatzizko testuinguru translokal batera mugitzean (Blommaert

2016: 250). Euskara gaztelaniarekin eta ingelesarekin lehiatzen ari da sistema soziolinguistiko jasoago horretan, eta, eremu horretan, batua nahikoa ‘sinesgarritzat’ eta ‘benetakotzat’ jo daiteke, ez faltsutzat. Izan ere, euskararen baliabideak berez ‘benetakotzat’ hartzen dira audientzia abstraktuagoekin komunikatzean, eta gaztelania eta ingelesa, ordea, hizkuntza anonimoak dira halako komunikazio translokal edo globalerako.

Eskala anitzeko analisiak erakusten du hizkuntza/aldaera egokia edo ‘onena’ zer den eskalaren arabera aldatzen dela, eta hori eskala horretan lehenesten diren balioekin lotuta dago. Adibidez, batuaren diskurtso-baliabideak ahalduntzen ari dira *timeline*-etako eskala jasoago horretan, hiztun berrek ahots publiko eta translokal sinesgarriago bat lortzeko erabiltzen baitute, bai eta irudi publiko landu, profesional eta serioago bat lortzeko ere. Hala ere, txatetan, *linguistic mundaneness* (Bucholtz 2003) eta benetakotasunarekin, ‘arrunta, komuna eta egunerokoa’ den hizkuntzarekin lotutako balio horiek esanguratsua dira. Hori dela eta, lagineko ikasleentzat, euskalkiak tresna egokiak dira ahots informal horretan kokatzeko, haiekin komunikatzen denaren hizkuntza-aldaera edozein dela ere. Tokiko aldaeren balioak tokian-tokian eratu dira (Urla *et al.* 2016), eta Instagrameko harreman informaletara igaro dira. Batuak, berriz, balioa galtzen du zuzeneko mezuen eskala-maila apalago horretan, faltsua, akademikoegia, serioa eta artifiziala dela uste baita.

Gaztesareko ikasleen jardunbidea normatibitate-zentro ezberdinen arabera da Instagrameko testuinguru bakoitzean. Txatean, tokiko lagun-taldearen arauak edo ordena indexikalek baldintzatzen dituzte aldaeren balioak eta hautu estilistikoak. Eskala horretan, ez da egokia Euskaltzaindiaren edo eskoletako konbentzio ortografikoak betetzea, eta barregarria izatera ere irits liteke. *Timeline*-etan, testuinguru orokorrago eta translokalago batean, batuak identitate ‘sinesgarria’ transmititzen du, Euskal Komunitatea, entitate abstraktu gisa, barnean hartzen du, eta horrek irudi publiko konplexu eta iraunkor bat sortzen laguntzen du.

7. ONDORIOAK

Iruditeria publikoan ereduzko aldaera izateko behar diren balioak bereganatzen ari da euskara batua, urratsak egiten ari da, Agharen (2007) hitzetan, estandar translokal gisa finkatzeko. Estandarrak transmititzen dituen balio horiek, Galek modernitatearen *anonimo/benetako* parearekin lotzen dituenak, presentzia handia dute gazte hauen diskurtsoan. Batuak, horrenbestez, balio haiek transmititzen ditu, besteak beste: ‘bateratua’, ‘landua’, ‘serioa’, ‘jasoa’ eta ‘formala’. Baina, aldi berean, corpusean antzeman dugu tokiko aldaeren aldeko bilakaera argia dagoela idatzizko ekoizpenean. Euskalkien balorazio positibo horren kausa da euskalkiek benetakotasuna, informaltasuna,

emozioa eta estilo pertsonala indexatzen dutela; eta, Gaztesare proiektuko ikasleen arabera, balio horiek guztiek esangura lortzen dutela Instagramen idaztean (ikus Elordui & Aiestaran 2022). Gazteek argudiatzen dute sare sozialetako identitatearen eraikuntzan berebiziko garrantzia duela irudi 'erreal' bat transmititzeak.

Horrez gain, hala ere, badirudi balio berriak agertzen ari direla, estandarren ideologiaren kulturaren printzipioak zalantzan jartzen dituztenak. Hain zuzen ere, abiapuntua da batua 'posh' eta 'faltsutat' jotzen dela ikasle horien eskema ideologikoetan. Couplandek (2010: 66) adierazten duen moduan, «Posh cuts way the ideological underpinning of the concept of «standard»». Euskararen kasuan, 1990eko eta 2000ko hamarkadetan oraindik indarrean zeuden ordena indexikaletan, zeinen arabera batua idatzizkorako aldaera kultura baitzen, arrakalak sortzen ari direla iradokitzen du horrek. Ordena horiek bide eman diete beste ordena batzuei, hainbestearino ezen hiztun gaztea barregarri ere gera daitekeen txatean batua erabiltzen badu.

Baina, seguruenik, Couplandek (2010, 2014) bernakulizazioarekin lotzen duen berrantolaketa ideologikoaren adierazlerik handiena ez da hori, ezpada ez dagoela hitz egiteko modu 'on' bakarra, aldaera estandarrek 'hizkuntza onenaren' kontzeptuarekin erlazionatzen dituen. Alde horretatik, bernakulizazio-prozesu hori ez litzateke irudikatu behar prozesu lineal gisa, zeinetan tokiko aldaerek estandarren esparruak eta prestigioa hartzen dituzten. Couplandek argudiatzen duen moduan, batik bat prozesu ideologikoa da, pertsona ikasiak eraman dituztenak tokiko aldaerak edo dialektoak 'hizkuntzarik onentzat' jotzera hainbat testuingurutan; esaterako, gure kasuan, idatzizko zenbait testuinguru digitaletan. Couplanden hitzak hona ekarri, Gaztesareko ikasleak dira «sociolinguistically «omnivorous, [...] in their willingness to «consume» (to accept and possibly even positively value) a wide range of language varieties» (Coupland 2010: 136). Aldi berean, euskal gazte horiek ideologia dimentsioaniztun eta konplexuak dituzte: Kristiansenek (2004, 2016) eta Couplandek (2010, 2014) danieraren eta ingelesaren kasuetan azaldu moduan, hainbat hizkuntza-aldaera onartzen dituzte, eta hautua egiteko orduan «contextual factors impinge crucially on which social meaning are attributed to linguistic varieties» (Coupland 2010: 62).

Ikerketa honetan hartu dugun eskala anitzeko ikuspegiak sare sozialen konplexutasun dimentsioaniztunaren barruko berrantolaketa ideologikoa modu osoagoan aztertzea ahalbidetu digu. Analisiak agerian uzten du gure ikerketako parte-hartzaileek hizkuntza-aldaerei atxikitako balioak aldaitezkeela erabiltzen ari diren eskalaren arabera; eta, ondorioz, horrek hizkuntza egokia edo 'onena' zein den aldatzen duela. Analisiak agerian utzi du, halaber, balioen esangura bera ere alda daitezkeela, komunikazio-esparruaren arabera: adibidez, badirudi, ikasleen azalpenen arabera, 'zuzena' izatea dela *timeline*-eko testuinguru publikoan funtsezko balioa; ordea, ikasle

askorentzat hizkuntza ‘ez-zuzena’ ‘onena’ izan daiteke txatean erabiltzeko, proiektatu nahi duten irudi informala sortzeko bidea ematen dien heinean. Beste era batera esanda, haien ustez, hizkuntza zuzena ez da beti hizkuntza ‘onena’.

8. ERREFERENTZIAK

- Agha, Asif. 2007. *Language and Social Relations*. Cambridge: Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511618284>.
- Androutsopoulos, Jannis. 2008. Potentials and limitations of discourse-centred online ethnography. *Language@Internet* 5 (9). <https://www.languageatinternet.org/articles/2008/1610>.
- Androutsopoulos, Jannis. 2010. The study of language and space in media discourse. In Peter Auer, Jürgen Erich Schmidt & Alfred Lameli (arg.) *Language and Space. An international handbook in Linguistic variation. Theories and Methods*, 740-758. Berlin/New York: Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110220278.toc>.
- Androutsopoulos, Jannis. 2014. Mediatization and sociolinguistic change. Key concepts, research traditions, open issues. In Jannis Androutsopoulos (arg.) *Mediatization and Sociolinguistic Change*, 3-48. Berlin/Boston: Walter de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110346831.3>.
- Blommaert, Jan. 2005. *Discourse: A critical introduction*. Cambridge: Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511610295>.
- Blommaert, Jan. 2007a. Sociolinguistics and Discourse Analysis: Orders of Indexicality and Polycentricity. *Journal of Multicultural Discourses* 2(2). 115-130. <https://doi.org/10.2167/md089.0>.
- Blommaert, Jan. 2007b. Sociolinguistic scales. *Intercultural Pragmatics* 4(1). 1-19. <https://doi.org/10.1515/IP.2007.001>.
- Blommaert, Jan. 2010. *The sociolinguistics of globalization*. Cambridge: Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511845307>.
- Blommaert, Jan. 2016. From mobility to complexity in sociolinguistic theory and method. In Nikolas Coupland (arg.), *Sociolinguistics. Theoretical Debates*, 242—259. Cambridge: Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9781107449787.012>.
- Blommaert, Jan. 2020. Sociolinguistic scales in retrospect. *Applied Linguistics Review*, Berlin/Boston: Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/applirev-2019-0132>.
- Bucholtz, Mary. 2003. Sociolinguistic nostalgia and the authentication of identity. *Journal of Sociolinguistics* 7(3). 398-416. <https://doi.org/10.1111/1467-9481.00232>.
- Coupland, Nikolas. 2010. Language, ideology, media and social change. In Karen Junod & Didier Maillat, (arg.), *Performing the Self*, 127-151. Spell: Swiss papers in English language and literature, 24. Tübingen: Gunter Narr Verlag. <https://worldcat.org/oclc/697772403>.
- Coupland, Nikolas. 2014. Sociolinguistic change, vernacularization and broadcast British media. In Jannis Androulopoulos (arg.), *Mediatization and So-*

- ciolinguistic Change*, 67-96. Berlin/Boston: Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110346831.67>.
- Elordui, Agurtzane. 2018. Vernacularisation of media: stylistic change in Basque youth media. *Multilingua: Journal of Cross-Cultural and Interlanguage Communication Journal* 37(6). 561-586. <https://doi.org/10.1515/multi-2017-0051>.
- Elordui, Agurtzane. 2020. Basque in talk media: from the gifting to the performance era. In K. de Bot, L. Grenoble, P. Lane & U. Røyneland (arg.), *Linguistic Minorities in Europe*. Berlin: De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/LME>.
- Elordui, Agurtzane & Jokin Aiestaran. 2022. How to be authentic in Instagram? Self-presentation and language choice of Basque university students in a multi-scalar context. *Pragmatics* 2022. <https://doi.org/10.1075/prag.21026.elo>.
- Elordui, Agurtzane, Jokin Aiestaran, Garbiñe Bereziartua, Irantzu Epelde, Orreaga Ibarra, Oroitz Jauregi, Libe Mimenza, Beñat Muguruza & Ane Odria. 2020. Gaztesare corpusa eta datu-basea. <https://gaztesare.eus>.
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa & Euskaltzaindia. 2005. *Zenbait orientabide erregistroen trataera*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/71106.pdf.
- Euskaltzaindia. 1968. Ortografia. *Euskera* 13. 203-219. <https://www.euskaltzaindia.eus/azkue-biblioteka-eta-artxiboa/erakusketa-birtualak/mitxelenaren-ortografia-txostena-1968>.
- Euskaltzaindia. 1979. Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. *Euskera* 24. 1979-1, 103-106.
- Euskararen Aholku Batzardea. 2004. *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/contenidos/libro/l_027658_0001_0002/eu_def/index.shtml.
- Gal, Susan. 2006. Contradictions of Standard Language in Europe: Implications for the Study of Practices and Publics. *Social Anthropology* 14(2). 163-181. <https://doi.org/10.1017/S0964028206002515>.
- Gal, Susan. 2018. Visions and revisions of minority languages: Standardization and its dilemmas. In Pia Lane, James Costa & Haley De Korne (arg.), *Standardizing minority languages. Competing ideologies of authority and authenticity in the Global periphery*, 222-242. London: Routledge. <https://www.taylorfrancis.com/chapters/oa-edit/10.4324/9781315647722-12>
- Gal, Susan & Kathryn Ann Woolard. 2001. Constructing languages and publics: Authority and representation. *Pragmatics* 5(2). 129-138. <https://doi.org/10.1075/prag.5.2.01gal>.
- Heller, Monica. 2006. *Linguistic Minorities and Modernity: A sociolinguistic Ethnography*. 2. argitalpena. London: Continuum. <https://worldcat.org/oclc/427474745>.
- Hualde, Jose Ignacio & Koldo Zuazo. 2007. The standardization of the Basque language. *Language Problems and Language Planning* 31(2). 143-168. <https://doi.org/10.1075/lplp.31.2.04hua>.
- Kristiansen, Tore. 2004. Social meaning and norm-ideals for speech in a Danish community. In Adam Jaworski, Nikolas Coupland & Dariusz Galasiński (arg.), *Metalanguage. Social and Ideological Perspective*, 167-192. Berlin: Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110907377.167>.
- Kristiansen, Tore. 2016. Contemporary Standard Language change. Weakening or Strengthening? *Taal en Tongval* 68(2). 93-117. <https://doi.org/10.5117/TET2016.2.KRIS>.

- Litt, Eden & Eszter Hargittai. 2016. The Imagined Audience on Social Network Sites. *Social Media & Society* January-February 2016. 1-12. <https://doi.org/10.1177/2056305116633482>.
- Marwick, Alice E. & Danah Boyd. 2011. 'I tweet honestly, I tweet passionately': Twitter users, context collapse, and the imagined audience. *New Media & Society* 13, 96-113. <https://doi.org/10.1177/1461444810365313>.
- Milroy, James & Lesley Milroy. 1985. *Authority in Language: Investigating Standard English*. London: Routledge. <https://worldcat.org/oclc/794604521>.
- Milroy, James. 2005. Some effects of purist ideologies on historical descriptions of English. In Nils Langer & Winifred V. Davies (arg.), *Linguistic Purism in the Germanic Languages*, 324-42. Berlin: Walter de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110901351.324>.
- Pujolar, Joan. 2007. Bilingualism and the Nation-State in the Post-National Era. In Monica Heller (arg.), *Bilingualism: A Social Approach* 71-95. Palgrave Advances in Linguistics. London: Palgrave Macmillan. https://doi.org/10.1057/9780230596047_4.
- Rampton, Ben. 1995. Crossing. Language and ethnicity among adolescents. London: Longman. Berragit. 2017. <https://doi.org/10.4324/9781315205915>.
- Salaburu, Pello. 1994. Euskara batuaren egungo premiak. *Euskera* 39(2). 675-695. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49976.pdf>.
- Spotti, Massimiliano. 2011. Modernist language ideologies, indexicalities and identities: Looking at the multilingual classroom through a post-Fishmanian lens. *Applied Linguistics Review* 2(2). 29-50. <https://doi.org/10.1515/9783110239331.29>.
- Urla, Jacqueline, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega & Jone Goirigolzarri. 2016. Authenticity and Linguistic Variety among New Speakers of Basque. In V. Ferreira & P. Bouda (arg.). *Language Documentation & Conservation Special Publication No. 9*, 1-12. Honolulu: University of Hawai'i Press. <http://hdl.handle.net/10125/24655>.
- Urla, Jacqueline, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega & Jone Goirigolzarri. 2018. Basque Standardization and the New Speaker. Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value. In Pia Lane, James Costa, & H. De Korne (arg.), *Standardizing Minority Languages*, 24-46. London: Routledge. <https://www.taylorfrancis.com/chapters/oa-edit/10.4324/9781315647722-2>.
- Urla, Jacqueline. 2012. *Reclaiming Basque. Language, nation and cultural activism*. Reno: University of Nevada Press. <https://doi.org/10.1111/plar.12119>.
- Villasante, Luis. 1994. Euskara batuaren filosofiaz. *Euskera* 39(2). 647-673. <https://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49915.pdf>.
- Zuazo, Koldo. 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania. <https://worldcat.org/oclc/434333853>.
- Zuazo, Koldo. 2005. *Euskara batua, ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/oclc/804786114>.
- Zuazo, Koldo. 2019. *Standard Basque and Its Dialects*. Londres: Routledge. <https://worldcat.org/oclc/1121164790>.

Euskararen eredutik hizkuntza-ereduen euskarara¹

Izaskun Aldezabal Roteta*, María Jesús Aranzabe Urruzola**
HiTZ Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroa - Ixa ikerketa-taldea (UPV/EHU)

Laburpena: Lan honen helburua da euskararen ingurukoak azaltzea Euskal Filologia ikasketak abiapuntu hartuta eta ordenagailuek euskara ikasteko behar dituzten testu-corpus erraldoiak eta hizkuntza-ereduak lortzera iritsi diren arte. Bide horretan bidelagun izan dugu Miren bai irakasle, bai gure tesi-lanetako epaimahaikide, bai sailkide modura. Hala, hizpide izan ditugu, alde batetik, hizkuntzalaritza konputazionalen murgilduta, morfologiari lotutako kontzeptu eta lan batzuk, bestetik, corpus-hizkuntzalaritza bideratzeko funtsezkoak diren zenbait corpus, eta, azkenik, erregistro akademikoaren garapena jomugan garatu ditugun datu-baseak, tresnak eta formakuntza-programa.

Hitz gakoak: euskara; morfologia; hizkuntzalaritza konputazionala; corpusak; corpus-hizkuntzalaritza; hizkuntza-ereduak.

1. SARRERA

Hizkuntzaren azterketarako interesa normalean berezkoa du filologia ikastea erabakitzen duen batek. Hizkuntzak dituen maila fonologiko, morfologiko, sintaktiko, semantiko eta pragmatikoak ulertzea, eta hizkuntza konkretu batek horretarako dituen baliabideetan arakatzea eta sorkuntzarako aukerak ikertzea, sinkronikoki edo diakronikoki, berez da interesgarria.

Ordea, horiek guztiak helburu jakin baterako aplikatu behar direnean, helburu horri begira landu behar dira horiek guztiak, eta horrek markatzen

* Izaskun Aldezabal Roteta. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (UPV/EHU). Europa plaza, 1 (20018 Donostia-San Sebastián). izaskun.aldezabal@ehu.eus. <http://orcid.org/0000-0001-7630-1406>.

** María Jesús Aranzabe Urruzola. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila. Kimika Fakultatea (UPV/EHU). Manuel Lardizabal pasealekua, 3 (20018 Donostia-San Sebastián). maxux.aranzabe@ehu.eus. <http://orcid.org/0000-0002-0401-1087>.

¹ Lan hau bi ikerketa-proiektu hauei atxikitzen zaie: Ixa Taldea. A motako Talde Finkatua (Eusko Jaurlaritza: IT-1570-22) eta HARTAvas (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, MCIN: PID2019-109683GB-C22).



du azterketaren «baliagarritasuna». Hori gertatu zitzaigun guri Hizkuntzaren Prozesamendu Automatikoaren (HPA) munduan murgiltzen hasi ginenean, alegia, hizkuntzalaritza «konputazionalen»: ordenagailuari euskara «erakutsi» behar genion euskarazko testuak uler zitzaizkien eta balizko akatsak identifikatu eta, ahal zela, zuzendu zitzaizkien. Orduantxe hasi ginen jabetzen hizkuntzaren maila horiek nola osatzen zirenen, edo osa zitezkeen, eta ikasitakoak «aplikatzen», hizkuntza konputazionalki lantzeari begira.

Gure hasierako hizkuntza-mailak hiztegia eta morfologia izan zirenen, eta, jakina, hasieratik izan genituen eskuartean Miren Azkaratek irakasle gisa irakatsitakoak eta geroago ere euskaltzain nahiz sailkide gisa egindako ekarpen aberatsak.

Baina guretzat garrantzitsuena izan zen, hizkuntzaren esparru konputazional hau oraindik ezezaguna eta teoria mailan ez oso estimatua zenean, Miren Azkaratek beti erakutsi zuen gure lan-ildoarekiko interesa, begirunea eta eskuzabaltasuna, hizkuntzaren azterketa konputazionalak eskaintako aukerak eta horrek atzean izan duen talde-lana beti estimatu izan dituelako.

Hizkuntzalaritza konputazionalak orain arte, eta hemendik aurrera ingeniari-tza-hizkuntzalaritzaz lagunduta, hizkuntza aztertze eta ulertze bide zinez zirrargarriak eskaini ditu, eta horrekin batera, hizkuntzalaritza teorikoan ezezagun diren termino berri asko erabiltzea ere ekarri du. Hizkuntzalari konputazionalon lana, neurri handi batean, izan da terminologia berri hori hizkuntzalaritzako kontzeptuekin parekatzea eta diziplinartekotasun horretan bitartekari-lanak egitea. Termino berri horien aitzakiatan, hizkuntzalaritza konputazionalen barnako bidaia bat egingo dugu, hizkuntza-jakintza ordenagailuan nola kodetu dugun erakutsiz eta Miren Azkaratek jorratu dituen gai batzuekin lotura eginez.

2. HITZA, TESTU-HITZA ETA SARRERA-UNITATEA

Hitza terminoa hiztegiari lotuta ulertu izan da ia beti; hiztegia hitz-zerrenda bat da, hitz bakoitza bere forma kanonikoan, alegia, inolako flexiorik gabekoan adierazita.

Hiztegietatik haratago, hitzok testuetan aztertzean, zuriunetik zuriunerako unitate grafikoak ditugu, bere gauzapean sintaktikoan ageri direnak. Beraz, ez hiztegiako hitz baizik eta testuko hitzari erreferentzia egiteko ere baliagarri izan dadin, hitzaren beste definizio bat behar da: zuriunetik zuriunerako letra-segida (Fontenelle *et al.* 1994), izatez beti flexionatuta dagoena. Hiztegiako hitzak eta testuetako hitzak bereizteko *hitz* eta *testu-hitz* ere erabili izan da (Ezeiza 2002; Aldezabal 2004). Eta jakina, hitz bat baino gehiagoz osatutako hitz konplexuak edo *unitateak* ere baditugu, hitz horien elkarketak, osorik, balio sintaktiko-semantiko bakarra dutenak. Horregatik *hitz anitzeko unitateak* (esaterako, *hala eta guztiz ere*) eta *hitz bakunak* (esaterako, aurreko

adibideko hitz berak, honakoan hitz beregain gisa: *hala, eta, guztiz, ere*) bereizi beharra dago.

Testuko hitz horiek automatikoki ezagutzeko eta analizatzeko, baliabide eta tresna konputazionalak behar dira, eta hiztegiez haratago, datu-baseak erabiltzen dira (orain arte), euskararen moduko hizkuntza eranskarien ezau-garriak ondo kodetzeko. Datu-baseak «sarrerez» osatuta daude (hiztegiak dauden bezalaxe), baina datu-base horien helburuaren arabera, sarrera horien izaera ez da hiztegietan agertu ohi diren hitz beregainen modukoa baizik eta beharrak markatutakoen arabera. Adibidez, helburu morfosintaktikoa duen datu-base batek, hiztegi-sarrerez gain, morfema-sarrerak ere izango ditu; baita horien arteko lotura (morfofonologikoa) bideratzen duen aparteko modulua ere. Horiek guztiak ondorengo atalean azaltzen ditugu xehekiago, beste hainbat kontzepturekin batera.

3. MORFOLOGIA, SEGMENTAZIOA, MORFOTAKTIKA, LEMAK, ERROAK ETA MORFEMAK

Testu-hitzen azterketarako, euskaraz, hitzen osaera morfologikoa zehaztuta izan behar dugu, alegia, hitzen *segmentazio morfologikoa* egin beharra dago. Eta osaera morfologiko horretan hitza ez, baizik eta lemak, erroak eta morfemak bereizi behar ditugu. Baina garrantzitsuena dena: zein lemak zein morfema-segida onartzen dituen jakin behar dugu, alegia, *morfotaktika*, eta lotura horiek bideratu behar ditugu. Hau da, izen/adjektibo batek deklinabide-atzizkiak (Euskararen Gramatika (Euskaltzaindia 2021) *egiturazko kasuak* eta *adposizioak*) mugagabeen, singularrean eta pluralean onar ditza-keela aurreikusi behar dugu, besteak beste; orobat, aditzek aspektu burutu, burutugabe eta etorkizuneko morfemak onar ditzaketela, beste batzuen artean; eta abar. Eta morfema-kateaketa horretan gertatzen diren aldaketa morfofonologikoak erregelen bidez deskribatu eta gauzatu behar dira. Hori guztia, hasteko, euskara batuan. Zeregin horretan, zalantzarik gabe, garai bateko EGLU I eta EGLU IIko deskribapenak (Euskaltzaindia 1991, 1997) ezinbesteko oinarriak izan dira. Liburu horietan dagoen deskribapen osoa Euskararen Datu Base Lexikalean (EDBL) (Aldezabal *et al.* 1999, 2001) kodetu genuen. Horretarako:

- a) EDBLko sarrera-unitate guztiak kategoriatu jakin baten arabera sailkatu genituen (ikus kategoriatu guztiak A eranskinean).
- b) Morfotaktikaren berri ematen zuten Jarritze Klaseak (JK) definitu genituen; guztira 168. Izenen I JKaren barruan dagoen II JKaren adibidea dugu 1. taulan, mugagabe (IMG), pluraleko (IMP), singularreko (IMS) eta bizidunen kokapenezko deklinabidea (-gan, -gandik...) gauzatzeko.

1. taula

II Jarraitze-klasearen adibidea

JK	Osagaiak (lexikoi nahiz JKak) eta adibideak	
II	I0	etxe bat
	IMG	ardo, -en, -ik, -tan
	IMP	ardoek, -en, -etako, -on, -otako
	IMS	ardoa, -aren, -ko
	a_ms	ardoagan...

- c) Eta sarrera-unitateek JK horietako morfemak hartzerakoan gertatzen ziren aldaketa morfofonologikoak deskribatu genituen, erregelen birtartez. Erregela baten adibidea dugu 2. taulan, kontsonante afrikatuai (adibidean, zehazki, -ts- afrikatuari) leherkari gor bat lotzean gertatzen den aldaketa morfofonologikoa adierazten duena.

2. taula

Aldaketa morfofonologiko baten adibidea

1. Txistukariak

1.1. Afrikariak + konts. => t = ø

Afrik + LhGor -ts + -t = -st-

adib.: *erakuts + -ten = erakusten*

Izen, adjektibo, aditz eta adberbio kategoriako sarrerei dagokienez, hitz-zerrendak UZEIk lantzen zituen testuen hustuketatik atera genituen, eta, erreferentziatzko hiztegieta (garai haietan *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*² eta *Elhuyar Hiztegia*³ batez ere) ondo begiratu eta aztertu ondoren, datu-baseratu edota kanpoan uzten genituen.

Datu-basea etengabe hornitzen goaz, gaur egungo *Euskaltzaindiaren Hiztegia*⁴ oinarri hartuta eta beste hiztegieta sarrerak (Elhuyar, Euskal-term,⁵ batez ere) nahiz Xuxen ortografia-zuzentzailearen erabiltzaileen iradokizunak kontuan hartuta.

² <http://www.euskara.euskadi.net/r59-sarasola/eu/sarasola/sarasola.apl>.

³ <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>.

⁴ https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabiltatu&Itemid=410.

⁵ <https://www.euskadi.eus/app/euskal-terminologia-banku-publikoa/viruela/kontsultatermino/viruela/non-du/hizk-es/ter-on>.

Gaur egun, 126.355 sarrera-unitate ditugu; horietatik 105.394 hiztegi-sarrerak dira (hitz beregainak, alegia), horien artean 2.219 hitz anitzeko unitateak izanik, eta gainerako guztiak, morfema ez-independenteak nahiz forma flexionatuak dira (aditz laguntzaile eta trinkoak barne).

4. ERATORPEN-MORFOLOGIA, HITZ-ELKARKETA ETA MORFOTAKTIKAREN MUGAK

Morfema-kateaketa horretan, ordea, EGLUetan aurkitzen dugun morfologia flexibotik harantz, hitz berriak sortzeko mekanismo emankor diren eratorpen-morfologia eta hitz-elkarketa ere aintzat hartu behar ziren, jakina. Eta horretan ageri zaigu Miren Azkarateren lana guztiz erreferentzial eta beharrezko, hasita Euskal Filologiako ikasketak sortu zirenetik eman dituen ikasgaietan jorratutakotik, UZEIn eta Euskaltzaindiko LEF (Lexiko Ebazpenen Finkapena) Batzordean sortzen ziren txostenetara (Euskaltzaindia 1992, 1994).

Garai hartan dena paperean izaki, gure lana izan zen paperean zegoen informazio guztia formatu eskuragarriagoan eta baliagarriagoan jartzea, hau da, «datu-baseratzea», eratorpenez eta elkarketaz sortuak zeuden testu-hitzak ordenagailuak arazorik gabe ezagutu ahal izateko.

Txosten horietan azaltzen zirenak konputazionalki jartzea, ordea, ez zen simplea. Morfema-kateaketaren bidez erraza zen *-tasun* atzizkia, oro har, adjektiboek hartzen dutela definitzea; baina, ez, aldiz, *-garri* eta *-kor* atzizkiak oro har nor-nork motako aditzek bakarrik onartzen zituztela zehaztea, horretarako lehenik eta behin, sailkapen hori egin izan beharko genuke-lako eta ondoren atzizkien kateaketa jakinak aditzen azpimultzo jakinei lotu. Are gehiago, nahiz eta *-kor* atzizkiak nor-nork motako aditzak hartu, ikuspegi semantikoan sartuta, zail gertatzen zen zehaztea, sortzen dituen adjektiboak beti balio kausatibo/inkoatiboko (alegia, *da/du* esaten zaien adizte-tako) *da* baliotik ulertu behar direla (hautsi > hauskor: zerbait hauskorra da (adib., *material hauskorra*) eta ez zerbaitek hausten du), eta, aldiz, aditz transsitibo edota *du/dio* motakoa denean *du* balioko subjektutik ulertu behar dela (ulertu > ulerkor: norbaitek zerbait ulertu (adib. *pertsona ulerkorra*)) (Euskaltzaindia 2021). Atzizkien bereizketa semantiko horiek egiteko, aditzen bereizketa xehegoa egin behar litzateke, eta ohiko mota sintaktikoetatik harantz, aditz kausatibo/inkoatiboak eta aditz transsitiboak bereizi.

Horiek horrela, oinarri-oinarriko morfotaktika lantzeko helburuaz, lan horietan ageri ziren atzizki eta aurrizki lexikal emankorrenak hautatu eta horiek ere EDBL datu-basean kodetu genituen; alegia, atzizki horiek JKen barruan txertatu genituen, eta beharrezko izan ziren erregela morfologikoko berriak sortu genituen. Zehazki, 22 atzizki eta 2 aurrizki landu genituen.

Esaterako, 3. taulan, *-tasun* atzizkia ikus daiteke, adjektiboentzat sortutako ADJK JKaren barruan txertatuta, beste atzizki batzuekin batera lexikoi edo etiketa/multzo berean definitua (*erat_adj*) eta I1_MARRA JKa duela, izen-sortzaile izanik, ondoren onartzen duen morfema-multzoa hartzeko. *-garri* atzizkia, berriz, aditzek normalean hartzen duten JKetako baten barruan (A3) txertatuta dago (aditza nor-nork motakoa den kontuan izan gabe), eta adjektiboeti normalean eransten zaien JKa (ADJK5) du morfotaktika gauzatzeko.

3. taula

-tasun eta *-garri* atzizkiak JKetan

Atzizkia	Zein JKtan txertatuta	Zein lexikoitan	Zein JKrekin
-tasun	ADJK	erat_adj	I1_MARRA
-garri	A3	erat_adj	ADJK5

Hitz-elkarketaren kasuan, jakinik ere hainbat mota daudela (Euskaltzaindia 1992, Euskaltzaindiaren 25. araua⁶), marratxoa aukeran duten mendekotasunezko hitz elkartuak baino ez genituen landu morfotaktikaren bidez, bideragarria izateaz gain, motarik emankorrena zelako (beste mota guztietako hitz konposatuak hiztegi-sarrera beregain gisa lantzen joan gara). Horretarako, izenek hartzen duten JKan ELK_MARRA JKaren bitartez gidoitxoa gehitu eta gidoitxoari aldi berean beste JK bat definitu genion ondoren izen guztiak har zitzan. 4. taulan ikus daitezke izenek hartzen duten I JKaren osagaiak, eta, 5. taulan, ELK_MARRA JKaren osaera.

4. taula

Izenek hartzen duten I JKa,
hitz elkartuen marratxoa txertatua duena

JK	Osagaiak	Adibideak
I	ELK_MARRA	botoi-zulo...
	I1	ardo, -a, -ek, -agan
	adj_ago	gizonago, basakristauago...
	dun_atz	pisudun...
	erat_ize	pisutsu, pisuka, mahaigile...
	grad1	etxetxo, etxetzar, etxeño...
	ko_ban	begiraleko (hamarna haur)
	ko_desk	bost urteko ardoa
	pe	giltzapean...

⁶ <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak>.

5. taula

Mendekotasunezko hitz elkartuak sortzeko ELK_MARRA JKaren osaera

JK	Osagaiak	Adibidea
ELK_MARRA	elk_marra	botoi-zulo

5. OINARRIZKO TRESNAK

Testu-hitzen analisi morfologikoa automatikoki tratatzeko, beraz, ezinbesteko urratsa da hitzak nola osatuta dauden deskribatzea. Osaketa horretan oinarrituta jakingo du analizatzaile morfologikoak nola lot daitezkeen lemak eta morfema-segidak, eta zein diren egin beharreko aldaketa morfofonologikoak horien arteko lotura gauzatzean. Horrela lortuko du, adibidez, *Mireni* ezagutzea eta sortzea, eta ez *Mirenei*, edo *bulegotik* eta ez *bulegotikan*. Analizatzaile horiek gai izaten dira emandako hitzaren analisia lortzeko edo hitz baten lema emanda dagozkion analisi morfologikoak eskaintzeko. Esaterako, 1. irudian ikusten den «Amagoiak Zuberoan lan egiten du» egituraren analisi morfologikoa da euskararako garatu den Morfeus analizatzaile morfolo- gikoak (Aduriz *et al.* 1992) eskaintzen duena.

Amagoiak	Zuberoan	lan	egiten	du
<i>Amagoia+k</i> IZEIZB+ERG	<i>Zuberoa+0+n</i> IZELIB+Sar+INE	<i>landu+0</i> ADISIN+AMM	<i>egin+te+n</i> ADISIN+AMM+INE	<i>du</i> ADL
<i>amagoi+ak</i> IZEARR+ABS		<i>lan</i> IZEARR	<i>egin+0+ten</i> ADISIN+AMM+ASP	<i>du</i> ADT
<i>amagoi+ak</i> IZEARR+ERG		<i>lan+0</i> IZEARR+ABS		

1. irudia

Amagoiak Zuberoan lan egiten du esaldiaren analisi morfologikoa

Hain zuzen ere, analizatzaile morfologiko hori da Xuxen ortografia-zuzentzailearen oinarria (Agirre *et al.* 1992). Xuxenek, testuko hitz baten forma ortografikoki zuzentzat edo okertzat hartzeko, hitz horren lema (eta ez forma) datu-basean dagoela egiaztatzeaz gain, lema horri lotzen zaizkion atzizkiak dagozkionak diren ala ez egiaztatzen du.

Bi horiek, analizatzaile morfologikoa eta Xuxen ortografia-zuzentzailea, izan dira euskararen tratamendu automatikoa gauzatzeko abiapuntuak.

Morfologiatik haratagoko maila linguistikoaren azterketa (sintaxiarena eta semantikarena, esaterako) bideratzeko, ordea, nahitaezkoa da lematizatzaile/etiketatzaileak garatzea. Lematizatzaile/etiketatzaile horien bitartez lortzen da, adibidez, 1. irudiko analisisian ikusten den hitz-formetako bakoitzak analisi morfologikoa bakarria izatea (2. irudia). Lematizatzaileek testuko hitz bakoitzak izan ditzakeen lema posibleen artetik dagokiona aukeratzeko dute eta etiketatzaileek, berriz, izan ditzakeen analisisietatik zuzena dena; hau da, tresna horien helburu nagusia desanbiguatzea da. Horrela, bada, lematizatzaile/etiketatzaileak testuinguruaren arabera erabaki behar du zein den, adibidez, 1. irudiko *Amagoia* hitzari dagokion lema (*Amagoia* ala *amagoi*) eta etiketa zuzena (izen berezia ala arrunta). Euskararako garatu den Eustagger lematizatzaile/etiketatzailearen (Alegria *et al.* 2002) emaitza da 2. irudikoa.

Amagoiak	Zuberoan	lan	egiten	du
<i>Amagoia</i>	<i>Zuberoa</i>	<i>lan</i>	<i>egin</i>	<i>*edun</i>
IZEIZB	IZELIB	IZEARR	ADI	ADL

2. irudia

Amagoiak Zuberoan lan egiten du
esaldiaren analisi morfologikoa desanbiguatuta

Alegria *et al.*-ek (2017) dioten moduan, Eustagger oso baliagarria da terminologia/lexikografia lanetarako. Testu batetik terminologia erraz erauzteko aukera ematen du, baldin eta automatikoki lema ondo identifikatzen badira eta dagozkien etiketak egokitzen bazaizkie.

6. CORPUS HIZKUNTZALARITZA

Testuak, corpusak alegia, funtsezko baliabideak dira hizkuntzaren inguruko ikerketa-lanetarako. Corpus horiek era, mota eta tamaina guztietakoak izan daitezke (Alegria *et al.* 2005; Aldezabal *et al.* 2009); hau da, bakoitzaren ezaugarriak corpusa osatzerakoan jarritako helburuen eta erabilera-aren arabera izaten dira. Corpus horien erabilera ere nabarmen handitu da azken urteotan HPAn eta hiztegi-gintzan ez ezik, hizkuntza-i(r)a-kaskuntzan (Iruskieta *et al.* 2018). Ikasketa sakona (*deep learning*) nagusitu denetik (Agirre *et al.* 2022) are garrantzi handiagoa hartu dute hizkuntzaren erabilera *errealaren* erakusleho diren corpus erraldoiek.

Ixa ikerketa-taldean ez dira gutxi sortu ditugun corpusak. Horien artetik hiru hauek aipatu nahi ditugu, esanguratsuak direlako deskribatzen ari garen ibilbide honetan:

- a) EPEC corpora (Euskararen Prozesamendurako Erreferentzia Corpora) (Aduriz *et al.* 2006): gramatika-erregelatan oinarritutako tresnak garatzeko sortu dugun linguistikoki etiketatutako 300.000 testu-hitzeko corpora.
- b) EusCrawl corpora (Artetxe *et al.* 2022): datu ugari izatea hain garrantzitsua den garai honetan, denon eskuragai dagoen corpusik erraldoiena (423 milioi token), euskararako hizkuntza-eredurik ahalik eta egokiena sortu ahal izateko funtsezkoa.
- c) Garaterm corpora (Zabala *et al.* 2013): unibertsitateko jakintza-alor desberdinetako irakasmaterialez eta ikerketa-lan akademikoez osatutako 25.179.342 testu-hitzeko corpora, monitorizatua izanik, etengabe elikatzen ari garena.

Euskarazko testuez osatutako hiru corpus horiek eredu dira corpus horietan oinarrituta egiten diren azterketetarako edo ikerketa-lanetarako.

Alderatzen hasita, bi muturretan kokatuko genituzke lehen biak, EPEC eta EusCrawl, horietako bakoitzak garaian nagusi zen eta den sistema edo teknologia erakusten baitute; lehenak maila linguistiko desberdinetako etiketatze egokian oinarritzen zuen kalitatea (horregatik kantitatean mugatua) eta bigarrenak, aldiz, testu zuzen eta egoki ugari izatean (ereduek hortik ikasteari begira). Taldean osatu dugun EPEC corpusaren osaerak erakutsi digu euskara bezalako baliabide urriko hizkuntzetan zein zaila den corpus bat osatzea, bai diruaren aldetik, bai denboraren aldetik; baina era berean zein baliagarria den halako baliabideak izatea hizkuntzari/euskarari buruzko azterketa xeheak egiteko. Bigarren corpusak, EusCrawl, teknologiak zein abailatan egiten duen aurrera erakutsi digu, egun nagusi diren hizkuntza-ereduak halako corpus erraldoiez baliatzen direlako hizkuntzaren nondik norakoak ikasteko. Hirugarren corpora, Garaterm, guk dakigula euskarazko corpus akademiko bakarra da, eta harreman zuzena du gure sailaren, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailaren zerreginekin eta honenbestez sailkide dugun Mirenenekin partekatutako lanekin.

Garaterm corpora Garaterm proiektuari (Zabala *et al.* 2008) eta proiektu hori gauzatzen lagundu duen Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) (San Martin 2013; Aldezabal *et al.* 2017) programari esker garatu den baliabidea da. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko zenbait irakasleren eskutik (Miren horietako bat) eta abiapuntu hartuta jakintza-alor desberdinetako irakasleen irakasmateriala eta ikerketa-lan akademikoak, ikusgai jarri nahi izan ditugu komunikazio espezializatuetan erabiltzen diren terminologia eta fraseologia errealak. Hori gauzatzeko diseinatu den Garaterm lan-inguruneari (Zabala *et al.* 2013) eta TSEn jarraitu den metodologiari esker, irakasleak berak dira testuak prestatu eta lan-ingurune horretara igotzen dituztenak. On-

doren, Eustagger lematizatzaile/etiketatzailea baliatuta, testuak linguistikoki prozesatzen dira eta kontsultagai jartzen dira Garaterm corpusean.⁷ Behin testuak prozesatuta eta testu horietako termino hautagaiak Erauzterm termino-erazulearen bitartez (Alegria *et al.* 2004) erauzita (ikus 3. irudia), testu horien egileak, irakasleak berak, dira testu horietako terminologia lantzen dutenak «deskripzio aktiboa» deritzon metodologiari jarraituz.

NErauzterm_594 (1178 termino hautagai)

Bistaratuak: 1178 | 1178 0 0

Esportatu Hitztegiak Erauzteko atara

---	Lema	Bal.	Alorra	Hitztegiak	Eredua	Maiz.	Kop.
56	datu experimental	TI	Kim.	NApos	12	2	
	datu experimentalen doiketa	TI	23	NApreN	2		
	datu experimental berdin	TI	23	NAposApos	1		
	datu experimentalen tratadumendu	TI	23	NApreN	1		
57	absorbantzia	TI	Kim.	TZOS ZTH EUS	11	1	
58	altuera	TI	Kim.	TZOS ZTH MAT OED EUS	11	1	

Lema: Lema Balioa: Denak Domainua: Denak Eredua: Denak Maiz: 1 Kop: 1 2 3 4

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 > >> 1 / 12

Testuinguruak

DATU-TRATAMENDUAK LANTZEKO NEURRI BOLLIMETRIKOAK Helburuak **Datu experimentalak** neurtzea inudikapen grafikoak lantzeko.

Tratamendu matematikoa: **Datu experimentalak** doiketak.

...amendua Datu-tratamenduari buruzko mintegian erabiliko dira **Datu experimentalak** itaiek.

Sar itzazu 1. orrian (1 ura Sar itzazu 2. orrian (2 ura **Datu experimentalak** doiketa egokiena aukeratzeko.

Uraren zatitza lortutako **Datu experimentalak** eta informazio bibliografikoak konbinatuz, tresneriaren ber...

...ra, °C -tan, denboraren funtzioan, s -tan, eta doitu d **Datu experimentalak** 2. graduako polinomio batera, Luzatu taula... Lehenengo urr...

Lortutako **Datu experimentalak** gas baten isotermak erakiri.

... eta gailuri buruzkoak Zergatik da gomendagarria erabiltzea **Datu experimentalak** berdinak presio-bolumen-temperatura erlazionatzen dituzten...

3. irudia

Erauzitako terminoak balioztatzeko Erauztermen interfazearen adibidea

Lan horren ondotik osatzen diren glosarioak edo hitz-zerrenda eleaniztunak sarean kontsulta daitezke horretarako garatu den TZOS⁸ (Terminologia Zerbitzurako Online Sistema) (Arregi *et al.* 2013; Aldezabal *et al.* 2022) baliabidearen bitartez. TZOSek helburu du adituek erabiltzen dituzten termino «natural»ak, aldakiak barne, deskribatzea, aldakiak diren horiek noizbait etorkizunean harmonizatu ahal izateko (Azkarate 2017). Egun, 136.540 termino daude kontsultagai. Termino horietako baten adibidea ikusten da 4. irudian. TZOS Garaterm corpusarekin lotuta dago, beraz, terminoak testuinguru diskurtsiboan azter daitezke.

⁷ <http://garaterm-corpuserm.ixax.es/>.

⁸ <http://tzos.ehu.es/>.

eredu

Zientzia Teknologikoak » Ingeniaritza eta Teknologia Elektrokoak

ald. **modelo**fr. **modèle**en. **model**es. **modelo**

Saillkapena

Jakintza-arloak Zientzia Teknologikoak » Ingeniaritza eta Teknologia Elektrokoak

Jatorria Bilboko Ingeniaritza Eskola » Industria Ingeniaritza Teknikoa - Elektrizitatea espezialitatea » Makina Elektrokoak

Erabiltzaile-kopurua 1

Informazio linguistikoa

Estatua Erabilia (TZOS komunitatea)

4. irudia*eredu* terminoaren sarrera TZOSen

Corpus Hizkuntzalaritzaren ildoan sakonduz eta HPAn oinarrituta, bezaraz, adituek egiten duten euskararen erabilera akademikoa monitorizatzeko eta ikertzeko baliabide nahiz tresnak garatu eta aberasten ari gara (Aranzabe *et al.* 2022a), erabilera horiek egonkortzen lagunduko dutelako, besteak beste.

Eredu dira corpusak bai gizakiontzat, bai tresna konputazionalentzat. Ezin erakusleihu hobekak dira egiten den hizkuntzaren erabilera aztertzeko edota hizkuntzaren inguruko aplikazio gehienenen oinarri diren hizkuntza-ereduak «entrenatzeko». Gizakiak, esaterako, TZOS osatzen ari dira corpusek gidatutako terminologia-lana eginda; euskararako garatu den iXambERT hizkuntza-eredua (Agerri *et al.* 2020), berriz, HARTAes-vas proiektu koordinatuan (Alonso & Zabala 2022) erabiltzen ari gara bi corpusetako formulak edo *lexical bundles*ak (adibidez, *laburbilduz*, *azpimarratu beharra dago*) etiketatzeko (ikus 5. irudia)

The screenshot shows a corpus viewer interface with a list of sentences and their annotations. The interface includes a search bar, navigation controls, and a right-hand panel for annotation details.

Annotations visible in the text include:

- READER_INDCERT
- READER_ATEN
- EST_EXPCOND
- READER_INDSOUR
- EST_REFORM
- EST_EXPCAUS
- READER_INDSOUR
- EST_REFORM

5. irudia

iXambert hizkuntza-ereduarekin etiketatutako HARTAes corpuseko testu zatia

dagozkien funtzio diskurtsiboekin (6. taula). Bi corpus horiek dira gaztelaniako HARTA-de-noveles-para-el-español (Villayandre 2018; García-Salido *et al.* 2018) eta euskarako HARTAeus (Aranzabe *et al.* 2022b).

Hau da, konparagarriak diren bi corpus horietan formula monolexikoak (adibidez, *gutxienez*) eta bi hizkuntzen arteko kokapen- eta formula-balio-kideak hobeto identifikatzen saiatzeko, hizkuntza-ereduetan oinarritutako *transformer* ereduak (Vaswani *et al.* 2017; Devlin *et al.* 2018) erabiltzen ari gara. Hala, gaztelaniarekin eta euskararekin lan egiteko *transformer* eredu elebakarrak erabili ditugu (gaztelaniarako BERTIN (De la Rosa *et al.* 2022; Cañete 2020) eta euskararako iXamBERT (Agerri *et al.* 2020)), baina baita eredu eleanitzak ere (Otegi *et al.* 2020; Lample 2019).

6. taula

Funtzio diskurtsiboak eta dagozkien etiketak

1 Estructurar el texto	: EST
1_1- Añadir información	: EST_ADDINFO
1_2- Comparar	: EST_COMP
1_3- Delimitar	: EST_DELIM
1_4- Ejemplificar	: EST_EXEMP
1_5- Expresar causa	: EST_EXPCAU
1_6- Expresar condición	: EST_EXPCOND
1_7- Expresar consecuencia	: EST_EXPCONS
1_8- Expresar finalidad	: EST_EXPPURP
1_9- Expresar oposición	: EST_EXPOPOS
1_10- Hacer referencia al propio trabajo	: EST_AUTOREF
1_11- Introducir un tema	: EST_INTTOPIC
1_12- Introducir una alternativa	: EST_INTALT
1_13- Introducir una excepción	: EST_INTEXC
1_14- Ordenar	: EST_ORD
1_15- Reenviar	: EST_RESEND
1_16- Reformular	: EST_REFORM
1_17- Resumir	: EST_SUMM
2 Referirse al contenido de la investigación	: REF
2_1- Definir y describir	: REF_DEFDESC
2_2- Denominar	: REF_DENOM
2_3- Establecer grupos	: REF_SETGROUPS
2_4- Expresar cantidad	: REF_EXPAMOUNT
2_5- Expresar correlación	: REF_EXPCOR
2_6- Expresar frecuencia	: REF_EXPFREQ
2_7- Expresar progresión	: REF_EXPPROG
2_8- Expresar tiempo	: REF_EXPTIME
2_9- Presentar datos	: REF_PRESDATA
2_10- Presentar el objeto de estudio	: REF_PRESRES
2_11- Presentar hipótesis	: REF_PRESHIP
2_12- Presentar la metodología	: REF_PRESMETH
2_13- Presentar las conclusiones	: REF_PRESCONC
2_14- Presentar los objetivos	: REF_PRESOBJ
3 Posicionarse y dirigirse al lector	: READER
3_1- Atenuar	: READER_ATEN
3_2- Expresar necesidad	: READER_EXPNEED
3_3- Expresar una evaluación	: READER_EXPEVAL
3_4- Generalizar	: READER_GENERAL
3_5- Hacer hincapié	: READER_EMPH
3_6- Indicar certeza	: READER_INDCERT
3_7- Indicar la fuente	: READER_INDSOUR
3_8- Indicar posibilidad	: READER_INDPOS

7. ETA ORAIN?

Zalantzarik gabe, azken bospasei urteetan, hizkuntza-teknologiek garai batean pentsaezinak ziruditen helburuetara eramán gaituzte. Adimen artifizialeko aurrerakuntzek itzulpen automatikoan, adibidez, izugarrizko kalitate-jauzia ekarri dute, zenbaitetan gizakiarena baino hobea izateraino. Orain dena corpusetik «ikasten» dute «makinek», eta azken emaitza horiek lortzeko ez dira tarteko hizkuntza-baliabide «sofistikatuak» behar (orotariko datu-baseak, erregeletan oinarritutako analizatzaile morfoloġiko, sintaktiko nahiz semantikoak, etab.).

Berrikuntza horiek guztiek hizkuntzalariok apur bat noreaezean utzi gaituzte eta orain arteko jardute-modua asko aldarazi digute bai ikerkuntza-arloan, bai irakaskuntza-eremuan.

Horiek horrela, gaur egun bi jarduteko moduak, bata, esan dezagun «tradizionala», eta bestea, oraingoa, adimen artifizialak gidatutakoa, paraleloki garatzen dihardugu. Oraingo ildo berriak, hasierako hizkuntzalaritza konputazionalak bezalaxe, kontzeptu berri asko ekarri dizkigu: hizkuntza-ereduak (corpus batetik ikasitakotik sortutakoak; zenbat corpus hainbat eredu); ataza jakinetara egokitzeko moldaketak (*fine-tuning* delakoa), corpus hutsa erabili (zero-shot delako moduan, alegia, inolako hizteġiren beharrik gabe), eta halakoak. Denak ere oso berriak hizkuntzalarion belarrietara, baina poliki-poliki geure egiten ari garenak.

Horixe da, hortaz, oraingo gure erronka: ikuspegi tradizionaleko lan-ildoak alde batera utzi gabe, ildo berri honetan gure alea jartzea; besteak beste, ereduak ebaluatzea edo/eta hobetzea, horretarako beharrezko corpus edota datutegi zehatzak (*data-setak*) diseinatu eta sortzea, eta makinek «zer» ikasten duten eta «zer ez» aztertzea.

Eta seguru gaude bide horretan ere Miren Azkarate bidelagun izango genukeela, *garaian garaiko metodoloġiaz, deskribamoldeez baliatuz kontatzen baitira hizkuntzen gertakariak* (Azkarate 2020).

8. BIBLIOGRAFIA

- Aduriz, Itziar, Eneko Agirre, Iñaki Alegria, Xabier Arregi, Jose Maria Arriola, Xabier Artola, Arantza Diaz de Ilarraza, Nerea Ezeiza, Montse Maritxalar, Kepa Sarasola & Miriam Urkia. 1992. A Morphological Analyzer for Basque based on Two-level Morphology. *Proceedings of the 5th International Morphology Meeting*. Austria: Universidad de Krems. <http://ixa.ehu.eus/node/3363>.
- Aduriz, Itziar, María Jesús Aranzabe, Jose Maria Arriola, Aitziber Atutxa, Arantza Diaz de Ilarraza, Nerea Ezeiza, Koldo Gojenola, Maite Oronoz, Aitor Soroa & Ruben Urizar. 2006. Methodology and steps towards the construction of EPEC, a corpus of written Basque tagged at morphological and syntactic levels for the

- automatic processing. In Andrew Wilson, Paul Rayson & Dawn Archer (arg.), *Corpus Linguistics Around the World. Book series: Language and Computers* 56, 1-15. Netherlands: Rodopi. <http://ixa.ehu.es/node/3294>.
- Agerri, Rodrigo, Iñaki San Vicente, Jon Ander Campos, Ander Barrena, Xabier Saralegi, Aitor Soroa & Eneko Agirre. 2020. *Give your Text Representations Models some Love: the Case for Basque*. <https://doi.org/10.48550/arXiv.2004.00033>.
- Agirre, Eneko, Iñaki Alegria, Xabier Arregi, Xabier Artola, Arantza Diaz de Ilarraza, Montse Maritxalar, Kepa Sarasola & Miriam Urkia. 1992. Xuxen: A Spelling Checker/Corrector for Basque based in Two-Level Morphology. In *Third Conference on Applied Natural Language Processing*, 119-125. Italia: Association for Computational Linguistics. <http://doi.org/10.3115/974499.974520>.
- Agirre, Eneko, Marianna Apidianaki & Iva Vulić. 2022. Proceedings of Deep Learning Inside Out (DeeLIO 2022): The 3rd Workshop on Knowledge Extraction and Integration for Deep Learning Architectures. USA: Association for Computational Linguistics. <https://aclanthology.org/2022.deelio-1>.
- Aldezabal, Izaskun, Olatz Ansa, Xabier Artola, Aitzol Ezeiza, Koldo Gojenola, Jon M. Insausti & Mikel Lersundi. 1999. *Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL): eskema berriaren proposamena*. Donostia: UPV/EHU Informatika Fakultateko barne-txostena. <http://ixa.ehu.es/node/4060>.
- Aldezabal, Izaskun, Olatz Ansa, Bertol Arrieta, Xabier Artola, Aitzol Ezeiza, Gregorio Hernández & Mikel Lersundi. 2001. EDBL: a General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque. In Steven Bird, Mark Liberman & Peter Buneman (arg.), *Proceedings of the IRCS Workshop on Linguistic Databases*. Philadelphia: University of Pennsylvania. <http://ixa.ehu.es/node/3301>.
- Aldezabal, Izaskun. 2004. Aditz-azpikategorizazioaren azterketa sintaxi partziale-tik sintaxi osorako bidean. 100 aditzen azterketa, Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta metodo automatikoak baliatuz. Leioa: UPV/EHUko doktoretza-tesia. <http://hdl.handle.net/10810/13974>.
- Aldezabal, Izaskun, Maria Jesús Aranzabe, Arantza Diaz de Ilarraza, Ainara Estarrrona, Nerea Ezeiza & Larraitz Uria. 2009. Corpusen etiketatze linguistikoa. In Ricardo Etxepare, Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.), *A Festschrift for Bernard Oyharçabal. Volumen especial del Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)* 43(1-2). 37-50, Bilbo: UPV/EHU Argitaipen Zerbitzua. <http://ixa.ehu.es/node/3290>.
- Aldezabal, Izaskun, Maria Jesús Aranzabe, Arantza Díaz de Ilarraza & Igone Zabala. 2017. Terminologia lantzeko baliabideak EHU. *Senex* 48. 211-216. <http://ixa.ehu.es/node/11368>.
- Aldezabal, Izaskun, Jose Mari Arriola & Arantxa Otegi. 2022. TZOS: an Online Terminology Database Aimed at Working on Basque Academic Terminology Collaboratively. In Nicoletta Calzolari (arg.), *Proceedings of the 13th Language Resources and Evaluation Conference*, 1353-1359. Marseille: European Language Resources Association. <https://aclanthology.org/2022.lrec-1.144>.
- Alegria, Iñaki, Xabier Artola & Kepa Sarasola. 1997. Hizkuntzaren tratamendu automatikoa. Helburuak eta abiaburuak. *Jakin* 102. 61-82. <http://ixa.ehu.es/node/3922>.
- Alegria, Iñaki, María Jesús Aranzabe, Aitzol Ezeiza, Nerea Ezeiza & Ruben Urizar. 2002. Robustness and customisation in an analyser/lemmatiser for Basque. In *Third International Conference on Language Resources and Evaluation*

- (LREC'02): *Customizing knowledge in NLP applications workshop*, 1-6. Las Palmas de Gran Canaria: European Language Resources Association (ELRA). <http://ixa.ehu.es/node/3340>.
- Alegria, Iñaki, Antton Gurrutxaga, Pili Lizaso, Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea & Ruben Urizar. 2004. An Xml-Based Term Extraction Tool for Basque. In *Proceedings of the 4th International Conference on Language Resources and Evaluations (LREC)*, 1733-1736. Lisboa: European Language Resources Association. <https://aclanthology.org/L04-1161/>.
- Alegria, Iñaki, Xabier Artola, Nerea Ezeiza, Kike Fernandez, Antton Gurrutxaga, Igor Leturia, Aitor Sologaitoa, Aitor Soroa, Andoni Valverde, Nerea Areta, Ziortza Polin & Rafa Saiz. 2005. Zientzia eta Teknologiaren Corpusa. Diseinua eta metodologia. In *Espezialitate hizkerak eta terminologia II. Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*, 1-23. Leioa: UPV/EHU Euskara Institutua. <http://ixa.ehu.es/node/3297>.
- Alonso-Ramos, Margarita & Igone Zabala. 2022. HARTAes-vas: Combinaciones léxicas para una Herramienta de ayuda a la redacción de textos académicos en español y en vasco. In *Proceedings of the Annual Conference of the Spanish Association for Natural Language Processing: Projects and Demonstrations, SEPLN*. A Coruña. <https://ceur-ws.org/Vol-3224/paper06.pdf>.
- Aranzabe, María Jesús, Antton Gurrutxaga & Igone Zabala. 2022a. Compilación del corpus académico de noveles en euskera HARTAeus y su explotación para el estudio de la fraseología académica. *Procesamiento del Lenguaje Natural* 69. 95-103. <http://hdl.handle.net/10045/127394>.
- Aranzabe, María Jesús, Izaskun Aldezabal & Igone Zabala. 2022b. Recursos y Herramientas de Lingüística de Corpus y PLN para la Monitorización e Investigación de los Usos Académicos del Euskera. In *III. Workshop de INTELE (Infraestructura de Tecnologías del Lenguaje)*. <https://ixa.si.ehu.es/node/13591>.
- Arregi, Xabier, Ana Arruarte, Xabier Artola, Igone Zabala & Mikel Lersundi. 2013. TZOS: An On-Line System for Terminology Service. In *Actualizaciones en Comunicación Social. Actas XIII Simposio Internacional de Comunicación Social*, 400-404. Santiago de Cuba: Centro de Lingüística Aplicada. <http://ixa.si.ehu.es/node/3988>.
- Artetxe, Mikel, Itziar Aldabe, Rodrigo Agerri, Olatz Perez-de-Viñaspre & Aitor Soroa. 2022. *Does Corpus Quality Really Matter for Low-Resource Languages?* <https://doi.org/10.48550/arXiv.2203.08111>.
- Azkarate, Miren. 2017. La terminología vasca en el siglo XXI. *Terminàlia* 12. 60-62. <http://revistes.iec.cat/index.php/Terminàlia/article/view/139441>.
- Azkarate, Miren. 2020. Gramatiken auzi batzuk. *Euskera* 65(2), 257-281. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7994419>.
- Cañete, José, Gabriel Chaperon, Rodrigo Fuentes, Jou-Hui Ho, Hojin Kang & Jorge Pérez. 2020. Spanish Pre-Trained BERT Model and Evaluation Data. *Practical ML for Developing Countries Workshop*. Eighth International Conference on Learning Representations (ICLR). https://pml4dc.github.io/iclr2020/papers/PML4DC2020_10.pdf.
- De la Rosa, Javier, Eduardo G. Ponferrada, Paulo Villegas, Pablo González de Prado Salas, Manu Romero & María Grandury. 2022. BERTIN: Efficient Pre-Training of a Spanish Language Model using Perplexity Sampling. *Procesamiento del Lenguaje Natural* 68. 13-23. <https://doi.org/10.48550/arXiv.2207.06814>.

- Devlin, Jacob, Ming-Wei Chang, Kenton Lee & Kristina Toutanova. 2018. *BERT: Pre-training of Deep Bidirectional Transformers for Language Understanding*. <https://doi.org/10.48550/arXiv.1810.04805>.
- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (EGLU-I)*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/6844.pdf.
- Euskaltzaindia. 1992. *Hitz-elkarketa / 4*. LEF batzordea. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/795.pdf.
- Euskaltzaindia. 1994. *Eratorpenaz*. LEF batzordea. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49996.pdf>.
- Euskaltzaindia. 1997. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II (EGLU-II)*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/24569.pdf.
- Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen Gramatika*. I. liburukia. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/1350149936>.
- Ezeiza, Nerea. 2002. Corpusak ustiatzeko tresna linguistikoak. Euskararen etiketatzaile morfosintaktiko sendo eta malgua. Doktoretza-tesia. Donostia: UPV/EHU. <http://ixa.ehu.es/node/4123>.
- Fontenelle, Thierry, Geert Adriaens & Gert de Braekeleer. 1994. The Lexical Unit in the Metal® MT System. *Machine Translation* 9. 1-19. <https://doi.org/10.1007/BF00980197>.
- García-Salido, Marcos, Marcos García, Milka Villayandre & Margarita Alonso-Ramos. 2018. A Lexical Tool for Academic Writing in Spanish based on Expert and Novice Corpora. In Calzolari N. *et al.* (arg.), *Proceedings of the Eleventh International Conference on Language Resources and Evaluation*, 260-265. Japan: European Language Resources Association. <https://aclanthology.org/L18-1039/>.
- Iruskieta, Mikel, Arantxa Otegi, Larraitz Uria, Arantza Díaz de Ilarraza & Amaia Artolazabal. 2018. Zer i(ra)kas dezakegu geure corpusekin «jolastuz»? In Aintzane Etxebarria, Aitor Iglesias, Hiart Legarra & Asier Romero (arg.), *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*, 35-66. UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <http://ixa.ehu.es/node/12749>.
- Lample, Guillaume & Alexis Conneau. 2019. Cross-lingual Language Model Pretraining. <https://doi.org/10.48550/arXiv.1901.07291>.
- Otegi, Arantxa, Aitor Agirre, Jon A. Campos, Aitor Soroa & Eneko Agirre. 2020. Conversational Question Answering in Low Resource Scenarios: A Dataset and Case Study for Basque. In *Proceedings of The 12th Language Resources and Evaluation Conference*, 436-442. <https://aclanthology.org/2020.lrec-1.55>.
- San Martin, Itziar. 2013. Terminologia sareak Ehunduz: unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia ikusgai egin nahi duen programa. In Xabier Alberdi & Pello Aalaburu (arg.), *Ugarteburu terminologia jardunaldiak (V). Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*. 20-32. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. https://www.ehu.es/documents/2430735/2730483/LIBURU_Aehuei13-03.pdf.
- Vaswani, Ashish, Noam Shazeer, Niki Parmar, Jakob Uszkoreit, Llion Jones, Aidan N. Gomez, Lukasz Kaiser & Illia Polosukhin. 2017. Attention Is All You Need. *Advances in Neural Information Processing Systems* 30. 1-15. <https://dl.acm.org/doi/10.5555/3295222.3295349>.
- Villayandre, Milka 2018. «HARTA» de noveles: un corpus de español académico. *CHIMERA: Revista De Corpus De Lenguas Romances Y Estudios Lingüísticos* 5(1). 131-140. <https://doi.org/10.15366/chimera2018.5.1.011>.

- Zabala, Igone, Axun Aierbe, Izaskun Aldezabal, María Jesús Aranzabe, Xabier Arregi, Jose Mari Arriola, Agurtzane Elordui, Antton Elozegi, Kristina Elozegi, Joseba Ezeiza, Julio García, Ines García, Mikel Lersundi, Itziar San Martín & Iñaki Ugarteburu. 2008. GARATERM: Diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinu eta integrazioa helburu duen proiektua. In Pello Salaburu & Iñaki Ugarteburu (arg.), *Espezialitate Hizkerak eta Terminologia III: Espezialitate Hizkeren Didaktika eta Komunikazioa*, 211-219. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <http://ixa.ehu.es/node/4020>.
- Zabala, Igone, Mikel Lersundi, Igor Leturia, Iker Manterola & Gotzon Santander. 2013. GARATERM: euskararen erregistro akademikoen garapenaren ikerketarako lan-ingurunea. In Xabier Alberdi & Pello Salaburu (arg.), *Ugarteburu terminologia jardunaldiak (V). Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*, 98-114. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <http://ixa.ehu.es/node/3991>.

A. eranskina. KATEGORIA-SISTEMA EDBLn

Kategoria Lexikalak (15)							
Kategoria nagusiak							
IZE	ARR		IZENAK	ARRUNTAK (<i>zuhaitz</i>)			
	IZB			PERTSONA-IZEN BEREZIAK (<i>Mikel</i>)			
	LIB			LEKU-IZEN BEREZIAK (<i>Donostia</i>)			
	ZKI			ZENBAKIA (<i>bat</i>)			
ADJ	ARR		ADJEKTIBOAK	ARRUNTAK (<i>handi, benetako</i>)			
	GAL			GALDETZAILEAK (<i>nongo</i>)			
ADI	SIN		ADITZAK	SINPLEAK (<i>ekarri</i>)			
	ADK			KONPOSATUAK (<i>lo egin</i>)			
	ADP			PERIFRASTIKOAK (<i>ahal izan</i>)			
	FAK			FAKTTIBOAK (<i>etorrarazi</i>)			
ADB	ARR		ADBERBIOAK	ARRUNTAK (<i>gaur, negarrez</i>)			
	GAL			GALDETZAILEAK (<i>noiz</i>)			
DET							
	ERK	ERKARR	DETERMINATZAILEAK	Erakusleak	ARRUNTAK (<i>hau</i>)		
		ERKIND			INDARTUAK (<i>berori</i>)		
	NOL			Nolakotzaileak	ARRUNTAK (<i>edozein</i>)		
	NOLARR				GALDETZAILEAK (<i>zein</i>)		
	ZNB	DZH		BAN	Zenbatzaileak	Zehaztuak (<i>bi</i>)	Banatzaileak (<i>bina</i>)
				ORD			Ordinalak (<i>bigarren</i>)
				DZG			Zehaztugabeak (<i>zenbait</i>)
		ORO		Orokorrak (<i>guzti</i>)			
	IOR	PER		PERARR	IZENORDAINAK	Pertsonalak	ARRUNTAK (<i>ni</i>)
PERIND			INDARTUAK (<i>neu</i>)				
IZG		IZGMGB	Zehaztugabeak	MUGAGABEAK (<i>norbait</i>)			
		IZGGAL		GALDETZAILEAK (<i>nor</i>)			
BIH			Bihurkariak (<i>-@en burua</i>)				
ELK			Elkarkariak (<i>elkar</i>)				

Kategoria Lexikalak (15)				
LOT	LOK		LOTURAZKOAK	LOKAILUAK (<i>hala ere</i>)
	JNT			JUNTAGAILUAK (<i>edo</i>)
PRT			PARTIKULAK (<i>omen, ote...</i>)	
ITJ			INTERJEKZIOAK (<i>alajaina!</i>)	
BST			BESTELAKOAK (<i>baldin</i>)	
Kategoria lagungarriak				
ADL			ADITZ LAGUNTZAILEAK (<i>du</i>)	
ADT			ADITZ SINTETIKOAK (<i>dator</i>)	
SIG			SIGLAK (<i>EHU</i>)	
SNB			SINBOLOAK (<i>km, cm, g...</i>)	
LAB			LABURDURAK (<i>etab.</i>)	
Kategoria morfologikoak (9)				
AMM			ADITZ-MOTA MORFEMAK (<i>-tu, t(z)e...</i>)	
ASP			ASPEKTU-MORFEMAK (\emptyset , <i>-ko...</i>)	
ATZ			ATZIZKIAK (<i>-pe</i>)	
AUR			AURRIZKIAK (<i>ber-</i>)	
DEK			DEKLINABIDE-MORFEMAK (<i>-aren</i>)	
ELI			ELIPSIA (\emptyset)	
ERL			ERLAZIO ATZIZKIAK (<i>(-e)la</i>)	
GRA			GRADUATAILEAK (<i>-ago</i>)	
MAR			MARRA (<i>-</i>)	
Puntuazio-zeinuak (3)				
PNT			PUNTUA	
BMP			BESTE PUNTUAZIO ZEINUAK (<i>puntuaren pareko izan daitezkeenak</i>)	
PSB			PUNTUAZIO SINBOLOAK (<i>parentesia, marra luzea, komatxoak...</i>)	

Hiztegiaren bilakaera Elhuyarren ikuspegitik: iragana, oraina eta... geroa?

Amaia Astobiza, Klara Ceberio*, Antton Gurrutxaga, Eli Pociello
Hizkuntza eta Teknologia Unitatea, Elhuyar

Laburpena: Lan honetan, Elhuyar hiztegien lanketan eskuratu dugun esperientziatik abiatuta, euskarazko hiztegiak izan duen ibilbidearen zertzelada batzuk emango ditugu, eta aro digitalak eta Interneten aroak hiztegiaren lanean eta produktu lexikografikoetan ekarri dituzten aldaketak izango ditugu hizketagai. Lehen zatian, euskarazko hiztegiaren bilakaera azalduko dugu. Ondoren, teknologia berriek hiztegiaren ekarri duten eraldaketa izango dugu hizpide; hiztegiak lantzeko metodologia eta tresnetan sakonduko dugu, eta Internetek hiztegien edukia erakusteko moduan, eguneratze-lanetan eta erabiltzaileen beharretan eragin dituen aldaketak aipatuko ditugu. Azkenik, aro digital berri honek dituen alde ilun batzuei buruz arituko gara; izan ere, hiztegiaren arloko erakunde eta eragile askoren kezka da euskaraz ezinbesteko dituen proiektu hauen biziraupena ziurtatzeko baliabide ekonomikoen falta.

Hitz gakoak: hiztegiak, digitalizazioa, hizkuntza-teknologiak.

1. SARRERA

1996ko apirila. Miramar Jauregiko areto nagusia lepo. Elhuyarren euskaraz-gaztelania/castellano-vasco hiztegiaren lehen edizioaren aurkezpen-ekitaldia. Aurkezleen artean, Miren Azkarate dago. Mirenek, Xabier Kintana eta Xabier Mendigurenekin batera, hiztegia zuzentzen jardun du aurreko hila-beteetan. Hiru adituek goitik behera aztertu dute hamabi laguneko talde bategi, Iñaki Azkune eta Antton Gurrutxagaren koordinaziopean, urte eta erdian egindako lana. Mirenen oharrak, beti bezain zorrotz. «Sarrera hau falta du-zue», «ordain hau gehituko nuke», «adibidea aldatu, mesedez...», «nondik atera da hitz hau?», «alor-marka jarriko nioke adiera honi» eta abar eta abar.

* Klara Ceberio. Hizkuntza eta Teknologia Unitatea. Elhuyar. Zelai Haundi, 3 (20170 Usurbil). k.ceberio@elhuyar.eus. <https://orcid.org/0000-0001-7526-2775>.



Geroztik, *Elhuyar Hiztegia* euskal hiztegitzaren gertatutakoaren lekuko izan da, eta, hein handian, protagonista ere bai. Asko aldatu dira gauzak lehen edizio hartatik, ez baitira alferrik igaro azken 26 urteak. Lerro hauetan, bilakaera hori deskribatu eta analizatu nahi dugu; haren alde onuragarri eta pozgarriak azaldu, eta beharbada hain probetxugarri eta itzaropentsu izan ez diren beste batzuk mahaigaineratu.

2. EUSKARAZKO HIZTEGIGINTZAREN BIDEA

2.1. Euskara batuaren aurreko hiztegitza

Askotan esan ohi da euskal lexikografiaren historia ez zela oso aberatsa izan harik eta 1968an hizkuntzaren normalizazio-prozesua hasi zen arte. Nolanahi ere, badira garai horren aurretiko lan esanguratsuak ere, gaur egungo hiztegitzaren oinarri izan direnak.

Hiztegi orokor bateratu baten lehen saiakera Larramendiren *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence, y Latín* (1745) izan zen. Larramendi ordura arteko euskararen hutsuneak betetzen saiatu zen, eta neologismoak sortu zituen euskaraz falta ziren hitz tekniko eta zientifikoetarako.

Azkuek, aldiz, bere hiztegi dialektal eta historikoan (*Diccionario Vasco-Español-Francés*; 1905-1906), alde batera utzi zituen berriki sortutako terminoak eta neologismoak.

Geroago, Lhandek hiztegi bat argitaratu zuen (*Dictionnaire vasco français; Dialectes Labourdin, Bas-Navarrais et Souletin*, 1926), ekialdeko euskalkiak soilik estaltzen zituena. Azkuek baino irizpide zabalagoa erabili zuen, benetan erabiltzen ziren hitz guztiak hartu baitzituen euskara gisa.

Nabarmenezko da garai hartan ez zela egin hiztegi elebakarrik. Lan lexikografikoa lexiko komun eta dialektal baten konpilazioan oinarritu zen, eta gaztelaniazko edo frantsesezko itzulpenak erabili zituzten, edo gaztelaniazko edo frantsesezko hitzen baliokideak proposatu. Urte askoan, ez zen izan terminologia tekniko-zientifiko eta beharrezko neologismoak proposatzeko lana bere gain har zezakeen erakunde arautzaile ofizialik, eta hiztegitzeak beren kabuz bete behar izan zituzten hutsune horiek, edo hiztegietatik kanpo utzi (Azkarate, 1991).

2.2. Euskara batuaren sorreraz geroztiko hiztegitza

Normalizazio-prozesua hasi zenean, Euskaltzaindiaren lehen eginkizuna ortografia, morfologia eta aditzak bateratzea izan zen; arreta gutxi jarri zitzaion lexikoari, eta alor horretan egindako lana oinarritzko hitzen zerrenda

txikietara mugatu zen. Hala ere, euskara arlo eta erregistro guztietara zabalteko nahiak indar handia hartu zuen gizartean, eta horrek lexikoaren arloan ere eskakizuna handia izatea ekarri zuen berekin. Horregatik, hainbat pertsona, talde eta erakunde hiztegiak osatzen hasi ziren, erabiltzaileari arlo eta erregistro «berrietan» euskara erabiltzeko baliabideak emateko.

Ahalegin horretatik sortutako hiztegien artetik, 1980an argitaratutako *Hiztegia 80* izan zen arrakastatsuen (Kintana *et al.* 1980). 1968an Akademiak proposatutako ortografia bateratua erabili zuen, eta hiztegi elebidun moderno, estandar eta tamaina ertainekoa egiteko saiakera argia izan zen.

Lexiko espezializatuari edo terminologiari dagokionez, UEU, Elhuyar eta UZEI izan ziren aitzindariak, hiztegegintzan zein testugintzan; hiztegiei gagozkiola, UZEIren lana izan zen aipagarriena. Zientzia eta teknologietatik hasita, jakintza-arlo askotarako termino-baliabideak sortu zituen, arloetako espezialista askorekin lankidetzan, eta horrek eragin handian izan zuen testu-liburuetan, irakaskuntzan eta euskarari zabaltzen ari gintzaizkion beste hainbat jardueratan. UZEIz gain, beste eragile batzuek ere terminologia-lan espezializatuak argitaratu zituzten, hala nola IVAPEk, EHUK eta Elhuyarrek. Esanenezake estandar moduko bat sortzen hasia zela zenbait espezialitate-arlotan.

1984an, hiztegiak garatzeko epe luzeko plana onartu zuen Akademiak, *Hiztegi Batua* izeneko euskal hiztegi estandar bateratu bat garatzeko baliabideak lortzeko (Sagarna, 2010). Batetik, *Orotariko Euskal Hiztegia*¹ (OEH), 1970era arteko argitalpenen corpusean erabilitako lexikoaren konpilazioa, eta, bestetik, xx. mendeko Corpus Estatistikoan² erabilitako lexikoa.

Hiztegi orokor elebakarrei dagokienez, Adorez taldearen³ *Euskararako Hiztegia* izan zen argitaratzen lehena (1986). Hala ere, lexikoa bildu, finkatu eta zabaltzeko jardunean eragin handiena izan zuen lanetako bat Ibon Sarasolaren *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* izan zen (1984-1995), zeina *Euskal Hiztegia* izenarekin berrargitaratu baitzen (1996). Obra hura OEHrako corpusaren bidez osatu zen. Bestalde, garaitsu hartan Elhuyarrek ere hiztegi elebakarra argitaratu zuen, *Euskal Hiztegi Modernoa* (1994).

1990eko hamarkada oso emankorra izan zen euskal lexikografiarentzat. Lehenik eta behin, Euskal Akademiak batzorde bat sortu zuen *Hiztegi Batua* prestatzeko (2000-2016). Lan hori, batez ere, hiztegi ortografiko bat da, datu lexikografiko gehigarri batzuk dituen hitz-zerrenda. Bigarrenik, lehenengo hiztegi entziklopedikoak argitaratu ziren: *Elhuyar Hiztegi Entziklope-*

¹ https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu.

² <http://xxmendea.euskaltzaindia.eus/Corpus/>.

³ <http://www.bostakbat.org/index.php>.

dikoa (1993), *Lur Entziklopedia* (1995) eta *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa* (1998).

1996an, espainiar eta euskal hiztegi elebidunen belaunaldi berri bat argitaratu zen —besteak beste, *Hiztegia 3000* (Adorez)⁴ eta *Elhuyar Hiztegia*⁵—, guztiak ere ezaugarri komun batzuk zituztenak: tamaina estandarra, mikroegitura zehatza, azpisarrerak eta abar. Hiztegi elebidun horiek harrera ona izan zuten euskal gizartean eta merkatuan, eta hiztegi gintza ekonomikoki errentagarri eta eramangarri bat sortzeko aukera eman zuten. Harrezkero, hiztegi elebidunen arloa inoiz baino gehiago hazi da; horren erakusgarri dira Ibon Sarasolak 2005ean argitaratutako *Zehazki Hiztegia*⁶, gaztelania-euskara noranzko bakarreakoa, euskara-ingelesa hiztegiak (*Morris Student Plus* hiztegia⁷, *Elhuyar-Collins eu-en/en-eu hiztegia*) eta euskara-frantsesa hiztegiak (*Nola Erran*⁸, *Elhuyar eu-fr/fr-eu hiztegia*⁹).

Hamarkada horretan, eta batez ere gerora, 2000 urtetik aurrera, dibertsifikazio-prozesu bat abiatu zen, bai lexikografian (eskola-hiztegi elebakarrak, tamaina desberdineko hiztegi elebidunak), bai terminologian, UZEIz beste-lako eragileak ere hasi baitziren hiztegi espezializatuak argitaratzen. Hiztegi terminologikoei dagokienez, asko enpresen finantziazio pribatuaren bidez edo administrazio publikoko sail batzuen enkarguz ondu ziren, eta Elhuyarrek hiztegi gintza-lan handia egin zuen. Esaterako, EVErentzat egindako *Energiaren Hiztegi Entziklopedikoa*¹⁰, EHUGET taldearen *Geologia Hiztegia*, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren *Ingurumen Hiztegia*¹¹ eta Kultura Sailaren *Musika Hiztegia*¹², Euskaltelen *Telekomunikazio Hiztegia*¹³, zenbait industria-enpresaren artean babestutako *Automobilgintza Hiztegia*¹⁴, Petronorren *Oil&Gas Hiztegia*¹⁵, Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren artean sustatutako *Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia*¹⁶ eta SPRI Taldearen *Industria Berriaren Hiztegia*¹⁷. No-

⁴ <http://www.bostakbat.org/azkue/>.

⁵ <http://www.bostakbat.org/index.php>.

⁶ <https://www.ehu.es/ehg/zehazki/>.

⁷ <http://www1.euskadi.net/morris/hiztegia.htm>.

⁸ <http://www.nolaerran.org/>.

⁹ <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>.

¹⁰ <https://www.eve.eus/Hiztegia.aspx>.

¹¹ https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/6503/eu_2415/ingurumen_hiztegia.html.

¹² https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/Hiztegiak/MusikaHiztegia.pdf.

¹³ <http://www.telekomunikaziohiztegia.org/>.

¹⁴ <https://www.automotivedictionary.net/>.

¹⁵ <https://hiztegia.petronor.eus/>.

¹⁶ https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/coediciones/eu_def/adjuntos/hiztegia_feminismoa_berdintasuna.pdf.

¹⁷ <https://indeus.spri.eus/eu/baliabideak/industria-berriaren-hiztegia>.

lanahi ere, hiztegi terminologikoen alorrean beste bultzatzaile batzuk ere badira; *DanobatGroup Hiztegia*¹⁸, adibidez, kooperatiba horretako Euskara Batzordeak sustatu eta egin zuen, langileen elkarlanarekin eta Emun kooperatibaren aholkularitzarekin.

Hiztegi horiek guztiak osatu eta plazaratzen ziren bitartean, 1990eko hamarkadaren bigarren erdialdeak bi fenomeno berri ekarri zituen euskarazko hiztegegintzaren agertokira: batetik, euskarazko hizkuntza-teknologiaren garapena; bestetik, digitalizazioa eta Internet. Geroztik, bi aktore berri horiek gero eta eragin handiagoa izan dute, eta gurean ere erabat aldatu dituzte, lehentxoago beste hizkuntza «handiago» batzuetan egin zuten bezala, hiztegiak diseinatzen, egiteko, gizarteratzeko eta erabiltzeko erak. Gainera, berealdiko inpaktua izan dute hiztegegintzaren finantziazioan eta bideragarritasunean eta, nola ukatu, oso neurri handian ari dira baldintzatzen hiztegegintzaren etorkizuna. Horretaz guztiaz jardungo dugu hurrengo atalean.

3. HIZTEGIGINTZA ARO DIGITALEAN

3.1. Hiztegiak lantzeko metodologia eta tresnak

1990eko hamarkadatik aurrera euskal hiztegegintza eraldatu duten fenomenoaren artean, lehenik eta behin corpusak aipatu behar dira. Corpusak hizkuntza-erabilera errealeko datuen bildumak dira (Gurrutxaga *et al.* 2008), eta, haiei esker, hiztegegintza datuetan oinarritzen hasi zen. Euskarazko lehen bi corpusak hauek izan ziren: *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) osatzeko erabili dena (1984-2005) eta xx. mendeko Corpus Estatistikoa (2002), bi biak Euskaltzaindiarenak. Bi bilduma horiek izan ziren *Hiztegi Batua* osatzeko datu-iturri nagusiak. Orduko *Hiztegi Batua* oraingo *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren*¹⁹ abiapuntua izango zela jakinik, aise kontura gaitzeko zenbaterainoko garrantzia izan zuten corpus horiek Euskaltzaindiak euskara estandarretarako egin dituen proposamenetan. Hiztegi hori preskriptiboa edo arau-emailea da; alabaina, araua proposatzeko baliatzen den informazioa erabileraren deskripzioaren emaitza bada, esan gabe doa araua bera ere badela, hein batean behintzat, erabileran oinarritua.

Hala ere, aipatu bi corpusak bildu eta erabiltzeko erabilitako metodoak bazuen eragozpen argi bat: OEHren kasuan, testuetako hitzak lematizatu gabe utzi ziren, hau da, inon ez zen adierazten *etxerako* hitzaren (edo *tokenaren*) forma hutsa edo lema *etxe* zenik. Horren ondorioz, hitz baten agerpenak bilatzea arazo handia zen. XX. mendeko corpusean, berriz, tokenak lematiza-

¹⁸ <https://hiztegia.danobatgroup.eus/eu>.

¹⁹ <https://tinyurl.com/dk25bs3m>.

tuta daude, baina lan horren parte handiena eskuz egin zuen UZEIk. Corpusak 4,6 milioi hitz ditu; lan eskerga da horiek eskuz lantzea, eta, bistan dena, metodo hori ez da bideragarria corpus handiagoak egin nahi badira.

Zorionez, 1990eko hamarkadan bertan hasi ziren euskara automatikoki prozesatzeko ikerlanak egiten. EHUko Ixa taldearen Xuxen zuzentzaile ortografikoa izan zen lehen emaitza, eta hori egiteko garatu behar izan ziren teknologia, tresnak zein baliabideak baliagarriak izango ziren gerora corpusak automatikoki etiketatzen. Hauek dira aipagarrienak: EUSLEM lematizatzailea (Aduriz *et al.* 1996), gerora Eustagger izena hartuko zuena, eta EDBL datu-base lexikala (Aduriz *et al.* 1998). Elhuyarrek ere erabili zuen teknologia hori bere hiztegi-gintzan; hain zuzen ere, hiztegi bateko definizioetan erabilitako hitz guztiak hiztegi bereko sarrerak zirela egiaztatzen (1994ko *Hiztegi Modernoan*).

Handik hona, etengabea izan da euskararen hizkuntza-teknologiaren ikerketa eta garapena. 2000ko hamarkadaren hasieran, Elhuyarrek ere argi ikusi zuen arlo horretan jardun behar zuela, hiztegi-gintza hobe eta sendoago bat egiteko ez ezik, euskara ingurune digitalean automatikoki prozesatzeko beharrezkoak ziren tresnak eta baliabideak garatzeko ere. Ixa taldearekin lankidetzan ekin genion asmo horri, eta gure lehen proiektua terminologia-erazule automatiko bat garatea izan zen, Erauzterm (Gurrutxaga *et al.* 2005); handik gutxira, itzulpen-memoretatik terminologia elebiduna erazule tresna garatu genuen, ELexBi (Gurrutxaga *et al.* 2006). Aldi bertsuan, corpus-gintza kudeatzeko Corpusgile tresna etorri zen (Areta *et al.* 2007). Tresna hori erabili genuen estreinakoz —Ixa taldearen EDBL datu-base lexikalarekin eta Eustagger etiketatzailearekin batera— Zientzia eta Teknologiaren Corpusa²⁰ egiteko, eta gero beste corpus batzuetan erabili dugu (Lexikoaren Behatokia²¹ eta UPV/EHU TSE-Terminologia Sareak Ehunduz programako Garaterm²²).

Geroztik, aurrerapen handia egin da euskararen hizkuntza-teknologietan, arlo edo «ataza» askotan gainera (itzulpen automatikoa, hizketaren prozesamendua, informazio-erazuleketa, prozesamendu semantikoa...), eta Elhuyarrek ere parte hartu du horietako batzuetan. Oraingo honetan hiztegi-gintzaz ari garenez, esan behar da gaur egun gai garela testuetatik hiztegi lexikografikoak zein terminologikoak egiteko behar diren datu-mota asko erazuleketa eta hiztegi-gintzako prozesu batzuk automatizatzeko edo erdiautomatikoki egiteko urratsak egin ditugula. Esaterako, terminologia-erazule elebidunen bidez (Itzulterm zerbitzuaren azpian dagoen ELexBi erazulea) zenbait enpresa era erakunderentzako hiztegi espezializatu elebidunak egin ditugu, haien dokumentaziotik abiatuta (*Laneki Hiztegia*²³, *Ertzaintzaren Polizia Hiztegia*²⁴).

²⁰ <http://www.ztcorpusa.eus/>.

²¹ <http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.eus/>.

²² <http://garaterm-corpusa.ix.a.eus/>.

²³ <http://hiztegia.jakinbai.eus/>.

²⁴ <https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/eu/web/ertzaintza/polizia-hiztegia>.

Esperientzia horietan ikasitakoa aplikatuz, plataforma integratu bat garatu dugu, TermKate²⁵, testutik hiztegiraino doan bidea albait gehien automatizatzeko, prozesua doitasunez kudeatzeko eta azken emaitza, hiztegia, zuzenean online argitaratzeko. Bestetik, Ixa taldeak sistema bana garatu du lexikografia eta terminologiarako: Lexkit (Alegria *et al.* 2006) eta TZOS-Terminologia Zerbitzurako Online Sistema²⁶. UZEIk ere garatu ditu hiztegegintzan, itzulpengintzan eta terminologia-lanetan erabiltzeko zenbait laguntza-aplikazio eta baliabide²⁷.

Corpusgintzaren kasuan, Elhuyarrek web-corpusen arloan lan egitea erabaki zuen. Hain zuzen ere, Internetetik testuak automatikoki biltzeko tresnak garatu ditugu, bai euskarazko testuak zein euskara-gaztelania testu elebidunak (Leturia, 2012; San Vicente eta Manterola, 2012; Gurrutxaga *et al.* 2013). Corpusak espezializatuak izatea ere lortu dugu, eta horrelako zenbait erabili dira, esaterako, Euskaltzaindiaren Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoaren (ZTHB) *Oinarrizko Lexikoak*²⁸ egiteko datu-iturri gisa. Garatze-lan horien emaitzak 2021ean argitaratu genuen Dabilena atarian²⁹ integratuta daude. Euskarazko corpusaz (300 milioi hitz) eta eu-es corpus elebidunaz (20 milioi hitz) gain, hiru tresna berriren emaitzak jarri ditugu erabiltzailearen esku: a) corpus elebidunetan hitz edo hitz-segida jakin bat zenbat erataraz itzuli den («Nola itzuli da?» atala); b) euskarazko web-corpusa Konbitz³⁰ tresnaz prozesatu eta «Zein hitzekin konbinatzen da?» atala; c) Interneten kontsulta daitezkeen euskarazko hainbat corpus batera kontsultatzeko funtzionalitatea.

Esan gabe doa, beste erakunde batzuek ere jardun dute corpusgintzan, eta gaur egun ugariak dira euskarazko corpusak. Bereziki nabarmentzekoak dira, batetik, dagoeneko aipatu dugun Euskaltzaindiaren Lexikoaren Behatokia eta, bestetik, UPV/EHUko Euskararen Institutuak corpusgintzan egindako lan handia, batez ere Ereduzko Prosa Gaur³¹ (25 milioi hitz) eta Egungo Testuen Corpusa³² (355,4 milioi hitz). Beste baliabide interesgarri batzuk ere bada; adibidez, EHUren EHUskaratuak³³ corpus espezializatu elebiduna eta TSE proiektuko Garaterm euskarazko corpusa.

²⁵ <https://termkate.elhuyar.eus/>.

²⁶ <http://tzos.ehu.eus/>.

²⁷ <https://uzei.eus/igb-2/>.

²⁸ <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/oinarrizko-lexiko-teknikoak>.


²⁹ <https://dabilena.elhuyar.eus/>.

³⁰ <https://dabilena.elhuyar.eus/info/link9>.

³¹ <https://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>.

³² <https://www.ehu.eus/etc/>.

³³ <http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>.



1. irudia

Elhuyarren Dabilena atariko «Nola itzuli da» atalaren emaitzak euskarazko *erronka* hitzerako. Gaztelaniazko baliokideak automatikoki lortuak dira, Internetetik bildutako eu-es testu elebidunetatik. *Elhuyar Hiztegian* dauden ordainak markatuta daude. Baliokideen testuinguru errealak ere bistaraten dira.

Hala eta guztiz ere, hiztegitintza automatizatzeke ahalegina gainditzen zailak diren muga batzuetara iritsi da: adierak bereiztea eta definizioak idaztea.

Ikertzaileen artean, lehenak erakarri du arreta handiena, eta prozesamendu semantikoa da oztopoa. *De facto*, horixe izan da beti lexikografiaren arazo handienetakoa, hitz baten adierak bereiztea (Atkins, 1993). Hitz baten corpuseko agerpenak aztertuz, edo adibide-multzo bat aztertuz, eta are introspekzioa (*insight*) erabiliz ere, lexikografoek hitz horren semantikaren «disekzioa» egiten dute; hau da, zenbait adieratan banatzen dute, bai intuizioz, bai irizpide edo metodologia jakin batzuetan oinarrituta. Metodologia hori hitzen adierak diskretuak eta bereizgarriak direla dioen ikuspegi komun eta intuitiboan oinarritzen da, eta zenbaitek zalantzan jarri du gauzak benetan horrela diren (Kilgarriff, 1997). Batzuetan zaila edo ezinezkoa da corpuseko agerpen bat hiztegi adiera jakin batekin lotzea, eta arazo larriena ez da legokiokoen adiera hiztegi ez egotea (hori konpon daiteke, hiztegi beste adiera bat sartuz), baizik eta mugako kasuak izatea, tartekoak edo anbiguoak. Izan ere, hiztegiak aztertuz gero, berehala ohartzen da bat lan horren emaitza ez dela beti bera, zeren eta adierak ez daude beti berdin bereizita eta antolatuta; an-

tolamendu hori hiztegitzearen, hiztegi-motaren, helburu-erabiltzailearen eta beste zenbait faktoreren arabera aldatzen da.

Horrenbestez, *a priori* badirudi nahiko zaila dela lan hori automatizatzea eta, nahiz eta ikertze-ahalegin handia egin den, ezin izan da iritsi hiztegitze-zako beste ataza batzuetan lortu den mailara. WSD-*Word Sense Disambiguation* («adieren desanbiguazioa») izeneko ataza izan da ikertze-ahalegin handiena erakarri duena. Horren helburua da corpuseko agerpen bakoitzari adiera edo zentzu bat esleitzea automatikoki; hau da, hiztegi batean edo eza-gutza-base lexiko batean —hala nola Wordneten— dagoen adiera bat esleitzea (Fellbaum, 2010). Horretarako, beraz, beharrezkoa da alde aurretik baliabide hori izatea. Adiera-bereizketa jakin bat egin duen hiztegi bat erabiliz gero erreferentzia gisa, aurreko paragrafoan azaldutako arazoak sortzen dira, eta, horrez gain, ez dira ondo konpontzen hiztegi horretan ez dauden adiera berrien detekzioa eta bereizketa.

Beste metodo bat izan da agerpenak *sense clustering* edo multzokatze-teknikak erabiltzea eta, horiekin, agerpenak adieraka elkartzea. Teknika horiei esker, hitz jakin baten agerpenak testuinguruaren antzekotasunaren arabera multzokatu daitezke (Purandare & Pedersen, 2004; Agirre & Soroa, 2007). Horren ondoriozko lan bat hiztegian edo erreferentzia-oinarrian ez dauden adiera berriak aurkitzea da (Dorow & Widdows, 2003).

Nolanahi ere, metodo horiek hiztegitze automatikoan —edo erdiautomatikoan, behintzat— integratzeko, hobekuntza handia egin behar da oraindik.

Azkenik, definizioak idazteko zenbait ikerlan egin dira. Gehienak ez daude idaztera bideratuak, baizik eta testuetan dauden definizio-testuinguruak erauztera (Alarcón *et al.* 2009).

Corpusgintzaren eta hizkuntzaren prozesamendu automatikoaren alorreko garapenen xedea ez da soilik izan datu gehiago eskuratzea eta horiek prozesatzeko ahalmen handiagoa izatea, kalitate handiagoko produktuak sortzeko eta hiztegien ikuspegi preskriptibo/deskriptibo bikotea bigarren elementurantz mugiarazteko. Prozesu batzuk automatizatuz, hiztegitzearen kostuak murriztea ere lortu nahi da. Bada horretarako motibazio indartsu bat: Interneten sorrerak hiztegitzearen finantziazio-ereduan ekarri duen aldaketa. Horretaz jardungo dugu hurrengo atalean.

3.2. Digitalizazioa eta Internet

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, teknologia berriek bete-betean eragiten diete hiztegiei, eta erabiltzaileei duela urte batzuk pentsaezinak ziren aukerak eskaintzeko bidea ematen dute, hala nola hitzaren ahoskera, kon-

tzeptuari loturiko irudia, hitzaren erabilera-adibide errealak... Atal honetan, digitalizazioak eta Internet aroak ekarri dituzten onurei buruz eta abantaila horiek eragin dituzten beste aldaketa batzuei buruz jardungo dugu. Erabateko paradigma-aldaketa ekarri du alde guztietan; bai lexikografia-lanak egiteko moduan, baita erabiltzaileen erabilera-modu eta beharretan ere.

Gaur egungo erabiltzaileei galdetuz gero hiztegiaren zer formatu kontsultatzen duten, inork gutxik erantzungo luke paperezko hiztegia erabiltzen duenik. Ikasteko eta lan egiteko moduak aldatu diren modu berean, hiztegiek ere transformazio handi bat bizi izan dute. Jada ez da beharrezkoa bilaketa ordena alfabetikoan egitea; kontsultatu beharreko hitza interfaze digitalaren bilaketa-kutxan idatzi, eta azkar itzuliko dizu emaitza. Are gehiago: hitza osatzen duen letra-segida oker idatzita ere, kontsulta-aplikazioak horren antzeko hitzen zerrenda bat eskainiko dizu, zure pentsamendua irakurtzeko gaitasuna balu bezala. Zaila da batere erantzunik ez itzultzea.

Elhuyar Hiztegia 1999an jarri zen lehen aldiz Interneten kontsultagai. 23 urte igaro dira ordutik, eta gure iritzia argia da: asmatu egin genuen gure baliabideak Interneten eta guztion eskura jarrita. Ordura arte paperean bakarrik argitaratu zen hiztegia klik bakarrean eta doan kontsultatu zitekeen, artean ere aski ezezaguna zitzaigun ingurune batean. Nolanahi ere, ez ginen Interneten bide berri hura urratzen hasiak ginen bakarrak; lehenago edo beranduago, aurreko atalean aipatutako hiztegi gehientsuenek online kontsultatzeko aukera eman dute. Are gehiago, harrezkeroztik hiztegi-mota berriak ere sortu dira, eta paperezko bertsiorik izan ez duten eta zuzenean online formatuan argitaratu diren hainbat lan ezagutu ditu euskarak. Honatx bi adibide: *Nola Erran*, frantsesa-euskara hiztegia, eta *Egungo Euskararen Hiztegia*³⁴, azken urteotako prosa-ekoizpenean oinarritutako euskarazko hiztegi elebarkarra.

Elhuyar Hiztegi itzuliz, bidezkoa da esatea lehen urteetako onlineko hiztegia paperezkoaren 'kopia' bat zela, euskarri hartan jasotako informazioa berbera ematen baitzuen. Geroztik, baina, webguneak eboluzio nabarmena izan du, eta hori erraz ikus daiteke hiztegi-kontsulta azkar batean.

Hasiera batean, Elhuyarren hiztegi orokorren datu-basea egituratzean, hiztegi ororen eduki guztien arteko barne-lotura bat egitea erabaki zen. Horri esker, nahiz eta webguneak bilaketa-kutxa bakarra duen,aldi berean hiru hiztegi kontsultatzeko aukera ematen du: euskara-gaztelania, euskara-frantsesa eta euskara-ingelesa. Alabaina, kontuan hartzekoa da hiztegi bakoitzak ezaugarri desberdinak dituela tamainari dagokionez.

³⁴ <https://www.ehu.eus/eeh/>.

The screenshot shows the Hiztegiak Elhuyar website interface. At the top, there is a search bar with 'eu - es' selected. Below the search bar, there are navigation options like '#ElhuyarrenGomendioak', 'Hiztegi-unitateak', and 'Idazlagun'. A large teal box on the left contains the text: 'Jaso etxean bertan zientziari eta teknologiari buruz jakin nahi duzun guztia'. The main content area shows the search results for 'aurkitu, aurki, aurkitzen'. It lists several translations and examples in Spanish, such as 'encontrar, hallar, dar con; encontrarse, topar (con); detectar'. A pop-up box titled 'Ohar aurreratuak' provides a note: 'EIMaren arabera (Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak, 181), gaztelaniaren interferentziak edo (encontrarse con...), perpaus desagokiak eratzten dira aurkitu aditzarekin: *horrelakoetan, ondorio hauekin aurkitzen gara → horrelakoetan, ondorio hauek aurkitzen ditugu'. Below the search results, there are sections for 'Adibide gehiago' and 'Adibide elebidun gehiago'. At the bottom, there is a comparison between 'aurkitu (eu)' and 'encontrar (es)' with detailed explanations and examples in both languages, along with the website URL 'www.capraalpina10'.

2. irudia

Elhuyar Hiztegiaren webguneko³⁵ kontsulta-aplikazioaren emaitza euskarazko *aurkitu* hitzerako. Sarreraren eskuinean ! ikonoa ageri denean, haren erabileraren inguruko arauak edo gomendioak ematen dituen oharra bistara daiteke, kurtsorea ikonoaren gainean kokatuz

Hiztegi-sarrerei buruz eskaintzen den informazioari dagokionez, aldiz, antzekoa da hiztegi guztietan (ikus 2. irudia):

³⁵ <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>.

- **Bilaketa-sistema.** Kontsulta errazteko, bilatu nahi den hitza idazten hastearekin batera, letra-segida hori duten hitzez osatutako zerrenda bat hedatzen da, eta erabiltzaileak zerrenda horretako edozein hitz hauta dezake. Hiztegia ez badago erabiltzaileak idatzitako letra-segidarekin hasten den hitzik, kontsulta-aplikazioak antzeko hitz batzuk proposatuko dizkio. Hiztegia jasota ez dauden letra-segida horien zuzenketa bi modutara egiten da. Alde batetik, lematizazio bidez; adibidez, erabiltzaileak *nai*z hitza idazten badu, aplikazioak adieraziko dio *izan* aditza dela hitz horren lema. Bestetik, antzeko letra-segida duten sarrerek emango dizkio aukeran: *nahiz*, *nahi*, *nahiez*, *naif*, *nagiz*.
- **Ahoskera entzuteko aukera.** Forvo zerbitzuaren bidez eta sintesi bidez, hau da, modu automatikoan sorturiko ahotsaren bidez.
- **Ordain klikagarriak.** Bilatutako sarrerari dagozkion ordainak klikagarriak dira, eta erabiltzailea zuzenean joan daiteke proposatutako ordainaren informaziora.
- **Ohar aurreratuak.** Sarreren itzulpenak eta adibideak emateaz gain, zenbaitetan hitzaren erabilerari buruzko ohar aurreratuak ikus daitezke.
- **Corpusetako informazioa.** Hitzen erabilera erreala ikusi nahi badu, erabiltzaileak aurreko atalean azaldu ditugun corpusen informazioa kontsultatzeko aukera du. Hain zuzen ere, Elhuyarren Dabilena atarian biltzen diren corpusen informazioa modu automatikoan ekartzen da; adibideak elebakarrak zein elebidunak izan daitezke (euskara eta gaztelania hizkuntzetan).
- **Beste hiztegi eta baliabide batzuetan bilatzea.** Bilaketa-kutxan idatzitako hitza beste hiztegi eta entziklopedia batzuetan bilatzeko aukera dago. Ezkerreko zutabean ageri dira beste hiztegietarako lotura zuzenak, «Beste hiztegietan» atalean.
- **Idazten laguntzeko atala.** Hiztegi hutsa izateaz gain, idazten laguntzeko bestelako baliabideak biltzen dituen gunea ere izan daiteke. Une honetan, beste webgune batera bideratzen dugu erabiltzailea, non bestelako kontsulta-motak egin baititzake: itzulpen-memoria publikoetan bilatu; aditzak jokatze laguntza jaso; datak, zenbakiak eta deklinabidea egoki idazteko laguntza eskuratu.

Informazio hori guztia, gainera, egun erabiltzen diren gailu gehienetan kontsultatu ditzake erabiltzaileak, mahai gaineko ordenagailuetan nabigatzaile bidez, baita eguneroko tresna bihurtu diren gailu mugikorretatik ere (mugikorrek eta tabletak).

Orain arte, azken urteetan hizkuntza-teknologiei esker hiztegia izan diren berrikuntzak aipatu ditugu, guztiak ere hiztegiaren webgunean eskaintzen direnak. Hurrengo atalean hiztegien edukia eguneratzeko erabiltzen ditugun baliabideei buruz arituko gara.

3.2.1. Edukiak eguneratzea

Hiztegiak eguneratzeko modua ere asko aldatu da azken urteetan. Papezko argitalpenekin esan ohi zen hiztegia argitaratu orduko zaharkitua gertzen zela; bada, guztiz kontrakoa gertatzen da orain.

Gaur egun, *Elhuyar Hiztegia* eguneratzeko abiapuntu nagusiak hauek dira:

- **Corpusen kontsulta eta ustiaketa.** 3.1 atalean aipatu ditugun baliabide eta tresnen bidez, hiztegiratzeko hautagaiak detektatzen ditugu. Informazio hori ezinbestekoa da, hiztegiak hizkuntzaren baliabide adierazgarriak eta eguneratuak izango badira. Hala ere, gaur egun hizkuntza oso azkar aldatzen eta berritzen da, eta batzuetan denbora behar izaten da hitz batzuk corpusetara iristeko. Esate baterako, COVID-19 pandemia hasi bezain laster, euskarara ekarri beharreko hainbat termino berri sortu ziren, hala nola PCR, *gel hidroalkoholiko*, *aztarnari*, *test azkar* edo *musuko*³⁶. Horrelakoetan, hiztegiak oso adi egon behar dute, komunikabideetan, sare sozialetan eta antzekoetan zabaltzen ari den lexikoari antzemateko.
- **Euskaltzaindiaren Hiztegiaren eta Diccionario de la lengua españolaren eguneraketak.** Sarrera berriak sartzeaz gain, zuzendu edo osatu ere egiten dituzte beste asko. Hizkuntza-teknologiak baliatuta, eguneratze horiek guztiak *Elhuyar Hiztegian* jasota eta gauzatuta dauden aztertzen dugu, eta falta direnak landu eta gure hiztegiara ekartzen ditugu, eskuz edo erdiautomatikoki.
- **Elhuyar Hiztegiaren webgunetik eta aplikaziotik iristen diren proposamenak.** Hiztegiaren erabiltzaileak iruzkinak egin eta proposamenak bidaltzeko aukera du; horretarako, aski du webguneko edo aplikazioko botoi bat sakatzea. Jasotzen ditugun iruzkinak, oro har, hiru multzotan bana daitezke:
 - Zuzenketak: erabiltzaileak akats bat ikusi du termino, sarrera edo adibideren batean.
 - Proposamenak: erabiltzaileak bilatutako terminoa edo adiera ez dago hiztegian jasota.
 - Bestelako iruzkinak edo zalantzak: erabiltzaileak termino edo esamolde baten erabilerari buruzko zalantza du.
- Kontuan izanda gure hiztegiaren erabiltzailearen profila askotarikoa dela, jasotzen ditugun iruzkinak ere halakoxeak dira: termino oso tek-

³⁶ Hasiera batean, gaztelaniazko *mascarilla* terminoaren euskal ordain gisa *maskara* eman genuen, hala erabili baita oraintsu arte medikuntzaren alorrean. Hala ere, gerora, erabilera-datuetan oinarrituta eta *musuko* terminoak izan zuen zabalkundea ikusita, *musuko* ere hiztegiatzea erabaki genuen.

nikoen itzulpenei buruzkoak (*tabique interventricular, jasandako BEZ*), kaleko hizkerari buruzkoak (*txorta-lagun, poteatu*), unean erabiltzen diren terminoei buruzkoak (*websail, ucranio,-a, me gusta, zi-sexual*) eta abar. Jakina, iruzkin horiek gure hiztegia osatzen eta aberasten laguntzen digute.

- Proposamenak landu eta aztertu ondoren, erabiltzaileari erantzuten diogu, eta bere ekarpenak izan duen emaitza azaltzen diogu: proposatutako hitza hiztegian jaso dugula (edo ez), jada hiztegian dagoela (beste forma batekin, hiztegi-sarrera nagusi baten barruan...), gaia hobeto aztertuko dugula... Hala, erabiltzailearen eta lexikografoen arteko interakzioa sustatzen dugu, eta hori ere iturri aberatsa da gaur egungo euskara jaso eta hiztegian islatzeko.

3.1. atalean adierazi dugun bezala, hizkuntza-teknologiak eta Internetek lexikografia-lana egiteko modua aldatu du; besteak beste, aipatu berri ditugun eguneraketa horiek modu azkar eta errazago batean egiteko aukera eskaintzen digu. Online dauden corpusek, hiztegiek eta beste hainbat baliabidek datuen azterketa errazten dute, baita hiztegiako sarreraren adibideen hautaketa ere. Halandaze, hiztegia errazago eta azkarrago elikatzeko aukera ematen digu.

Teknologiak eskaintzen dizkigun aurrerapenei esker, hiztegiak eguneratzeko modua aldatu den era berean, hiztegi-erabiltzaileen beharrak ere oso bestelakoak dira gaur egun. Hurrengo atalean, behar eta ohitura berri horiei buruzkoak laburbilduko ditugu.

3.2.2. Erabiltzaileen beharrak

Egindako ikerketen arabera (Müller-Spitzer, 2017), gaur egun, erabiltzaile gehienek nahiago dute hitzak online kontsultatu hiztegi tradizional batean egin ordez. Are gehiago, hizkuntza batetik besterako baliokideak bilatzeko hiztegi jakin batera joan beharrean guztiok ezagutzen dugun bilatzailean kontsulta egin eta emaitzetan, batzuetan agertuko da euskal hiztegirik, baina beste askotan bilatzaileak berak egiten du bilaketa.

Interneten erabiltzailearentzat, gero eta lausoagoak dira hizkuntza-baliabide desberdinen arteko mugak. Gaur egun, oso ohikoa da hitzen esanahia kontsultatzeko Interneteko bilatzailean joan eta zuzenean bertan idaztea eta informazioa bide horretatik jasotzea. Gainera, hiztegiak itzultzaile automatiko gisa erabiltzen dira, eta itzultzaileak, berriz, hiztegi gisa. Baina hiztegiak ez daude prestatuta itzultzaile gisa lan egiteko, ezta itzultzaile automatikoak ere ohiko hiztegi gisa jarduteko (halere, bide hori lantzen ari da, gero eta gehiago; guk ere *Elhuyar Hiztegia* txertatu dugu *Elia* itzultzaile automatikoan). Erabiltzailea ez dago pozik, ez duelako aurkitzen berak dituen hizkun-

tza- eta eduki-behar guztiak aseko dituen baliabiderik, eta hizkuntza-baliabi-deak sortzen eta eskaintzen ditugunok ere ez gaude konforme, ez dugulako asmatzen erabiltzailearen beharra asetzen.

Azken finean, zer nahi du erabiltzaileak, gero eta gehiago? Bada, orde-nagailuaren aurrean jartzen denean sortzen zaizkion beharrak asetzen lagun-duko dion soluzio bat; ez bi ez hiru ez lau, baizik eta bat, bakarra. Baina era-biltzaileen beharrak eta espektatibak ez dira ez homogeenok ez estatikoak, eta, askotarikoak izateaz gain, etengabe aldatzen dira, are gehiago azken biz-pahiru urteotan, adimen artifizialaren ondorioz hizkuntza-teknologiek izu-garrizko jauzia egin dutelako eta erabiltzaileak ia oharkabean —eta ia-ia hizkuntza-baliabideen sortzaileok baino azkarrago— ohitzen direlako tekno-logia horiek eskaintzen dituzten abantailak.

Beraz, erabiltzaileen ohitura berri horiei adi entzun eta hiztegiak aha-lik eta modu eroso eta errazenean eskaintzeko ahaleginak egiten jarraituko beharko dugu, nahiz eta horretarako hainbat erronkari erantzun beharko die-gun; erronka horien artean garrantzitsuenetako bat proiektuen errentagarri-tasuna bermatuko duten finantzabideak bilatzea da eta horri buruz jardungo dugu hurrengo atalean.

3.3. Hiztegi-gintza: negozio-ereduaren aldaketa

Aro digital berri honek ireki dituen bideez aritu gara orain artean, baina baditu bere alde ilunak ere. Hiztegi-gile askoren kezka nagusia da egun euskal hiztegi-gintza ez dela errentagarria (Izeta, 2021). Urteetan, euskarazko hizte-gigintzaren diru-iturri nagusia paperezko aleen salmenta izan da, eta, horri esker, hiztegiak eguneratzen eta aberasten jarraitu ahal izan dugu. Beste arlo batzuetan gertatzen den antzera, erabiltzaileek paperezko produktuak eros-teari utzi diote: gure datuen arabera, paperezko hiztegien salmentak % 80ko jaitziera izan du azken hamabost urteetan, eta ez dirudi joera horrek aldaketa-rik izango duenik; ez, behintzat, kontrako bidean. Hortaz, hiztegien salmen-ta-bidea agortuta, hiztegi-ko eguneraketak eta egokitze-lanak egiteko finan-tzabide berriak topatu behar dira.

Sarean dagoen Elhuyar hiztegien atariak urtean 5 milioi bisita eta 50 mi-lioi kontsulta baino gehiago izaten ditu; gainera, azken urteetako joerari be-giratuta, ia ziurtzat jo dezakegu bisita-kopuru horrek gorantz egingo duela. Alabaina, bisita horiei etekina ateratzeko bidea topatzen saiatu arren, ez da erraza izaten ari. Elhuyarren egin izan dira ahalegin bereziak bestelako fi-nantzabide berriak topatzeko, dohaintza-kanpainak abian jarritz, iragarkien bidezko finantziarioa bilatuz... Nolanahi ere, bide horietatik lortutako emai-tza ekonomikoak ez dira, inondik inora, salmentekin lortzen ziren adinakoak, eta horrek ataka estuan jartzen gaitu, aurrera begira.

Erabiltzaileen ekarpen ekonomikorik gabe, eta diru-ekarpen publikorik egon ezean, ez da erraza horrelako proiektuen biziraupena ziurtatzea. Esaterako, Adorez hiztegien egileek, Bostak Bat elkartekoek, antzeko kezka plazaratu zuten euren hiztegiaren webgunean³⁷. Besteak beste, hizkuntzaren alorreko ikerketak egiteko dirulaguntzak ematen jarraitzeko aldarrikatu zuten, eta urteroko diru-kopuru finko bat eskatu zuten hiztegiak Interneten erabiltzaileen eskura eta doan jartzearen truke.

Dena dela, hiztegien biziraupenaren inguruko kezka ez da gure lurraldera mugatzen, nazioartean ere antzeko arazoak plazaratu baitituzte (Rundell, 2012; K hler Simonsen, 2017). Rundellek (2012) hiru agertoki posible irudikatzen zituen arazo horiei aurre egiteko:

- Hiztegiak modu erabat automatikoan lantzea; hau da, hizkuntza-teknologiari esku uztea hiztegien sorkuntza, merkeagoa izan dadin.
- Hiztegien sortze- eta eratze-prozesua kolektibizatzea eta komunitatearen esku uztea, Wiktionary³⁸ bezalako proiektuen gisan, komunitateko erabiltzaileen ekarpenak onartuz.
- Erakunde publikoek hiztegien produkzioa babestea, onura publikoko zerbitzu gisa funtziona dezaten.

Esan dezakegu gure kasuan aurrerapauso handiak egin ditugula Rundellek (2012) proposatutako lehen agertokian. Lan egiteko metodologia ahalik eta gehien automatizatu eta optimizatu dugu, baina, halere, gure ustez ezinbestekoa da azken orrazketa lexikografoek egitea, hiztegien kalitatea bermatu nahi bada. Bigarren agertokiari dagokionez, 3.2.1. atalean aipatu dugun moduan, erabiltzaileek egiten dizkiguten iruzkin eta proposamenak kontuan hartzen ditugu; beraz, zuzenean ez bada ere, erabiltzaileek hiztegia aberasten dute beren ekarpenen bidez. Azken agertokiari dagokionez, ezkor gara Elhuyarren. Une honetan, zailtasun handiak ditugu erakunde publikoetatik jasotzen den diru apurrarekin hiztegia eguneratzeko, eta, egoera aldatu ezean, ez dugu bide erraza gure aurrean; etorkizunari begiratuta, bihurtzeko bidea ikusten dugu aurrean, eta ezin jakin bihurtzeko ondoren zer aurkituko dugun.

4. ZER EKARRIKO DIGU ETORKIZUNAK?

Ez dira alferrik igaro 25 urte baino gehiago Miren Azkarate, Xabier Kintana eta Xabier Mendigurenen zuzendaritzapean ondutako *Elhuyar Hiztegia* lehenengoz argitaratu zenetik. Denbora horretan, hiztegiak goitik

³⁷ <https://www.bostakbat.org/index.php?e=206>.

³⁸ <https://www.wiktionary.org/>.

behera aldatu da, bai lan egiteko moduari dagokionez, bai erabiltzeko moduei dagokienez ere; eta baita, jakina, hiztegegintzaren testuinguru ekonomikoari dagokionez ere.

Hasiera batean, eta denbora luzez, goraka hartu genuen lan-prozesuaren digitalizazioa eta Internet bidezko argitalpena eta erabilera, baita hiztegiaren Internet bidezko lanketa ere, batez ere corpusen kasuan.

Lan-prozesuari dagokionez, eta bidean egindako ahalegin humano eta ekonomikoari esker, esan dezakegu hizkuntza-baliabide teknologikoen aldetik puntako produktua eskaintzeko modua dugula. Distantziaz eta kulturaz gertuko ditugun hizkuntzetako hiztegiei begiratuta, lasai antzean esan dezakegu *Elhuyar Hiztegia* ere haien paretsuan dabilela.

Interneten kasuan, berriz, oro ez da urre. Lanketaren eta zabalkundearen ikuspegitik lagun kutuna dugun arren, azken hamabost urteetan hankaz gora jarri ditu hiztegiaren bidezko etekin ekonomikoak, zeinak ezinbestekoak baitira hura eguneratzen eta osatzen jarraitzeko, eta zalantzan jarri dute, aitor dugu, hiztegiaren eta Elhuyarren hiztegegintza-jardunaren epe jada ez hain luzeko etorkizuna. Gero eta urriagoak dira hiztegia paperean kontsultatzen duten erabiltzaileak, eta paperetik Interneterako jauzia egin dutenak nekez akordatzen dira (paperezko) hiztegien truke ordaindu egin behar izaten zen garaiaz. Zer esanik ez, belaunaldi berrietako erabiltzaileek ez dute imajinatu ere egiten hiztegi baten (egunkari baten, entziklopedia baten) truke ezer ordaintzea. Ez da soilik Euskal Herriko kontua, noski, mundu osoan harrapatu baitzituen Internetek txakurrak ortozik. Gure kasuan, iraganean egindako ahaleginek erakutsi dute alferrekoa dela hiztegien iraunkortasuna erabiltzaileen modu bateko edo besteko ekarpen ekonomikoan oinarritu nahi izatea; mantentze-, eguneratze- eta berritze-lanen kostu ekonomikoek aise gainditzen dituzte bide horietatik eskuratzen diren diruak.

Paperezko edizioen diru-sarrerak zeharo murriztuta, ezinezkoa izan zaigu abiatuak genituen zenbait proiektuekin aurrera jarraitzea. Esaterako, 2004an lehen euskara-frantsesa hiztegia argitaratu genuen, eta 2012an edizio berri-tua, gerora osatzen eta handitzen joango ginelakoan; nolana ere, paperezko edizioen diruzko ekarpen eskasek eta erakunde publikoetatik jasotzen dugun laguntza urriak ez dute aukerarik ematen hiztegia handitzen eta eguneratzen jarraitzeko. Bestalde, eskoletan hain beharrezkoa den eta erabiltzen dela badakigun *Ikaslearen Hiztegia* egoera bertsuan geratzeko arrisku handia dago. Beste hainbeste euskara-ingelesa hiztegia dela eta. 2007an gure lehen edizioa kaleratu genuen, eta 2016an jauzi handi bat egin genuen Collins argitaletxe ospetsuarekin batera argitaratutako hiztegiarekin, baina ildo horretatik jarraitzeko behar diren inbertsioak gure helmenetik haraindi daude.

Hizkuntza-baliabide teknologikoen erabilera-molde berriek eta tresna horiek garatu, eskaini eta mantentzeko behar diren baliabide ekonomikoak

eskuratzeke zailtasunak kontuan hartuta, zenbait galdera otutzen zaizkigu. Lehenik eta behin, noren esku dago hiztegien etorkizuna? Nori dagokio hizkuntza gutxitu batek fisikoki edo kulturalki bizikide (edo lehiakide) dituen hizkuntza nagusietarako hiztegi elebidun edo eleaniztun arrunt eta espezializatuak dituela bermatzea? Gure ustez, pentsaezina da hizkuntza batek era horretako hiztegi eguneraturik ez izatea, are pentsaezinagoa hizkuntza gutxitua bada. Egoera horrek hizkuntza are txikiago bihurtuko luke, eta haren debaluazioa eta desagertzea sustatu.

Euskarari dagokionez, imajinatzen ote du inork hiztegi elebidunik gabeko mundu bat? Batek esan dezake urte gutxiren buruan itzultzaile automatikoez beteko dutela hiztegien lekua. Beharbada hala izango da, hiztegien erabilera arrunt ez-espezializatuari dagokionez, bederen. Baina horrek ez du esan nahi hiztegien beharra desagertuko denik; izan ere, itzultzaile automatikoez jada eginak dauden itzulpenetatik ikasten dute, kalitate handiko testuetatik, eta testu horien egileek —itzultzaileek— askotariko baliabideak erabiltzen dituzte beste hizkuntza batean dauden testuak euskarara ekartzeko (tartean, itzultzaile automatikoak berak eta hiztegi elebidunak, hiztegi espezializatuak, hiztegi entziklopedikoak...). Eta, bestalde, itzultzaile automatikoak hiztegi eta glosario espezializatuekin elikatuko dira. Erabiltzaileak beharbada ikusi eta zuzenean erabiliko ez dituen arren, hiztegiak hor egongo dira... edo ez?

Beraz, hiztegiak sortzen, elikatzen, eguneratzen... jarraitu behar dugula erabakitzen badugu, nola egingo diogu aurre horrek duen kostu ekonomikoari? Dohaintza, iragarkien eta antzekoen bidean indar egiten jarraitu behar dugu, ala beste bide batzuk zabaltzen hasi behar dugu? Beharbada Wikipediaren antzeko proiektu kolaboratibo bat bultzatu behar genuke, baina iruditzen zaigu hori, egitekotan, kalitatearen lepo egingo litzatekeela. Nola bermatuko genuke hiztegiaren oreka, koherentzia eta zuzentasuna? Nork hartuko luke horren ardura, eta nork asumituko horren kostua? Edo agian bai, euskal komunitatea eta euskal erakundeak galera hori asumitzeko prest daude.

Argi dago euskarazko hiztegitzaren proiektu batzuek aski etorkizun bermatua dutela, erakunde publikoek finantzatuak baitira. Euskarazko hiztegietan, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, eta, hiztegi terminologikoetan, *Euskal-term* datu-banku publikoa. Horiek ez daude merkatuaren gorabeheren mende. Baina hiztegi elebidunak, seguru asko kontsultatuenak izan arren, babesik gabe daude, ez dute lortzen Interneteko erabilera erraldoi hori monetizatzea, eta ia ezin gaindituzko oztopoak dituzte ekonomikoki aurrera egiteko. Iragan dira hiztegitzaren elebiduna errentagarria eta ekonomikoki bideragarria zen garaia. Dudarik gabe, Elhuyarrek jarraituko du bideragarritasun hori lortzeko bide berrien bila, baina gizartea eta erakunde publikoak arazo honetaz jabetu ezean, etorkizuna iluna da, eta zalantzarik bete da dago.

5. BIBLIOGRAFIA

- Aduriz, Itziar, Izaskun Aldezabal, Iñaki Alegria, Xabier Artola, Nerea Ezeiza & Ruben Urizar. 1996. EUSLEM: A Lemmatiser/Tagger for Basque. In Martin Gellerstam, Jerker Järborg, Sven-Göran Malmgren, Kerstin Norén, Lena Rogström & Catalina Røjder Pappmehl (arg.), *Proceedings of the 7th EURALEX International Congress*. 17-26. Göteborg: University of Göteborg. <https://euralex.org/publications/euslem-a-lemmatisertagger-for-basque/>.
- Aduriz, Itziar, Izaskun Aldezabal, Olatz Ansa, Xabier Artola & Arantza Diaz de Ilarraza. 1998. EDBL: a Multi-Purpose Lexical Support for the Treatment of Basque. In *Proceedings of the First International Conference on Language Resources and Evaluation* (Granada, Spain, 1998), vol. II. 821-826. <http://ixa.ehu.es/node/3303>.
- Alarcón, Rodrigo, Gerardo Sierra & Carme Bach. 2009. Description and evaluation of a definition extraction system for Spanish language. In *Proceedings of the 1st Workshop on Definition Extraction* (WDE '09), 7-13. Association for Computational Linguistics. <https://dl.acm.org/doi/10.5555/1859765.1859767>.
- Alegria, Iñaki, Xabier Arregi, Xabier Artola, Mikel Astiz & Leonel Ruiz Miyares. 2006. A Dictionary Content Management System. In Elisa Corino, Carla Marello & Cristina Onesti (arg.), *Proceedings of the 12th EURALEX International Congress*, 105-109. Torino: Edizioni dell'Orso. <https://euralex.org/publications/a-dictionary-content-management-system/>.
- Areta, Nerea, Antton Gurrutxaga, Igor Leturia, Iñaki Alegria, Xabier Artola, Arantza Díaz de Ilarraza, & Aitor Sologaitoa. 2007. ZT Corpus: Annotation and tools for Basque corpora. *Proceedings of Corpus Linguistics 2007*, 124-131. <http://ixa.si.ehu.es/sites/default/files/dokumentuak/3292/pdf-format.pdf>.
- Atkins, Beryl T. S. 1992. Theoretical Lexicography and its Relation to Dictionary-Making. *Dictionaries: Journal of the Dictionary Society of North America* 14(1). 4-43. <https://doi.org/10.1353/dic.1992.0011>.
- Azkarate, Miren. 1990. Neologisms and Lexicography in the Basque Language. In Thomas Magay & Judith Zigány (arg.), *Proceedings of the 3rd EURALEX International Conference, 4-9 September, 1988, Budapest*. 467-472. Budapest: Akadémiai Kiadó. <https://euralex.org/publications/neologisms-and-lexicography-in-the-basque-language/>.
- Azkarate, Miren. 1991. Basque Lexicography. In Franz Josef Hausmann, Oskar Reichmann, Herbert Ernst Wiegand & Ladislav Zgusta (arg.), *Wörterbücher: Ein internationales Handbuch zur Lexikographie*, vol. 3. 2371-2375. Berlin: de Gruyter. <http://doi.org/10.1515/9783110124217.3.21.2371>.
- Kintana, Xabier, Jon Aurre & Ricardo Badiola [Ekiten taldea]. 1980. *Diccionario 80*. Bilbo: Elkar. <https://worldcat.org/oclc/1348720327>.
- Dorow, Beate eta Widdows, Dominic. 2003. Discovering corpus-specific word senses. In *Proceedings of EACL 2003*. Budapest, Hungary. 79-82. <https://aclanthology.org/E03-1020/>.
- Gurrutxaga, A., Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea & Iñaki Alegria. 2005. Erauzterm: euskarazko terminoak erauzteko tresna erdiautomatikoa. In *Mendebalde Kultur Alkartea, IX. Jardunaldiak: Euskera zientifiko-teknikoa*. Bilbo. <http://ixa.ehu.es/node/3790>.
- Gurrutxaga, Antton, Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea & Iñaki Alegria. 2006. Elexbi, a Basic Tool for Bilingual Term Extraction from Spanish-Basque Parallel

- Corpora. In Elisa Corino, Carla Marello & Cristina Onesti (arg.), *Proceedings of the 12th EURALEX International Congress*. 159-165. Torino: Edizioni dell'Orso. <https://euralex.org/publications/elexbi-a-basic-tool-for-bilingual-term-extraction-from-spanish-basque-parallel-corpora/>.
- Gurrutxaga, A., Nerea Areta & Igor Leturia. 2008. Begiratu bat corpus-baliabideei. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 66. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/begiratu-bat-corpus-baliabideei/>.
- Gurrutxaga, Antton, Igor Leturia, Xabier Saralegi & Iñaki San Vicente. 2013. Automatic comparable web corpora collection and bilingual terminology extraction for specialized dictionary making. In *Building and using comparable corpora*. Berlin: Springer. 51-75. https://doi.org/10.1007/978-3-642-20128-8_3.
- Izeta, Jon. 2021. *Euskal hiztegitzinta: paradigma historikoak, betiko auziak egun eta etorkizuneko erronkak*. Euskal Hizkuntza eta Kulturako Graduko Amaierako Lana. Deustuko Unibertsitatea. <https://dkh.deusto.es/comunidad/learning/recurso/euskal-hiztegitzinta-paradigma-historikoak-betiko/3fe0e531-aed8-4e4a-834f-33046f626579>.
- Kilgarriff, Adam. 1997. I don't believe in word senses. In *Computers and the Humanities* 31-2. Springer. <https://doi.org/10.48550/arXiv.cmp-lg/9712006>.
- Køhler Simonsen, Henrik. 2017. Lexicography: What is the Business Model? In Iztok Kosem, Carole Tiberius, Miloš Jakubiček, Jelena Kallas, Simon Krek & Vít Baisa (arg.), *Electronic lexicography in the 21st century: Lexicography from scratch. Proceedings of eLex 2017*, 395-415. Brno: Lexical Computing. <https://elex.link/elex2017/wp-content/uploads/2017/09/paper24.pdf>.
- Leturia, Igor. 2012. Evaluating different methods for automatically collecting large general corpora for Basque from the web. In *Proceedings of the 24th International Conference on Computational Linguistics – CoLing 2012*. Mumbai, India. <https://aclanthology.org/C12-1095/>.
- Lew, Robert. 2015. Dictionaries and their users. In P. Hanks & G. de Schryver (arg.), *International Handbook of Modern Lexis and Lexicography*, 25-37. Springer. https://doi.org/10.1007/978-3-642-45369-4_11-2.
- Müller-Spitzer, Caroline. 2017. Investigación sobre el uso de los diccionarios en la era digital. In María José Domínguez Vázquez, María Teresa Sanmamarca Bande (arg.), *Lexicografía y didáctica: diccionarios y otros recursos lexicográficos en el aula*, Frankfurt: Peter Lang. 55-80. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6580635>.
- Purandare, Amruta & Ted Pedersen. 2004. Word sense discrimination by clustering contexts in vector and similarity spaces. In *Proceedings of CoNLL-2004*, 41-48. <https://aclanthology.org/W04-2406/>.
- Rundell, Michael. 2012. The road to automated lexicography: an editor's viewpoint. In Granger, S. & M. Paquot (arg.), *Electronic Lexicography*. Oxford: Oxford University Press. 15-30. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199654864.003.0002>.
- San Vicente, Iñaki & Iker Manterola. 2012. PaCo2: A Fully Automated tool for gathering Parallel Corpora from the Web. In *Proceedings of the 8th international conference on Language Resources and Evaluation, LREC'12*. 23-25 May, Istanbul. <https://aclanthology.org/L12-1085/>.

Aturrialdeko *heskuararen* berrikuntzen kokagune geografikoa

Iñaki Camino*

Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Lapurdiko iparrean den Aturrialdeko euskal herrietako mintzoen egitura geolinguistikoz aurkezpen orokorra eta oharrak dakartzat idazlan honetan. Lehenik eskualdeko ezaugarri arkaiko batzuen egoera aurkeztuko dut, eta baita ondoko eskualdeetan ageri ez diren ezaugarri berri endemiko/berezi Aturrialdeko batzuk ere. Lapurdin da Aturrialdea eta ez dago Hazparnetik urrun, horregatik, Lapurditik nola hiri horretarik hizkuntza-berrikuntzak bildu ditu, baina ekialdeko mintzoetarik ere bai. Testu zaharrak bakan dira, ez da aise ikerketak sakontasun kronologiko handia erdiestea, baina oharrak dakartzat oraingo emaitzek XIX. mendean zuten itxuraz eta ordutik hona mintzoan gertatu diratekeen aldaketek.

Hitz gakoak: eskualdeko mintzoa, ezaugarri endemikoak, berrikuntzen hedadura.

1. SARBIDEA¹

1.1. Ez dira osotasunean aztertu Lapurdiko Aturrialdeko euskararen izaera eta erlazioak, dauden datuek ez digute baieztapen dialektologiko sendoak egiteko aukerarik ematen eta ez dago eskualde horretako mintzoen monografia kontrastiborik oraino, horregatik, Aturrialdeko *heskuararen* berri dakarren ikerlan honek eskualdeko mintzoak aurkezten eta aztertzen ditu, omentzen dugun Miren Azkarateri gogo onez eskaintzeko.²

* Iñaki Camino. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatearen ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). inyaki.camino@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-002-1852-174X>.

¹ Ikerlan honek bi egitasmoren laguntza bildu du: 1) Monumenta linguae vasconum (VI): Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca. MEC: PID2020-118445GB-I00. 2) Lingüística Diacrónica, Tipología e Historia del Euskera. EJ: IT1534-22.

² Badira Henri Duhauren bi lan Beskoitzeko euskaraz (1993, 2003), erakusten baitizkigute bilakabide fonikoak, paradigma morfologikoak eta erranaldi franko, baina ez dute helburu kontrastiborik.



Aturrialdeko datuek erakusten dute eskualdeak ez duela guztizko hizkuntza-batasunik, horregatik erne ibili behar dut ene baieztapenak geografian sobera hedarazi gabe. Gainera, Aturrialdea berrikuntzen bidegurutze geografikoan kokaturik egoteak jatorri geografiko desberdineko aldaerak eragin ditu herri batean eta berean.³

1.2. Aturri ur handiaren aroko sei euskal herri ttipiez eskema geografiko bat aurkez daiteke, Hiriburu delarik Baionari hurbilen den herria eta Bardoze Baxenabarrerri hurbilen dena. Ekialderat, Amikuzeri hurbil da Bardoze, ibar horretako Oragarre herriari, Bartha auzoari preseski, eta peko aldetik baita Baxenabarreko Bastida eta Aiherrari ere.⁴

Hona Aturrialdeko euskal herrien eskema geografikoa aurkezteko saio bat:⁵

Lehuntze	Urketa	Bardoze
Hiriburu	Mugerre	Beskoitze ⁵

1.3. Aturrialdean hizkuntza-ukipena dago, *xarnegua* da bardoztarren izaera, nahasia, kaskoin hizkuntzarekin harreman sakona duena. Bardoze herri euskalduna eta kaskoina da aldi berean, bi nortasunetarik du, nahiz egun herriari galbidean den euskara. Hona Bardoze euskararen gaiak amikuztarrei galdegitean bildu dudak iritzia. Ilharren: *bená Bardotze bauk biziki kaskoiñ, e, eRan nahi bita, biarnes eta hoitaik, ze*. Arbotin: [Bardoze ekuara konprenitzen?] *Hein bat, hein bat*. [Xiberokoaren iduria?] *Ez, ez, ez, ez, beste gisa at ono, plutôt biarne[¿]ari hürrentzen den zeeit, erdi heskuara erdi biarnes*.⁶

³ Konparazione, Bardozen *uri & euri*, bi aldaerak ibiltzen dira (EHHA). Adizkietan ere, toketan *d-* eta *z-*, *dezakeiat* eta *zezakeiat* ageri dira Beskoitzen, bi joera desberdin herri berean (Duhau 1993: 65).

⁴ Goi-behe ikusirik, Hiriburu, Mugerre eta Beskoitze hegoalderago gelditzen dira Lehuntze, Urketa eta Bardoze baino, baina Aturri ur handiari hurbilen diren herriak, Hiriburu, Mugerre, Lehuntze eta Urketa dira. Beskoitzeko eta Bardoze herrietako etxeen multzo nagusitik distantzia iduria dago Aturri ur handira. Eskuin, hurbil du Bardoze Bidaxune hiri nafarrentzat historikoa eta gaínean, berri, Gixune herri kaskoina du. Lapurdiko herri ez euskaldun honexetan elkartzen zaio Aturri Amikuzetik datorren Biduza ur handia.

⁵ Laburdurak baliatuko ditut idazlanean: Bardoze (Bar), Beskoitze (Bes), Mugerre (Mug) eta Urketa (Urk). Corpusaren egoeragatik kasik ez dira Hiriburu eta Lehuntze agertuko, baina Aturrialdeko euskal mintzoari antz eragin dion ondoko hiri hazi Hazparne (Haz), bai. Uztari-tze (Uzt) eta Itsasu (Its) ere agertuko dira.

⁶ Beren nortasuna baxtartzat hartu ohi dute bardoztarrek. Euskaltzaindiaren EHHA atlaseko lekuko bardoztarrak dio: *Basaburia ez hemen, hori Eskual Herrian, gu re Eskual Herrian gítzu, bana bastartak*. Bardoztarren hitz berezia da *xapo at* ‘pixka bat’, erratan baitiete hori ez dela euskara. Hitzun bardoztarrek berek aipatzen dute berezitasun hau (EHHA): «*xapo at*»; «*pitta at*» *erteko orde*, «*xapoño at*», ‘un petit peu’, «*emak ogi xapo at*», *Bardotzen bakharrik, naski bakharrik... Hemen bitira halako hitz batzu, erraiteko orde <poxi bat>*, «*xapu at*»; hori

1.4. Aturrialdeko euskararen lekukotasunak ez dira anitz eta zail da historian zehar eskualdeko mintzoak zein bilakaera ukan duen jakitea, ez baitago testu zaharren jarraikortasunik. XIX. eta XX. mendeetako lekukotasunak ezagutzen ditugu Aturrialdean, baina XVIII. eta XVII. mendeetako testurik ez dugu. Joanes Leizarraga idazle be(ra)skoiztar ezagun handia da salbuespena, 1571ko haren idazki luzeak. Alta, Leizarragaren Bibliako euskara ez da dialektalizaturik ageri, ez 1545eko Etxepareren olerkiak bezainbat.

Bonaparte printzearen eraginez itzuli ziren XIX. mendeko hiru katixima daude eskualdean, in Pagola, Iribar & Iribar (1999): Beskoitzekoa, Aiherrako apez Mendiburuk itzulia (1868), Urketakoa (1869), Henry Noële izeneko *yaun errientak* itzulia, eta Bardozeko notario Celhabek itzulia hirugarrena. Odon Apraizek XX. mendearen hasieran Beskoitzen, Urketan eta Bardozen emaitzak bildu zituen *Erizkizundi Irukoitz* edo Eirako (Etxaide 1984). EAEL atlasak ere bildu zituen emaitzak eskualdean eta Hiriburu, Mugerre, Beskoitze eta Bardozeko testu labur batzuk dakartza. Euskaltzaindiaren ESHA atlasak (1986 →) Xarles Videgainen bidez hizkuntza-datuak bildu zituen Mugerren, Beskoitzen, Urketan eta Bardozen. Beskoitzeko gramatika eta erranaldiak dakartzate Duhauren bi liburuek. Lan honetarako XIX. mendeko hiru katiximak, Duhauren lana, ESHAko emaitzak —bereziki Bardozekoak—, eta Irizarren adizki-bilduma (2002a, 2002b) baliatu ditut.

2. ARKAISMO ZENBAITEN EGOERA

Hizkuntzaren saihetsean dago Aturrialdea, kaskoina bukatzen eta euskara hasten den Lapurdiko gune horretan. Euskararen erdigune geografikotik urrun dagoen honelako eskualde baztertuan ez litzateke harritzeko arkaismoak agertzea, baina arkaismoak ez daude guztiz bakarturik, hondarreko aldian Euskal Herriko erdigunetik edo Ipar Euskal Herrikotik aldaera berrien oldarra heldu zaie. Adibideak dakartzat erakusgarri:

2.1. Eskualdean dirau inesibo zaharrak.⁷

etzu eskuara; ze miakulu da hori? Halakoak dira ESHAko lekuko bardoztarren erranak: *hen guk nahastikatzen duu kaskoinarekin poxi bat, bai poxi bat, nahitez, itzuli guziak denak kaskoinak bitira. Nahitez, merkhatura johan ginen Bastidat, johan ginen Bixunat, bena Peyrehoradeat hasi ginen eta han kaskoinak dira. / Behala, behala, elgar mintzatzen eta ta Donaphaleuko, Oharrekoa, herria eta hek gutaz triifatzen, Bardotzen gauza drolia, erdia gaskoina, oai gaztiek ez tute mintzatzen eskuaraz, batutzu hitzak Eskual Herri guzietakoak: «giltza» erten duu guk, auzo herrian «gakhoo» guziek, eta Oharre ta Beskoitze, eta auzo herriak triifatzen: «gakho» erten da, ezta «giltza» erraiten.*

⁷ XIX. mendeko Bardozeko katiximak *gaiñen* & *gaiñen* dakartza eta ESHAk *gainen* nahiz *geinian*. ESHAk *ihizin* 'ehizean' dakar Bardozen eta Beskoitzen. Mugerren eta Bardozen *etxen*. Bardozekoak dira: *gue etxen* edo *aphezaan etxen* (ESHA). Beskoitzen *aitzurren* eta *ialden* 'iraulden' dakartza Duhauk (2003: 288).

2.2. Lapurdin Aturrialdeko Mugerren, Beskoitzen eta Urketan dakar EHHAK inesiboko *batetan* ‘batean’ (1715. mapa), eta baita Zuberoan eta Ozti-barreko Jutsin ere.⁸

2.3. XIX. mendeko katiximetan eta egun ere aditz-izenen aldaera zaharrak darabiltzate Aturrialdeko euskaldunek.⁹

2.4. Aditz nagusiaren etorkizuneko *joon* ‘joren, joko’ aldaera dakar Duhauk Beskoitzen (1993: 30).

2.5. Lapurdiko barnealdean eta Aturrialdean *jaugin* ‘etorri’ aditzaren forma trinkoak ditugu: *haugi* ‘hator’ & *haui*, *zauri* ‘zatoz’ eta *zaizte* ‘zatozte’; cf. *zato* ‘zatoz’ (Bes, Haz).

2.6. Euskararen geografian orokorra ez denez, berrikuntza da **iron* aditzaren erabilera, baina hein batez galbidean da.¹⁰

2.7. Genitiboan ageri den osagarri zuzena extraposizioan kokatzeko aukera bakanduz doa, baina Euskal Herriko ekialde zabalean dirau. Aturrialdean Bardozeke adibide bat eman daiteke: *lasto guziak atheatu zitien atzemaiteko karta hen* (EHHA).

2.8. Hitzen erabilera zaharren artean *bakhotx* ‘bakarra’ adiera da aipagarri, Bardozeke katiximan dena eta EHHAK ere herrian bildu duena; egun Zuberoan dirau (EHHA, 1745).

2.9. Aldaera foniko edo lexiko zahar zenbait ageri da eskualdean.¹¹

⁸ Berrikuntza izan zen antzina *bat* zenbatzailea mugagabeen baliatzea, Ipar Euskal Herrian galduz doana. Literaturan hainbat testu zaharretan ageri da, baina galduz doanez arkaismotzat har liteke: Bardozen ablatiboko *mutxikuak alde batetaik, nexkatoak han, ez gintzun nahas* etsenplua dakar EHHAK.

⁹ Urketakoan *atchiiten* ‘atxikitzen’ (344, 359), *erorten* (353), *yaltian* ‘jalgitzean’ (343), *yeikitian* ‘jaikitzean’ (343), baina baita eredu berriko *bethetzen* (365) eta *meechitziz* ‘merezitzeaz’ (360) ere. Bardozen EHHAK egun *atxiiten*, *ebilten* ‘ibiltzen’ & *ibiltzen*, *ekhartzen*, *erorten* & *eortea* ‘erortzera’, *ezarten*, *igorteat* ‘igortzera’ eta *joiten* ‘jotzen’ aldaera zaharrak dakartza, baina baita *atxiitzen*, *aurthiitzen* ‘jaurtikitzen’, *ekhartzen*, *erortzeko*, *ezartzen*, *uiltzen* ‘ibiltzen’ eta *jalitzen* aldaera berriak ere. Beskoitzeko egungo aditz-izenen emaitzetan ere, joera zaharra eta berria, biak batean herrian dira (Duhau 1993, 2003).

¹⁰ Nafarroa Garaian galdu zen, baina Ipar Euskal Herrian ekialdean dirau. Hona Bardozeke etsenpluak: *iabaz lioia?* ‘irabaz lezake?’ / *eliok altxa* ‘ez lezakek altxa’ / *eztioiat ikhus* ‘ez zezakeat ikus’ (EHHA).

¹¹ *heben* eta haren ondoko emaitza *heen* eta *hen* ibiltzen dira Bardozen; aldiz, Mugerren, Beskoitzen, Urketan, Hazpamen eta Bardozen *hemen* darabilte (EHHA) / *heskuara* eta *heskualdun* aldaerak dira Beskoitzen eta Bardozen, Etxepare gogora dakarkigutenak; *heskuara* Bastidan, Larzabalen eta Zuberoako Domintxainen eta Sohütan ageri da; Hazpamen ^h*eskuara*, baina EHHAK *eskuara* dakar Mugerren eta Urketan / *hirur* (Pagola et al. 1999: 342) eta *laur* (343) aldaerak ageri dira Urketako katiximan, baina egun Beskoitzen *hiru* eta *lau* (Duhau 2003: 388); Bardozen, ordea, *hiur* & *hiru*, aldaera zaharra eta berria ibiltzen dira egun (EHHA) / *h-* duen *hur* ‘ura’ ibiltzen da Bardozen (EHHA) / *-tarzun* aldaera zaharra dakar katiximak Bardozen: *aartecotarzunaz, beldurtarzunaren, lañotarzunana...*; Urketakoan *osaarsuna* (354); emankorra da es-

3. ATURRIALDEKO HIZKUNTZA-ALDAKETA BATZUEN AURKEZPEN KRONOLOGIKOA

1571ko aldaeretik Beskoitzeko egungoetara aldea dago, hain segur Leizarragaren ondotik eskualdean hizkuntza-berrikuntzak gertatu direlako. Hiru arrazoi, gutienez, eman daitezke: a) orduan Beskoitzen baliatzen ziren egitura edo forma batzuk, Aturrialdean edo lurralde zabalagoetan gerora galduz joan ziren; b) beste nonbait sortu berrikuntzak Aturrialdera eta Beskoitzera heldu ziren; c) Aturrialdeko eskualdeko jendeek garatu berrikuntza bereziak gertatu ziren. Etsenplu batzuk dakartzat erakusgarri:

Leizarraga (1571)	Mendibururen itzulpena (1868)	Henri Duhauren emaitzak (1993, 2003)
<i>aingueruäc</i>	<i>aingueruiic</i>	<i>buruiak</i>
<i>chipiey</i>	<i>thipierri</i>	<i>mendieri</i>
<i>leguearen</i>	<i>leguiaan</i>	<i>etxiaan</i>
<i>[abelean</i>	<i>sabelin</i>	<i>oihanin</i>
<i>ondoan</i>	<i>ondun</i>	<i>besun</i>
<i>naiz</i>	<i>niz</i>	<i>niz</i>
<i>zara</i>	<i>cie</i>	<i>zie</i>
<i>zait</i>	<i>zaut</i>	<i>zaut</i>
<i>daiteke</i>	<i>ditakeena</i>	<i>ditake</i>
<i>nauzue</i>	Ø	<i>nuzii</i>
<i>duen</i>	<i>diin</i>	<i>diin</i>
<i>berce</i> 'bestea'	<i>berce</i>	<i>beze</i>

Izenaren morfologian gertatu diren aldaketa batzuk xehekiago ikusiko ditugu 7 §-n, alderatuko baititugu XIX. mendeko idatzizko etsenpluak eta XX. mendean ahozko inkestetan bildu ziren emaitzak, ikusteko ea baden koherentziarik.

4. BARNE ALDAKORTASUNA ATURRIALDEKO MINTZOETAN

4.1. Duhauk dioenez «Beskoitzeko euskara, Mugerrekkoa eta Urketakoa, «familia» berekoak ditutzu, elgarri hurbilenak» (1993: 12). Euskaltzaindiaren ESHA atlaseko emaitzetan agerienez, Beskoitzek bereziki Urketako mintzoarekin du batasuna. Eskualdeak ez du mintzoaren aldetik guztizko batasunik eta Bardoze da, hain segur, hizkuntzaren alderditik besteetarik urru-

kualdean Beskoitzeko katiximan ageri den *-tasun* aldaera: *batasunin*, *herbaltasunac*; ESHA aldaera berria dakar Bardozen ere: *ahaidetasin*, hondarreko *ü* bokal horren palatalizazioa ziurra ez bada ere.

nen gelditzen dena. Ondoko lerroetan Aturrialdeko mintzoen arteko barne zatiketaren etsenpluen bihi batzuk dakartzat:

4.2. Larresoro aldean bezala (Epelde 2003), erakusle pluraletan abs. eta erg. bereizten dira Aturrialdeko Beskoitzen, Mugerren eta Urketan (Duhau 1993; EHHA). Alta, Bardozen ez da halako bereizketarik, ezta Hazparnen ere (EHHA):

Erakusle pluralak	Beskoitze	Bardoze
1. maila	<i>hauk</i> (abs.) vs. <i>hauek</i> (erg.)	<i>hok</i> (abs. eta erg.) ¹²
2. maila	<i>hoik</i> (abs.) vs. <i>hoiek</i> (erg.)	<i>horik</i> (abs. eta erg.)
3. maila	<i>hek</i> (abs.) vs. <i>heiek</i> (erg.)	<i>hek</i> (abs. eta erg.) ¹³

4.3. Zuberoan bezala, galdetzailletan *zun-* eta *nu-* era dugu Bardozeke katiximan XIX. mendean: *zunbeit* ‘zenbait’, *zuiñ* ‘zein’ / *nur* ‘nor’, *nuk* ‘nork’, *nuiz* ‘noiz’, *nun* ‘non’..., baina ez da halakorik gehiago Aturrialdean. Beskoitzeko katiximan bilakaera gutiagoko *noc* ‘nork’ (328), *zoin* (322) eta *zombat* (331) ditugu eta egungo Beskoitzen *zoin*, *zonbeit*, *zonbat* / *nor*, *norbeit* & *norbit*, *noiz* (Duhau 1992, 2003). Ikus gaiaz 7.13. §.

4.4. Kasu destinatiboan *tzat* eta *tako* dira aldakortasunaren eragile.¹⁴

4.5. Muga adlatiboan *-raino* / *-radio* / *-raidio* aldaerak ageri dira Aturrialdean.¹⁵

4.6. Adizki triperersonaletan *ay* > *aj* palatalizazioa dago eskualdean **era-dun*-en osagarri singularreko adizki batzuetan (EHHA), baina ez dago guztiz orokorturik.¹⁶

¹² 251. etnotestuan *hokik* dakar Bardozen EAELk, baina ez da argi ergatiboa ote den.

¹³ Bardozen *hobiak ziren hek* (abs.), vs. ergatiboko *hek, berriz, ez tute jeus balio gathu hek* (EHHA).

¹⁴ Baxenabarren eta Hazparnen bezala, Bardozen «genit. + *-tako*» ibiltzen da, baina Uztaritzen eta Lapurdiko hego-mendebalean legez, Mugerren, Beskoitzen eta Urketan «genit. + *-tzat*»; cf. EHHA (1086).

¹⁵ *Uztaitzeño* dago Mugerren (EAEL). Beskoitzen *-aino* (XIX-XX), eta baita *orduartiino* aldaera ere (kat, 324). Urketako katiximan *-ano*, baina *lurráadió* dakar EHHAK XX. mendean (87530), eta *-radio* aldaera dugu Bardozen XIX. mendean: cf. Bardozeke egungo *bihardio* ‘bihar arte’ (EHHA), nahiz egun Bardozen gehienik *-(r)aidio* aldaera ageri den. Egundak Amikuzen *-radio* ibiltzen da. Joseba A. Lakarra diakronistak arkaismotzat jotzen du *-radio* aldaera: **-radin-no* egituratik eratortzen du (2008: 484).

¹⁶ Duhauk *dautzut* ‘dizut’ & *daitzut* ‘dizut’ dimorfismoa dakar Beskoitzen (1993). Artolark *dait* ‘daut = dit’ bildu du Lapurdiko hego-erdiguneko Ezpeletan ere (Irizar 1999: 291). EHHAK *daitzu* ‘dizu’ dakar Urketan, baina Mugerren, Beskoitzen, Bardozen eta Hazparnen *dautzu*. Cf. EHHA: *daitazu* ‘didazu’ (Urk), baina *dautazu* (Mug, Bes, Hazp) eta *datazu* (Bar). Gaia konplexuagoa da, gainera, Hazparnealdean *ay* → *aj* aldaketak osagarri sing. → pl. bilakatu dela adierazten duelako. Konparazione, Aturrialde ondoko Milafrangan *daut* ‘dit’ vs *dait* ‘dizkit’ & *dautkit* bereizketa egiten da (Irizar 1999: 373-374).

4.7. Aturrialdeko aldaera foniko batzuek Lapurdi, Baxenabarre eta Nafarroa Garaira so jartzen gaituzte eta ez ekialde hertsira.¹⁷

5. ATURRIALDEKO EZAUGARRI ENDEMIKOAK

Guti goiti beheiti eta ñabardurak ñabardura, ondoko ezaugarri berri hauek Aturrialde eskualdeko endemikotzat jotzen ahal ditugu:

5.1. Ipar Euskal Herrian Beskoitzeko alderdian du sinkopak agerraldi nabarmenena.¹⁸

5.2. Jatorri historikoan *edun* [+ **ezan* & **iron*]-en *it* pluralgileak sing.-etik pl.-era *nind-* vs. *gin(i)t-* aldea eragin zukeen Nor-Nork sailean, baina Aturrialdeko adizkietan guttiz jo da *t* herskari ahoskabea eta l. perts. sing.-eko morfema identifikatzera.¹⁹

5.2.1. Joera analogiko batek baino gehiagok eragin ahal ukan ditu eskualdeko l. perts. sing.-eko aldaera *t*-dun zenbait, eta ez dakit xuxen zein izan diren urratsak ezta haien hurrenkera ere: a) Baliteke iraganeko *edun*-en Nor *gint-* ispilu izanik, analogiaren norabidea pl.-etik sing.-era *gint-* → *nint-* izatea. b) Baliteke ispilua trinkoen iraganeko *edun*-en *nint-* izatea eta analogiaz iraganetik oraineko norabidean *nint-* → *nit* gertatu izana. c) Baliteke oraineko iragangaitz trinkoetara *it* pluralgile orokor eta zaharra iragan izana, iraganeko forman *int* emanik. Ez dezagun ahantz **iron* ibiltzen den eskualdea dela Aturrialdea eta **iron*-ek ere *it* pluralgilea duela:

¹⁷ Katiximak Beskoitzen *bezinbat* ‘bezainbat’ dakar (324) eta xx. mendean Duhauk ere bai. Urketan *bezembat* da hori (kat, 346). Aldiz, Zuberoa eta Amikuzeko *beza(i)nbeste*-ren kide dira EHHAk Bardozen dakartzan etsenpluak: *nik badiat hik bezenbeste hortz / oto horrek baik horrek bezenbeste indar*.

¹⁸ *aorla* ‘agorrila’, *arla* ‘arroila’, *belhaaunko* ‘belauniko’ — katiximan *belhaunco* (340)—, *eguartan* ‘eguerdian’, *iphurtik* ‘ipurditik’, *laxtu* ‘laxatu, askatu’, *pastu* ‘pasatu’, *pustu* ‘pusatu’, *urtharla* ‘urtarrila’, *zurbia* ‘zurubia’ (Duhau 1993, 2003). Adizkietan ere bai: *zinten* ‘zineten’ & *ziinten* Beskoitzen; Lehunzen *zinten* (Irizar 2002b). Hona Bardozeko sinkopak: *arle* ‘ari(za)le’ & *artzen* ‘aritzen’, *belhaunko*, *erten* & *erraiten*, *gaintik* ‘gainetik’, *lau ontan* ‘lau orenetan’, *phaastu* & *pasatu*, *saartan* ‘sagarretan’. Irizarrek *ztien* ‘zituen’ dakar Bardozeko Sarrada auzoan (2002a: 334). Bardozeko ondoko sekuentzia hauek aferesirik gabeak dira: *emazte*, *ezautu*, *ikhasi*, *ikhusi*, *iphurdi*, *iphurtziloa*, baina baita *hau xilik* ‘hago isilik’ aferesia ere (EHHA).

¹⁹ Hitz-bukaeran nahiz bokal artean ageri da *t* l. perts. sing.-ean: *izan*-en *daut* ‘zait’ (Urk) & *zaut* ‘zait’ (Mug, Bes, Haz, Bar) ditugu (EHHA), eta *edun*-en, berriz, *dut* bera, *t* subjektu-marka duena, baina bokalen artean ere bada *ta* **ezan*-en edo *izan*-en: *dezatan* ‘deza-dan’ / *zataxu* ‘zaidaxu’ (Bar, EHHA). Beskoitzekoa da *behartu zatazun* ‘zitzaidan’ zuketan, Trebitschek 1913an bildua (Etxebarria 1994: 61). Ondoko ibar Amikuzen orokorra da datiboko l. perts. sing.-eko *ta* alomorfoa: *zata* ‘zait’. Hedadura zabala du Baxenabarre mendebaleko ipar nahiz hegoko ibarretan *ta* alomorfo honek, baina Baxenabarreko mendebalean bada *zaut* ‘zait’ aldaera ere.

diro ‘dezake’ / *ditiro* ‘ditzake’. Nolanahi ere gertatu den, Lapurdin he-
dadura du iraganeko *edun*-en Nor *ni(n)t-* hasierak 1. perts. sing.-ean,
Lehutzeko eta Beskoitzeko *nintuzten* ‘ninduten’ edo *nintuian* ‘ninduan’
lekuko. EHHAK *nintuzten* dakar Ahetzen eta Arrangoitzen, eta Itsasun eta
Aturrialdeko Mugerren, berriz, *nituzten* ‘ninduten’. Alta, Baxenabarren
bezala, Bardozen *ninduzten* & *ninduten* aldaerak dakartza, eta Hazparnen
ninduzten (1348).

5.2.2. Arrazoi fonikoek edo/eta morfologikoek eraginik gertatu ahal
izan da adizkietan sing.-eko 1. pertsonan $d > t$, analogiak ispilu edo azal-
pen bat baino gehiago ukan lezake, sing. eta pl.-en artean dinamika foniko
eta morfologikoa eraginik. Alta, Aturrialdean *edun* baino adizki gehiago-
tara heldu da *d*-ren ordain *t* sing.-eko 1. perts.-n. Eskualdean analogiaren
norabide bat *edun*-en pl. → sing. edo *gin(i)t-* → *nint-* izan liteke, baina hori
bermatzeko ez dut frogak konkluinterik, egon litezke beste norabide edo is-
piluak ere.

5.2.3. Gogoan ditut *edun* oinarria duten alokutiboko Nor adizkiak Ami-
kuzen eta Zuberoan, *gitzan/giützan* ‘gaitun’, *gitzak/giützak* ‘gaituk’ aldaera
berriak, itxuraz *za* pluralgilea harturik, *gitun/giütün* eta *gituk/giütük* aldaera
zaharren ordain hitzunek darabiltzatenak. Aturrialdeko kasua aurkako no-
rabidean doa. Lafitterren irizkide izan ninteke eta onets nezake Aturrialdean
it pluralgile zaharra dagoela pluraleko Nor adizkietan (Duhau 1993: 105),
baina haren aldean ñabardura eginik: ene ustez berrikuntza dira eskualdeko
oraineko adizki iragangaitz *it*-dunak. Ikusi batera iduri luke 1. perts. pl.-ean
Beskoitzen alokutiboko orainean aditz trinko iragangaitzek *it* pluralgilea da-
kartela: *gitagon* — *gitoon* ahoskaturik — ‘gauden’, *gitagok*, *gitagotzu*, *gita-
gotxu* / *gitailan* ‘gabiltzan’, *gitailak* & *gabiltzak*, *gitailatzu*, *gitailatxu*. Alo-
kutibotik landa, Beskoitzen berrikuntza bera dago **edin*-en oraineko jokoan
sing.-eko eta pl.-eko 1. perts.-etan (Duhau 1993: 56-57): *nitaain* ‘nadin’ &
naain; pluralean *gitaain* ‘gaitezen’ & *giten* (< **ga-di-te-n*). Alokutiboan da-
tibourreko *i* kokatu ohi da, eta ondotik analogiaz aditz trinko neutroen ispi-
lutzat jokatu ahal izan du. Berrikuntzaren sorburua eta norabidea bat baino
gehiago izan litezke.

5.2.4. Iraganeko adizkietan bada analogikoa dirudien *int* sekuentzia, *i* eta
t-ren artean iraganeko *n* morfema duena; *it* ote du sorburuan? Aturrialdean,
edun-en bezala, *egon*-en iraganeko trinkoetan ere *nint-* berrikuntza ibiltzen
da 1. perts. sing.-ean: *nintoon* ‘nintagon = nengoan’ eta *nintooian* ‘nengoan’
ditugu Beskoitzen (Duhau 1993: 104-105).²⁰ Hazparnealdean ere badira *nin-
toon* adizki *t*-dunaren adibideak: EHHAK Bastidan eta Hazparnen dakartza,

²⁰ Mugerren eta Urketan ez dakar EHHAK halakorik (1414), ezta, haatik, Beskoitzen ere.
Arrunta da Ipar Euskal Herrian *a(g)o > o(g)o* bokal asimilazioa *egon*-en forma trinkoetan.
Beste alderdietako «nindagon» adizkiaren aldaera *t*-dun «nintagon» da *nintoon* hori.

eta Arrangoitzen proposamen onetsizat. Aldiz, Bardozeke lekuko batek Vi-degain inkestatzaileari diotso ez dutela «nintoon» ibiltzen (EHHA). Oro har, *ninda(g)on* dago Lapurdin.²¹ Pluralean *gintoonan* ‘geundenan’, *gintooian* ‘geundean’ ibiltzen dira (Duhau 1993: 105), eta *ibili* aditzaren 1. perts. sing. -ean ere *nint-* dago Aturrialdean: *nintaailan* ‘nenbilen’ dakar Duhauk Beskoitzen (1993: 6, 106).²² Nor-Nori iraganean ere *nint-* ageri da *izan*-en Beskoitzen: *nintazkon* ‘nintzaion’, *nintaitzun* ‘nintzaizun’ (Duhau 1993: 63). Eta **edin*-en iraganean *nintaain* ‘nendin’ & *ninten* eta pluralean *gintaain* ‘gintez-en’ & *ginten*.

5.3. Lapurdin adizki iragangaitzetan *tzi* pluralgilea ageri baldin bada, ez du datiborik izaten, baina salbuespena dakusat Beskoitzen. Duhauk *zaitzin* ‘zaizkin’ bildu zuen (1981-1982) eta Bonapartek XIXan ‘nik hiri’ *daitzinat* / *daitziat* eta ‘guk hiri’ *daitzinau* / *daitziau* (Irizar 2002b: 146, 149).²³ Agintezko iragankorretan ere *tzi* darabilte Beskoitzen: *zatzin* ‘itzan’, *zatzik* ‘itzak’ (Duhau 1993: 85) / *noitzin* ‘har itzan’, *toitzik* ‘har itzak’ (115).

5.4. Dinamika fonikoa har dezake morfologiak singularretik pluralera euskaraz. Eman dezagun, *diot* / *ditiot* > *tiot* binomioa *diot* / *tiot* bilakatu da Nafarroa Garaian. Berebat, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian *dut* / *ditut* > *tut* binomioa *dut* / *tut* bilakatu da eta halaxe da Aturrialdean ere: *dut* / *tut* ‘ditut’, *duzu* / *tuzu* ‘dituzu’ (Bes). Analogiaz adizki tripersonaletara jo duke dinamika horrek: *daitzut* ‘dizut’ / *taitzut* ‘dizkizut’, *daitzu* ‘dizu’ / *taitzu* ‘dizkizu’, *daitziitet* ‘dizuet’ / *taitziitet* ‘dizkizuet’, *daitziite* ‘dizue’ / *taitziite* ‘dizkizue’ erakoak garatu dira Beskoitzen (Irizar 2002b: 148) eta baita Lehunzen eta Urketan ere (Irizar 2002b: 162-163, 282). Bonaparteren garaian horrela zen Bardozen ere, baina *d-* / *t-* jokoak galdurik, *d-k* adierazten ditu orain sing. eta pl. Bardozen (Irizar 2002a: 277). Sing. eta pl. arteko Aturrialdeko joko morfonologiko hau datiboa 2. perts. denean baizik ez da baliatzen: ez da «dakot» ‘diot’ / «takot» ‘dizkiot’ dinamikarik, *dako* / *dazko* (Leh) baizik.

5.5. Bardozen 1. perts. pl.-eko datibo-morfemaren aldaera berria dago: *-ku-z* landa bada *-ki* ere. Alokutiboetako *i* marka izan liteke analogiaren ispilua. Datiboko *ki* morfema, edo *z-ki* pluralgileko *ki*, bestela? Bonaparteren garaian *diaukiun* ‘zigun’, *diaukiuk* ‘ziguk’, *diaukiuzu* & *diaukiuzi* —‘digu’

²¹ Hendaian, Itsasun eta Makean. Proposamen onetsia da *nindagon* Azkainen, Senperen eta Arrangoitzen. Proposamen onetsiak dira *nindon* Uztaritzen eta *nindaun* Senperen.

²² EHHA ez dakar *ibili*-ren trinkoetan singularreko 1. pertsonan *nint-* Lapurdin, ezta Beskoitzen ere. Azkainen *nindabillan* dakar eta Hazparnen nahiz Donibane Lohizunen *nindailan*. Proposamen onetsia da *nindailan* Senperen, Arrangoitzen eta Makean. Itsasun, berriz, *nabilan* eta *nailan* dakartza. Aturrialdeko Mugerren, Urketan eta Bardozen ez dakar EHHA *ibili* aditzaren aldaera trinkorik (1430).

²³ Aldiz, *tzi* ez da pluralgilea *taitzii* ‘zaizkizue’ & *taitziite* adizkietan (Irizar 2002b: 146), horietan datiboa da *tzii*: *zue* > *zie* > *zii*, eta afrikaturik, *tzii*.

zuketan — triperpersonalak ibiltzen ziren, egun *daukin* ‘zigun’, *daukik* ‘ziguk’, *daukizu* — ‘digu’ zuketan — direnak (Irizar 2002a: 276). Bardozen *zauki* eta *zauku* dira egun ‘zaigu’, eta *zaukin* eta *zaukun* ‘zitzaigun’.²⁴ Badira forma gehiago ere, oroitarratzen baitizkidate XVII. mendeko *euzu*, eta XVI.eko *begirauzu* agintezko aditz zaharrak: *erakuts aukizu* ‘iezaguzu’ Bardozoko katiximan (281) / *emaaoukizu ogia* (291).

5.6. Beskoitzeko hitz berezitzat dakar *angoldu* ‘konpondu’ Duhauk (2003: 385).²⁵

5.7. Badira Aturrialdeko aldaera bereziak ere.²⁶

5.8. Berezitasunak daude Aturrialdean ez baitakit inguruetan zein hedadura duten.²⁷

²⁴ Pluralean *zauzku*, *zauzki* eta *zauzkigu* dira ‘zaizkigu’ eta *zauzkun* eta *zauzkin* ‘zitzaizkigun’. Alokutiboko oraineko singularrean: *zaukin*, *zaukik*, *zaukizu*. Oraineko femenino pluralean eta zuketan: *zauzkun*, *zauzkin*, *zauzkiun* / *zauzki(u)tzu*. Iraganeko singularrean *zaukiman*, *zaukian*, *zaukizun*. Iraganeko pluralean: *zauzkinan*, *zauzkian*, *zauzkitzun* (Irizar 2002a: 274).

²⁵ EAELK dakar: *gisa guziz angoldu beha uk aertu aitzin letra hau* ‘nolanahi ere den, argitaratu baino lehen gutun hau konpondu behar duk’.

²⁶ *arto* ‘arte, artean’ (Bes kat, 338, 339), baita Urketakoan ere: *hitzak erran arto* (362); aldiz, Bardozen *artio* eta *artino* dakartza EHHAK / *azkeein* ‘azkenean’ (Bes) / *beze* ‘beste’ (Mug, Bes, Bar) — XIX. mendean Beskoitzen *berce* (322) eta *berçalde* (325) dakartza katiximak eta Urketan *bertze* (349, 363); EAELK *bertze* dakar Mugerren — & *bezanez* ‘bertzenaz’ (Bes) & *bezaiez* (Bar, EHHA), *ho(i)nbeze* (Bes, Urk) & *huinbeze* (Urk), *hanbeze* (Bes); Mugerre Lapurdirat doa: *hoinbertze*; Bardoze ekialderat: *hainbeste* eta *hunenbeste*; Hazparnen *ameste* eta *unenbeste* / *bolda* ‘bulta, unea’ (Bes) / *-eei* ‘-egi’ atzizkia (Bes): *berueeia* ‘berroegia’, *berriei* ‘berriegi’, *eerreeia* ‘ederregia’, *fierreei* ‘fierregi’... (Duhau 2003: 257); baina Bardozen ez da honela: *laurrei* ‘laburregi’, *luzeei* ‘luzeegi’; baita *beantegi* eta *hurbi-legi* ere / *ehetz* ‘ezetz’ (Bes) / *ekherri* ‘eguzkia’ (Bar): *ze ekherri ederra eun!* (EHHA) / *haurbide* ‘haurridea’ (Bes) / *hautzatu* ‘hautatu’ (Bes); OEHK *hautzatu* bakarria dakar: Jean Saint-Pierre «Anxuberro» idazle milafrangarrarena (1884-1951); Beskoitze eta Mugerre ondoko herria da Milafranga / *izaba* ‘izeba’: EHHAK Mugerren eta Urketan dakar eta Duhauk Beskoitzen (2003: 370); Baxenabarreko Irisarrin ere badakar EHHAK *izaba* aldaera / *jemen* ‘kemenen’ (Bes, Duhau 2003: 395) / *joo* ‘gero’ & *joostik* ‘geroztik’ (Bes) / *neskateko* ‘neskatoa’ (Bes), OEHK Aturrialdean eta Baztanen dakarrena; Bardozen *neskato* dakar katiximak (315) eta EHHAK *nexkatoko* eta *nexkatila*; EAELK *neskatil* / *tilinto* ‘zintzilik’ (Bar, EHHA) / *urikitu* ‘itxaron’ (Bar kat, 298).

²⁷ Beskoitzeko aditz jokatu hauek lekuko: *aguadi* ‘egon hadi’ (Duhau 1993: 23); Bardozekoa da *egóadi* ‘egon hadi’ (EHHA); Bizkaian ere entzuten da *ego adi* / *ezak* ‘edan ezak’ (Duhau 1993: 21); P. Larzabalek *eda-zak* (1955: 36) / *egia dee?* ‘egia dea?’ (Duhau 1993: 127); *dee* ‘dea?’ baita Urketako katiximan ere (343) / *ineiat* ‘eginen diat’ (Duhau 1993: 30) / *jazak* ‘jan ezak’ (6) / *juareiz*: ‘joanen haiz’ (6, 21, 23, 27) / *noutan* ‘nor dudan’ (30) / *unezazii* ‘utz nazazue’ (85).

6. ATURRIALDEKO MINTZOEK INGURUKOEKIN DUTEN ERLAZIOA

6.1. Lapurdiko euskararen eragina Aturrialdean

Aturrialdeko mintzoei Baxenabarretik hizkuntza-eragina etorri zaie, baina Lapurditik ere bildu dute, Lapurdin baita Aturrialdea, Bardoze herria barne, eta hainbat berrikuntza lapurtarrekin partekatzen dituzte. Hona ezau-garri berriak Lapurditik eskualdera jinak:

6.1.1. Perts.-izenordain hanpatuetan *nihoone / nihoor*, *zuhoone / zuhoor*, *xuhoone / xuhoor* eta *zihoone / zihoor* aldaera pareak ibiltzen dituzte beskoiztarrek. Marraren ezkerreko izenordainen saila Lapurdiko erdiguneari so dago.²⁸ Beskoitze ez diren Aturrialdeko beste herrietako aldaerak ekialdera so daude eta zaharrago den eskuineko sailari dagozkio, baina forma zahar *-r*-dunek analogiaz Lapurdiko mendebaletik *n* biltzea ere gertatu da, non eta absolutiboan ez den fonikoki *nihaur* > *nihau*n asimilazio gertatu.²⁹

6.1.2. *Izan* aditzaren aldaeretan *gie* ‘gara’, *zie* ‘zara’, *die* ‘dira’ aipa daitezke Urketan, Beskoitzen eta Bardozen; Beskoitzen baita *giye* ‘gara’ ere. Bardozen ekialderagoko *gia* ‘gara’, *zia* ‘zara’, *xia* ‘xara’ eta *dia* ‘dira’ ditugu ere (Irizar 2002a: 274). Mugerren *gi*, *zi* eta *di*. Hiriburun, Mugerren eta Lehuntzen Bonapartek *gii*, *zii*, *ziizte*, *dii* dakartza. Senperen *gaa* eta *gare* dakartza Duhauk (1993); ikus Irizar (1997: 90) eta (2002b).

6.1.3. Lapurdira so dago iraganeko singularrean *edun*-en *-z-* pluralgile analogikoa: Beskoitzen *nintuzten* ‘ninduten’ ageri da, Arrangoitzen, Ahetzen eta Lekuinen legez; cf. *nituzten* (Mug, Its) & *ninduzten* (Uzt, Haz, Bar).³⁰

6.1.4. Baxenabarrera jotzen dute Bardozeke *nintzan* ‘nintzen’, *hintzan* aldaerek, baina Lapurdiko eran, *nintzen*, (*h*)*intzen* berrikuntzak darabiltzate Mugerren, Beskoitzen eta Urketan. Bardozen Bonapartek XIXan *nintzan* dakar, baina Koldo Artolak XXan *nintzen*; EHHAK biak. Lapurdiko ekialderat, *nintzan* & *nintzen*, biak dakartza Irizarrek herrietan (1997: 401).

²⁸ 1. perts. sing.-ean *-ne* bukaera dago Azkaine eta Beskoitzen, eta Uztaritze eta Itsasun *-ni* (EHHa). 2. perts. sing.-ean *-ni* dago Azkainen, Uztaritzen eta Itsasun. 2. perts. pl.-ean *zionek* darabilte Uztaritzen eta Itsasun.

²⁹ EHHAK 1. pertsonan Bardozen eta Urketan *nihaur* dakar, Mugerren *nihor* eta *nihau*n, eta Hazparden *nihau*. 2. pertsonan Bardozen *zuhaur* dago, Hazparden *zuaur*, Mugerren *zuhaun* eta Urketan *zuhaunek* (erg.). Pluralean *zihonek* ‘zeuek’ dago Mugerren.

³⁰ Aturrialdean **edin*-en iraganean eta hipotetikoan ere ageri da: Beskoitzen *nintazken*, *nintazketxun* / *nintazke*, *nintazketxu*... (Duhau 1993: 59). Bardozen ere bai: *gazte banintz eon nintazkek haekilan* (EHHa).

6.1.5. Lapurdin bezalakoa da Aturrialdeko *zakote* ‘zaie’ aldaera (Mug, Bes, Bar). Berebat, Lapurdira so dago Bardozeko *dakotet* ‘diet’.³¹

6.1.6. Bardozen Lapurdiko kutsua dakarren *dautet* ‘didate’ dakarte Bonapartek eta Artolak XIX-XX. mendeetan, baina ondoko herri Oragarreko Bartha kartierrean *dautate* ‘didate’ & *datate* dakartza Artolak (Irizar 2002a: 313).³²

6.1.7. Lapurdin gandi jin dira Aturrialdera zenbait berrikuntza Euskal Herriko erdialde hertsitik.³³

6.2. Hazparneko euskararen eragina Aturrialdean

Lapurdiko eragin orokorraz landa, Hazparneko euskara bereziarekin edo haren berrikuntzekin ere lotura hertsia dute Aturrialdeko euskaldunek. Hazparnetik etorri hizkuntza-eragin berria nabarmena da, hona ezaugarri horiek Aturrialdeko mintzoetan.³⁴

6.2.1. Beskoitzen *aĭ > i* ageri da: *ahide* ‘ahaidea’, *aneia* ‘anaia’ & *ania*, *aphindu* ‘apaindu’, *emile* ‘emailea’ & *emiteko* ‘emaiteko’, *epheiten* ‘epaiten’ & *ephtiten*, *hatxemiten* ‘hatzemaiten’, *izitekotz* ‘izaitekotz’, *Jeinko* & *Jinko*, *norbeit* & *norbit*, *oreiko* ‘oraingo’ & *oriko* (Duhau 1993: 18, 22, 23, 30 / 2003: 140). Bardozen *gixtakeria* dakar EHHAK eta Baxenabarren bezala, baita *bait* monoptongaturik ere: *bita* ‘baita’, *bitu* ‘baitu’.

6.2.2. XIX. mendean *-aen* da genit. sing. Celhabe Bardozeko notarioaren katiximan, baina *-aan* egiten da XX. mendean Bardozen: *gidarraan gainian* ‘giderraren gainean’, *gizonaan* (EHHA). Aturrialdean hedadura du *-aan* geniti-

³¹ Baxenabartarrenak *ze(i)e* ‘zaie’ & *de(i)et* ‘diet’ dira. XIX. mendean *dayet* ‘diet’, *daye* ‘die’, *dayeu* ‘diegu’, *dayete* ‘diete’ aldaerak ibiltzen ziren Beskoitzen, eta Urketako katiximan *dayezut*, ‘diet’ zuketan (366). Bonapartek bezala Iratzederrek *zaye* ‘zaie’ bildu zuen Beskoitzen 1978-1979 artean, baina Duhauk 1981-1982an *zakote* (Irizar 2002b: 146). Alta, XX. menderako, Mugerrera eta Lehuntzera bezala, Lapurditikako aldaera berriak sartu dira Beskoitzera. Egun bezala, XIX. mendean ere *dakote* ‘die’ eta ‘diete’ zen Hiriburun. Bardozen *nakoten* ‘nien’ dakarte Bonapartek eta Artolak, baina Artolak *neian* ‘nien’ dakar ere.

³² Bardozetik ez da urrun Oragarreko Bartha auzoa eta, oro har, ekialdera jotzen dute kartier horretako adizkiek: *zira* ‘zara’ / *gia* ‘gara’ & *gira* / *nintzan* ‘nintzen’ / *nuntzun* ‘ninduzun’ zuketan / *nien* ‘nuen’ & *nin* / *daukuk* ‘ziguk’, vs Bardozeko *daukik*; cf. 5.5. §.

³³ EAELK *idortea delaikan* ‘lehortea denean’ (Mug) eta *behiaan izterrian johan zelai-kan* (Urk) etsenpluak dakartza eskualdean eta Duhauk Beskoitzen kokatzen du *hor delarikan* (2003: 304). Alta, XIX. mendeko datuei so eginez geroz, inesiboko atzizkirik gabea zen egitura: *mintzatzen guielaiak* (Urk kat, 342).

³⁴ Aita-amak hazpandarrak zituen bardoztar batek Kristina Encinarri ziotson iduriak direla Hazparneko eta Bardozeko euskara (2008: 387). EHHAKO Bardozeko lekuko batek honela dio: *diozĭe zonbeitek badiela eite Hazparneri ene mintzaiak. Galdein datazĭe hazpandarra nintze-netz: ezetz, bardoztarra nintzela.*

boak, eta aditzen etorkizuna eratzeko ere *-aan* ibiltzen da: Beskoitzen *emaan* da ‘emanen’ (Duhau 1993: 29).

6.2.3. XIX. mendeaz geroztik Lapurdin *-eri* aldaera berria ageri da. Euskal Herriko ekialdean *-er* dago aspalditik. Bi aldaera horiek bateratzen ditu datibo pluraleko *-erri* aldaerak. Hazparden XVIII. mendean ageri zaigu datibo pl.-eko *-erri* eta XIX. mendean Beskoitzeko katiximak dakar: *dienerri* ‘die-nei’, *dotorrerri* ‘doktoreei’, *eilerri* ‘egileei’, *sanduijerri* ‘sanduei’. Egun Aturrialdeko Mugerren dakar EHHAK.³⁵

6.2.4. Nor-Nori orainean *z-* dakar Bonapartek Beskoitzen, Lehuntzen eta Mugerren. Hiriburun, Mugerren eta Urketan *z-* eta *d-* ibiltzen dira egun (Irizar 2002b: 128, 129). Alta, Lehuntzen, Beskoitzen, herri horretako auzo Urgazietan eta Bardozen, *z-*.³⁶

6.2.5. Eskualdean *joan*-en joko trinkoa ordezkatu du *johan da* ‘doa’ & ‘joan ohi da’ erako adizki sortak. Beskoitzen ia galdutzat dakar joko trinkoa Duhauk: *hindoan = johan hintzen*, *zohaxun = johan zuxun* (1993: 106-107). EHHAK *joan*-en trinkoen adibideak dakartza Bardozen: *baniak Hazparneat / oilloa doak oillarraakilan / badoatzi itxasorat*. Kasik agintezko aldaeretan baizik ez diraute trinkoek eskualdean, fonikoki laburtzera jorik ere: *zoz* ‘zoaz’, *xoxi* ‘xoax’, *zozte* ‘zoazte’ (Duhau 1993: 18, 107).³⁷

6.2.6. Adizki datibodunaren barreneko *n* analogikoa baliatzen da Lehuntzen, Beskoitzen, Urketan eta Bardozen: *zankon* ‘zitzaion’.³⁸

³⁵ cf. *haurri* ‘hauei’ edo *hoierri* ‘horiei’ (Mug). Uztaritzen entzun du Epeldek *bijerri* ‘biei’. Egun Larresoron eta Beskoitzen *-eri* egiten da datibo plurala (Duhau 1993: 43), aldiz, apezen erabileratzat jotzen da *-eri* Hazparden (Epelde 2004: 283, 287). Bardozen *-er* egiten da (EHHH) eta Hazparden ere *-er* da nagusi, baina bada *-ei* ere. Uztaritze alderdian bakan ageri da *-er*, nahiz Itsasun arrunta den.

³⁶ Egungo EHHAN: *daut* ‘zait’ (Mug, Urk), *daun* ‘zain’ & *dauk* ‘zaik’ (Haz, Mug), *dako* ‘zaio’ (Mug, Hazp, Bastida), *daugu* ‘zaigu’ (Mug) & *dauku* ‘zaigu’ (Urk, Haz). Baxenabarreko Izturitzen eta Aiherran ere *d-*.

³⁷ Ohikotasuna adierazten dute Bardozeko bi adibide hauek: *nahitez*, *itzuli guziak denak kaskoinak bitira*, *nahitez*, *merkhatura johan ginen Bastidat*, *johan ginen Bixunat*, *bena Pey-rehoradeat hasi ginen eta han kaskoinak dira / guk in duguna*, *denboran johan nintzan kolakaan hartzeat Ahurtirat*, *bana hua igandetako*, *sasoian*, *gio ez giniin besteik jaten*, *sasoian* (EHHH). Bardozeko adibide honetan, berriz, adizkiaren erabilera puntukaria da: [bazkaldu baino lehen] *johan dea apetitia? Hori erran du, eta kholpe bat edateko «on daizula», eskeintzen duzulaik, denik e* (EHHH).

³⁸ Mugerreko Elizaberri auzoan toketan eta noketan ageri da **eradun* aditzean; cf. *nankonan*, *hankon*, *zankonan*, *ginankonan*, *zankotenan* (Irizar 2002b: 231). Datiborik gabekoe-tara ere hedatu da: *nakiin* ‘nekien’ & *nankiin* ditugu Beskoitzen; cf. Duhau (1993: 97; 2003: 37). Bardozen **edin* datibodunean ageri da (EHHH): *hua zen erremedio eta nik ukhan bitut aski ahardi*, *ukhan dut frangotan urina emana*, *umiak ukhan aintzian etzankion preseski jin min hua*. Badira C cluster bereziak ere: *zanzkon* ‘zitzaizkion’, *zanzkoten* ‘zitzaizkien’ Beskoitzen (Duhau 1993: 63). Lehuntzen, berriz, ‘nik zuei’ *naitziten* & *naitzinten* da, eta ‘hark zuei’, berriz, *zaintzinten*, *zaintziten*, *zaitzinten* eta *zaitziten* (Irizar 2002b: 166).

6.3. Aturrialdea: ekialdeko joeren jarraipen-gunea

6.3.1. Eskualde hau hizkuntzaz ekialdeko Euskal Herriko berrikuntza batzuen halako iraganbide naturala izan da, Amikuzeko ^h*eskuaran* gaindi beziziki. Bardozoko datu zenbait eskaintzen digu EHHA atlasak eta Amikuzeko hitz eta aldaera zenbaitek Bardozen edo Aturrialdean jarraipena dutela ageri da: hori aspalditik heldu den erlazio bati dagokio, nahiz egun erlazio hori itzalixe dagoen.³⁹ Hiriburun, Lehuntzen, Mugerren, Urketan, Beskoitzen eta bereziki Bardozen atzeman daitezke eskuin Amikuzen edo Zuberoan berragertuko zaizkigun ezaugarri batzuk, Euskal Herriko hizkuntza-ekialdearen jite geografikoa dutenak. Aspalditik Bordeleko Landetara jo izan dute neguan zuberotarrek beren abereekin eta uler daiteke edatekotanazienda hark ez zuela bidean Aturri ur handitik urrundurik ibili beharko: iparreko Lapurdiko, Amikuzeko eta Zuberoako eskaldunen hartu-emana eragin ahal ukan du luzaz abeltzainen lanbideak.⁴⁰

6.3.2. Euskal Herriko hizkuntza-ekialde aldi berean geografiko hori hertsia ala zabala izan daiteke, baina Aturrialdean bi hedadura-eremuetako berrikuntzak ditugu, nahiz, ondokotasun geografikoaren hatsarrearen arabera, ekialde zabalekoak —Baxenabarretik etorriak— ugariago diren Aturrialdeko eskualdean, ekialde hertsikoak baino, erran nahi baita, Zuberoan —edo Amikuzeko-Zuberoetan— eskusiboak edo semi-esklusiboak diren ezaugarri berriak baino. Ondoko emaitzetan ikusiko da hori.

6.3.3. Bardozoko Celhabe notarioak XIX. mendearen erdialdean Bonaparterentzat itzuli katiximan ageri denez, badira hainbat tasun berri Bardozen, Amikuzeko *heskuararekin* edo Euskal Herriko ekialdekoarekin batasuna dutenak. Hona ezaugarri horien sorta bat:

6.3.3.1. Bardoztarrek *u* palatala darabilte Aturrialdean, grafikoki *ü* irudika genezakeena, baina hainbat eragozpen du *u*-k Bardozen hitz-bukaeran eta kontsonante aitzinean palatalizatze; cf. Lafon (1962: 96) eta Encinar (2008). Egurtzegi eta Carignan fonetistek (2020) diote Amikuzeko *u* palatalizatua, *ü* idatzi ohi dena, eta Xiberoko seigarren fonema *ü* fonetikoki desberdinak direla: Amikuzen egiten den *u* palatalizatua ez da Zuberoako [y] bezain aitzinatua, erdiko bokal hertsia biribildua baizik.

³⁹ Arbotiko lekuko amikuztar batek zioztanez: *eztik relazioneik Bardotzek, eta... Amikuzekin, ez*. Lanera bardoztarrek egun Baionara jotzen dute Amikuzerat baino gehiago, baina EHHAko lekuko bardoztarren iruzkinetan Amikuzeko Oragarre, haren Bartha auzoa, Arrüeta herria... ageri dira: izan da hartu-emana.

⁴⁰ «Lapurdikoa izana gatik, Baxenabartar hizkuntzaren eitea ere badizu, Beskoitzekoak: Xuberotarrek bezalako molde batzu ere baditugularik, ahozkatze eta soinu desbardinekin haatik!» (Duhau 1993: 13). EAELko lekukoak ere berdintsu diosku: [—Ez da, beraz, lapurtarra? —*Bien arte; xuberotarrek erran ohi die: «hi, hi lapurtarra hiz?»*, lapurtarrek: «hi, xuberotarra ai(z)?»; *ba, bien arte eo hola...*]

Jeanne-Marie Mendibil bardoztarrarengandik Rudolf Trebitsch-ek 1913an bildu adibideetan bi joera ditugu (Etxebarria 1994): *delibatü, esposatü, gelditü...* batetik, baina baita palatalizatu gabeko *afermatu, bildurik, ezagutu...* etsenpluak ere. EHHAK bildu datuetan ere bada *ü* Bardozen, baina ez Amikuzen bezainbat. Bardozen badira hitzak *ü*-z nahiz palatalizatu gabe *u*-z ahoskatzen direnak: *ulia* ‘eulia’ & *ülia*. Kasu batzuetan lekuko bardoztarrak *büria* ala *buria*, *hezürrak* ala *hezurrak* dioen ez du horren garbi bereizten Videgain EHHA atlaseko datu-biltzaileak eta Artolak ere *zautzu* ‘zaizu’ / *zautzü* adizkian ez du garbi *-u* ala *-ü* entzuten duen (Irizar 2002a: 302). Hitzean bi *u* ondoan direnean aise gertatzen da palatalizazioa (EHHA): *bürü, mürrü, pützü*; cf. *zübü* ‘zubia’ berranalizatua ere. Baita adizkietan ere: *nüxü* / *sobera edana nüxün*. Alta, Bardozen hitzun guztiek ez dute *ü* onesten: *batutzu* «*sü*» *erraiten dutenak; hemengoek gaizki mintzatzen dizie eskuara* (EHHA). Mugerre Elizaberrin *ü* ageri da adizkian: *nintüian* ‘ninduan’, *züian* ‘zuan’, *zauküian* ‘zitzaiguan’ & ‘ziguan’, *zauzküian* ‘zizkiguan’. Mugerreko kaian *gintüin* ‘genituen’ (Irizar 2002b: 226-232, 264). Bardoze ondoko Amikuzen Oragarre herriko Bartha auzoan ez dago *ü*-rik, ez bada adizkietako hiato zenbaitetan. Adizkien moldeetan Amikuzera jotzen du Barthak.

6.3.3.2. XIX. mendeko Celhabereren Bardozeko katiximak *i-ü* > *ü-ü* asimilazioaren etsenpluak dakartza: *bühürtia* (277), *lübürü* (278), *ülhün* (315), *ützülia* (277), baina hitz horiek *i*- hasiera dute XX. mendeko EHHAN; cf. 7.12. §. Egungo Bardozen *büllüzgorrik, müriü* ‘mirua’ & *mülü* eta *üingürü* etsenpluak dakartza Euskaltzaindiaren EHHA atlasak.

6.3.3.3. «Ozena + herskari ahoskabea» C clusterra dago morfemen mugan Aturrialdean: *hentik* ‘hemendik’ & *heentik* (Bar, EHHA), *hantik* (Duhau 1993: 124; Bar, XIX-XX), *nuntik* (Bar, XIX-XX), *ontu* ‘ondu’ & *hontzen* (Bar, EHHA). Duhauk *nunko* ‘nongo’ eta *nuntik* dakartza Beskoitzen (1993: 6).

6.3.3.4. Amikuzen legez, muga adlatiboan *-radio* dakar katiximak Bardozen: *akaantchadio* (305), *boulharreta’adio* (285), *orduradio* (281), egun *-raidio* dena; cf. *escouñecoradino* ere (285). Urketan ere *lurráadió* dakar EHHAK (87530). Bardozen EHHAK *etxeaidio, xilhoaidio, zolalaio* aldaerak dakartza, baita *bihardio* ‘bihar artio’ ere.

6.3.3.5. Adlatiboan *-lat* dago Bardozen, baina ez Hazparnen bezala *-a-z* bukatzen diren hitzetan bakarrik, baita beste bokal-bukaeretan ere: *sürtsalat* / *itsasolat* / *lékulat* (EHHA). Urketako katiximan *bethiko lorialat eremanak izan guiten* ageri da (365).

6.3.3.6. Zuberoan legez, **edin*-en ahaleko *ei - e* eskema dago Bardozeko katiximan: *ezteitekena* (288), *deitekezu*, zuketako ‘daiteke’ (279). Aldiz, F lekuko bardoztarrak *e-e* ereduak dakar EHHAN, XX. mendean Amikuzen dena, baina *-te-* gabe: *ezteke* ‘ez daiteke’ / *sathorrik eleke behar untsalaz* / *etzeken* ‘ez zitekeen’ / *erraiten du etzekenetz eman*.

6.3.3.7. Datiboa 2. perts. pl. denean *-zite* morfema dago Amikuzen: *dauzitet* ‘dizuet’ (Ilharre). EHHAK Beskoitzen eta Mugerren dakar berrikuntza hau eta Duhauk eta Irizarrek Beskoitzen. Irizarrek Beskoitzen dakartza *zaitziite* ‘zaizue’ & *zautziite* (2002b: 153) eta Hiriburun eta Lehuntzen ere *-zite* egiten da *-zue* (Irizar 2002b). Subjektuan ere ager daiteke: Hiriburun *dautzite* ‘didazue’ dakar Irizarrek (2002b: 214), Duhauk *dioziite* ‘diozue’ Beskoitzen (1993: 108) eta EHHAK Bardozen *errákozite* ‘erran iezaiozue’.

6.3.3.8. Adizki iragangaitz *izan*-en *z* pluralgilea dago Aturrialdean: *bitzauzt* ‘baitzaizkit’ (Duhau 2003: 35). Baxenabarren legez *edun*-en ere *z* pluralgile pleonastikoa dago: Lehuntzen *tuzt* ‘ditut’ (Irizar 2002b: 161). Beskoitzen *bititut* ‘baititut’ & *bitiuzt*, *tuk* ‘dituk’ & *tuzk* (Duhau 1993: 65-66) eta analogikoa da *nintuzten* ‘ninduten’ ere (69).

6.3.3.9. Baxenabarreko Amikuzen eta Oztibarren bezala, iraganeko *edun*-en Nor Nork saileko pl.-eko 1. eta 2. perts. subjektuen analogiaz, Aturrialdean ere *n* dago sing.-eko 1. eta 2. perts. subjektuetan: *nintiin* ‘nituen’ edo *banintu* ‘banitu’ ibiltzen dira Beskoitzen (Duhau 1993: 69, 71). Bona-partek *nitien* dakar Bardozen, baina XX. mendean Artolak eta EHHAK *nintien*.

6.3.3.10. Baxenabarreko iparrean, erdialdean eta ekialde guztian, Garazi barne —baina Baigorrialdean ez—, biziki entzuten dira Lapurdiko Aturrialderaino *ginden* ‘ginen’, *zinden* ‘zinen’, *xinden* ‘xinen’ aldaerak *izan* aditzaren Nor iraganean. Horra Bardozeke bi etsenplu: *mezatik landa heldu ginde-laik / etxinden etxen xu* (EHHA).

6.3.3.11. Baxenabarren eta Zuberoan hedadura handia du, baina Hiriburun, Mugerren eta Bardozen *izan* ezik, Lapurdin ez da pluraleko 2. pertsonako *zue* morfemaren *zie* palatalizazioa gertatu. Beskoitzen *zii* aldaera dago: *duzii* ‘duzue’ (Duhau 1993: 67), nahiz Urketan bezala, EHHAK *duzi* ‘duzue’ dakarren herri honetan, baina Mugerren *duzi*^e (1331).

6.3.3.12. Zaraitzuarren edo garaztarren gisa, xuketan mintzatzen entzun nituen beskoiztarrak 1983an, baina Aturrialde guztiko gertakaria da. Gizarterabileraz ikus Irizar (2002a: 268; 2002b: 134-135).⁴¹

6.3.3.13. Erronkari-Zuberoetan adizki laguntzailean 1. perts. datiboaren morfema errepika daiteke. Bardozen egun EHHAK ez dakar, baina XIX. mendeko katiximak bai: *erraazut* ‘erran iezadazu’ (286), *ema’atzut* & *emazkiaztut* ‘eman iezazkidazu’ (316).

6.3.3.14. Lapurdin Bardozen dakar EHHAK xedezko *amokatik* jatorriz erromanikoa: *alimale basek hümia in eta lekhatzen dute untsa, amokatik eta predateurrak ez zezaten sendi, usaina joan dain*. Egun emankorra da Amiku-

⁴¹ Iratzeder zenak Irizarri ziotson Beskoitzen zuketa alokutiboa dagoela eta *duzu* diotela: «da erraitea, hazpandar gisa mintzatzea zaiote» (Irizar 2002b: 143).

zen (EHHA, 1083, 1803). XIX. mendean Jean-François Cerquand-ek Baigorri eta Garaziko ahozko emaitzetan dakar (1985: 19, 33).

6.3.3.15. Hainbat hitz dago eskualdean ekialdera so jartzen gaituena.⁴²

6.3.3.16. Hainbat aldaera dago eskualdean ekialdera so jartzen gaituena.⁴³

⁴² *aboro* 'gehiago' (Bard kat, 294), baina Beskoitzeko katiximan *guehioo* (337) eta egun Bardozen *gehio* & *geiho* dakartza EHHAK / *aidürü* 'zain' (Bar kat, 284) / *argizaita* = *argizaita* 'ilargia' (Bar, EHHA), Amikuzen bezala / *arra-* aurritzia: *arraberritzeat* 'berriztatza' (Bar kat, 309), baina EHHAK ere hala dakar egungo Bardozen: *arraernalaazten*, *arrafreskatu*, *arrahasten*, *arrahedatzeko*, *arraheldu*, *arrahurtaazten*, *arrahurtu*, *arraiten* 'berriz egiten', *arralotzen*, *arraphaa* 'berriz ordaindu', *arrapasatzen*, *arrapesta*, *arrasartu*... / *arraga* 'marrubia' (Bar) / *ekhi* 'eguzkia' (Bar, EHHA) / *giltz*, Zuberoan, Amikuzen eta Oztibarren legez / *gita*, baina baita *ahate* ere (Bar, EHHA) / *goxeita* 'aitabitxia, aitapontekoa' (Bar, EHHA) / *hazkurri* 'elikagaia' (Bes kat, Bar EHHA), behiala Leizarragak legez / *idoki* 'atera' (Bar kat, 284) / *jali* 'atera' (Bes kat, Bar EHHA), baina joko iragankorrean *athea* & *atheatu* ere baditugu Bardozen / *jin* 'etorri' (Bes eta Urk kat, Bar EHHA) / *-ka* atzizkia Bardozen, bilakuntza adierazten duena: *onddoka*, baina ibiltzen dute *hail keta* 'hoa bila' ere / Bardoze eta Amikuzekoa da *lo(b)jiro* 'oi-loak ibiltzen diren etxe aitzina, hoge bat metro arte edo', Zuberoan *barrio* izendatzen dutena / *proda* 'behoka' (Mug, Bar); cf. *podra* (Arrüeta, Garrüze, Arboti / Domintxaine, Pagola) / *tardaña* 'armiarma' hitzak mendebaleko Amikuze eta Aturrialdea lotzen ditu (Mug, Urk, Bes, Bar).

⁴³ *a(a)txebürü* 'zapaburua', Amikuzeko Arbotin eta Domintxainen bildu du EHHAK eta Ipar Euskal Herriko iparraldean gandi hedatzen da (Mug, Haz, Izturitze, Bar) / *aizo* 'auzoa' (Bar, EHHA), Amikuzen legez, baina Bardozekoa da *auzo* ere / *bardin* 'berdin' (Bar, EHHA; Bes, Duhau 1993: 35) / *basaurde* Bardoze, Izturitze eta Amikuzen; Zuberoan *basurde* / *bezenbeste* 'bezainbat' Bardozen (EHHA) / *birden* 'bigarrena' Beskoitzen eta Urketan; cf. Etxahun: *biden* / Baxenabarren bezala *bit* 'bait' dugu Beskoitzen eta Bardozen, baina Duhau dio (1993: 8) Beskoitzeko aitatzik *beit* ahoskatzen zuela; Urketan *beit* dakarte XIX. mendeko katiximak eta EHHAK eta Mugerren *bait* (1794) / *ddous* 'deus' (Bardoze, Artola 1996), Amikuzen *ddous* eta *sourik* 'segurik' ditugu; Bardozekoa da *ddos* aldaera ere: *enakien ddos* (EHHA); Beskoitzen *deus* dakar Duhauk (2003: 88) / *egordi* 'eguerdia' (Bar), Amikuzen bezala (EHHA) / *-gerren* '-garren' atzizkia, Zuberoan eta Amikuzen bezala; Bardozeko katiximan ageri da eta EHHAK *bortzerren* dakar, baina aldaera bera dakarte XIX. mendeko Beskoitzeko eta Urketako katiximek ere: *biguerren* (Bes, 324) eta Urketan *bortzguerrena* (348, 357), *hiruerrena* (342) / *gizun* 'gizona' Bardozen XIXan eta XXan / *gorphutz* (Bar kat, 292), baina *gorphutz* aldaera ere badakar (311, 315); EHHAK *gorphutz* dakar egun Bardozen; Beskoitzeko katiximak ere *gorphutz* dakar (333) / *hartiko* 'hartuko' Amikuzen bezala (Bar, EHHA); honela dio Videgain datu-biltzaileak: «*tiko* forma hemen entzun da, baina ez da beti emaiten dena, ez Amikuzen bezainbat bederen»; horra etsenplua: *zerbait hartiko uzie* / *horgo* 'horko' Bardozen, Baxenabarren berriztatu bezala, baina Beskoitzen *horko* (EHHA 1669) / *hütxa* 'jantzi gordetzeko kutxa', Zuberoan bezala / *ifarnu* 'infernu' (Bes kat) / *intzun* 'entzun', Baxenabarren bezala, baina baita *entzun* ere (Bar, EHHA) / *kolpu bat edan* Beskoitzen (Duhau 2003: 245); Bardozen *esne kholpü* dakar EHHAK / *korringo* 'gorringo' (Bar), Amikuzen bezala; Lapurdi-Baxenabarreetan *gorringo* eta Zuberoan *gorrinko* (EHHA, 848) / *kuntre* 'aurka' (Bes & Bar kat) / *lantu* 'landu' Beskoitzen (Duhau 1993: 27) / *miuñ* 'mirua' Bardozen eta Amikuzeko Arrüetan / *oihen* 'oihana' Amikuzen bezala, (Bar, EHHA), baina Beskoitzen *oihan* / *ontu* 'ondu' Bardozen, Amikuzen bezala *nt* dakarrena / *ozama* 'amabitxia, amapontekoa' (Bar, EHHA); Bardozen dakartza atlasak *oxama*, *oxema*, *gozema* eta *gozama* ere; Lapurdiko Makean *gozama*; Baxenabarren Amikuzen dugu *gozama* & *goxama*, Oztibarren *gazama* & *gaxama* eta Garazialdean *gazama* / *-tarziün* atziz-

7. XIX. MENDEKO IDATZIZKO ETSENPLUETARIK XX. MENDEKO AHOZKO EMAITZETARA

7.1. XIX. mendeko Aturrialdeko hiru katixima ditugu (Pagola *et al.* 1999), horregatik, XIX. eta XX. mendeetako hizkuntza-aldaerak eta haien aldaketak jomugan ezarriko ditut. Duhauk diosku Beskoitze eta Urketa arras iduriak direla mintzoan, ez gara gaizki alderatzeko, baina halarik ere, katixima horiek eskualdeko hiru herrietako orduko zinezko mintzoa alderdi guztietan leial irudikatzen ote duten ez da orain aise trenka litekeen auzia. Eskualdeko ezaugarri batzuen aldaketak aurkeztuko ditut: ez dira munta dialektologiko handiko gertakariak, alderdi kronologikoagatik aurkezten ditut, datuek erakutsiko baitigute nola jasan duten denboraren iragatea Aturrialdeko euskal mintzoek.

7.2. Hiatoen alderdian iduri luke hizkuntza-aldaketa sail zabala gertatu dela eskualdean. Hiatoez bereziki hitz-bukaerako bokalen dinamika eta el-karreragina dakart. Aldaketaren eragilea ez da alderdi morfologiko edo gramatikala, eragilea ez da singularreko ala pluraleko hitza den; izan ere, zinez eragiten duena da hitzak bukaeran kontsonante-kodarik ba ote daraman, bokal-hiatoaren ondotik -C ba ote den.

7.3. *ea > ia > ii > i*, sing. nahiz pl.-eko aldaeretan, kodan kontsonantea duenean: Beskoitzeko katiximan ditugu *cenin* ‘zenean’ (326) edo *khuutcin* ‘gurutzean’ (321), eta Urketakoan *bakhotchin* (362), *eunin* ‘egunean’ (346), *guienin* ‘garenean’ (343). Bokaletan erdibideko urratsak ageri dira Urketako katiximan: *belarriin* ‘belarrean, kopetan’ (342), *gainiin* ‘gainean’ (352). Pluralean *iandic* ‘igandek’ (Bes kat, 328) laburtua ageri da, bukaeran pluraleko -k baitu. Kodarik gabe ez da gertatzen: *eosçalia* ‘eroslea’ (Bes kat, 323). EHHako emaitzak berriago dira eta Beskoitzen baizik ez dakarte halako asimilazio-maila: *sémia* / *semík* / *semík* / *semián* / *etxín*, *etxean*.⁴⁴

7.4. *oa > ua > uu > u*: kontsonante-koda duelarik —mugatzaile pl., ergat., ines.—, guztiz soiltzen da hiatoa. Horra: *Jinkuc* erg. sing. (Bes kat, 322, 325), *ondun* ‘ondoan’ (322). Erdibideko urratsak ageri dira Urketako katiximan: *ahuun* ‘ahoa’ (342), *onduun* (358), baina baita berrikuntza areagoturik *beharrezkuk* (352) aldaera ere; ergatibo singularrean *Jinkuc* (348). Kontsonante-kodarik gabea eta asimilaziorik jasan gabea da Urketako katiximako

ki-aldaera (Bar kat), baina egun *-tasiin* & *-tasun* dakar EHHAK Bardozen; cf. 2.9. §, 11. oharra / *tilinto* ‘zintzilik’ & *tilingan* Bardozen (EHHA); Amikuzen *tilingo*; Erronkarin eta Zaraitzun *tilinton* / *urzo* ‘usoa’ aldaera zaharra Amikuzen eta Bardozen ditugu, eta ez «urtzo» (EHHA) / *xi[ʒ]a* ‘gerezia’ & *xi[ʒ]atze* ‘gereziondoa’ ibiltzen dira Bardozetik ipar-Zuberoako ekialderaino; Domintxainen *xi[ʒ]atze* & *gezitze*; Amikuzen ele bakarra dago: *xi[ʒ]atze* (Arboti), *[ʒ]i[ʒ]atze* (Garrütze), *si[ʒ]atzeondo* (Arrüeta) / *zarrapo* ‘sarraila’, Amikuzen bezala.

⁴⁴ EHHako datu garaikideetarik absolutibo singularra / absolutibo plurala / ergatibo singularra / genitibo singularra / inesibo singularra kasuak aurkezten ditut etsenplu hauetan nahiz azpiatal honetako ondokoetan.

neskatua etsenplua (365). EHHako egungo emaitzetan Beskoitze da bakarra laburdura duena: *astuá / astúk / astúk / astoan / zilún & ziloan*. Bardozekoetan inesiboan bokal palatalizazioaren etsenplua dago: *zanguén* ‘zangoan’, nahiz baden *zilhuán* ere.⁴⁵

7.5. *ia > ii* hitz sing. nahiz pl.-etan, eta XIX. mendeko katiximetan kontsonante-koda beharrik gabe: Urketako katiximan *haragii* asimilazioa dago *mundui, debrui eta haraguii* sintagman (343) eta halakoa da *mihii* (363) ere. Urketan koda duela inesiboan *handiin* (354) dago eta Beskoitzeko katiximan pluralean *thipiic* ‘ttipiak’ (335). Alta, egungo emaitzetan asimilaziorik gabe *mendia* eta *mendiak* dakartza Duhauk Beskoitzen eta ines. sing.-ean *mendian* (1993: 44).⁴⁶ Hona EHHako emaitzak: Beskoitzen *idia / idiak, idiák / ídiak / idián / eRián*, baina Duhauk *aberik* ‘abereak’ eta *etxik* ‘etxeak’ dakartza egungo Beskoitzen (1993: 29, 31). Urketakoak dira EHHAN *idia / idiak / ídiak / idían / héRian*.

7.6. XIX. mendean Bardozen ez da *uie > ie > ii* ibilera ageri: *diena* ‘duena’ (284), *zindien* ‘zenuen’ (284). Egungo mintzoan, Hazparnealdean bezala, *ii* ereduá ibiltzen da Bardozen (EHHa). Irizarrek dakartzen egungo emaitzetan (2002b), *ii > i* laburdura-eredua ageri da Mugerren eta Urketan. Bardozen ere *i* ereduaren etsenpluak dakartza EHHak: *eta nik maite binin* ‘bainuen’ *kozina / egindin* ‘ez genuen’ *jatekoik*. Halarik ere, Bonapartek bezala *ie* ereduko adizkiak ere bildu ditu Artolak Bardozen: *nien, hien, zien, zindien, gindien*.

7.7. XIX. mendeko Aturrialdeko katiximetako emaitzetan *ua > uia* epentesiaren ondoko bilakabide gehiago ageri da sing. nahiz pl.-ean. Laburdurak gertatu dira kasu absolutiboan eta beste batzuetan ere, eta kontsonante-koda beharrik gabe, gainera. Bokal-asimilazioa gertaturik, beharbada, mugatzailerik gabe soildurik ageri zaigu Urketako katiximako datu sorta bat: *burui* ‘burua’ (346), *debrui* (343), *saindui* ‘santua’ (342, 361)... Ondoko etsenplua kodaduna da: *zeruin* ‘zeruan’ ines. sing. (347, 362). Baita Beskoitzeko katiximako aldaera *ostia sandui* ‘sandua’ abs. ere (340). Beskoitzeko katiximako ondoko etsenpluek koda dute: *aingueruiic* ‘aingeruak’ abs. pl. (327), *zeruin* ‘zeruan’ (327). Bardozeko katiximak *-ia* ereduá dakar: *bekhatia* (279) / *begiac aphaldiac* (312), *bekhatiac* (292). Beskoitzeko *zeruiin* (327) etsenplua lekuko, *uia > ui* laburduran iduri luke bidearen erdian *-uii* asimilazioa gertatu zatekeela. Egungo mintzoan *buruia* (sing.) eta *buruiak* (pl.) dakartza Duhauk Beskoitzen, eta inesiboan *buruian* (2003: 45). Epentesidunak dira arestiko

⁴⁵ EHHako datuetan Videgainek dio lekuko bardoztarrak *-ean > -ien* egiten duela: *bezálde-rién* ‘beste alderdian’, *lehen egunien, giélien* ‘gibelean’. XIX. mendeko katiximan ere *lurrien* dakar Bardozen Celhabek (305). Odon Apraizek zioen *i* eta *u* ondoko *a > e* palatalizatzen dela Bardozen (Irizar 2002a: 273).

⁴⁶ Dioenez, hiztun batzuek, baina guztiek ez, epentesi eta guzti *ardiya* ‘ardia’ ahoskatzen dute (1993: 38).

egungo etsenpluak, baina ez dute asimilaziorik edo laburdurarik jasan. Hona EHHA atlaseko egungo emaitzak:

Mugerre: *kathüia, sabüia, suia, larrüia* / Beskoitze: *sagüía* / Urketa: *sábuia, lothüia* / Bardoze: *gathía, gathüia, büriá, ázabüria*

Mugerre: *gathüiak, sabüiak* / Beskoitze: *gatuiák, sagüiak* / Urketa: *gathüiak, sabüiak* / Bardoze: *gathiak, gathíák*

Mugerre: *gathüiak* / Beskoitze: *gatuiák* / Urketa: *sabüiak* / Bardoze: *gathíák*

Mugerre: *gathüian, sabüian* / Beskoitze: *gatuyán* / Urketa: *gathüian* / Bardoze: *gathía:n*

Mugerre: *negüian, ziphuian, buüian, porrüian, lekhüian* / Beskoitze: *buruián* / Urketa: *bürian* / Bardoze: *bürian, négian, negüian, bürian*

7.8. XIX. mendeko Urketako katiximako emaitzetan, *-e*, *-o*, *-i* eta *-u* oinarriei *bat* determinatzailea lotzean bokal-asimilazioa ageri da, izan ere, *bat*-ek kontsonante-koda du: *andereet* (349) / *Jinkoot* (349) / *ttipiit* ‘txiki bat’ (361) / *lekhuut* ‘leku bat’ (358). Baita *bat* gabe ere, *-i* eta *-o* oinarria duten bi hitzi mugatzaile plurala eranstea: *ithurriik eta erruuk* ‘erroak’ (354), biek kontsonante-koda dutelarik.

7.9. Beskoitzeko katiximan bokal-asimilazioa ageri da kontsonante-koda duen genitiboan: *Christoon* (321, 324), *guhoon* ‘guharen’ (326, 333). Urketakoan ere bai: *Christoon* (342), *oroon* ‘ororen’ (365). Bardozeko katiximak asimilaziorik gabeko *Kristoen* (284) eta *oroen* ‘ororen’ aldaerak dakartza. Singularreko izenen genitiboan *aren* > *aen* > *aan* asimilazioa dago Hazparne inguruan XIX. mendetik. Eskualdeko katiximek ere halaxe erakusten dute Aturrialdean: Beskoitzeko eta Urketako katiximek *-aan* dakarte, preseski Bardozen egun den bezala, baina Celhaberen XIX. mendeko Bardozeko katiximan ez da ageri: *eroszaliaen* (287), *loriaen* (284), *miseriordiaen* (280)..., baldin notarioaren itzulpenak bardoztarren orduko mintzoa leial ordezkatzeko badu.

7.10. Etorkizuneko aditzetan ere *-aen* / *-ein* dakar Bardozeko katiximak *-an* bukaerako aditz nagusietan —*emaen* ‘emanen’ (281), *izaen* ‘izanen’ (281), *oukhaen* ‘ukanen’ (316), *yasein* ‘jasanen’ (284), *youaen* ‘joanen’ (305)—, baina egun *-aan* da hori Bardozen: *atxemaan* & *atzemaan* & *hatxemaan*, *emaan*, *erraan*, *izaan*, *joaan*, *ukhaan* (EHHA).⁴⁷

⁴⁷ Urketan *izaan* ‘izanen’ dakar katiximak (357) eta Beskoitzen *erraan* ‘erranen’ (328, 339)... Gauza jakina da disimilazioz bokal arteko *n* eskas dela aditz nagusien etorkizuneko aldaeretan: *yakien* ‘jakinen’ (Bes kat, 322), *jien* (Urk kat, 367). Bardozen ere *eun* ‘egun’ *batez jien duk* perpausa dakar EHHAK.

7.11. Oro har, erran liteke Beskoitzeko egungo emaitzak eta XIX. mende-koak ez doazela elkarren aurka, baina Aturrialdeko Beskoitzeko eta Urketako katiximetako etsenpluen eta XX. mendeko ahozko datu-bildumetako emaitzen arteko koherentzia ez da guztizkoa. Pentsa litekeenaren aurka, XIX. mendeko katiximetan bokal asimilazio eta sinkopa gehiago dago XX. mendeko datu-bildumetako ahozko emaitzetan baino, batez ere *ia > ii* eta *ua > ui* kasuetan: *mundui*, *debrui* eta *haraguii*. Hiato horrek pluraleko marka hartzean ere bai: *thipiic* ‘ttipiak’. Hona *-u* ondoko hiatoetan: singularreko *burui*, *debrui*, *saindui* edo pluraleko *aingueruiic* eta inesiboko *zeruin* & *zeruiin* erako etsenpluak ez dira bi herri hauetako egungo ahozko emaitzetan ageri. Zer gertatu ote da?

7.12. Euskal Herriko ekialdekoa da Bardozeco *i-ü > ü-ü* asimilazioa. Katiximak iradokitzen du XIX. mendean Bardozen hitz batzuk Amikuzen eta Zuberoan legez ahoskatzen zirela. Aldiz, EHHAK hitz batzuen ahoskera aldatu ahal izan dela erakusten du:

Celhabe (XIX)	<i>bühürtia</i>	<i>lübürii</i>	<i>ülhün</i>	<i>ütxiira</i>	<i>ützülia</i>
EHHA (XX)	<i>bihurdura</i>	<i>libürria</i>	<i>ilhuntzen</i>	<i>itxiira</i>	<i>itzüli & itzuli</i>

Halarik ere, EHHAKO Bardozeco egungo emaitzek erakusten dute bokal asimilazioak hainbat hitzetan oraindik ere badirauela:

<i>güsüharri</i> ‘kisuharria’, <i>güsülab</i> e ‘kisu-labea,	<i>mülü & mürii</i> ‘mirua’
baina bada Bardozen <i>gisu</i> ere	
<i>üngürü</i> ‘ingurua’ ⁴⁸	<i>zutut</i> ‘zaitut’, Beskoitzen <i>zitut</i> dena

7.13. Izenaren morfologian ere badira adibideak Bardozen, erakusten baitigute aldaketak gertatu ahal izan direla:

Celhabe (XIX)	<i>nur, nuk</i>	<i>nihur,</i> <i>nihuri,</i> <i>nihuen</i>	<i>nuiç, nun</i>	<i>zuiñ,</i> <i>zuinen</i>	<i>zunbeit</i>	<i>zunbat</i>
EHHA (XX)	<i>nor, nok</i>	<i>nihur,</i> <i>nehur</i>	<i>noiç, nun</i>	<i>zoin,</i> <i>zoinahi</i>	<i>zonbeit,</i> <i>zunbeit,</i> <i>zumeit</i>	<i>zonbat</i>

⁴⁸ *i-ü > ü-ü* asimilazioa dakar hiru silabako *üngürü* hitzak. Kontrako norabidean doaz berranalisisa duten *baatxuru* ‘baratxuria’, *ülü* ‘eulia’ edo *zübü* ‘zubia’ etsenpluak, aitzineko silaban *u/ü* dutenak, baina badira Bardozen hondarreko *-ü* berranalizatuaren aitzineko silaban *u/ü* ez duten etsenpluak ere: *azerü* ‘azeria’, *khölpü* ‘kolpea’.

7.14. Ahaleko adizkietan ere aldea dago XIX. mendeko Bardozeko kati-ximako eta EHHako egungo emaitzen artean: XIX. mendeko katiximan Zuberoko *ei-e* eskema dago, baina EHHako emaitzetan Lapurdi-Baxenabarreetan hedadura handia duen *ditake* era:

Celhabe (XIX)	<i>ezteitekena</i>	<i>deitekezu</i>
EHHA (XX)	<i>ditake, ditakek, litakek</i>	<i>ditakezu, enitakezu</i>

7.15. XIX. mendeko testuetako eta ahozko egungo bildumetako emaitza batzuen arteko inkoherezien zalantza eragiten digute ea leialak ote ziren XIX. mendeko katiximetako datuak oro Aturrialdeko orduko euskaldunen ahozko zinezko erabilerarekin, ala arrazoi testualek eragin ote zuten honako edo halako agerraldia, ala itzultzaileen historia pertsonalari doakion eragile zenbaitek. Nolanahi ere den, ez dut froga konklusiborik deus frogatzeko.

Bestalde, ekialdeko lotura erakusten duten iraganeko berrikuntza zaharrago batzuen kaltetan, geografia-hedadura handiagoko beste aldaera berri batzuk ugalduz eta nagusituz joan ahal izan dira Bardozen hondarreko garaian, Lapurdin nagusi direnak, edo bestela, Lapurdin gaindi Euskal Herriko erdigunetik Bardozeraino heldu direnak.

BIBLIOGRAFIA

- Aranzadi Zientzia Elkartea. 1984-1990. *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa* (EAEL). 2 liburuki. Donostia. <https://worldcat.org/oclc/954484577>.
- Cerquand, Jean François. 1985. *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*. Anuntxi Aranaren edizioa. Donostia: Txertoa. <https://worldcat.org/oclc/1010559589>.
- Duhau, Henri. 1993. *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*. Donibane Lohizune: Alinea. <https://worldcat.org/oclc/954585640>.
- Duhau, Henri. 2003. *Hasian-hasi. Beskoitzeko euskara. Birdena edo bigarren parte*. Donibane Lohizune. <https://worldcat.org/oclc/496559636>.
- Egurtzegi, Ander & Christopher Carignan. 2020. An acoustic description of Mixean Basque. *The Journal of the Acoustical Society of America* 147(4). 2791-2802. <https://doi.org/10.1121/10.0000996>.
- Encinar, Kristina. 2008. Lapurdiko Aturriko euskara: Bardozeko *ü* bokalaz. *Euskera* 53(2). 383-395. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/72799.pdf>.
- Epelde, Irantzu. 2004. Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz. *FLV* 96. 271-303. <https://binadi.navarra.es/registro/00007060>.
- Etxaide, Ana María. 1984. *Erizkiizundi Irukoitza* (EI). Iker 3. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/28946723>.
- Etxebarria, Jose Maria. 1994. Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y bajo navarro oriental. *Mundakiz* 47. 45-75. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=658989>.

- Euskaltzaindia. 2008-2020. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA). 11 liburuki. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha.
- Irizar, Pedro. 1997. *Morfología del verbo auxiliar laboriano*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/40820237>.
- Irizar, Pedro. 1999. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/41468997>.
- Irizar, Pedro. 2002a. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental II*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/314846654>.
- Irizar, Pedro. 2002b. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental III*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/851177923>.
- Lafon, René. 1962. Sur la voyelle *ü* en basque. *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 57. 83-102.
- Lakarra, Joseba A. 2008. Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar). In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, 451-490. Bilbo: UPV/EHU. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2785901>.
- Larzabal, Piarres. 1955. Okilomendi jaun mera. *Gure Herria* 27. 29-39. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LarzabalLaburrak012.htm>.
- Pagola, Rosa Miren, Itziar Iribar, Juan Jose Iribar. 1999. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera I*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. <https://worldcat.org/oclc/432775843>.

Euskararen irakaskuntzaren garabidean^{1,2}

Ines M.^a Garcia-Azkoaga*

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Laburpena: Lan honen helburua da erakustea zer aukera dituen testu-generoetan oinarritutako didaktika batek unibertsitatean espezialitateko hizkuntza irakasteko. Hizkuntzaren irakaskuntzak duen erronka handienetakoa da behar sozial berrietara etengabe egokitzea eta hizkuntzaren erabilera sozial anitzak (Volochinov 1981; Bajtín 2005) islatuko dituzten proposamen didaktikoak egitea. Testu-generoaren eta haren didaktikaren inguruan De Pietro-ren & Schneuwly-ren (2003) eta interakzionismo sozio-diskurtsiboaren (Bronckart & Dolz 2007) proposamenak abiapuntutzat hartuta, dibulgazio-testu entziklopediko bat sortzera bideratutako sekuentzia didaktiko bat diseinatu da. Ikasleak hizkuntzaren erabilera erreal eta sozialarekin aurrez aurre jartzeko eta ikaskuntza ahalik eta esanguratsuen egiteko, Wikipedia bezalako bitarteko digital bat erabiltzen da euskarri gisa. Jardueran zehar, ikasleek kontsulta-, irakurketa-, itzulpen-, idazketa- eta berrikuspen-lanak egin behar dituzte testu argitaragarria lortzeko.

Hitz gakoak: euskararen irakaskuntza; komunikazioa euskaraz; euskararen erabilerak, sekuentzia didaktikoa, testu-generoa, Wikipedia.

1. SARRERA

Dagoeneko adin bat dugunok gogoan ditugu Patxi Altunak eta Miren Azkaratek Euskal Telebistan zuten saioa. Askorentzat, hura izan zen alfabetatze prozesuarekin izandako lehendabiziko harremana. Euri asko egin du harrezkero, eta ikusle-ikasle izan ginen hainbat irakasle ere bihurtu gara. Urteak

* Ines M.^a Garcia-Azkoaga. Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Saila. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (UPV/EHU). Lasarteko bidea, 71 (01007 Vitoria-Gasteiz). ines.garciaazkoaga@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0003-1235-2583>.

¹ Lan hau ELEBILAB ikertalde finkatuak Eusko Jaurlaritzarengandik IT1627-22 proiekturako jaso duen dirulaguntzari esker egin da.

² Lan hau 2020an gaztelaniaz argitaratu zen beste lan baten bertsio moldatua da.



igaro dira eta aldaketa nabarmena izan da hizkuntzen irakaskuntzan. Ondorioz, ikuspegi komunikatiboa gailendu da non-nahi, akademietan, eskolatan, eta baita unibertsitatean ere. Oro har, hizkuntza guztien kasuan (euskararena barne) ikuspegi komunikatiboa lehenesten duten metodologiaren gorakada oso handia izan da; izan ere, ikuspegi komunikatibo horretan hizkuntzaren erabilera eta haren funtzio komunikatiboan jartzen da arreta, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia-esparruan azpimarratzen den bezala.

Lan honetan espezialitateko euskararen edo hizkera berezituaren³ irakaskuntza izango dut hizpide, esparru horretara ere iritzi baita ikuspegi komunikatiboa. Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen.

Zenbait unibertsitatetako programa akademikotan ohikoa da ingelesaren eskaintza aurkitzea espezialitateko hizkuntza gisa, zientzia eta teknologia garatzeko ia ezinbestekotzat jotzen baita elkarren artean ulertzeko *lingua franca* bihurtu den hori. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, ordea, ingelesarekin batera euskarak ere egin du bidea; aspalditik ari da, gainera, gure hizkuntza erabat estandarizatzeko eta haren terminologia eta erregistro espezializatuak garatzeko ezinbestekoa baita eremu akademiko eta profesional espezializatuetan erabiltzen diren aldaerak, hizkerak edo hizkuntza berezituak aintzat hartzea. Kontuan izan behar da XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera gertatu dela euskararen estandarizazio-prozesua, eta, Elorduik & Zabalak (2009) adierazi bezala, ikaskuntzen komunikazio-hizkuntza bihurtu da baita unibertsitatean ere, eta informazioaren eta komunikazioaren gizar-teak berekin ekarri dituen komunikazio-egoeren dibertsifikaziora egokitu behar izan da. Testuinguru horretan kokatzen da aztergai dudana irakasgaiaren kasua, eta galdera honek gidatzen du lan hau: posible da espezialitateko hizkuntzaren irakaskuntza testu-generoen ikuspegitik lantzea?

Ikuspegi horrek gizartean benetan erabiltzen diren erreferentziazko testuekin lan egitea eskatzen du. Testu horiek ikas-irakasgarri egiteko testu-generoan oinarritutako pedagogia dugu lagungarri, baita espezialitateko hizkeren irakaskuntzaren kasuan ere. Azken batean, aldaera horien erabilera inplikaturik dauden hizkuntza- eta komunikazio-gaitasun ugari abian jartzeko aukera eskaintzen dute testu-generoek.

Hori sinetsita, behintzat, ekin diot hemen partekatuko dudana esperientziari, alegia, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduan espezialitateko euskara-ikastaro batean egindako esperientzia praktikoa bati.

Oinarritzat hartuko dudana ikuspuntu epistemologikotik, testua komunikazio-unitate bat da, komunikazio-egoera jakin batean gauzatzen dena, eta haren osakeran eta egituraren elkarrekintza-egoeraren eta hitzezko jardueraren

³ Parekidetzat hartuko ditut hemen hizkera berezitua eta espezialitateko hizkuntza terminoak.

ezaugarriak islatzen dira, baita baldintza sozio-historikoak ere. Azken batean, hizkuntza natural baten baliabideekin sortutako hitzezko jardueraren adierazpen empirikoa da (Bronckart 1996). Testu horiek komunikazio-unitateko eredu moduko batzuk osatzen dituzten generoetan sailka daitezke; genero-nozio hori (Dolz *et al.* 2010) testuak duen konfigurazioari buruzkoa da. Testu-ikuspegi hori hizkuntzaren irakaskuntzan eta ikaskuntzan txertatzeko sortu zen testu-generoetan oinarritutako hizkuntzaren didaktika (Schneuwly & Dolz 1997). Hasiera batean, ama hizkuntzan jarri zen fokua, baina pixkanaka-pixkanaka bigarren hizkuntzen ikas-irakaskuntzara hedatu da (Sánchez-Abchi 2015), eta baita egoera eleanitzetara ere (Dolz & Idiazabal 2013). Ikuspegi horretatik, erreferentziazko praktika sozialak irakatsi eta ikasteko objektu bihurtzen dira testuak, eta praktika horien irakaskuntza-dimentsioak identifikatzen dira ikasleak trebatzeko haien erabileran. Praktika horien tratamendu didaktikorako sortu ziren sekuentzia didaktikoak SD (Dolz & Schneuwly 1998; De Pietro & Schneuwly 2003; Larringan & Idiazabal 2012). Testu-genero jakin bat ikas-irakastera bideratutako tresna didaktikoak dira, jarduera ezberdinez osatuta daudenak, ikasketak planifikatzeko aukera eskaini, eta ikas-irakas prozesua errazten dutenak. Horrela, bada, hurrengo lerroetan espezialitateko euskara ikas-irakasteko sekuentzia didaktiko baten diseinoa azalduko dut.

2. IKASKUNTZA-TESTUINGURUA

Gorago esan dudan bezala, hizpide dudan irakasgaia graduko ikasketen barruan kokatzen da. Graduko planen garapenean, ikasleek espezialitatean eskuratu beharko lituzketen titulazioko oinarritzko gaitasunak zein diren aipatzen da. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien kasuan, gaitasun horietako bat honako hau da: «CB4-Que los estudiantes puedan transmitir información, ideas, problemas y soluciones a un público tanto especializado como no especializado.» (Memoria Verificada 2014: 5).

Ideiak, arazoak eta irtenbideak transmititzeak berekin dakar hizkuntza-eta komunikazio-trebetasunak izatea gai bat azaltzeko, ideia bati buruz argudiatzeko, elementu fisikoak, egoerak edo ekintzak deskribatzeko, etab. Horrez gain, ingurune espezializatuetan eta ez-espezializatuetan komunikatzeak berekin dakar ingurune fisikora eta sozialera eta mezuaren hartzaileara egokitzeko gaitasuna erakutsi beharra, betiere komunikazio-helburuaren arabera eta komunikazio-egoerak eskatzen dituen baldintzak kontuan hartuta. Hori guztia, gainera, tokiko hizkuntzan, kasu honetan euskaraz, hizkuntza gutxitua dena, eta ikaskuntzen komunikazio-hizkuntza ere badena. Hala eta guztiz ere, gure gelatan izaten ditugun ikasle guztiek ez dute euskararen ezagutza maila bera izaten. Guztiek dituzte esperientzia eta bizipen linguistiko desberdinak. Denak xede hizkuntzan komunikatzen dira edo komunikatzeko aha-

legina egiten dute, baina guztiek ez dute maila edo trebetasun bera; batzuek nolabaiteko zailtasunarekin komunikatzen dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 eta B2 mailan, eta beste batzuek zailtasunik gabe komunikatzen badira ere C1 eta C2 mailan, akats lexikoak, gramatikalak, estilokoak eta, batzuetan, ortografikoak egiten dituzte. Esan nahi dut horrekin oso hizkuntza maila ezberdina duten ikasleekin egin dezakegula topo talde berean. Egoera horretan oso zaila da guztiei egokitzen zaizkien ariketak eta ikas-jarduerak proposatzea. Sekuentzia didaktikoaren erabilera, ordea, bide bat izan daiteke oztopo horri aurre egiteko, izan ere, haren funtsezko oinarria da ikasle bakoitzak bere abiapuntutik egiten duen prozesua aintzat hartzea eta aurrerapen hori ebaluatzea

3. GELAN LANTZEKO TESTU-GENEROA HAUTATZEA

Esperientzia hau garatzen den testuinguruan, egokia dirudi hizkuntzaren erabileran eta dimentsio komunikatiboan zein linguistikoan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntzaren alde egitea. Hala ere, honako hau da testu-generoak hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzaren erdigunean jartzean agertzen zaigun lehen galdera: zeintzuk dira testu-genero egokienak espezialitate horretarako eta maila horretan ikasleek garatu behar dituzten komunikazio-gaitasunetarako? Narratzea, kontatzea, deskribatzea, azaltzea, argudiatzea, portaerak erregulatzea, edo baita hizkuntzarekin jolas egitea ere (Dolze Noverraz & Schneuwly 2001), hitzezko jarduerak diren neurrian, arazorik gabe lot daitezke Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako ikasleen profilararekin eta haien jardun-eremu profesionalekin (irakaskuntza, aisialdia, entrenamendua, kudeaketa...). Hori dela eta, aipatutako egileek egindako testuen taldekatzea (haietan nagusitzen edo mugiarazten diren berbazko tebetasun nagusien arabera), oinarri aipatuta izan daiteke zein genero lantzea komeni den erabakitzeko.

Kasu honetan, testu entziklopediko idatzi batekin lan egitea aukeratu da, zehazki, Wikipediako sarrera batekin. Arrazoi bat da euskarri digital horrek aukera ematen duela gaur egun gizartean indarrean dagoen eta gazte zein helduen artean kontsulta-iturri gisa asko erabiltzen den genero batekin zuzenean lan egiteko, alegia, komunikazio-egoera kokatu eta erreal batean lan egiteko. Bide batez, gainera, zeharkako gaitasun digitalak lantzeko aukera ematen digu testu-genero horrek. Beste arrazoi bat da euskaraz urriak direla oraindik Wikipedian behar bezala garatuta dauden sarrerak; lanketa honek aukera ematen du gogoeta metalingüistikoa egiteko, hizkuntzen aniztasunaz jabetzeko eta, besteak beste, euskaraz eremu horretan duen lekuaz jabetzeko; Wikipediako sarrera-kopurua handitzeko aukera paregabea ere bada. 20013-20014 ikasturtean *amateur* gisa abiatutako egitasmoa honek 2018 gozirik bere bidea egin du Euskal Wikilarien Kultur Elkartearekin ba-

tera⁴, eta esan daiteke ezarrita geratu dela unibertsitateko gradu ezberdinetako euskararen irakaskuntzan Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailak azken urte hauetan urratzen ari den bidean.

Beraz, Wikipediak ikasleen espezialitate-eremuko hizkuntza eta titulazioaren oinarritzeko eta zeharkako gaitasunak lantzeko ingurune egokia eskaintzen digula aurreratuko nuke, eta horixe erakusten saiatuko naiz jarraian. Horrek, hala ere, metodologiari buruz gogoeta egitera garamatza: nola gauzatu testu-generoari buruzko lan bat espezialitate-hizkuntzan? Zer hizkuntza-eta komunikazio-dimentsio landu daitezke hizkuntzari heltzeko modu horrekin?

4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN (SD) DISEINUA

Esku artean duguna hizkuntza gutxitu baten eta hizkuntzaren eremu espezializatu bateko irakaskuntza-ikaskuntza bada ere, testu-generoen eredu didaktikoa tresna egokia izan daiteke euskararen dimentsio linguistikoaren behar espezifikoak eta hitzeko jarduera orok berekin dakarren dimentsio komunikatiboa bateratzeko. Eredu didaktiko horri jarraiki, ikasgairako aurreikusitako programa teorikoa eta praktikoa gauzatzen lagunduko digun proiektu bat proposatzen da. Sekuentzia didaktikoaren ereduaren helburua da ikasleengan gorago aipatutako gaitasunak garatzea eta, era berean, aztergai den testu-generoari lotutako ezaugarri pragmatiko eta linguistikoetan sakontzea, ahaztu barik dagoeneko aipatu den gogoeta metalinguistikoan.

Sekuentzia didaktikoaren nozioa, bestalde, testu-generoen irakaskuntza-ikaskuntzari ekiteko beharretik sortzen da. Larringanek & Idiazabalek (2012) gogoratzen duten bezala, SDa da esku-hartze pedagogikoa antolatzeko ardatza. Helburu jakin bat lortzeko antolatu eta artikulatutako jardueramodulu batzuek osatzen dute SDa; gainera, hasiera eta amaiera zehatzak ditu, eta ikasleak eta irakasleak horien berri dute. Subjektibotasuna gainditzeko tresna bat ematen dio irakasleari. Bestalde, SDa parte-hartzaile guztiek partekatzen duten ikasgelako proiektu bateratu baten barruan kokatzen da.

Gogora ditzagun, halaber, sekuentzia didaktikoei bete behar dituzten baldintzetako batzuk (Dolz *et al.* 2010: 512): legitimitatea, hau da, hautatutako testua testu-genero baten barruan inskribatu ahal izatea eta hura aukeartzeko arrazoi bat egotea; egokia izatea, hau da, testu-genero hori lantzeko proposatzen diren jarduerak genero horri dagozkionak izatea; eta elkartasuna, alegia, sekuentzia horren zatiak elkarren osagarri izatea. Hala ere, ira-

⁴ Euskal Wikilarien Elkarteak ematen digu laguntza gaiak aukeatzen eta sarean argitaratzeko aholkuak ematen. Irakaslearen ardurapekoa da Wikipediako sarrera oinarritzat hartuta ariketak hizkuntzaren irakas-prozesu didaktikoan txertatzea.

kasleentzat ez da erraza moldaketa hori egitea, Garcia-Azkoagak & Mantelrolak (2016) erakutsi zuten bezala, betekizun horiek dirudien baino zailtasun handiagoak dakartzate eta.

Azaltzen ari naizen planteamendua gidatzen duen eredu ginebratarrari jarraiki, sekuentzia didaktikoa lau etapatan garatzen da:

- a) Ikasleentzat esanguratsua izango den proiektu bat proposatzea: proiektu hori garatzea ahalbidetuko digun konpromiso bat lortze aldera. Proiektu horri kontratu didaktikoa deituko genioke. Fase honetan, proiektua aurkezten da eta komunikazio-egoeran eta haren ezau-garrietan jartzen da fokua; horrek ikasleari laguntzen dio dagokion testu-generoari buruz dituen aurretiazko ezagutzak aktibatzen.
- b) Hasierako ekoizpena: ikasleen abiapuntua ezagutzeko eta ikaskuntzan aurrera egiteko jarduera egokienak diseinatzeak aukera ematen diguna.
- c) Lan-moduluen diseinua: horietan, testu-arkitekturaren edo mintzaira-jardueraren mailak lantzeko zereginak eta ariketak proposatuko dira testuaren forma zein edukia lantzeko: ekoizpen-egoera, edukia, testuaren egitura, kohesioa eta konexioa, eta koherentzia pragmatiko edo interaktiboan esku hartzen duten hizkuntza-unitateak (ahotsen kudeaketa eta modalizazioak).
- d) Azken ekoizpena, hau da, ikasleek sortuko duten behin betiko testua.

Sekuentzia didaktiko bat diseinatzeak aukeraketa bat egitea eskatzen du gure ikaskuntza-helburuen arabera. Ezin da dena SD berean landu, jakina, eta irakasgaiaren helburu guztiak ezin dira SD bakar baten bidez lortu.

Nolanahi ere, gure ikasleak unibertsitatekoak izanik, pentsatzekoa da nolabaiteko harremana izan dutela dagoeneko komunikazio-formekin edo testu-genero desberdinekin, besteak beste, Wikipediako testuekin.


Hori esanda, ikus dezagun 1. irudian laburtuta, lan honetan proposatzen den SDaren diseinua eta ikasgelara eramaten den proposamena.

Egitasmoaren xedea da, besteak beste, ikasleek hizkuntza modu praktikoa eta esanguratsuan hobeto ezagutzen. Kasu honetan, egoera komunikatiboa planteatzen zaie, non euren espezialitate-eremuko informazio espezifiko bat transmititu behar duten; egoera horren helburu komunikatibora egokitu eta Wikipediarako moduko testu informatibo bati dagozkion hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak baliatu behar dituzte. Hori erdiesteko, 1. irudian agertzen den proiektua proposatzen zaie, eta kontsigna edo jarraibide hau ematen zaie: «Kirolaren eta jarduera fisikoaren alorreko espezialistak izanda, oso pertsona egokiak zarete euskarazko Wikipedia zuen espezialitate-arloko sarrerekin elikatzeko; Wikipedian arakatu eta kirolaren eta jarduera fisikoarekin lotuta dauden sarrerak eta gabeziak identifikatu ondoren, ildo bat ar-

datz hartuta⁵, falta diren sarrerak identifikatu eta bana idatzi beharko duzue. Ekointzi beharreko testua dibulgazio-testu entziklopedikoa izango da, hau da, nolabaiteko espezializazio-maila izango duen testu bat, baina ez oso teknikoa, publiko orokorarentzat eskuragarria izan dadin, ez bakarrik esparru horretan adituak direnentzat. Horrela espezializazio arloari zein euskararen normalizazioari egin ahal izango diozu ekarpena, euskarazko Wikipedia-sarrera horiek ikasleek, zaletuek, zein publiko orokorrak izango baitu kontsultatzeko aukera.»

PROIEKTUA:

Wikipediarako sarrera bat idatzi Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien espezialitatean: gizartearen arloari buruzko informazio gehiago izateko euskaraz, eta sarrera kopurua gehitzeko.



1. irudia

SD baten egokitzapena Wikipediako dibulgazio-testu entziklopediko baten idazketarako

Jarraian urrats bakoitzaren azalpen laburra eskainiko dut, ariketen adibide zehatzetan geratu gabe.

4.1. Hasierako ekoizpena

Aurkezpena egin ondoren eta moduluak lantzen hasi aurretik, ikasleei aukeratutako gai-ildoarekin bat datorren sarrera bana esleitu edo bat aukera-

⁵ Kirol ezberdinen ezaugarriak, kirolari ezagunak, Neguko Olinpiar Jokoetako jokoak, emakume kirolariak...

tzeko eskatu, eta Wikipediarako testu bat idazteko eskatzen zaie, Interneten dagoen informazioan, komunikabide horri buruz duten ezagutzan eta, beren ustez, testu horrek izan beharko lukeen eduki ea ataletan oinarrituta. Beraz, kasuan kasuko testu-generoari buruz dituzten irudikapenetatik abiatzen dira. Hasierako testu horri esker, ikasleek jardueraren hasieran dituzten komunikazio-trebetasunak eta hizkuntza-ezagutzak ezagutu ditzakegu. Lehen idazketa horrek, gainera, hizkuntza-aldaera estandarraren euskara batua edo euskalki-barietateen erabilerari buruzko erabakiak hartzea dakar berekin, eta horrek,aldi berean, berekin dakar barietate estandarrak hizkuntza-normalizazioaren prozesuan duen garrantziari buruzko hausnarketa soziolinguistiko eta metalinguistikoa egitea.

4.2. Lehenengo modulua: testu-generoa ezaugarritzea

Wikipediako testu baten zatiak eta bertan erabiltzen diren hizkuntza-baliabide nagusiak identifikatzea da modulu honen helburua. Karakterizazio horrek, beraz, testuaren kanpoko zein barruko alderdiak jorratzen ditu. Proiektuaren aurkezpenean bertan lehen hausnarketa egin bada ere, modulu honetan berriz ere komunikazio-egoeraren kanpoko osagaien berezitasunetan jarriko da arreta: parametro fisikoak (testuaren egilea nor den, nori zuzenduta dagoen, espazio- eta denbora-koordinatuak), parametro sozialak (interakzioaren esparru soziala, enuntziatzailearen eta hartzailearen zeregina), xedea eta formato edo eduki erreferentzialaren plangintza.

Modulu horren barruan, Wikipediako artikuluek aurkezten dituzten testu-alderdi batzuei behatzeko eta aztertzeko jarduerak proposatzen dira:

- a) Koherentzia tematikoarekin lotuta dauden alderdiak: informazioa antolatzeke modua, jorratzen dituzten kontzeptuak definitzeko modua, aditz-denboren erabilera, testuaren kohesiorako elementuaren agerpena, testu-antolatzaileen presentzia (konexioa).
- b) Koherentzia pragmatikoarekin lotuta daudenak: espezializazio-maila eta terminologia edo lexiko berezituaren erabilera, elementu modalizatzaileen erabilera eta ahotsen kudeaketa.

Halaber, analisi hori testuaren lehenbiziko ekoizpenean jasotako edukiarekin eta komunikazio-egoera irudikatu den moduarekin alderatzen da. Ariketa horrek aukera ematen du ekoitzi beharreko testu-generoaren komunikazio-ezaugarriak ezagutzeko, ikasle bakoitzak bere lehen testutik abiatuta egin ditzakeen hobekuntzei buruz hausnartzeko, eta landu behar diren sarren gutxieneko egitura bateratua adosteko. Egindako karakterizazioa kontuan hartuta, sarrera bakoitzean garatuko diren atal hauek adosten dira: izenburua, definizioa, bilakaera historikoa, (modalitateak, kategoriak, materialak,

arauak, txapelketak, kirolari nabarmenak), kirol horren presentzia Euskal Herriko testuinguru sozialean (praktika, kirol-taldeak, federazioak, tokiko kirolariak), erreferentzia bibliografikoak eta lotura interesgarriak. Parentesi artean agertzen diren alderdiak aukerakoak dira; izan ere, dagokion gai-ildo nagusiaren arabera, garrantzizkoa den informazioa aldatu egin daiteke kasu bakoitzean. Bada Wikipediako sarreretan beste hizkuntzatan agertzen ez den eduki edo ezaugarri bat eta ariketaren kasuan gehitu dena: tokiko testuinguru; Euskal Wikipedia eratu nahi bada ezinbestekoa iruditzen baitzait edukia gure gertuko testuinguruarekin lotzea.

4.3. Bigarren modulua: testuratzea

Modulu honen helburua da edukiak kudeatzea eta testuaren idazketari ekitea informazioa behar bezala jasotzeko, antolatzeko eta garatzeko, alegia, komunikazio-egoerak eskatzen duenaren arabera izan dadin. Edukia garatzeko orduan, apunte, aldizkari edo bibliografia espezializatuz gain, sarean dauden iturriak balia ditzake ikasleak. Hortaz, informazioa bilatzeko duen trebetasuna eta irakur-gaitasuna erakutsi behar ditu. Kontua da, sarritan, eduki horiek irakasgaiaren helburu-hizkuntza ez diren beste hizkuntza batzuetan egoten direla. Hori, eragozpena izan beharrean abantaila da. Izan ere, egoera horrek aukera eskaintzen du, alde batetik, munduko hizkuntzen artean euskarak duen lekuaz gogoeta egiteko balio du; bestetik, ikasleak ulermen-gaitasun eleaniztunak aktibatu behar ditu informazioa baliatu eta euskaraz jartzeko.

Jarraian, definizioaren idazketa lantzen da, zeina, DRAEn⁶ adierazten den bezala, zerbait materialaren edo immaterialaren ezaugarri generikoak eta diferentzialak argi eta zehatz azaltzen dituen proposizio bat baita. Wikipediak entziklopedia gisa pentsatuta dagoenez, berau osatzen duten terminoen edo sarreren definizio ontologikoa ematen digu, testuaren atal desberdinen bidez informazio orokorra zein espezifikoa ematen digulako. Hala ere, definizio lexikografikoa lantzea erabaki da, testuaren plangintzan funtsezko elementutzat hartzeaz gain, haren idazketak diskurtsoaren alderdi garrantzitsu batzuk jorrazteko aukera ematen duelako: kirolaren alderdi generikoak eta bereizgarriak hautatzea, eta argi eta ulergarri laburtzea; euskararen kasuan, gainera, definizioak dislokazioarekin lan egiteko aukera ematen du. Aukera bakarra ez bada ere, euskararen joera naturala subjektua lehenik jartzea da, objektuaren bitartekoaren eta azkenik aditzaren SOV artean; ordena horrek, ordea, batzuetan konposizio sintaktiko konplexuak sorrarazten ditu, informazioa berehala eskuratzea zailtzen dutenak eta testuaren komunikagarritasunari eragiten diotenak; dislokazioak esakune baten adierazkortasuna han-

⁶ DRAE: Diccionario de la Real Academia Española, <https://dle.rae.es>.

ditzea ahalbidetzen du, bere elementuen ordena aldatuz eta, beraz, definizioa ulergarriago eginez.

Modulu honen barruan egiten den beste jarduera bat edukien itzulpena da. Ikasleei iradokitzen zaie beren espezialista-rola har dezatela eta eskuratu-tako ezagutzez balia daitezela idazlana egiteko, baina sarean beste hizkuntza batzuetako edukien presentzia masiboak ez du beti gogoeta hori bultzatzen. Hala ere, lehen aipatu bezala, desabantaila izatetik urrun, aukera bat da itzulpen-arietak gure jardueren artean txertatzeko, eta, beraz, gure ikasleen gaitasun eleaniztunak berriro ere aktibatzeke.

Era berean, testu-mekanismoekin kohesioa eta konexioa eta koherentzia pragmatikoarekin modalizazioa eta ahotsen kudeaketa lotutako zereginak sortzen dira, ikasleek duten baliabideen erreperitorioa hobetzeko eta zabal-tzeko. Hala eta guztiz ere, alor honetan garrantzizkoak dira irakasleak egiten dituen zuzenketak ikaslearen testuaren gainean.

4.4. Hirugarren modulu: terminologia-glosarioa

Modulu honen helburua da jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien terminologia espezifikoa lantzea Wikipediako testuan dagoen lexikoaren bidez. Glosario terminologiko eleaniztun bat egiten dugu, espezialitateko lexikoarekin lan egiteko aukera ematen duena, euskarazko mailegu, deribazio eta konposizio lexikoen fenomenoari arreta eskainita. Jarduera honek berriro ere hausnarketa metalinguistikoa eragiten du, Wikipedian dauden hainbat hizkuntzatan hartzen diren erabaki lexikoak euskarazkoekin alderatuta.

4.5. Laugarren modulu: berrikuspena eta berridazketa

Modulu honen helburua da testua berrikustea eta, beharrezkotzat jotzen den kasuetan, berridaztea. Fase honetan, ikasleek behin betiko testua izango denaren zirriborro osoa egin dute. Zailtasun handienak dituzten alderdietan berriro eragiteko unea da.

Gramatikari eta hizkuntza-arauei buruzko lana inplizitua dago aurreko moduluetan, baina arreta berezia eskaintzen zaio azken modulu honetan; izan ere, berriro azpimarratzen da sarean eskuragarri dauden kontsulta-tresnak hiztegiak, zuzentzaileak, datu-baseak, zalantzak kontsultatzeko guneak... la-gundarriak direla akatsak konpontzeko.

Aurreko moduluetan landutako edukien arabera egindako errubrika edo kontrol-zerrenda batetik abiatuta berrikusten da lana. Lehenengo urratsean, autoebaluazioa egiten da; errubrika edo kontrol-zerrendarekin, ikasleek beren testuen alderdi egokiak eta hobetu daitezkeenak identifikatzen dituzte.

Bigarren urratsean, ikasleek testuak trukutzen dituzte elkarren artean, testua beste ikaskide batek ebalua dezan. Ko-ebaluazio mota honek hizkuntzaren erabilerei buruzko hausnarketa egiten laguntzen du. Elkarrekintza horren bidez, ikasleak hobeto jabetzen dira beren hizkuntza- eta komunikazio-ahalme-nez, ondo egiten dutenaz eta hobetu behar dutenaz, eta, horrenbestez, ikas- teko prozesuaz.

Gorago esan dudan bezala, taldearen hizkuntza-maila heterogeneoa da. Xede-hizkuntzan hitz egiteko gaitasun txikiagoa duten ikasleen kasuan, be- ren testuak ikaskideen testuekin alderatzeak aukera ematen die askotariko diskurtso-estrategiez ohartzeko eta, neurri batean, testua hobetzeko eta nahi duten informazioa modu egokiagoan transmititzeko.

4.6. Azken ekoizpena

Autoebaluazio eta elkarren arteko ebaluazio horien ondoren, ikasleek behin betiko testua idazten dute, eta prest utzi argitaratzeko. Nolanahi ere, Wikipediak zuzenean sarean lan egiteko aukera ematen duenez, behin testua sarean argitaratuta beste aditu batzuek ere egin dezakete euren ekarpena tes- tua zuzendu edo osatzeko.

5. ONDORIOAK

Hasieran egindako galderari erantzunez, bai, landu daiteke espezialita- teko hizkuntzaren irakaskuntza testu-generoaren ikuspegia oinarri hartuta.

Espezialitateko hizkuntza baten irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuari ekiteko modu hau da, zalantzarik gabe, irakasleak dituen aukera ugarietako bat. Berezitasun bat du: berbazko komunikazioa modu holistikoan eta ez par- tzialean lantzeko aukera ematen digu, gramatika-arauan edo terminologian soilik oinarritutako metodologietan gertatzen den ez bezala, edo testua gra- matika-egiturak lantzeko esparru gisa soilik aurkezten dutenek ez bezala, egitura horien eta hitzezko ekintzaren arteko benetako harremanari helden ez diotenak, hau da, testu-ekoizpen ororen azpian dagoen hizkuntzaren ko- munikazio- eta diskurtso-dimentsioari helden ez diotenak. Hurrengo lerro- tan aurkeztutako proposamen honek duen hainbat abantaila azpimarratuko dut.

Lehenik eta behin, komunikazio-unitatearekin lan egiteko aukera eskain- tzen du. Testu-generoak hitzezko jarduera komunikazio-unitate gisa trata- tzeko aukera ematen du, komunikazio-egoeraren parametroetatik kanpoko osagaietatik hasi eta helburu komunikatiboa gauzatzeko erabiltzen diren uni- tate linguistikoetaraino (barneko osagaiak); horrek hitzezko jarduerari bu-

ruzko gogoeta errazten dio ikasleari, eta baita informazio-testu dibulгатiboa gauzatzeko eskura dituen aukerak erakutsi ere.

Bigarren abantaila bat da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaz IKT baliatzen den euskarri bat denez, sarbide librearekin, kontsultarako tresna izateaz gain, aukera ematen duela interes orokorreko eta diziplina oso desberdinetako edukiak aldatzeko eta sortzeko, besteak beste, guri dagokiguna.

Hirugarrenik, mundu osoan zehar hedatutako baliabide digitala denez, eta hainbat hizkuntzatan eskuragarri dagoenez, munduko hizkuntza-aniztasunaz eta hizkuntza gutxitu batekin lan egiteaz zer suposatzen duen jabetzeko aukera ematen du, halaber, hitzun asko eta hitzun gutxi duten hizkuntzen izaera hobeto ulertzeko.

Laugarrenik, aipatu behar da sarean lan egiteak aukera ematen duela hipertestuaren bidez lotutako informazioetara edo edukietara azkar heltzeko, bai eta hizkuntza-lana errazten duten kontsulta-baliabideetara eta -tresnetara ere iristeko.

Bosgarren abantaila euskararen izaera gutxituarekin lotuta dago. Wikipedian euskarazko eduki gutxiago edukitzeak aurretik hizkuntza horretan existitzen ez diren informazioak garatzea ahalbidetzen du, eta horrek, azken batean, aukera ematen du ikaskuntza esanguratsuagoa egiteko, euskararen hizkuntza-ondarea handitzeaz eta estandarizazio terminologikoa garatzeaz gain.

Seigarrenik, ikasle bakoitzak hizkuntzari buruz dituen aurretiazko eza-gutzetatik abiatuta lan egitea ahalbidetzen du, eta hizkuntza eta komunikazio gaitasunak horietan oinarrituta garatzea; bakoitzak garatzen dituen gaitasun berrien arabera egiten du aurrera eta hobetzen du testua; horrek ez du esan nahi denek maila bera izango dutenik ikasturtea amaitzean, baina taldearen heterogeneotasuna kontuan hartuta, garrantzitsuena prestakuntza-prozesua eta ikasleak berak prozesu horretan parte hartzea dela esango nuke.

Ordea, desabantailak ere ezin utzi aipatu gabe. Ikasle kopurua handia baldin bada, irakasleak egin behar duen lana eskerga da testuak behin eta berri zuzentzen; eta kopuru hori txikia baldin bada, neurri berekoa izango da Wikipediari egiten zaion ekarpena. Bestalde, kontuan hartuta ikasleak jasotzen duen *feedback* handiena testuratze-lana egiten ari den bitartean gertatzen dela, ezinbestean aurre-testutik abiatzearen eraginkortasuna zalantzan jar liteke.

Hemen aurkeztu dudana proposamen bat da, ez da eredu itxia eta aldaezina. Izan ere, sekuentzia didaktikoen ereduak duen ezaugarri bat da bere malgutasuna. Testu-arkitekturaren maila desberdinei dagozkien ezagutzak antolatzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruz hausnartzeko au-

kera ematen duen tresna da, une bakoitzeko beharretara egokitu daitekeena, bai edukien aldetik, bai luzeraren aldetik. Irakasleari dagokio aldiro zein alderdi landu nahi dituen erabakitzea.

Nola nahi ere, egiteko modu honek ikastaroaren edukien progresioa modu jakin batean antolatzea eskatzen dio irakasleari, ezagutza horiek testu-generoaren zerbitzura jartzeko, alegia; eta horrek esan nahi du irakasleak testu-generoen eta sekuentzia didaktikoen funtzionamenduen gaineko oinarritzko ezagutza izan behar duela. Irakasleak ulertu egin behar du zer eta zertarako egiten duen egiten duena.

Sekuentzia didaktikoen diseinua eta esperimentazioa hizkuntzen ingeniari-tza didaktikoko benetako lana da, funtsezkoa hizkuntzen didaktikaren alorreko garapen zientifikorako. Hala ere, sekuentzia didaktikoa bera diseinatzea bezain garrantzitsua da hura esperimentatzea eta baliozkotzea eta, ondoren, beharrezko egokitzapenak egitea berriro gelartzeko.

6. BIBLIOGRAFIA

- Bajtín, Mijaíl. 2005. *Estética de la creación verbal*. Buenos Aires: Siglo XXI. <https://worldcat.org/oclc/881000456>.
- Bronckart, Jean-Paul & Dolz, Joaquim. 2007. La noción de competencia: su pertinencia para el aprendizaje de las acciones verbales. In Jean-Paul Bronckart (arg.), *Desarrollo del lenguaje y didáctica de las lenguas*, 147-165. Buenos Aires: Miño y Dávila. <https://archive-ouverte.unige.ch/unige:86403>.
- Bronckart, Jean-Paul. 1996. *Activité Langagière, textes et discours*. Lausana: Delachaux et Niestlé. <https://archive-ouverte.unige.ch/unige:37758>.
- Europako Kontseilua. 2002. *Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bate-ratua: Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluazioa*. Vitoria-Gasteiz: HABE. <https://doi.org/10.54512/EEMBLO-2022>.
- de Pietro, Jean-François. & Schneuwly, Bernard. 2003. Le modèle didac tique du genre: un concept de l'ingénierie didactique. *Les cahiers Théodile* 3. 27-52. <https://archive-ouverte.unige.ch/unige:32539>.
- Dolz, Joaquim & Idiazabal, Itziar. 2013. *Enseñar lenguas en contextos multilingües*. Bilbao: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <http://hdl.handle.net/10810/15265>.
- Dolz, Joaquim & Schneuwly, Bernard. 1998. *Pour un enseignement de l'oral: ini-tiation aux genres formels à l'école*. Paris: ESF Editeur. <https://worldcat.org/oclc/911347426>.
- Dolz, Joaquim, Noverraz, Michèle & Schneuwly, Bernard. 2001. *Séquences di-dactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques*, vol. II. Bruxelles: De Boeck. <https://worldcat.org/oclc/803392615>.
- Dolz-Mestre, Joaquim, Gagnon, Roxane & Sánchez-Abchi, Verónica. 2010. El gé-nero textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito. *Lenguaje* 38(2). 497-527. <http://hdl.handle.net/10893/3518>.
- Elordui, Agurtzane & Zabala, Igone. 2009. Euskara Batuaren garapen lexiko-dis-kurtsiboa: batasunetik aniztasun funtzionalerantz. *Anuario del Seminario de*

- Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)* 43(1-2). 231-246. <http://hdl.handle.net/10810/49433>.
- García-Azkoaga, Ines M.^a & Manterola, Ibon. 2016. Las secuencias didácticas de lengua: una encrucijada entre teoría y metodología. *Calidoscopio* 14(1). 46-58. <http://doi.org/10.4013/cld.2016.141.04>.
- Larringan, Luis M.^a & Idiazabal, Itziar. 2012. Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria. *Ikastaria* 18. 13-44. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/en/publications/sekuentzia-didaktikoa-ekintza-didaktikoaren-zutabe-eta-ardatz-minimoki-fidagarria/art-22454/>.
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. 2014. *Memoria Verificada del Título Oficial del Grado de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte*. Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte, UPV/EHU.
- Sánchez-Abchi, Verónica. 2015. El género textual en la enseñanza del español como lengua extranjera. Contribuciones para la ingeniería didáctica. *Anuario Brasileño de Estudios Hispánicos* 25. 113-127. <https://hdl.handle.net/10915/54232>.
- Schneuwly, Bernard & Dolz, Joaquim. 1997. Les genres scolaires des pratiques langagières aux objets d'enseignement. *Repères* 15. 27-40. <https://archive-ouverte.unige.ch/unige:32530>.
- Volochinov, Valentín. 1981. La structure de l'énoncé. In Tzvetan Todorov (arg.), *Mikhaïl Bakhtine le principe dialogique*, 287-316. Paris: Seuil [Argitalpen originala: 1930]. <https://worldcat.org/oclc/902731081>.

Zenbait gertakari morfologiko Orozkoko euskarari¹

Asier Gonzalez Casado*

Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Artikulu honetan gaur egungo Orozkoko euskararen berezitasun morfologiko batzuen berri emango dut, betiere testuinguru diakroniko eta diatopiko batean behar bezala kokatuta. Hemen aurkeztuko diren gertakariak bertan bildutako ahozko testigantzetatik atera dira, baina ikuspegi historiko bat eman zaie inguruko lekukotasunak arakatzuz. Asmoa da euskara gehienez desagertuta edo galbidean dauden kontu morfologiko batzuek bazterreko hizkera honetan biziraun dutela erakustea, eta halaber eremu dialektal mugatu honetan agertu diren berrikuntzetatik bereiztea, horrela euskara osoaren izen morfologiaren garapenerako zer irakaspen lortu ditzakegun azaltzeko. Saio honetan datibo eta genitibo kasu markei eta euren erabilerei emango diegu begirada bat, baina arreta berezia eskainiko diet periferikoagoak diren *-rik*, *-ti* eta *-rantz* leku adposizioei. Orozkoko euskara aukera egokia eta interes handikoa da arkaismoen eta tokiko berrikuntzen berri izateko, hego-sartaldeko bere kokapen isolatuagatik, Bizkaiko mutur batean, eremu euskaldun eta erdaldunaren arteko mugan eta Arabarekin mugakide.

Hitz gakoak: izen morfologia; mendebaldeko euskara; dialektologia historikoa; partitiboa; arkaismoa.

1. SARRERA

Artikulu honetan Orozkoko euskararen izen morfologian aurkitu diren ezaugarri batzuk aztertuko dira. Hemen erakutsiko diren gertakariak garrantzi diakronikoa eta dialektala daukate eta euskararen morfologiaren garapena ulertzen lagundu diezagukete.

* Asier Gonzalez Casado. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, z/g (01006 Vitoria-Gasteiz). asier.gonzalezc@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-4770-3323>.

¹ Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Doktorego Aurreko Programako laguntza (2021-2022) jaso du, eta *Monumenta Linguae Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca* (PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren barnean egin da.



Euskararen morfologiak nazioarteko arreta erakarri du mendeetan zehar, eta hala ere, izen morfologiaren bilakaerak oraindik erabat argitu gabe jarraitzen du. Hain zuzen ere, hutsune hori betetzen hasteko asmoz argitaratu zen *Euskal morfologiaren historia* (Altuna eta Azkarate 2001), non ordura arteko iritziak eta teoriak bildu ziren. Bilduma horren erdia baino gehiago izen morfologiari eskainita dago.

Azken hamarkadotan ildo honetan askoz aurreratu den arren, bada lekua hizkuntzalaritzak dituen erremintak baliatuz euskal izen morfologiaren nondik norakoak zehazteko. Zentzu horretan, nago egungo lekukotasun txikiek ere zer esan handia izan dezaketela historia horren berreraiketan, batez ere perspektiba diakroniko batez osatzen badira.

Saio honetan zertzelada batzuk baino ez dira emango. Hasteko, datibo eta genitibo kasuei helduko diet, Orozkon jasotako kasu markak tokiko garapen baten ondorio izanda ere, mendebaldeko eremuan eskusiboak ez baitira; horrek zirrikitu bat ireki dezake eremu dialektal zaharrago baterantz. Horretaz gain, kasu horiek biek izen morfologian duten kokagune zentrala euren agerpen maiztasunean islatzen da, eta hortaz darabiltzaten atzizki markak lehenetarioak izaten dira higadura fonetikoan; prozesu horren eboluzioa hein handi batean hiztun erkidegoaren arabera gauzatzen da.

Bigarrenik, Orozkon berezitasun morfologiko ugari eta esanguratsuak topatu ditut leku adposizioen sailean. Horien artean berrikuntzak ez ezik, arkaismoak ere topatu daitezke, forman zein erabileretan. Bietatik elikatu behar dugu izen morfologiaren *puzzlea* amaituko badugu, horrelako gertakariak euskara osoaren diakroniari eragiten diotelako, are gehiago Euskal Herriko bazter desberdinetako datuak uztartuz gero.

Kasu marken eta adposizioen deskripzioan sartu aurretik, Orozko herriari eta bere euskalkiari buruzko ohar batzuk gehitu ditut, eta, horretaz gain, ikerketarako erabilietako iturriak aitortu ditut berariazko atal batean.

2. OROZKO: GEOGRAFIA ETA HISTORIA

Bi ibaik zeharkatzen dute udalerrria, Arnauri (edo Atxuri) eta Altube. Lehena ekialdeko partetik jausiz doa Itxinako magaletik behera, eta hegoaldeetik, Araba aldetik, datorren Altuberekin elkartzen da Orozkoko erdigunetik gertu. Hortaz, Orozko berez bi haran dira, bere auzoak erreken alde bietatik barreiatuta.

Bailararen kokapena estrategikoa izan da Araba eta Bizkaiaren artean, eta herrialde biek bere altzora eraman nahi izan dute. Badirudi Orozko Arabari luzaro begira egon dela, nahiz eta Bizkaiarekiko lotura argia eduki. Segur aski, orografiak lagundu du horretan; Bizkaiko herri bi bakarrik daude Arabako Lautadaren altitude berberean: Ubide eta Otxandio. Kostalderantz

joz gero, bi horiek izan ezik, Bizkaiko udalerrri guztiak daude mendateetatik behera (dela Untzaga, Altube, Barazar, Dima edo Urkiola), eta sartaldeko muturrean, Bizkaikoekin batera, Aiaraldea kuadrilla arabarrekoak.

Altube mendatea eta gero Baranbio da topatzen den lehenengo herria, eta berehala Orozko hegoaldeko auzoak: Arbaiza, Manzarbeiti... Errepidea bezala, Altube ibaia Gasteizko autobidearen albotik jaisten da, eta Baranbio igarota Orozkon sartzen da, Zubiaur auzoa bitan banatuz. Horiek horrela, Arabako Lautadatik urrun topatzen den arren, mendiek inguratuta Orozko ez du inoiz izan Bizkairako sarbide zuzena, Aiara haranetik ez bada izan.

Aiaraldeak eta gure herriak patu berbera bizi izan dute, auzoko Laudio herria oso antzeko egoeran egon baita; honi, hala ere, Araban egokitu zaio. Pare pare bizi izan dira Orozko eta Laudio, berriro ere Altube ibaia haien arteko muga edukita. Lurralde honetako itsasoranzko irtenbidea Nerbioi Ibarrean behera izanda, Laudiotik (Areta auzotik) eta Arakaldotik (Bizkaia) pasatu behar zen Orozkoetik Bilbora bidean. Laudio, Arakaldo eta Arrankudiaga elkartzen diren gunean Altube ibaia Nerbioira isurtzen da.

Laudiok eta Nerbioi Ibarrek betidanik harreman estua eduki dute, eta hori bertako hizkeretan ere islatzen da. Orozko, ordea, bere kasa ibili da, barkartsuago. Udalerrri oso menditsua denez, auzoak sakabanatuta daude, eta erdiguneaz aparte aldauri gehienak nahiko garai daude kokatuta, muinoen gainean edo mendi magaletan. Are gehiago, gaur egun autobideak nolabait zaildu die zenbait auzori erdigunearekiko komunikazioa.

Esan behar da Orozko oso biztanle gutxiko udalerrria dela, hedadura aldetik Karrantzaren ostean Bizkaiko udalerririk handiena bada ere. Eustat-en datuen arabera², 2.635 pertsona bizi ziren 2016an. Hizkuntzari dagokionez, urte berebean % 61 inguru ziren euskaldunak (1.609)³, Arratia-Nerbioi eskualdeari dagokion batezbestekotik oso gertu, Zeberio eta Arratiako herriek daukatena baino apur bat txikiagoa, baina Laudiokoa baino ia bi aldiz handiagoa.

Orozkon erabiltzen den hizkera mendebaldeko euskararen parte izanda, Arabako Lautadan bilatu behar bide dugu aurreneko jatorria⁴, eta Orozko

² Sarean lortutako informazioa: https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010154_cepv1_ep06b.px.

³ Sarean lortutako informazioa: https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010152_cepv3_ne02.px.

⁴ Zuazo (2014:50): «Badirudi Arabako Lautada izan zela eremu horren ardatza. Aspaldi sortu ziren herri hazi samarrak alderdi horretan. [...] Alderdi horretan sortutako berrikuntzak Bizkaira eta Deba Ibarra zabaldu zirela ematen du [...] Ezaugarri hori «bizkaierarena» zela esan dugu orain arte, baina zaila egiten da Bizkaian sortu eta horrelako zabalera edukitzea; errazago ulertzen da jatorria Araban eduki duela kontuan hartuta. Hori bezala, «bizkaitartzat» eduki ditugun beste hainbat ezaugarri Araban ere bazirela dakigu orain eta, behar bada, hantxe egon daiteke horietako batzuen sorlekua.»

Bizkaiko beste udalerriak baino luzaroago egon da lurralde horren eragin politikopean. Horri gehitu beharko genioke Orozkoren erdibideko koka-pena Gasteiz eta Bilbo artean, Euskal Herriko mendebaldean hiriburu arabarretik⁵ zetozen merkataritza-bideek eratu baitituzte euskararen eragin esparruak.

Denboran aurrerago joanez, Orozkok Bizkaiko batzarretan parte hartzerik ez zeukanez, hein bateko hartu-eman ezak jota, berrikuntza eremu bate-tik kanpo geratu zen. Beste era batera esanda, «bizkaiera» bera izan zen Arabatik etorri ziren berrikuntza komunuen multzotik bereizi edo aldendu zena. Bizkaiko erdigunearen eragin esparrua (Durango eta Bermeo artean) nahiko urrun geratu zen hego-mendebaldeko bailara honetatik. Zuazok (2017: 10) iradoki zuen legez⁶, Bizkaiko euskara nahiko kohesionatuta egon da, mendebaldeko euskara barruan aski bereizita, baina ikusteke dago Orozkoko euskararen islatzen denentz.

Seguruenik, puntu baterainoko isolamendu politikoak, orografia eta jarduera ekonomikoarekin batera, hizkeraren izaera arkaismozalea bultzatu du, Arabatik zabaldu ziren zenbait ezaugarri Bizkaiko beste txoko batzuetan baino hobeto gorde dituen hizkera osatuz.

Zuazok (2017: 101) nortasun handiko hizkeratzat hartzen du Orozko-koa⁷, eta ematen du garai batean tarteko hizkera izan zitekeela, Arabako ipar-mendebaldekoaren (Aiaraldea, Zuia, Zigoitia) eta Bizkaiko sartaldekoaren artean. Kontuak kontu, Arabako alderdi zabal horretan itzali da euskara, baina Orozkon badirau.

3. ERABILITAKO ITURRIAK

Historian zehar ikusi dugu nola Orozkoz kanpoko gertaerek bere ibilbidea baldintzatu duten, eta era berean, hizkuntzaz haratagoko historiak ere

⁵ Zuazo (2014:68). «Aldiz, Oñatiren eta Gasteizen artean ere mendiak dauden arren, eta Gasteiz Legazpi baino urrunago dagoen arren, etengabea izan da hartu-emana, eta oso antzekoak ematen dute Gasteizen antzina egiten zen euskarak eta gaur egun Oñatin egiten denak. Jakina, Legazpiren aldean hirigune eta merkatugune handia izan Gasteizkoa!»

Oñati eta Orozko herriek asko dute komunean, eta herri gipuzkoarraren kasua bezain argia ez bada ere, Orozkok ere jaso ahal izan zuen Gasteizko eragina.

⁶ «XVI-XVII. mendeetarako, Arabako, Bizkaiko eta Deba ibarreko euskararen idatzizko lekukotasunak agertzen direnerako, Bizkaiko euskarak bazuen bere nortasuna. Jakina, Gasteiz erdaldunduta zegoenez, bizkaitarrak ez ziren Arabara begira bizi; Bizkaian bertan sortzen ziren herrialdeko hartako berrikuntzak. Orduko, beraz, mendebaldeko euskara euskalki nagusi bitan zatituta egon zitekeela ematen du: arabarra, alde batetik; bizkaitarra, bestetik.»

⁷ Koldo Ulibarrik ere hala azpimarratzen zuen bere lan baten hasieran (2008): «Orozko euskararen berezitasunaz euskal dialektologiaren hastapenatarik konturatu ziren ikertzaileak eta Bonaparte, bere sailkapenak egiteko orduan, dudatan ibili zela ikus dezakegu.»

hizkeraren garapenaren berri emango digu. Alor horretarako sarbidea testuak arakatzean aurkituko digu, zeintzuk diren, nolakoak diren, zeri buruzkoak, noizkoak eta nongoak. Orozkoren kasuan ez ditugu testu ugari, baina dauz-kagunak erlatiboki zaharrak dira eta mendez mendeko bilakaera erakusten digute.

Zer esanik ez, zuhur jokatu behar da garai eta leku desberdinetako leku-kotasunak kudeatzean, ondorio zuzenak ezin baitira berehala atera. Tentuz ibili behar da alderdi bitan: 1) hizkerak berez aldakorrek direlako, eta beraz iragan mendeetako ezaugarri jakin batek ez du zertan gaurkoa izan, eta 2) idatzizko testigantzek ez baitute ahozko hizkera fidelki islatzen.

3.1. Orozkoko lekukotasunak

Testurik zaharrena Zaloan aurkitutako erregu batzuk dira, 1739. urtekoak. Garigortak eta Gamindek 1986an bere transkripzio bat argitaratu zuten *Enseiucarrean* aldizkarian.

Orozkokoa omen den hurrengo lekukotasuna XIX. mendeko dotrina da (Pagola 2004). Jose Antonio Uriarte apaiza izan zen bere egilea, hau da, itzultzailea. Bonaparteren laguntzaile ibili zela, Bizkaiko hainbat hizkeretara itzuli zituen testu batzuk, haien artean Orozkoko dotrina hau (1857-1866), nahiz eta Uriarte Arrigorriagakoa izan.

3.2. Eskualdeko lekukotasunak

Lan honetarako nire hautua izan da Orozkok eta Aiaraldea eskualdeak harreman berezia daukatela onartzea. Hori dela eta, sail honetan Aiaraldekoak diren edo eskualde horren inguruari egotzi zaizkion testuak zerrendatuko ditut.

Lehenik eta behin, bi testu luze aipatu behar dira, zeintzuk ondo kokatuta ez dauden. Hala eta guztiz ere, biak ala biak Aiaralde ingurukoak direla ondorioztatu da.

Batetik, *Viva Jesus* deitu zaion dotrina ederto aztertuta dago Ulibarriren 2010eko edizioan. Horretan agertzen diren ezaugarriak eta testuinguruari begira, bere jatorria Aiara haranera mugatu daiteke. Ulibarrik berak ere 1640. urte inguruan datatu du.

Bestetik, Ulibarriren 2015eko doktorego tesian aztertutako XVIII. mendeko *Dotrinazko Sermoitegia* ere Aiaraldean kokatu du, Orozkoko euskaratik oso gertu ipiniz. Azkenik, baina ez gutxienik, ugari dira Laudiokoak, guztiak XIX. mendekoak, bertako euskara bizi-bizi zegoenekoak.

3.3. Ahozko testigantzak

Lan honen oinarria Orozkon bertan (sortaldeko Urigoiti eta Zalao auzo garaietan) 2017ko otsailean burututako datu bilketa da. Ikerketarako berariaz eraturako corpusa izan dut baliabide nagusia. Sei grabazio saioen ostean (bost parte-hartzaile), 178 minutuko materiala bilduta neukan, kasik 3 ordu MP3 formatuan. Sei bat hilabete transkripzio lanetan arituta, 64 orrialdeko corpusa osatu nuen, 22.000 hitz ingurukoa.

Aldeak alde, ahozko elkarrizketen transkripzioen gainean idatzizko leku-kotasunak izango balira bezala egin dut lan. Corpus mugatu bat propio osatu dut, momentuz hiztun eta elkarrizketa gehiago sartu ez nahian datuen kopuruarekin ondo konpontzeko, gainezka egin ez zezan. Hortik abiapuntua hartuta, hango eta horko iturrietatik elikatzeko aukera egon da, une oro Urigoiti eta Zaloako berri-emaileengandik jasotakoa ardatz.

Lan osoan zehar lekukotasun historikoak esku artean izan ditudala, gure berri-emaileen euskara alboko hizkerekin erkatu nahian iturri modernoak ere badarabiltzat. Hauexek izan dira inguruko euskarak ezagutzeko arakatu ditudan erreferentziazko lanak:

- Etxebarria Ayesta (2016): Baranbio, Arakaldo, Arrankudiaga, Zeberio, Ugao, Zeanuri...
- Gaminde (1999): Elosu, Nafarrate eta Urrunaga (Legutio).
- Carrera eta Garcia (2005): Legutio.
- Ormaetxea (2002): Aramaio.
- Larrea eta Rekalde (2011): Arratia.

Iturriekin amaitzeko, zeharkako aipamenak eta bigarren eskuko datuak lortze aldera, sarritan Koldo Zuazoren eta Koldo Ulibarriren lanetara jo dut. Euren ikerketetan askotariko informazioa dago bilduta, zeharo eskertzekoa Orozkoko euskararen irudia osatzeko. Koldo Ulibarri zor diogu Orozkoko euskararen azterketa diakronikorantz hurbiltze bat (2008) artikulua argigarria, eta, halaber, gorago aipatu ditudan *Viva Jesus* (2010) eta *Dotrinazko Sermoi-tegia* (2015) testu zaharren edizio eta azterketa modernoak. Koldo Zuazori dagokionez, Arabako euskara (2012), Euskalkiak (2014) eta Mendebaleko euskara (2017).

4. IZEN MORFOLOGIA

4.1. Kasuak

Kasua zer den eta zer ez den definitzeko orduan irizpide asko egon daitezke, baina mundu mailako kasu sistemetan dauden ohikoenen artean da-

tibo eta genitibo kasuak aurkitzen ditugu. Esan dezadan hizkuntza kasudun gehienek kasu horiek biak dauzkatela, eta kasuen hierarkian oso goian agertzen direla, parte-hartzaile nagusien ostean, hau da, subjektu iragangaitza (S), subjektu iragankorra (A) eta osagarri iragankorra (P) (Blake 2001: 156-7); euskararen alineazio ergatibo morfologikoagatik, absolutibo eta ergatibo kasuek ordezkatzeko dituzte rol horiek.

Euskalgintzan absolutiboa, ergatiboa eta datiboa kasutzat hartu dira aditzaren komunztaduran islatzen direlako, behintzat ikuspegi sinkroniko batean. Hala ere, argudioak egon badaude genitiboa ere kasu bezala definitzeko, esaterako, euskara zahar osoan eta egungo hainbat hizkeratan aditz-izenen osagarri zuzena ere markatu dezakeelako. Izan ere, kasu marka zaharrenetako bat da genitiboarena; horren froga dugu genitiboaren ostean erantsi diren hainbat adposizio, hala nola, soziatiboa (*-ekin*), motibatiboa (*-engatik*) edo benefaktiboa (*-entzat*) (Altuna eta Azkarate 2001: 105-111). Antzera, hizkuntza indo-ariarretan hiru geruza daude «kasuak» markatzeko: kasu flexiboa, lehen mailako postposizioak eta bigarren mailako postposizioak; azken horiek genitiboaren gainean eraturakoez osatzen dute (Blake 2001: 10).

Irizpide formal bati jarraituz, datibo eta genitibo kasuetan ez dira kasu markak eta numeroa adierazten duen morfema ondo bereizten, eta leku postposizioetan, ordea, bai. Hizkuntza flexibo klasikoetan bezala, oinarriko kasu marka hauetan hein bateko fusioa lekukotzen dugu (DAT pl *-ei*, GEN pl *-en*), eta horrek ondorioak dauzka kasu marken garapen dialektalean.

4.1.1. *Datiboa*

Kasu honi begira, singularrean espero genezakeen *-a(r)i* (eta *-e(r)i* bere aldaera fonologikoa) topatu dut berri-emaile guztien jarioan, hiztun gazteagoengan bokal arteko dardarkaria galtzea ohikoagoa bada ere. Pluralean, aldiz, *-airi/-eiri* da jaso dudana atzizki berritzailea, nahiz eta hiztun bakar baten gan izan, horren solasean sistematikoa izanik.

Forma hori, berezia izanda ere, Euskal Herrian han eta hemen garatu den berrikuntza da. Zuazok (2017: 113) erakusten digu Nerbioi Ibarrean eta Orozkon dagoela. Bizkaitik kanpo Legution, Oñatin eta Burundan ere (Zuazo 2010: 78) *-airi* erabiltzen da (hala ere, ez dago ez Arratian, ezta Aramaion ere), eta oro har, esan genezake Gipuzkoako hainbat txokotan hiztun batzuen jardunean agertzen dela, gehienetan *-aidi* formapean (hala nola, Donostialdean, Beterrin eta Goierrin). Tokiko berrikuntza hau seguruenek bokal arteko dardarkariaren galerari lotuta dago, hori dela eta singularreko eta pluraleko formak berdintzen direlako (*-ai*), eta forma pleonastiko berria sortzeko beharra azaltzen da.

Iraganari bagagozkio, Zaloako erreguetan antzeko egoera topatzen dugu, singularrean *-ari* (*aiteari, semeari, santuari*) eta *-eri* (*santuari*) atzizkiak izanda. Hori bai, *semeairi* forma bitxia ere badago, nahiz eta singularra izan.

Dotrinazko Sermoitegian ere *-ari* eta *-eri* dira singularreko markak eta *-ai / -ei* pluralekoak, «Bizkaiko testuetan espero bezala» (Ulibarri 2015: 163-4). Hala eta guztiz ere, ematen du badirela *-ai* (eta *-ei*?) tankerako singularreko markak testuan, bokal arteko dardarkaria galduta, testu arabar zaharretara hurbilduz. Beharbada, aspaldiko galera horrek *-airi* aldaera pleonastikoa ahalbidetu zuen Orozkoko eremuan (Lautadatik gertuko beste leku batzuetan bezala), Zaloako erreguetan singularrean agertuta ere.

Hona hemen gure ahozko corpuseko adibide batzuk:

Datibo singularra

-a(r)i: okeleai urten yakon mamarroa; entzun nendun horixe anajeai lelengoz.

-e(r)i: dago ayuntamientuei pegatute; behieri edat(en) otsen.

Datibo plurala

-airi: aremariak esaten gontsien hairi kanpaairi; guk hemen axuriek esaten dotsuegu arkumiairi.

-eiri: egoten nintzen ure ekarten obrerueiri; babarruneiri guk beti indabak.

Ez dut aipatu gabe utzi nahi gure hiztun batek datibo (edo zehar osagarriarekiko) komuntadura eza erakusten duela (nahiz eta kontu morfosintaktikoa izan). Ahozko solasean jaso daitekeen gertakari anekdotikoa izan litekeen arren, iruditzen zait esanguratsua izan daitekeela Orozkoko euskara sailkatzean, hego-mendebaldeko bestelako lekukotasunetan ere agertu baita (Albeniz arabarra, Añibarro arratiarra, *Viva Jesus* eta *Dotrinazko Sermoitegia*). Hauexek adibideak:

urtetan dodie igoal persona edadekoari.

entzun nendun horixe anajeai lelengoz.

4.1.2. Genitiboa

Jabego genitiboa deritzonari helduz gero, ohartu gaitezke hemen ere singularrean *-a/-e-* bokalen arteko txandakatzea daukagula, ergatiboan eta datiboan bezala, RUI erregelaren arabera. Salbuespenak salbuespen, kasu honetan ia ez dut *-r-* epentetikoaren arrastorik sumatzen, hiru hiztunen hizketaren

tarte zainduetan izan ezik (*amaren*, *libururen*, *txabolearen*). Hortaz, esan dezagun genitibo singularreko atzizkia *-an/-en* dela. Hona adibideak:

Genitibo singularra

-an: *haren alabean* gizonak; *Anbotoko Señorean* entzutea; *txalan modun*.

-en: *uren bitse*; *juliuen hamazortzien*; *da gero makina bat, makinien inderragaz*.

Bestalde, pluralean erregularri jaso dudan marka *-en* da, aurreko bokala gorabehera (ergatiboan eta datiboan ez bezala). Hemen ikusi daiteke:

Genitibo plurala

-en: *kostunbre mutikoena*; *bizioen* modukoak; *halangoa zan pastorena*.

Horretaz gain, aipatzea merezi du mugagabeen eta izen bereziekin dugun egoera. Alde batetik, genitibo mugagabea esapide jakin batean agertu zait behin eta berriro, alegia, *-ren bat* adierazpide zehaztugabeen⁸. Lekukotasunak arakatuta, badirudi bere oinarritzko marka *-(a)n* dela, betiere RUI erregelaren eta bokal bilkurak soiltzeko arauen menpe (*-ua- > -ue- > -ui- /-u-*). Hauek dira jaso ditudan adibideak:

lekun bat; *bija antolatun bat*; *erraman bat*.

gaztean bat; *ardien bat*; *ezlekuin baten*.

Beste alde batetik, *ama*, *aite*, eta *amama* izen berezizat hartuta, horietan guztietan *-n* da ageriko atzizkia. Bestelako izen bereziei erreparatuz berretsi dezakegu bokal osteko marka *-n* dela:

aitite aman partetik; *aman ahizta bat*.

aiten partetik; *aiten parteko amama*; *aiten ostean*.

amaman baserrien.

Marin leienda; *Barrondon semea*.

Gaurko egoera ikusi ondoren, eman diezaiogun begirada bat inguruko testu historikoetan egon den bilakaerari. Lehenik eta behin, esan genezake atzizki genitibo singularraren *r*-dun aldaerak bizkaiera zaharretik aspalditik joan zirela desagertuz, honako garapen hau gertatuz: *-aren > -aen > -een > -en*.

⁸ Dena dela, oso litekeena da eremu honetako euskaran *-rean bat* esapide ablatibodunetik zuzenean eratorri izana (Ulibarri 2015: 160).

Viva Jesus dotrinan (XVII. m.) dagoeneko egoera nahiko garatuta aurkitzen dugu, singularrean ez baitago bokal arteko *r*-aren aztarnarik. Bokalez amaitutako izen arruntetan *-en* dugu marka (*seme-en*, *aragi-en*, *demoniño-en*, *proximu-en*), eta *-a* amaiera dutenetan bokala asimilatzen da (*-a-en* > *-e-en*: *sante-en*). Kontsonantez amaitutakoetan, ordea, *-een* da marka (*-a(r)en* > *-een*: *lurr-een*, *iaun-een*). Pluralean *-en*, bizkaiera zaharrean espero bezala. Izen berezien sailean oraindik bokal arteko dardarkaria ez zegoen erabat galduta: *Christo-en*, baina *Eba-ren*.

Bestalde, Zaloako erreguetan (1739) atzizkiak antzekoak badira ere, badago zer esana. *Viva Jesusen* bezala singularrean *-en* eta *-een* atzizkiak txandakatzen dira, segun eta bokalez (*virgine-en*, *jeinko-en*, *aite-en*, *seme-en*, *santu-en*, *trinidad-en*) edo kontsonantez (*original-een*, *originel-een*) amaitzen den. Pluralean, aldiz, dauzkagun bi adibideetan *-een* dugu marka (*jauen-een*, *andi-een*). Beharbada, arrasto garbirik utzi ez duen tokiko berrikuntza baten aurrean egongo ginatke (*Viva Jesusen* ere *hileen arterik*). Azkenik, *Viva Jesusen* ez bezala, izen berezietan ere dardarkaria ezabatuta dago (*Eba-en*).

Aipamen berezia merezi du <Jaueneèn> formak, horretan bi genitibo bata bestearen atzetik ditugulako, *-en* singularra eta *-een* plurala. Oinarria, ostera, ez dakit zehazki *jau[n]* den (<n> ez idatzita) edo *jabe* (<Jau>), horrela oinarriaren *-e* eta atzizkiarena bakunduta (**jabe-en* > *jaben*).

Amaitzeko, *Dotrinazko Sermoitegiako* testuak (XVIII. m.) aurreko lekukotasunen eta gaurkoen arteko egoera bat islatzen bide du. Batetik, *-en* eta *-een* marka singularrak aldizkatzen dira *Viva Jesusen* eta Zaloako erreguetan bezala (bokalez edo kontsonantez), *-a* amaieradunak asimilatuz, baina gainera *-een* > *-en* bakuntzea ere gertatzen hasia zen, gaur topatzen dugun atzizki laburra. Hori ez ezik, *-een* batuketa batzuk disimilatu ere egin ziren (> *-ien*, *-ein*) egun Orozkon ere aurkitu dudak bezala (*makinien*, *horrein*). Bestetik, *-an* atzizki genitibo singularra baliatzen diren hiru adibide daude *Dotrinazko Sermoitegian*, gure ahozko corpusean batzuk ere agertu bezala. Azken ezaugarri honek Arabako (edo behintzat Lautadako) euskara zaharrarekin bat egiten du, Landucciren hiztegian ere *-an* singularrean (eta pluralean) erabiltzen baitzen (Zuazo 2012: 108).

4.2. Postposizioak

Goian azaldu dudak kasu marken eta adposizioen arteko bereizketa ikuspuntu sinkroniko batetik komeni bazaigu ere, gure hizkuntz familian ziurtasunez esan dezakegu kasu marka guztiak adposizio moduan sortu zirela eta gramatikalizazio prozesuan gaurko ezaugarri bereizleak garatu zituztela. Euskaraz izenkiaren amaieran eransten direnez, postposizioak deitzen diegu osa-

garri zirkunstantzial eta periferikoak diren deklinabideko atzizkiei, eskuarki kasu markek baino pisu fonologiko handiagoarekin (Blake 2001: 167).

4.2.1. *Ablatibo-prosekutiboa eta motibatiboa*

Euskara arkaiko eta zaharrea hiru atzizki (-*rean*, -*ti*, -*rik*) forma eta erabileragatik ondo bereizten baziren ere, gaur egungo egoera toki batetik bestera aldatuz joan da (eta inon baino beranduago, mendebaldean XVIII. mendean hasi ei zen bereizketa galtzen), askotariko formak eta erabilerak nahasteraino. Atal honetan gure corpusean atzizki bakoitzerako bildutako funtzioak zehaztuko ditut.

Hiztun zaharragoengandik beti jaso dut -*ti* forma (*Gorbeiti*, *bateti*, *kortati*, *iturriti*...; *txabolati*, *Santurtziti*, *daneti*, *telefonoti*...; *saihetsetati*, *hankati*, *nondi*...). Gazteagoengan -*ti* eta -*tik* lehian daude (*hemetik* hemeretzi aldiz, *hemeti* birritan; *Zaloatik*, *mundutik*, *astelehenetik*, baina *Urigoititi*, *besteti*, *kanpoti*), bigarrenera nabarmenki lerratuta. Are gehiago, hiztun gazteago bik hiperzuzenketara jo dute *betik* esatean, -*ti* > -*tik* bilakatzeko joera automatikoaren indarraren erakusgarri.

Bizkaiko sartalde osoan erabat ohikoa dugu deskribatutako egoera, hau da, -*ti* aldaera zaharra gorde izana eta -*tik* atzizkia lehiakide izatea, eta hala berresten digute Koldo Zuazoren lanek, egungo hizkerei dagokienez.

Iraganari begira, inguru honetako *Viva Jesus* dotrinan (XVII. m.) dagoeneko -*ti*/*-tik* lehian lekukotzen dira, nahiz eta balio prosekutiboan -*ti* nagusi izan, eta halaber XVIII. mendeko *Dotrinazko Sermoitegian*. XIX. mendean sartuta, Uriarteren Orozkoko dotrinaren itzulpenean -*ti* batzuk agertzen dira⁹, baina gehienetan -*tik* erabiltzen du.

Prosekutiboa ('non zehar')

Atzizki honen baliorik zaharrena gorde da, espero bezala. Horrelako erabilerak lekukotzen dugu honako adibideotan:

*Atsulaurreko begit**ik** sartu.*
*barrut**ik** ez deuko hainbeste berezitasunik.*
*Ojo Atsularret**i** sartu ta barruen.*
*pasau zere**ti**, istu untziti ta kuajue bota.*
*telefonot**i** geitu.*

⁹ Hauek topatu ditudanak: singularrean, *izeneti*, *señaleti*, *garbiti*, *bertati*, *biotzeti*, *infernuti*; eta pluralean, *mandamentuetati*, *elexakoetati*, *miserikordiazkoetati*, *guztietati*.

Ablatiboa

Diakronikoki berriagoa izanda ere (Orozkoko euskaran Uriarteren itzulpenean lehenengoz jaso dugu funtzio honetan), *-ti(k)* atzizkiaren balio ablatiboak bizitasun handia erakusten du gaur egungo Orozkoko hizkeran:

Ibarretik dago ataju bet hona Urigoitire.
soldaduskatik bueltan.
ure ekarten obrerueiri iturriti.
nik handixe eroaten dodaz danak txabolati.
kanpoti etorritekoak dauz.

Ablatibo denborazkoa

Bizkaiko sartaldeko eremuan aukera bakarria ez izan arren (ikus *-(r)ik* beherago), kasu bakan batzuetan denborazko abiapuntua adierazteko ere jaso dut atzizki hau gure corpusean:

hamabitik hamabi t'erdia bazkaldu.
astelehenetik barikure ba nire aitite ta amaman baserrien.
[pastorea izin naz] yaiotati.

Motibatiboa

Jatorriagatik prosekutiboari lotuta, atzizki motibatiboak *-gaiti(k)* forma hartzen du Orozkon. Sartaldeko eremu gehiengan bezala tarteko *-i-* dugu atzizki barruan, eta ez *-gati(k)* forma¹⁰. Horretaz gain, jaso ditudan adibide bakanetan, ablatibo-prosekutiboan bezala, berriro ere aldaera *-k-*duna darabil hiztun gazteago batek (*horregaitik*), eta *-k-*gabekoa zaharrago batek (*bildu-rregaiti*, *horregaiti*).

Historiari begira, lehenik eta behin esan behar da mendebaldeko hizkeretan *-gaiti* eta *-ti* atzizkien bilakabidea zein bere aldetik joan dela, nahiz eta jatorriz lotuta egon. Oro har, esan genezake *-ga(i)ti(k)* berritzaileagoa izan dela, hau da, testuetan *-k-*dun formak lehenago agertu ziren *-ti(k)* atzizkian baino. *Viva Jesus* dotrinan prosekutiboko forma guztiak oraindik *-ti* ziren bitartean, motibatiboan *-gaiti* eta *-gaitik* aukeran zeuden, nahiko parekatuta.

¹⁰ Gure ahozko corpusean. Hala ere, Zaloako erreguetan (1739) *gugatik* dago. Arabako le-kukotasunei dagokienez, zaharrenek *-gati(ka)* dakarte (Landucci), baina Lazarragak *-gati* eta *-gaiti* biak baliatu zituen (Zuazo 2012: 112-3).

Dotrinazko Sermoitegian garatuagoa dugu ordezkapena, gehien-gehienetan *-gaitik* erabili baitzen.

Izan ere, Etxebarria Ayestak (2016) bildutakoan ez bezala, Orozkoko testigantza historikoetan *-ga(i)tik* da topatzen dugun forma bakarra. Zaloako erreguetan *gugatik* dugu eta Uriarteren dotrinan beti *-gaitik* (*zegaitik* barne).

4.2.2. *Partitibo-ablatiboa*

Formari dagokionez, ia salbuespenik gabe¹¹ bokal ostean *-rik* dugu (*frakasorik*, *behirik*, *errekadurik*, *panderorik*), eta kontsonante ostean *-ik* (*urik*, *mutilik*, *kanalik*), beharbada (*-uak > -uek >*) *-uik* edo (*-iak >*) *-i(e)k* absolutibo-ergatibo pluraleko formatatik ondo bereizteko. Leku genitiboko *-ko* atzizkiarekin batuta, *-riko* atzizki elkartua zenbaitetan agertu zait hitzun bakar baten elkarrizketan (*afiziñotariko*, *haundienetariko*, *gutarikoak*).

Ablatiboa («etxerik etxe» *egitura*)

Abiapuntu fisikoa adierazteko lexikalizatutako *egitura* ezagun honetan *-(r)ik* topatu dut Orozkon, mendebaldeko euskalkia hitz egiten den lekuetan, Urolaldean, Goierrin eta Burundan bezala, balitekeelako Arabatik zabaldu izana.

Jakin badakigu *-ti(k)* morfemak balio ablatiboa bereganatu aurretik *-(r)ean* eta *-(r)ik* atzizkiek paper hori betetzen zutela, eta hala lekukotu da Orozkotik gertuko *Viva Jesus* eta *Dotrinazko Sermoitegia* dotrinetan XVII. eta XVIII. mendeetan, hurrenez hurren. Dena dela, *-(r)ik* atzizkiaren erabilera ablatiboa berriagoa da mendebaldean, *-(r)ean* atzizkiak izan baitzuen indar berezia testu zaharretan, eta aipatutako bi obra horietan sarritan agertzen da¹². Zaloako erreguetan eta Uriarteren itzulpenean, ostera, *-(r)ik* (eta *-ti(k)* berria) baino ez dugu ablatiboan.

Horiek horrela, leku ablatiboari dagokionez gure corpusean ez dut atzizkiaren erabilera emankorrik topatu, esamolde honetatik kanpo:

feririk feri.

tabernarik taberna.

kanalik kanala.

¹¹ *Kontrolarik* eta *danerik* kasu arraroak aipatu behar dira. Kontuan hartu azken horretan atzizkia *-(e)rik* dela, *Dotrinazko Sermoitegian* topatzen dugun *gizonerik* bezala (Ulibarri 2015: 158).

¹² Berrikuntza bat izanda, *-reanik* atzizki pleonastikoa ere baliatzen zuten. Hauexek dira datu zehatzak: *Viva Jesusen* *-(r)ean* zazpi aldiz, *-(r)ik* bi aldiz eta *-reanik* behin; *Dotrinazko Sermoitegian*, ordea, ablatiboa (singularrean) adierazteko soilik % 18 *-(r)ean* formak dira (atzizkiaren agerpen modernoak, izan ere), gainontzekoak *-(r)ik* eta *-(r)eanik* (Ulibarri 2015: 159).

Ablatibo denborazkoa

Aurreko esamolde berberak hurrengo lekukotasun honetan denborazko balioa dauka:

ordu t'erdirik ordu t'ardi.

Hala ere, eremu honetan (Bizkaiko sartalde osoan) maizago agertzen zaigu *-(r)ik* denbora abiapuntu bat adierazteko. Hona gure corpuseko adibideak:

nire bizitza dana txiki-txikiterik ba ardiekaz.

txiker-txikerretarik ba ardi(e)katz mendin.

Pastore nire bizitza osoa, hamalau urterik hona.

Aspalditik jaso da *-(r)ik* atzizkiaren erabilera hau mendebaldean, *-(r)ean* lehiakideak ez baitzuen normalean denbora adierazten. Hori dela eta, atzizki honekin *Viva Jesusen* topatzen ditugun adibide gutxietako bat, hain zuzen ere, *urterik* da. Antzera, *Dotrinazko Sermoitegian* *-(r)ik* eta *-(r)eanik* pleonastikoa (*ordureanik*, *denporeanik*) dira denborazko ablatiboan aurkitzen diren atzizki bakarrak. Bestalde, Uriartek Orozkoko euskarara itzuli zuen dotrinan *gaberdiko hamabietarik* sintagman dugu *-(r)ik*-en denborazko erabileraren adibidea.

Partitiboa (determinatzaile modukoa)

Partitiboaren izaera oso eztabaidatua izan da euskalgintzaren historian (Altuna eta Azkarate 2001: 89-92), eta nik hemen erabaki dut *-(r)ik* atzizkia bere funtzioen arabera banatzea, «partitibo» etiketapean zenbait funtzio desberdin batu baitira. Ikusi berri dugunez, leku adposizio batetik (ablatiboa) garatu ziren «partitibo adierak», gramatikalago bihurtuz.

Orozkon, edozein euskal hizkeratan bezala, *-(r)ik* atzizkiaren erabilera arrunta ezeztapenari lotutako testuinguruetan aurkitzen dugu, esaterako, ezezko perpausetan:

ez zan gauza handirik biar.

hor ez da faltako urik inoz bez.

eztaoz mutilik ez neskatorik.

harek ez euken kamiñorik.

pañuelorik ez egoan.

mezeak, besterik eztagoz han.

Horietaz gain, baieztapenetan ere topatzen dugu, gehienbat izenaren kopurua zehaztu gabe edo bere existentziari buruzko zalantza plazaratzen denean:

egongo da kontrolarik edo ze.
frakasorik eukin ordun.
errekadurik egiten yoateko Iberrera.

Ablatibo kutsuko adiera partitiboak (postposizio modukoa)

Beste hizkuntza askotan partitiboa esaten zaio multzo batetik ateratako elementu baten edo gehiagoren eta multzo horren arteko erlazioa adierazten duen funtzioari edo, bestela esanda, multzo baten zati edo «parte» (> partitiboa) bat erakusteko baliatzen den morfema gramatikalari. Hori horrela bada ere, gaurko euskaran ez da partitiboaren erabilera ohikoena, funtzio horren zantzuak egon badaude ere (*zuetariko batzuk*, *txorietarik ederrena*, *denetarik*, *eskerrik asko*...). Gainera, hizkuntza gehienetan diakronikoki ablatiboa adierazten zuten preposizio edo postposizioetatik eratorri da partitibo mota hau, eta hain zuzen ere, ablatibo zaharreko eta ekialdeko *-etarik* forma plurala da funtzio horretan gehien lekukotzen duguna¹³.

Goian erakutsi bezala, *-(r)ean* ablatibo zaharrak bazirauen hego-sartaldeko lekukotasun historikoetan. Alabaina, ablatiboaren garapena desberdina izan zen pluraleko formetan, non *-etarik* atzizkia goizago gailendu zen (XVII. m.). Esaterako, *Viva Jesusen -etarean* bakar bat baino ez dago, eta *-etarik* ugari; *Dotrinazko Sermoitegian*, halaber, *-(e)tarik* atzizkiak 133 agerpen dauzka, eta *-(e)tarean* eta *-(e)tareanik* bakan batzuk baino ez daude.

Orozkoko lekukotasunei dagokienez, adierazgarria izan daiteke XVIII. mendeko Zaloako erreguetan *peneetarik* izatea jaso dugun ablatiboko forma bakarra, eta Uriartek itzulitako dotrinan *-etarik* hamazazpi aldiz agertzea. Era berean, Urigoiti eta Zaloako gure testigantzetan *-(r)ik* eta *-(e)tarik* aurkitu ditut adiera edo funtzio partitibo hori agertzen den testuinguru murritu batzuetan:

danerik dago.
gero daoz behiek, esna behie edo basabehie, bitarik behiek.
bitarik esaten dot, izena ta uzena.
bitarik esaten dotsugu: itargie, idergie.

¹³ *-(r)ik* atzizkia ez ezik, *-(r)ean* morfema ablatiboak ere funtzio partitibo hori betetzen du *-rean* bat egituran (> *-ren bat*, Ulibarri 2015: 160). Gaur egun, *-tik* eta *-ko* ere antzeko funtzio partitiboan aurkitu daitezke.

Aurreko erabilerari lotuta, hiztun batek baliatzen duen *-(ta)riko* atzizki elkartuak, orobat, multzo bateko elementu bat edo gehiago adierazten du:

*niri afiziñotariko, haundienetariko bat ba bertsogintza da.
gero ba gutarikoak eta joaten gara apur bet lagunduten.*

Dena dela, Uriarteren Orozkoko dotrinan (XIX. m.) *horretarikoren bat* esamoldean erabilera berbera ikusten dugu, gainera pleonastikoki *-ren* atzizkia ere baliatuta. Gorago esan bezala, *-(r)ean* ablatibo zaharrak ere partitibo adiera hau bereganatu zuen *-re(a)n bat* esamoldean.

Partizipioa + -(r)ik

Ikuspegi sinkronikoan erabilera hau ohiko deklinabidetik kanpo gelditzen bada ere, badakigu diakronikoki *-(r)ik* atzizkiari lotuta dagoela. Izan ere, De Rijkek (1972) «egoerazko partitiboa» deitu zion atzizkiaren agerpen honi.

Labur esanez, aditzen forma burutueta erantsita *-(r)ik* atzizkiak adberbio moduko partizipioak sortzen ditu. Prozedura hau nahiko emankorra da Orozkon (*jaiorik, zarraturik, galdurik, enpadronaurik, enkantaurik, betarik, zerturik, eskapaurik*). Era berean, adberbio batzuetan ihartuta aurkitzen dugu antzeko funtzio bat eginez (*bakarrik, ixilik, kasik, malokarik, ortozik, zabalik*).

4.2.3. *Hurbiltze alatiboa*

Kasu honen postposizioa mendebaldeko hizkeren arteko banaketa egiteko baliatu da, sortaldeko azpieuskalkian *-ru(n)tz* morfema eta sartaldekoan *-rantz(a)* topatzen ditugulako.

Ezaguna da Orozkoko lekukotasun historikoetan *-rantx(a)* dela hurbiltze alatiboko marka. Horrela agertu da Zaloako erreguetan (*geuganantx*), Uriarteren Orozkoko dotrinan (*guganantxa*) eta gertuko zenbait hizkeratan: Laudioko Ruth liburuan¹⁴ (<errirancha> eta <erreñurantzza>) eta Uriarteren Arrigorriagako dotrinan (*jaungoikoaganantxakoak*). Horretaz gain, *Viva Jesus* dotrinan *osterantxeko* dugu, eta *Dotrinazko Sermoitegian beraganantx*. Hala ere, gure ahozko corpusean bildutako adibide gehienek *-rantza* formaren alde egiten dute:

¹⁴ Sarean irakurgai hemen: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/AnonimRuth.htm>.

dago gorantza joanda.

honeik etze(r)antza eta harri(e)k igoal ekarriko (od)eizen.

bierantza azkenean edurregaz joaten zan.

ibilbidea badago, joateko Itzinerantza edo Arrabara.

hiru egun joaten da etorten, harantza ta honantza.

Etxebarría Ayestak (2016: 483-4) ere *-rantza* moduan transkribatu ditu Zaloako hiztunarengandik jasotako formak:

hor Itxinean Urigoiti parterantza atso-agurek daoz.

astoak txabolarantzakoa zein etzerantzako bidea beti topaukotzu.

Hori bada ere, gure hiztun zahar baten jardunean *-ran(t)sa* tankerako aldaera apikariak entzun daitezke:

egon gintzen hor, hortxe gorantsa.

enkargadue hori bazkarie ekarri Ibarreti goransa.

Okendo Laudioti harantsa dao.

Atzizkiaren gauzape fonetiko bitxi hau baliteke aspaldiko txistukari sa-baikariari lotuta egotea, *Dotrinazko Sermoitegian* dagoeneko *zerurensa*, *goransa*, *osteransean* eta *osteransako* aldaerak lekukotuta dauzkagulako. Orozkotik kanpo, Legutioko elkarrizketen transkripzioetan (Carrera eta Garcia 2005) ere hiru aldiz azaltzen da (*honantsa*); *-rantza* arrunta birritan (*etzerantza*, *lurrerantza*). Azkueren Erizkizundi Irukoitzean (Etxaide 1984), XX. mendearan hasieran, Eriben ere (Zigoitia, Araba) *-rantx* jasotzen da eta orobat, Berangon, Loium, Orozkon eta Aramaion *-rantxa*.

5. ONDORIOAK

Datuak euren gordinean arakatuta, Orozkoko izen morfologiaren gaineko zenbait konklusio plazaratzeko moduan nago.

Zalantzarik gabe, kontu fonetiko-fonologikoez zeresan handia dute Orozkoko euskara ezaugarritzeko orduan, eta beste alderdietan, oro har, gordetzailleagoa izan da. Dialektologiaren munduan edonon topatzen ditugu horrelako kasuak; Frantzia bertan limousinerak morfologia proventzal zaharri eutsi dio, oil hizkuntzaren ukipenetik datorkion fonetika dibergentea edukita (Camino 2009: 377).

Orozkoren kasuan, morfologian gehienbat, eta baita lexikoan ere, arkaismoak eta gordetako berrikuntza zaharrak bereziki ugari dira. Arkaismoen

agerpena Orozkon erraz argitzen da esanez saihetseko eremua dela (edo are gehiago, orografiaren araberrako bere antolamendua ikusita, «eremu bakar-tua», Camino 2009: 152-8), historikoki eremu fokaletatik urrunduta eta aldameneko herriekin ez oso ondo komunikatuta. Halaber, Ulibarrik (2015: 305) bazter hizkera deitu zion *Dotrinazko Sermoitegian* aurkitutako euskara motari (Aiaraldekoa), «aldi berean arkaismorako eta berrikuntza ausartak egiteko joera duela»-ko.

Erakutsitako tokiko berrikuntza morfologikoez ondorio dialektal historikoak ekarri diezazkigukete. Betiere, berrikuntza paraleloak izan daitezkeela gogoan izanda (toki batean baino gehiagotan hiztun erkidegoen arteko hartu-emanik gabe garatuak), guztiak metatuta hurbileko eremuen elkarreraginari zilegitasuna ematen diote. Datibo plural pleonastikoa (-*airi*), datibo komuntadura eza, -*an* genitibo singularra eta hurbiltze alatibo apikaria (-*rantsa*) ezaugarrien hedadurek zantzuak ematen dizkigute deskribatu gabeko esparru dialektal txiki eta berantiar bati buruz, Arabako Gorbeialdearen eta iparraldeko Lautadaren inguruan, pasabide moduan Burunda, Debagoiena, Aiaraldea eta Orozko lotzen zituena.

Hori ez ezik, euskara osoaren probetxurako garapen diakronikoaren inguruko hausnarketak ere atera ditzakegu. Datibo eta genitibo kasuetan ikusi dugu kasu marka gero eta fusionalagoak direla, hiztunek ezin baitezakete numero morfema argiro hauteman, bereizketa analogiko berriak sortzeraino: DAT -*ari* singularra / -*airi* plurala, GEN -*an* eta -*en* singularra / -*en* plurala.

Bestalde, ablatibo eta partitibo kasuen garapen eta espezializazioaren lekuko izan gara, hizkera honetan bilakabide horren pausoak gorde direlako. «Partitiboak» deritzogun atzizkiak (-*(r)ik*) jatorrizko adiera ablatiboak (fisikoa eta denborazkoa) dauzka oraindik Orozkon eta inguruan, erabilera mugatua bada ere; multzo baten parte bat adierazteko esamolde gutxi batzuk atxiki ditu (*danerik*, *bi(e)tarik*); eta baieztapenetan kopuru zehaztugabea adierazi dezake (*egongo da kontrolarik*, *errekadurik egiten*). Gainera, bizitasun handia erakusten du -*(r)ik* partizipio-adberbialak (*enkantaurik*, *malokarik*), atzizkiaren beste gramatikalizazio paralelo bat denak, oro har Mendebaldean ez bezala.

Erabilera horien guztien arrastoak euskara historikoan¹⁵ topatu daitezkeen arren, Orozkoko ahozko testigantzetan froga lortu dugu. Gaur egungo euskara gehiengan -*(r)ik* atzizkiak bazterreko paper bat dauka, ingurune oso zehaztutan (ezeztapen, galdera eta baldintzazko esaldietan), Europa Ekialdeko hainbat hizkuntzatan ere (hungarieraz, suomieraz, polonieraz, errusieraz) lekukotu ahal dugun antzera (Blake 2001: 151), baina horietan partitiboak osagarri zuzenaren kopuru zehaztugabea ere adierazi dezake.

¹⁵ Esate baterako, xvi. mendeko Arrasateko Erreketaren kantu mendebaldarrean (Mitxelena 1990: 83): *Gomizek asko lagunik, zabal arabaarrik, gipu[t]z ondo ederrik, bizkaitar urduri gogo[r]rik*.

Izen morfologia deskribatzerakoan, beharbada, atzizkiak abiapuntu hartu gabe, esanahiak eta funtzioak finago bereizi beharko genituzke, horietako batzuek ez baitute zertan marka jakin bat izan («nonautonomous case», Blake 2001: 22).

Eta Orozkoko lekukotasunek norabide horretan bidaltzen gaituzte, ablatibotik eratortzen den funtzio «partitibo» guretzat ezohiko bat bereiztera (postposizio modukoa), atzizki batekin baino gehiagorekin adierazi daitekeen funtzioa: *-(r)ik* eta *-(r)ean* ablatiboak, *-ko* leku genitiboa...

6. BIBLIOGRAFIA

- Altuna, Patxi & Miren Azkarate. 2001. *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean. <https://worldcat.org/oclc/432824580>.
- Blake, Barry J. 2001. *Case*. Second edition. Cambridge Textbooks in Linguistics. Cambridge: Cambridge University Press. <https://worldcat.org/oclc/46472211>.
- Camino, Iñaki. 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/oclc/733678169>.
- Carrera, Ignacio M. & Imanol Garcia. 2005. *Legutiano aldeko euskara*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia / Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/433026872>.
- De Rijk, Rudolf. 1972. Partitive assignment in Basque. *ASJU* 6. 130-173. <https://doi.org/10.1387/asju.7363>.
- Etxaide, Ana Maria (ed.). 1984. *Erizkizundi Irukoitza*. Iruñea: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/920040275>.
- Etxebarria Ayesta, Juan Manuel. 2016. *Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaundak II*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea; Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/1005072437>.
- Gaminde, Iñaki. 1999. Elosu, Nafarrate eta Urrunagako euskaraz. *FLV* 81. 241-262. <https://binadi.navarra.es/registro/00006930>.
- Gaminde, Iñaki & Jose Ramon Garikorta. 1986. XVIII. mendeko otoitz batzu. *Enseiucarrean* 2. 61-65. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6962078>.
- Mitxelena, Koldo. 1990. *Textos Arcaicos Vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://doi.org/10.1387/asju.8577>.
- Larrea, Angel & Juan Rekalde. 2011. *Arratia inguruko hiztegia*. Bilbo: Ediciones Beta. <https://worldcat.org/oclc/863182714>.
- Ormaetxea, Txipi. 2002. *Aramaioko euskara*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. <http://edtb.euskomedia.org/3763/>.
- Pagola, Rosa Miren et al. (arg.). 2004. *Beste zenbait itzulpen - Jose Antonio Uriarte [Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak]*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea / Eusko Jaurlaritzak. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/U/UriarteItzulpenak.htm>.
- Ulibarri, Koldo. 2008. Orozkoko euskararen azterketa diakronikorantz hurbiltze bat. *ASJU* 42(2). 191-208. <https://doi.org/10.1387/asju.2307>.
- Ulibarri, Koldo. 2010. Viva Jesus dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU* 44(2). 41-154. <https://doi.org/10.1387/asju.7323>.
- Ulibarri, Koldo. 2015. *Dotrinazko Sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa* [Doktorego tesia]. Gasteiz: EHU. <http://hdl.handle.net/10810/15971>.

- Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/851323481>.
- Zuazo, Koldo. 2012. *Arabako euskara*. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/oclc/818725829>.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/oclc/890274551>.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/oclc/989067814>.

Glosak Azkarate eta Perez Gazteluren lan baten inguruan

Oroitz Jauregi*, Miren Lourdes Oñederra
Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Lan honetan Azkarate eta Perez Gazteluk argitaratutako «Euskara estandarrak bernakularizazio aldian» artikulua gaikako irakurketa-proposamena egingo dugu gure esparrutik, ahoskeraren zaintzaren aldetik. Artikulua irakurtzean komentagai gertatu zaizkigun zenbait gai bildu eta horien inguruan aritu gara, zenbaitetan gogoeta eginez, beste batzuetan kezka elkarbanatuz, iruzkinak eginez eta abar. Hamalau glosa modukoren bidez aurkeztu ditugu arrazoi desberdinengatik arreta eman eta biltzeko modukoak diren ideiak, terminoak zein argudioak. Lanaren helburua da hautatutako hitzek edo ideiek adierazten dutena azpimarratzea, argitara ekartzea, zenbait ezagunak izan arren, beste zenbait ezezagunagoak eta batzuetan deserosoak ere badirelako. Halaz ere, edo horrexegatik inportante direlako ipintzen ditugu mahai gainean esker onez.

Hitz gakoak: Estandarizazioa, hizkera mailak, ahoskera, erabilesparruak, aldakortasuna.

1. ATARIKOAK

Presaka bizi gara eta ez da erraza besteren lanetan, beren pentsamendu eta ekarpenetan aski egotea, fruituak biltzeko astiz eta soseguz. Maizegi gertatzen da bakoitza bere espezializazioaren esparruko argitalpen ugarietian itotzea, gero eta gehiago argitaratzeko presak ere arnasa eragozten digularik. Miren Azkarate irakaslearen omenezko argitalpen honetan kontrako bidea hartu nahi izan dugu eta omenduaren lan bakar batean bilduko dugu arreta. Ahoskera lanetan aritzeak bai ikerketa teorikoan, baina baita araugintzaren alderdi praktikoagoetan ere, leku aiposean kokatzen gaitu ohartzeko Azkarate eta Perez Gazteluren lan honen ekarpena zein garrantzitsua den. Egun ohikoago eta are ohikoegi ere zaizkigun ebaluazio kuantitatibo eta mekanikoetatik urrutiratu nahi genuke eta artikulua eduki zenbait gure ikuspun-

* Oroitz Jauregi. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). oroitz.jauregi@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0001-7024-3387>.



tutik azpimarratu guri pentsarazi diguna hemen partekatuz, guztion lanaren onerako eta euskararen berreskuratzean mesedegarri izango delakoan. Horretarako, artikulua gure artean eztabaidatzeak sortu dizkigun txalo-gogo, adostasun, zalantza, eta abarrak irakurleari eskainiko dizkiogu. Biren artean idatzia bik komentatua, lankide baten omenez beste lankide baten omenalditik.

Honela bada Azkarate eta Perez Gazteluk Koldo Zuazoren omenaldi liburuan argitaratutako «Euskara estandarrak bernakularizazio aldian» (Perez Gaztelu & Azkarate 2020) artikulua berrirakurketa egingo dugu gure esparrutik, fonologiaren aldetik. Artikulua irakurrita ahoskeraren aldetik aipagai iruditu zaiguna bildu eta ideia inguruan aritu gara, zenbaitetan gogoeta eginez, beste batzuetan, kezka elkarbanatuz, iruzkinak eginez eta abar.

2. GLOSAK

Arrazoi desberdinengatik arreta eman eta biltzeko modukoak diren ideiak, terminoak edo dena delakoen bilduma da hemen aurkezten duguna, sarreraka antolatuta. Lanaren helburua da hautatutako hitzek edo ideiek adierazten dutena azpimarratzea, argitara ekartzea, zenbait ezagunak izan arren, beste zenbait ezezagunagoak eta batzuetan deserosoak ere badirelako. Azken hauek maiz ezkutuan geratzen direnez, merezi dute eztabaidagunera ateratzea. Batzuk luzeago, besteak arinago komentatuko ditugu, guztiak inportante direlako ipintzen ditugu mahai gainean esker onez.

2.1. Adostasunez finkatzeko proposamena

Erabilesparruei dagokien proposamena dugu. Estandartze bidean dagoen hizkuntzak, batez ere, euskara bezala, beste hizkuntza indartsuago eta normalizatuekin leian badago, berariaz eraiki eta antolatu behar ditu historian zehar mugatuta izan dituen eremuak, are garatu ere ezin izan dituenak hizkuntzaren murriztapen soziologikoagatik. Adostasunean oinarritzea aurrera egiteko proposamen bikaina da, lan-egitasmo zaila halere, baina, hizkuntzaren osatze eta indartzea lortu nahi badira, arrakasta berme sendoena dirudiena bestelako aukeren (zein?) ondoan. Izan ere, hizkuntzaren berezko garapenaren (garapen naturalaren) eta kanpotik berariaz ezarritako araugintzaren arteko paradoxaren mugetan gauzatu behar du estandartzeak. Horregatik 1998ko Euskara Batuaren Ahoskera Zaindurako arauak fonologiaren ikuspuntutik maila zaindurako hautu optimo liratekeenen ondoan,¹ batasunari eman zion lehen-tasuna (horregatik *digitala* /*digitala*/ «g» bigunaz eta ez /*dixitala*/ «j» gogo-

¹ Ikus argibideetarako EBAZ landu zuen lantaldearen errendapen txostena (Oñederra 1998).

rraz eta *esnea* /esnea/ eta ez /esnia²). Haatik, batasunaz gainera, euskalkietan barrena aski hedadura zuten ezaugarri jatorrei hala nola eremu zabaleko desberdintasunei leku eman nahi izan zien (horregatik *mila* bustiduraz edo bustidurarik gabe onartzea maila zainduan ere).

2.2. Aldakortasunaren ardatzak: geografikoa eta funtzionala

Ezaguna, baina maiz ahaztua izan ohi den ezagutza dugu, gure ahoskerari buruzko lanean oso garrantzitsua gertatzen zaiguna. Laburpenean bertan ikusten da artikularen oinarritzko atala dela. Hizkuntzaz aritzean maiz ahanzten den gaia da aldakortasunarena, erraztu, sinpletu egiten dugu horrela hizkuntza, baina errealtatetik urrundu. *Langue-parole* edo berandua-goko *competence-performance* binomio historikoen gehiegizko zurruntasuna ote den arazoaren iturrietako bat egungo linguistikian (Cameron 1985) eztabaidarako gai interesgarria da. Zalantzarik ez duena da estandartze lanetan ari denak jai duela aldakortasuna ez badu lanaren muinean jartzen. Horregatik harrigarria gertatzen da aldakortasuna aintzat hartzea zein bakana den eskuliburu eta antzekoetan. Agertzekotan, modu binario sinplean agertzen da: zaindua vs. arduragabea edo formala vs. lagunartekoa eta kideko pareetan, aldakortasunaren muina den gradueltasuna ukitu ere gabe. Halakoak ez dira gertatzen bakarrik euskarazko estandartzeari dagozkionetan noski, baina larriagoa izan daiteke kaltea hizkuntzaren ahulezia erlatiboaren araber. Erraztasunagatik eta baita, ziurrenik ere, helburu pedagogikoak bultzatuta zabaldutako binomioak bere ondoan izan behar du ez direla bereizita eta aparte doazen kutzak, baizik eta binomio hori batetik bestera mailaka osatutako *continuum* baten izena dela. Gainera, hain zuzen ere *continuum* horretan gorpuzten delako aldakortasuna da hain dinamiko eta aniztuna. Bestela esan, hiztunak ez du hautatzen a edo b egin, egoerak eta hizketa-lagunak, edo gaiak, eta bestelako hamaika baldintzak irristarazten dute maila batetik bestera bere ekoizpen linguistikoa maiz oharkabeen. Ez dago muga zurrin jakin bat bi hizkera-mailen artean mutur zainduenetik lagunartekoenera. Ahozkoaren gertaleku den ahoskeran aldakortasunik eza ezinezkoa da (ikus ondorio historikoez Donegan & Nathan 2015). Aldakortasunik ez hori zenbaitentzat desiragarri izan daitekeen arren (arauen erredakziorako, esate baterako), aldakortasunaren ideia zabaltzea nahitaezkoa da euskararen eremuan erregistro desberdinak behar bezala (hizkuntzaren barne joerak errespetatuz) sortuko badira.

² Garbi dago fonologiaren ikuspuntutik /esnia/ ahoskerak gauzatzen duen disimilazioa egokia litzatekeela aldaera zaindurako, disimilazioak fortitio motako bilakabideak izanik hotsen edo hots bilkuren entzungarritasuna hobetzen dutela eta hori dela hizkera zainduaren joera.

2.3. Bateratua

Azpimarratzekoa da zein kontuz eta jakinaren gainean ari diren Azkarate eta Perez Gaztelu *batua* eta *bateratua* biak erabiliz; artikuluaeren ekarpena oparoa da termino erabilgarri txukunetan (gogora hemen aipatzen den *erabilesparria*-ren ondoan, *mintzidatzia*, *toki-aldaeradun*, etab.). *Batua* eta *bateratuaren* arteko desberdintasunen eztabaida garatu eta plazaratzeak on egingo luke egungo euskararen ikaskuntza eta hedatze lanetan.

2.4. Bernakularizazioa

Mende honen hasieratik aurrera bernakularizazioaren inguruko argitalpenak ugaritu egin dira bernakularizazioa fenomeno gisa indarra hartzen ari delako, Europan osoan bezala Euskal Herrian. Coupland-engandik jasota azaltzen digute Azkarate eta Perez Gazteluk bernakularizazio joerak hizkuntza aldakortasuna bultzatzen duela aldaera estandarren uniformetasunari aurre egiteko, bernakularizazioak aldakortasun geografikoa —tokian tokiko aldaerak— eta funtzionala —aldaera ez estandarrak, egunerokoak, lagunartekoak, informalak— lehenesten baititu. Horrela bada, hiztunen «berezko» hizkuntza praktikak estandarera eramatea aldaera estandarren uniformetasunari aurre egiteko estrategia da. Kontraesanezko dirudi ideiak. Izan ere, euskararen kasuan, euskal hiztun guztientzako erreferentzia den estandarri, bere ezaugarri uniforme eta guzti, norberaren estilo informala ematea dakar bernakularizazioak. Artikuluan tokian tokiko ezaugarrien erabileraren eta estandarren erabileraren arteko lotura egin beharrenez ideia jasotzen da ahozko euskararen bien beharra dagoela iradokiz. Ahoskera batzordetik ere defendatutako ideia dakarte «eskala bat behar dugula, graduala, ahozko erabilera zaindu eta formalenetatik, erregistro lagunartekoenetarakoa; eta eskala horretan behera egin ahala sartuko lirateke tokian tokiko ezaugarriak» (Perez Gaztelu & Azkarate: 607). Beraz, kontua ez da bernakularizazioaren kontra egitea, baizik eta hizkera mota bakoitza noiz-nola erabili behar den jakitea.

Bernakularizazioa ahozkoak duen alderdi psikologikoaren erakusle ere badela esango genuke: nagusiago, indartsuago sentitzea ezaugarri dialektalik ez duen hiztunarekiko. Ahozkoak duen ezaugarri hori ez da askotan agerian jartzen, baina garrantzitsua da.³ Arazo horri aurre egiteko oso garrantzizko iruditzen zaigu hiztun toki-aldaeragabeen heziketa fonikoa, alegia ahoskeraren irakaskuntzari gramatikarenari eta hiztegiarenari bezainbateko garrantzia ematea ikasgeletan, hizkera «jatorragotzeko» tresna ezin hobea baita ahoskera egokia.

³ Azkarateren eta Perez Gazteluren moduan, unibertsitateko eskoletan, testuinguru akademiko ahozkoan (ez idatzizkoan) izan dugu horrelako sentipenik.

2.5. Erabilesparrua

Kontzeptu garrantzitsu bat jasotzeko termino ezin egokiagoa dugu *erabilesparrua*, gardentasun morfosemantikoaren aldetik oso mesedegarri gertatzen dena, aintzat hartuz gero hitzaren edukiaren garrantzia euskararen une historiko honetan. Artikuluaren sarreran bertan dator eta lan osoan zehar dago presente oinarritzko edukien artean. Erabat ahaztu-ezineko bada hizkuntzaren analisisian (nahiz corpus abstraktuegiak aztertu behar izaten ditugun maiz analisiaren zehaztasunaren mesedetan), ekidinezina da estandartze bilakabidean, benetako arazoetatik benetako emaitzak lortu nahi badira. Ezinbestekoa da hemen *aldakortasuna* sarreran esandakoez aritzeko gure analisisetan, araugintzan, irakaskuntza eta abarretan.

2.6. Erregistro informalak

Atalaren izenburuak modu iradokitzailean bata bestearen ondoan jartzen ditu erregistro horiek eta ahozko euskara batua. Esango genuke bete-betean asmatzen duela egungo egoera soziolinguistikoak dituen beharren aurrean. Ereduak aipatzen dira. Hizkuntzen irakaskuntzan ari diren ikerlarien ahotan (Jane Setter, adibidez) hain garrantzitsua den ideiaz ari gara. Agerikoa da artikulu honetan ere ematen zaiola garrantzia. Euskararen eremuan hizkera-eredu desberdinak sortzeko egindako saiakera desberdinak aipatzen dira artikuluko 3.2 eta 4. ataletan; zerbait berria sortu nahi izateak (estandar informala) saiakerak egitea eskatzen du eta saiakera horietarik zenbaitek arrakasta izan dezakete (*Goenkale* saioak, esaterako), beste zenbaitzuk ez. Egiten ari den bidea da. Utzi behar ez dena. Ekin egin behar denari. Hor EITBk eta ziu-rrerik gaur egun sare sozialek ere balukete zeresana.⁴ Helburu honetarantz letozke EITBko gazteentzako saio informalak: *Vikingak*, *Gure Kasa*, etab.

2.7. Euskaldun erabateko sentitzea

Zehazki eta artikuluak ezin hobeto adierazi bezala (603. orrialdean), «hizkuntza errepertorioan eskolako aldaera estandarra besterik ez duten» hiztunen arazoa oso garrantzitsua da; «toki-aldiera» behar dute hiztun horiek, baina estandartzea berez da toki-ezaugarrien kentzaile, uniformetasun linguistikorako mugimendua; paradoxa horretan ahoskeraren garrantzia eta, ahoskera arautzeko orduan, gauzak modu aniztun malguan egitea zein mesedegarri den adierazten duela esango genuke. Izan ere, ezin du fonologian dabilenak bestela irudikatu, ahoskera aniztun eta aldakorra baita ezinbestean

⁴ Ikus Perez Gaztelu & Zulaika Ijurko (2016).

(«natural responses to phonetic forces, centripetal and centrifugal, implicit in the human capacity for speech production and perception», Donegan & Stampe 1979, 130); kontua da berezko aldakortasun fonologiko hori euskarak behar duen estandartze bilakabideari lotzea.

2.8. Ez guztiak eta ez modu berean

Errealitatean zer gertatzen den ikusarazten du artikuluak, besteak beste Aurrekoetxearen azterketa baten emaitzak jasota, adierazten zaigu nola hiztunek batzuetan bere euskalkiko ahoskerari eusten dioten baina ez beti. Horrek azpimarratzen digu ahoskera arautze lanetan gabiltzanoi zein garrantzitsua den ondo azaltzea zertan ari garen bai euskara batutik urrutiagoko euskalkia dutenei, bai euskaraz gaitasun mugatuagoa duten hiztunei.

2.9. Guztien beharra du hizkuntza oso batek

Aldaera estandarra eta gainerako aldaerak (aldaera dialektalak zein erre-gistroak) denak behar izatea argiki adierazten da artikuluan. Autoreek Haugenen hitzak dakartzate: «the standard tends to become only one of several styles within a speech community. (...). A complete language has its formal and informal styles, its regional accents, and its class or occupational jargons».⁵ Haugenekin batera, ideia bera aldarrikatuz, Zuazoren hitzak ere irakur daitezke artikulua idazburu peko ahapaldian. Zuazoren hitzei emandako leku esanguratsuak ideia honek autoreengan duen garrantzia adieraziko luke, ez baitzaio edozeini uzten artikulua izenburuaren azpiko gunea. Hain arrazoizkoa eta itxuraz onartua dagoen ideia hau lantzea egokitzen denean, zenbaitetan ez da hain zentzuzkotzat hartzen, edo lanak ematen ditu ideia egikaritzeak. Horren ondoan euskal komunitatearen ezaugarriekin zerikusia duen alderdi bat aipatu nahi genuke. Erlatiboki, herri txikia gara eta euskal hiztunak ere ez gara asko, are gutxiago hizkera formala lantzeko moduko egoeretan egon gaitezkeenak. Baldintza horiek hizkera formala lantzeko-garatzeko orduan ez dute askorik laguntzen, atzera karga egiten dute, beti egon daitekeelako solaskide edo entzuleen artean norbait ezaguna, edo ezagunen ezaguna, familiartekoa ez bada. Askotan hiztunen arteko hurbiltasunak hizkera maila formala erabiltzeari galga jar diezaioke. Erlatiboki txiki, gutxi izatearekin lotura dute Oñederraren (2019, 958) ondorengo hitzek ere:

Euskara jator eta herrikoia egin nahi dutenen neurritz kanpoko kenketa, murrizketa eta antzeko ahoskera-motak ez dira beti apropos, gaztelaniaz

⁵ Haugen, E., 1966, Dialect, language, nation, *American Anthropologist* 68, 922-935. Azkarate eta Perez Gazteluren argitalpenetik hona ekarri dugun aipua 932. orrialdekoa da.

mikrofono aurrean hizlariak *na más que pa eventos* esango balu bezala. Egia da, janzkera informalen egungo orokortzearekin batera, euskaradunon kopuru erlatiboki txikia eta soziologikoki murriztua ere kontra ditugula hizkera zaindu bat eraikitzeko orduan. Gainera, txikitasunaren ezaugarriak areagotu egiten dira «giro ona» izateak gizaki askori ematen dion plazera-gatik, babes moduko horregatik. Euskara erabiltzeko zioa oso «bihotzezkoa» da maiz, taldearekiko identifikazioa bilatzen da eta horrek hizkera ez-zainduaren ezaugarriak areagotu ditzake.

Erregistro formala garatzeko egon daitezkeen zailtasunak zailtasun, sarrrera honen izenburuan biltzen den ideia gorde beharra azpimarratu nahiko genuke. Ez dugu ahaztu behar, artikuluan ederki islatzen den moduan, hizkera molde desberdinak sortzeko eta garatzen hasteko bidean gaudela. Zenbaitetan, hitzun gisa, komeniko litzateke euskararen zein momentutan gauden kontzienteki pentsatzeko ariketa egitea.

2.10. Hain ezagunak ez diren zenbait kontu

Eskertzekoa da hain ezagunak ez diren kontuak aipatzea (are horiei «hel-tzea», testuak dioen bezala), askotan bidenabar moduan pasatzen direnak bil-tzea eta plazaratzea. Ariketa polita eta ezinbestekoa da kezka sortzen duten kontuak, hain eroso ez direnak, argitara ekartzea. Horietako kezka bat da me-zuaren hedapena: araua emanda, paperean idatzi ondoren, arauaren ulermena eta hedapena gertatu behar direnean, gauzak nola egin behar diren jakitea nahitaezkoa da. EBAZ arauaren kasuan askotan ez da erraza izan bidea. Ar-tikuluak dio ahoskera araua ez dela idatzizkoa bezala ulertu behar, baizik eta funts heterogeneoagoa duela. Idatzizkoan araua homogeneoagoa da (nahiz 2. orrialdean esaten den bezala, «estandar idatzian ere badira aldakortasuna-ren printzak»). Aldiz, ahozkoan, ezin du hala izan. Ahoskatua izatearen izae-ragatik gertatzen da hori. Badu ahoskerak bere alde gramatikak edo hiztegiak ez duten abantaila fisiologikoa dei genezakeena, buruz ikasi behar ez dena eta berez egokitzen duena eredu zaindua egoera lasaiagoetara. Ikastaroetan frogatzen dugu erabiltzaileak lasaitu egiten direla gauzak horrela aurkezten direnean. Batetik, ahozkoaren alderdi fonologiko horiek ulertzean eta, bes-talde, adierazten zaienean ahoskera eredu zainduena ere nahitaez dela alda-kor eta ezin dela bakarra izan.

2.11. Heteroglosia

Praktika heteroglosikoaren azterketa soziolinguistikako lanetan azken ur-teetan indarra hartzen ari den ikergaia da. Interesgarria da oso artikulua eus-kararen estandartzearen eremura ekartzea. Elordui dute iturri ikerlari horrek

komunikabideetan begiak jarrita dioenean, «lebakartasunaren ideologia eta praxitik (...) ahots eta ideologia linguistiko anitzeko testuinguru mediatiko heteroglosiko batera igaro» dela argudiatzen duenean.⁶ Elorduik gehitzen du egoera komunikatibo zenbaitetan ikus daitekeela hiztunak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea eta diskurtsoan erregistro molde desberdinak agertzea. Azken finean, egungo gizarteak azken urteetan jasan dituen aldaketa azkarren (*azkar* hitzaren *lastertasun* eta *sendotasun* adierak gogoan) isla litzateke. Hizkuntzaren erabileraren bidez hiztunaren jarrera adierazten da eta, kasu horretan, gizarte globalizatuak eragindako aldaketatzat har daiteke heteroglosia. Gurean ere ikus daiteke horrelako jarduerarik. Salabururen erreferentzia aurkitzen dugu, euskal gizarteak jasandako aldaketen berri ematean: besteren artean, hiztunek lehen ez zuten goi mailako hezkuntzara heltzea, «rural society» izatetik «urban society» izatera igarotzea, komunikatzeko sistemak eta atzerrira joatea ohikoa bilakatzea. Aldaketa horiek guztiek badute hiztunen hizkuntzaren erabileran eragina. Gainera, Salaburuk (2015, 131) aitortzen duenez, «We are heading toward a multilingual society, in which we will use languages from different registers in the future, and that creates other kinds of challenges for both the Basque language and Bascophiles» eta gero dio gizartean euskararen ezagutza areagotu bada ere, «the future of the language is in the hands of today's generation». Egoera horretan, hiztunei Azkarate eta Perez Gazteluren artikulu honetan jasotzen diren ideien berri ezinbestean eman behar zaiela iruditzen zaigu, batez ere *guztien beharra* sarrean adierazi den moduan, hizkuntza oso batek hizkera maila denen beharra duela adieraziz eta bakoitzak bere espazioa duela gogoraraziz, edozer edozein momentutan eta egoeretan egitea saihesteko, hizkuntzaren konstelazio oso bat izan dezagun.

2.12. Inongoa eta inorena ez den aldaera estandarra

Hizkera bat beti da hitz egiten duenarena eta hitz egiten den eremukoa. Estandarraren prestigioa ahultzeko ideiatzat har daiteke hori, baina errealtateak berak kentzen dio indarra uste horri: komentatzen ari garen lanaren 11. oin-oharrean ederki agertzen den bezala, garai batean hiztun berri izan zirenak guraso izatera heltzen direnean, estandarra lehen hizkuntza bezala erakusten diete haurrei. Hizkera horrek dagozkion ezaugarriak ditu, inguruan duenaren eragina izango du eta, inguruak inguru, etengabeen aldatuz joango da.

⁶ Elordui, A., 2016, Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakularizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan, *Uztaro* 97, 31-52. Azkarate eta Perez Gazteluren argitalpenetik hona ekarri dugun aipua 31. orrialdekoa da.

2.13. Kode-aldaketara jotzeko joera

Bernakularizaziorako joerak kode aldaketari buruzko ikuspegia aldatzen ari omen dira gazteen artean: ez da txartzat ematen alderantziz baikik. Euskararen ahultasuna kontuan hartuta, egoera zaurgarrian dagoen hizkuntzarentzat ez dirudi lagungarri kode aldaketa etengabe erabiltzeak, hizkuntza baliabideak galtzeko arrisku handiagoan dagoelako hizkuntza indartsuago bat baino. Zenbaitetan entzuten da hobe dela *euskañola*, euskara-gaztelania edo euskara-frantsesa kode aldaketadun hizkuntza gaztelania edo frantses hutsa baino. Pentsa daiteke baietz, euskararen indartzea gertatzen ari den eremuetan agian jo liteke ontzat ideia hori. Horrekin batera, ordea, euskararen egoera ahularen jakitun izatea komeni da, ahultasunaren ideia azpimarratzea. Kontua da kode aldaketa euskararen eremu osoan egiten dela indar handiz, baita «arnasgune» deiturikoetan ere. Inportantea da beti ere, halakoetan gaitasun urrikoen aldaketak (*code switching*) eta hitzun sendoen nahasteak (*code mixing*) bereiztea. Ahoskeraren aldetik zein den irabazle, erdara edo euskara, izan daiteke bereizgarrietako bat. Begibistakoa gertatzen da egun hain zabaldua dagoen kode aldaketak nola indartzen dituen:⁷ fonema arrotzen sarrera (gaztelaniazko /θ/ *zeta*), euskal aurkakatutasun fonemikoen galera (/tʃ/ -«tx»-ren eta /ts/ -«ts» edo «tz»-ren artekoa) eta eredu prosodiko arrotzen erabilera (hizkako erritmoan gauzatutako azken aurreko azentudun eredia batez ere). Bide horretatik Ipar/Hego banaketa lingusitikoa areagotzen ari da, batuaren egitekoa hustuz neurri handi batean.

2.14. Uniformetasuna sustatzea

Idea hau aipatuz hasten da «Laburpena» izeneko atala: artikuluaaren hasierako hitzak dira. Ezin da ukatu estandartzearen helburuetako bat uniformetasuna bilatzea dela, modu batean behintzat. Idatzia estandartzean uniformetasunaren helburua errazago bete daiteke ahozkoan baino. Autoreen arabera uniformetasuna sustatzea omen da estandartze bilakabideek ekar lezaketen. Hori ulertzeko aintzat hartu behar da, hain zuzen ere, estandartzea ez dela hizkuntzaren gertakari *sensu stricto* linguistikoa, artikuluaak dioen bezala «motibazio soziopolitikoa izaten du oinarrian» (Perez Gaztelu & Azkarate 2020: 602): hizkerak batu, hizkuntzak bizirik irauteko. Jakina da, ordea, aldakortasunik gabeko hizkuntza ezin dela hizkuntza bizia izan, benetan erabilgarria. Ahoskeraren zaintzatik begiratuta, garbi dago hiztunak, mundu errealean eta bestelako baldintzarik gabe, ez dituela hitzen hotsak berdin ate-

⁷ Lehen hizkuntza gaztelania izatearekin batera, noski, hori delarik kode nahasketaren eragile indartsuenetako bat, nahiz ez bakarra.

ratzen lasai ari denean etxekoekin edo jendaurrean diskurtsua egiten ari denean. Aukeratzten diren hitzak eta soinean jartzen diren jantziak ere ez dira berdinak izaten. Hautatzen diren esaldi moldeak, lexikoa, aditz moldeak, besteren artean, ez dira berdinak lagunartean hitz egiterakoan edo hitzaldi bat ematerakoan, esaterako (artikuluak 606. orrialdean jasotzen duen Zua-zoren eta Badihardugu elkartearen lanetik ateratako adibideak argi erakusten du nola hurbil dakiokkeen aldaera batua erabiltzen den lekuko euskarari hiztegiaren bidez). Estandartzeak uniformatzea dakar hizkuntza bateratzeko zentzuan, baina ez dakar nahitaez aldaerak desagerraraztea, nahiz eta lotura izan dezakeen gertakari horrekin. Artikuluaren 2. orrialdean ere arazo hori ukitzen da (Aurrekoetxea eta Haddican autoreen eskutik). Euskalkia osasuntsu dagoen eremuetan hizkera molde bakoitza dagokion momentuan erabiliko da, baina ez du bata bestea desagerrarazi behar. Ekarriko du ziurrenik berdintze bat, desberdintasunak kamuste bat (Aurrekoetxea eta Haddican-en lanetan oinarrituta berriz).

3. AZKENIK

Bukatzeko esan behar dugu hemen nabarmenduak Azkarate eta Perez Gazteluren artikuluak eskaintzen duenaren zati txiki bat bakarrik direla. Era berean, bererako lantzen dituzten lan eta autoreak beste asko eta asko dira. Lehen kolpean gure lanarekin zuzenen lotuta agertu zaigunaz idatzi dugu, autoreekin bilduko bagina hasiera-hasieran aipatuko genituzkeen kontuekin aritu gara parafraasi agian baldarrak egiten, beti ere gure aldetik azpimarratu nahian gai zenbait. Haatik, helburu nagusien dugu irakurlea lan hartarantz bultzatzea, bakoitzak bere ikuspuntutik osorik irakurtzea merezi baitu. Guk, gure aldetik, esker ona besterik ez dugu eman nahi izan, hona dakargun jolas honetan ere Azkarate eta kideek pentsarazi (beraz, irakatsi) digutenagatik.

4. ERREFERENTZIAK

- Cameron, Deborah. 1985. Linguistic Theory: Frameworks and Approaches. In: *Feminism and Linguistic Theory*. London: Macmillan. 9-27. <https://worldcat.org/oclc/11763041>.
- Donegan, Patricia & Geoffrey Nathan. 2015. Natural phonology and sound change. In Patrick Honeybone & Joseph C. Salmons (arg.), *The Handbook of Historical Phonology*. Oxford: Oxford University Press. 431-449. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199232819.013.007>.
- Donegan, Patricia Jane & David Stampe. 1979. The Study of Natural Phonology. In Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*. Bloomington: IUP. 126-173. <https://publish.iupress.indiana.edu/read/current-approaches-to-phonogical-theory/section/0ff3bf9f-feec-4b79-9880-53f610f0070b>.

- Oñederra, Miren Lourdes. 1998. Ahoskera lantaldearen errendapen txostena. *Euskera* 43(1). 265-274. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49448.pdf>.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2019. Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz. *Euskera* 64(2)-2. 939-957. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7937018>.
- Perez Gaztelu, Elixabete & Esther Zulaika Ijurko. 2016. Adierazgarritasun zantzuak euskal gazteen txatetan ;). *Gogoa* 14. 105-130. <http://hdl.handle.net/10810/46554>.
- Perez Gaztelu, Elixabete & Miren Azkarate. 2020. Euskara estandarrak bernakularizazio aldian. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Uli-barri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena: Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo: UPV/EHU. 601-616. <https://worldcat.org/oclc/1192405117>.
- Salaburu, Pello. 2015. Writing words: the unique case of standardization in Basque. Charleston: UNR. <https://worldcat.org/oclc/971643278>.

Orotariko Kasu Markak eta «MAE ohiak»: ustezko bitxikerien garrantzia^{1,2}

Joseba A. Lakarra*

Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Lan honetan bi helburu osagarriari lotu gatzazkie, euskararen eredu morfosintaktikoak historiaurretik hona izandako bilakabide erraldoiaren azterketan urratsen bat gehiago emateko gogoz. Batetik, Australiako hizkuntzak famatuak dira ISko kasu marka asko aditz jokatuan ere (ez soilik jokatugabeen, ohikoago den legez) errepikatzen baitira, baina azken hamarkadetan beste kontinenteetako hizkuntzetan ere aurkitu dira paraleloak eta lan honetan euskaraz ere antzekoak badirela erakutsi nahi izan dugu.

Bestetik, aditz jokatuaren hainbat osagai, aurreko Kasu Marka gehienak bezala, lehenagoko Multzo Aditz Egituretarik (MAE) datozela aurreko lanetan markatu denez (cf. Lakarra 2008a hh) eta hemen horietako batzuk aditz jokatuan aurkitu ditugu: honela MAEn historiaurreko ugaritasunaren eta garrantziaren alde argudiatzen eta ikerketa zehatz eta aberatsago baten hatsarriak jartzen dira.

Hainbat puntuk azterketa sakon eta zabalagoak behar dituztela ere erakutsi uste dugu, orain arte euskalaritzan markatu izan ez diren baina hainbat hizkuntzatan dagoeneko ezagunak diren ezaugarri eta gertakariak bitxikeria solteen mailatik egitura zaharraren aztarnara igo eta ikerbide gisa uler daitezten.

Hitz gakoak: Kasu marka; Multzo aditzak; Australiar hizkuntzak; Aditz Jokatu; Deriba; Diakronia.

* Joseba A. Lakarra. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatearen ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). joseba.lakarra@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0003-2014-2025>.

¹ «Monumenta Linguae Vasconum. V. Periodización y cronología» [FFI2016-76032-P] eta «Monumenta Linguae Vasconum. VI. Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00) Ministeritzak lagundutako Ikerketa Egitasmoe-tan eta Eusko Jaurlaritzak sustatu «Hizkuntzalaritza Historikoa eta Euskararen Historia» Ikerketa Taldearen egitekoetan kokatutako lana [GIC.IT1344-19].

² Askok eta bikainak dira Miren Azkaratek Morfologia eta Lexikoaz (besteak beste) egin dituen ekarpenak; nire eskerronaren erakurgarri xume gisa, haren ohoretan prestatutako lantxo honetan, parekorik eta humaturik osatzea ez baina harentzat gustagarri edo irakurgarri gerta litekeen nahi nuke. Eskerrak, orobat, J. Ormazabal eta B. Urgelli beren oharrengatik.



La grammaire comparée doit se faire en utilisant les anomalies—c'est à dire les survivances plus que les formes régulières... Les traités de grammaire comparée ont souffert de ce que, pour la restitution de l'état initiale, l'importance attribuée aux formes normales des états de langues historiques est trop grande (Meillet, *apud* Watkins 1967: 1).

If we dismiss every case of polysemy as accidental we deprive ourselves of the possibility of ever finding out whether the two functions are in fact related or not. If, in contrast, we try to discover a relationship, in the worst case we may find that non exist. But in an optimal case we may find out that a connection exists, and the explanation of this connection may shed some light on the nature of language structure and of language change (Frajzyngier 1986: 233).

Important evidence for earlier states of affairs will probably be found in small, isolated residues, as Indo-European historical linguistics has already shown. For instance, a tiny pocket of several verb forms may tell us more about an earlier stage, than large numbers of regularized or levelled forms within languages (Merlan 1979: 73 [Australiako hizkuntzen berreraiketa sintaktikoaz]).

1. SARRERA ISKO KASU MARKEZ³

Ezagun denez, euskarak bere historia eta geografia osoan Izen Sintagman Kasu-marka sistema aberatsa du eta aberatsago eta mardulago bilakatuaz doa mendeak joan, mendeak etorri. Gainerako hizkuntza eransleetan bezalatsu—hala, hobekien aztertu familia uralikoan— kasu sistema hedatuaz joan da bere paradigma bakarrean, paradigma bat baino gehiagoko «benetako» deklinabideak dituzten hizkuntzetan gertatutakoaren aurka. Hauetan, funtsean, sinkretismo ugari izan da, IE hizkuntza zaharretan 8-9 kasutarik 5-6ra eta are bikoitzera (gaskoiera zaharra) eta bakarrera (hots, kasu bereizkuntzak oro galtzera) iritsiaz. Euskaraz, aldiz, *-e* genitibo zaharrenaren aldean,⁴ *-ren* alo-morfo modernoa, *-rentzat* prolatiboa, *-rekin* soziatiboa nahiz *-rean* mendebaleko ablatibo zaharra ditugu esaterako.⁵

³ Laburdurak: C = kontsonante; V = bokala; GP = Gramatikalizazio Primarioa; GS = Gramatikalizazio Sekundarioa; MAE = Multzo-Aditz Egiturak; DAM = Denbora-Modu-Aspektu.

⁴ Izatez, genitiborik zaharrena *-ø* bide zen, —besteak beste, tibeto-burmeraz bezala— *-e* horretara lokatibo orokorreko markaren amalgamaren berranalisiaren bidez iritsiaz (cf. 3SG) *ø* + INP *b-* > *b-* '3SG.INP' (ik. Lakarra 2018 eta prest.-b). Analisi bera edo antzekoa 3SG.DAT *-o-ri* ezarriaz, Schuchardt eta bere jarraitzaileek ez bezalako ondorioetara iris gaitzke, noski, baina hori beste lan baterako gaia dugu; tartean, ik. Lakarra (2016).

⁵ Cf. Ylikoskiren hainbat lan samiera eta uralikoaren lokatiboen bilakabideaz; orobat, ik. Aikio (2022) eta Kittila *et al.* (2022) eta Australiakoek Blake (1993 eta 1999) gehi Dixon (1980 eta 2002).

Kasu kopurua ugalduez eta marken tamaina ere mardotuaz joan dira, adibidez: ikusi berri dugu genitiboak *-n* eskuin (inesibo ezaguna) gehi *r-* ezker, bokalez amaitutako enborretarako, hartu dituela eta sozietiboko markak ere bereganatu dituela (*-n* nahiz *-la*, nahiz *biak*) har litzake dialekto ezberdinetan. Aldaketa gehienak, nabarmen denez, gehiketak dira eta ez hots soilen baina morfemenak; ik. Lakarra 2016, 2018 eta hemen §4-2 morfemen forma kanonikoaren bilakabidez. Kenketak, aldiz, ergatibokoa (*-*ga > -k*) bezalakoak, salbuespen urritzat har ditzakegu, fonetikoak, hasiera batean.⁶

2. KASU MARKAK ADITZEAN AUSTRALIAKO HIZKUNTZETAN

Kasu markak, holakorik duten hizkuntzetan, ISko buru ezberdinetan (lat. dat. *magno equo*) edo bakarrean (eusk. *zaldi handiari*, ezarri ohi dira⁷ gehienetan; alabaina, badira hainbat (dozenaka markatu dira Australian), non ISko kasu-marka horiek edo horien homologoak aditz jokatuan ere aurkitzen ditugun.⁸

Case markers are thought of primarily as nominal morphemes, indicating the function of a noun phrase in a clause. In a few languages of the world case markers also appear on verbal forms. Such ‘versatile’ cases can express (i) temporal, causal and other relationships between clauses, and (ii) aspectual and modal meanings within a clause.⁹ Core cases tend to express aspectual and modal meanings, while oblique cases tend to be used as clause-linkers. The recurrent semantic differences between case morphemes as nominal markers, as clause-linking devices, and as exponents of clausal categories are rooted in the inherent polyfunctionality of these ‘chameleon’ morphemes: the specific meaning of any instance is affected by the morphosyntactic context in which it occurs. (Aikhenvald 2008: 565)

Aikhenvaldek lan horretan markatzen duena aspalditik ezaguna zen australiar hizkuntzen aztertzaileen artean: 10 urte lehenago Worden Barry Bla-

⁶ Gogora bilakabide fonologikoaren eta morfologikoaren izaera kontrajarriak (cf. Mitxelena 1963: §3, 39-52). Bestalde, norbaitek proposatu **-k > -∅* (***-tik > -ti*) ezinezko da, Mitxelena erakutsi legez (cf. *FHV* 236-7): *-ti* eta *-ka* morfema primarioak ditugu (ez, haatik, alomorfo primarioak ez bata eta ez bestea [*di*, *ga*] eta *-tik* haien amalgama, *-tika*, osatu (cf. Etxep., Land., 1609ko Iruñeko poesiak, etab.) ondorengo bilakabidea.

⁷ Antzera gertatzen da, besteak beste, Aikhenvaldek dagoeneko aipatu lanean zabal aztertu manambu papua hizkuntzan ere [cf. Aikhenvald 2008: 585].

⁸ Aurrekoekin berdintzen ditugu nominalizazio eta antzekoetan (erlatiboetan, demagun), euskaraz zein munduko beste askotan kokatuak: eusk. *etortzeari*, lat. *delendo*, etab.

⁹ Oso aipatuak dira australiar hizkuntzak DAM edo haren zati bat (edo haren efektuak) ISn ere izan ditzaketelako gainerako lurraldeetako gehienek ez bezala.

kek zioen moduan «In Indo-European languages examples can be found of case marking on verbs as with the accusative on the Latin supine expressing purpose with verbs of motion. In Australian languages case marking on verbs is very common» (1999: 299),¹⁰ hainbat non ikerketa-gai usukoa bilakatu baitzen ordurako.

In this paper a number of resemblances between case markers and verb affixes in Australian languages are pointed out, and it is suggested that a recurrent development is the extension of case marking to verbs. These case markers may be added directly to the verb root or there may be one or more stem-forming formatives between the verb base and the case marker. It is argued that there are two common source for these forming suffixes, namely the proprietive or 'having' suffix and tense/aspect markers reanalysed as stem-forming suffixes. In the final section of the paper a few examples are given of case markers with a verbal origin. (Blake 1993: 33)

ISko Kasu-marken eta antzeko funtziodun adizkien arteko jatorri kide-tasuna ikertzean aurki genezake batetortzea osokoa nahiz alomorfia gisakoa dela, kokagune ezberdinetan pairatu aldaketa fonologikoez sortua (cf. Blake 1993: 33). Jatorri bera dela eta ez homofonia hutsa, bi dialekto edo hizkuntza ahaidetan erro ezberdinek funtzio pare bera garatuaz aurkitzeak erakutsiko liguke. Adibidez, Kala Lagaw Ya hizkuntzan (Kennedy 1984, *apud* Blake 1993) dialekto batean *-pa* 'alatiboa' eta *-pa* 'amaitugabea' dugu eta beste batean *-ka* 'alatiboa' eta *-ka* 'burutugabea'. Gainera, hizkuntza berean bost kasuren (IS) eta beste hainbeste denbora/aspektu markaren (AS) arteko batetortzeak dira. Honelako bakarra, agian, halabehartzat joko genuke baina bostekin ez da horrentzat tokirik.¹¹ Orobat esan genezake, ISko eta aditz marken batetortzea familia ezberdinetan —lotura genetikorik gabeko eta geografikoki beren artean urrun kokatuak direnetan— gertatzen denean, ASP burutugabearen eta Alatiboaren artean bezala (cf. Aikhenvald 2006); beste

¹⁰ Are argiago, «The range of cases the marking of which is reflected on subordinate verbs is extensive. Practically every case is reflected in one language or another» (Blake 1999: 307). Aurrekoa baino markagarriago: «The fact that Australian languages use case markers on dependent verbs is not remarkable. There are widespread parallels in Indo-European, Uralic, Turkic and other families. *What is remarkable is the extent to which Australian languages use case marking on independent verbs. This comes about largely by a process that Evans has called insubordination* (1985: 33)» (Blake 1999: 309 [etzanak neureak (JAL)]).

Beherago, ordea, «Independent verbs bearing an inflection that reflects nominalization and case marking express categories such as hortative, contemporaneous action, imperfective and non-past in various languages. However, it may be that not all the verb markers that reflect case markers in Australian languages arise from insubordination. The habitual aspect is often expressed by markers reflecting the locative (...)» (Blake 1999: 312).

¹¹ Eta hizkiak (kasu honetan atzizkiak) alde batetik bestera igaro direla aipatzen digute australianistek beren analisietan; alabaina, ikus azken atalean izan litekeen beste azalpen batarako.

hainbatetan legez, euskaraz ere badela (*da-* / *-a*, *-t* < **-da*) horren lekukotasunik: *dator*, *dakar*/*Zarautza*, *mendirat*.

Antzekoak aurkitu dira orain Ameriketako tariana hizkuntzan (Amazonia):

For instance, Tariana (Arawak: Aikhenvald 2003: 524) employs two case morphemes on verbs inflected for person. The marker *-se*, whose meaning with noun phrases covers location, direction and source, means «as soon as» when used as a clause-linker. The case marker *-ne* «instrument; reason; location “along”; comitative “together with”» marks clauses with the meaning of «reason». (Aikhenvald 2003: 530f.; 2006: 185f.) (Aikhenvald 2008: 580, 13. oh.)

Horrezaz landa, Aikhenvaldek eranskinean (2008: 597) hainbat hizkuntza tibeto-burmatan, yeniseikoren batean, Nepaleko isolatu batean, Ozeaniako eta Papuako batzutan, tungusiarren batean eta raman (Ertamerika) haboro aurkitu direla markatzen du.

3. ISKO KASU MARKEN KIDETASUNAK AUSTRALIAKO HIZKUNTZETAN

Aditzean errepikatu Australiako hizkuntzetako kasu markak ugari ditugu; Blakek ezin argiago dioenez, «The range of cases the marking of which is reflected on subordinate verbs is extensive. Practically every case is reflected in one language or another» (Blake 1999: 307).¹² Egile berak dioenez, batetortze ohikoen artean dira ondokoak: 1) datiboa eta helburuzkoa (*purposives*), 2) izen eta aditz kontrakaria (*aversives*), 3) leku-kasu markak (bereziki menperatzaile eta ergatibo-instrumentala¹³) eta hainbat aditz atzizki (Blake 1993: 37).¹⁴ Ikus, adibidez, Kala Lagaw Ya hizkuntzako ondoko zerrendak:

¹² Ezin sakon dezakegu hemen arrazoen eta ezaugarrien garapenean baina gogoangarri iruditzen zaigu noizbait euskararen eransletasunaz erkaketarik egin nahi izan ezker, aditzetako marka gehienak (guztiak ez esatearren) bisilaboak edo are polisilaboak izatea (cf. Blake 1993: 56). Aikhenvaldek, aldiz, «Case morphemes need not be restricted to nouns phrases. If they occur on a verb root, or an inflected verb, they may link clauses or they may express aspects, modalities and moods» (2008: 594). Hor bertan «The meanings of cases as markers of grammatical functions of a noun phrase and as clause linkers are determined by the syntactic environment. In other words, the same set of morphemes marks typical functions of noun phrases and typical relationships between clauses».

¹³ Aurrerago, aldiz, «ergative markers do not figure prominently in verb morphology, but there are some matches» (1993: 50) dio [iragan urruneko marka gisa, bidenabar].

¹⁴ Eranskinean dira Aikhenvaldek (2008: 573-575) esaldi lokailu gisa (*clause linkers*) hainbat hizkuntza eta familia ezberdinetan bildutakoak.

<i>Kasua</i>	<i>Marka</i>	<i>Aditz funtzioa</i>	<i>Marka</i>
Nominatiboa	-∅		
Ergatiboa	-n	Konpletiboa	-n
Akusatiboa	-n	Konpletiboa	-n
Lokatiboa	-nu	Iragan hurbila	-nu
Komitatiboa	-ia, -pu	Habituala	-pu
Ablatiboa	-ngu	«Atzoko» Iragana	-ngu
Alatiboa (1. Dial.)	-pa	Burutugabea (1. Dial.)	-pa
Alatiboa (2. Dial.)	-ka	Burutugabea (2. Dial.)	-ka

Blakek dioenez (1993: 34) Kennedy, hizkuntza horren aztertzaileak, bietan gauzatu kategoria abstraktu bakarren ondorio gisa azaltzen du izen eta aditz marka berberak izatea; Blakek, aldiz, izenetako kasu marken aditzetarako hedadura gisa aurkezten du, kategoria abstraktuagoak zehatzagoetarik garatzea baita ohiko azalpena (cf. Aikhenvald 2008: 594).

Nora doazen kasu morfemak ikertzean bi jomuga nagusitara doazela erantzuten dute ikertzaileek (ik. Aikhenvald 2008: 568-572): osorik edo zatika jokatu adizkietara eta markagabeko aditz erroetara.

Hara ondoko taula:

<i>Aditz forma</i>	<i>Emaitzaren funtzioa</i>	<i>Tokia</i>	<i>Familia/eremuak</i>
1. Ad. Jokat.	Esaldi lokailua <i>(menpeko esaldietan kategoria gutxiago nagusietan baino)</i>	Predikatuan Esaldi ertzetan Osagai soilean Mendeko esaldiko hainbat osagaitan	Arawak, Australia, txibtxa, tibeto-/burma Ingelesa, Kantonera tupi-guarani, Australia Australia
2. Aditz Erroa	Aspektua eta modua Esaldi nagusietan	Predikatuan	Tibeto-burma, Australia

Case morphemes on verb roots and on inflected verbs (Aikhenvald 2008: 569)

Taulatik asma litezkeen ezaugarriez landa, zenbait hizkuntzak marken bilakabideaz giltza interesgarririk izan lezake: Ertamerikako rama hizkuntzan postposizioak askeak dira fonologikoki nahiz morfologikoki beren azentu propioa eta dagokien izenetik beste osagai batzuez bereziak izan litezke, baina dagozkien afijo menperatzaileak atzizkiak dira; errazki antzeman litekeenez, gramatikalizazioa postposiziotik morfema lotura zuzenbidean gertatu

da; inoiz, gainera, aditzeko alomorfoak postposizioakoak baino laburragoak izan ohi dira (azterketa bikainak aurki litezke Craig & Hale 1988 eta Craig/Grinevalden enparaukoetan).¹⁵

Biderik usukoena aditzek DENBORA; ASPEKTUA edo MODALITATEA bezalako inflexio kategoriak edo INKOATIBOA eta KAUSATIBOA legezko deribaziokoak jasotzeko «aditz altuetarik» genuke, lehenik aditz gramatikal eta gero aditz-hizki bilakatuaz. Hots, aditz lexikoek gora egiten dute ('raising'), aditz gramatikalekin amalgama bat sortuaz, erromantzezko futuroan bezala: lat. *videre habemus* > errom. *ver hemos* > *veremos*. Eredu alternatiboa (ugari dena Australian) ondokoa genuke:

Karnta-ya ngarna	nhatyi-linga i-nha-ka	kulipila-nha
Go-PRES we	see-PURP he-ACC-HERE	kangaroo-ACC
----->		
Ngarna nhatyi-linga	i-nha-ka	kulipila-nha
We-ERG see-PURP	he-ACC-HERE	kulipila-nha
'We will see the kangaroo'		(<i>apud</i> Blake 1999: 316)

4. EUSKARAZKO «OROTARIKO» KASUAK

4.1. Analisiaren lehen urratsak

IS eta Ad Jokatugabeetan erruz gertatu (eta ongi ezagutu) arren —*ibiltzea, ibiltzearekin, ibiliaz, ibiliari...*— IS eta Aditz Jokatuaren arteko batetortze sistematikorik, dakidanez, ez da markatu euskalaritzan,¹⁶ beharbada hau funtsean —fonologiaz landa, jakina— sinkroniaz arduratu delako eta homofoniaren aurkako aurreiritzi sendoa ere tarteko bide zelarik, gainera (cf. hasierako Frajzyngieren aipua). Halere, azken urteotan gramatikalizazioari eta

¹⁵ Cf. «The analysis of correlations between postpositions and related subordinators in Newari (Genetti 1991) point to a development in the same direction. For similar results in a selection of Oceanic language, see Lichtenberk (1991: 73f.); see also Blake (1993: 47-49), Dixon (2002: 239) for Australian languages, and Winter (1976: 171f.), Jacobsen (1983: 175f.), Gordon (1980), (Miller 2001: 265) and Gorbet (1973; 1976: 110-153) for similar pathways in Yuman languages. Akiba (1977: 616-618) discusses the development of the direct object marker in Old Japanese into a different-subject clause-linker» (eta zertzelada gehiago bestelako marka moduez); ikus Aikhenvald 2008: 580, 13. oh.). Ikus Lakarra (prestatzen-b) *he* postposizioaren *e-* aurrizki bilakabidez (**her* SIDE Erlazio-Izenetik).

¹⁶ Alde batera uzten dut Azkueren *Morfología Vasca* (1921-23), jakina, era askotako arrazoiengatik, batez ere haren ikuspegi pankronikoa (eta analisi-bideak) ondoko teoriko gutxik partekatu dituelako; izan, badira haren aurkibidean hainbat «batetortze» orain agian beste be- giraturen bat merezi luketenak, hurbilketa oso ezberdinetatik izanik ere.

berreraiketari lotutako ikerketetan (cf. Lakarra 2013, 2018) ISko eta ASko zenbait cognado isolatu izan dira:¹⁷

- A. Traskek (1977) isolatu Aditz Jokatuko *da-* BURUTUGABEa (*da-tor*, *da-kar*), halaber alatiboan (*-t/-a*, gehi *-da/-t/-a* 1pDAT/ERG) eta Aditz Jokatugabeko enbor hedaduran (**e-da-kin > jakin*, **e-da-non > jo(h)an*) aurkitzen dugu, copulaz (*da*) eta leku kasuetako mugagabe orokorrean ere (*-e-ta-ko*, *-e-ta-rik*, etab).¹⁸ Baita, **d- > l-* ondoren, *la-bain*, *la-bar*, *la-bur*, etab. gehi modaletako *-la* (*honela*, etab.). Subjuntiboko (*deza-la*) eta osagarrietakoa (*badatorr-e-la*) beste gramatikalizazio sare batekoak bide dira; cf. Kuteva *et al.* (2019: s.u. PUT ‘COMPLETIVE’)
- B. ISko datiboarentzat (*gizon-i*) aditz jokatugabeen bai *i-* aurrizkia (**e-i-zan*, **e-i-ra-katsi*) eta baita INF atzizkia *-i* (*ekarr-i*, *ibil-i*) aurkitzen dira, nahiz funtzio ezberdinetan, baina guztiek ere paraleloak dituzte hainbat hizkuntzatan.¹⁹
- C. *-ki-* ‘datiboarrekoa’ : *-ki(ø/n/la)-* ‘soziatiboa’ (gehi soziatiboko koordinazioa), *-ki* ‘aditzlagun modala’ (Lakarra 2018: §§4.4.6.8-4.4.6.9).
- D. *-te* (*-de*, *fase sparita*) IS PL ark : *-del-te/-e* Ad.KOM, Ad Iz (Ebento PL) *-te* (Lakarra 2018, 2022).
- E. *-tza/tze* IS Pl ark. : *-(t)z(a)* Ad.KOM, Ad Iz (Ebento PL) *-tze* (Lakarra 2018, 2022).

¹⁷ Beraiei eskerra helduko ez bide zaien arren, lehen bezala orain ere aitortu nahi nuke Lichtenberkek Kaledonia Berriko hizkuntzen GIVEren gramatikalizazioaz (1985) eta Aikhenvaldek & Dixonek (2006) MAEei buruz prestatu bilduma gogoangarriarekiko nire zorra eta zirrara pizgarri eta «bihotz-espertzagarria».

¹⁸ Cf. «Thus, data from related languages and evidence for a possible linguistic universal support the analysis that the Igbo preposition *ná* (as well as the incomplete aspect marker *ná*) has evolved from a locative verb. To summarize: Locative prepositions are homophonous with Locative verbs in Ewe, Twi and Ga. The prepositions have developed historically from verbs in serial constructions. The Locative in a serial construction has lost its verb properties — it no longer takes tense-aspect and negation markers, and it no longer undergoes transformations that regularly apply to verbs — leaving us with a preposition. Yoruba and Igbo represent a later stage of a parallel historical development, where the homophonous Locative verb is no longer present» (Lord 1973: 279).

¹⁹ Bistan denez, hemen ez da aditz jokatuko batetortzerik *d-i-eza-i-on* eta antzekoetan ez benetako datiboa baizik eta berandu garatu datiboarrekoa bailitzateke, *-ki*-ren alomorfoa.

4.2. Morfemen Forma Kanonikoak lagunduriko Gramatikalizazioaren azterketa: zenbait irizpide

Horrelako gehiagoren zantzuak bilatu aurretik, komeni da Morfemen Forma Kanonikoaren bilakabideaz zenbait murriztapenen berri ematea, izan litezkeen alde bateko eta besteko batetortzeen segurtasuna ahalik eta gehien bermatu ahal izateko.

- a) Diakronikoki, ez da morfema soil gramatikalizatu bisilabo edo poli-silaborik: beraz, *-zaha* < *-za* + *-ha*; *aurrean* postposizioa; *kontra* mail-legua.
- b) Ez da CV erro lexikorik: *su* < *sur-* / *sun-*, *so* < *sor-* < *soin*, *ke* fonosinbolismoa, etab.
- c) CV morfema gramatikalizatuak CVC erro lexikoetarik datoz (edo beste CV alomorfo zaharragoetarik [*-de* > *-te*, *-di* > *-ti*, etab.]), ez CVCV, CVCVC, CVCCV, CVCCVC ...etarik (cf. [j]).
- d) Ez da CVC morfema soil (ez postposizio) gramatikalizaturik: beraz, *-gan* < *ga* + *n(V)*.
- e) $CV > V- / -V$, beraz, *e-thorr-i-ko* → *e-* < *he* (< **her*); *-i* < **ni* (< **nin*).
- f) $**C- / -C < CV$ (beraz, *-(t)z* < **za* ?)
- g) $**VC- / -VC < CV-CV$: *-ak* < **ha-ga*; bada VC- (**ar-dan-*; cf. *jar-dun...*) baina aditzean bere ‘hedaduretarik’ (cf. Lakarra 2018 eta prest.-b) eta Izenean CVC- > VC erorketetarik (*ostegun* < **bortz-egun*, etab.)
- h) $-rV < r + V$ («epentesiaren» berranalisia, cf. GEN, DAT, ALAT.). Beraz, partitiboko *-rik* ez dator **lin-etik* eta ez ablatibotik (lehen ere *-e* falta, cf. ergatiboa eta gainerako leku-kasuak; ik. Lakarra prest.-a).
- i) Ez da CVV-rik GP-etan eta ezta VV GS-etan. Beste argudio bat AEz diptongoak falta zirela eta CVC hertsia onartzeko ($**CVVC$).
- j) Bereiztekoak dira postposizioak eta atzizkiak, konposizioak, izen inkorporazioak eta gainerakoak:
 1. *-gan* postposizio izan liteke baina ez atzizki; id *-dun*, *-din* (cf. [d])
 2. Postposizioak: Gramatikalizazio gutxiko bisilaboak + sintaxia [genitiboa] (*aurrean*, *aitzitik*, *kontrara*, *buru*, *gibel...*).
 3. Inkorporazioa (konposizioa): *-dun*, *-din* (CVC).

Hauen zenbait iruzkin eta garapenerako ikus Lakarra 2016 eta 2018.

4.3. Kasu Markak ISn eta Aditz Jokatu

So arin batean, hainbat gehiago dira ISn eta ASn aurki ditzakegun «hospidetasunak»:

ALAT <i>-a / -t</i>	:	IMPERF <i>da-</i> , 1SG.DAT-ERG <i>-da/-t</i>
<i>Lurr-e-ta-r-a</i>		<i>da-tor, damin-da, du-t / da / da-ki, *e-da-kin > jakin</i>
<i>Bat-e-r-a</i> , ²⁰ <i>Zarautz-a</i>		
MOD <i>-la</i> ²¹	:	SUBJ. <i>-la</i> ²²
<i>Hon-e-la, no-la</i>		<i>Deza-la</i>
DAT <i>-i</i> , PART <i>-i(ka)</i>	:	DAT <i>i-</i> , INFIN. <i>-i</i> ²³
<i>Lurr-i</i>		<i>d-i-raki, i-rakats, e-torr-i</i>
GEN. <i>-e</i> , ²⁴ <i>-en</i>	:	BENEF <i>e-</i> .
<i>Lurr-en</i>		<i>d-e-gion</i>
<i>En-e, neur-e</i>		<i>d-e-roat</i>
TERM. <i>-no</i> ²⁵	:	TERM. <i>-no</i>
<i>Lurr-e-ra-ino</i>	:	<i>de-ino,</i>
INSTR <i>-(e)z</i>	:	INSTR <i>-(e)z</i>
<i>Lurr-ez</i>	:	<i>dioen-ez</i>
BENEF <i>-(en)tza-t</i>	:	SUB. HELB <i>-tza-t</i>
<i>Lurr-en-tzat</i>	:	<i>dadin-tzat, den-tzat,</i>

²⁰ Hemen garatzerik ez badugu ere, gauza ezaguna da kasu lokatiboetako *-ta-* berrikuntza dela eta, beraz, ez dauka kognadorik kasu honetan aditzean.

²¹ Ik. §4.1A.

²² Ik. §4.1A.

²³ «A dative indicates activity directed towards a goal, so it is appropriate for an aspect that marks ‘incomplete actions in the present, including present continuous actions [and]... actions in the past where the speaker wishes to emphasise purposiveness or goal orientation’ (Kennedy 1984: 160). The infinitives of some languages derive from the reinterpretation of case-marked verbs...» (Blake 1997: 183). **nin* erroitik *-i* GS erregularra litzateke eta ezagutzen dudan beste edozein aukera baino hobea. Cf. Haspelmathen lana (1989) purposive > infinitive bilakabidearen unibersaltasunaz.

²⁴ Akitanierazko inskripzio botiboetako *-(h)e* ez da datiboa esan izan den bezala, «genitibo benefaktiboa» baizik; orobat ekialdeko *Urkhabea ohoinen, Puten Bordele*, etab.; bide-nabar, inskripzio mota horietan benefaktiboa datiboa baino gutxiago bada ere arrunt erabilia da. Cf. Lakarra (prest.-b).

²⁵ de Rijk-ek (1992) *-ra* + *-gino* zatitzen zuen baina (2008b)-n esan bezala hobe genuke *-ra* + *-(d)in-* + *-no*, analizatzea, *-g-* hori beste askotan bezala *-D-* > \emptyset ondoko \emptyset > C hiatohauslea dugularik. Anlisi hori MA sistemara «itzuliaz», **dar* + **din* + **non* (TO SIT + TO COME + TO GO TO) genuke, «UNTIL»-ekin beste hainbat hizkuntzatan legez. Ikus beherago §5.3.

INES <i>-n</i>	:	IRAG <i>-n</i>
<i>Bat-e-n</i>	:	<i>zigu-n, ze-n</i>
	:	SUBJ. HELB <i>-n</i>
		<i>Den</i>
PROS, ADJ <i>-ti, -ti (-di)</i>	:	FUT.ARK <i>-di,</i>
<i>Lurr-e-ti(ka)</i>		<i>dai-di, lei-di</i>
SOZ <i>-ki, -kin, -kila</i>	:	AURREDAT <i>-ki-</i>
<i>Lurr-e-ki(n/la/ø)</i>		<i>dator-ki-o</i>
ADLAG MOD. <i>-ki</i>	:	
<i>Eder-ki</i>		

4.4. ISko beste marka batzuk aditzean errepikatuenak

<i>PL1 -de/-te</i>	:	<i>PLURAK-1²⁶ -de/-te/-e</i>
<i>Elur-te, su-te</i>		<i>dau-de, du-te, du-e</i>
<i>PL2 -tza/-tze</i>	:	<i>PLURAK-2 -z(a), -tza</i>
<i>Elur-tza,</i>		<i>Dakar-tza, dabil-tza, dago-z</i>
<i>-e</i> ‘epentesia’	:	<i>e</i> ‘aurrizki iluna’ ²⁷
<i>Lurr-e-ko</i>		<i>e-torr-i</i>
<i>-xe</i> ‘txikigarria’, ²⁸	:	<i>-xe</i> ‘txikigarria’,
‘intensiboa’		‘intensiboa’
<i>Hau-xe</i>		<i>dugun-xe</i>
<i>Ama-xe</i>		
<i>-ago</i> ‘konparatibo erlat.’	:	<i>-ago</i> ‘konparatibo erlat.’ ²⁹
<i>Ederr-ago</i>		<i>gorritzen-ago</i>

²⁶ Hau eta hurrengoa MA ezagunak dira, **eden* ‘FINISH’ eta *-zan* ‘TO BE’; cf. Lakarra 2022, Zavala 2006ko olutekaren paraleloekin.

²⁷ Cf. Lakarra prestatzen-b.

²⁸ Zalantzarik gabe *seinen* gramatikalizazioa beste hainbat hizkuntzatan bezala; cf. «A diminutive suffix *-zā* has transparently grammaticalized [Ao hizkuntzan] from the relational noun *tə-zā* ‘RL-child’ [< Proto-Tibeto-Burman **za*], which is no longer used independently as a lexical noun, but still occurs in an elaborate expression *tā-zā tā-nū* (RL-child + RL-child) ‘children’. It is fully grammaticalized, occurring on both animate and inanimate nouns» (Coupe 2016: 28). Adibide eta hizkuntza gehiago Kuteva *et al.* (2019: s.u.). Euskarazko «intensifikatzaile» adiera ez dator azken bilduman eta bai beste pare bat guretzat urrun dirudite-nak: «classifier» eta «partitive».

²⁹ Soilik aditz jokatu gabeetan.

<i>-txo, -txu</i> ‘txikigarria’ <i>Ume-txo</i>	:	<i>-txo, -txu</i> ‘txikigarria’ ³⁰ <i>dugun-txo</i>
<i>-ba</i> ‘ahaidet.’ <i>Osa-ba,</i>	:	<i>ba-</i> ‘baldin.’ / ‘baiezt.’ <i>ba-litz / ba-dator</i>
<i>-le</i> ‘egile’ <i>Er-le, entzu-le</i>	:	<i>le-</i> ‘ahalera, irrealis’ <i>le-karke</i>
<i>-ke, -ge, -ka, -ga</i> ‘gabe’ ³¹ <i>Eske-ge, ba-ge,</i>	:	<i>-ke</i> ‘irrealis’ <i>du-ke</i>

5. MARKEN JATORRIAZ ETA MAEZ

It appears that this pattern of evolution from verb to preposition in serial verb constructions may represent a valid generalization about human language. (Lord 1973: 293)

5.1. MAE Kasu Marketan: beste hizkuntza batzutan eta euskararen historiaurrean

Duela urte batzuk (2008a) erakutsi nahi izan nuen euskaraz ere noizbait izan zitezkeela «multzo-aditzak» (*serial verbs*) deitu egiturak eta oraindik ere eskura ditzakegula horietako batzuen arrastoak. Lehentasuna, beste gauza askotan bezala, Traskek zuen (1977), nahiz gero ez garatu eta are atzera ere egin 1997ko liburuan eta hurrengo urteko artikuluan:

Be all this as it may [*-ki-* datibo-aurrekoaz ari da, baina gauza bera esan zezakeen ahazten duen *da-tor-ez*], it can hardly be doubted that the history just sketched is correct in its essentials, and we can therefore get a glimpse of an important part of the development of the extraordinarily rich verbal morphology of Basque. We still, however, have little idea what the origin of these morphs might have been: if they were either *adpositions* or *serial verbs*, the order of elements is absolutely out of line with the *postpositional* and *verb-final syntax* of the language. (Trask 1977; etzana gurea [JAL])

Zorigaitzez, ideia hauek ez dira geroztik garatu, MAEi dagokienez behintzat, eta Traskek berak 1997ko «very speculative» gisa baino ez ditu aipatzen gramatikazko atalaren akabuko sintesian.

³⁰ Hau eta aurreko bi kasuez Aikhenvaldek sanskritoan, latin berankorreetan edo tarianan (Amazonia) ere Australiatik kanpo gertatzen direla markatzen du (2008: 567-568).

³¹ Hemen gehitu behar da bibliografian aurkitzen ez dudana *ge-* aurrizkia ere; cf. *gezur/gizur/guzur, geza, geheli*, etab. (Lakarra prest.-c).

Egitura horiek Afrika Mendebaleko, Ginea Berriko, Asia Hego-Ekialdeko eta Ozeaniako hizkuntzetakotzat jotzera ohituak gara —cf. Blake 1997: 165),³² ez, aldiz, Europako hizkuntzetako, nahiz uste horiek aldatuaz joan diren oso bestelako aurkikuntza ugarien aurrean. Funtsean, ebento bakarra gauzatzen duen komuntzadura edo syntaxizko marka gabeko (DAM nahiz pertsona nahiz bestelakoak) aditz:³³

A serial verb construction (SVC) is a sequence of verbs which act together as a single predicate, without any overt marker of coordination, subordination, or syntactic dependency of any other sort. Serial verb constructions describe what is conceptualized as a single event. They are monoclausal; their intonational properties are the same as those of a monoverbal clause, and they have just one tense, aspect, and polarity value. SVCs may also share core and other arguments. Each component of an SVC must be able to occur on its own. Within an SVC, the individual verbs may have same, or different, transitivity values. (Aikhenvald 2006: 1)

Izan ere, hizkuntza ez-isolatzaileetan —edota hizkuntza isolatzaile izandakoetan ondoko garairen batean— MAE asimetrikoetako aditz txikiek morfologia lotu eta konplexua sortu ohi dute eta, horrenbestez, usu lexikalizazioaren bidez aditzok eta jatorrizko MAEk eraldatzen eta desagertzen.

In summary: we can posit two opposite tendencies for the two types of SVCs. The minor verbs in asymmetrical verbs tend to become grammatical morphemes, losing their verbal status. This process is pervasive in some languages, exemplified in this volume by Ewe and, to a large extent, Toqabaqita (also see Aikhenvald forthcoming, on Manambu). As a result of this ‘grammaticalizing’ tendency, there may be no asymmetrical SVCs synchronically. We will see in § 6 that, historically speaking, languages develop asymmetrical SVCs prior to symmetrical. *But this does not mean that languages keep both intact.* (Aikhenvald 2006: 34; etzana gurea [JAL])³⁴

³² Atal hasierako Lorden bidetik, «There are also similar developments in a wide variety of languages involving verb forms morphologically marked as non-finite» eransten du segidan, hizkuntza indoeuroparrak, dravidikoak, etab. bilduaz.

³³ Euskararen historiaurrean horrelakorik bazela erakusteko 2008ko lan horretan eskutada bat ere bildu nuen eta ikus Lakarra 2013 eta 2018 ere.

³⁴ Hara Campbellek (1998) bildu gramatikalizazio-bilakabideetarik erakusgarritzat hartutako lehen dozenaren gailurra: (1) auxiliary < main verb; (2) case suffixes < postpositions; (3) *case marking* < *serial verbs*; (4) causatives < causal verb (‘make, have, get, cause, force’) + clause with another verb; (5) complementizer subordinate conjunction < ‘say’; (6) coordinate conjunction (‘and’) < ‘with’; (7) copula (‘to be’) < positional verbs ‘stand’, ‘sit’ or ‘give’, ‘exist’ (Spanish *estar* ‘to be’ < Latin *stare* ‘to stand’, Spanish *ser* ‘to be’; Quechua dialects *tiya-* ‘to be’ < **tiya-* ‘to sit’); (8) dative case marker < ‘give’; (9) definite article < demonstrative pronoun; (10) direct object case markers < locatives or prepositions (for example, a dative marker has become an accusative marker in Spanish, Kwa, Bemba and so on); (11) durative, habitual, iterative < ‘stay’; durative aspect < ‘remain’, stay, keep, sit’; (12) ergative < passive (only one of several sources of ergative marking)... (etzana gurea [JAL])

Beste hainbat hizkuntzatan legez, Kasu markak MAEetarik bide zetozen: ez dirudi halabeharra Blaken liburu klasikoko «Life cycle of case systems» kapitulua honela hastea:

It is generally recognized that in the historical development of language grammatical forms develop from lexical forms and bound forms from free forms. There are two common lexical sources for case markers, *one verbal and the other nominal, of which the verbal is probably the more fruitful.* (1997: 163; etzana gurea [JAL])

Eta handik hurbil (164) «these constructions are usually described as serial verb constructions» zehazten du. Honelakoak, izatekotan, euskara historikoan ezagunen dugun sistemaren antipodetan direla esango luke edozeinek (cf. Trask 1998, lan akabuan aipatua); ez naiz, ordea, azken 500 edo, agian, azken 1000 urteotako aditzaren egituraz ari. Euskarak tipologikoki hurbilago dituen hainbat hizkuntzatan —eransleetan zein eransletarako bidean izan litezkeen munda austroasiatikoetan, halaber tani tibeto-burma hizkuntzetan, orobat Ameriketako hainbat hizkuntza polisintetikotan— aurkitu izan dira delako MA egiturok. Hara, esaterako, lakotaren lekukotasuna:

Assuming that Lakota postpositions originate in serial verbs is helpful in explain this form-meaning correlation. A well-known corollary of the grammaticalization of serial verbs into postpositions is that the verbs gradually lose their verbal trappings, such as compatibility with person affixes (Heine, Claudi and Hünemeyer 1991 and Lord 1993). If the postpositional paradigm of person affixes (...) is interpreted as a relic of an obsolete verbal paradigm, the division of Lakota postpositions into two formal classes on the basis of their compatibility with direct affixation appears far less arbitrary. The younger, semantically less-bleached elements still retain the remnants of an earlier verbal person-marking, while the older, more desemanticized postpositions have already lost their inflections' potential. (Pustet 2000: 180)

Antzera, Givonek uto-azteka hizkuntza (polisintetikoez): «In the Uto-Aztecan language Ute, all locative case markers originate from historically still traceable precursor verbs which have turned into noun suffixes, no longer carrying any discernible residue of verbal properties» (*apud* Heine 2011: 462).³⁵

³⁵ Hemen aztertzerik ez dugun arren, oso zirrargarri gertatzen da txadikoaren loka-tiboari buruzko bere lan baten azken ondorio bezala Frajzyngierrek dakarren paragrafoa: «An important implication of the study is that different elements of grammatical structure constitute a system in which the properties of one element motivate the existence of another element. The fact that prepositions are not marking direction motivates the existence of serial verb constructions and verbal extensions, or alternatively, the existence of serial verb constructions and verbal extensions motivates the limited function of preposition» (1987: 176). Orobat de Reuseren (2006: 317) lanaren amaiera: «My hypothesis is that the very heavily polysynthetic languages are not going to need verb serialization

5.2. MAE Aditz Jokatueta: hainbat hizkuntzatako paraleloak

Hainbat hizkuntzak multzo-aditzak «loditzeko» joera izan ohi du, gero MAE horiek ezabatzen direlarik, dela lexikora igaro diren multzo-aditz simetrikoen, dela —batez ere— gramatikalizazioa pairatu ohi duten asimetrikoen bitartez.

Givonek (1971a) lehenik markatu legez, MA egituren gramatikalizazio-garapen usukoa da aditz zati bilakatzea hizkuntza bantuetan; ondoren hainbat ikertzailek erakutsi du bilakabide bera enparauko hizkuntzetan:

A variety of converging phonological, morphological, morphotactic, syntactic and semantic criteria all seem to point in the very same direction: While the core-Bantu T-A-M prefixes are relatively young, vigorous and still being replenished and enriched from the universal diachronic source--modal-aspectual verbs governing verbal complements, the core-Bantu modal-aspectual suffixes bear the unmistakable marks of a much older grammaticalization layer, highly decayed and on its way to extinction (...).

There is one more striking difference between the T-A-M prefixes and suffixes of core-Bantu: The former conform to the current VO, V-COMP syntax of the entire sub-family. The latter —assuming they are of verbal origin— conform to the grammaticalization pattern of OV, COMP-V syntax (...).

The only coherent way of resolving this conflict is to assume that the old modal-aspectual suffixes were dragged into the verbal paradigm by the suffixal verb extensions—provided of course that those were themselves of *verbal origin*. (1971a: 5)³⁶

Bada antzekorik —nahiz eta AS-ko atzizkiekin— tani hizkuntzetan ere, monosilabismotik bisilabismorako deribaren barnean:

Of the 1000-plus derivational verb suffixes attested (...) for Galo and (...) for Mising, between 40-60% can be easily traced to lexical roots (*almost always verb roots*) with the same segmental phonology and underlying tone (...) Derivational verb suffixes frequently retain many of the semantic characteristics of their lexical source forms, but deploy these productively in the more generalised service of grammatical functions. (...) *There is every possibility that the pan-Tani system of derivational verb suffixes originated historically in verb serialisation*. (Post 2006: 57-58; etzanak gureak [JAL])

much, since its functions can be carried out by affixation»; Cf. Lakarra prest-a; tani hizkuntzez ikus Post testuan.

³⁶ Hara Coupe Aoaren (tibeto-burmera) aditzaz: «Lexical suffixes: -A considerable number of suffixes expressing lexically oriented adverbial meanings are found to occur in the verb complex adjacent to the root; -This 'lexical suffix zone' is arguably the most important conduit for the grammaticalization of new verbal suffixes; -The vast majority of the lexical suffixes have related forms that are used to express similar meanings in their functions as main verbs; -This is highly suggestive of a verbal origin for all the members of this verbal category». (2016: 31)

Markagarria da Posten lanaren «historical source of derivational verb suffixes» atalean irakurtzen dugun hori eta ez gutxiago ondorio horrexetara daraman aldamenekoa: «It is interesting to note, then, that the serial verbs common to the morphosyllabic languages of Mainland Southeast Asia do this too (Matisoff 1969). Indeed, many of the functions of Tani derivational suffixes recall those of post-head serial verbs in languages like Lahu, Thai and Chinese».

Baina tani familiak hizkuntza morfosilabiko izatetik eransletasunerantz duen deriba interesgarria bada gurearena ikertzeko, olutec hizkuntza mayaren lekukotasuna ere ez da oharkabean igarotzekoa hizkuntzaren egitura polisintetikoagatik eta baita euskarazko Aditz Pluralgileen jatorria argitzeko emandako laguntzagatik (ik. Lakarra 2022 eta hemen §11):

This chapter has shown that the polysynthetic nature of the Olutec complex verb is due in part to the process of grammaticalization of various roots that once were serialized verbs. That is, root serialization was the source from which various verbal bound affixes has evolved. Among these are: valence operators; aspect, modality and aktionsart markers; directional markers; verbal classifier; and plural markers for third and first person. The verbal origin of other affixes whose sources are not synchronic verbal roots in the language can be determined through comparative analysis and distributional facts. (Zavala 2006: 298)

Atala ixteko, zer hoberik Bakerrek, beti bezain argi, oso bestelako eredu batetik abiatuaz ematen duen azalpena baino? (MAEn aditzerako bidea, alegia):

Many people have observed that notions which are expressed by Serial Verb Constructions (SVCs) in the Kwa languages of West Africa correspond to a large degree to those which are expressed by derivational verb morphology in the Bantu languages of East Africa (...) Givon (1971b) argued in a generative semantics framework that Bantu and Kwa have similar underlying structures; the difference between the two was that ‘predicate raising’ takes place in Bantu not in Twa. I will argue that this insight, in an updated Government-Binding theory version, is essentially correct. (Baker 1991: 79-81)

Eta bere ondorioa, beste edozein eredutan ere baliagarri gertatzeko modukoa:

(...) We have seen that Bantu applicatives can be understood as having the same underlying structures and theta role assignment relationships as SVCs in Kwa, the only difference being that certain elements are affixes rather than independent verb roots. (...) This case study supports the idea that there is more than a functional similarity between serialization and affixation constructions. Indeed, the two types of constructions share the same formal syntactic skeleton as well —a skeleton determined by Theta theory and the Projection Principle. (Baker 1991: 99)

5.3. MAEak Euskal aditz jokatuaren historiaurrean: zenbait arrasto

Euskara historikoaren eta historiaurrekoaren morfologia MAEren laguntzarekin bidez aztertuz, etimologia eta azalpen haboro lortzen dugu, emaitzak bat datozelako enparauko hizkuntzetan horien garapenez dakigunarekin (edo *viceversa*).³⁷ Areago dena, zenbait partikula (*eta*) eta egitura zaharren azalpena ere aurkitu ahal izan dugu («X-ekin Y = X eta Y» [*Beragaz Presebalen kaltean* ‘Beraren eta Presebalen kaltean’, etab]; cf. Lakarra 2008b, 2018). Alabaina, ez dugu azterketa hori aditz sintetikoaren eremura eramanez, nahiz hauen iraganaz oinarritzeko berrikuntzarik izan den, batez ere ikusi delarik aditz jokatuak AEtik bertatik dela klase itxia eta ez latin eta erromantzeen eragin gaiztoaren ondotik eta horren «erruz» (cf. Lakarra 2007, 2008a).³⁸

Seguruenik, azken ezaugarri hau bai MAE asimetrikoekin lotua bide da eta baita gorago, Givon aipatuaz, gogoratu dugun MAEek aditz zati gisa gramatikalizatzeko duten joerarekin.³⁹ Alabaina, orain arte jorratutakoaren ondoren, ez bide zaigu harrigarriegi gertatuko hainbat MAE aurkitzea euskal aditzien egiturari:

- | | |
|--|------------------------------------|
| a. da - TOR | h. da - ra - BIL - z - ki - o - zu |
| b. da - TOR - ki - zu | i. d(a)-e-GI-o-n |
| c.1. da - TO(R) - z(a) / c.2. da - BIL - (t)za | j.1. g(u)-(d)en-TO(R)-z(a)-en / |
| d.1. da - TO(R) - z(a) / d.2. da - BIL - z - ki - zu | j.2. n(i)-(d)en-KARR-en |
| e. da - ra - BIL - z - ki - zu | k. le-KI-gu-ke |
| f.1. da - KAR - te / f.2. da - KAR -tza - te | l.1. da-I-di / l.2. le-I-di |
| g.1. da-KAR-ki-o / g.2. da-KAR-z-ki-o-te | ... |

³⁷ Alabaina, ez dugu MAE simetrikoren arrastorik aurkitu, baina hau ez da harritzeko, horrela gertatzen baita, (cf. Aikhenvald 2006) asimetriko mordoa duten hizkuntzetan ere.

³⁸ Hara bestetan ere aipatu dudana pasarteak aditz urriko hizkuntzeak:

In most of the world’s languages verb roots comprise an open class. There are, however, some languages that have a small, closed class of verb roots and, furthermore, lack processes for deriving new, morphologically complex verb bases. (...) We compare verbs and complex predicates in three unrelated languages —one with an open verb class (English) and two with small, closed classes of verb roots that occur as independent verbs and inflecting for subject person-and-number and tense, aspect and mood, one from north central Australia and one from the Trans New Guinea family.

In northern Australia many languages have a closed class of inflecting verbs. Some languages have as few as five to a dozen such verbs, others up to about 250. Jaminjung represents a type in which most inflecting verbs function as independent verbs and have not been strongly grammaticised (Schultze-Berndt 2000). In New Guinea a number of languages of the Trans New Guinea family have between 60 and 150 inflecting verbs (...). Kalam, which has about 130 verb roots, is the best described (...)

Jaminjung and Kalam both make up for their paucity of verb roots by having large, open classes of complex predicates (Pawley 2006, apud Lakarra 2006a: 612).

³⁹ Izan ere, badirudi askoz gehiago arduratu garelako edo gehiago dakigula «Izen Ordainen» (komunztadura marken) jatorriaz edo bilakabideaz (cf. Trask, Gómez eta aurreko bibliografia) TAMeko osagaienaz baino, Traskek (1977) ohar interesgarriak utzi arren *b-*, *d-*, *l-*, *z-*, *ø-* «modalez». Falta da gramatikalizazioaren ikuspegitik (eta diakroniatik) garatutako lan zabalagoren bat ASP, DENB, modu eta ebidentzialei buruz.

Behako bat eman diegu hedatuen eta ezagunen diren MAEn arrastoei, bereizi gabe ISko kasuekiko batetortzeak eta gainerakoak. Hasikinak baino ez dakartzagun arren, hor dira lehen aipatu **dar* ‘SIT’ (ALAT./ASP burutugabea) [a, b, etab.], edo *kin* ‘Aditz Komitatiboaz’ landa (b, e, etab.), **non* ‘COME’, **lon* KAUSATIBOA (e, h), **den* ‘FINISH’ ‘burutua’, Aditz Pluralgileetako *zan* (f1, h) eta *-del-te*, (f1, f2, g) (hauetaz ik. Lakarra 2022), 3pDATEko **bon* [h, i] (Lakarra 2019), **din* FUT urrunekoa [11, 12], etab. Zailantzekoa da guztiak sinkronikoki funtzionalak izan zitezkeen —nahiz Dixonek (2006) eta bestek 3 eta 4 osagaitako MAEko hizkuntzak deskribatu eta are gehiagokoak ere izan, urri bada ere— eta bai garai ezberdinetan garatuak eta fosilduak. Alabaina, batera nahiz bestera MAE asko eta berandu arte luzatu zirela pentsa liteke, agian Erdiaroan ere barneratu zirelarik: *ra-* kausatibo sintetikoa **lon* errotik (eta hau **edon* ‘kendu, bota, pilatu’-tik) baldin badator, bai *-o* > *-a* aldaketagatik eta ez gutxiago *-l-* > *-r* kontuan hartuaz, argiro akitaniera ondoko eta are milurteko erdi bat honagoko behar luke izan.⁴⁰

6. BEHIN-BEHINEKO ONDORIOAK

Ulertzekoa denez, funtsean fonologiara mugatu den paradigma diakroniko klasikoak ez du ekarri morfologia diakronikoan hanbesteko aurrerapenik. Analisi sakonak ez eze oinarritzko datuak ere azterkizun eta are jakinkizun baitira, ia nonahi. Hemen horietako bati lotu gatzaizkio —alegia, euskaraz historikoki, ISko kasu-markatzat hartu ohi diren morfemak errepikatzen direla, ez soilik aditz jokatugabeetan baina aditz jokatuan ere. Ezagutza hori bistartzeko ia ezinbesteko izan zaigu antipodetako hizkuntzetara jo eta ohartzea han bezalatsu euskaraz ere aipatu era honetako batetortze ugari gertatzen direla, nahiz usu hainbat morfo eta alomorfo, beren arkaikotasunaren erakusgarri, *fase sparitan* edo dagoeneko funtziogabetuak izan.⁴¹

Gure antipodetan batetortze horiek ISTik ASrako hedaduratzat azaldu badira ere usuenik, ezin ahantz liteke ISko kasu marka gehienak MAEetatik jalgi zirela gurean ere munduko hainbat hizkuntzatan legez eta, beraz, ez dela ezinbesteko MA → IS-KM → AdJok-KM bide osoa ibil dezaten marka horiek oro, MAEn berezko baitute aditz-zati bilakatzea, —bantuan, tania, olutekean eta beste ezagun zaharretan bezala—, batez ere DAM, ebidentzial

⁴⁰ Euskara Batu Zaharraz ikus Mitxelena (1981), Lakarra (2014), Urrestarazu (2021), Zu-
loaga (2020, 2022).

⁴¹ Duela 15 urteko lanetarik (Lakarra 2007, 2008a) argi utzi nuelakoan nago eta baita ondoren gaiaz laburrenik delarik ere aritu naizen guztietan (cf. Lakarra 2018n ere) errepikatu izan dut nire zorra australian eta austronesistekin hemen ukitutako gaiekin hurbiletik lotua den klase itxiko aditzarenari dagokionez, hots, euskarak ez historikoki 70-75 aditz erro soil jokatu baina benetan bi dozena edo zitueta markatuaz, hedadura eta eratorpenak saihestuaz (cf. Lakarra prest-a) eta, nolnahi ere, inguruetako hizkuntzekin erkatuaz urritasun markagarri eta ezin ezkutatzekoa, Astarloa eta ondokoan amarruak gora behera.

eta oinarrizko beste marka askotan.⁴² Haatik, IS → AS frogak ez dira falta, batez ere postposizioetan, bereziki, Erlazio Izenetan eta beste zenbaitetan. IS → AS hedadura asko edo gramatikalizazio kate beraren bi adartzat hartuaz (SIT *dar* → BUR.GA. *da-*, ALAT. **-da* (> *-a*, *-t*) ez genuke fonologikoki nahiz morfologikoki azalduzin diren mugimenduen beharrik. Hauek ez dira, ordea, orain eta hemen erabakitzeak.

ISko eta ASko marken batetortze honek eta bien jatorririk egiantzekoenak, MAEren aldeko froga erantsiak ditugu AErako eta —ohi bezala MAE simetrikoekin— mendeak joan, mendeak etorri, gramatikalizazioak eta lexikalizazioak aurrera egitean egitura horiek zeharo aldatu eta galdu diren arren —ez, ordea, haien aztarna garbi guztiak—,⁴³ erakusten dute noizbait bazirela eta are gramatikaren alderdi garrantzitsu ere bagenituela. Izan ere, fosildu aurretik hor ziren MAE egiturak aditz jokatu sintetiko urriak⁴⁴ osatzen eta haien hedadura (DAM) bilakatuaz. Oraindik ere DAME⁴⁵ aspektu marka ugariek lehengo MAE horien lekukotasuna ematen digute: *da-*, *ra-*, *-di*, *-te* / *-ke*, *-(d)en*, *-ki*, *-(t)z(a)* / *-(t)z(e)*, *-del-te*, etab. Bada, azkenik, aditz jokatuaren (eta ISko kasu marken!) kronologia erlatiboa aberastera datorren daturik, bereziki hondar bi hamarkadatan edo aldarrikatu dugun horien berankortasuna jokatu gabeen aurrean. Orobat, baliteke Morfemen Forma Kanonikoak, Multzo-Aditz Egiturak eta gramatikalizazio bilakabidea kontuan izanik artean segurutzat genituen azalpentzakoak eta adizki zenbaiten formaz (eta, beharbada, ISko kasu markez) esandakoak aldatu edo zehaztu beharra ere.⁴⁶

Euskararen kasu markak gehituaz eta lodituaz (edota hedatuaz eta ugaltuaz)⁴⁷ joan dira (§1) gainerako hizkuntza eransle anitzetan bezala, deklin-

⁴² Gogora bedi Aikhenvaldek «polyfunctional», «chameleon» eta «versatil» deitzen dituela, agian hemen zeharka aipatzen dudan eztabaida sakonean ez sartzeko.

⁴³ Gogora bedi usu aipatu Mitxelenaren *Lenguas y Protolenguas*en hasierako paragrafoa: «Edozein hizkuntza, bere alderdi diakronikotik begiraturik, bere iraganaz, bere aurreko garaiekin (...) hainbat informazio gordetzen duen sistema da. Zeinahi hizkuntz egoera sistema antolatua da eta bere antolamendu horregatik beragatik denboraren joanak ilun eta irakurtezin bilakatu-tako mezua gorde ohi du» (1963: 11).

⁴⁴ Gertakari hau markatu zen duela 15 bat urte eta baita beren gehienezko kopurua «OEHko 200ekin» lotu ere; orain (cf. Lakarra prest.-b) horren zergati egiantzekoagoa izan ahal genezake.

⁴⁵ -E = ebentuala (*omen*, *ei*, *ote*); hauek euskaraz ez dira beste hizkuntza batzuetan bezain lotuak eta inolaz ere ez beste hiru kategorietakoak adina euskararen bertan (ik. Lakarra 2019 horien alderdi diakronikoaz; sinkronikoez egoera asko hobetu da azken urteotan).

⁴⁶ Amaitu berri dugu Borja Ariztimuñoren tesia aditz arkaikoaz eta bere berreraiketaz, zeinetan hemen ukitu eta ukitzeke utzi alderdi batez baino gehiagoz argi berririk izango bide dugun. Lafonen lan klasikoaz (1943) geroz, ik. Mounle (2018) eta Zulaika (1999).

⁴⁷ Izenordain eta deiktikoetan ere, zail bai baina ez dirudi ezinezko denik gramatikalizazioa (bereziki mugimendu aditzetarik), *pace* Manterola eta Diessen; cf. Frajzyngier (2002) txadikotik eta Heine *et al.* (2020) tipologia orokorretik, «froga ex silentio» edo «ex impossibilia» argudio guztiak sunsitzeko modukoak. Euskarazkoren bat edo beste aipatu dut lehenago eta noizbait berriro itzuli nahi nuke gaira.

nabide garbia (latina eta bere ahaide gehienak, adib.), edo erdi-garbia zutenak (hots, kasuak gehi postposizioak, tokarierak legez), ez bezala. Kasu marka horiek, definizioz, Izenean edo Izen Sintagman kokatu ohi diren arren, aditz jokatu gabean eta —askoz bakanago, noski—, aditz jokatuan ere aurki daitezke, Australiako hainbat hizkuntzatan lehenik (§2) eta gero Asia Ekialdeko eta Ameriketako beste hainbeste.

Batetortzeak (osokoak edo alomorfikoak) izen eta aditzen artean sistematikoak eta ugariak dira hizkuntza horietako bakoitzean eta errepikatzen dira haien familietako enparauetan (§3), hainbat non, ageriki, homofonia eta halabehararen aukera hutsaren hurrengo den eta sakoneko ezaugarri edo gertakari garrantzitsuren baten adierazletzat hartu beharra ezinbesteko. Kasu markak nahiz adizki jokatu eta nahiz aditz erro soiletan koka litezke esaldi lokailuak eta esaldi nagusiko Aspektu eta Modu kategoriak osa ditzakete.

IS eta Ad. Jokatu gabeen arteko batetortze ugari, aspalditik ezagun diren arren, oraintsuago baino ez dira aurkitu zenbait kide ISko kasu marken eta Aditz jokatu arteko antzekorik (§4). Honelako gehiagoren bila saio arin bat egin baino lehen aurrekari zenbait (§4.1) eta azken hamarkadako lanetan (§4.2) garatu Morfemen Forma Kanonikoaren bilakabidearen zenbait alderdi azaltzen da laburki, aipatu batetortzeen segurtasuna ahal den neurrian areagotzeko asmoz. §§4.3-4.4 dira lan honen muina eta bertan ISko hamar bat kasu eta ia beste hainbeste partikula Aditz Jokatu errepi katzen direla erakutsi dugu, nahiz, beharbada, zifra hauek aldaketarik izan dezaketen etorkizuneko azterketa zabalagoen bidez.

§5ean Kasu marken jatorriaz eta MAEz ari gara: §5.1ean MAE aitzi-neuskaraz enparauko hainbat hizkuntzatan legez bai ISko kasu gehienak eta baita hainbat postposizioen jatorri izan zirela markatzen dugu eta hori orain are argiago egiten dela ASko batetortzeekin. §5.2n Givonek eta beste MAE gramatikalizatu (eta fosilduak) Aditz Jokatu (batez ere ASP-MODU-DENB kategorietan gauzatu direla bantuan eta enparauetan eta §5.3n unibertseko ezagunen diren MAE azterketaren hasikin batzuk aurkeztu ditugu, berezi gabe ISko kasuekiko batetortzeak eta gainerakoak. Lehen begiratu baino ez den arren, kidetasun franko ugari agertu dira eta are horiek ugaltzeko bidean garelako ere esan genezake, nahiz guztiak, segurki ez ziren sinkronikoki garaikide MAE funtzioak; alabaina, batera nahiz bestera, MAEak eta haien ondorio diren kausatiboa bezalako hedaturak berandu arte luzatu zirela pentsa genezake, agian Erdiaroan bertan zenbait mende ere barneratuaz.

Amaitzeko, lan honetan oraindik asko findu eta sakondu behar diren datu eta bilakabideak aurkeztu direlakoan gaude, gramatikalizazioaren bilakabide etengabearen itsaso zabalaren tantak bailiran. Horren bitartez itxadoten dugu argudio berri eta sendoagoak bildu ahal izana, bai ukitutako MAEen eta gainerako aztergai guztien edo, gutxienez, horietako zenbaiten inguruan eta

baita beren bitartez hizkuntzaren deriba erraldoiaren alde, egitura isolatzai-
leago batetik egitura historiko eransle (ia) «perfektura» edo iritsiaz:

With its SOV word order, with its preposed complex modifiers, with its post-positions, with its periphrastic verb-forms, with its polypersonal verb agreement, with its lack of gender, of noun classes, and of verb classes, with its uniform inflection of noun phrases, and above all with its thoroughgoing ergative morphology, Basque *remains* today the most typologically distinct language in Europe west of the Caucasus. (Trask 1998: 323; etzana nirea [JAL])

BIBLIOGRAFIA

- Aikhenvald, A. Y. 2006a. Serial verb constructions in typological perspective. In Aikhenvald & Dixon (arg.), 1-68.
- Aikhenvald, A. Y. 2006b. Serial verb constructions in Tariana. In Aikhenvald & Dixon (arg.), 178-201.
- Aikhenvald, A. Y. 2008. Versatile cases, *Journal of Linguistics* (44). 565-603. <https://doi.org/10.1017/S002222670800532X>.
- Aikhenvald, A. Y. 2018. *Serial verbs*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1093/oso/9780198791263.001.0001>.
- Aikhenvald, A. Y. & R.M.W. Dixon (arg.). 2006. *Serial verb constructions. A cross-linguistic typology*. Oxford U.P. <https://worldcat.org/oclc/932560640>.
- Aikio, A. 2022. Proto-Uralic. In Bakrò-Nagy *et al.* (arg.), 3-27.
- Anderson, G. D. S. 2006. *Auxiliary Verb Constructions*. Oxford University Press. <https://worldcat.org/oclc/238807773>.
- Andrason, A. & A. Aikhenvald, 2022, «The rise and fall of Serial Verb Constructions: Preamble», *Stellenbosch Papers in Linguistics* 65, 1-9.
- Ariztimuño, B., 2023, *Euskara arkaikoko aditz sintetikoaren azterketa eta berre-raiketa*. UPV/EHUko Doktore Tesia.
- Baker, M. 1991. On the relation of serialization to verb extensions. In Lefebvre, C. (arg.), *Serial verbs: Grammatical, comparative and cognitive approaches*. John Benjamins. 79-102. <https://doi.org/10.1075/ssl.8.04bak>.
- Bakrò-Nagy, M., J. Laakso & E. Skribnik (arg.). 2022. *The Oxford Guide to the Uralic Languages*. Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oso/9780198767664.001.0001>.
- Blake, B. J. 1993. Verb affixes from case markers. *La Trobe Working Papers in Linguistics* (6) 33-58. <http://arrow.latrobe.edu.au:8080/vital/access/services/Download/latrobe:33138/SOURCE1>.
- Blake, B. J. 1997. *Case*. Cambridge: Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9781139164894>.
- Blake, B. J. 1999. Nominal marking on verbs: Some Australian cases. *Word* 50, 299-317. <https://doi.org/10.1080/00437956.1999.11432490>.
- Campbell, L. 2013. *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh University Press. Lehen arg. 1998. <https://worldcat.org/oclc/920315437>.
- Coupe, A. R. 2016. On grammaticalization processes in Ao: sources, pathways, and functional extensions. *Eskuizkribua*. http://www.tufs.ac.jp/documents/english/event/2016/170209_ilcaayoushi.pdf.

- Craig, C. G. 1991. Ways to go in Rama: A case study in polygrammaticalization. In Traugott & Heine (arg.), II, 455-492.
- Craig, C. G. & K. Hale. 1988. Relational preverbs in some languages of the Americas: typological and historical perspectives. *Language* 64. 312-344. <https://doi.org/10.2307/415436>.
- Diessel, H., 1999, *Demonstratives. Form, function and grammaticalization*. Benjamins: Amsterdam/Philadelphia.
- Dixon, R. M. W. 1980. *The languages of Australia*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511719714>.
- Dixon, R. M. W. 2002. *Australian languages*. Cambridge Language Surveys. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511486869>.
- Dixon, R. M. W. 2006. Serial verb constructions: Conspectus and Coda. In Aikhenvald & Dixon (arg.), 338-350.
- Donegan, P. 1993. Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer. *Linguistics in the Tibeto-Burma Area* 16. 1-43. <http://www.ling.hawaii.edu/faculty/donegan/Papers/1993rhythm.pdf>.
- Donegan, P. & D. Stampe. 2004. Rhythm and the synthetic drift of Munda. *The Yearbook of South Asian Languages & Linguistics 2004*. de Gruyter. 3-36. <https://doi.org/10.1515/9783110179897.3>.
- Durie, M. 1988. 'Verb serialisation' and 'verbal prepositions' in Oceanic languages. *Oceanic Linguistics* 27. 1-23. <https://doi.org/10.2307/3623147>.
- Frajzyngier, Z. 1986. From preposition to equational copula. Berrarg. in 2002, 233-250.
- Frajzyngier, Z. 1987. Encoding locative in Chadic. Berrarg. in 2002, 157-178.
- Frajzyngier, Z. 2002. *Studies in Chadic morphology and syntax*. Louvain: Peeters. <https://worldcat.org/oclc/51863029>.
- Frajzyngier, Z. argitaragabea. Motivations for Serial Verb Constructions. Eskuizkribua. Univ. of Colorado.
- Genetti, C. 1991. From postposition to subordinator in Newari. In Traugott & Heine (arg.), II, 227-255.
- Givon, Th. 1971a. On the verbal origin of the Bantu verbal suffixes, *Studies in African Linguistics* 2(2). <https://www.proquest.com/openview/9cb9b882c8c156f6d72f0e1611066fbb>.
- Givon, Th. 1971b. Historical syntax and synchronic morphology: An archaeologist's field trip. Berrargit. 2015, In T. Givon (arg.), *The Diachrony of Grammar*. <https://benjamins.com/catalog/z.192.01the>.
- Gómez, R. 1994. Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra. In J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Baigorri: Izpegi. 93-114. <https://worldcat.org/isbn/9782909262116>.
- Gómez, R. & K. Sainz, 1995, «On the Origin of the Finite Forms of the Basque Verb», in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & L. R. Trask (arg.), *Towards a history of Basque language*. Benjamins: Amsterdam, 235-274.
- Haspelmath, M. 1989. From purposive to infinitive – A universal path of grammaticalization. *Folia Linguistica Historica* 10. 287-310. <https://doi.org/10.1515/flih.1989.10.1-2.287>.
- Heine, B., Kuteva M. Long. H. Narrog & F. Wu, 2020, "Where do demonstratives come from?" *STUF-Language Typology and Universals* 73, 403-434.
- Hualde, J. I., J. A. Lakarra & L. Trask (arg.), 1995. *Towards a history of Basque language*. John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.131>.

- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (arg.). 2003. *The Grammar of Basque*. Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110895285>.
- Kittilä, S., J. Laakso & J. Ylikoski. 2022. Case. In Bakrò-Nagy *et al.* (arg.), 879-893.
- Kuteva, T., B. Heine, B. Hong, H. Long, H. Narrog & S. Rhee. 2019. *World Lexicon of Grammaticalization*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/9781316479704>.
- Lafon, R. 1943. *Le système du verbe basque au xvième siècle*. 2. arg. Elkar, Donostia, 1980. <http://hdl.handle.net/10690/1516>.
- Lafon, R. 1999. *Vasconiana, Iker* (11). Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/733550455>.
- Lakarra, J. A. 1996. *Refranes y Sentencias: ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia; Bizkaiko Foru Aldundia. <https://worldcat.org/oclc/432121960>.
- Lakarra, J. A. 2006. Protovasco, munda y otros. Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica. *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura* 21. Euskal-Erromantze Linguistika I. Jardunaldiak / I. Jornadas de Ling. Vasco-Románica. Eusko Ikaskuntza. 229-322. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2173189>.
- Lakarra, J. A. 2006a, Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco. In J.A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *L. Trask-i Omenaldia. Festschrift for L. Trask* (= ASJU 41(1-2)), 561-621. <https://doi.org/10.1387/asju.4416>.
- Lakarra, J. A. 2008a. Aitzineuskararen gramatizarantz (malkar eta osinetan zehar). In X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg), *Gramatika Jaietan. Omenaldia P. Goenagari*. ASJUren Gehigarriak 51. 451-490. <https://doi.org/10.1387/asju.9811>.
- Lakarra, J. A. 2008b. *Vida con/ly libertad*: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de «Urthubiako Alhaba». *ASJU* 42. 83-100. <https://doi.org/10.1387/asju.2301>.
- Lakarra, J. A. 2013. Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa diakronikoa, kronologia eta gramatikalizazioa. In R. Gómez, J. Gorrochategui, J.A. Lakarra, & C. Mounole (arg.), *K. Mitxelena Katedraren III Biltzarra* Gasteiz: UPV/EHU. 275-324. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4959607>.
- Lakarra, J. A. 2014. Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. ASJUren Gehigarriak 49. 155-241. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6460894>.
- Lakarra, J. A. 2016. Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologikoaren bide berriak. In G. Aurrekoetxea, J. M. Makazaga & P. Salaberri (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*. Leioa: UPV-EHU. 175-192.
- Lakarra, J. A. 2018. Euskararen historiaurrea. In J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Eusko Jaurilaritza: Vitoria-Gasteiz, 23-229. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7188797>.
- Lakarra, J. A. 2019. *Bon/bor-/bol-* familiaren berreraiketarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez. In A. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M.L. Oñederra irakaslearen omenez*. UPV/EHU. 377-395.
- Lakarra, J. A. 2022. Irregularitateak, supletibismoak, gramatikalizazioa: Aitzineuskarako Aditz Pluralgileen oihartzun berantiarrak. Eskuizkribua. UPV/EHU.
- Lakarra, J. A. prestatzen-a. Irregularidades radicales, fósiles y antiguas extensiones verbales vascas. Eskuizkribua. UPV/EHU.

- Lakarra, J. A. prestatzen-b. Nombres relacionales, pseudoepéntesis y preverbios: prehistoria del sistema casual y reconstrucción de la morfosintaxis protovasca. *Eskuizkribua*, UPV/EHU.
- Lakarra, J. A. prestatzen-c. *Gazi-geza* eta *gaz-en* gramatikalizazioaz. *Eskuizkribua*. UPV/EHU.
- Lakarra, J. A., J. Manterola & I. Segurola. 2019. *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)*. Euskaltzaindia: Bilbo. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehhe&Itemid=1193.
- Lichtenberk, F. 1985. Syntactic-category change in Oceanic languages. *Oceanic Linguistics* 24. 1-84. <https://doi.org/10.2307/3623063>.
- Lord, C. 1973. Serial verbs in transitions, *Studies in African Linguistics* (4)3. 269-296. <https://www.proquest.com/openview/3b5d5f63be2e110326bebd0e2facb170>.
- Lord, C. 1993. *Historical change in serial verb constructions*. John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/tsl.26>.
- Matisoff, J. A. 1991. Areal and universal dimensions of grammatization in Lahu. In Traugott & Heine (arg.), II, 383-453.
- Merlan, F. 1979. On the prehistory of some Australian verbs. *Oceanic Linguistics* 18. 33-111. <https://doi.org/10.2307/3622837>.
- Mitxelena, K. 1963. *Lenguas y protolenguas*. Salamancako Unibertsitatea. <https://worldcat.org/oclc/630638107>.
- Mitxelena, K. 1964. *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berrarg. In SHLV I, 1-73. <https://worldcat.org/oclc/432636878>.
- Mitxelena, K. 1977. *Fonética histórica vasca*, 2. arg. *ASJU*ren Gehigarriak 4. Donostia. <http://hdl.handle.net/10810/53061>.
- Mitxelena, K. 1981. Lengua común y dialectos vascos. *ASJU* 15. 291-313. Berrarg. *OC VII*. 517-543. <https://doi.org/10.1387/asju.7578>.
- Mounole, C., 2018, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*, *ASJU* 48/2.
- Pawley, A.. 2006. Where have all the verbs gone? Remarks on the organisation of languages with small, closed verb classes. *Eskuizkribua*. Rice University.
- Post, M. W. 2006. Compounding and the structure of the Tani lexicon. *Linguistics in the Tibeto-Burma Area* 29. 41-60. <https://hdl.handle.net/1959.11/19241>.
- Post, M. W. 2009. Prosodic and typological drift in Austroasiatic and Tibeto-Burman: against «Sinosphere» and «Indosphere». *42nd International Conference on Sino-Tibetan Languages and Linguistics, Chiang Mai, Thailand, Payap Univ. (2-4 Nov. 2009)*. Argitaragabea. The Cairns Institute, James Cook Univ. <https://researchonline.jcu.edu.au/24015/>.
- Pustet, R. 2000. Lakota postpositions. *International Journal of American Linguistics* 66. 157-180. <https://www.jstor.org/stable/1265660>.
- de Reuse, W. 2006. Serial verbs in Lakota (Siouan). In Aikhenvald & Dixon (arg.), 301-318.
- de Rijk, R. P. G. 1992. 'Nunc' Vasconice. *ASJU* 26(3). 695-724. Berrarg. in *De lingua uasconum. Selected writings*. *ASJU*ren Gehigarriak. Bilbo 1998. <https://doi.org/10.1387/asju.8313>.
- Saarikivi, J. 2022. The divergence of Proto-Uralic and its offspring: A descendent reconstruction. In Bakrò-Nagy *et al.* (arg.), 29-58.
- Trask, L. R. 1977. Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses. In Douglass *et al.* (arg.), *Anglo-American contributions to Basque stu-*

- dies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno, 203-217. <https://worldcat.org/oclc/850737542>.
- Trask, L. R. 1997. *The History of Basque*. Routledge. <https://worldcat.org/oclc/431732439>.
- Trask, L. R. 1998 The typological position of Basque: then and now. *Language Sciences* 20. 313-324. [http://doi.org/10.1016/S0388-0001\(98\)00006-0](http://doi.org/10.1016/S0388-0001(98)00006-0).
- Traugott, E. C. & B. Heine. 1991. Introduction. In Traugott & Heine (arg.), I, 1-14.
- Traugott, E. C. & B. Heine. 1991. *Approaches to grammaticalization*. John Benjamins, 2 lib. <https://worldcat.org/oclc/65826732>.
- Urrestarazu, I., 2021, *Gogoetak Euskara Batu Zaharraz*. UPV/EHUko MALa.
- Ylikoski, J. 2016. The origins of the western Uralic *s*-cases revisited: historiographical, functional-typological and Samoyedic perspectives. *Finnisch-Ugrische Forschungen* 63. 6-78. <https://doi.org/10.33339/fuf.86120>.
- Ylikoski, J. 2018. The so-called relation forms of nouns in South Saami: A byproduct or remnant of Uralic *-mpV?. *Finnisch-Ugrische Forschungen* 64. 6-71. <https://doi.org/10.33339/fuf.67659>.
- Ylikoski, J. 2011. A survey of the origins of directional case suffixes in European Uralic. In S. Kittilä, K. Västi & J. Ylikoski (arg.), *Case, Animacy and Semantic Roles*. Typological Studies in Language, 99. 235-280. Amsterdam: John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/tsl.99.09yli>.
- Watkins, C. 1967 [2019]. *Indo-European Grammar, Vol. III. Morphology. Part One: A History of Indo-European Verb Inflection*. English-language version. Introduced by J. Lundquist, 2019. <https://www.academia.edu/39609098>.
- Zavala, R. 2006. Serial verbs in Olutec (Mixean). In Aikhenvald & Dixon (arg.), 273-300.
- Zulaika, E., 2000, *Ioannes Leizarragaren aditza*. Deustuko Unibertsitatea: Donostia.
- Zuloaga, E., 2020, *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. UPV/EHUko tesia.
- Zuloaga, E., 2022, *Mendebaleko euskara zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia*. Iker 47: Euskaltzaindia & UPV/EHU, Bilbo.

Inguma eta Wikidata uztartuz, euskarazko zientziaren ezagutza-graforantz

David Lindemann,^{*1,3} Aitzol Astigarraga,^{2,3} Marije Bidaguren,²
Emilio Delgado,² Galder Gonzalez,^{3,5} Kepa Sarasola^{2,3,4}

¹ Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

² GOI Ikastegia, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

³ Euskal Wikilarien Kultur Elkartea (EWKE)

⁴ IXA taldea, HiTZ zentroa (UPV/EHU)

⁵ Hezkuntza Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: 2000. urtean, Inguma sortu zen, euskarazko ekoizpen zientifikoaren metadatuaren bilduma. Hogei urte beranduago, beste urrats bat eman nahi dugu, Inguma datuak Wikidata ezagutza-grafo libreari hurbiltzea, alegia. Datu Lotu Irekiak (LOD, Linked Open Data) paradigmaren oinarritzen da Wikidata. Datuen eraldaketa gauzatzeko gure esperimenduak, LOD ereduaren abantailak, eta aurrean ditugun beste egitasmo batzuk aurkezten ditugu artikulu honetan. Euskarazko ekoizpen zientifikoa mundu mailako ekoizpenaren testuinguruan erakutsi eta aztertze bidea zabaldu nahi dugu gure ekimen honen bitartez.

Hitz gakoak: Bibliografia, Bibliometria, Datu Lotuak, Linked Open Data.

1. SARRERA

Gaur egun, argitalpen akademikoaren kopurua ikaragarria da. 2014. urtean, 114 milioi artikulu zeuden sarean eskuragarri (Khabisa & Giles 2014), eta ordutik hona kopuru horrek gora egin du etengabe. Argitalpen metadatuak bildu, prozesatu, sailkatu eta modu egokian erakusteko ahalegina ikerketa-eremu aktibo bihurtu da, Information Science, alegia (Stock & Stock 2013; Yan 2011). Ikerketa-taldeek eta unibertsitateek interes handia dute beren ki-deek ondutako lanari buruzko informazio bibliografikoa biltzeko eta erakus-

* David Lindemann. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). david.lindemann@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-8261-6882>.



teko. Saileko edo unibertsitateko webguneetan informazioa txertatuz asetzen dute behar hori erakunde akademiko askok, webguneetan argitalpenak zerrendatuz, edo kideen curriculumak fitxategietan bilduz. Iturri bibliografikoa biltzeko eta eskuragarri jartzeko ohiko metodo honek zailtasun eta oztopo ugari ditu. Izan ere, webean argitaratutako zerrendak eguneratu gabe daude maiz, eta ez ohi dute berrerabiltzeko moduko egitura.

Argitalpen akademikoen metadatuak bildu eta eskaintzen dituzten plataforma ugari sortu dira azken hamarkadotan (Google Scholar¹, DBLP², ScienceDirect³ eta DialNet⁴, horietako zenbait aipatzearren). Euskarazko ekoizpena biltegi orokor ezberdinetan barreiatuta agertzen da, eta zaila da euskarazko produkzio akademikoaren ikuspegi orokorra izatea. Aldi berean, plataforma orokorretan, metadatu bibliografikoak ez ohi dira eskuz landu, eta, ondorioz, zitzazioak egiteko bezainbesteko kalitatea ez dute askotan.

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) helburuetako bat da euskarazko ekoizpen zientifikoaren ikusgarritasuna hobetzea (Artetxe 2011). Bide horretan, eta aipatu berri ditugun gabeziak gainditzeko asmoarekin, 2000. urtean UEUK Inguma datu-basea sortu zuen ekoizpen akademikoen argitalpen-metadatuak sistematikoki bildu, eskuz katalogoratu, eta web-interfaze bitartez erabiltzailearen eskura jartzeko.⁵

Bestalde, azken urteotan aurrera-pauso nabarmenak eman dira bibliografia digitalen esparruan. Datu Lotu Irekiak (LOD, Linked Open Data) deritzen web semantikoaren teknologiek argitalpen bildumak jaso, antolatu eta aztertze aukera berriei bide eman diete (Latif, Scherp & Tochtermann 2016; Ríos-Hilario, Martín-Campo & Ferreras-Fernández 2012). Hor kokatzen da gure ekarpena ere. Inguma bezalako datu-base bibliografiko baten edukiak Wikidatarekin,⁶ hau da, garai honetan LOD ezagutza-grafo libre handienarekin, lerrotzeko motibazioak bi dira: Euskal produkzioa biltegi bibliografiko orokor batean biltzea, beste hizkuntzetako ekoizpen akademikoarekin batera (*cf.* Van Veen 2019). Horrela, datuen ikusgarritasuna handituko litzateke. Bestetik, datuen analisi aurreratua egin genezake horrela (*cf.* Lemus-Rojas & Odell 2018), hala nola, ikertzaileen profilak, ekoizpenaren edukien deskribapena, eta bestelako zientziometria edo bibliometria.

Artikulu honek Ingumarekin bide horretan eman ditugun urratsak jaso nahi ditu. 2019an, lehen urrats gisa, Ingumako edukiaren lagin bat Wikidata-
tara igorri zen Euskal Wikilarien Kultura Elkartearekin (EWKE) lankide-

¹ Ikus <https://scholar.google.com/>.

² Ikus <https://dblp.org/>.

³ Ikus <https://www.sciencedirect.com/>.

⁴ Ikus <https://dialnet.unirioja.es/>.

⁵ Honako lotura honetan eskuragarri: <https://inguma.eus>.

⁶ Ikus <http://www.wikidata.org>.

tzan. Horrekin batera, Inguman jasotako egileentzat identifikatzaile propioa sortu zen Wikidatan.⁷ Lagin horretako datuak Wikidatako moldera egokitu ziren, eta, Wikidataren irekitasuna dela medio, mundu mailako katalogo orokorretan ere agertzeko aukera zabaldu zitzaigun (Astigarraga *et al.* 2021).

Lehenbiziko hurbilpen edo ahalegin horretatik ondorio garrantzitsu bat atera genuen: Ingumako datu guztiak zuzenean Wikidatare igortzea ez dela biderik egokiena, eta Wikidata erako gure datu-base propioa izatea interesgarria litzatekeela, Ingumako datuak jasotzeko, datuak bertan ondu, eta kalitate-maila egokira heldutakoan, Wikidatarekin federatu edo bertara igortzeko. Gaur, Wikimedia Fundazioak aukera hori eskaintzen digu.⁸

2022an eman dugu bigarren urratsa, UEUren eta EWKEren arteko lan-kidetzan Inguma Wikibase zerbitzua garatu dugularik. Inguman bildutako artikuluen askoren metadatuak eraldatu eta Wikibase datu-basean jaso ditugu. Wikidataren antolaketa bera duen kode irekiko softwarea da Wikibase, eta ondorioz, bertatik Wikidatare datuak esportatzea edo lerrotatzea prozesu zuzena da. Inguma Wikibase zerbitzuarekin, euskal produkzio zientifikoaren bibliografia digitalean aurrerapausoa eman nahi dugu; batetik, datuak ezagutza-grafo gisa jaso eta erakutsiz, eta, bestetik, testuen azterketa konputazionalerako tresnek eskaintzen dizkiguten aukerak probestuz. Izan ere, bibliografia batean zerrendatzeko ohikoak diren metadatu gain, zitazio-erlazioak, terminologia erauzketak eta edukiaren deskribapen automatikoa txertatzea da gure asmoa. Wikibase datu-basearen eredu egokia da horretarako, eta Wikidatan badira dagoeneko horrelako datuak eskuragarri, milioika argitalpeni dagokionez. Wikibase propioan nahiz Wikidata nagusian jasotako datuak edozeinek erabil ditzake, edozein aplikaziotarako. Euskal komunitate zientifikoaren ezagutza grafo ireki bateranzko ekarpena da egitasmo hau, beraz.

Artikuluaren, Ingumako edukiak Wikidatarekin lerrotatzeko diseinutako lan-fluxua aurkezten dugu. Sarrera honen ondoren, bigarren atalean, oinarrizko lau kontzeptu azaltzen dira banan-bana: Inguma datu-basea, ezagutza-grafo kontzeptua, Wikidata, eta Wikibase. Hirugarren atalean, Ingumaren eta Wikidataren artean 2019tik 2022ra bitarte egin diren lanak deskribatzen ditugu: 2019an Ingumako identifikatzailea sortu zen Wikidatako propietate gisa; 2020 eta 2021ean UEUko aldizkarietako artikuluen eta liburuen metadatu nagusiak masiboki igo ziren zuzenean Wikidatare, eta 2022an Ingumako artikuluen zientifiko guztiak esportatu dira, baina ez zuzenean Wikidatare, Inguma eta Wikidataren arteko zubi gisa jokatu duen Wikibase batera baizik. Artikuluaren laugarren atalean, lortutako emaitzak aurkezten dira, eta bosgarrenean, berriz, etorkizunerako lanez dihardugu. Miren Azkararate irakasle eta ikertzaileari gure esker ona adierazten diogu azken atalean.


⁷ Ikus <https://www.wikidata.org/wiki/Property:P7558>.

⁸ 2022tik, Wikimedia Deutschland elkarteak eskaintzen du Wikibase instantziak sortu eta zerbitzatzea. Ikus <https://wikibase.cloud>.

2. OINARRIAK

2.1. Inguma datu-basea, euskarazko produkzio akademikoa

1968az geroztik plazaratu den euskarazko ekoizpen zientifikoaren metadatuak jasotzen dituen datu-basea da Inguma. Udako Euskal Unibertsitateak sortu zuen 2000. urtean. Egun, 12.936 egile, 216 erakunde (130 aldizkari barne), eta 46.026 item bibliografiko daude Inguman bilduta (ikus 1. irudia). SQL datu-base batean, honako datu hauek daude bilduta, eta erabiltzaile-interfaze grafiko batean bila eta ikus daitezke: argitalpen metadatuak, alde batetik, eta egileen, erakundeen eta aldizkarien metadatuak, bestetik. Aipua egiteko edo bibliografia gisa zerrendatzeko beharrezko diren metadatuaz gain, zientzia-eremua zehazten duten adierazleak dituzte Ingumako item bibliografikoek. Item bibliografikoak, egileak, erakundeak eta aldizkariak identifikatzaile unibokoez hornitu dira eskuzko ontze prozesu batean.⁹



1. irudia

Inguma datu-baseko dokumentuak 2022ko urrian, hitzaldiak, irakasgaiak eta ikastaroetako eta ikerketa-proiektuetako materialak albo batera utzita

Inguma eskuz eguneratzeko lan-fluxua aspaldi ezarrita dago, eta UEUko bi lankide arduratzen dira metadatu berriak jaso eta ontzeaz. Egileak eta era-

⁹ Hau, da, adibidez, *Koldo Mitxelena* eta *Luis Michelena* izen-literalei biei identifikatzaile bera esleitzea, eta, alderantziz, izen bereko bi pertsoneri identifikatzaile bana.

kundeak eskuz desanbiguatu, eta zientzia-eremuen adierazleak eskuz ezarzen dituzte. SQL tankerako datu-base erlazionalean gordetzen dituzte datuak; datu-base hura *inguma.eus* web-atariko edukiak sortzeko erabiltzen da.

Ingumaren helburu nagusia euskal produkzio akademikoa jaso eta hura zabaltzea izanik (Erriondo 2006), komunitate zientifikoaren azterketa bibliografikoak egiteko tresna egokia ere bada (Santamaría 2019).

2.2. Ezagutza-grafoak

Web semantikoa, Tim Berners-Leek proposatu zuen moduan, World Wide Web edo Amaraunaren hobekuntza bat da (Berners-Lee, Hendler & Lassila 2001). Webguneen edukia software agenteentzat ulergarri bihurtzean datza, datuak partekatu, aurkitu, integratu eta berrerabiltzeko.¹⁰ Makinek mundu errealaaren ezagutza uler dezaten, ontologiaren bidez kontzeptuak eta kontzeptuen arteko erlazioak definitzen dira eredu formal bati jarraituz, kontzeptuek eta erlazioek grafo bat osatzen dutelarik. Web Semantikoaren adierazpenak bi datu-elementuez eta batetik bestera bidaltzen duen erlazio batez osatuta daude. Hiru elementuok URI¹¹ banaren bidez identifikatu egiten dira modu unibokoan, makinari subjektu-predikatu-objektu hirukote horiek ulertarazteko.

Datu Lotuak (Linked Data)¹² interneten argitaratzeko molde bat da, datuak Web Semantikoaren parte izatea ahalbidetzen duena. Argitaratutako datuak Datu Lotuztat har daitezten, Tim Berners-Leek aipatutako printzipioei¹³ jarraituz argitaratu behar dira. Datu Lotu Irekiak (LOD, Linked Open Data) lizentzia irekia duten datu lotuak dira. Hainbat datu-bilduma LOD gisa argitaratu eta elkarrekin lotu dira dagoeneko.¹⁴ Web Semantikoaren helburua, Datu Lotuen bidez, egungo amaraunaren edukia makinek ulertzeko moduan birmoldatzea litzateke, iturri ezberdinetako datu-sortak elkarrekin lotuz.

Ezagutza-grafoek, Web Semantikoaren parte edo baliabide isolatu gisa ulertuta, kontzeptu eta entitateen arteko loturak adierazten dituzte. Eredu ontologiko batean oinarrituta, arlokako informazioa nahiz ezagutza orokorra eskaintzen da ezagutza-grafo eran. Jakintza eremu espezifikoko ezagutza-grafoak dira, besteak beste: SciGraph (Hammond, Pasin & Theodoridis 2017), Springer Natureraren argitalpenei metadatuak gehitzen dizkiena, Europeana (Aloia *et al.* 2011), Europa osoko 3.000 erakunde baino gehiagoren bilduma digitalizatuak batzen dituen plataforma, Pradoko museokoa (Saorín 2019), edo Alemaniako Liburutegi Digitala (Limani, Latif & Toch-

¹⁰ Lau kontzeptu horiek *FAIR principles* gisa ezagunak dira, *findable, accessible, interoperable, reusable*, ikus <https://www.go-fair.org/fair-principles/>.

¹¹ Ikus https://en.wikipedia.org/wiki/Uniform_Resource_Identifier.

¹² Ikus https://en.wikipedia.org/wiki/Linked_data.

¹³ Ikus <https://5stardata.info> eta https://www.w3.org/2011/gld/wiki/5_Star_Linked_Data.

¹⁴ Ikus <https://lod-cloud.net/> eta <https://www.lod-cloud.net/dataset/wikidata>.

termann 2022), eta horietako hainbat eduki LOD gisa berrerabil daitezke. Ezagutza-grafo orokor eta librean artean, Wikidata da handiena, 100 miloi entitate baino gehiago deskribatzen dituelarik,¹⁵ eta egun Wikidata har daiteske LOD unibertsoaren erdigunetzat, datu bibliografikoei dagokienez ez ezik (Van Veen 1019), beste hainbat arlori begira ere.

2.3. Wikidata, auzolanean sortutako ezagutza-grafo eleanitza

Wikidata auzolanean sortutako baliabidea bat da, Wikimedia Fundazioak 2012. urtean sortu zuena, erabiltzaileen komunitateak kudea zezan. Wikipedia guztietarako, hau da, hizkuntzetan zehar Wikipedian baliagarri diren datuak iturri bateratu bakar batean eskaintzea da Wikidataren xede historikoa. Horrela, pertsonen identifikatzaileak, jaiotegunak, jarduerak eta afiliazioak, adibidez, baita kontzeptu bera deskribatzen duten hainbat hizkuntzako Wikipediako artikulua ere elkarrekin lotuta daude. Wikipedia barruko lan-fluxuak ere errazten dira horrela: Pertsona baten deskribapena aldatzeko, erretiroa hartzen duenean, esaterako, Wikidatan aldaketa egitea nahikoa da, pertsona deskribatzen dituzten Wikipedia artikulua guztietan eragin ahal izateko, hizkuntza gorabehera.

Wikidatako grafoa, Wikimedia Fundazioaren proiektuetako edukiak lotzeaz gain, erdiko zutabe bihurtu da ekimen ezberdinetako datuak elkarrekin lotzeko: Wikidatako identifikatzailea, entitate bati modu unibokoan erreferentzia egiten diona, gero eta gehiago erabiltzen da Wikidatatik kanpo ere.¹⁶ Horren erakusgarri, Wikidata beste erakunde batzuen datu-biltegiekin lotuta dago; 6.000 baino gehiago dira Wikidatan lotura esplizituak dituzten kanpoko datu-baseak. Ezaugarri horiek hainbat liburutegi eta biltegi digitalen interesa piztu dute, metadatu bibliografikoak gorde, ondu eta elkartrukatzeko plataforma egokia baita (Tharani, 2021), eta entitateek datu-baseetan zehar dituzten identifikatzaileak lerrokatzeko balio baitu (Van Veen, 2019).

Edonork, hau da, edozein pertsona edo makinak, kontsulta eta edita dezake Wikidata, CC0 domeinu publikoko lizentziaren arabera. Datuak kontsultatzeko tresna ahaltsuak ditu Wikidatak,¹⁷ baita datu horiek modu grafikoan erakusteko ere.

2.3.1. Argitalpen zientifikoak Wikidatan

2020ko otsailean, artikulua zientifikoak deskribatzen dituzten 22,5 milioi entitate zituen Wikidatak.¹⁸ Haietatik, mila bat baino ez dira euskarazkoak mo-

¹⁵ Ikus <https://www.wikidata.org/wiki/Special:Statistics>.

¹⁶ VIAFek, adibidez, liburutegi nazionalak kudeatutako autoritate-fitxategien parekotzat hartzen du Wikidata dagoeneko; ikus <https://viaf.org/>. Alemaniako Liburutegi Nazionalak bere autoritate-fitxategia osorik lerrokatu du Wikidatako entitateekin.


¹⁷ Ikus https://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:Data_access.

¹⁸ Ikus <https://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:Statistics>.

mentu honetan. Artikulu zientifikoaren metadatuak Wikidatan biltzeak edozeinentzat erabilgarri bihurtzen ditu, eta komunitateak hainbat aplikazio garatu ditu dagoeneko (Farda-Sarbas & Müller-Birn 2019; Mora-Cantalops, Sánchez-Alonso & García-Barriocanal 2019). Hala nola, Wikidataren grafoa erabiltzen duen Scholia tresnaren bitartez azter daitezke item bibliografikoak eta haien arteko loturak, bibliometriako hainbat neurketa eginez. Zitazio-erlazioak ezarrita dauden heinean, Wikidatan ez ezik OpenCitations grafoan¹⁹ ere agertuko dira.

2.3.2. Scholia: Wikidatan oinarritutako bibliometria

Scholia web zerbitzu bat da, Wikidatari kontsultak eginez informazio bibliografikoa aurkezteko balio duena, autore, erakunde eta aldizkari akademikoaren eskola-profilak sortzeko, hain zuzen (Nielsen, Mietchen & Willighagen 2017).



The screenshot shows the Scholia profile for Miren Azkarate Villar (Q3316026). The page includes a search bar, a description of her as a politician and professor of Basque philology, and a table of contents with various metrics and links. The table of contents includes:

- List of publications
 - Number of publications per year
 - Number of pages per year
- Topics
 - Topic scores
 - Topics of authored works
 - Topics-works matrix
- Use
- Venue statistics
- Review statistics
- Co-author graph
- Co-author map
- Other locations
- Timeline
- Academic tree
- Citation statistics
 - Most cited works
 - Citations by year
 - Citing authors
- Associated images
- Events

2. irudia

Miren Azkarateren bibliometria Scholia web zerbitzuan²⁰

Scholian ikertzaile bat bilatuz gero (ikus adibidea 2. irudian), haren argitalpenen zerrenda bat aurkeztuko zaigu, ikertzen dituen gaiak zeintzuk diren, kolaboratzaileen sarea jasotzen duen grafikoa, erakunde-afiliazioen denboralerroa eta ikerketa jardueraren metadatuaren oinarritutako beste hainbat estatistika. Merkatuan topa ditzakegun antzeko beste zerbitzuak ez bezala, Scholia datu libreetan oinarrituta dago, Wikidatan agertzen diren datuak hartzen baititu aintzat.

¹⁹ Ikus <http://opencitations.net/>.

²⁰ Ikus <https://scholia.toolforge.org/venue/Q12268801#co-author-graph-header>.

2.4. Wikibase: Wikidata moduko datu-baseak sortzeko softwarea

Wikidatak datuak bildu eta eskaintzeko, Wikibase izeneko kode ireki eta lizentzia libreko softwarea du azpiegitura. Wikidataren antolaketa bera duen datu-basea hutsetik sor eta kudea daiteke Wikibase instantzia propio batean.

Wikibase softwarea erabiltzearen abantaila nagusia (ezagutza-grafoak sortzeko gainerako tresnekin alderatuz gero), berarekin dakartzan zerbitzu edo tresna gehigarriak erabili ahal izatean datza: SPARQL bidezko ohiko datuen bistaratzeak ez ezik, testu-bidezko bilaketak egiteko eta datuak bistaratzeko eta editatzeko interfaze erraza ere badu, adituak ez diren erabiltzaileek ere erabiltzeko modukoa.

Wikibase datu-gordailu batean, Wikidatako ereduarekin konforme, baina Wikidata nagusitik at, presta daitezke Datu Lotuak. Wikidata plataformak ere edonori ematen dio bide bertan datuak sartu eta moldatzeko, baina tarteko Wikibasea izateak zenbait abantail dakar: (1) Lanerako komunitate propioa sor daiteke, (2), datuak egituratzeko ontologia proiektuko irizpideen arabera garatu daiteke, eta datu-moldearen inguruko erabakiak berehala gauzatu, klase eta propietate ontologikoei Wikidatan duten antolaketa-moldeari erreparatu gabe, azpiko datu-eredua berbera bada ere, (3), edukia proiektuko izango da soilik, Wikidatako gainontzeko edukiarekin nahastu ordez; horrela, doitasun gutxiko datuak ere transferitu daitezke LOD formatura, doitasun nahikoa heltzeko pausoak Wikibasen bertan eman ahal direlarik, Wikidata nagusia zirriborro-datuez «kutsatu» gabe. (4), entitate eta adierazpen bakoitzerako erabaki daiteke Wikidatarekin noiz eta nola sinkronizatu, (5), komunitateak Wikidarako garatu dituen hainbat tresna Wikibase propioan ere erabili daitezke, hala nola, OpenRefine softwarea,²¹ balio literalak entitate ontologikoei lotzeko erabili daitekeena, (6), Wikibasearekin komunikatzeko, komunitateak garatutako Python moduluak erabiltzea aukera erosoenetako bat da, (7), Wikibase instantzia bat Mediawiki sistemaren instantzia baten atala denez, Wikipediakoak bezalako testu-orriak ere eduki ditzake, proiektuaren dokumentazioa gorde eta argitaratzeko, adibidez.

3. INGUMA ETA WIKIDATA DATU-BASEEN ARTEKO HARTU-EMANAK


Inguma datu-baseko datuetan oinarrituta, euskal komunitate zientifikoaren azterketa sakona egin daiteke. Badira SQL tresnak Ingumaren datuak bere horretan analizatzeko, baina Ingumako datu horiek ezagutza-grafo ireki bihurtuz gero, analizatzeko beste tresna interesgarri batzuk ere eskura izango

²¹ Ikus <https://openrefine.org/>.

genituzke. Euskal komunitate zientifikoaren datuak ezagutza-grafo ireki batera igortzea epe ertaineko helburu lorgarria da, eta zenbait urrats emanak ditugu bide horretan. Atal honetan Ingumaren eta Wikidataren artean 2019tik 2022ra bitarte egin diren lanak deskribatzen dira; 2019an Ingumako identifikatzailea sortu zen Wikidatako propietate gisa; 2020 eta 2021ean UEUko alizkarietako artikulua eta liburuen argitalpen-metadatuak masiboki igo ziren zuzenean Wikidata; 2022an, berriz, Ingumako artikulua zientifiko guztiak esportatu dira, baina ez zuzenean Wikidata, Inguma eta Wikidataren arteko zubi gisa jokatuko duen Wikibase bat sortu baita horretarako.

3.1. Hasierako urratsak: datu orokorrak Ingumatik Wikidata (2019)

Lehen urratsa 2019an egin zen. Ikusita euskal ikertzaile eta argitalpenek Wikipediako artikuluetan Ingumako erreferentzia ugari jasotzen zituztela, UEU eta Euskal Wikilarien (EWKE) artean, giza eta gizarte zientzietako Uztaro eta arkitekturako Aldiri aldizkari zientifikoaren baitan argitaratutako artikuluen metadatu orokorrak Wikidatan jaso ziren eta, horrekin batera, Ingumarentzako identifikatzaile propioa ere sortu zen Wikidatan (P7558 propietatea, ikus 3. irudia). Hortik aurrera, Ingumako edukiak modu estandarizatu batean erreferentziazten dira Wikidatan.



3. irudia

Wikidatatik Ingumara bidaltzen duen identifikatzaile bat: *miren-azkarate-villar*^{22, 23}

²² Inguman Miren Azkarate: <https://www.inguma.eus/egilea/ikusi/miren-azkarate-villar>.

²³ Wikidatan Miren Azkarate: <https://www.wikidata.org/wiki/Q3116026>.

3.2. **Produkzio idatziaren lehen esportazioa Ingumatik Wikidatara (2020-2021)**

Ingumako produkzio idatziaren ataleko ondorengo datuak Wikidatara igorri genituen: Uztaro eta Aldiri aldizkarietara eta UEUko liburuetara dagozkienak (Astigarraga *et al.* 2021). Uztaro aldizkariako 671 artikulua eta 618 egile esportatu ziren, Aldiri aldizkariakoak 349 artikulua eta 319 egile izan ziren, eta, azkenik, UEUren liburuetara 453 izan ziren.

OpenRefine softwarea erabili genuen Inguman eta Wikidatan pertsonak deskribatzen dituzten identifikatzaileak bateratzeko. Balidazioa eskuz egin genuen. Hainbat ikertzaileentzat, entitate berriak sortu genituen Wikidatan.

3.3. **Inguma Wikibase datu-basea sortzea eta hasierako karga (2022)**


Bigarren urratsa 2022an egin dugu, Inguma Wikibase zerbitzua sortuz²⁴. Ingumak darabilen SQL motako datu-baseko edukia LOD eredura moldatu eta Wikibasean kargatu ditugu datuak; Inguman deskribatzen diren artikulua (17.397), liburuak (2.773) eta doktore-tesiak (919) ordezkaritza dute orain datu-base berrian; hitzaldiak, irakaskuntzarako materialak eta proiektu-txostenak aurrerago tratatuko ditugu. Wikibase softwarearekin sortu dugunez, datu-base berriak Wikidatako egitura berdin-berdina du. Datuak Wikidatan bezalaxe kontsultatu eta editatu daitezke, eta datu horiekin esperimentatzeko laborategi ezin hobea dugu orain.²⁵ Esan bezala, epe ertaineko helburua datuak Wikidatara igorri edota harekin federatzea da.

Gorago aipatu bezala, Wikidatarekin zuzenean elkarreragin beharrean Wikibase propioa erabiltzeko hainbat abantaila dakar (*cf.* Lindemann 2021, ikus 4. irudia). Wikidata nagusia esperimentuentzat erabiltzea ez da bidezkoa: Datuen moldeak, hau da, klase eta propietateak, Wikidatan ezin dira berehala sortu, komunitatean adostu egiten baitira. Bestetik, ez da komenigarriena zuzentzeko beharra duten nahi beste datu Wikidatan jasotzea, eta komunitateak garbitu, batu, ezabatu, edo beste modu batean berridatziko duela espero izatea. Norbere Wikibasean, aldiz, erabateko askatasuna dago zirriborro-datuak bertan kudeatzeko. LOD datu-bilduma bat prestatzeko, hainbat urrats behar dira. Datuak Wikidatara igortzeko moduan daudenean (eta ez lehenago), robot bitartez era masiboan bertara igortzea jokabide egokiena dela iruditzen zaigu. Bestetik, baliteke datu-multzo bateko adierazpen guzti-guztiak Wikidatara bidali nahi ez izatea. Gure kasuan, adibidez, badira zenbait datu Wikidatan bertan baino gure datu-base batean egokiago direla,

²⁴ Ikus <https://wikibase.inguma.eus>.

²⁵ Wikibasearen azaleko orrian esperimentuen berri ematen dugu; ikus <https://wikibase.inguma.eus>.

testu osoetatik termino-erazketaren bitartez lortzen ditugun metadatuak kasu, edo informazio linguistikoa oro har, lemen eta formen maiztasunak, esaterako, erazketan maiztasunak konparatzeko zer corpus erabili zen adierazita. Horrelako datu bereziagoak, proiektu baten barruan interesatzen zaizkigu, edo erabiltzaile berezitu orori; Wikidatan, ordea, proiektuaren emaitzak batuko ditugu, hau da, adibide berarekin jarraitzearen, termino-erazketaren emaitza, lauzpabost adierazletan kondentsatua.




4. irudia

Datuen trukaketa azpiegituren artean

Zehazki, honako hauek izan dira aurtengo esperimenduaren urratsak:

1. Wikibase instantzia berri baten ontologia garatu eta inplementatu dugu, Inguma SQL datu-basean jasotako adierezpenekin eta Wikidataren ontologiaren artean zubi-funtzioa betez. Ingumako metadatu-kategoria guztiak hartu dira aintzat.
2. Ingumako egileak eta erakundeak (aldizkariak barne) deskribatzeko Wikibase entitateak sortu eta Wikidatako entitateekin lerrokatzeko urratsak egin ditugu. SQL tauletan oinarritutako datu-basea da Inguma, eta LOD datu baseak, ordea, grafo izaera du; horretaz baliatu gara urrats honetan. Esaterako, erakunde berbera afiliazioen taulan agertzen bada (ikerlarien afiliazioak dituen taulan), baita erakunde argitaratzaileen taulan ere, SQL erudian bi entitate ziren horiek batu egin ditzakegu grafoan, dagozkion afiliatuak eta argitalpenak erakunde bera deskribatzen duen entitate bakarrera lotuz. Horrela, Inguma SQL datu-basean identifikatzaile bat baino gehiago zituen entitateak grafo bakarrean jasota geratzen dira orain (ikus 5. irudia entitateen klaseen arteko loturei dagokienez). Urrats hori multzo era-

kuskari batentzat gauzatu egin dugu, eta Ingumako eduki osora hedatzeko moduan gaude.




5. irudia

Zenbait klase eta propietate Inguma Wikibase grafoan

3. Ingumako argitalpen-metadatu sortak Wikibase entitate banatara transferitu ditugu, egile, erakunde eta eremu-adierazleak entitateen arteko lotura gisa errepresentatuz.
4. Ingumako zientzia-eremu adierazleak eta Sailkatzaile Hamartar Unibertsalak (UDC) deskribatzen dituzten Wikibase entitateak sortu ditugu. Entitate horien artean ere erlazioak sor daitezke, baita kanporako loturak ezarri ere, Wikidatako entitateekin, adibidez, edo LOD ereduari jarraitzen dion edozein katalogo bibliografikoarekin.²⁶
5. Inguma Wikibase sortu berria Inguma SQL datu-basearekin sinkronizatzeko modua ezarri dugu, SQL-ren aldetik etorkizunean egingo diren eguneraketak ere zuzenean jaso ahal izateko.

²⁶ Adibidez, Library of Congress erakundeak kudeatzen dituen bokabularioekin, ikus <https://id.loc.gov/>.

gitaratu dira. Esperimentu saio batean, Wikidatako identifikatzaileak lortu ahal izan ditugu, OpenRefine bitartez: Inguman Wikidata identifikatzailearik oraindik ez zuten egileak zerrendatu ditugu, eta argitalpenen kopuruan ordenatu. Zerrendaren goiko 500etik 365 Wikidatan aurkitu ditugu. OpenRefine aplikazioak, pertsona-izenaren balio literalak ikusita, entitate-etiketei begira bat datozen entitateak proposatzen ditu, erabiltzaileak *match* egokia baliozta dezan (ikus 7. irudia). Izen bereko pertsona bat baino gehiago Wikidatan aurkituz gero, eskuzko desanbigua egin daiteke horrela. Izen bereko pertsona bakarra badago ere, bilatutakoa ez izatea liteke, baizik eta beste bat; horregatik, balidazioa edozein kasutan da gomendagarria. Gainera, behin eginez gero, betirako gordeko da Wikidatarako lotura Wikibase propioan. Wikidatako entitateak gainontzeko datuak har daitezke, hala nola, bestelako identifikatzaileak, ORCID eta VIAF kasu. Beste norabideari dagokionez, Ingumako egileari Wikidatako identifikatzailea esleituta, egile hura deskribatzen duen Wikidatako entitateari lotuko dira berak idatzitako artikulak, haiek Ingumatik Wikidatara igortzen direnean. Ingumako identifikatzailea idatzi egin dugu Wikidatan, 365 kasu horietan.

☆	4.	https://wikibase.inguma.eus/entity/Q9656	Jabier Kalzakorta Elorza	https://www.inguma.eus/egileafikusi/jabier-kalzakorta-elorza	Jabier Kalzakorta Choose new match
☆		 Pabx Urizarren (Q3370193) writer , university teacher , priest , translator , and lexicographer (*1942) ♂; member of Euskaltzaindia , Udako Euskal Unibertsitatea , EIZIE , Euskal Idazleen Elkarte , and Bostak bat			Pabx Urizarren Choose new match edit
☆					Jon Batti Kortazar <input checked="" type="checkbox"/> Create new item Search for match
☆					Joxe Azurmendi
☆	8.	https://wikibase.inguma.eus/entity/Q8492	Andoni Olea Agirregomezkorta	https://www.inguma.eus/egileafikusi/andoni-olea-agirregomezkorta	Andoni Olea <input checked="" type="checkbox"/> Create new item Search for match
☆	9.	https://wikibase.inguma.eus/entity/Q12939	Jabier Agirre Lasarte	https://www.inguma.eus/egileafikusi/jabier-agirre-lasarte	Jabier Agirre Choose new match

7. irudia

OpenRefine aplikazioaren bitartez egileak desanbiguatzen

Datu-base berria publikoa da³¹ eta edozeinek erabil ditzake datuak, edozein aplikaziotarako. Gainera, Wikidatarekin lerrokaketa gauzatu dugun heinean, Ingumako datuak plataforma horretara igortzeko (edo harekin federatzeko) moduan gaude. Euskarazko zientziaren ezagutza-grafo ireki bateranzko pausotzat har daiteke lan hau, beraz.

³¹ Ikus <https://wikibase.inguma.eus>.

5. ETORKIZUNERAKO LANA

Wikidatara egin dugun datu-migrazioari jarraipena emateko, honako urrats hauek aurreikusten ditugu:

- Uztaro eta Aldiri aldizkariekin egindakoa euskarazko artikulua dituzten beste aldizkari batzuekin ere egitea (badira 130 aldizkari akademiko euskaraz).
- Inguma, Inguma Wikibase eta Wikidatako web-bisiten kopuruen hazkuntza neurtzea, baita testu osoetara daramaten web-esteken erabilpenarena ere, nabigazio-iturria kontuan hartuta.
- Egileen genero-banaketari buruzko azterketa hainbat aldizkaritan.
- Artikuluetan landutako gaiak metadatuaren errepresentazioari gehitzea. Zeintzuk dira lantzen diren gaiak? Zeinek zeinen lana aipatu? Egun, oso datu gutxi dugu galdera horiei erantzuna emateko.

Azkenengo puntuari lotuta, hurrengo urratsetan testu osoetatik erauzitako metadatuak biltzea proposatzen dugu, zitazio-erlazioak barne. Horrekin batera, Lengoaia Naturalaren Prozesamenduko tresnez testuetako terminologia eta aipatutako bibliografia aztertu nahi ditugu, kalitate-adierazleen lanke-tarako, eta artikuluen arteko antzekotasuna neurtzeko.

6. ESKER ONEZ

Miren Azkarate euskaltzale, euskaltzain eta ikertzaile aparta denari omen egiteko idatzi dugu liburu honetan. Wikidata eta Wikibase ingurunean egin ditugun urratsak azaldu ditugu hemen. Bukatzeko, gogoratu nahi dugu Miren beti ere datuen askatasunaren alde agertu dela, eta, zehazki, berak ere ekarpena egin duela ezagutza libreko alor honetara. Mirenen ardurapean Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak ETC corpuseko lema, forma flexionatuak eta maiztasun-datuak askatu zituen, <https://datuak.ahotsak.eus> proiektuan erabil daitezten. Proiektu haren helburua da ahotsak.eus-eko bideoen transkripzioetako formak eta lema ETC-ko web-atarian eta Wikidatan dauden euskal lexema-formekin lotzea.


Bestalde, Wikidatak Miren Azkaratez dituen datuak baliatuta, eta bere ekarpenaren tamaina bisualizatzeko asmoz, bukaerako irudian Koldo Mitxelena-ren zuhaitz akademikoa ematen dugu. Datu asko gehitu behar dira oraindik Wikidatan Miren Azkaratez, baina orain daudenekin sortutako grafo honen testuinguruan erakusten digu bere ekarpena.

Mila esker.

7. BIBLIOGRAFIA

- Aloia, Nicola, Cesare Concordia & Carlo Meghini. 2013. The Europeana Linked Open Data Pilot Server. In Maristella Agosti, Floriana Esposito, Stefano Ferilli & Nicola Ferro (eds.), *Digital Libraries and Archives* (Communications in Computer and Information Science), 241-248. Berlin, Heidelberg: Springer. https://doi.org/10.1007/978-3-642-35834-0_24.
- Artetxe Sánchez, Karmele. 2011. *Euskara unibertsitatera bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)*. <https://wikibase.inguma.eu/entity/Q20237>.
- Astigarraga, Aitzol, Marije Bidaguren, Emilio Delgado, Galder Gonzalez & Kepa Sarasola. 2021. Cooperation between INGUMA and Wikidata databases. Exploring and analyzing the production of Basque academic journals. <https://ixa2.si.ehu.es/clariah-eus/eu/node/28>.
- Berners-Lee, Tim, James Hendler & Ora Lassila. 2001. The Semantic Web. *Scientific American*. 284(5). 34-43. <https://www.scientificamerican.com/article/the-semantic-web/>.
- Erriondo Korostola, Miren Lore. 2006. Soziolinguistika eta UEU (Udako Euskal Unibertsitatea). *Bat: Soziolinguistika aldizkaria* 61. 71-84. <https://wikibase.inguma.eu/entity/Q25276>.
- Farda-Sarbas, Mariam & Claudia Müller-Birn. 2019. Wikidata from a Research Perspective -- A Systematic Mapping Study of Wikidata. arXiv. <https://doi.org/10.48550/ARXIV.1908.11153>.
- Hammond, Tony, Michele Pasin & Evangelos Theodoridis. 2017. Data integration and disintegration: Managing Springer Nature SciGraph with SHACL and OWL. In *ISWC (Posters, Demos & Industry Tracks)*. <https://ceur-ws.org/Vol-1963/paper493.pdf>.
- Khabsa, Madian & C. Lee Giles. 2014. The Number of Scholarly Documents on the Public Web. (Ed.) Ren Zhang. *PLoS ONE* 9(5). e93949. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0093949>.
- Latif, Atif, Ansgar Scherp & Klaus Tochtermann. 2016. LOD for Library Science: Benefits of Applying Linked Open Data in the Digital Library Setting: Retrospects and Research Topics. *KI - Künstliche Intelligenz* 30(2). 149-157. <https://doi.org/10.1007/s13218-015-0420-x>.
- Lemus-Rojas, Mairelys & Jere D. Odell. 2018. Creating Structured Linked Data to Generate Scholarly Profiles: A Pilot Project using Wikidata and Scholia. *Journal of Librarianship and Scholarly Communication* 6(1). <https://doi.org/10.7710/2162-3309.2272>.
- Limani, Fidan, Atif Latif & Klaus Tochtermann. 2022. Scholarly Artifacts Knowledge Graph: Use Cases for Digital Libraries. In Emmanouel Garoufalou, María-Antonia Ovalle-Perandones & Andreas Vlachidis (arg.), *Metadata and Semantic Research*. Communications in Computer and Information Science, 1537. 245-256. Cham: Springer International Publishing. https://doi.org/10.1007/978-3-030-98876-0_22.
- Lindemann, David. 2021. Zotero to Elexifinder: Collection, curation, and migration of bibliographical data. In *Proceedings of SiKDD 2021*. Ljubljana. <https://ailab.ijs.si/dunja/SiKDD2021/Papers/LindemannDavid.pdf>.
- Mora-Cantalops, Marçal, Salvador Sánchez-Alonso & Elena García-Barriocanal. 2019. A systematic literature review on Wikidata. *Data Technologies and Applications* 53(3). 250-268. <https://doi.org/10.1108/DTA-12-2018-0110>.

- Nielsen, Finn Årup, Daniel Mietchen & Egon Willighagen. 2017. Scholia, Scientometrics and Wikidata. In Eva Blomqvist, Katja Hose, Heiko Paulheim, Agnieszka Ławrynowicz, Fabio Ciravegna & Olaf Hartig (eds.), *The Semantic Web: ESWC 2017 Satellite Events*. Lecture Notes in Computer Science, 10577. 237-259. Cham: Springer International Publishing. https://doi.org/10.1007/978-3-319-70407-4_36.
- Ríos-Hilario, Ana, Diego Martín-Campo & Tránsito Ferreras-Fernández. 2012. Linked data y linked open data: su implantación en una biblioteca digital. El caso de Europeana. *El Profesional de la Información* 21(3). 292-297. <https://doi.org/10.3145/epi.2012.may.10>.
- Santamaría Barinagarrementería, Ainara. 2019. Mikel Laboari buruzko euskarazko produkzio akademikoa eta esperimantazioa. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria* 110. 5-23. <https://wikibase.inguma.eus/entity/Q15105>.
- Saorín, Tomás. 2019. Grafos de conocimiento y bases de datos en grafo: conceptos fundamentales a partir de una «obra maestra» del Museo del Prado. *Anuario ThinkEPI* 13. <https://doi.org/10.3145/thinkepi.2019.e13f05>.
- Stock, Wolfgang G. & Mechtild Stock. 2013. *Handbook of Information Science*. Berlin: De Gruyter Saur. <https://doi.org/10.1515/9783110235005>.
- Van Veen, Theo. 2019. Wikidata: From «an» Identifier to «the» Identifier. *Information Technology and Libraries* 38(2). 72-81. <https://doi.org/10.6017/ital.v38i2.10886>.
- Yan, Xue-Shan. 2011. Information Science: Its Past, Present and Future. *Information* 2(3). 510-527. <https://doi.org/10.3390/info2030510>.



8. irudia

Koldo Mitxelenaren zuhaitz akademikoa³²

³² Kontsulta Wikidatan: https://labur.eus/KM_zuhaitza.

Akademiaren sukaldeko lanetan, goxo-goxo

Jesus Mari Makazaga*

Euskara Zerbitzua eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila (UPV/EHU)
Gramatika batzordea (Euskaltzaindia)

Laburpena: Ekarpen honetan, Euskaltzaindiaren sukaldeko lan batzuen berri eman nahi da; horretarako, liburu honen bidez omentzen dugun Miren Azkarateren batzorde kuttun baten (Gramatika batzordearen¹) lanen berri eman nahi da: zer egin duen batzordeak 40 urtetik gorako ibilbidean, zer metodologia eta iturri erabili dituen, zer argitalpen eta lorpen izan dituen; etorkizun hurbil-ertainera begira, esku artean zer lan eta egitasmo dituen. Bide batez, Mirenek batzordearen lan horietan eta batzordearen 40 urte pasako ibilbidean bete duen paper garrantzitsua aitortu nahi du egileak. Izenburuaren bidez, nik ezagutzen dudan urteetan bederen, batzordean izan dugun giro goxoa eta lagunartekoa iradoki nahi izan dut: nire ustetan, giro ezin atseginagoa eta lagunartekoagoa izan dugu urte hauetan batzordean; iruditzen zait halako giroa gabe ezinezkoa izango litzatekeela hainbeste urtean batzordekideek elkarrekin jarraitzea eta urte hauetan eman dugun fruitu guztia ematea: lehenago haserretuko ginen eta bakoitzak bere norabidea hartuko zuen. Ez da hala gertatu, ordea, eta emankor eta giro onean jarraitu du batzordeak lanean, urteak joan eta urteak etorri.

Hitz gakoak: gramatika, hizkuntza-konsulten zerbitzuak, Jagonet, Euskaltzaindia, Gramatika batzordea.

1. SARRERA

1990. urtean ezagutu genuen elkar Miren Azkaratek eta biok, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordean. Lehenagotik ere ezagutzen nuen nik bera (karre-

* Jesus Mari Makazaga. Euskara Zerbitzua. Sarriena auzoa, z/g-48940 Leioa (Bizkaia). jesusmari.makazaga@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-5514-0890>.

¹ Euskaltzaindiak 1980ko apirilaren 18an izendatu zuen batzordea, eta hauek izan ziren lehenbiziko kideak: P. Lafitte (burua), Jean Haritschelhar (Idazkaria), Patxi Goenaga (Idazkaria), M.^a Pilar Lasarte (idazkariordea), P. Altuna, M. Azkarate, P. Goenaga, A. King, J.A. Mujika, K. Rotaetxe, P. Salaburu.



rako ikasgaietako bibliografietatik batez ere), baina ez nuen tratu zuzenik izan berarekin harik eta 1990. urtean Gramatika batzordean bekadun-lanetan hasi nintzen arte.

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - III (Lokailuak) (bildumari EGLU esango diogu hemendik aurrera, eta bildumako alea zenbaki batez adieraziko dugu: EGLU-I, EGLU-V eta abar) alea ontzen amaitzen ari zen batzordea, eta orduan hasi nintzen batzordeko bileretan parte hartzen, eta Eusko Jauriaritzako terminal batean bakarrik kontsulta zitekeen OEHko (*Orotariko Euskal Hiztegia*) corpusaren bertsio zahar bat maneiatzen, batzordearen lanen oinarri edo berme izango ziren euskararen tradizio idatziko lekukotasunak aztertzen.

Ordurako, onduak zituen batzordeak EGLU sailaren lehenbiziko bi gramatikak: EGLU-I (eranskin bat aparte zuena) eta EGLU-II; lehenbizikoa perpaus bakunaren osagaiei buruzkoa (izena, adjektiboa, determinatzaileak, deklinabidea...), eta bigarrena aditzaren inguruko gorabeherak biltzen zituena, aditz-taulak barne. Lehenbiziko bi liburuki haiek prestatzeko, egileek ez zuten izan informatikaren eta corpusen laguntzarik, ez eta, esango nuke, hasieran ganorazko ordenagailurik ere, eta horrek ere ematen die meritu handia txostengile haiei, batzordearen sortzaile izan zirenei².

1990etik aurrera, corpus informatikoen laguntzarekin (OEH, batez ere, eta EEBS³) lanak errazagoak egin ziren, eta batez ere oinarri sendoagoak izango zituen batzordeak argitaratzen zituenak berme handiagoz argitaratzeko. Bermearen edo segurtasunaren kontua aipatzen dugula, aipatu nahi nuke askotan leporatu izan zaiola gure batzordeari ez dituela bere iritziak kategorikoki adierazten, gehiegitan esaten duela gauzak «badirudi hala direla», ziurtasun erabatekorik gabe⁴. Hala izango da, ezin uka hortik ere izango duela zerbait, baina, gure arteko batzordekide batek esan izan duen bezala, «mundua konplikatu da», eta gramatika bera ere bai, hizkuntza-arauen salbuespenez josia. Ezin saihestuzkoa da, beraz, «baliteke, badirudi, antza...» eta horrelako esapideak erabili beharra izatea, baina, esan bezala, corpusak iristearekin baieztapenak egiteko segurtasun handiagoa izan dugu, eta iruditzen zait halako esapide zalantzakorrak gutxituz joan direla batzordearen lanetan, batez ere batzordearen bigarren zikloa markatzen duen digitalizazioaren iritsiera horretatik aurrera.

² Honako hauek izan ziren lehenbiziko liburukiko txostengileak: Patxi Altuna, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Alan King, Pierre Lafitte, Jose Antonio Mujika, Karmele Rotaetxe eta Pello Salaburu.

³ Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa izenekoa, XX. mendeko genero askotariko testuak ausaz biltzen zituena.

⁴ Hala aipatu izan zigun de Rijk-ek Areatzan 1998an eman zigun hitzaldian (ikus de Rijk 2002).

1990etik hasi eta gaur egunera bitarte, pasatu dira urte batzuk, eta aukera izan dut bai batzordea eta bai batzordekideak zertxobait ezagutzeko; baita Miren ere. Batzordearen eta Mirenen, Mirenen eta batzordearen inguruan jardungo dut lan honetan, Miren Gramatika batzordekidearen gainean.

Batzordean batera egon garen urte hauetan guztietan bileretan elkarrekin egon eta gero, Miren ezaugarritzeko lehenbiziko gauza esango nukeena da pertsona oso konprometitua izan dela beti: batzordearekin (eta haren lan eta helburuekin) eta Euskaltzaindiarekin (eta haren lan eta helburuekin)⁵. Konpromisoak berekin lotuta dakar langilea izatea, eta okertzeko arrisku handirik gabe, esan dezaket lanari inoiz ez diola izan batere beldurrik, ez duela nagikeriarik inoiz sentitu lanaren aurrean: egin behar zen guztia egin du, batere aitzakiarik eta luzamendurik gabe, aurpegi txarrik inoiz jarri gabe, eta batzordetik kanpo zituen eginkizun ugariak gorabehera: beti aurkitzen zuen denbora, loari kenduta seguru asko (familiaria eta lagunei ere bai, beharbada), egin behar zenari lotzeko.

Urte hauetan guztietan batzorde-bilera asko egin ditugu, eta bilera haie-tatik baina batez ere batzordekideek gaueko ordu txikietan etxean egindako ahaleginetatik atera dira batzordearen lanak, txostengileenak eta txostenen orraztaile eta zuzentzaileenak; begi-bistakoenak argitaratu ditugun gramatikak izan dira: Euskal Gramatika Lehen Urratsak saila lehenbizi (EGLUak, I-VII, zazpi guztira, nahiz liburukiak zortzi izan), eta berriki argitaratu dugun azken ekarpena, *Euskararen Gramatika*. Horiekin batera, alabaina, badira bestelako lanak ere, gramatiken alboan beharbada bigarren mailakotzat har daitezkeenak, baina aitortu behar direnak, nire ustez: euskara batuko arau-gintzako sukalde-lanetan arauen edo gomendioen prestalanak egin izan ditu, Jagonet kontsulta-zerbitzutik iritsitako ehunka galderari erantzun dio (batzor-deak edo batzordearen ordezkariak), EITBren hasierako urteetan handik etortzen ziren galdera ugariei erantzuten genien, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saileko EIMAREN Estilo-liburuaren proiektutik etortzen ziren argitaragaien balioespen-txostenak prestatzen genituen (*Kalko okerrak, Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak...*), eta abar eta abar. Beti iristen baitziren Zuzendaritzaren bidez era bateko edo besteko enkarguak.

Ni batzordean sartu ondorengo urteetan, batzuetan Miren joan egiten zi-tzaigun batzordetik, egoerak hala eskatuta: Euskal Herriko Unibertsitatean izan zituen karguek lehenbizi (Euskara errektoreorde - 1996-1997; Irakas-leen errektoreorde - 1997-1999), eta Eusko Jaurlaritzako karguek geroago (Kultura kontseilari - 2001-2009; Gobernuaren bozeramaile - 2004-2009) ez

⁵ Gauza bera esan dezaket Euskal Herriko Unibertsitatean elkarrekin egin ditugun urtee-tan ere: sail berekoak izan gara, lehenbizi Euskal filologia izeneko sailean, eta azken urteetan Euskal hizkuntza eta komunikazioa izeneko sailean, eta beti erakutsi du konpromiso handia sailarekin, batez ere azken urteetako Euskal hizkuntza eta komunikazioa sailaren egoera bere-zia kontuan hartuta.

zioten aukera handirik uzten batzordeko lanetan parte hartzeko. Hala ere, beti egiten zuen ihesalditxo bat, zertan ari ginen ikusteko, zerbaitetan lagundu zezakeen galdetzeko, eta, betiere eskertzekoa dena, batzordeko adiskideak agurtzeko: halako agerraldietan, harrigarria iruditzen zitzaidan zer gaitasun eta erraztasun erakusten zuen absentzia luze baten ondoren gure lanetan berriz mulgiltzeko, bilera bat bera ere huts egin izan ez balu bezala (honelako zerbait esango balu bezala: «atzo esan nizuen...»). Eta gero berriz desagertu beharra izaten zuen beste aldi baterako, berak ere ez zuen jakiten noiz arte. Zintzoki uzten zuen beti bere lekua batzordearen esku; honela esaten zigun, behin eta berriz: «ikusten baduzue traba egiten dizuedala batzordekide izanik ere ez agertuta, edo beste norbaiti lekua kentzen ari naizela, baja emango dut batzordean, har ezazue nire ordezkari batzordekide bat, eta listo»; guk, ordea, ez entzunarena egiten genion, ez genion kasurik egiten halakoetan; berriz gauza bera esaten zigunean, ezetz esaten genion, iritsiko zitzaioela uea batzordeari dedikazio handiagoa eskaintzeko, eta lasai egoteko, lasai joateko. Bai baikenekien une hori iristen zenean (iristen bazen, noski, estimazio handia izaten zuelako alde guztietan) ez ginela batere damutuko. Eta halaxe gertatu zen: iritsi zen Miren batzordera itzultzeko garaia, eta harrezkero zenbat lan egin duen batzordearentzat, zenbat lan egiten ari den... Azkeneko EGLUaren (zazpigarrenaren) garaia zen, eta, behin hura argitaratu eta gero, bultzada handia izan da batzordearentzat Mirenek era jarraituan parte hartzea gramatika berriaren prestalanetan (2010-2020)⁶.

2. GRAMATIKA-LANAK

2.1. Euskal Gramatika. Lehen Urratsak bilduma

Gorago esan dudan bezala, corpus informatikoak lehenbizikoz EGLU-III (Lokailuak) liburukiaren garaian izan zituen eskura Gramatika batzordeak; egia esan, liburua erredaktatuta zegoen, baina bederen aukera izan genuen hango baieztapen batzuk, batzordekide batzuentzat zalantzarriak izan zitezkeenak, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusean egiaztatzeko, edo, zuzenak ez baziren, baztertzeko; eta ez zen gutxi aukera hori izatea. OEH corpusa, EEBS corpusa eta, geroago, batzordearen hirugarren zikloa deituko niokeenean, beste corpus batzuk izan ditugu eskura (batzordearen azken aldi honetan, gramatikan tradizio idatzi garaikideko lekukotasunak gehiago sartzten hasi garen neurrian, *Euskararen gramatika* liburukian, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuaren corpusak batez ere, testu garaikideak

⁶ Azken hamarkada honetan ere (2010-2020), izan du beste kargu bat ere, Donostiako Udalean zinegotzi (2011-2018), baina hori ez da eragozpen izan gramatika berria ontzen aritu garenean gure artean buru-belarri aritzeko.

biltzen dituztenak), betiere gure lanei euskararen erabileraren bermea emateko.

Lan egiteko metodologiari dagokionez, batzordea nik ezagutu dudan momentutik aurrera behintzat, eta EGLU bildumako lanei gagozkiela, argitaratu behar genuen guztia pasatzen zen batzordeko bileretatik, eta puntuz puntu eta esaldiz esaldi aztertzen genituen txostengileek prestatzen zituzten txostenak, puntuazio-zeinu badaezpadakoak eta guzti; zenbat idatzaldi izango zituzten txosten askok! Bost idatzalditik gorakoak ez ziren gutxi izango. Lan kolektiboa zen, eta kolektiboki hartzen genituen erabakiak: txostenak bazuen bere egilea, baina batzordeak eman behar zion oniritzia, eta gauzak behar bezain argi ez bazeuden, estu eta larri ibiliko zen kasuan kasuko txostengilea.

EGLUen bildumako liburukiak prestatzeko, 2010etik aurrera behintzat, honako iturri hauek erabili ditugu batzordekideek: gramatikak (euskarazkoak —Azkuerena, Lafitterena, De Rijkena...— eta beste hizkuntzetakoak —Institut d’Estudis Catalans-enak, RAErenak...—), corpusak (EEBS eta OEH), unibertsitateetan idazten diren doktoretza-tesiak eta artikuluak, barne-iturriak (EGLUetan esandakoak asko erabili ditugu *Euskararen Gramatika* idaztean), Jagonet kontsulta-zerbitzutik iritsitako galderak⁷...

Batzordearen lehenbiziko zikloetan (1980-1990; 1991-2011) EGLU guztiak argitaratu ditugu:

- EGLU-I (1985).
- EGLU-I (Eraskina) (1987).
- EGLU-II (1987).
- EGLU-III (Lokailuak) (1990).
- EGLA: Euskal Gramatika Laburra: perpaus bakuna (1993).
- EGLU-IV (Juntagailuak) (1994).
- EGLU-V (Mendeko perpausak 1) (1999).
- EGLU-VI (Mendeko perpausak 2) (2005).
- EGLU-VII (Perpaus jokatugabeak) (2011).

2.2. Euskararen Gramatika

Bi aldi bereiziko nituzkeela esan dut EGLUean ontzebidetan: 1980-1990, garai prehistorikoa dei genezakeena, ezagutzen nautenek badakite kariño guztiarekin deitzen diodala horrela, eta 1990-2011 bitartekoa, garai digitalaren hasiera markatzen duena. *Euskararen gramatika* ontzen eman dugun aldia (2011-2020), berriz, hirugarren aldia litzateke niretzat: lehenbiziko «urra-

⁷ Jagonetera iristen diren galderek iradokitzen dituzte euskararen erabiltzaileen zalantzak, ahulguneak non dauden, eta erakusten digute non jarri behar dugun enfasia gure gramatiketan.

tsak» eman eta gero, bigarren urratsak emateko garaia iritsia zen: euskararen ezagutza dezente aurreratua zen, unibertsitateko euskal ikasketen bitartez batez ere (doktoretza-tesiak, aldizkariak, artikuluak, monografiak...), corpusen garapenean ere aurrerakuntzak izan ziren (corpus berriak osatu dira, euskararen erabilera garaikidea jasotzen dutenak —literaturgileenak, askotariko genero eta erabiltzaileenak...—, eta gramatika berrian erabili ditugu: adibidez, EPG, ETC⁸...).

Lana egiteko moduaren aldetik, gauzak asko aldatu ziren *Euskararen gramatika* ontzeko garaian: lana handiagoa zen, EGLU guztiak eguneratu behar ziren, osatu behar ziren, eduki berriak sartu behar ziren, azken urteetan euskalgintzaren jakintzan izandako berrikuntzak aintzat hartu behar ziren... Ezin genion ordura arteko lan egiteko moduari eutsi: ezin genituen liburu berriko orrialde guzti-guztiak batzorde-bileretatik pasatu: txosten guztiak pasatuko ziren batzordetik, hori bai, baina txostengilearen zalantzak eta batzordekideen desadostasunak bakarrik eztabaidatzen ziren bileretan. Hortik aurrerakoak (estilo-kontuak, kontu formalak, akatsak, erratak, zuzendu beharreko puntuazio-kontuak, desadostasun edo zuzenketa txikiagoak) idatziz eta txostengileari bidaliz bideratuko ziren. Txosten bakoitzak izango zituen pare bat irakurle-orraztaile izendatuak, txostena irakurtzeko lana hartzen zutenak: hortik aurrera nahi zuenak nahi edo ahal zuena irakur zezakeen, baina lehen-tasuna zuten bakoitzak alde zurretik ezarriak zituen betebeharrek, eta zintzoki betetzen ahalegindu gara.

Euskararen gramatika liburu berrian⁹, aurreko liburukiak (EGLUak) bildu ditugu: izenak berak zioen bezala (Euskal Gramatika. Lehen Urratsak), akademiaren gramatikaren lehenbiziko hurbilpena ziren EGLUak; eta gero etorriko ziren, urrats edo oinarri horien gainean eraikita, gramatika berria, osoagoa, modernoagoa, eta sendoagoa.

Berrikuntza asko ditu gramatika honek: adibidez, eta gramatiketan hain ohikoa ez dena, morfologia lexikoari zazpi kapitulu eskaini dizkiogu (Mirenen lanak ezagutzen dituen orok azkar ondorioztatuko du nork idatzi dituen kapitulu horiek), kategoria bakoitzari eskainitako kapituluak guztiz berri dira (izena, adjektiboa, izenordaina, aditza, adberbioa, determinatzaileak...), terminologia- eta kontzeptu-kontuetan ere aldaketak izan dira (deklinabidearen aipamenik jadanik ez dugu ikusiko gramatika berrian), hitz-ordenari buruzko kapitulu berri mardula sartu dugu, hizkuntzalaritzako kontzeptu batzuk sartu dira nik uste dut lehenbizikoz (argumentuak, argumentu-egitura, paper tematikoak, aditz motak...), adibideen erreferentziak ez ditugu tradizio klasi-

⁸ Ereduzko Prosa Gaur, Egungo Testuen Corpora ...

⁹ Honako hauek parte hartu genuen gramatika berrian: Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Ane Berro, Patxi Goenaga, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Alan King, Jesus Mari Makazaga, Céline Mounole, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal eta Pello Salaburu batzordekideek, eta Itziar Lakak eta Xabier Alberdik.

kotik bakarrik hartu (OEH corpusak XVI. mendetik XX. mendearen bigarren herenera bitarteko idazleak biltzen ditu —Mitxelena eta Txillardegiz izango dira azkenak—), baita erabiltzaile garaikideetatik ere (EPG, ETC corpusak), erdi eta erdi, esango nuke: erdiak tradizio klasikoetik, erdiak aro garaikideetik); gure azalpenak argitzeko sartu ditugun erabilera-adibideak ere garai batekoen aldean askoz errazago eta soilago eman ditugu, irakurleari enbarazurik sor ez diezaioten¹⁰.

EGLUak hartzen dituenak eta *Euskararen gramatika* hartzen duenak desberdintasun handia nabaritutako du itxurari dagokionez ere: azken gramatika trinkoagoa da, adibideak gutxiago sartu ditugu eta azalpenen paragrafoan bertan integratu ditugu: jakitun ginen EGLUetako moldea erabiltzera 2.200 orrialdekoa ez (horrelaxe atera da) baizik 4.000 orrialdeko «adreiblu» aterako zitzaigula.

Emaitza izan da gramatika berri, eguneratu bat, eta gaur egungo euskalgintzaren eta inguruko gramatikagintzaren testuinguruan homologatutako gramatika bat. Balio erantsia ematen dio, nire ustez, talde-lanean egina izateak. Ez dira asko gure inguruan hala osatuak.

Mirenen kontuetara etorririk, haren parte-hartzea garrantzitsua izan da gramatika berrian; morfologia lexikoari (hitz-eratorpena eta -elkarketa) eskainitako 7 kapituluetan, adibidez, ez zaigu batere gaizki etorri Mirenek izandako eskarmentua aurreko batzorde batean (LEF - Lexikologi Erizpideen Finkapenerako batzordea) eta bere doktoretza-tesia prestatzean. Baina ez du horretaz bakarrik idatzi: berak onduak dira, besteak beste, hitz-ordenarena, perpaus osagarriena, perpaus erlatiboena ere. Sintaxia, morfologia... denetarik izan ditu hizpide, eta denetan maila bikaina erakutsi du beti.

Izan ere, ondo jantzia izateaz gainera, buruargia dela ere esan daiteke, okertzeko beldur handirik gabe. Adibide bat emango dut esan nahi dudana ilustratzeko; ohikoa zen honako egoera hau bezalako bat: behin baino gehiagotan gertatu da bileraren batera berandu iritsi, eta batzordea adostasun bila luze (ordubetez ere bai) kateatuta egon eta gero, ez aurrera ez atzera, Mirenek ekartzen zigun maiz dena delako arazoari irtenbidea emango zion giltza, bera iritsi eta handik denbora labur batera askotan, gainera.

Gramatikagintzaren atalari amaiera emateko, eta beharbada itsusia dela aitortuta interesdunak egitea balorazioa eta ez kanpokoek, baimena eskatuko dut horretarako, iruditzen zait ez direla makalak izan gramatikagintzan batzordeak izan dituen lorpenak, Euskaltzaindiak 1980ko apirilaren 18an izendatu zuenetik lortuak. Beharbada zenbait kontutan ez genuen asmatuko (izan ditugu kritikak, ez gara perfektuak), baina kontuan izanda gure lan-jarduna

¹⁰ Hor ere, gramatika adibidez soiltzearen kontuan ere, bestelako kritiketan bezala, aintzat hartu dugu de Rijk jaunak Areatzan eman zigun aholkua (ikus de Rijk 2002, 56. or.).

ez dela lan honetara mugatzen, ez eta gutxiagorik ere, uste dut aintzat hartze-koa dela. Uste dut inork gutxik leporatuko digula besoak antxumatuta egon garela urte hauetan guztietan.

3. JAGONET KONTSULTA-ZERBITZUA

Gramatika batzordearen beste egitekoetako bat da akademiaren Jagonet izeneko kontsulta-zerbitzutik datozkigun galderei erantzutea; morfologia eta sintaxiari buruzko galderei, bistan da (gu geure arloan bezala, badira beste erantzule batzuk beren arloetan aritzen direnak: onomastika, hiztegia, literatura...). Joxe Ramon Zubimendi izan da urte askoan zerbitzu horren arduraduna¹¹, zerbitzua sortu zenetik, 2000 urtearen bueltan, oker ez banago, eta hark bidalitako galderei erantzuten ahalegintzen ginen: Joxe Ramonek berak erantzuten zien urtean ehunka galderari, baina konprometigarriak iruditzen zitzaizkionak (seguru ez zegoelako edo ikerketaren bat behar zuelako, edo talde batek hobeto erantzungo zuelakoan), batzordera bidaltzen zituen halako galderak. Arlo edo batzorde bakoitzean arloko arduradun bat izaten zen: gure arloan, Jagonet zerbitzua artean sortua ez zenean, Miren Azkarate izan zen galde-erantzunen arduraduna, eta azken urteetan, behin Jagonet zerbitzua abian jarri eta gero, ni neu naiz. Iristen zen galdera aztertu, eta guk geuk erantzun izan diegu erantzuna argi ikusten genuenean (asko laguntzen zuen, adibidez, guk geneukan EGLUen ezagutza sakon eta zehatzak: beti bagenekien non aurkitu galdetzen zen egiturari buruzko arrastoren bat); argi ikusten ez bagenuen, batzorde osora jotzen genuen. Erantzule-bitartekariaren eginkizun honetan Mirenen jarraitzaile izanik, ez dago esan beharrik hark nire aurretik egindako lanak asko irakatsi zidala (metodologia, erabilitako iturriak, erantzunak erredaktatzeko modua...).

Ehunka galdera-erantzunez osatutako datu-base bat osatu zuen bere garaian Zubimendi jaunak; bere erantzunak eta, besteak beste, gureak (Mirenenak, nireak, batzordearenak) biltzen zituenak: material oso baliagarria zen guretzat euskararen erabiltzaileen gabeziak eta zalantzak nondik nora zihoa-zen ikusteko, jakiteko gure lanek zer puntutan behar zuten arreta berezia.

Gaur egun, Joxe Ramon erretiroa hartuta dago, eta, gure batzordeari dago-kionez behintzat, asko aldatu da kontsulta-zerbitzuaren norabidea: hasteko, oso kontsulta gutxi iristen dira batzordera azken urteetan (beharbada osatua dugu zalantza-iturri izan daitezkeen auzien inbentarioa, eta argi dituzte gauzak erabiltzaileek), eta batzordearen lanetarako hain baliabide emankorra zen honek indarra galdu du azken urteetan. Nolanahi ere, Joxe Ramonek ondu zuen datu-

¹¹ Arduradun arduratsua, uzten baldin bazait hala esaten, batzordekideengan konfiantza handia zuena eta konfiantza ematen ziguna, umore oneko gizona, adiskide on bilakatu zena.

basea eta harrezkeroztiko galde-erantzunen datu-basea elikatzen ari direla uste dugu gaur egun: ondo etorriko zaio euskararen erabiltzaile orori, bere kontsulta egin baino lehen han egin dezakeelako alde zuretik kontsulta.

4. ARAUEN ETA GOMENDIOEN PRESTALANAK

Batzordearen beste egitekoetako bat da euskara batuko araugintzan edo gomendiogintzan prestalanak egitea, hau da, arau edo gomendio izan daitezkeen gaiak prestatzea Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak azken erabakia hartzeko. Hor aipagarria da Euskaltzaindiaren 1994ko Biltzarrerako batzordeak prestatu zituen hainbat gai, gero arau bilakatu zirenak edo gomendio gisa bideratu zirenak.

Hasteko, Batasunerako proposamenak prestatu zituen batzordeak, eta haien ondorioz argitaratu zituen Euskaltzaindiak morfologiako eta sintaxiko arau batzuk; hona nagusiak: Adizki alokutiboak (14. araua), Partitiboaren erabilera okerrak (16. araua), *Zu izan ezik* (17), Ordinalen eta banatzaileen idazkera (18), *Benetako, ohiko* (19), *Arazi* (23), Hitz elkartuen osaera eta idazkera (25. araua: hau LEF batzordearen lanetan oinarrituta, non Miren ere bai baitzebilan), *Hori eta, hori edo*, eta horrelakoen idazkera (27), Aditzoinen forma (28), Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea (29), Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola (30), *Ekartzea merezi du* (31), *Ongi etorri!* (33), *Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia* (34), Orduak nola esan (35), Data nola adierazi (37), *Egiteko asmoz* (41), *Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen* (42), *Arazi* aditzaren erregimena (43) ...

Arau horietaz gain, arau izatera iritsi ez ziren baina gomendio gisa Euskaltzaindiak argitaratu zituen hainbat gomendioren prestalana ere egin zuen batzordeak: «Okerrak zuzenduz» izenburupean aurkeztu zituen batzordeak 1994ko Biltzarrean (ikus Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia 1994b). Hona horietako batzuk: -A bokalaz amaitzen diren izenen mugagabeko kasuak (eta mugagabearen beste erabilera oker batzuk), -Z instrumentalaren zenbait erabilera oker, Partitiboaren erabilera, *Berri vs beste(a) ... bat/batzuk, Honez-kerodagoeneko, Iraun, balio/kosta, luzatu, neurtu, pisatu...*, **Ehun pezetatan garestitu*, **Ez daukazu zertan negar egin beharrik; Baita ere / ezta ere*, **Bazkaria eta gero / Bazkaldu eta gero*, **Hitzaldia medio / Hitzaldia dela medio*, **Hobe esan / Hobeto (hobeki) esan*, **Galdera itsusiet(z)az / galdera itsusiez*, -TAZKO?, **Elkar aritzen dira lanean / Elkarrekin aritzen dira lanean*, *Kanpo ministroak dimiti lezake*, *Guztiei gonbidatzen zaie*, Konpletiboen inguruko gorabeherak (-*enik/-ela*, -*enik* baiezko perpausetan, zehargalderetan -*en* atzizkia baina ez *-ENIK, -(E)LA atzizkiaren zenbait erabilera oker), Konparaziozkoak, Baldintzazkoak...

Azken hogeita bost bat urteetan, euskara baturako morfosintaxiko arau nagusiak eman direlakoan, ez da beharrik ikusi arlo horretako arau gehiago ema-

teko, eta nagusiki onomastikako arauak eman dira XXI. mendeko urte hauetan. Gomendioak, berriz, gramatiketan aurkitu ditzake euskararen erabiltzaileak.

5. BESTE LAN BATZUEN BALIOESPEN-TXOSTENAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren EIMA (Euskarazko Ikasmaterialgintza) egitasmoko lanak ere balioetsi ditu Gramatika batzordeak. Besteak beste, estilo-liburuko argitalpen hauek: *Kalko okerrak* (2005) eta *Morfosintaxiaren Inguruko zalantzak eta Argibideak* (2011).

6. ETORKIZUNEAN, ZER?

Hona batzordeak etorkizun hurbil eta ertainean esku artean izango dituen eginkizunak.

6.1. Gramatika txikia

Gramatika batzordearen etorkizun labur-ertaineko lan nagusia da argitaratu berri duen *Euskararen Gramatika* lanaren bertsio laburra prestatzea. Hala adostu dugu Euskaltzaindiaren Zuzendaritzarekin, eta lan horretara jarririk gaude batez ere gaur egun. *Gramatika Txikia* esaten diogu geure artean, eta azken gramatika era laburragoan, didaktikoagoan eta errazagoan euskararen erabiltzaileei eskaintzea da asmoa. Xedea da pare bat urtean amaitua izatea eta berehala argia ikustea argitalpen berriak.

6.2. Jagonet zerbitzua

Gramatika txikiak gain, Euskaltzaindiaren Jagonet kontsulta-zerbitzutik datozkigun galderi erantzuten jarraituko dugu. Gorago esan dudan bezala, azken aldiak ez dator galdera askorik batzordera, eta ez dauka itxuririk etorkizuneko gure lanen bizkarrezurra edo muina izango direnik atal honetako egitekoak.

6.3. Araugai eta aztergaiak lantzea

Badira gramatikaren gertakizun batzuk gramatiketan sartu ez direnak, edo behar bezain sakon landu ez direnak: halako hizkuntza-gertakizunak landuz joango gara; geroak esango digu zer-nola bideratuko diren gero: arau formak, gomendio gisa *Euskerak* aldizkarian argitaratuz...

6.4. Morfosintaxiaren Estandarizazioa batzordea

Azkenik, Gramatika batzordekide batzuk Morfosintaxiaren Estandarizazioa izeneko batzorde sortu berrian ere parte hartzen ari gara. Hor ere segituko dut Mirenekin batera lanean, harengandik ikasten, gu biok eta Pello Salaburu batzordekideak baikaude, besteak beste, batzorde horretan: batzorde ahaldundu berria da, argitalpen bat prestatzeko asmoz sortu dena, morfologian eta sintaxian sortzen diren erabilera okerrak zuzentzeko asmoz, eta, egoki ikusten dugun kasuetan, morfologiako eta sintaxiko arauak edo gomendioak prestatzeko.

Mirenek behin erretiroa hartzen duenean, ez dut topo egingo unibertsitateko gure sailean, ez eta UPV/EHUko Euskara Institutuan ere, baina bai seguerenik Euskaltzaindiko barne-lanetan, Gramatika batzordean: zeren eta, lehenago esan dugun bezala, Miren euskaltzaina ez da soilik osoko bilkuretara joaten eta hango kontuez arduratzen: gure gramatikaren sukalde-lanetan konpromiso osoz sartzten da, eta, uste izanda esku artean ez dituela orain arte bezainbat lan eta konpromiso izango, iruditzen zait hemendik aurrera ere asko emango diola batzordeari eta akademiari.

7. BIBLIOGRAFIA

- Azkarate, M. (1990). Hitz elkartuak euskaraz. Donostia: Deustuko Unibertsitatea. <https://worldcat.org/oclc/637201055>.
- Azkarate, M. eta Altuna, P. (2001). Euskal morfologiaren historia. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/oclc/432824580>.
- Azkue, R.M. (1923-1925). Morfología vasca (gramática básica dialectal del euskera). Bilbao: Editorial vasca [2. arg. (1969) Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca]. <https://worldcat.org/oclc/850886913>.
- Euskaltzaindia (1985-2005). Orotariko Euskal Hiztegia. <https://www.euskaltzaindia.eus/oeh>.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1985, 1991). Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-I]. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/6844.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1987a). Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-I, Eraskina]. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/6847.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1987b). Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-II]. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/24569.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1990). Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-III, Lokailuak]. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/3812.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1993). Euskal Gramatika Laburra: Per-paus Bakuna [EGPB eta EGLU Laburra]. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/67697.pdf.

- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1994a). Gramatikari buruzko proposamenak (I) Batasunerako proposamenak. Gramatika batzordearen zenbait proposamen euskara batuari buruz. *Euskera* 39(2). 835-910. Euskaltzaindia. Bilbo. <http://gorbeia.euskaltzaindia.eus/cgi-bin/abnetop/?TITN=49988>. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49988.pdf>.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1994b). Gramatikari buruzko proposamenak (II) Okerrak zuzenduz. Egun hedatzen ari diren badaezpadako zenbait esamolderi aurre egin beharra. *Euskera* 39(2). 910-965. Euskaltzaindia. Bilbo. <http://gorbeia.euskaltzaindia.eus/cgi-bin/abnetop/?TITN=49988>. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49988.pdf>.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1994c). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-IV, Juntagailuak]*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/7630.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (1999). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-V, Mendeko Perpausak-1]*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/37035.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (2005). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-VI, Mendeko Perpausak-2]*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/59143.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (2011). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak [EGLU-VII, Perpaus Jokatugabeak]*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/75445.pdf.
- Gramatika Batzordea. Euskaltzaindia (2021). *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/1350149936>.
- Garzia J. (2005). *Kalko okerrak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://worldcat.org/isbn/9788445722985>.
- Institut d'Estudis Catalans (2016). *Gramàtica de la llengua catalana*. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans. <https://worldcat.org/oclc/965200167>.
- Lafitte, P. (1944). *Grammaire Basque (navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. <https://worldcat.org/oclc/18353388>.
- Mitxelena, K. eta Sarasola, I. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Real Academia Española y Asociación de Academias de la Lengua Española (2009). *Nueva gramática de la lengua española* (2 vol.). Madrid: Espasa Libros. <https://worldcat.org/oclc/863211630>.
- Rijk. R. de (2002). Zer dut EGLU-ren kontra? *Euskera* 47. 53-60. Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/52481.pdf>.
- Rijk. R. de (2008). *Standard Basque: a progressive grammar*. Cambridge, Mass.: MIT Press. <https://doi.org/10.7551/mitpress/7444.001.0001>.
- Petirrena P. (2011). *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (Ikasmaterialetako hizkuntzaren egokitasun-irizpideak finkatzeko Aholku Batzordea). <http://hdl.handle.net/11162/157309>.

8. SAREKO WEBUNE BATZUK

Euskaltzaindia: ikus Gramatika Batzordea, Morfosintaxiaren estandarizazioa batzordea, Jagonet Zerbitzua, LEF Batzordea, Hiztegi Batua, Euskaltzaindiaren hiztegia, JAGON saila.

<http://www.euskaltzaindia.eus/arauak>.

<http://www.euskaltzaindia.eus/gramatika>.

<http://www.euskaltzaindia.eus/hiztegia>.

<http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>.

<http://www.euskaltzaindia.eus/jagonet>.

Euskara Institutua: <https://www.ehu.eus/eu/web/eins>.

Euskara Institutuko corpusak:

- Egungo Testuen Corpora: <https://www.ehu.eus/eu/web/eins/egungo-testuen-corpora-etc->
- Ereduzko Prosa Gaur: <https://www.ehu.eus/eu/web/eins/ereduzko-prosa-gaur-epg->

Itxaropenako artxibategiko altxorrak: Gabriel Arestiren bi liburuen makinizkribuak

Lourdes Otaegi*¹, Alexander Gurrutxaga**²

¹ Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

² Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Ikerketa Proiektua Literatura dokumentu historiko gisa. Kodea: GI21/003

Laburpena: Arestiren testuen inguruko ikerketa sakontze eta xehatze bidean dugu azken urteotan, eta jakina denez, Itxaropena argialetxea izan zen Gabriel Arestiren liburu enblematikoenaren, *Harri eta Herri* liburuaren editorea. *Euskal Harria* ere bertan argitaratzekoa zenez, Arestik eskuizkribua bidali zuen Zarautza, baina ez zuen han atera azkenean. Artikuluan zehar garatuko diren gorabeheren ondorioz, Kriselu argialetxea sortu zuen 1967an, bigarren liburu hori ateratzeko.

Itxaropenan gordetako 1963ko *Harri eta Herri* eta 1966ko *Euskal Harriaren* ale bakarrak 2022ko urrian zehar Zarautzeko Itxaropenaren erakusketan ikusgai egon zirenez, aukeraz baliatu nahi izan dugu ezagutzera emateko ikertzaile eta literaturazaleen artean, bi liburu horien aurretestu interesgarriak (eta ustez bakarrak) aztergai eta altxor baliotsuak direla euskal literaturaren historiarentzat. Artikulu honen helburua, beraz, lerro hauek idazten ditugunok aurkikunde preziazatuz dugun ikergai genetikoaren berriemaile izatea da, eta baita dokumentu horien balioa agerian jartzen duten ezaugarri nagusiak laburki adieraztea ere, ikerketa sakonagoak burutu bitartean.

Azken xede gisa, arreta erakarri nahi dugu euskal idazleen testuen sortze prozesura, eta Arestiren testu paradigmaticoen biren azterketaren bidez frogatu nahi dugu dokumentu horien ezaugarriak xeheki aztertuz soilik argitu ahal dela une historiko bakoitzeko presio linguistikoak, sozialak nahiz gubernamentalak zenbateraino aldarazi zioten Aresti bezain idazle ekintzaileari bere testuaren egitura, adierazmoldea, hizkera, eta abar.

Hitz gakoak: Aresti, *Harri eta Herri*, *Euskal Harria*, Itxaropena argialetxea, zentsura.

* Lourdes Otaegi. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatearen ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). lourdes.otaegui@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-6105-0824>.

** Alexander Gurrutxaga. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (UPV/EHU). Juan Ibañez de Sto. Domingo, 1 (01006 Vitoria-Gasteiz). alexander.gurrutxaga@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0003-1180-0831>.



1. SARRERA

Itxaropena argitaletxea izan zen Gabriel Arestiren liburu enblematikoenaren editorea, *Harri eta Herri*, bertan jarri baitzen moldeko letretan lehen aldiz 1964an. *Euskal Harria* ere bertan argitaratzekoa zenez, eskuizkribua bidalia zuen. Artikuluan zehar garatuko diren gorabeheren ondorioz, ordea, Kriselu argitaletxea sortu zuen 1967an, bigarren liburu hori ateratzeko. Itxaropenako bi makinizkribuak 1963ko *Harri eta Herri* eta 1966ko *Euskal Harriaren* ale bakarrak dira. Bi liburu horien aurretestu interesgarriak (eta ustez bakarrak) gorde ditu mende erdiz Itxaropenako artxibo pribatuak, altxor baliotsu moduan.

Artikulu honen helburua, beraz, lerro hauek idazten ditugunok aurkikunde preziatutzat dugun ikergai genetikoaren berriemaile izatea da, eta baita dokumentu horien balioa agerian jartzen duten ezaugarri nagusiak laburki deskribatzea ere, ikerketa sakonagoak etorri bitartean. Literatur azterketa konparatua egiteko edizio erreferente gisa, Karmelo Landak editaturiko *Gabriel Arestiren literatura lanak* (Susa, 1986) hartuko dugu, Arestiren poesia osoa biltzen duen zortzi aleko bilduma, gehienbat zentsurak kimatu eta eraldatu gabeko Arestiren lanen bertsioak erreproduzitu baititu. Lan horietatik, gure azalpen honetan *Harri eta herri / Piedra y pueblo* (1964) eta *Euskal Harria / Piedra Vasca* (1967) bakarrik izango ditugu mintzagai, horiek baitira Itxaropena argitaletxearen artxibo pribatuan gorderiko dokumentuak. Horrez gain, aipamen berezia egin nahi diogu Joan Mari Torrealdaik egindako lan xehe eta luzeari, bai Alcalá de Henareseko artxiboan Arestiren obraren inguruko dokumentuak errekupe ratzen, baita ondotik ere, obra horren eta zentsura instituzionalaren arteko harremanen azterketan sakontzen. Horretaz gain, liburuon azterketarako behar izan dugun zentsura espedientea osorik eskuratu zigun 2019ko neguan, eta azken unera arteko konpromiso horregatik ere gure esker ona eta omen sentitua aitortu nahi dizkiogu.

Esan bezala, bertsioen arteko ezberdintasunez mintzatuko gara eta zentsura mota ezberdinek egileari sorturiko presio handiaz. Horregatik, eskuartean darabiltzagun bertsioak izendatzeko kode bat sortzea beharrezko da. Lehenik, zehaztu dezagun Itxaropenako aurretestuei *Harri eta Herri 1963* eta *Euskal Harria 1966* deitura emango diegula, eta laburduraz *HH-1963* eta *EH-1966* izendatuko ditugula, argitaratzera iritsi ez zirenez, deitura erregistraturik gabeko aurretestuak direlako.

Azkenik, errepara bedi aurretestu horien data liburu gisa argitaratu aurreko urtekoa dela, berez Euskaltzaindiko sariketetara aurkeztu ziren bertsio osoak baitira, zentsuratu gabekoak. Irakurlearen arreta erakarri nahi dugu euskal idazleen testuen sortze prozesura, eta Arestiren testu paradigmatico biren azterketaren bidez frogatu nahi dugu dokumentu horien ezaugarriak xeheki aztertuz soilik argitu ahal dela une historiko bakoitzeko presio

linguistikoak, sozialak nahiz gubernamentalak zenbateraino aldarazi zioten Aresti bezain idazle ekintzaileari bere testuaren egitura, adierazmoldea, hizkera, eta abar.

Zuzenean harira jo aurretik, ordea, testuinguruaz hobeto jabetzeko, Arestiren idazlanek zentsurarekin izaniko harremana aurkeztu nahi dugu, eta hirurogeietako testuak hartuko ditugu aztergai, zentsurak sendo eragin baitzuen poesia errealista-sozialeko aro horretako testuen gorabeheretan.

2. GABRIEL ARESTI ETA ZENTSURA

Duela gutxi «Gabriel Arestiren poesia zentsuraren aurrean. Isiltasun garaietarako kodea» (Otaegi 2018) izeneko artikulu luzean jorratu genuen haren idazlanetan mamitutako Gerra Zibilaren eta gerraosteko 25 urteko Francoren bakearen kanpainaren aurkako jarrera. Arestiren liburuetan islatzen dira era bateko eta besteko kezkak, hala nazio identitateari eta hizkuntz identitateari buruzkoak, nola ideologia eta gizarte auzien ingurukoak. Oraingoan, ordea, hirurogeietako bi libururi buruz soilik arituko gara, eta haietan zentsurak eginarazitako aldaketen berri adieraziko dugu. Ikusiko denez, Arestik ezaguna den erregimenaren zentsuraz gain, euskal gizartean bizi ziren tentsio eta indar ezberdinen aurkako lehian ere baziharduen.

Jakina denez, hirurogeietan Arestik bat egin zuen poeta sozialen poetikarekin. Ordura arteko sinbolismo anglo-saxoiarekiko zaletasuna ez baitzen egokia poesiari eman nahi zioten funtzionalitatea emateko. Euskal poesia kultuaren baitan Federico Krutwigek eta Jon Mirandek garaturiko poetikaren ildoan kokatua zegoen Aresti ere, baina norabide aldaketa abiatuz, «harriaren zikloari» eman zion hasiera. *Maldan beherako* poesia sinbolistaren ostean tarteko aldi bat irekitzen da bere testu-sorkuntzan, gaur egungo adituen iritziz. Izan ere, *Zuzenbide debekatua* poema-liburua argitaragabe geratu zenez, *Maldan behertatik* (1959) *Harri eta Herri* (1964) bezalako liburuetara bitartean gertaturiko prozesuak isiltasunera kondentatu ditu zentsurak. Tarteko aro horretan suertatuko da Arestik euskal literaturaren «tradizio benetako»aren aurkikundea deritzona (bertsolaritza, Barrutia, ahozko generoak...), eta Blas de Oteroren poiesiaranzko hurbiltzea, antipoetika bat bilatuz: «biraoaren poetika bat» (Kortazar, 2015: 408-409). Hizkera hori zen Arestik behar zuena bere sasoiko Euskal Herrian bizi zen indarkeria giroaz mintzatzeko; erregistro literario hori behar zuen «Euskal tragedia» idatzi ahal izateko. Mintzaira horren jarauntsiaren hartzaileen artean hainbat izen aipa litezke ondoko belaunaldian (B. Gandiaga, J. M. Lekuona, X. Lete), baina baita, abangoardiaren ildo hartu zutenen artean (B. Atxaga, esaterako). Izan ere, O. Navarroren hitzekin bat eginez, «Arestiren bigarren aldiko obra literarioan mundu poetiko aberatsa, mamitua, poetika «poetiko» zehatzaren gainean eraikia dago, azaleko eta axola gabeko lehen irakurketaren itxura guztien aurka» (1987: 17).

Zentsurari aurre egiten zion idazle gisa, Arestik baliabide literarioen us-tiapien irudimentsua egin zuen, eta abangoardia surrealista eta poesia espazia-len aukerak erabat baztertu gabe aritu zen gehienetan. Zentsoreen ezagutza mugei erronka egitea bilatu zuen, haien lana zailtzea eta begi-lausoa sortzea, baina baita errealtatearen konplexutasuna eta bere baitan sumatzen zituen paradoxak adieraztea ere. Izan ere, «gehiengo zabalara» rentzat eginiko poesia bazen ere, Arestik ez zuen, aztergai ditugun testuotan ikus daitekeenez, poe-sia merkea egin. Celaya edo Oterok bezala, errealtateari erreparatzerakoan ez zeukan begirada ironiko-kritikoa ekiditerik, eta bere irudimen poetikoak poema landuak, estetikoki iradokitzaileak eta kultuak idaztera eramanez, zaletasun sinbolista anglo-saxoiaren miresmenak luzaz iraun baitzuen bere baitan.

Baina jo dezagun konkretura. *Harri eta Herri / Piedra y Pueblo* (1964) liburuak ez zuen, Torrealdairen ikerketen arabera (2014: 28), eragozpenik aurkitu zentsura gubernamentalaren aldetik. Foruakoak emandako datuen arabera, Madrileko AGA artxibategian «Jarri (sic) eta herri. Piedra y pueblo (1964)» izeneko fitxa bat aurki daiteke, Aresti, Gabriela-ren izenean, expediente zbkia 2005, eta Icharopena argitaletxeak igorria, 1964ko martxoaren 31n sartu eta 1964ko maiatzaren 26an ebatzi zena. Bost urte geroago, bi-garren eskaria agertzen da, «Harri eta herri. Piedra y pueblo» izenburuz eta oraingoan egilearen izen zuzen eta osoz, Aresti Segurola, Gabriel; espediente zenbakia 831 du, eta 1969ko urtarrilaren 24an sartu eta 1970ko maiatzaren 14an aldeko ebazpena izan zuen, lehenengoan bezala.

Halere, liburua argitaratzerakoan, euskal argitaletxeek ukoa ematen zio-ten, liburuko edukiarengatik baino gehiago Arestiren ospeagatik, haren ideo-logia ezaguna baitzen eta, baimena lortu arren, gerta baitzitezkeen geroago norbaitek salatzea eta gobernuak edizio osoa bahitzea. Zenbait kasu izan ziren, hala nola, Santi Onaindiaren *Milla euskal olerki ederren* edizioarena (1955). Juan San Martinek idatzi zuenez, berak lagundu zion Arestiri Eus-kaltzaindiatik Itxaropenarekin harremanetan jartzen, «Orixe»ren omenezko poesia saria irabazia baitzuen 1963an. Honelaxe aurkeztu zuen eibartarrak bere bitartekotza:

«Aresti 50. hamarkadaren amaieran ezagutu nuen. Eta gertatu zitzaion *Harri eta Herri* idatzi zuenean ez zuela aurkitzen non argitaratu. Han ze-goen ideologia 'errebeld' xamarra, berriarengatik euskal literaturan. Niri kopia bat bidali zidan eta ni arduratu nintzen. Joan nintzen Itxarope-nako Patxi Unzurrunzagarengana eta berari interesgarria iruditu zitzaion». (U. Urkizu, 2000: 15)

Gogoan hartu behar da bi urte lehenago, *Zuzenbide debekatua* (1961) ez zuela argitaratu ahal izan, bere eduki guztiz kritikoagatik. Arestik berak *La Justicia Interdita* itzulitako liburu hori, Euskaltzaindiko sariketara aur-

keztu zuen, baina ez zezakeen amestu irabazterik ez argitaratzerik, guztiz satira gogorra egiten baitzuen bertan Francoren pertsonaren, erregimenaren eta poliziaren aurka (Kortazar 2017: 340).

Euskal Harria / Piedra vasca (1967) liburuak, Euskaltzaindiaren Lizardi Saria irabazitakoak, argitaratzeko baimena eskatu zuen 1967an Ministerio de Información y Turismo-ren aurrean, baina ez zuen lortu, harik eta seinalaturiko aldaketak burutu zituen arte. Torrealdaik emandako dokumentuen arabera, «Euskal Harria eta beste 119 olerki. La piedra vasca y otras 119 poesias» liburuari buruzko 628 zenbakidun espedientea, 1967ko urtarrilaren 25ean sartu zen, eta 1967ko abuztuaren 10ean ebatzi. Arestik Bizkaian Informazio eta Turismo Deleatua zenari azalpen gutun batean laguntza eskatu zion, «para evitar en lo posible los previstos ataques y presiones de los que a través de su odio hacia lo vasco son enemigos de España, y de los oligarcas que por su procacidad son sacudidos en este libro» (Aresti, 1967/01/19). Ezezkoa jaso zuen, haatik, 1967ko otsailaren 21ean. Bigarren ekinaldi batean, J. A. Zarzalejos laguntzaz lortu zuen baimena urte erdi geroago. Preseski, xehe-mehe adierazi zitzaizkion egin beharreko aldaketak 1967ko martxoaren 18ko gutunean. Espedientean gorderiko idatzi horretan pertsona zenbait eginiko aipamenak ezabatzea eskatzen zitzaion: Aitzol, Agirre, Txirrita, Txillardegi eta Aresti bera, besteak beste.

Landaren 1986ko edizioan jaso denez, liburuak hainbat zuzenketa eta ezabatze jasan zituen zentsurako irakurleen aginduz. Zehatzago azaltzeko, Joan Mari Torrealdaik dioenez (1986: 232), Archivo General de Alcalá de Henaresen aurkituriko bertsioaren arabera, Arestik idazmakinez aurkezturiko testuaren originaleko 120 poemetatik, 82 gorriz markatuak zeuden, eta zatiz edo osoki ezabatzeko markatuak. 2019an eskuratu zigun dokumentuan argi ikus daitezke zentsoreen ohar ugariak, tatxatzeak, iruzkinak...

Bestalde, poema-liburu honetako testuek aurrekariak dituzte argitaratu ezin izan zuen *Mailu batekin: Biola batekin* makinizkribuan. J. Kortazarrek 2016an argitaratu zuen atal hori, eta edizioaren hitzaurrean azaltzen du makinaz idatziriko testu bat dela, 31 poemaz osatua. 1962an Euskaltzaindiaren Lizardi sarira aurkeztu arren, saririk gabe geratu zen (Kortazar, 2017: 340). Edonola ere, Arestiri dagokion espedientean gorde zen kopia bat AGAn, eta 1967an argitaratu zen bertsioarekin alderatuz, argi jakin dezakegu «Mailu batekin: Biola batekin 1962» atala bilduma zabalago batean sartu zuela Arestik 1966an, *Euskal Harria* izenburu orokorraren pean eta «Mailu batekin» izenburuz. Gero, 1967an liburua argitaratzeko prestatu zuenean, izenburua aldatu zion bildumari: «Euskal Harria eta beste 119 olerki». Bestalde, «Zuzenbide Debekatua-1961» bildumatik ere testu zenbait berreskuratu zituen. Azkenik, hirugarren atal oso bat eratu zuen Agustin Ibarrolari eskainia, eta artista bilbotarraren ilustrazioez prestatu zuen edizioa, Landaren 1986an inprimatu dena osorik lehen aldiz: zentsurak 60 poema bakarrik argitaratzeko

baimena eman zuen, eta haietan ere hainbat aldakuntza eraginez. Ibarrolaren irudietako zenbaitek ere ez zuen zentsuraren langa gainditu.

Gauzak horrela, esan daiteke *Zuzenbide debekatua* (1961) eta *Mailu batekin: Biola batekin* (1962) testu bildumek hainbat eraldaketa, gehikuntza, berreskuratze eta zentsuraren mozketak jasan zituztela. Jon eta Paulo Kortazarren lanaren ondorioz (2016: 27-47), eta Itxaropenako *EH-1966*en azterketaren ondoren, argiago nabarmendu daiteke 1967ko *Euskal Harriaren* irakurketa interpretatzailea burutzea zergatik den hain zaila. Batetik, testuak aurreko liburuetatik ekarriak dira eta sarritan deskontestualizatuta geratzen dira; bestetik, zentsurak atal bakoitzeko poemen arteko kohesioa hautsi du, irakurlea noraezean galtzen delarik sarri. Adibidez, Itxaropenako *EH-1966*ko bertsoan ikus daiteke egileak seiko eta hamaikako poema-serieak osatu zituela (Nerea etorkizunaren aurrean, Ahotsa, Soneto jazartuak...), baina, serieko poemetako batzuk zentsuratu ziren, eta egileak izenburua eta zenbakiak kontserbatuz adierazi zion irakurle konplizeari zentsurak isilarazi zizkiola testu horren testuingurua osatzen zuten beste poemak. Konplizitate hori gabe, zenbaketa jolas absurdotzat har daiteke, epatatzeko egina, baina ez zen horrelakorik Arestiren animoan.

Esate baterako, «Poesia Agustín Ibarrolarentzat» izenburupeko poema sortetan zentsuraren «entresakak» honako emaitza utzi zigun: jatorriz hiru ziren «Aberri ilunaren sonetoak» saileko testuak (1986: 101-104), baina hirugarrena soilik baimendu zen, «Aberri ilunaren hirugarren sonetoa», eta horren amaierako tertzetoa ere amaitu gabe utzi zuen egileak, erretizientziaren bidez zentsuraren guraizeen eragina zela iradokiz. Antzeko egoeran argitaratu zen «Nerea etorkizunaren aurrean» saila; segidako sei poemetatik lehenak, laugarrenak eta seigarrenak soilik gainditu baitzuten zentsura (1986: 113-118); ondorioz, sonetoen esanahi jarraitua galdu zen, eta horixe zen, hain zuzen ere, zentsuraren helburua. 1967ko alean «Soneto errebelatuak» saila deritzanean hamaika poema ziren (1986: 119-132), baina hiru soilik daude lehen edizio zentsuratuan, eta «Ahotsak» serieko sei poemetatik erdiak bakarrik argitaratu ziren 1967koan «Boz» gisa (1986: 105-112).

Esan bezala, *Euskal Harria* liburuaren jatorrizko egitura Joan Mari Torrealdaik Archivo General de la Administración (AGA)-tik ateratako aleetik berreskuratu ahal izan zuen Karmelo Landak¹. Lau atalez osatzen zen: lehenak, «Dukat edo ezkutu banatan saltzeko bertso berriak» (1986: 9-24); bigarrena, «Mailu batekin» (1985: 25-92); hirugarrena, «Poesía para Agustín Ibarrola» (1986: 93-138), eta laugarrena, «Euskal Harria» (1986: 139-231).

¹ Gorriz markaturik ageri dira zentsuraturiko testuak *Euskal Harriaren* aurkibidean. Ikus <http://www.susa-literatura.eus/liburuak/ares0301>

Landaren edizioaren epilogoan Torrealdaik emandako azalpenen arabera (1986: 232-234), bi zentsoreek txosten bana idatzi zuten, eta lehenak zenbait erreparo jarri zituen eta bigarren aditu baten azterketa zehatzagoa eskatu zuen. Hona, lehen txostengilearen hitzak:

«Esta colección bilingüe de poesías, algunas de ellas francamente buenas, viene impregnada de un espíritu de «euskerismo» tan exagerado a veces, que llega a glorificación de separatistas como Aguirre, y en otras ocasiones el autor se muestra tan propenso a la simpatía por las causas comunistas nacionales, que no duda en dignificar personas como Fidel Castro y en consecuencia a la injuria de la nación norteamericana en sus soldados. Por otra parte, y ya en el aspecto religioso, su desprecio por el cristianismo llega hasta la blasfemia en ciertos casos, faltando al respeto a la misma persona de Cristo. Hay además alusiones a personas y sucesos para nosotros desconocidos, que pudieran tener conexión con el separatismo bizkaitarra, y que convendría fueran examinadas por persona experta en estas cuestiones». (apud Landa, 1986: 233)

1967ko testu argitaratuak alderatzen badira AGAren artxiboetatik Torrealdaik erreskaturiko testuarekin, nabari da, poema ezabatuz gain, onartutakoetan ere zenbait lerro aldatuta daudela. Zenbait urte aurrerago Torrealdaik eginiko azalpen xeheagoetan (2014: 33-34) jasotzen da lehen txostenaren egilea Francisco Fernández Jardón izan zela eta eragozpen handirik gabe eman zuela argitaratzeko baimena, gorritz markatu zituen 15 testuetako zenbait lerro aldatuz gero. Halere, arestian bezala, beste txostengile baten laguntza gomendatu zuen, euskal gaietan adituagoa zena, «persona experta en estas cuestiones» (1967/02/20). Bigarrenak, Antonio Albizuk, ukatu egin zuen argitaratzeko baimena, liburuan ideia separatistak, gehiegizko euskerismoa, komunismoaren aldeko ideiak, Francorenganako mespretxua, erlijioari irainak, demagogia eta errespetu faltak aurkitzen zirela-eta. Bigarren honen txostenak, 1967ko otsailaren 21ean datatuak, hala zioen:

«Escrito en un estilo surrealista y simbólico, todo el libro es canto de rebeldía e inconformismo de la situación del País Vasco. Este se encuentra en terrible opresión y solo encuentra la palabra como arma de rebelión. Recuerda que Navarra, y las provincias vascofrancesas son también vascas y deben unirse... Hace referencias despectivas al jefe del Estado en forma velada, llamándole Franfran y Sanfrancisquito. Hace un uso irreverente de Jesucristo. Elogia el comunismo. No hay una página limpia de toda esta demagogia e irrespetuosidad». (apud Torrealdai, 2014: 33-34)

Albizuren uko biribilaren aurrean, Arestik agintariekin negoziatzea hautatu zuen, eta Bizkaiko gobernu ordezkari zen Juan Antonio Zarzalejosen bitartekotza lortu zuen Madrileko Ministeriooko zerbitzuburu zen Faustino Sánchez Marínen aurrean. Zarzalejosek Sánchez Maríni eginiko gutunean adierazitako arrazoien artean aipatu zuen Arestik gomendaturiko aldaketa

guztiak egin zituela; baina, horretaz gain, iradokitzen zuen garrantzitsua zela Arestiren liburua argitaratzea, euskararen aurkako ekintza gisa salatu ez zezaten. Izan ere, Jon Etxaideren adierazpenen bidez ezagutzen dugu 1960tik aitzina zentsurak gero eta indar txikiagoz eragotzi zuela euskarazko testuak argitaratzea, modu horretan ezabatu nahi baitzituen Francoren diktadurak 1937-1963 artean «euskal kulturaren aurka egindako genozidio»aren arrastoak (Etxaide, 1979: 21-22).

Jakina da Jon Etxaidek eragozpen handiak izan zituela 1950eko hamarkadan bere idazlanak argitaratzeko. Dirudienez, Itxaropenak 1953an *Purrapurra* ipuin bilduma argitaratu bazuen ere, Etxaidek ezin izan zuen haren ondotik prestatua zuen *Ipuiak* atera; Itxaropenako artxiboko dokumentuetan ikusten denaren arabera, 1954koa zen bigarren bilduma hau, baina liburuen inspektzioak argitalpena galarazi zuen. Maila pertsonalean noziaz zioten euskal literaturaren aurkako erasoaren gogortasuna Etxaideri, bere ideologia abertzalea zelarik arrazoi nagusia, zeren bere testuek ez zuten erregimenaren aurkako edukirik izaten. Mintzatzea librexeago izan zuenetik aitzina, beti salatu izan zuen hamarkadetako euskararen aurkako politika kulturalaren ondorioz, debekuez, isunez, edizio bahituez eta gisakoez euskararen garapen kultural oro ito zutela.

Politika kulturalaren aldaketaren lekuko da 1968an Ministerioak euskal poesiaren Jose Maria Iparragirre deialdia, aurreko urteetan argitaratutako liburu edizioak saritzeko. Aurkeztu ziren euskaldun biak Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* (1964) eta Xabier Leteren *Egunetik egunera orduen gurpilean* (1968) izan ziren (Zelaieta 2000). Sarituen berri 1969ko urtarrilaren 28ko BOEn iragarri zen: Arestiren liburua izan zen hautatua, eta Manuel Fraga Iribarnek, orduko Información y Turismoko ministroak, sinatzen zuen. Saria 50.000 pezetakoa zen, Zelaietak dioenez, Gabriel Arestiren orduko soldataren halako bost. Berez, oinarrien arabera, liburuaren edizioaren gastuetarako izendatzen zuten sariaren oinarriek, baina ordurako Itxaropenako lehen edizioa (1964koa) agortua zegoen, eta berredizioa argitaletxe beraren eskuetan utzi beharrean, Arestik diru hori Kriselu editoriala sendotzeko erabili zuen, Itxaropena argitaletxekoekin harremanak etenak baitzituen *Euskal Harriaren* edizioarekin izandako diru gatazkarengatik.

Bere argitaletxean prestatu zuen, beraz, *Harri eta Herriren* berrargitalpena. Azaldu behar da, bestalde, Kriselu (1967-2000) Gabriel Arestik sortutako zigilua zela. 1967 eta 1969 artean *Euskal Harria* (1967) eta *Harri eta Herriren* bigarren edizioa (1969) eta beste zenbait idazleren lanak eman zituen argitara, baina 1969an Lur argitaletxe donostiarrekin fusionatu zen, azken honek Kriseluren funtsa erosi zuelarik (Sarasola 2019). Lur etxea Rikardo Arregi, Luis Haranburu Altuna, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta Arantxa Urretabizkaiaren ekimenez sortua zen, eta Aresti harreman estuan sartu zen idazle horiekin.

Historialariek baieztatu duten moduan, hirurogeietan, erregimenak nazioarteko politikak beharturik, hogeita bost urteko diktaduraren arrastoak ezabatzeari ekin zion. Errepresioaren artxibo polizialak berrogeiko hamarkadan bertan hasi ziren ezabatzen; halere, 1965 eta 1985 artean burutu zen dokumentu suntsitze lan handiena, Francoren *bakeari* buruzko datu zehatzak ezkutatzuz eta diktaduraren kronika dokumentuen laguntzaz berreraikitzeak aukera eragotziz. Horregatik, pentsa daiteke Aresti sarituz euskararen aldeko politika baten sustatzailetzat aurkeztu nahi zuela erregimenak bere burua, horretarako abertzaleei aurre egiten zien egile polemikoa sarituz. Angel Zelaietak (2000) *Gabriel Aresti (biografia)*n adierazi bezala, Arestik bere liburua Ministerioaren sariketara aurkeztu zuenean, iritziak ez ziren bat etorri euskaltzaleen artean: Aresti duda-mudan ibili zen; Espainiako Gobernuaren helburuetariko bat euskaldunak «integratzea» zela jakinik, bere zirkuluko artean iritziak bereiz zebiltzan. Zenbait urte geroago ere salatzen zuen erabaki hau Luciano Rincónek: «Para mí, otro podría quizá aceptar ese premio. Gabriel, no. [...] En mi opinión no había que dar ninguna oportunidad al Gobierno de lavarse la cara en materia tan duramente reprimida como el euskera» (apud Zelaieta 2000: 131).

3. ITXAROPENAKO HARRI ETA HERRI 1963 ETA EUSKAL HARRIA 1966

Itxaropenako artxibo pribatuan dauden bi dokumentuek informazio baliotsua dakarkigute: bi liburu horien aurretestuetan ikus ditzakegu zentsurak argitaratu ziren liburuetan eragindako aldaketak, bai eta egileak argitaratzerakoan bere gisa harturiko zenbait erabaki formal eta semantiko ere. Arestian esan bezala, sarritan aipatu beharko ditugunez, *HH-1963* eta *EH-1966* laburdurak erabiliko ditugu aurrerantzean.

3.1. *Harri eta Herri 1963*

HH-1963 aurretestua 1964ko Itxaropenaren liburuarekin eta Landak bere edizioan jasoriko bertsioarekin alderatuta, arreta ematen duen lehen gauza honakoa da: «HARRI ETA HERRI» soilik jarri beharrean, *HH-1963*ko aurretestuan azpipitulu zabala dator, poemak bezala lerroetan bereizita: «HARRI ETA HERRI / (Kopla, bertso, ditxo eta poesiak) / Orixeren omenezko poesia-sariketan lehen saria irabazitako lana / Piedra y pueblo / (coplas, versos, dichos y poemas) / Trabajo ganador del 1. Premio del certamen de poesía organizado por la Academia Vasca, en homenaje a Nicolas Ormaetxea «Orixe», el año 1963».

Bestalde, poemategi argitaratua lau ataletan banaturik dago eta liburu editatuak hasieran eskaintza bat dakar, kortesiako orrian. *HH-1963*n, aldiz, eskaintza liburuaren lau atalen ostean dator, baina edukia ez da aldatu. Atal bakoitzeko poemak alfabetoko letrez zenbakituta daude, eta *HH-1963*n ere bai.

Liburuaren 1964ko bertzio argitaratuko lehen zatian N hizkia daramana falta da, eta haren itzulpena ere bai. *HH-1963n* osorik aurki dezakegu, honako izenburu adierazgarriarekin: «N) Bertso berriak Arrutzari jarriak / Versos nuevos a Arruza». Poema hori bera Landak editaturiko *Gabriel Aresti Poesia Argitaragabea. Azken poesia* (Susa, 1986) alean dago jaso, baina «Euskal komedia» izenburu berria darama eta *HH-1963ko* izenburuko Arruzari eginiko alusio zuzena ezabatua du (1986, 43-48 or.). Gaztelaniazko bertsoa, aldiz, Mikel Prietok eman zuen ezagutzera Ibon Sarasolaren aholkularitzaz, prentsaren bidez (*Berria*, 2016ko otsailaren 23an).

Lehenbiziko zatian N letra zeraman poema, «Bertso berriak (Arrutzari jarriak)» izeneko bertsoez osaturikoa ere ez zen argitaratu 1964ko liburuan, eta laugarren parteko «Asaben errespetoan» epilogo gisakoa ere ez. Arrazoiak ongi ulertzen dira, geroago aipatuko ditugun Imanol Egileor *Ikasleri* eginiko bertsoetan bezala, ikusita Mikel Arrutzari ere bertso zorrotzez erasotzen ziola, prentsa-polemika baten harira. Hona hemen lehen ahapaldia:

«Fede bagarik ez dau balio
 Jaunari errezeteak
 Alan portatzen dan gizonari
 Zarratzen jakoz ateak
 Fama andia dauka Bizkaian
 Iparreko Gazeteak²
 Aren kontrako gazuzatxo batzuk
 Min emon deust esateak
 Lengo batean emon eustazan
 Sekulako azoteak.»

Liburu argitaratuaren bigarren atalean, I hizkia zeraman poema falta zen eta haren itzulpena ere bai. Izenbururik ez du, baina *HH-1963n* osorik ezagutu dugu, euskaraz nahiz gaztelaniaz: «Ikasle jaun misteriotsuari. Haren irainen barkazio modura (rioja libre) / Al misterioso señor discípulo a modo de perdón de sus ofensas». Hainbat ahapaldiz osaturikoa da. Hiru zati ditu: Rioja libre, Benedictino eta Agua tónica. Mikel Prietok gaztelaniazko bertsoa osorik ematen du ezagutzera *Berriako* artikuluan, baina orain artean ez da euskarazko bertsoa aurkitu ahal izan. Hortaz, azpimarratu behar da Itxaropenako *HH-1963* ale honetan bakarrik dagoela aipaturiko testua osorik. Hona, beraz, «Rioja libre» atala lehen aldiz inprimaturik emana:

² *La Gaceta del Norte* (1901-1984) bilbotar egunkari kontserbadore eta monarkikoa, urte askoz Bilboko egunkari nagusia.

«Ikasle jaun misterioitsuari,
 haren irainen barkazio-molde.
 (rioja libre)
 Ene laguna entzun egizu euskaldun baten kantua
 Paradisuan bear duana segurantzazko santua
 Ak esan daian gure artean nor dan abere tontua
 Ori da gure kontua
 Pena bako asuntua
 Bertso berriak ateratzeko pentsau bear da puntua
 Aren ganean argitutzeko bakotxan adimentua
 Buru ariña, tenprea eta errespuesta prontua
 Olan jenteak jakin dagian daukagun pentsamentua
 Biok entzunda begietara etortzen jako llantua
 Ugari negar tantua
 Zuk dirudizu kapitana ta nik dirudit sarjentua
 Pallaso pare galanta gero nun daukagu talentua
 Bear degun ungentua
 Au gure itsumentua»

Bestalde, ez dago zalantzarik hiru testu horiek kentzeko erabakiarekin ados zegoela egilea, eta ez zela agintarien edo argitaletxearen zentsura izan. Izan ere, Itxaropenako *HH-1963* alearekin batean orri solte batean eta Arestiren testuaren paper eta idazmakina molde berarekin idatzia, bost lerroko ohar bat gorde da, antza denez egileak argitaletxeko arduradunari zuzendua non liburuaren edizioan ezabatu ziren hiru atal horiek ageri diren zerrendaturik eta lehen lerroa tatxatua:

«Bigarren parteko bertso berriak Mikel Arrutza jaunari.
 Hirugarren parteko bertso berriak Emanuel Egileor jaunari.-
 Laugarren partea asaben errespetoan.»³

Aipaturikoez gain, aldaketa txikiak ere badira idazmakinez idatziriko *HH-1963* liburuan. Esate baterako, laugarren partean, bertsio argitaratua «Astepeko sekretarioaren bertso berriak» irakur ditzakegu, eta *HH-1963n*, aldiz, «Astepeko bertsolariaren bertso berriak / Los versos nuevos del secretario de Astepe». Testu barruan ere badira aldaketak; esaterako, bertsio argitaratua dio «Nola diot inori esplikatuko», eta *HH-1963n*, berriz, «Nola dut defendituko» dator. Amaitzeko, esan genezake Itxaropenako *HH-1963*ko aurretetua makinizkribua bada ere, eskuz markatuak aurki genitzakeela gero liburuan beteko diren erabaki zenbait; esate baterako, I eta N hizkia daramaten bi poemak goitik behera tatxatuta ageri dira.

³ Ohar honetan egileak bigarren eta hirugarren partea dioen arren, liburuaren bertsio argitaratua Lehen Zatian, Bigarren eta Laugarren zatian falta dira testu horiek.

3.2. *Euskal Harria 1966*

EH-1966 dokumentua osorik dago Itxaropenako artxiboan, plastikozko karpeta batez babesturik. *HH-1963* makinizkribuaren idazmakina molde bera du eta orri zenbaketa zehatza. Bi dokumentuen antzekotasunak handiak dira: ortografia eta hizketa moldea *Harri eta Herrikoaren* jarraipentzat har daiteke; aldiz, Kriseluk argitaraturikoa eta ondoren Juaristi/Sarasolak erreproduzitua (1976) ezberdina da biei dagokienez. Aurrekoa bezala, dokumentu osoa euskaraz eta gaztelaniaz dago. Dokumentuak aurkibidea du eta irudirik ez; izan ere, Kriseluren ediziorako eginiko inkorporazioa izan ziren Ibarrolaren irudiak.

Ezberdintasun ugari dago 1966ko dokumentuko poema-sortaren eta 1967an argitaraturikoaren artean, hala egiturazkoak, zuzenean eragiten diotenak atalen banaketari, nola estiloari dagozkionak. Hain zuzen, estilo formal eta literario nabarmen zainduagoa, garbizaleagoa eta «estandaragoa» du Itxaropenako artxiboko bertsoak, gero Madrileko AGAra bidali zuen bertsoak baino. Alabaina, zentsurak hura kimaturik utzi zuen eta halaxe argitaratu behar izan zuen Arestik Kriselu sortuberrian. Hogei urte geroago Torrealdaik aurkitu zuen liburu osoa zentsurako artxibategietan eta Landak argitaratu 1986an. Horren adibide dira, kasurako, «Aberri illunaren sonetoak / Sonetos de la patria oscura» saileko poemen euskal bertsoak, zeinetan *EH-1966*ko bertsoetan sonetoak eskatzen duen estilo depuratu eta kultua erakusten duten.

Bestelako kontuen artean, dokumentua hobeki deskribatze aldera, euskarazko poemen dokumentuetan 1-70 arteko orrialdeak paper zurian idatzita daude, eta 71-79 artekoak paper horiz. Itzulpeneko orrietan ere berdin gertatzen da paper motaren aldaketa. Dokumentu originalean 1 eta 79 artean daude zenbatuta poemak, baina 32tik aurrera zenbaketa zuzenduta dago: 35 idatzita dagoen orrian 38 irakurtzen da azpian. Hortik aurrera denak gaineratik zuzenduak daude. Badirudi aurreko bertso batetik poemak kendu izanaren ondorio dela, baina momentuz ez dago jakiterik berez 35, 36 eta 37 poemak zein ziren lehenagoko bertso batean.

4. HIPOTESI GISA

Nola azaldu 1966 eta 1967ko ortografia eta hizketa molde aldaketa erradikal horren arrazoia? Zelaietak ematen duen azalpenaren arabera, Euskaltzaindiak ortografiari buruz hartutako erabaki batzuekiko desadostasun osoa adierazteko erabaki zuen erakunde horrek berak saritua zion *Euskal Harria* poemategiaz baliatzea. Lehen bertsioko ezaugarri formal, linguistikoak aldatu zituen molde «arrotzago» eta ez lehena bezain apaindu eta «molde garbikoa» osatuz. Aldatze prozesu horrek, jakina, euskarazko nahiz gaztelaniazko bertsoiei eragin zien.

Gure azterketaren hasieran azaldu dugun moduan, *Euskal Harria* berak sortutako argitaletxean ateratzeko erabakia hartu zuen eta hautsi egin zuen Itxaropena argitaletxearekin liburu saritua argitaratzeko eginiko akordioa. Testua berridazteko erabaki horren muinean dauden arrazoiak argitze aldera hipotesi bi aurreratu daitezke: batetik, Aresti erabat haserre zegoen Euskaltzaindiak euskara batuaren ortografiaren estandarizazio prozesuan hartutako erabaki laxoekin; baina, bestetik, liburuaren bertsio berrituak eta emendatuak jasotako Madrilako zentsuraren uko biribila ere hor zegoen, eta Arestik erakutsitako erresistentziak ere zaildu egiten zuen liburua argitaratu ahal izatea.

Angel Zelaietak prentsako artikuluen azterketaren bidez frogatzen duenez, 1967ko otsailean Karlos Santamaria jakitun zen Aresti liburuaren edizioa goitik behera aldatzen ari zela, hots, sariketara aurkezturiko *EH-1966* berridazten ari zela:

«Dirudienez “c”, “tc”, ta “ch” izkiekin asiko zera idazten, antziñako idazleen antzera. Urrangoan, “atcera”, “guciac”, “maitatcen”, “etcitzaion” ta orrela egingo dituzu beraz. (...) Beraz, pentsatzen aritu naiz: gizon ori “c” ta “ch” izkiak erabiltzen asi dan ezkeru (bear bada guztia gezurra), bere arrazoiak izango ditu berak ortarako. Gure euskaltzaleak batasunaren bideari jarraitu nai eztiotelako, desbatusunaren bideari jarrai dezaioten, alajaña!». (apud Zelaieta 2000)

Santamariaren iritzi artikuluari Arestik emandako erantzunak agertzen zuen Santamaria zuzen zebilela: «Euskal literaturan dagoen kaos hau apurtuko banu, behintzat (...)». Bere artikuluan Arestik presioak salatzen ditu, hautu ortografiko horiek egin ez ditzan edota liburua ez dezan argitaratu. Alabaina, konturatu behar dugu Arestiren erantzunean garrantzi handiagoa ematen zaiola zentsurak egin dion kalteari; zeren, debekaturiko poemak ez argitaratu arren, editorerik ez dezakeela aurkitu aitortzen du:

«Ministerioak ez argitaratzea akonsejatu dit (gaur egunean zentsurarik ez omen dago, baina lapitz gorriak ez dira abolitu); liburua ateratzeko lukurrero modernoekin kontraditu ditudan zorrak (ez hain interes handikoa, baina tira!). Eta zer gertatuko zait baldin eta nire liburitik lapitz gorriaz markatutako 25 poemak kenduta ere, aterako dudanean, Ministerioak sekuestratzen badit? Nola pagatuko dut Kajarekin hartu dudan zorra? Hori da inportantea niretzat, Santamaria jauna, eta ez H-ak harmatu duen iskanbilla edo C-ak harmatuko duena». (apud Zelaieta 2000)

Euskal Harria argitaratzea are zailago bihurtzen zuen Arestik erabaki izanak Agustin Ibarrolaren marrazkiekin ilustratzea eta atal bat eskaintzea harekiko elkartasunez. Izan ere, Agustin Ibarrola langileen manifestazio batean poliziarri aurre egiteagatik kartzelaratu baitzegoen. Horregatik, euskal

editoreek zentsuraren baimena ezinezkotzat jotzen zuten, eta edizioa bahitzeko aukera hurbil. Arestik, ordea, lehenago adierazi dugunez, Bizkaiko gobernadore zen Zarzalejosen babesaren laguntzaz gainditu zuen zentsuraren langa nolabait, eta Iparragirre sariaz Kriselu argitaletxea sendotu ahal izan zuen, A. Zelaietak aski egokiro azaldu zuen moduan.

Harri eta Herri eta *Euskal Harriaren* arteko aldeak nabariak dira orduko nahiz gaurko irakurleentzat. Saizarbitoriak idatzi zuenez, «*Euskal Harria* ez da *Harri eta Herri*ren zatia». *Harri eta Herri* abstraktuagoa da, borobila, «lehen bertsotik azkeneraino euskaldun garbia». *Euskal Harria* gogorragoa dela ez dago dudarik: bai hizkera erregistroz eta bai gaien aldetik eta egituraren planteamendutik. Halaxe, Arestik hautematen zuen euskal errealtate zakarra modu zuzenagoan eta erregistro gordinagoan adierazten zuen, eta hizkera ez hain dotoreaz, nahitara ezaindua, maiztua edo urratua dirudien hizkera molde batez. Arestiren testuko ortografia berriak inpaktua sortzea bilatzen zuela deritzo Saizarbitoriak, eta ildo berean esan daiteke *EH-1966*ko bertsiotik 1967ko liburu argitaratuta nabari daitezkeen hainbat aldaketetan euskal irakurleari arreta eskatzea duela helburu, hizkera lakarrago, erdaldu-nago eta nahitara itsusituaren bidez.

Liburuaren argitalpenaren uneko eztabaida linguistiko, sozial eta politikoei argitu dute Arestiren *plantoaren* erradikaltasuna: lehenik, ortografia hautuak garaiko idazleen «kaosa» salatzea zuen helburu. Bigarrenik, Ibarrolaren irudiez argitaratuz elkartasun ideologiko argia ematen zuen jakitera, eta euskara garbiaren obsesioaren menpeko euskaltzale eta politikariei euskara eredu endekatu batez erantzuten zien.

Bestalde, *Euskal Harriaren* poemategiari zentsurak egindako triskantzak ere, garaiko tentsio multipolarrean, liburu nahia eta ezinaren borrokaleku bilakatu zuen, Zelaietaren hitzetan, euskal munduan sortzen ziren ekaitzen adierazle zen «bonba bat», «injustiziaz beterikako ixiltasun baten erdian» Arestik leherrarazia (Zelaieta 2000).

Nola nahi ere den, *Euskal Harria* liburuak 1967ko edizio katartiko hartan harturiko moldeak aztergarri ditugu gaur egun Itxaropenako artxibategian gorderiko 1966ko aurretestuari eta Torrealdaik Madrileko AGA artxibategitik errekuaturiko bertsioari esker. Altxor literario aipagarriak dira, besteak beste, begien aurrean jartzen baitigute egilearen sortze prozesuaren urratsen berri.

5. ONDORIO GISA (MOMENTUZ)

Oroitarazi nahi dugu alderaketa hauek etorkizunean egin beharreko ikerketa xeheagoa eskatzen dutela. Nolanahi ere, espero dugu guztiz aberasgarria izango dela hemen iradokitako hipotesi hauek zuzenak diren egiaztatzea.

Gaur-gaurkoz, Itxaropenako artxiboko *HH-1963* eta *EH-1966* aleei esker, ikerketa honen ateak zabaltzen zaizkigu.

Orain arte buruturiko alderaketa lanak lehen ondorio zenbait ateratzeko aukera eskaini digu.

Harri eta Herriri dagokionez, aurreratu genezake 1963ko aurretestutik 1964ko liburu editatura eginiko aldaketek badutela zerikusirik zentsurarekin, baina ez zentsura gubernamentalarekin, euskal gizartean zuzentzat edo ortodoxotzat onartuko ziren adierazpenekin baizik. Hala, *HH-1963*ko bertsiotik 1964ko liburura gertaturiko aldaketa nabarmenenak euskal herritar ezagun eta posiziodunei eginiko bertso erasokorrak desagertzea dira. Batetik, lehen partean, Jon Arrutza euskaltzale ezagunari eginiko bertso gogorak desagertu ziren, eta, bestetik, Emanuel Egileor politikariari eginiko alusio guztiz pertsonalak ezkutatu ziren. Izan ere, bigarren partean «Ikasle misterioitsuari» zuzenduriko bertsoak bazeuden, hirugarren partean izen eta abizenez aipatzen zen abandotarra. Jakinez gero Manu Egileorrek (Bilbo, 1884-1970) «Ikasle» ezizena erabiltzen zuela, argi ulertzen da ingeniari eta politikari abertzale eta jeltzalearen aurkakoak zirela Arestiren inbektibak eta sarkasmoa. Bestalde, Migel Arruza Egia (Bilbo, 1890-1966), «Arrugain», «Garbi», «Garbi Zale Zarra» ezizenez sinatzen zuena zen. Idazlea eta irakaslea zen Arrutza eta Egileor bezala Pizkunde garaian hasi zen idazten. Ezaguna zen euskara ikasteko metodoen egile moduan, euskaltzain urgazle zen eta gudaosteko hainbat aldizkaritan zeuden bere lanak. Arestirentzat, gudaurreko belaunaldiaren kondar kontserbatzailerik zurrunena ordezkatzeko zuten.

Euskal Harriari erreparatzen baldin badiogu, Itxaropenako artxibategian gorderiko *Euskal Harria-1966* hura *Harri eta Herri* liburuaren ildo berean idatzia zela ondoriozta genezake, hizkera literarioaren aldetik eta egitura nahiz erregistro aldetik, hots, hura bezain «euskalduna», borobila, antolatua eta adierazmolde zaindukoa zen. Alabaina, garaiko gatazkek suturik eraldatu eta berridatzi egin zuen Arestik 1967an. Madrileko Ministeriora argitaratzeko baimen eske bidali zuen kopia ez zen jadanik Itxaropenako *EH-1966* bezalakoa. Espresio aldaketak, lexiko eta morfosintaxi «erdalduntze»ak adierazmoldeen garbitasuna eta dotorezia hausteko helburua zuten. Euskaltzaindiko Saria lortu ondoren eta Madrilera baimen eske bidaltzeko urte erdiko tartean, Arestik birmoldatu egin zuen, poemak gehitu zituen, eta Ibarrolaren irudiez hornitu zuen. Bestalde, eta hauxe da bere epilogoan aipatzen duen alderdi bakarra, ortografiaren arloan eraldaketak modu sistematikoan egin zituen: euskal txistukarien ts, tz eta tx fonemak x (amex, lax), z (minzatu, alzoan) edota c (arraulce, minzacen) eta ch (tacharik, gizacharrak) grafiez ordezkatu zituen. Ortografia molde propioa garatu zuen «Ortografia eta orolojiako arrazoiak» izeneko epilogoan arrazoituz. Egileak dioenez 1967ko udako lehen egunean idatziriko testuan honela argudiatu zuen aldaketa:

«Behar bada, linguista edo filologoak, atsegin haundia hartuko du gauza hauetan guztiotan: baina letra-gizonari urre-gorri merke eta ospel-harrabotsa iruditzen zaio, bere lanari gaitzetasunak jarri baizik egiten ez dizkiona. Kontuan har bedi linguistikak hilda dagoen edo hiltzera doan hitzkuntza bat estudiatzen duela, baina eskritoreak egunero jaio-arazitzen diola etorkizuneko hizkuntza berri bati. (...) Politikoez euskera “garbi” bat nahiago dute, naiz-eta horrela pobretzen den, baina eskritoreak euskera aberats bat behar du, naiz-eta horrela zikintzen den». (Sarasola-Juaristi ed. 1976, 155)

Hizkera eta idazkeraz gain, liburuko atalen zenbaketa eta antolaketa aldatu zuen Arestik. Besteak beste, atal berria erantsi zuen hasieran «Dukat edo ezkutu banatan saltzeko bertso berriak (maileguan emandako lehen disima)» izenburuaz, eta funtsean liburua ateratzekoan izandako zailtasun ekonomikoen salaketa da. Azkenik, poemategiaren egitura osoa aldatua dago, eta atalen barruko ordenamendua ere iraulia. Ia esan liteke liburuko atal gehienak birmoldatu zituela, baina gehien-gehiena hirugarrena eta laugarrena (Itxaropenako dokumentuan, lehenengoa ez dagoenez, bigarren eta hirugarren atalak direnak).

Alderaketak azaleratu digun beste ondorio bat da, hizkera literarioa alde batera utzita, *EH-1966* eta Torrealdairen bertsioaren arteko ezberdintasun nagusia 33 poema gehitzea eta Ibarrolaren ilustrazioak sartzea izan zela. Emaizta *Euskal Harria eta beste 119 poema* izenburu bitxia izan zen. «Euskal harria» izeneko poema 1966ko bildumako azkena zen, gero Kriseluko edizioan eskaintzaren ondoko lehena bilakatu zen. Erantsitakoen artean zeuden zentsurak erasokorrenzat seinalaturikoak, eta, horien ondorioz, arazo handiak izan zituen zentsuraren baimena lortzeko, baina zenbait testuk Arestiren zeharbidezko adierazpenerako trebetasun poetikoari esker gainditu zuten langa, hala nola «Bilbaoko kaleak» edo «Ya sabes mi paradero» testuek (Otaegi 2020). Horregatik, hainbat testu aldatu, moztu edo kenarazi zizkio ten, baimena lortuko bazuen. Kriselun 1967an argitaratu zuen bertsioan Zarzalejosekin adosturiko bertsio kimatuak jaso ziren, eta Juaristi-Sarasolaren 1976ko edizioak hura erreproduzitu besterik ez zuen egin. Geroztik etorri da adituen eskutik egiten ari den azterketa genetikoaren bidezko azalpen lan baliotsua.

Azkenik, erreparatu dugu Torrealdaik AGAtik berreskuraturiko aleak eta Landak editaturikoak ere badituztela aldeak, bereziki hirugarren atalean (53-81 zenbakidun poemak), non euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak alderantzizko posizioan ageri diren Torrealdaik berreskuraturiko AGAko bertsioan ez bezala. Baina, hain segur, edizio akatsak soilik dira, eta ez dute Landaren edizioak gaur egun erreferentziazko izaten jarraitzea eragozten. Edonola ere, orriotan partzialki aditzera eman dugun ikerketa genetikoak agerian uzten du, gure aburuz, Gabriel Arestiren obra nagusien edizio kritikoaren beharra. Bitartekoak eskura ditugu, azkenik.

6. BIBLIOGRAFIA

- Aresti, Gabriel. 1964. *Harri eta herri*. Zarautz: Itxaropena. <https://worldcat.org/oclc/919811580>.
- Aresti Gabriel. 1967. *Euskal harria*. Bilbo: Kriseilu. <https://worldcat.org/oclc/932358995>.
- Aresti, Gabriel. 1969. *Harri eta herri*. Bilbo: Kriseilu. <https://worldcat.org/oclc/851086718>.
- Aresti, Gabriel. 1976. *Obra guztiak I*. Donostia: Kriseilu. Jon Juaristiren edizioa, Ibon Sarasolaren hitzaurrea.
- Aresti, Gabriel. 1986. *Gabriel Arestiren literatura lanak*. Karmelo Landa (arg.). Zarautz: Susa. <https://www.worldcat.org/es/search?q=se%3AGabriel%20Arestiren%20literatur%20lanak>
- Etxaide Jon. 1979. Yon Etxaide: garai ilunetan idazle. Martin Ugaldere elkarrizketa. *Zeruko Argia*. 827. 21-22. *apud* Torrealdai, J. M. 1982. Euskararen zapalkuntza (1936-1939). *Jakin* 24. 5-73. <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulu/auskararen-zapalkuntza-1936-1939/1495>
- Kortazar, Jon, 2015. Gabriel Arestiren poesia eta Gerra Zibila, In Beatriz Fernandez & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ehu.eus/ehg/sarasola/liburua/SarasolaGorazarre34.pdf>.
- Kortazar, Jon & Paulo Kortazar. 2017. Sarrera. In *Mailu batekin: Biola batekin (1962) Gabriel Aresti*. Bilbo: Bilboko Udala. 27-47. <https://worldcat.org/oclc/1055577627>.
- Kortazar, Jon. 2017. Mailu batekin: Biola batekin (1962). Un libro desconocido de Gabriel Aresti. *Pasavento. Revista de Estudios Hispánicos* 5(2). 337-353. <http://hdl.handle.net/10017/30355>.
- Otaegi, Lourdes & Alexander Gurrutxaga. 2017. Where is Basque's Harbour? From The Old Heimat to the Space of Conflict. In Iztueta, G. *et al.* (arg.), *Raum-Gefühl-Heimat, Literarische Repräsentationen nach 1945*. Marburg: LiteraturWissenschaft. <https://worldcat.org/oclc/989775562>.
- Otaegi, Lourdes. 2018. Gabriel Arestiren poesia zentsuraren aurrean: Isiltasun garaietako kodea. *Euskera* 63. 789-827. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/82447.pdf>.
- Otaegi, Lourdes. 2020. La poesía de Gabriel Aresti ante la censura: códigos de expresión para tiempos de silencio. In: Olaziregi, M. J. & Otaegi, L. (arg.), *Censura y literatura. Memorias contestadas*. Berlin: Peter Lang. 241-264. <https://worldcat.org/oclc/1200312981>.
- Saizarbitoria, Ramon. 1967. Euskal Harria. *Zeruko Argia*, 1967.09.24. <https://www.susa-literatura.eus/kritikak/argia/krit0621.htm>.
- Sarasola, Beñat. 2019. *Semblanza de Kriselu (Bilbao, 1967-)*. Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes - Portal Editores y Editoriales Iberoamericanos (siglos XIX-XXI) - EDI-RED. <http://www.cervantesvirtual.com/obra/kriselu-bilbao-1967--semblanza-980218/>.
- Torrealdai, Joan Mari. 1986. Arestiren 'Euskal Harria'. Oharrak. In Aresti, G. *Euskal Harria. Gabriel Arestiren literatura lanak*. (3. alea). K. Landa (arg.). Zarautz: Susa. 232-234.

- Torrealdai, Joan Mari. 2000. *Artaziak*. Zarautz: Susa. <https://worldcat.org/es/title/1283094356>.
- Torrealdai, Joan Mari. 2014. Arestiren «Harria trilogia» eta zentsura. In: Zenbaiten artean. *Aresti, G. Harri eta herri. 50 urte*. Bilbo: Euskaltzaindia. 27-36. <https://worldcat.org/oclc/990266563>.
- Urkizu, Urtzi. 2000. Juan San Martin, idazlea eta euskaltzaina. *Euskonews & Media* 78 (2000.5.12-19). <http://www.euskonews.com/0078zbk/elkar7801eu.html>.
- Zelaieta, Angel. 1999. *Bilbok bere seme prestuari Gabriel Arestiri Omenaldia, 1986ko ihardunaldien aktak*. Bilbo: Bilboko Udala. <https://worldcat.org/oclc/432812823>.
- Zelaieta, Angel, 2000. *Gabriel Aresti (biografia)*. Zarautz: Susa. <https://worldcat.org/oclc/1351416054>.

Historian ez gara, beharbada, hain bakarrik ibili

Pello Salaburu*

Euskara Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

1. EUSKAL HERRIA, UHARTE?

Franskismoaren garaian sortu ginenok, betiere xx. mendearen bigarren aldiaz ari naiz, inpresioa izan dugu —nik bederen halakoa izan dut beti— gure lurralde honetan aitzin-aitzinetik bizi izan direla euskaldunak, eta euskara izan dela hemengo hizkuntza, oro har. Bai: egia da Euskal Herriko bazterretan bizi zirenek (kostaldean, Nafarroako hego edo ekialdean, Bizkaiko mendebaleko muturrean edo Pirinioez Iparraldera...) harremanak izan zituztela bertze hizkuntza batzuetan mintzo zirenekin, baina inpresioaren gunea ongi barneratua genuen: baserritarrek eta arrantzariek euskara baizik ez zuten ibiltzen, hiri handietan euskara gibelka zioan... Euskal Herria, azkenean, Santi Mamiñetik hasiz gero, uharte deigarri bat zen. Non ageri baitzen hizkuntza berezi bat, bakartua, egituraz deigarriago kanpokoendako barnekoendako baino, inork ere ez zekiena nondik heldu zen, jendakirik gabea... Holakoak izan ditugu gure hizkuntzari buruz errepikatu ditugun (errepikatzen segitzen ditugun) leloak. Hala da hori?

Mitxelenak (1968, 162) aspaldi gaztigatu zigun:

Nadie que conozca los hechos —o que sepa algo de las lenguas en general— podrá evidentemente sostener que ella haya sido, por un sorprendente milagro, la única lengua en el mundo que se ha mantenido incontaminada sin haber sido afectada por el contacto con idiomas vecinos.

Kontu honetaz ni baino aise prestatuago diren espezialistek aspalditik aztertu dute kontua.¹ Bai, hala da: historian zehar euskal hiztunek beti izan dute

* Pello Salaburu. Euskara Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Abandoibarra, 3 (48009 Bilbao). salaburu@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0001-8788-0925>.

¹ Norbait aipatzeagatik, Gasteizko Letretako Fakultateko ikerlariak aipatu nahi ditut (Joaquin Gorrochategui, Joseba Lakarra..., inondik ere bakarrak izan gabe). Historiari dagokionez, jakina, hori interesatzen baitzaite orain, egun gertatzen diren hizkuntza ukipenak ikertu dituzten espezialistak gutxietsi gabe.



inguruan, gehiago edo gutiago, bertze hizkuntza batzuetan mintzo zen jendea. Ez gara beharbada hain uharte isolatua izan.

Horrek badu azalpen bat, orain arte beharbada bigarren mailan utzi duguna: jendeari beti gustatu izan zaio bidaiatzea, hori ez da inola ere orain dela urte batzuk, komunikazio teknologia berriak direla eta, bat-batean euskaldunok aurkitu dugun mundu berria. Jendea etengabe bizi izan da, historian zehar, kanpoko jendearekin harremanetan, harreman estuetan gainera. Horren berri ematen digute artxibategietan aurkitzen ahal diren dokumentuek, testuek, aztarna arkeologikoen, eraikin historikoen eta abarrek. Eta horren berri ematen digute, hau berriago izanik, batez ere azkeneko bi hamarkadetan gertatu baita, gizakiaren DNAren inguruan egin diren ikerketek. Ikerketa horiek erakusten dute, argi eta garbi, ez garela bakarrik bizi izan, hemendik hara eta handik hona mugitzen ibili garela, bizkarrean jendeak gaur egungo motxila aerodinamiko horien ordeztu bertz zerbait baldin bazeraman ere. Armak, adibidez, anitzetan. Dena dela, Euskal Herria, gure planetako gainerako lurralde gehienak bezala ez da izan, beharbada, sartzeko eta ateratzeko ate gabeko uhartea.

2. MUNDUKO BIZTANLEEN JOAN-ETORRIAK HISTORIAN ZEHAR

Luigi Luca Cavalli-Sforza (1922-2018) genetikari italiarra zen, Stanford unibertsitateko irakaslea azken urteetan. Odolaren ezaugarrietan oinarritutako ikerketak egin zituen munduko gizataldeen migrazioa historikoak ikeritzeko. Arlo horretan urteak lehenago lanean hasia bazen ere, zenbait kiderekin idatzi liburu ezagun batean (Cavalli-Sforza, Menozzi, Piazza, 1994) bildu zituen, eta sistematizatu, bere aurkikuntzen oinarri nagusiak. Lan horretan hainbertze ikerketa mota desberdinen emaitzak argi berriarekin elkartzen eta batzen saiatu zen. Jakina da migrazio kontuen berri emateko dokumentuak, aurkitu aztarnak, datu arkeologikoak, hizkuntza datuak eta abar hartzen direla kontuan. Cavalli-Sforza azterketa genetikoetan oinarritu zen gaur egungo biztanle talde handien munduko banaketa azaldu ahal izateko, 60ko hamarkadatik aitzina konbentzitu baitzen iraganeko migrazio historiko handiak gaur egungo herrietan aurkitzen ahal ditugun desberdintasun genetikoak eta haien banaketa ikertuz azaldu zitezkeela. Genetika eta matematikaren bitartez gure iragan isildua argitu nahi zuen. Bera izan zen aitzindari, berak sortu baitzuen, neurri handi batean, jakintza arlo hori. Erran behar da, hori bai, berak esku artean zituen datu genetikoaren informazioa mugatua zela garai hartan, gaur arlo horri dagokionez dakigunarekin erkatuz gero.² Arlo be-

² Batez ere odol moten oinarritzko aldaerak (A, B, 0) hartzen zituen kontuan. 1990eko hamarkadaraino ez ziren espezialistak hasi kode genetikoaren (DNA) modu sistematikoan aztertzen. Hala ere, aski emaitza deigarriak aurkitzeko gai izan zen bere garaian.

rri bat sortu zuen, duda gabe, baina mugatua, nolnahi ere. Eta ikerketa haien ondorioz migrazio mapak sortu zituen, jendea nondik nora, eta noiztsu, mugitu zen azaldu nahi zutenak.

Bere ikerketa taldeak sortu eredu, aski erakargarria izanik, mende honen hasieran zalantzan jarri zuten Novembre eta Stephens-ek (2008). Hori dela eta, David Reichek ikertzaileak (2018: xvii) Moisesek egindako lan biblikoarekin erkatzen du Cavalli-Sforzak egin zuena: ameslaria izan zen, jakin zuen nora begiratu, eta hor anitz aitzinatu zuen, baina nola Moises ez zen inoiz ere bere eskuak seinatzen zuen ametsetako lur aukeratu hartara ailegatu, lehenago hil baitzen, hala Cavalli-Sforzak ere erakutsi zuen inork baino hobeki non zen ikertu nahi zuen lur hori, baina bera ere ez zen iritsi azterketaren burutzera. Ezin zen iritsi: intuizioa aski eredugarria izanik, garai hartan ez zuten ikertzaileek datu nahikorik eskura.³

Nora garamatzate azterketa berri hauek? Ondorioak handiak izan dira, baina adibide pare bat eman aitzinetik azpimarratu nahi dut bat, aski orokorra: ikerketa genetikoek erakusten dute, tokian tokiko DNA zaharra kontuan harturik, lurralde jakin bateko biztanleak aski gutitan datozela, DNAr dagokionez, iragan urrunean toki horretan bizi izan ziren biztanleengandik bakarrak (Reich 2018: xv). Antza denez, gure gurasoak toki anitzetakoak dira. Denak gara Karlomagnoen ondorengoak, denok dugu gure kode genetikoan zerbait harena.

1991n aurkitu zuten Alpeetako glaziar batean gorpu zahar bat hormatua, hotzak ongi atxikia hondatu eta desegin gabe. Kalkuluen arabera, 5.300 urte inguruko adina zuen, eta denbora hori zeraman horma artean bildua. Printzipioz denek onartu zuten, jakina, eta baziren arrazoiak hori pentsatzeko ere, inguru haietan orain bizi diren biztanleen aitzineko arbasoa zela gezi batek hil zuen pertsona haren gorpua. Baina 2012an azterketa zehatzak egin direnean ikusi ahal izan da DNA zahar horren «jendaki» hurbilenak egun Sardinian, ez Alpeetan, bizi diren biztanleak direla. Urte horretan berean Upsalako unibertsitatean aztertu zen Suedian orain dela 5.000 urte bizi ziren gizaki batzuen DNA. Denek uste zuten, ez ditut arrazoiak aipatuko, hango ehiztari zaharrak

³ Datuak ia-ia hilabetez hilabete aldatzen dira: Reichek dioen gisan (2018: xvii-xviii), gaur ez da zailtasunik egungo biztanleen DNA (kode genetiko) modu merkean deskodifikatzeko. Aztarna zaharrei dagokienez, 2010ean aztertu ziren lehenbiziko bost gizakiren kodeak: Neandertal arrastoen genoma arkaikoa, Denisovar baten genoma arkaikoa eta Groenlandian orain dela 4.000 bat urte bizi izan zen pertsona batena. Zortzi urte geroago, Reichen laborategiak bakarrak bazituen deskodifikatuak 3.000 erakusgarri zahar. Gutitan gertatzen da halakorik. Horrek datu multzo ikaragarriak jartzen ditu ikertzaileen eskuetan. Cavalli-Sforzaren 1994ko liburarekin erkatutik, laborategiak 10.000 aldiz datu gehiago zuen eskura (Reich 2018: 103), urte gutitan. Gainera, baliabide informatiko garatuekin lana aise arinago egin zitekeen eta konparaziorik gabe merkeago. 2014-15ean argitaratuak ziren dagoeneko Alemania, España, Anatolia eta bertze zenbait tokitako 200 baino gehiago europar zaharri zegozkien datu genetikoak (Reich 2018: 103).

zirela, Baltikoak ematen zuen aberastasuna ustiatzeko asmoz lurgintza utzi eta ehiztari bihurtuak. Eta ez zirela milaka urte lehenago Europako iparraldean ere bizi izan ziren bertze ehiztari zahar batzuen ondoko zuzenak. Baina DNAREN azterketak berriz ere erakusten du ehiztari horien eta haien aitzinekoztzat jotzen ziren nekazarien arteko desberdintasun genetikoa gaur egungo europarren eta asiarren artekoena baino handiagoa zela. Eta, berriz ere, egungo sardianarregandik hurbilago zirela (ikus Reich 2018: 100-101).⁴

Batxilergoan ikasi genuen egungo jatorrizko amerikar biztanleak Bering itsasartetik Alaskara iragandako populazio asiar bakar eta baten ondorengoak direla (honetaz Reich *et al.* 2012 ikus daiteke). Orain dela 13.000 urte inguru, hormen artean itsas iraganbide estu bat ireki zelarrik, lortu zuten Bering gurutzatzea eta gizakirik gabeko Ameriketa osoa ireki zitzairen aitzinean. Hori irakasten da oraingoz ere anitz tokitan, hori da anitzendako azalpen estandarra. Mila urtetan Ameriketako hegoalderaino iritsi ziren. Denbora laburrean, hortaz: ikertzaileek aurkitu aztarna arkeologikoez, geziek, desagertutako mamuten hezurrek, lanabesek, gorozkiek, karbono probek... denek gauza bera erakusten zuten, eta azalpenak Amerika osorako balio suen. Clovis eta Folsomen aurkitutako aztarnategiek ez zuten zalantzarik uzten, kontinentearen bertze toki anitzetan ere haien antzeko ezaugarriak zituzten aztarnak aurkitzen baitziren. Beraz, kontinente hartan haiek («Clovis taldeak») izan ziren lehenak, eta jatorrizko herri amerikar guzien arbaso sortzaileak haiek dirateke.

Baina 1997an Txileko Monte Verde izeneko aztarnategietan orain dela 14.000 urteko aztarna garbiak aurkitu zituzten. Eta berehala, garai bereko aztarnak Oregongo Paisley leizeetan (hemen DNA sekuentzia mitokondriala ere bereizi ahal izan ziren). Beraz hasierakotzat jotzen zen iraganbide hura agertu baino aise lehenagoko kontuak dira. Noiz jendeztatu zen, orduan, Amerika? Espezialistek jakin ahal izan dute orain dela 16.000 urte itsasbater batzuetan horma urtu zela (horrek erraztuko luke pasabidea). Posible zen, hortaz, jendeak garai hura baliatzea pasatu ahal izateko, baina ez da aztarnarik aurkitu. Zergatik? Izatekotan ere, hondakin guztiak orain urpean daudelako, urak 100 metro egin baitu goiti garai hartatik orain artio. Genetikan oinarrituz (Reich 2018: 156-157), eta ezagutzen diren gainerako datuak kontuan hartuz, ikertzaileak bertze konklusio batera iritsi dira. Amerika jendeztatzeko, ez migrazio bat, baizik lau migrazio handi gertatu dira: eurasiarrak (orain dela 23.000 urte), itsasoz Paisleyraino, eta handik hegoaldera gero; jatorrizko biztanleen («indioen») sortzaileak (ez dakigu noiz pasatu ziren,

⁴ Laburtuz: badirudi garai batean ekialdetik etorri nekazariak Europako toki anitzetan hedatu zirela, bidean aurkitzen zituzten ehiztari-biltzaileekin sobera nahasi gabe. Sardinian oraindik geratuko lirateke, uhartean isolatuago, orain dela 8.000 urte etorritako nekazari horien arrastoak. Bertze batzuek «populazio mamuen» beharra ikusi dute zenbait datu azaldu ahal izateko (beharrezkoak oraingo datuak azaltzeko, baina oraindik haien aztarnak inon ere aurkitu ez direnak).

13.000 urte baino lehenago, Clovis⁵ aldera eta urrunago iritsiak); Asiatik, paleo-eskimoak (5.000 urte) eta, azkenik, neoeskimoak, paleoeskimoak ordezkatu dituztenak (1.000 urte).⁶

Honaino iritsirik norbaitek galde dezake honek guztiak zer duen ikusteko hizkuntza kontuekin. Bai, badu: behin onarturik gaur egun Ameriketan bizi direnak (migrazio modernoak kendurik, jakina), jatorrizko biztanle «natiiboak» orain dela milaka urte Asia aldetik iragandako herrien ondorengoak direla, hizkuntzaren ikuspuntutik pentsatzekoa da amerindiarren hizkuntza guztiak familia handi baten seme-alabak direla, azpian taldekako bertze sail handi batzuk, urteen indarrak elkarren artean urrundurik, egin behar badira ere. Holako zerbait egin zuen Greenberg hizkuntzalarariak (Greenberg *et al.* 1986, Greenberg 1987). Greenbergekin multzo handi bakar batean sartu zituen hango hizkuntzak: denak amerindiarrak dira harendako.⁷ Denak, Na-Dene eta Eskimoak (Yuit eta Inuit) kenduta. Geroztik, hizkuntzalariek biziki kritikatzen dituzte konklusio horiek (Greenberg 1987: 664), besteak beste, baina ez horregatik bakarrik, metodologian egindako huts larriengatik ere. Baina hori ikusten da, dena den, genetikak eta hizkuntzalaritza historikoak lotura garbiak izan ditzaketela, migrazio historikoen mugimenduak aztertu nahi direnean.

3. EKIALDETIK ETORRITAKO HIZKUNTZAK

William Jones (1746-1794) Goi Mailako Epaitegiko epaile izendatu zuten Calcutan, India Britainia Handiko kolonia zen garaietan. Matematiketan formatua, erraztasun eta abilezia ikaragarria erakutsi zuen ttall-ttalletik hizkuntzak ikasteko eta haien arteko harremanak bereizteko. Eta berehala gai izan zen, institutuko azken urteetan, ekialdeko hizkuntzak ikasten hasteko ere. Hala izan zuen sanskritoaren berri. Gaiaz interesaturik, hiru urte eman zuen hizkuntza hura aztertzen, eta konklusio honetara iritsi zen.⁸

The Sanscrit language, whatever be its antiquity, is of a wonderful structure; more perfect than the Greek, more copious than the Latin, and

⁵ Clovis hitza polisemikoa da: kultura mota bati esaten zaio, eta New Mexicoko herri bati, non aurkitu baitira anitz aztarna.

⁶ Jabetu nahi badugu nolako lastertasunarekin aldatu diren gauzak kontu hauetan, ohar gaituz Renfrew ikertzaileak oraindik 1987an hau zioela: «the first hunters crossed the land bridge at the Bering Strait, perhaps earlier than 10.000 BC» (Renfrew 1987:121).

⁷ Aipa dezadan, kuriositate gisa, nola Greenbergekin (1987: 103, argitalpen elektronikoan) Sapirrek errana biltzen duen: hizkuntza amerindiar gehienetan *n-* dagokio lehenbiziko pertsonari, euskal aditzean bezala.

⁸ Hitz hauek anitzetan aipatuak izan dira. Nik jatorrizko grafian eman ditut, Bengalako Asiarrak Elkartearen hirugarren urteurrenean eman hitzaldiaren lehenbiziko transkripzioa errespetatuz. Renfrew (1987: 9) eta Reich (2018:118) ikertzaileek ere biltzen dute pasarte, grafia zerbait aldaturik.

more exquisitely refined than either, yet bearing to both of them a stronger affinity, both in the roots of verbs and in the forms of grammar, than could possibly have been produced by accident; so strong indeed, that no philologist could examine them all three, without believing them to have sprung from some common source, which, perhaps, no longer exists: there is a similar reason, though not quite so forcible, for supposing that both the Gothick and the Celtick, though blended with a very different idiom, had the same origin with the Sanscrit; and the old Persian might be added to the same family, if this were the place for discussing any question concerning the antiquities of Persia.

Jonesek ireki zuen, bada, bere intuizio paregabearekin, gaur egun inguruan ditugun hizkuntzen jatorria aztertzeko atea: munduan bizi diren biztanleen ia erdiak ama bakarra duten (protoindeuroparrera) hizkuntzetan mintzo dira. Ezagunago zaizkigun latina eta grezieraren aitzinetik bazen bertze hizkuntza bat ere, sanskritoaren aitzinekoa, nondik sortuak baitira entzuten ditugun oraingo hizkuntza anitz eta anitz. Horregatik erraten dugu indoeuroparrak direla. Orain dela 4.000 urte (2.000 K. a.-tik) enbor bera zuten sanskrito (Indiako Iparraldean), hititera (Anatolian, gaurko Turkian) eta Mizenasko hizkuntza erabiltzen ziren, elkarren artean dagoeneko aski desberdinak, haien arteko bereizketa aise lehenago gertatu baitzen. Baina denak jatorri berekoak dira.

Renfrewren ustez (1987: 120) hizkuntzen hedakuntza zahar horren berri eman nahi delarik, ezinbertzez egin behar da sinplifikazioa, proposatzen den ereduak hutsak izanen baititu nahitaez. Hemen hizkuntzalarien eta bertze espezialista anitzen (arkeologia, biologia, eta abar) artean egindako lankidetzak beharrezkoa da. Jendeak, toki batetik bertzera mugitzen delarik, bere lanabesak eramaten ditu, ehizan animaliak hiltzen ditu, landareak hazi... eta horien aztarnak han-hemenka sakabanatuak eta fosilduak gelditzen dira. Eta jendeak... hizkuntza ere eramaten du, non gelditzen baita atxikitua garaiko kulturaren parte bat: lanabesen izena, adibide soil bat emategatik.

Datu horietan guzietan oinarriturik, Renfrewren hipotesia da (proto)indoeuropar hizkuntzaren jatorria Anatolian (gaurko Turkian) bilatu behar dela. Haren ustez, K. a. 6.000-8.000 urteetako garaian migrazio handi bat gertatu zen Europa aldera, nekazaritza ekarri zuena: «At present it seems safe to say that the first farmers of Europe were settled in Greece (and Crete) before 6.000 BC» (Renfrew 1987: 147). Nekazaritzak abantaila handia ematen zien aitzinat ateratzeko, nekazaritza zer zen ez zekiten gainerako herrien parean. Jakina, hizkuntza hori ere ekarri zuten, eta European banatu ahala hizkuntza aldatzen, eta bertze hizkera batzuetan zatitzen hasi zen, urteen indarrez adarrak han-hemenka sortuz. Gainera, eskura zituen aztarna arkeologikoekin bat zetorren hipotesi hau, ez baitzen daturik pentsatzeko geroago ere migrazio masiboak gertatu zirela. Hortaz, historian gertatutako migrazio masibo handi horrek egiten zuen posible hizkuntza zahar hura, edo hizkuntza

zahar haiek, Europa osoan hedatzea, non urteekin gero eta gehiago bakan-duago geldituko baitziren elkarrengandik, hizkuntza «berriak» sortuz hola.

Kontua da, ordea, DNA zaharrak ikertuz, ondoko urteetan bertze konklusio batzuk nagusitu zirela: 5.000 urteaz gozotik ere bertze migrazio orokor eta handi bat gertatu zen Europako erdi aldera. Badirudi jamnaia herriak, edo haien jendakiak, etorri zirela Europara, eta badirudi haiek ekarri zutela hizkuntza, ekarri zituztela hizkuntzak. Europa Iparraldeko biztanleen asaba talde iturri handiena jamnaiak dira, informazio genetikoaren arabera.

David W. Anthonyk 2007an ateratako liburu batean ukitzen du gaia berri ere modu sistematiko batean. Erran behar da, zernahi gisaz, bazituela lehendik ere, 1986tik aitzina, bertze ikerketa eta lan asko gaiaren gainean. Anthonyren ustez, protoindoeuropar hizkuntza⁹ horren sorteria ez Anatolia (Itsaso Beltzaren hegoaldean) baizik Itsaso Beltza eta Kaspioren iparraldean dagoen estepetako lurraldea litzateke, jamnaia herrien kokalekua, hain zuzen ere. Gaur egun, lerro hauek idazten ari naizela, oraingo Ukraina eta Errusiako hegoaldearen zati bati dagokio eremu hori. Han zen mintzo protoindoeuropea edo, nahiago bada, han ageri ziren oraingo hizkuntzen lehenbiziko hizkuntza arbaso zaharrak, K.a.tiko 4.500-2.500 urteen artean. Beraz, handik hedatuko ziren Europara.

Zer ondoriotara iristen den, ikerketa guzieren abiapuntua argia da: hitzen erroak aztertzen dira hizkuntza hipotetiko berreraiketa horretara eraman gaitzaketenak. Erro horiek garai eta toki jakin bateko animaliak, landareak eta lanabesak identifikatu ahal izateko balio dute. Arkeologiak, biologiak, fisikak... ere ematen digute garai hartako tokien ezaugarrien berri. Lankidetzan nahi eta nahiezkoa da. Anthony konturatu zenez, eskura ditugun hizkuntza aztarna zaharretan, hizkuntza indoeuropar guzietan hiztegi komun bat partekatzen dute gurdien erabilerarekin lotua (gurpilek, ardatzak, garraio sistemak, orgak, eta abar). Aztarna horiek hizkuntza guzietan modu sistematikoan ageri dira, Anatolian bildu ziren aztarnetan izan ezik (hititera zaharra, lekuko), non ez baita gurdi-gurpilekin lotutako holako informaziorik ageri. Horrek erran nahi izan dezake Anatolian ez zutela, segur aski, gurdia ezagutzen. Baina gainerako hizkuntzetan, Indiatik hasirik eta Europa Mendebalderaino hedatzen diren hizkuntzetan hiztegi hori arrunta denez, pentsatzekoa da gurdia ibiltzen zuen herri zahar batek ekarri zuela hizkuntza, eta hor bilatu behar dela egungo hizkuntza indoeuroparren iragana. Baina gurdia ibiltzen

⁹ Anthonyk aipatzen dituen eragozpen larriak (170 eta h., edizio digitalean), besteak beste: 1) Protoindoeuropar hizkuntza zerbait berreraikia da, hipotesi bat, eta holakoek nekez dute sorterririk; 2) Oraingo hizkuntzen arteko antzekotasunak berdin azal daitezke alderantzizko bidean: batasun batera doaz, hasierako hizkuntza aski desberdinetatik abiatutik, eta 3) Hizkuntza horrek sorteria baldin badu ere, zeharkako datuetan oinarritutik eraiki dugun hiztegia ezin da erabili, anakronismoz josia baitago. Oztopo (balizkoak, Anthonyren ustez) horiei 5. kapituluaren erantzuten die.

zuen herri hori ezin da orain dela 5.000-6.000 urte baino zaharragoa izan, aztarna arkeologikoez argitzen baitigute orain dela 5.000 urte hasi zirela gurdia eta gurpila ibiltzen (Reich 2018: 120)¹⁰. Ehunka urte goiti-beheiti, urrun gelditzen dira data hauek, bakartzat ematen zen orain dela 8.000 urteko emigrazio zahar hartatik. Beraz, aipatu estepa horietatik ateratako jamnaia horiek Europako iparmendabelera hedatuko ziren eta, harrigarriago dena, Indiarara ere, bidean gaur egungo Afganistango mendiak gurutzatu ondoren.¹¹ Beraz, ez da dudarik onartzeko, ditugun datuekin, jamnaiek hizkuntza zaharr(ar)en hedatze horretan funtsezko eragina izan zutela.

Kontua da, ordea, erran bezala, Anatoliako hizkuntza zaharrek (hitiera eta bertze kultura batzuenak) ez zutela gurgil-ardatzen hiztegia ibiltzen (aztertu diren orain dela 4.000 urteko harlauzatzoko testuetan ez da arrastorik ikusten), baina haiek ere indoeuroparrak dira. Zer lotura dute, bada, elkarren artean, indoeuropar hizkuntzen arbasotzat hartzen diren Anatoliako (gurdien kulturatik kanpo) eta estepetako (gurdien kulturakoak) hizkuntza horiek?

Reich-ek (2018: 120-121), DNAREN azterketan oinarriturik bertze irtenbide bat proposatzen du: segur aski, indoeuropar hizkuntza bat lehenbiziko aldiz ibili zen tokia, Kaukasoko mendilerroaren hegoaldean bilatu behar da, gaur egungo Iran edo Armenia aldean (Turkiaren ekialdean, beraz). Hain zuen, handik hedatuko ziren, hedatuko zirenez, herri zahar horiek, denborarekin, batzuk Anatolia aldera, eta bertze batzuk iparraldera, estepetara.¹² Estepetan sortu zen jamnaia herria, etorkin berriak eta lekuko ehiztari/biltzaileekin elkarren artean nahasi zirelarik. Hauek, Anatoliakoak ez bezala, denborarekin gurdiak ibiltzen hasiko ziren. Eta hori eraman zuten Europa osora.¹³ Hori, eta hizkuntza(k). Egia izanik ere ez dela oraindik hititen ADN zuzenik aurkitu, gainerako datu guzietan, genetikari dagokionez, bat egiten dute hipotesi honekin:

DNA has emerged as central to the new synthesis of genetics, archaeology, and linguistics that is now replacing outdated theories [...]. Ancient DNA has established major migration and mixture between highly divergent populations as a key force shaping human prehistory, and ideologies

¹⁰ Urteen kontua, eta informazio mota hau, jakina, ikerketak aitzinatu ahala aldatzen da, edo bertze modu batera zehaztu. Pixka bat lehenago argitaratutako bertze lan batean, Anthony & Ringek diotenez (2015: 202), radiokarbonoarekin egindako probek gurgil-ardatzen erabilera K. a.tiko 4.000-3.500 urteetan kokatzen dute.

¹¹ Gaur Indian bizi diren biztanle gehienak aski desberdinak diren antzinako bi populazio zaharren ondorengoak dira. Horietako batek, DNA zaharren analisisien arabera, jamnaia herriari zor dio jatorri genetiko erdia bederen (Reich 2018: 123tik aurrera, 6. kapitulua).

¹² Ohart gaitezen hiru hipotesietan Itsaso Beltza eta Kaspio inguruez ari garela.

¹³ Eta hau bat dator arkeologoez aipatzen duten sokadun zeramikako kulturarekin (Cord Ware culture) ere. Kultura horrekin batera lotutako gorpuzki zaharrek, Alemanian aurkituak, lautik hirutan jamnaiei zor diete etorki genetikoak.

that seek a return to a mythical purity are flying in the face of hard science. (Reich, 2018: 121)

Hau da, Reichen ustez, ikasi behar duguna: DNA zaharrak erakutsi digu migrazio handien berri emateko gai dela, eta sortu den informazioa aski desberdina dela lehendik ezagutzen genituen ereduakin erkaturik. Besteak beste, indoeuroparren arrazaren «purismoarekin» ere akitu du: jamnaiak nahastearen ondorio dira.¹⁴ Denak gara nahaste hutsak.

4. ETA GURE UHARTEAN ZER?

Euskaldunak euskaldunen seme-alaba. Hemen bizi izan gara beti. Bai, noizbait gure arbasoak Afrikatik aterako ziren, baina behin hona iritsirik, gu beti hemen, mendi hauen artean, itsasoak babesturik goxo-goxo. Euskal Herriak Nafarroarekin galdu zuen bere jabetasuna, Amaiurren, hain zuzen ere. Hori gure gogoaren barnean sarturik dugu (batzuen gogoan bertze batzuen gogoan baino sartuago, hori ere hala da). Ez dut erranen herri aukeratua, zeren horretan bertze batzuk aitzinatu baitzitzaizkigun, eta denendako ez da tokirik.

Pentsamolde horrek, zernahi gisaz, egiaren parte bat baldin badu ere, Karlomagnoengana itzuli behar dugu, haren seme-alabak garela erran dudanez gero. Juan Ignacio Pérezek artikulu interesgarri bat argitaratu zuen gai honetaz (Pérez, 2019). Gutako bakoitzak aita eta ama; haiek beren aita-amak; aitatxi-amatxik berenak... Belaunaldiak 30 urtekoak badira, XIV. mende hasieran 16 milioi arbasoetaraino iritsiko ginatete, eta orain dela mila urte 16.000 milioietaraino, zuhaitzeko adarretan goiti eginez gero. Kontua da, ordea, XIV. mende horren hasieran 450 milioi biztanle inguru kalkulaten zirela lurrean (16 milioi horiek hor izatea posible, hortaz). Baina, datu historikoen arabera orain dela mila urte 400 milioi bakarrik, ez gehiago (16.000 milioetatik urrun). Beraz ezinezkoa da guk horrenbeste arbaso izatea. Azalpena: gure aitzineko adar genealogikoak behin eta berriz gurutzatzen dira elkarren artean, iragan mendeetan bat eginez, zuhaitz solte eta burujabeak baino gehiago sare trinko eta nahasiak sortuz. Rutherfordek (2016) aztertu zuen

¹⁴ Genetikak erakusten dituen bide aberatsak direla eta, ohart gaitezen nola aldatu duten datu berriek hominidoen garapenaren historia ere. Hiru hipotesi nagusi, gero eta landuago, erabili izan dira historian zehar gizakiaren jatorriari buruz (Reich 2018, 49 eta h.): 1) Lekuianiztasuna. Gure aitzinekoak gu bizi garen lurralde berean bizi ziren, eta haien ondokoak gara orain hemen bizi garenok. Mundu osoan modu paraleloan gertatu da eboluzioa. 2) Afrikatik gatzoz guztiak, han dago gure ama. Orain dela 50.000 bat urteko kontua da. 3) Gure izaera hibridazio baten ondorioa da: Afrikatik ateratakoak, neandertalak, denisovarrak... Hemen ehunka mila urtez ari gara. Etiopioan aurkitutako Lucy famatuaren hezurrei hiru milioi urte kalkulatu dizkiete. DNAREN azterketek informazio handia eta zehatza ematen dute, mutazioak noiz gertatu diren, urteen garaia kalkulatzeko. Reichek zehaztasun eta argudiobide harrigarria ibiltzen du.

kontu hau: «Charlemagne, Carolingian King of the Franks, Holy Roman Emperor, the great European conciliator; your ancestor» (2016: 189). Karlo-magnok izan zituen (gutienez) hemezortzi seme-alabetatik, bere seme Luis Jainkotiarrak sortutako genealogia ongi aztertua izan da, mendez mende, eta badakigu gaur egun Backer-Dirks izeneko familia herbeheretarrean akitzen dela. Ez da guti: ondorioz, gu ere, europar guziak, haren ondokoak gara, nahiz horrek bakarrik ez gaituen errege bihurtzen. Haren ondokoak eta, hori bai, batzuetako zinez pena, VIII. mendean European bizi ziren gainerako guzien ondokoak ere¹⁵. Non ez zen batzuen ondoretasuna eten, seme-alabarik izan ez zutelako (% 20an gertatzen da hori). Hemen bizi garen guzian linean genealogikoen orain dela 600 urte inguruko epe horretan egiten dute bat, Rikardo II.aren garaian (Rutherford 2016: 195): «Everyone European alive would be able to select a line that would cross everyone else's around the time of Richard II»¹⁶. Ikusten denez, esan dezagun lekukotasun historikoaren kontu hori gutienez zalantzan jartzekoa dela puntu batzuetan:

You are a royal descent, because everyone is. You are of Viking descent, because everyone is. You are of Saracen, Roman, Goth, Hun, Jewish descent, because, well you get the idea. All Europeans are descended from exactly the same people, and not that long ago. (Rutherford 2016: 201)

Analisi hauek guziek masa handien mugimendu eta bizitza egoerak aztertzen dituzte, baina azkenean inplikazio pertsonalak ere baditu. Alde batetik, azpimarratzen ari naizen hori: ez gara hain bakarrik egon. Hizkuntzak pertsonekin lotuak daude, eta pertsonak lekuz aldatzen diren neurrian, bertze hizkuntza batzuetako pertsonekin harremanak dituzten neurrian, horrek guziak hizkuntzan ere badu eragina. Eta gure uhartea ez da hain bakarrik egon, historian zehar kanpoko anitzek kokaleku eta iraganbidetat hartu izan baitu.

Hau ez da historiako artikulu bat, bertze lan bat litzateke hori, baina gertaera batzuk aipatu nahi ditut, ez garrantzizkoenak beharbada, baina adierazgarriak iruditzen zaizkidanak betiere kontuan hartzeko horrek hizkuntzan izan dezakeen eragina. Nire ustez, erdarak beti izan du pisua gure gizartean.

¹⁵ Horrek ez du erran nahi, jakina, gure karga genetikoak gizaki guzietan berdina denik, kargaren ezaugarrien ehunekoak pertsona batetik bertzera aldatzen baitira. Odol motak, konparazio. Hipotesi nagusi eta orokor honen barnean ulertu behar litzateke André Flores-Bello eta bertzek (2021) egin lana, nahiz konklusioak puztuegiak diruditen.

¹⁶ Orain dela urte batzuk nire DNA aztertzea erabaki nuen, kuriositatez. Harrez geroztik, lan hori egin zidan enpresak, gero eta gehiago datu duenez, horiek gurutzatuz, jendaki genetikoak aurkitzen dizkit munduan zehar. Horieta anitz, normala denez, Euskal Herrikoak. Baina badira urrungoak ere: laugarren lehengusu genetiko gisa Kalashnikov bat agertu zait. Siesta anitz egin dira munduan, ikusten denez.

Ez ditut aipatu gabe utziko, hasteko, muturra sukalderaino sartu zuten, sartu zutenez, erromatarrek. Hona hemen toki batzuk: Baiona, Irun, Iruñea, Nafarroa osoa,¹⁷ Veleia edo Forua, batzuk bakarrik aipatzeagatik. Beren ezpata eta gerra estrategiekin batera hizkuntza ere ekarriko zuten. Latina (mezan), gaztelania, frantsesa, eta latinetik eratorritako hizkuntza erromantzeak... ia esperientzia zuzenez ezagutzen ditugu. Gaskoiak Baionan eta Donostian izan dira. Donostian oraindik XX. mendean gaskoi talde batzuk astero biltzen ziren gaskoiz mintzatzeko kafea hartzen zuten bitartean. Eta Baiona eta Biarritz batzuetan hurbilago egon daitezke okzitanotik eta gaskoitik, historian zehar, euskaratik baino. Egoera horrek erresto handiak utzi ditu toponimian (dokumentuetan, eta lexikoan ere). Ingelesak ere Baionan ibiliak dira (ez edozein, gainera: Rikardo, Lehoiaren Bihotza). Iruñean eta Tuteran arabiarrek aurkitzen dira, historian zehar. Ireñean berean Navarria, San Cernin/Saturnino eta San Nicolas auzoak, zein bere leinu, hizkuntza eta ohitura desberdinekin, baina egunero harremanetan, elkarren artean joka ez bazen, olgetan, edo hirugarren baten aurka borrokan hasteko prest. Frankoak bizi izan ziren han, eta Isabel Mellenek (2021: 157) dioenez, hiri franko bat sortu zen Estibalizen ere XII. mendean Nafarroa eta Gaztela elkarren artean konpondu ezinik zebiltzala. Denok dakigunez, gure lurra Santiago Bideak gurutzatu ditu mendeetan zehar, handik ez bada hemendik (nekez aurkitzen dira dagoeneko bi gauza: Santiago Bidea ez duen herririk, eta Hemingwayk garagardea hartu ez duen tabernarik). Bide horietan euskaldunak ibiliko ziren, baina gehiago zeuden eginak kanpoko jendearendako, pentsatzekoa denez.

Ez da inor libratzen: 1521eko urriaren 19an, frantziarrak eta Nafarroako erregea¹⁸ Hondarribian sartu ziren, Euskal Herri erdi-erdian. Frantziarrek hartu zuten aginte osoa hirian, eta hondarribiar guziak kanpora bota zituzten. Bi urte luzez. Denak karriketarik kanpo, inguruko herri eta baserrietara lekutuak. Pentsatzeko da soldadu eta militar haietako gehienak (ez, bistan da, aitzindariak), nekez biziko zirela hilabete haietan jendearekin harremanik izan gabe (janaria, lanak, ... ez ziren moztu). Monteanok (2018, 2021a, b), aztertu du garai hau modu xehean eta ongi dokumentaturik azaltzen du borroka haietan interes desberdinak zeudela jokoan. Nafarroako errege eta erresumaren interesak, batetik, eta European nork hartu gailentasuna, bertzetik (Hagsburgo hispano-germaniarrak, ahal bazen ingelesen laguntza bila, alde batean, eta Frantziarrak, bertzean). Tartean Nafarroako erresuma, bere beaumontar eta agaramontarrek: eta gu horiekin akitzen zela mundua pentsatuz. San Martzialgo batailan mertzenario alemanak (landskenetak) ibili ziren el-

¹⁷ Laburpen grafiko bat hemen: <https://viatorimperi.es/navarra/>.

¹⁸ Urte haiek direla eta, Nafarroako errege Enrique II.aren eragina eta indarra goraiatu da, batzuen idearioan. Baina, neurri handi batean Frantziako errege Frantzisko I.aren morroi batestua baizik ez zen izan: «Hondarribia de 1521 a 1524. ¿Navarra o francesa?», galdetzen dio Monteanok (2018) epilogoan bere buruari. Historia tristea da hori guzia, tristea denez.

karren kontra borrokan, batzuek espainolen izenean eta bertze batzuk frantziarren izenean. Mertzenario horiek behin eta berriz agertzen zaizkigu urte haietan inguru hauetan. Amaiurko kontua ere, nafarren azken gotorlekua, orduan gertatu zen, 1522an. Nahiz bazeraman hamar urte luze batzuen edo bertzeen esku, beti borrokan, Frantziako (Europako) iraganbide nagusietako bat kontrolatzen baitzuen: Frantzisko I.a bera ere, errege izendatu aitzinetik, han ibili zen gotorlekua hartu nahian frantziar-nafarrekin. Amaiurren, gazteluaren defentsan ibili zirenen artean zenbatek jakinen zuen euskara? Monteanok euskalduntzat jotzen du azken uneraino harri haien artean egon zen aitzindari nagusia, Jaime Vélaz de Medrano, nahiz haren bizitzari buruz guti dakigun. Iguzkitzan, Lizarra aldean, 1475ean (?) sortua zela, segur aski. Baliteke euskaraz jakitea. Segurago da 100 bat defendatzaileen artean, guti dakigu haie-taz, eta erasotzaileen (5.000 lagun) artean, bazirela anitz euskaraz deusik ez zekitenak¹⁹. Eta, holakoetan, beti erdara da praktikan ibiltzen dena. Nola ibiliko zuten erdara, Urdazubitik hasi eta Elizondo, Irurita, Ziga, Arraioz, Doneztebe eta gainerako toki guzietan zeuden militarrek (elkarren kontrako in-teresekin maizkara), etengabeko harremanetan Iruñeko, Orreagako, Baionako edo Donibane Garaziko soldadu taldeekin. Urrun zuen euskara Karlos V.ak, urrun ere Parisen hazitako Nafarroako errege gazteak.

Eta holako zerbaite gertatuko zen, hizkuntzari dagokionez, XVIII. mendean Espainiako Kortera joan zirenen artean: Iturralderekin, konparazione, edo Nuevo Baztan sortu zuen Goyeneche arizkundarrarekin. Zer hizkuntza ibiliko zuten elkarren artean Aguirre Oñatiarrak eta Urtsu arizkundarrak XVI. mendean, ametsetako Eldorado aurkitu nahian zebiltzalarik?

Ez, beharbada, ikusi nahi dugun Euskal Herri horren ustezko euskaldun-tasun sakona pixka bat erlatibizatzea komeni da, eta onartu, datuen arabera, hemen jende anitz eta hizkuntza anitzetakoa ibili dela goiti eta beheiti histor-ian zehar. Horrek eramaten nau haurtzarora, mendez aldatuko naiz: jakina, medikua, maisua, guardia zibilak, udal idazkaria, al baitaria, argi indarra kon-pontzera etortzen zena, telefono publikoa kudeatzen zutenak, Elizondoko denda anitzetan, apaizen bat... erdaldun hutsak ziren. Edo erdaldun hutsak ez baziren ere erdara bakarrik ibiltzen zuten, itxuraz euskaldunenetakotzat hartzen zen toki batean (lagun batek «erreserba» deitzen dio orain ere). Eskolako gelan Bozateko adiskide eta ikaskideak ere banituen (erreserba, erre-serbaren barnean). Horien artean ere ez ziren erdaldunak falta. Datuak kohe-renteak dira.

¹⁹ Eta zer erran Bearne aldean gaztelukoei laguntza emateko bilduak zituzten 12.000 mer-tzenario suitzarren hizuntzaz?

5. AIPAMENAK

- Anthony, David W. 2007. *The Horse, the Wheel and Language*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press. <https://worldcat.org/oclc/644445194>.
- Anthony, David W. & Don Ringe. 2015. The Indo-European Homeland from Linguistic and Archaeological Perspectives. *Annual Review of Linguistics*. January 2015. <https://doi.org/10.1146/ANNUREV-LINGUIST-030514-124812>.
- Cavalli-Sforza, Luigi Luca, Paolo Menozzi & Alberto Piazza. 1994. *The History and Geography of Human Genes*. Princeton, NJ: Princeton University Press. <https://worldcat.org/oclc/733435164>.
- Flores-Bello, André *et al.* 2021. Genetic Origins, Singularity, and Heterogeneity of Basques. *Current Biology* 31. 1-11. <https://doi.org/10.1016/j.cub.2021.03.010>.
- Greenberg, Joseph. 1987. *Language in the Americas*. Stanford, California: Stanford University Press. <https://worldcat.org/oclc/636917184>.
- J. H. Greenberg, C. G. Turner II. & S. L. Zegura. 1987. The Settlement of the Americas: A Comparison of the Linguistic, Dental, and Genetic Evidence. *Current Anthropology* 27. 477-97. <https://doi.org/10.1086/203472>.
- Jones, William. 1786. *The Third Anniversary Discourse* (delivered 2 February, 1786, by the President, at the Asiatic Society of Bengal). (Berrargit. *The Works of Sir William Jones. With a Life of the Author, by Lord Teignmouth [John Shore]*. London, printed for John Stockdale and John Walker. 1807, 13 vols. in-8°. vol. III, 24-46). <https://worldcat.org/oclc/311056718>.
- Mellen, Isabel. 2021. *Tierra de damas*. Sans Soleil Ediciones. <https://worldcat.org/oclc/1272909322>.
- Mitxelena, Koldo. 1968. El vasco y las lenguas antiguas de España y Francia. In *La Gran Enciclopedia Vasca III*. 410-420 (Berrargit. OC V, 161-176). <https://worldcat.org/oclc/1055424097>.
- Monteano, Peio J. 2018. *Amaiur 1522, los navarros que defendieron el reino*. Pamplona: Editorial Mintzoa. <https://worldcat.org/oclc/1084512419>.
- Monteano, Peio J. 2021a. *Noain 1521. El fin del principio*. Pamplona: Editorial Mintzoa. <https://worldcat.org/oclc/1260194601>.
- Monteano, Peio J. 2021b. *La conquista de Hondarribia*. Pamplona: Editorial Mintzoa. <https://worldcat.org/oclc/1291888734>.
- Novembre, John, Matthew Stephens. 2008. Interpreting Principal Component Analysis of Spatial Population Genetic Variation. *Nature Genetics* 40. 646-649. <https://doi.org/10.1038/ng.139>.
- Pérez, Juan Ignacio. 2019. El legado de Carlomagno. *Cuaderno de Cultura Científica*, 1 de septiembre. <https://culturacientifica.com/2019/09/01/el-legado-de-carlomagno/>.
- Reich, David. 2018. *Who We Are And How We Got Here*. Oxford University Press. <https://worldcat.org/oclc/1041858421>.
- Rutherford, Adam. 2016. *A brief History Of Everyone Who Ever Lived. The Stories in Our Genes*. London: Weidenfeld & Nicolson. <https://worldcat.org/oclc/1114745546>.
- Reich, David *et al.* 2012. Reconstructing Native American Population History. *Nature* 488. 370-74. <https://doi.org/10.1038/nature11258>.
- Renfrew, Colin. 1987. *Archaeology and Language*. London: Penguin Books. <https://worldcat.org/oclc/22783661>.

Jite adjektiboak eta aditz psikologikoak euskaraz¹

Leire Sanchez-Dorronsoro¹, Beatriz Fernández², Ane Berro*¹

¹ Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea

² Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU))

Laburpena: Lan honetan, aditz psikologikoen *-garri* eta *-kor* jite adjektiboetan duten banaketa aztertu dugu. Horretarako, jite adjektiboen izaera arakatu dugu bi aldagairen arabera: balioa eta irakurketa modala. Ikusi dugunez, aditz psikologiko motak balio eta irakurketa modal desberdinak dituzte jite adjektiboetan, bai euskaraz bai beste zenbait hizkuntzetan ere. Hala ere, aditz psikologikoen jite adjektiboetan duten banaketa apur bat desberdina da ingelesarekin eta grezierarekin konparatuz gero; izan ere, euskaraz jite adjektibo aktiboak eta jasadunak daude, eta halakoetan ere, aditz psikologikoak ager daitezke. Horrez gain, ikusi dugu joerazko irakurketa modala aditz motetan hedatuago dagoela euskarazko jite adjektiboetan beste hizkuntzetakoetan baino.

Hitz gakoak: jite adjektiboak, aditz psikologikoak, eratorpena, euskara.

1. SARRERA

Euskal gramatikagintzan dihardugunon artean, asko gara sintaxiak erakarri gaituenok, mareak itsasora bezala, baina askoz ere gutxiago edo bakanak izan dira eratorpen morfologian, itsasadarrean, aterpe aurkitu dutenak. Marinel bakan horietakoa da Miren Azkarate, eta ur azalean utzi duen uberrari jarraika ibiltzen gatazka hitzen gaineko erantzunen bila. Lan honetan, *jite adjektiboak* (ing. *dispositional adjectives*) aztertuko ditugu eta horien artean Miren Azkaratek bereziki aztertutako *-garri* adjektiboak. Jite adjektiboak entitate baten berezko —eta ondorioz, behin-behinekoa ez den— ezau-

* Ane Berro. Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea. Unibertsitate orribidea, 24 (48007 Bilbao). ane.berro@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-6818-506X>.

¹ Lan honen bigarren eta hirugarren egileek Eusko Jaurlaritzaren (IT1439-22) eta Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia Ministerioaren (PGC2018-096380-N-I00) diru laguntza jaso dute.



garri bat adierazten dute, gehienetan gertaera bat jasateko edo sorrarazteko beharrari, jiteari edo joerari lotzen zaiona (Fábregas 2012; Oltra-Massuet 2013; Moreira 2014; Alexiadou 2018; Sanchez-Dorrnsoro 2022). Oro har, aditzetatik eratortzen dira atzizki jakin batzuen bitartez: euskaraz *-garri* eta *-kor* atzizkiak erabiltzen dira jite adjektiboak sortzeko (e.g. *ulergarri*, *hauskor*) (Azkarate 1990; Artiagoitia 1995; Zabala 1999; Oihartzabal 2003; Gonzalvo 2018); ingelesez *-able* atzizkia darabilte (e.g. *breakable* ‘hausgarri’) (Aronoff 1976; Oltra-Massuet 2013), Brasilgo portugaleraz *-vel* (*quebrável* ‘hausgarri’) (Moreira 2014) eta grezieraz *-sim* eta *-tos* (e.g. *katikisimo* ‘bizi-garri’, *everethistos* ‘suminkor’) (Alexiadou 2018; Tsaprouni 2019). Lan honetan, euskarazko *-garri* eta *-kor* atzizkietan jarriko dugu arreta nagusiki: aurreko lanetako azterketetatik abiatuz, gogoeta egingo dugu zenbait alderdiren inguruan beste hizkuntzetarako egin diren proposamenetan oinarrituz. Artikulu honetan, bereziki, aditz psikologikoetatik eratortzen diren jite adjektiboak arakatuko ditugu, nahiz eta bestelako aditzak ere aipatuko ditugun jite adjektibo guztien irudi orokorra osatzeko asmoz. Aditz psikologikoak emozioak, egoera mentalak edo psikologikoak, edo horien aldaketak adierazten dituzten aditzak dira (*maitatu*, *gorrotatu*, *gustatu*, *kezkatu*, *beldurtu*...) (Bellotti & Rizzi 1988). Aditz hauei eratorpen atzizkiak gaineratuz jite adjektiboak sor daitezke (*maitagarri*, *gorrotagarri*, *beldurkor*, *maitekor* eta abar), baina ikusiko dugunez, guztiek ez dute irakurketa edo izaera bera (Artiagoitia 1995, 2003; Alexiadou 2018).

Jite adjektiboek hizkuntzalari askoren arreta bereganatu dute azken hamarkadetan. Alde batetik, zenbat murrizketa erakusten dute oinarrian har dezaketen aditzari dagokionez; bestetik, balio eta irakurketa modal desberdinak har ditzakete, batzuetan oinarrian duten aditzaren arabera. Lehen alderdiari dagokionez, euskaraz, *-garri* atzizkia aditz iragankorrei eransten zaie; *-kor*, berriz, aditz iragangaitzei gaineratzen zaie normalean (Artiagoitia 1995; Zabala 1999; Oihartzabal 2003; Gonzalvo 2018; Sánchez-Dorrnsoro 2022). Bigarren alderdiari dagokionez, berriz, oinarrian dagoen aditzaren arabera, adjektiboen egitura morfosintaktikoa aldatzen dela ontzat hartuko dugu (Oltra-Massuet 2013; Alexiadou 2018), eta horren ondorioz, adjektiboak irakurketa modal bat izango du: *potenziala*, *joerazkoa* edo *ebaluatiboa*. Irakurketa potentzialean, aditzak adierazten duen gertaera edo egoera indarrean egon daitekeela adierazten da; joerazkoan, gertaera edo egoera indarrean egoteko erraztasuna; eta azkenik, ebaluatiboan, beharra, derrigortasuna ala ebaluazio subjektiboa ematen da aditzera. Nolanahi ere den, aditzaren semantikak berak ere irakurketa modal bat ala bestea eragin dezake (Moreira 2014), aditz egoeradunek oro har adjektiboaren irakurketa ebaluatiboa ekartzen baitute. Ikusiko dugunez, aditz psikologikoen gainean eraikitzen diren *-garri* eta *-kor* adjektiboek irakurketa ebaluatiboa eta joerazkoa izaten dute hurrenez hurren, nahiz eta batzuetan interpretazio biren nahasketa dagoela dirudien.

Lanak honako egitura hau izango du: lehenik aditz psikologikoen sailkapenaren berri emango dugu labur (2. atala); ondoren jite adjektiboak aztertuko ditugu eta horien sailkapena egiteko erabiltzen diren aldagaiak arakatuko ditugu —balioa, hau da, adjektiboaren subjektua oinarriko aditzaren subjektuarekin edo osagarriarekin indizekidetua egotea (3.1. atala), eta irakurketa modala (3.2. atala)— eta behin behineko ondorioak aurkeztuko ditugu (3.3. atala); hurrengo atalean, aditz psikologikoen jite adjektiboetan duten banaketa arakatuko dugu, batetik balioari eta irakurketa modalari erreparatuz (4.1. atala), eta bestetik aditz psikologikoen eta joerazko irakurketak duten harremanari begiratuz (4.2. atala); ataleko behin-behineko ondorioak emango ditugu (4.3.) eta, azkenik, ondorio nagusiak laburbilduko ditugu (5. atala).

2. ADITZ PSIKOLOGIKOAK

Jite adjektiboen azterketarekin hasi aurretik, aditz psikologikoen sailkapena eta banaketa morfosintaktikoa aurkeztuko ditugu. Lehen atalean esan dugun bezala, aditz psikologikoen emozioak, egoera mental edo psikologikoen, edo horien aldatetarako adierazten dituzten aditzak dira, esate baterako, *maitatu*, *kezkatu*, *miretsi*, *beldurtu* eta *gustatu*. Aditz hauen argumentuen errol tematikoa eta kasu marka kontuan hartuta, Belletti eta Rizzik (1988) hiru taldetan sailkatu zituzten italiarazko aditz psikologikoen. Sailkapen horretan oinarrituz, euskararako Fernández, Zúñiga eta Berrok (2020) egindako banaketa ekarri dugu hona (ikus baita ere Etxepare 2003 eta Fernández eta Ortiz de Urbina 2010).

- (1) I. taldeko aditz psikologikoen (*temere* italiaraz):
Amak (ERG) armiarmak (ABS) **gorrotatzen** ditu.
- (2) II. taldeko aditz psikologikoen (*preoccupare* italiaraz):
Ekaitzak (ERG) ni (ABS) **beldurtzen** nau.
- (3) III. taldeko aditz psikologikoen (*piacere* italiaraz):
Niri (DAT) istorio dibertigarriak (ABS) **gustatzen** zaizkit.

Errol tematikoari erreparatuz, I. taldeko aditz psikologikoen subjektua esperimentatzailea da, eta osagarri zuzena estimulua; II. taldekoetan, berriz, esperimentatzailea osagarri zuzena da, eta subjektua estimulua —kasu batzuetan arazletzat har daitekeena—; azkenik, III. taldekoetan, subjektua esperimentatzailea da eta osagarria estimulua. Nolanahi ere den, III. taldean subjektuaren eta osagarriaren banaketa ez da besteetan bezain argia, hainbat hizkuntzatan esperimentatzailea osagarria dela eta estimulua subjektua dela proposatu izan baita (Belletti eta Rizziren 1988 jatorrizko lanean esate baterako). Guk hemen, datiboa subjektutzat hartuko dugu, eta absolutiboa osagarritzat (Fernández, Zúñiga & Berro, 2020).

Kasu markari dagokionez, bestalde, euskara bezalako hizkuntza ergatibo batean, I. taldeko aditzetan subjektu esperimentatzaileak ergatibo kasua darama eta osagarri zuzenak, hau da, gaiak, absolutiboa (1); II. taldeko aditzetan, aldiz, alderantziz, hots, estimuluak ergatibo kasua du eta esperimentatzaileak absolutiboa (2); eta III. taldeko aditz psikologikoetan estimuluak absolutibo kasua darama, eta esperimentatzaileak datiboa (3) (Fernández, Zúñiga & Berro 2020) (ikus 1. taula). Aldiz, italiara bezalako hizkuntza nominatiboetan, I. taldeko aditz psikologikoetan esperimentatzaileak nominatibo kasua darama eta gaiak akusatiboa; II. taldekoetan, berriz, estimuluak darama nominatibo kasua eta esperimentatzaileak akusatiboa; azkenik, III. taldeko aditzetan estimuluak darama nominatibo kasua eta esperimentatzaileak datiboa.

1. taula

Aditz psikologikoak hizkuntza ergatibo eta nominatiboetan:
errol tematikoa eta kasu marka
(Fernández, Zúñiga eta Berro-tik 2020 moldatua)

	Esperimentatzailea	Estimulua
I. taldeko aditz psikologikoak (gorrotatu euskaraz, <i>temere</i> italieraz)	ERG / NOM	ABS / AKU
II. taldeko aditz psikologikoak (beldurtu euskaraz, <i>preoccupare</i> italieraz)	ABS / AKU	ERG / NOM
III. taldeko aditz psikologikoak (gustatu euskaraz, <i>piacere</i> italieraz)	DAT	ABS / NOM

Ondorengo ataletan aztertuko dugu aditz psikologikoen arteko talde bakoitzak zein atzizkiren bidez osatzen dituen jite adjektiboak. Ikusiko dugunez, aditz psikologikoak askotariko balio eta irakurketa modaleko jite adjektiboetan ager daitezke.

3. JITE ADJEKTIBOAK

Lehen atalean esan dugun bezala, jite adjektiboek askotariko aditzak har ditzakete oinarrian, eta euren balioan eta irakurketa modalean desberdintasunak daude. Atal honetan, jitezko adjektiboen sailkapena aurkeztuko dugu, lehenik, balioari erreparatuz (3.1), hau da, adjektiboaren subjektua oinarriko aditzaren subjektuari edo osagarriari dagokion ikusiz, eta bigarrenik, adjektiboak berak duen irakurketa modalean oinarrituz (3.2). Ikusiko dugunez, irakurketa modalaren arabera, jite adjektiboak potentzialak, ebaluatiboak ala joerazkoak izan daitezke.

Sailkapenekin hasi aurretik, baina, komeni da jite adjektiboen eratorpen prozesuaz ohar bat egitea. Orain arte oinarrian aditz bat hartzen dutela esan dugu, jite adjektibo gehien-gehienetan hori horrela baita. Izan ere, lehen atalean aipatu dugun bezala, jite adjektibo gehienak aditzari eratorpen atzizki bat gaineratuz sortzen dira: ingelesez *-able* atzizkia eransten zaio aditz erroari (4), grekeraz, *-sim* eta *-tos* atzizkiak (Alexiadou 2018; Tsaprouni 2019) (5), brasildar portugaleraz *-vel* (Moreira 2014) (6) eta euskaraz *-garri* eta *-kor* (Azkarate 1990; Artiagoitia 1995, 2003; Oihartzabal 2003; Gonzalezvo 2018) (7).

- (4) a. translate + able → translatable ‘itzulgarri’ *ingeleza*
 b. love + able → lovable ‘maitagarri’
 c. irritate + able → irritable ‘suminkor’
- (5) a. katik(ó) (‘bizi izan’) + sim → katikisimo ‘bizigarri’ *greziera*
 b. aksi (‘merezi duena’) + agapi (‘maitatu’) + tos → aksiagapitos ‘maitagarri’
 c. ev (‘erraz’) + erethis (‘sumindu’) + tos → everethistos ‘suminkor’
- (6) a. admirar + vel → admiràvel ‘maitagarri’ *Brasilgo portugaleraz*
 b. quebrar + vel → quebràvel ‘hausgarri’
- (7) a. hil + garri → hilgarri *euskara*
 b. maitatu + garri → maitagarri
 c. erori + kor → erorkor

Aditzetatik eratortzen diren adjektibo horietan, adjektiboak, aditzak adierazten duen gertaerari lotutako ezaugarri bat adierazten du, aditzaren osagarriak (edo subjektuak) berezkoa duena, eta hortaz, behin-behinekoa ez dena (Oltra-Massuet 2013, Moreira 2014). Alabaina, gertaeraren eta adjektiboaren esanahiaren arteko harremana desberdina da adjektiboaren balioaren eta irakurketa modalaren arabera. Nolanahi ere den, lan askok erakutsi dute horrelako atzizkiekin sortutako adjektibo guztiak ez direla aditzetatik eratortzen, morfologikoki bederen. Esate baterako, ingelesezko *terrible* eta *horrible* ‘izugarri, ikaragarri’ adjektiboetan ez da morfologikoki gardena den aditzik ikusten, ezta gaztelaniazko *potable* ‘edateko’ edo *audible* ‘entzungarri’ adjektiboetan ere (bai, ordea, berriagoak diren *bebible* ‘edateko’ eta *oible* ‘entzungarri’ ordainetan). Horrelako adjektiboak, gutxiago badira ere, aztertu diren hizkuntza gehienetan existitzen dira (Aronoff 1976; Nevins 2002; Volpe 2005; McGinnis 2010; Oltra-Massuet 2013). Kasu horietan, egileek proposatu dute adjektiboak ez direla aditzetatik eratortzen, ezpada zuzenean kategorizatu gabeko erroetatik. Guk hala dela onetsiko dugu hemen. Beraz, jite adjektiboen banaketa bitarra da eratorpen prozesua kontuan hartzen badugu: (i) batzuk aditzetatik eratortzen dira; (ii) beste batzuk, aldiz, kategoria gabeko erroetatik. Euskarazko *-garri* adjektiboen analisisian ere erroaren

kategoriaz eztabaidatu da behin baino gehiagotan (Azkarate 1990; Artiagotia 1995, 2003). Ikus Berro eta Sánchez-Dorrnsoro (2023) gai honen hurbilketa baterako.

3.1. Jite adjektiboen balioa

Atal honetan jite adjektiboek izan dezaketen balioez jardungo dugu. Adjektiboaren subjektua oinarrian duen aditz iragankorraren osagarria edo subjektua den, adjektiboaren balioa pasiboa edo aktiboa izango da, hurrenez hurren. Euskarazko *-garri* adjektiboek, esate baterako, bi balioak izan ditzakete oinarriko aditzaren argumentu egituraren arabera (Azkue 1925; Villasante 1974; Azkarate 1990; Artiagotia 1995, 2003): adjektiboaren subjektua aditzaren osagarria denean, balio pasiboa dute (8); adjektiboaren subjektua aditzaren subjektua denean, berriz, aktiboa (9).

(8) Nik zure katua gorrotatzen dut. → Zure katua gorrotagarria da. *Pasiboa*

(9) Egoerak ni kezkatzen nau. → Egoera kezagarria da. *Aktiboa*

(8) eta (9) adibideetan *maitatu* eta *kezkatu* aditz psikologikoak erabili ditugu. Nahiz eta biak aditz psikologikoak izan, argumentu egitura ezberdina dute. Bigarren atalean aurkeztu dugun Belletti eta Rizziren (1988) tipologiaren arabera, *gorrotatu* I. taldeko aditz psikologikoa da, subjektuak esperimendatzaile errol tematikoa dauka eta ergatibo kasua —*nik*—, eta osagarriak gai errol tematikoa eta absolutibo kasua —*zure katua*—. *Kezkatu* aditza, berriz, II. taldeko aditz psikologikoa da: subjektua egoera psikologikoa sortzen duen estimulua da eta ergatibo kasua darama —*egoerak*—; osagarri zuzena, aldiz, esperimendatzailea da eta absolutibo kasua darama —*ni*—. Ikus daitekeenez, aditz horietatik sortutako adjektiboek, *gorrotagarri* eta *kezkarrik*, balio ezberdina dute: I. motako aditz psikologikoekin, *maitatu* modukoekin (8), *-garri* adjektiboaren subjektuak aditzaren osagarri zuzenaren errol tematikoa dauka, i.e. osagarriaren errola xurgatu du, gaiarena. Hortaz, balio pasiboa eskuratu du. II. motako aditz psikologikoekin, *kezkatu* modukoekin (9), berriz, *-garrrik* subjektu arazlearen errola xurgatu du eta balio aktiboa du.

Bestalde, *gorrotatu* eta *kezkatu* aditz iragankorrak dira eta *-garri* adjektiboak subjektuaren edo osagarri zuzenaren errola hartu du. Alabaina, aditz iragangaitzetan, errol tematiko bakarra xurga dezake adjektiboak, subjektuarena nahitaez. *-Garri* ez da horrelako testuinguruetan agertzen, bai, ordea, *-kor* (Oihartzabal 2003; Gonzalvo 2018; Sánchez-Dorrnsoro 2022). *-Korrek*, zenbait aditz iragankorrez gain, aditz iragangaitzak izan ohi ditu oinarrian eta aditz horien argumentu bakarrak, subjektuak, gaiaren errol tematikoa izan ohi du. Balio aktiboarekin bat egiten du aditzaren subjektua-

ren errola xurgatzen duen neurrian, baina pasiboen antza ere badu, xurgatzen duen errola gaiarena baita gehienetan. Lan honetan horrelako adjektiboek balio *jasaileduna* (ing. *patientive*) dutela esango dugu, nolabait balio aktibotik eta pasibotik bereizteko.

(10) Irati erraz sumintzen da → Irati suminkorra da. *Jasaileduna*

(10) adibidean berriz ere aditz psikologiko bat erabili dugu, hots, *sumindu*. Aditz hori 2. taldeko aditza da izatez —(9)n erabili dugunaren antzekoa—, baina (10)eko adibidean aldaera arazlea (iragankorra) erakutsi beharrean, aldaera inkoatiboa eman dugu, hots, argumentu bakarreko perpaus iragangaitza (cf. argumentu biko perpausa (9)n) (ikus 4.1 atala). Horrelako aditz iragangaitzek *-kor* atzizkiarekin bat egiten dutenean, balio *jasailedu*neko jite adjektiboak sortzen dira, e.g. *suminkor*.

Euskara ez beste hizkuntzetan egindako ikerketek, normalean, balio pasiboko jite adjektiboetan jarri dute arreta nagusia; oro har, oso gutxi direlako balio aktiboa edo *jasaileduna* dutenak. Salbuespen horietako batzuk aipatzen ditu Oltra-Massuetek (2013: 76-80). Esate baterako, katalanez *espantable* ‘beldurgarri’, *agradable* ‘gustagarri’, *flotable* ‘flotagarri’ edo *durable* ‘iraunkor’ adjektibo aktibotzat hartu izan direla esaten du (Gràcia, 1995), eta gaztelaniaz ere antzeko adjektiboak topa daitezkeela. Ingelesez ere, *favourable* ‘mesedegarri’ edo *perishable* ‘galkor’ adjektibo aktibotzat jo izan dira (Adams 2001; Marchand 1969).

Beste alde batetik, Oltra-Massuetek (2013) balio pasiboko adjektiboekin parekatzen ditu salbuespen gutxi horiek. Egile honek dio gehienetan aditz iragangaitzetatik sortzen direla horrelako adjektiboak; esate baterako, *flotable* ‘flotagarri’ adjektiboa *flotar* ‘flotatu’ aditz iragangaitzetik eratorria. Flury-ren (1964: 102) jatorrizko ideia bati segika, halakoetan arazle bat —esate baterako, natura-indar bat— indarrean dagoela dio eta, hortaz, argumentu biko aditzak direla sakonean. Hortaz, Oltra-Massueten (2013) ustez, azalean aktiboak diruditen adjektibo horiek balio pasiboko adjektibotzat har daitezke funtsean, adjektiboaren subjektua oinarriko aditzaren osagarri zuzentzat jo baitaiteke. Arrazoibide honekin, Oltra-Massuetek (2013) argudiatzen du jite adjektibo ororen oinarriko aditzak nahitaez egile edo arazle argumentu bat izan behar duela (lexikoki, kontzeptualki edota sintaktikoki), nahiz eta batzuetan agerian egile edo arazle argumenturik ez dagoela iruditu eta adjektiboaren subjektua aditz iragangaitz baten subjektua dela eman.

Dena den, argudio horrek ez du balio *espantable* ‘beldurgarri’ moduko adjektiboetarako, zeinak, aditz iragankorretatik etorri arren, subjektuaren errola xurgatu duen —eta ez osagarriarena—. Badirudi gaztelaniaz, katalanez, ingelesez eta grezieraz oso adjektibo gutxi hartu izan direla aktibotzat. Horietarako bestelako azalbideak proposatu dira: agerian subjektuak direnak

sakonean aditz iragankor baten osagarriak dira egiazki —goiko *flotable* bezalako adjektiboetan— edo, bestela, errotik zuzenean eratorriak dira eta ondorioz, jokabide idiosinkrasikoa dute. Alabaina, euskaraz, *-garrirekin* sortutako balio aktiboko adjektiboak erabat emankorrak dira (Azkarate 1990; Artiagoitia 1995; Zabala 1999; Sánchez-Dorransoro 2022), eta hortaz, ezin dira salbuespentzat jo. Gainera, jokabide sistematikoa erakusten dute: subjektutzat arazlea duten aditz iragankorren gainean eraikitzen dira eta errol hori xurgatzen du adjektiboak (Artiagoitia 1995, 2003; Berro eta Sánchez-Dorransoro 2023).

3.2. Irakurketa modala

Adjektiboen balioa gorabehera, beste aldagai batek ere eragiten du jite adjektiboen interpretazioan: oinarrian hartzen duen osagaia. Hala, jite adjektiboak irakurketa modal bat edo beste izan dezake. Oltra-Massuetek (2013) interpretazio potentziala eta ez-potentziala bereizi ditu.² Ez-potentzialaren barruan, beharrezkin, derrigortasunarekin edota ebaluazio subjektiboarekin lotutako modalitatea dago. Lan batzuetan egin den bezala (Moreira 2014; Alexiadou 2018), guk irakurketa ebaluatiboa esango diogu bigarren irakurketa horri. Horietaz gain, Alexiadouk (2018) hirugarren irakurketa gaineratu du, bere hitzetan erraztasun semantikoa (ing. *semantic easiness*) adierazten duena, hau da, gertaera bat jasateko erraztasuna edo joera (ikus baita Val Alvaro 1981 ere gaztelaniarako). Guk joerazkoa esango diogu irakurketa horri. Beheko adibideetan, hiru irakurketa modalak erakusten ditugu ingelesezko adibide banaren bitartez: potentziala (11), ebaluatiboa (12), eta joerazkoa (13).

(11) John can translate the poem. → The poem is translatable. *Potentziala*

(12) John loves Ann. → Ann is lovable. *Ebaluatiboa*

(13) John irritates Ann. → Ann is irritable. *Joerazkoa*

Interpretazio potentzian, adjektiboak oinarrian duen aditzaren osagarriak gertaera bat jasan dezakeela adierazten du. Gainera, Oltra-Massueten (2013) arabera, gertaera hori nolabaiteko arazle batek (gehienetan egile batek) abiarazten duela ulertzen da. (11) bezalako adibide batean, baten batek, e.g. John-ek, olerkia itzul dezakeela adierazten da. Interpretazio ebalua-

² *-Garri* adjektiboen azterketan, egileek ere bi irakurketa daudela nabarmendu dute *-gari* pasiboetan: ‘x daitekeena’ eta ‘x izatea merezi duena’ (Azkarate 1990; Artiagoitia 1995, 2003; Euskaltzaindia 2021). Interpretazio horietan lehena potentziala izango litzateke, eta bigarrena ez-potentziala edo ebaluatiboa, nazioarteko beste azterketa batzuek proposatu izan dituzten berberak.

tiboan, aldiz, ez zaio osagarriak jasan dezakeen balizko egoera aldaketa bati erreferentzia egiten, ezpada ebaluazio subjektibo bati, hots, baten batek esperimentatzen duen egoera mental bati. (12)n Ann maitatzeko modukoa da zeinahi esperimentatzaileraren ustez, e.g. Johnen ustez.

Oltra-Massuetek (2013) eta Alexiadouk (2018) bi irakurketa desberdin horiek adjektiboen egitura morfosintaktikoarekin lotu dituzte: irakurketa potentziala duena (11) *goi-able* (*high-able* ingelesez) deritzote eta egitura morfosintaktiko konplexua dutela aldarrikatu dute, besteak beste, aditz kategoria eta kanpo argumentua sartzen dituzten islapenak. Irakurketa ez-potentziala edo ebaluatiboa duenari, aldiz, *behe-able* (*low-able*) esaten diote eta egitura txikiagoa egozten diote. Egitura honetan, adjektibo buruaren azpian ez dago ez aditz kategoria ematen duen bururik, ezta kanpo argumentua sartzen duen islapenik ere. Horrela azaltzen ditu Oltra-Massuetek (2013) bi jite adjektiboen arteko bereizketa sintaktikoak (ikus Berro eta Sánchez-Dorransoro 2023 ildo horretako azterketa baterako).³

Bi jite adjektibo hauen bereizketaren gako garrantzitsu bat kategorizazioarekin du zerikusia. Aurreko paragrafoan esan dugun bezala, *goi-able* edo *goi* jite adjektiboek aditza dute oinarrian eta adjektibo bihurtu dira ondoren. Bi kategorizazio prozesu daude, beraz: lehenik, erroa aditz bihurtzeko prozesua eta, bigarrenik, aditza adjektibo bihurtzekoa. *Behe-able* edo *behe* jite adjektiboetan, berriz, kategorizazio prozesu bakarra dago: erroa zuzenean bihurtzen da adjektibo. Ondorioz, esango genuke halako adjektiboen oinarrian ez dagoela aditzik. Multzo horretakoak lirateke euskarazko *maitagarri* eta *gorrotagarri* bezalako adjektibo ebaluatiboak. Alabaina, horrelakoe-tan aditza ez dagoela esatea eztabaidagarria izan daiteke. Artiagoitiak (1995, 2003), esate baterako, *-garri* adjektibo guzti-guztietan oinarrian aditza dagoela aldarrikatu zuen eta ebidentzia morfologikoa erabili zuen horretarako besteak beste (ikus Berro eta Sánchez-Dorransoro 2023 kategorizazioaren gaineko eztabaidarako).

Nolanahi ere den, irakurketa modal bien arteko banaketa aditz kategoriaren presentziarekin ala gabeziarekin (eta beste zenbait osagai sintaktikorekin) lotzea arazotsua izan daiteke; izan ere, Moreirak (2014) erakutsi duenez, adjektibo potentzial guztiak ez dira era garden batean aditz bate-tatik eratortzen (e.g. *potable* ‘edateko’ eta *audible* ‘entzungarri’) eta aditze-tatik eratorritako adjektibo batzuk irakurketa ebaluatiboa izan dezakete tes-tuinguru batzuetan. Esate baterako, Marantzek (2009) erakutsi du *drinkable* ‘edateko’ eta *readable* ‘irakurgarri’ adjektiboek irakurketa ebaluatiboa izan

³ Besteak beste, adjektibo potentzialak bateragarriak dira egilea adierazten duen adposizio sintagma batekin, egileari zuzendutako adberbioekin eta modua aldatzen duten modifikatzaileekin (Oltra-Massuet 2013). Test horietatik gehienek erakusten dute adjektibo potentzialetan kanpo argumentu implizitu bat, zehazki egile implizitu bat dagoela.

dezaketela testuinguru batzuetan (14b) (15b). Adibide horietan, *drinkable* adjektiboak ardoa edateko modukoa dela, hots, zapore onekoa dela esan nahi du; *readable* adjektiboak, bere aldetik, liburua irakurtzeko modukoa, alegia, atsegina dela.

- | | | |
|---------|--|--------------------|
| (14) a. | a supply of drinkable water
'edateko uraren hornikuntza' | <i>Potentziala</i> |
| b. | a very drinkable red wine
'edateko moduko ardo beltza' | <i>Ebaluatiboa</i> |
| (15) a. | a readable interface
'interfaze irakurgarria' | <i>Potentziala</i> |
| b. | a readable book
'liburu irakurgarria, irakurtzeko moduko liburua' | <i>Ebaluatiboa</i> |

Moreirak (2014) brasildar portugaleraz erabiltzen den *-vel* adjektiboak aztertu ditu eta proposatu du adjektibo potentzialen eta ebaluatiboen arteko desberdintasunak lotura duela oinarrian dagoen aditzaren semantikarekin. Haren arabera, jite adjektiboek modalitate dinamikoa (ing. *dynamic modality*) (Brennan 1993) dute, eta modalitate mota horren azken interpretazioa desberdina da aditzak adierazten duen egoera edo ezaugarria subjektuari ala osagarriari zuzendua badago. Aditz gertaeradunetatik (hots, aditz ebentiboetatik) eta, batez ere, egoera-aldaketa bat adierazten duten horietatik eratorritako *-vel* adjektiboak potentzialak izango dira. Egoeradun aditzetatik (aditz estatiboetatik) eratorritako *-vel* adjektiboak, aldiz, ebaluatiboak. Bi irakurketak bereizteko, test semantiko bat darabil Moreirak (2014). *-Vel* adjektibo potentzialak (e.g. *quebrável* 'hausgarri') bateragarriak dira egoera ezeztatzen duen segida batekin (16).

- (16) O vaso é quebrável, mas não está quebrado.
'Pitxerra hausgarria da, baina ez dago hautsita.' (Moreira 2014: 192)

(16)ren segida —*mas não está quebrado* 'baina ez dago hautsita'— onargarria da *quebrar* 'hautsi' aditzak osagarriaren ezaugarri edo egoera bat adierazten duelako. *Quebrado* 'hautsia' partizipioak osagarriak duen ezaugarri bat adierazten du, baina jite adjektiboan ezaugarri edo egoera hori ez dago indarrean; egoera hori indarrean egon daitekeela besterik ez da adierazten. Horregatik ezeztatu daiteke. *Amável* 'maitagarri' bezalako adjektibo ebaluatibo bat, oso bestela, ez da bateragarria egoera ezeztatzen duen segidarekin (17).

- (17) ?? Mimi é amável, mas não desperta amor/afeição.
'Mimi maitagarria da, baina ez du maitasunik sorrarazten.'

Amar ‘maitatu’ aditzak adierazten duen egoeraren (maitasun egoeraren) jasailea ez da Mimi —osagarria— ezpada esperimantatzailea —kasu honetan, subjektua—. Horregatik Moreirak dio horrelako aditz psikologikoei —I. taldekoek— subjektuaren egoera bati erreferentzia egiten diotela. Interesgarriro, jite adjektiboak sortzen ditugunean horrelako aditzetatik, adjektiboak adierazten duen egoera —subjektuari zuzenduta dagoena— indarrean dago, eta horregatik ezin da ezeztatu (17). Jite adjektibo potentzialetan, aldiz, egoera —osagarriari zuzendua— ez dago indarrean, eta ondorioz, ezeztatu daiteke kontraesanik eragin gabe.

Bestalde, esana dugu zenbait jite adjektibok hirugarren irakurketa modal bat ere izan dezaketela: joerazkoa (Alexiadou 2018). Joerazko jite adjektiboak potentzialen antzera jokatzeko Moreiraren (2014) test semantikoa. Izan ere, Alexiadouk (2018) erakusten duen bezala, onargarriak dira egoera ezeztatzen duen segida batekin.

- (18) Ann is irritable, but she is not irritated (yet).
‘Ann suminkorra da, baina (oraindik) ez dago suminduta.’

Moreiraren arrazoibideari jarraitzen badiogu, *irritable* ‘suminkor’ bezalako aditz psikologikoa batek osagarriari zuzendutako ezaugarri bat adierazten du; izan ere, esperimantatzailea kasu honetan osagarria da, eta aditzak, esperimantatzaileak jasaten duen egoera-aldaketa bati egiten dio erreferentzia. Ezaugarri hori ez dago indarrean *irritable* adjektiboan, eta horregatik da bateragarria *but she is not irritated* ‘baina ez dago suminduta’ segidarekin. Ingeleseko *irritate*, edo euskarazko ordaina, *sumindu*, II. taldeko aditz psikologikoa da, eta interpretazio egoeraduna zein gertaeraduna izan dezake (ikus Arad 1998 II. taldeko aditz psikologikoei izan ditzatekeen interpretazioen sailkapenerako). Irakurketa gertaeraduna izan dezakeenez, jite adjektiboa sortzean, potentzialen moduan jokatzeko du. Horregatik, Alexiadouk (2018) joerazko jite adjektiboei erdiko egitura morfosintaktikoa egotzen die. Ebaluatiboetan ez bezala, joerazkoetan aditz kategoria ematen duen islapena badagoela aldarrikatzen du (ikus baita ere Sanchez-Dorransoro 2022).

3.3. Behin-behineko laburpena

Atal honetan, jite adjektibo zenbait aldagairen arabera sailkatu ditugu. 2. taulan laburtu ditugu aipatu ditugun aldagai horiekin sortzen diren jite adjektibo motak.

2. taula

Jite adjektiboen interpretazioak
(Sánchez-Dorransorotik 2022 moldatua)

Balioa	Irakurketa modala	(Subj./osag. zuzendutako) egoera indarrean
Aktiboa	Ebaluatiboa	Bai
Pasiboa	Potentziala	Ez
Jasaileduna	Joerazkoa	

4. ADITZ PSIKOLOGIKOAK JITE ADJEKTIBOETAN

Hirugarren atalean ikusi dugunez, aditz psikologikoak balio aktibo, pasibo zein jasaileduneko jite adjektiboetan ager daitezke, eta modalitateari dagokionez, irakurketa ebaluatiboa zein joerazkoa duten adjektiboetan. Atal honetan, aditz psikologikoen taldeen eta balioen zein irakurketen artean dauden harremana aztertuko dugu.

4.1. Aditz psikologikoak balioaren eta irakurketa modalaren arabera

Hirugarren atalean ikusi dugunez, balio pasiboan *-garri* da aditzari lotzen zaion atzizkia. Balio pasiboan, oinarri aditza bi argumentuduna da hala-beharrez, eta balio aktiboko adjektiboetan ez bezala, subjektua ez da arazlea, ezpada egilea ala esperimantatzailea. Batean zein bestean, aditzaren subjektua biziduna da. Talde honetan sailkatzen dira (i) egile subjektua duten aditz iragankorrak —esate baterako, *aipatu*, *agurtu*, *aztertu*— (19a); (ii) I. taldeko aditz psikologikoak —*gorrotatu*, *maitatu* eta abar— (19b); (iii) III. taldekoak —*gustatu* eta *atsegin izan* adibidez— (19c), alegia, subjektua esperimantatzailea dutenak; eta (iv) subjektua esperimantatzailea eta absolutiboz markatua duten aditz psikologikoak (19d), zeinetan gai argumentua postposizio sintagma batean azaleratzen den —*fidatu*, *errukitu*, *ohartu* eta abar— (Artiagoitia 1995, 2003).

- (19) a. aipagarri, agurgarri, aztergarri, ikusgarri, irakurgarri
 b. gorrotagarri, maitagarri, adorarri, ulergarri
 c. gustagarri, atsegingarri
 d. fidagarri, errukigarri, ohargarri

Hortaz, adjektiboek balio pasiboa dutenean, alegia, adjektiboaren subjektua aditzaren osagarriari dagokionean, I. taldeko eta III. taldeko aditz psikologikoak aurkitzen ditugu. I. taldeko aditzekin sortzen dira *maitagarri*, *miresgarri* eta *gorrotagarri* (20). III. taldeko aditzekin sortzen dira, aldiz, *gustagarri*, *ahazgarri* eta abar (21).

- (20) a. Amak zaldia maite ditu. → Zaldia maitagarria da.
 b. Nik amona miresten dut. → Amona miresgarria da.
 c. Jonek gorroto ditu gezurrak. → Gezurrak gorrotagarriak dira.
- (21) a. Joni Aneren umorea gustatzen zaio. → Aneren umorea gustagarria da.
 b. Toki arrotzak atsegin zaizkit niri. → Toki arrotzak atsegingarriak dira.

I. taldeko aditz psikologikoak *-garrirekin* elkartzen direnean, atzizkiak estimulua den osagarriaren errol tematikoa xurgatzen du eta balio pasiboko jite adjektiboak sortzen dira (20) (Artiagoitia, 1995; Sanchez-Dorronsoro, 2022). Ikus daitekeenez, adjektibo hauek ebaluatiboek bezala jokatzeko dute Moreiraren (2014) testean.

- (22) a. ?? Amona miresgarria da, baina ez du miresmenik sortzen.
 b. ?? Gezurrak gorrotagarriak dira, baina ez dute gorrotorik sortzen.

Bigarren atalean aipatu dugun bezala, III. taldeko aditz psikologikoetan subjektuaren eta osagarriaren funtzioen banaketan hizkuntzalariak ez datoz beti bat. Guk hemen, datiboa subjektutzat hartuko dugu, eta absolutiboa osagarritzat (Fernandez, Zúñiga & Berro, 2020). (21) moduko adibideetan *Joni* eta *niri* esperimendatzailerik argumentuak dira subjektuak. Hortaz, *gustagarri* eta *atsegingarri* adjektiboek balio pasiboa dutela esango dugu, adjektiboak *gustatu* eta *atsegin izan* aditzen osagarriaren errola hartu baitu (21). Hauek ere ebaluatiboek bezala jokatzeko dute test semantikoan.

- (23) a. ?? Sararen umorea gustagarria da, baina ez du gusturik sortzen.
 b. ?? Toki arrotzak atsegingarriak dira, baina ez dute atseginik sortzen.

I. eta III. taldeko aditz psikologikoek subjektuari zuzendutako egoera bat adierazten dute, alegia, subjektuari eragiten dion egoera psikologiko bat (Moreira 2014). Egoera hori indarrean dago aditz horietatik eratorritako adjektiboetan, eta horregatik ezin da jarraipenean ezeztatu. Emaidza honetan oinarrituz, adjektibo hauek irakurketa ebaluatiboa dutela aldarrikatuko dugu.

Bigarrenik, balio aktiboa duten jite adjektiboek begiratu diegu. Balio aktiboan, *-garrri* aditz iragankorrei eta inkoatibo/arazle alternantzia erakusten dutenei erantzen zaie (24) (Artiagoitia 1995, 2003). Kasu horietan guztietan, *-garrrik* kanpo argumentuaren rola xurgatzen du, hots, tresnarena (24a) ala —aditz psikologikoen kasuan— estimuluarena (24b). Batean zein bestean,

kanpo argumentua da egoera aldaketa abiarazten duen arazlea. Ikus daitekeen bezala, balio aktiboa duten adjektiboetan II. taldeko aditz psikologikoak erabiltzen dira, alegia, subjektu estimulua eta osagarri esperimentatzailea dutenak. Guk hemen subjektu estimulua arazletzat hartuko dugu eta aditz psikologikoen erakusten duten aldaketa inkoatibo/arazle alternantziatzat hartuko dugu, Alexiadou and Iordáchoiarekin (2014) bat etorritz.

- (24) a. adierazgarri, aringarri, astungarri, babesgarri, bereizgarri, edergarri, erabakigarri, erakusgarri, estalgarri, freskagarri, galgarri, gazigarri, hilgarri eta abar.
 b. aspergarri, aztoragarri, barregarri, errukarri, gogaikarri, harrigarri, higuigarri, hunkigarri, ikaragarri, interesgarri, izugarri, lotagarri, nazkagarri, oroigarri, sumingarri eta abar.

(Euskaltzaindia 2021: 165)

Aditz psikologikoa izan zein ez, aditz hauetako askok inkoatibo/arazle alternantzia erakusten dute (Berro, Oihartzabal eta Fernández 2018; Berro eta Fernández 2022). Aldaera arazlean bi argumentu daude, arazlea eta gaia, ergatiboz eta absolutiboz markaturik hurrenez hurren (25a). Aldaera inkoatiboan, aldiz, argumentu bakarra dugu, gaia alegia, absolutiboz markaturik (25b).

- (25) a. Azken berriak langileak sumindu ditu. *Arazlea*
 b. Langileak sumindu dira. *Inkoatiboa*

Bestalde, adjektiboak balio aktiboa duenean, atzizkiak arazlearen rola xurgatzen du.

- (26) a. Zure egoerak kezkatzen du Aratz. → Zure egoera kezkarria da.
 b. Bere hitzaldiak guztiok sumindu gintuen. → Bere hitzaldia sumingarria izan zen.
 c. Jonen erreakzioak umea beldurtu du. → Jonen erreakzioa beldurgarria izan da.

Interesgarriro, arazle hori ezin liteke egilea izan, hau da, ezin da egoera-aldaketa borondatez abiarazten duen izaki biziduna izan (Artiagoitia 1995, 2003).

- (27) a. Covid-ak / Pertsona horrek jende asko hil du.
 b. Covid-a hilgarria da.
 c. *Pertsona hori hilgarria da.
 (28) a. Medikuek / botikak gure aitona sendatu du.
 b. Botika sendagarria da.
 c. *Medikua sendagarria da.

Irakurketa modalari dagokionez, zaila da balio aktiboko *-garri* adjektiboek irakurketa ebaluatiboa ala potentziala duten zehaztea. Gogoan izan, Moreiraren (2014) testa aplikatuta, ikusi dugula balio pasiboko adjektibo ebaluatiboek subjektuari zuzendutako ezaugarri bat indarrean dagoela adierazten dutela eta ez dutela onartzen ezeztapen-segidarik (16); balio pasiboko adjektibo potentzialetan (17) eta joerazkoetan (18), aldiz, osagarriari zuzendutako ezaugarria ez dago indarrean, eta, ondorioz, ezeztapena dakarren segida onartzen dute.

-Garri adjektibo aktiboetan, ordea, ez da erraza Moreiraren (2014) testen bidez adjektiboek irakurketa ebaluatiboa ala potentziala duten bereiztea. Izan ere, adjektibo hauetan egoera bi daudela dirudi: subjektuari zuzendutako arazletasuna adierazten duena batetik, eta, egoera-aldaketa adierazten duten aditzak direnez gero, prozesuaren ondoriozko egoera bestetik, zeina osagarriari zuzenduta dagoen. Subjektuari zuzendutako ezaugarria ezeztatzen bada —bi perpausen subjektua bera denean—, segida ez da onargarria —(29a) eta (30a)—. Aditz psikologiko baten gainean eraikitako *kezkgarri* adjektiboa erakutsi dugu (29) adibidean, eta bestelako egoera-aldaketa aditz batekin eraikitakoa, hau da, *hilgarri*, (30)ean. Bi adjektibo hauek subjektuari zuzendutako ezaugarri bat adierazten dute, hots, subjektuak duen arazle izaera. Ezaugarri hori ezeztatzen bada, emaitza arraroa da —(29a) eta (30b)—. Bestalde, oinarrian dauden aditzek —*kezkatu*, *hil*— osagarriari zuzendutako ezaugarri bat ere adierazten dute, alegia, *kezkatuta* eta *hilda* emaitza-egoerei erreferentzia egiten diete. Egoera horiek ezeztatzen badira —(29b) eta (30b)—, emaitzak onargarriak dira.

- (29) a. ?? Berri hori kezkgarria da, baina ez du kezkarik sortzen.
 b. Berri hori kezkgarria da, baina ez dago inor kezkatuta (oraindik).
- (30) a. ?? Covida hilgarria da, baina ez du hildakorik eragiten.
 b. Covida hilgarria da, baina ez dago inor hilda (oraindik).

Beraz, esan genezake jite adjektibo aktiboekin emaitza nahasiak lortu ditugula. Subjektuaren ezaugarria ezin denez ezeztatu, esan genezake, testuinguru horri erreparatuta, adjektibo ebaluatiboen moduan jokatzeko dutela. Aldiz, osagarriaren ezaugarria, hau da osagarriari zuzendutako egoera, ezeztatzen bada, orduan segida bada onargarria (29b) (30b). Honi dagokionez, adjektibo hauek jite adjektibo potentzialekin bat etorriko lirake. Ohar bedi irakurlea azken adibide horietan (29b) (30b), ezeztapen-segidan perpausaren subjektua aldatu dugula: *baina ez dago inor kezkatuta / hilda* diogunean, subjektua ez da adibideen lehen zatiko subjektu bera —hots, *berri hori* eta *Covida*—, ezpada oinarriko aditzen —*kezkatu* eta *hil* aditzen— osagarria.

Ondorio gisa esanenezake *-garri* adjektibo aktiboek modalitate berezia dutela, ebaluatiboa eta potentziala aldi berean. Aditz psikologikoak tartean daudenean ere hala da, *kezkarri* adjektiboarekin ikusi dugunez (29). Beraz, aditz psikologikoen gainean eraikitako jite adjektibo guztiak ez dira ebaluatiboak; atal honetan ikusi dugunez, I. eta III. taldekoen gainean eraikitakoak ebaluatiboak dira —e.g. *maitagarri*, *gustagarri*—, baina II. taldeko aditzetatik eratorritako adjektibo aktiboak —e.g. *kezkarri*— ebaluatiboak eta potentzialak dira aldi berean. Beharbada emaitza horren atzean II. taldeko adjektiboen izaera aspektuala egongo da: I. eta III. taldeko aditz psikologikoak ez bezala, II. taldekoak gertaeradunak izan daitezke eta inkoatibo/arazle alternantzia parte hartu (25). Aditz psikologikoak izanagatik ere, egoera-aldaketa aditzak ere badira, eta ondorioz, egoera-aldaketa aditzek bezala jokatzeko dute: osagarriari zuzendutako ezaugarri/egoera bat adierazten dute, zeina ez dagoen jite adjektiboan indarrean.

Azkenik, balio jasaileduna duten jite adjektiboei helduko diegu, hau da, aditz iragangaitzen gainean eraikitakoei. Ikusi dugunez, euskaraz *-kor* adjektiboek dute balio jasaileduna, *-garri* adjektiboek nahitaz argumentu biko aditzen gainean eraikitzen baitira.

-Kor atzizkia, *-garri* bezala, aditzetatik adjektiboak sortzen dituen atzizkia da (Azkarate eta Gràcia 1995; Zabala 1999; Oihartzabal 2003; Gonzalezvo 2018; Euskaltzaindia 2021; Sánchez-Dorransoro 2022). *-Kor* gehiengotan aditz iragangaitzekin bat egiten du⁴ eta gaiaren errol tematikoa xurgatzen du. Tartean, aditz psikologikoak ere badira; halakoetan, II. taldekoak dira *-korrek* aukeratzen dituenak: *sumindu*, *liluratu*, *poztu*, *haserretu* eta abarretik *suminkor*, *lilurakor*, *pozkor* eta *haserrekor* sortzen dira. Esan bezala, aditz horiek euskaraz inkoatibo/arazle alternantzia erakusten dute (25), hau da, ager daitezke argumentu biko egitura iragankor batean zein argumentu bakarreko egitura iragangaitzean. Nolanahi ere den, *-korrekin* sortzen diren adjektiboak aldaera inkoatibotik eratortzen direla dirudi; hala proposatu du bederen Oihartzabalek (2003). (31b)n eta (32b) *sartu* aditzaren gainean eraikitako *sarkor* adjektiboa dugu. (31b) egitura arazle baten (31a) jarraipena da eta arraro samarra. (32b)k, aldiz, egitura inkoatibo bati (32a) segitzen dio eta onargarria da.

- (31) a. Tresna hauek erabiltzaileek aise sartzeko behar den tokian.
b. #Tresna sarkorrak dira.
- (32) a. Haren hitzak barna sartzeko ziren gure baitan.
b. Hitz sarkorrak dira. (Oihartzabal 2003: 12)

⁴ Beherago, 4.2. atalean, azalduko ditugu *-kor* atzizkiak aditz itxuraz iragankorrekin bat egiten duen kasuak.

2. taldeko aditz psikologikoetan ere hala dela dirudi: lotura naturala-go da *-kor* adjektiboa aditz psikologikoaren aldaera inkoatiboaren aldamenean (33), aldaera arazlean baino (34).

- (33) a. Ni beti sumintzen naiz. → Ni suminkorra naiz.
 b. Ama erraz liluratzen da. → Ama lilurakorra da.
 c. Edalontzia erraz hausten da. → Edalontzia hauskorra da.
- (34) a. Politikariek sumintzen naute. → (?) → Ni suminkorra naiz.
 b. Ipuin-kontalariek ama liluratzen dute. → (?) → Ama lilurakorra da.
 c. Berri onek poztu egiten naute. → (?) → Pozkorra naiz.

Aldaera iragankorra are okerragoa da *-kor* adjektiboaren aldamenean egoera psikologikoaren arazlea egilea bada, (31a)n eta (34)n bezala, eta aspektu marka burutugabea beharrean burutua erabiliko bagenu. Izan ere, jite adjektiboek entitate baten berezko ezaugarriak adierazten dituzte, generikoak eta estatiboak dira, eta ondorioz ez dira bateragarriak gertaera episodiko bati erreferentzia egiten dion erpaus batekin.

Azkenik, *-kor* atzizkia I. taldeko aditz psikologikoekin ere elkartu daiteke, baina kasu horietan subjektu esperimintatzailearen errola xurgatzen du atzizkiak. Kasu horiek 4.2. atalean aztertuko ditugu, joerazko irakurketa modala arakutzen dugunean.

4.2. Aditz psikologikoak eta joerazko irakurketa: *-kor* adjektibo psikologikoak

3.2. atalean esan dugu jite adjektiboek joerazko irakurketa modala (erraztasun semantikoa delakoa) izan dezaketela (Alexiadou 2018). Irakurketa horrek erraztasunaren informazio adverbiala dakar (Hamada 2013). Gure ustez, *-kor* jite adjektiboek erraztasun irakurketa adverbial hori dute. Oihartzabalek (2003) hala dio *hilkor* eta *sarkor* adjektiboez ari dela: «*Hilkor* eta *sarkor*, beraz, ezin erran daitezke norbaitek aise hil dezakeenaz edo norbaitek norbait aise sar dezakeenaz, baina bai ordea, berez hiltzeko edo zerbaitetan sartzeko erraztasuna duenaz.» *Euskaltzaindiaren hiztegian* ere, erraztasuna eta joera sistematikoki aipatzen dira *kor* adjektiboen definizioetan (35), baita II. taldeko aditz psikologikoetatik eratorzen direnenetan ere (35c,d,e).

- (35) a. *sarkor*: erraz edo oso barnera sartzten dena.
 b. *erorkor*: erortzeko joera duena, erraz erortzen dena.
 c. *haserrekor*: haserretzeko joera duena, erraz haserretzen dena.
 d. *lilurakor*: erraz liluratzen dena.
 e. *pozkor*: pozteko, pozik egoteko joera duena.
 f. *egonkor*: bere hartan edo egoera jakin batean egoteko joera duena.
 g. *distirakor*: distiratzen duena, distiratzeko joera duena.

Nolanahi ere den, ezaugarri batzuetan Alexiadouk proposatutako joerazko irakurketaren murriztapenak eta *-kor* adjektiboen banaketa ez datoz bat; Alexiadouren (2018) arabera, ingelesez eta grezieraz, joerazko irakurketa izan dezakete bakarrik egiledunak eta gertaeradunak diren aditzen gaineko jite adjektiboek, hortaz, egilerik gabeko aditzetatik eta aditz egoeradunetatik sortzen diren jite adjektiboek ezin dute joerazko irakurketa izan. Euskarazko *-kor* adjektiboetan, ordea, egilerik gabeko aditz inakusatiiboak (35b), inergatiiboak (35g) eta estatiboak ere (35f) ager daitezke. Beraz, badirudi euskaraz joerazko irakurketa hedatuago dagoela beste hizkuntza batzuekin alderatuz gero.

Bestalde, joerazko irakurketa duten *-kor* adjektiboetan nagusiki II. taldeko aditz psikologikoak agertzen badira ere, kasu batzuetan, I. taldeko aditz psikologikoak ere aurkitzen ditugu (36). Aditz psikologiko horien izaera sistematikoki iragankorra da hizkuntza batetik bestera. Euskaraz ere iragankorrak dira, eta II. taldeko aditz psikologikoak ez bezala, ez dute alternantzia inkoatibo/arazlea erakusten (37) (38).

- (36) a. Nik mundu guztia maite dut. → Ni maitekorra naiz.
 b. Gorkak dena sinesten du. → Gorka sineskorra da.
 c. Jonek gauza guztiak ahazten ditu. → Jon ahazkorra da.
- (37) a. Jonek Miren maite du.
 b. *Miren maite da.
- (38) a. Gorkak istorio guztiak sinesten ditu.
 b. #Istorio guztiak sinesten dira.

I. taldeko aditz psikologikoen gainean eraikitzen diren *-kor* adjektiboak (*maitakor*, *sineskor*, *ahazkor* eta abarrek) ere joerazko irakurketa dute. Hala jasotzen du *Euskaltzaindiaren hiztegiak* neurri batean bederen (39):

- (39) a. *maitekor*: maitasunez betea, maitasuna adierazten duena.
 b. *sineskor*: erraz sinesten duena, esaten dioten guztia sinesteko joera duena.
 c. *ahazkor*: gauzez erraz ahazten dena, ahazteko joera duena.

Irakurketa modalari dagokionez behintzat, (35)eko adjektiboen modukoak dira. Alabaina, goian esan dugun bezala, ezaugarri batean desberdinak dira: (35)ko adjektiboak aldaera inkoatibotik eratorri direla aldarrikatu dugu 4.1 atalean; (39)ko adjektiboetan dauden aditzak, aldiz, iragankorrek besteik ezin dira izan. Oinarri aditzak iragankorrek badira, adjektiboak ez lirateke jasailedunak, ezpada aktiboak, adjektiboaren subjektua aditzaren subjektuari dagokiolako. Hala ere, guk ez dugu analisi horren alde egingo. Oihartzabalekin (2003) bat etorri uste dugu *-korrek* hartzen dituen aditzak iragangaitzak direla beti, baita (39) bezalako adjektiboetan. Kasu horietan, baina, aditzaren

osagarri zuzena —maitatzen dena, sinisten dena edo ahazten dena— ez dago sintaktikoki indarrean (ikusi Berro eta Sánchez-Dorransoro 2023). Oihartzabalek (2003) ere hala iradoki zuen: bere ustez, aditz horien osagarriak lexikoki aseturik daude. Analisi horren eztabaidarako, ikus aipatutako lanak.

Edozein kasutan, *maitekor*, *sineskor* eta *ahazkor* bezalako adjektiboek adierazten duten egoera subjektiboa dela esango genuke, ez objektiboa. Moreiraren (2014) testa aplikatuz gero, ikus daiteke subjektuaren egoeraren ezeztapena ez dela onargarria.

- (40) a. ?? Zure aita maitekorra da, baina ez du inor maite.
- b. ?? Jon ahazkorra da, baina ez ditu gauzak ahazten.

Test honi dagokionez behintzat, *-kor* adjektibo hauek ebaluatiboek bezala jokatzen dute. Hortaz, badirudi joerazko irakurketa duten adjektibo guztiak ez datozela bat irakurketa potentziala duten adjektiboen banaketarekin. I. taldeko aditz psikologikoen gainean eraikitako *-kor* adjektiboak joerazkoak dira, baina ebaluatiboek bezala jokatzen dute Moreiraren testari dagokionez.

4.3. Behin-behineko laburpena

3. taulan, atal honetan aurkeztutakoa laburbildu dugu, hots, aditz psikologikoen jite adjektiboetan duten banaketa, balioaren, atzizkiaren eta irakurketa modalaren arabera.

3. taula

Aditz psikologikoak euskarazko jite adjektiboetan

Aditz psikologikoak	Jite adjektiboak			
	Balioa	Atzizkia	Irakurketa modala	Adibideak
I. taldea	pasiboa	<i>-garri</i>	ebaluatiboa	<i>maitagarri, gorrotogarri</i>
	jasaileduna	<i>-kor</i>	joerazkoa + ebaluatiboa	<i>maitakor, ahazkor, sineskor</i>
II. taldea	aktiboa	<i>-garri</i>	ebaluatiboa + potentziala	<i>kezkarri, beldurri</i>
	jasaileduna	<i>-kor</i>	joerazkoa	<i>suminkor, lilurakor, haserrekor</i>
III. taldea	pasiboa	<i>-garri</i>	ebaluatiboa	<i>gustagarri</i>

5. ONDORIOAK

Artikulu honetan aditz psikologikoen jite adjektiboetan duten banaketa aztertu dugu. Horretarako, jite adjektiboen izaera arakatu dugu bi aldagaien arabera: balioa eta irakurketa modala. Ikusi dugu aditz psikologiko motak balio eta irakurketa modal desberdinak dituztela jite adjektiboetan, bai euskaraz bai gainerako hizkuntzetan ere. Hala ere, aditz psikologikoen jite adjektiboetan duten banaketa apur bat desberdina da ingelesarekin eta grezierarekin konparatuz gero; izan ere, euskaraz jite adjektibo aktiboak eta jasadunak daude, eta halakoetan ere, aditz psikologikoen ager daitezke: II. taldekoak lehenengoetan eta II. eta I. taldekoak bigarrenetan. Horrez gain, ikusi dugu joerazko irakurketa modala hedatuago dagoela euskarazko jite adjektiboetan. Grezieraz ez bezala, joerazko *-kor* adjektiboak egilerik gabeko aditzetatik eta aditz egoeradunetatik eraiki daitezke. Laburbilduz, jite adjektiboen azterketa emankorra bezain irristakorra dela dirudi, baina beti izango dugu, etsi aurretik, Miren Azkarateren lanetara jotzea gure galderen erantzunaren bila.

6. ERREFERENTZIAK

- Adams, V. 2001. *Complex words in English*. Longman; Pearson. <https://worldcat.org/oclc/44713332>.
- Alexiadou, A. 2018. *-Able* adjectives and the syntax of psych verbs. *Glossa. A journal of general linguistics* 3(1). <https://doi.org/10.5334/gjgl.498>.
- Alexiadou, A. & G. Iordăchioaia. 2014. The psych causative alternation, *Lingua* 148. 53-79. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2014.05.010>.
- Arad, M. 1998. Psych-notes. In J. Harris & C. Iten (arg.), *UCL Working Papers in Linguistics* 10. 203-223. <https://www.phon.ucl.ac.uk/home/PUB/WPL/98papers/arad.pdf>.
- Aronoff, M. 1976. *Morphology by itself. Stems and inflectional classes*. Cambridge: MIT Press. Berrarg. 1994. <https://worldcat.org/oclc/1289891240>.
- Artiagoitia, X. 1995. «Garri» atzizkiaren izaera bikoitzaz: zergatik den maitagarria bezain mingarria. *ASJU* 29(2-3). 355-405. <https://doi.org/10.1387/asju.8483>.
- Artiagoitia, X. 2003. The case of an enlightening, provoking and admirable Basque derivational suffix with implications for the theory of argument structure. *ASJUren gehigarriak* 46. 147-183. <https://doi.org/10.1387/asju.9717>.
- Azkarate, M. 1990. Euskal *-garri* vs. latinezko *-bilis*: bi balio desberdin. In E. Perez Gaztelu & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea. 19-39. <https://worldcat.org/oclc/907366441>.
- Azkarate, M. & L. Gràcia. 1995. Agentivity and modality in deverbal adjectives in Basque and in Catalan, *Rivista di grammatica generativa* 20. 3-32. <http://pascal-francis.inist.fr/vibad/index.php?action=getRecordDetail&idt=3283779>.
- Azkue, R. M. 1925. *Morfología vasca (gramática básica dialectal del euskera)*. Bilbo: Editorial Vasca. [2. arg. 1969. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca]. <https://worldcat.org/oclc/271429691>.

- Belletti, A. & L. Rizzi. 1988. Psych-verbs and θ -theory. *Natural Language & Linguistic Theory* (6)3. 291-352. <https://doi.org/10.1007/BF00133902>.
- Berro, A., B. Oihartzabal, B. Fernández. 2018. Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratorzen. *Fontes Linguae Vasconum* 126, 365-388. <https://doi.org/10.35462/flv126.4>.
- Berro, A., L. Sánchez-Dorransoro. 2023. *Egileen eta arazleen sintaxia jite adjektiboan argitan*. *Fontes Linguae Vasconum*.
- Berro, A., B. Fernández. 2022. *Voice and argument structure in Basque*. Eskuizkribua. Deustuko Unibertsitatea & UPV/EHU.
- Brennan, V. 1993. *Root and epistemic modal auxiliary verbs*. Doktore tesia. University of Massachusetts Amherst. <https://scholarworks.umass.edu/dissertations/AAI9316625/>.
- Etxepare, R. 2003. Valency and argument structure in the Basque verb. In J. I. Hualde, J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter, 363-425. <https://doi.org/10.1515/9783110895285.363>.
- Euskaltzaindia. 2012. *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabiltatu&Itemid=410.
- Euskaltzaindia, 2021. *Euskararen gramatika. I. Liburukia*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/oclc/1350149936>.
- Fábregas, A.. 2012. *Morphology: From data to theories*. Edinburgh: Edinburgh University Press. <https://worldcat.org/isbn/9780748643141>.
- Fernández, B. & J. Ortiz de Urbina. 2010. *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHU. <https://worldcat.org/isbn/9788498604337>.
- Fernández, B., F. Zúñiga & A. Berro. 2020. Datives with psych nouns and adjectives in Basque. *Folia Linguistica* 54(3). 647-696.
- Gonzalvo, L. 2018. *-Kor atzizkiaren aurrean baikor: -kor atzizkiaren azterketa*. Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU.
- Gràcia, L. 1995. *Morfologia lèxica. L'herència de l'estructura argumental*. València: Servei de Publicacions de la Universitat de València. <https://worldcat.org/isbn/9788437020662>.
- Hamada, T. 2013. Evaluative meaning of negative expression: Asymmetry between *readable* and *unreadable*. *Token: a Journal of English Linguistics* 2. 169-182.
- Marantz, A. 2009. Roots, re-, and affected agents: can roots pull the agent under little v? *The 2009 Roots Workshop* mintegian emandako hitzaldia. University of Stuttgart.
- Marchand, H. 1969. The categories and types of present-day English word-formation. Munich: C.H. Beck. <https://worldcat.org/oclc/643150219>.
- McGinnis, M. 2010. Evidence for the syntactic attachment of *-able*. *CUNY Conference on the Word in Phonology* emandako hitzaldiaren esku-orriak, New York, urtarrilak 14-15.
- Moreira, B. E. 2014. Two types of dispositional adjectives. *ReVel* 8. 186-196. <http://www.revel.inf.br/downloadFile.php?local=artigos&id=422>.
- Nevins, A. 2002. *One -able, two attachment sites*. Eskuizkribua. MIT.
- Oihartzabal, B. 2003. *Kor atzizkiaz*. In J. M. Makazaga & B. Oihartzabal (arg.), *Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*. Bilbo: Euskaltzaindia. 357-383. <https://worldcat.org/isbn/9788495438133>.

- Oltra-Massuet, I.. 2013. *Deverbal adjectives at the interface: a crosslinguistic investigation into the morphology, syntax and semantics of -ble*. Boston: De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/9781614510659>.
- Sánchez-Dorransoro, L. 2022. *Dispositional adjectives across languages: the frontier between syntax, morphology and semantics*. Gradu Amaierako Lana, Deustuko Unibertsitatea.
- Tsaprouni, E. 2019. *Comprehension of deverbal adjectives in Greek: Evidence from healthy and brain-damaged populations*. Doktore tesia. The Aristotle University of Thessaloniki. <https://doi.org/10.26262/heal.auth.ir.307717>.
- Villasante, L. 1974. *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñate: Franciscana Aranzazu. http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/villasante/dokumentuak/369.pdf.
- Val Álvaro, J. F. 1981. Los derivados sufijales en *-ble* en español. *Revista de Filología Española* 61. 185-198. <https://doi.org/10.3989/rfe.1981.v61.i1/4.614>.
- Volpe, M., 2005, *Japanese morphology and its theoretical consequences: derivational morphology in Distributed Morphology*. Doktore tesia. Stony Brook University. https://linguistics.stonybrook.edu/_pdf/dissertation/Volpe_2005_dissertation.pdf.
- Zabala, I. 1999. Zehaztasuna eta gardentasuna. In J. C. Odriozola (arg.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. 159-188.

Zuberoan usantzatan ez ziraden hitzak Leizarragaren obran

Blanca Urgell*

Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

SARRERA¹

Leizarragaren obran (1571) badago oraindik oinarritzko zeregin asko egiteko, tartean honako honetarako hautatu dudan «Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac» hitz zerrenda txikian sarrera-buru edo lema gisa ageri diren hitzak nongoak eta nolakoak diren ikustatzea, bai eta zerrendatxoak Testamentu Berriaren itzulpenarekin zer nolako harremana duen arakatzea ere.

Hitz zerrenda hau, hemendik aurrera «Zuberoako zerrenda» (ZZ) izenez aipatuko duguna, Testamentu Berriaren (TB) itzulpenaren ondoko edukien artean kokatuta dago:²

Edukia	Kokapena
TBaren itzulpena	<i>a - Mm</i> (459 or. zenbakituta)
<i>Testamentu Berrian diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuén declarationea</i> (IPHG)	Mm.iii.v (= 459v) - Mm.iv.v
<i>Testamentu berrico hitz eta minçatzeko manera difficil bakoitz batzu bere declarationéquin</i> (TBH)	ã 1r - ã 7v
<i>Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac</i> (ZZ)	ã.7r-v
<i>Testamentu berrico materien erideiteco taulá</i> (TBM)	ã 8r - õ vii-v

* Blanca Urgell. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatearen ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). blanca.urgell@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-4231-2825>.

¹ Lan hau «Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren eta «Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia (DLTB)» (Eusko Jaurlaritza, IT1534-2) ikertaldearen laguntzari esker egina da. Eskerrak eman nahi dizkiet Aurelia Arkotxa, Joseba A. Larkarra, Manu Padilla eta Ricardo Gómezi beren ohar zuhurrekin lana hobetzen laguntzeagatik, eta Iñigo Ruiz Arzalluzi konkordantzien munduan sartzeko giltzak luzatzeagatik.

² Edukien mapa hau osatzeko Linschmann & Schuchardt-en edizioaren faksimileaz (Leizarraga 1990) baliatu naiz, bai eta oro har Leizarragaren lanak aipatzeko ere. Eskura dugun jatorrizko alearen digitalizatzaera (Leizarraga 1571) zalantzak izan ditudanean bakarrik jo dut.



Ezagun denez, Leizarragaren itzulpena frantsesezko itzulpen kalbindarren tradizioetik egina da, bai eta taulan jaso ditugun eduki osagarriak ere (IPHG, TBH eta TBM),³ baina ez Zuberoako zerrenda, euskaraz eta euskaldunentzat berariaz sortua baizik. Balio gehiago izan litzakeen arren, hona begi-bistakoena: Zuberoako euskararen lehen lekukotasuna da, hurrengoari, Etxarten gutunei (1616-1617), 45 bat urte kentzen dizkiona, eta honegatik ere merezi du sakon aztertua izatea.

Ez dakigu nork egina den, eta ez da galdera gisa ere gehiegitan sortu: Leizarragak egin ote zuen, ala haren laguntzaile zuberotarren batek?⁴ Ezagun denez, Oloroeko eliz biltzarrak Leizarragari 1565ean esleitu zizkion lau laguntzaileetan bi zuberotarrak ziren, Piarres Landetcheverry eta Sanz de Tartas, nongoa den ez dakigun beste baten Tardets abizenak hirugarren bat ere izan zela iradokitzen badu ere. Laguntzaileon egitekoa lanak gainbegiratu eta zuzentzea zen, biltzarraren agiritan irakurtzen denez: «verron et corrige-ront» (ap. Zulaika 1999: 35-36).

Ohartzekoa da TBHaren amaieratik aurrerako $\tilde{a}.7$ orri soila erabiliz —aurkiaren herena baino gutxiago eta ifrentzua osorik— xertatu zela Zuberoako zerrenda TBaren edukien artean, letra txiki-txikiaz,⁵ eta honek halako petatxu itxura bat ematen dio, zalantzan jar lezakeena horrelakorik egitea hasierako egitasmoan egongo ote zen.

TBaren eduki osagarrien arteko kokapen horrexegatik ZZren nomenklatura osatzen duten sarrera-buruak, ezker zutabeko formak, oker ez banago jakintzat ematen da TBtik ateratakoak direla, baina geure buruari galde diezaiokegu ea benetan denak TBtik atereak diren eta, hala izatekotan, nondik, zeren eta, besteak beste, zerrenda aski txikia baita TB osoaren aldean (71 sarrera baino ez; ikus ZZren edizioa 1. eranskinean). Halaber, badago nolako hitzak diren ere galdetzea, hots, zer dela eta izan ziren aukeratuak, Zuberoan ohikoak ez izateaz beste ezer jakiterik balego. Galdera hauei erantzun nahirik, batetik, ezker zutabeko hitz edo formen banan-banako azterketa egin

³ Gai honen inguruko bibliografia, Ruiz Arzalluzek (1991) kritikoki berrikusi zuenez geroztik, biziki ugaldu da: ik. Salaberri Muñoa (2010, 2014, 2020), Etxagibel (2014: 247-264, bereziki 136. ohar luzea), Arcocha & Lakarra (2019 [2014]: § 2.4) eta Mounole & Lakarra (2018: 404-406).

⁴ Salaberri Muñoak (2010: 121) Leizarraga du «sortzaile eta erredaktatzaile»-tzat. Iritziz aldatu ez, baina ñabardura gehiagoz azaldu du gaia gero, «Leizarragak prestatutako bertsio *bateratuen* zubereratzaileak» beraren laguntzaile zuberotarrak ez ote diren iradokirik (Salaberri Muñoa 2014: 53, eta 65. oh.). Oro har Lafonen iritziari segiturik, Mounole & Lakarra (2018: 401) argi diote, eta arrazoiz, ez dakigula nola lan egin zuten Leizarragak eta haren laguntzaileak.

⁵ Neurri estandarra ez izan arren (inprenta-tipoen neurketa estandarraz ikus Gaskell 1999 [1972]: 16-21), lehen hurbilketa modura askitzat joenezake jakitea TBaren letra borobil arruntak 2 mm altuera duela, erreferentziatzat *h* edo *d* bezalako letra luzeak harturik; TBHrenak 1,5 eta ZZrenak milimetro bat, ondorengo TBM aurkibidearenak bezala, dena den.

dugu, euskal tradizioan non eta noiz lekukotu diren miaturik (ikus 2. eranskina); bestetik, TBaren testuan bilatu ditugu, han diren eta non diren jakiteko (ik. 3. eranskina). Hemen bi azterketa horietatik irtendako ondorioak bildu ditugu. Emaitzak jakingarriak direla esango nuke, eta TB osatzeko Leizarragak eta haren laguntzaileek egin zuten lana hobekixe ezagutzeko modua ematen dutela.

Lan hau Zuberoako zerrendaz egin dudan lan zabalago baten ataletako bat da (Urgell prestatzen). Espero dut euskararen deskribapen eta azterketan ez ezik, araugintzan eta hizkuntza-politikan ere hainbat urte eta hainbat lan egin dituen Miren Azkaratek interesgarria iriztea. Ohiz kanpoko harremanak izan ditugu Miren eta biok, gaur egun UPV/EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea den hartan Euskara Teknikoa I eta II irakasgaiak ematen haren ordezkoa izan nintzenetik eta patuak unibertsitate beraren Euskara Institutuan elkarrekin lanean ipini gaituen azken urte honetara bitartean. Beti liluratu nau Mirenek alor batean baino gehiagotan duintasunez aritzeko daukan gaitasun apartak, bai eta bere euskara zehatz zaindu ederrak ere. Honako hau berarengandik jaso dudanaren ordain xume bat baino ezin da izan, eta nire estimu handiaren isla txipia.

1. TBan DAUDEN ETA EZ DAUDEN HITZAK

Zuberoako zerrenda 71 sarreraz osatuta badago ere, 72 forma azertu behar ditugu, haietako batean *edo*-z lotutako bi sinonimok egiten baitute sarrera-buru: «nokua edo hebaina». Sarrera-buru horietatik gehientsuak TBan aurkitu ditugu, espero bezala: 67/72 (% 93). Batzuk maiz agertzen dira, gainera, hala nola *zeru* (349tan), *resuma* (225etan), *behatu* (63tan), *jai* (51tan), *landa* (43tan), *libre* (40tan) eta *azpian* (39tan).⁶ Beste batzuk behin baino ez dira (*berariaz*, *eskobakin*, *ixter*, *mugarri* eta *pitina*), eta abar. Alabaina, lehenagoko zenbakiak agerian jarri dutenez, badaude ez bat, ez bi, baizik eta bost hitz TBan behin ere ez direnak: *arraxki*, *zama*, *zikhotz*, *garastia* eta *nokhu*.

Arraxki, Schuchardtek (1900: 31) ikusi zuen Leizarragak bestetan darabilen *erraxki*-ren ordezkoko hutsa baino ezin daitekeela izan, eta egiaztatu dugu forma zuzena TBan bi aldiz dagoela (*Adv* **6r; Heb 12, 1). Esanguratsua da A letran kokatu izana, honek adierazten baitu zerrenda alfabetoaren arabera antolatu baino lehenagoko akatsa dela, eta zerrenda antolatzen aritu zenak eta probetan zuzendu zuenak ez zu(t)ela hitza ezagutzen; hortaz, edo laguntzaile zuberotarretako bat, edota inprentako langile erdaldunetako bat dituzkegu antolatzaile-zuzentzaileak, baina ez Leizarraga bera, inondik ere ez.

⁶ ZZko formak 2. eranskinean hautaturiko lemaren itxuran aipatuko dira, grafiazko ezer izan ezean.

Laguntzaile zuberotarraren aldeko datu gisa, egiantzekoa da *erra-* > *arra-* al-daketa hori latin-erromantzeetako *re-* aurrizkiak ekialde hertsian izan duen *arra-* ohiko bilakabidearen eraginaren pean egina izatea: cf., adibidez, *arraberritu*, *arramarkatu*, *arrabozkatu* eta *arrapiztu* (denak *OEH*, s.vv., salbu *arraberritu*, s.v. *erreberritu*).⁷

Zama-k ere hasieran ez dirudi zaila azaltzen, bera ez, baina beraren eratorriak bai baitaude TBan: *zamaldun* (Eg 23, 23; Ap 9, 16 tit.), *zamari* (Ap 14, 20) eta *zamarizko* (TBH, s.v. *legionea*). Datu hauen arabera pentsa genezake zerrendako hitzak bildu zituenak bazuela hizkuntzaren gaineko halako sen berezi bat, eratorrietatik erroa ateratzeko gaitasuna, alegia, eta ekonomiaren hatsarrearen arabera jokatu zuela. Halere, azalpen honen aurka dago *zama*-ren ordez zuberotarrei eskaini zitzaien *karga* sinonimoa izatea ‘zama’ adiera islatzeko TBko forma bakarra, eta harekin batera *kargatu* eta *deskargatu* aditzak ere bai (vs *zamat*, etab.).⁸ Beraz, *zamari* bezalako eratorri fosilduak gorabehera, inoiz *zama*-rik izan bazen TBaren itzulpenean, ematen du haren ale guztiak ezabatuak izan zirela, TBM eratu baino lehenago ezabatu ere — aurkibide honetan *karga* sarrera bi daude («Carga ecin iassan daitezque-nac...» eta «Cargá ekarteco batac bercearena»), eta *kargatuak* bat («Cargatuac Christec arincera deitzen») —, baina ZZ osatu ondoren.

Zama-rena jakinik, egiantzekoa da *zikhotz* ere TBan non edo non erabili eta gero beste zerbaitez ordezkatu izana. Hipotesi hau frogatu nahiz, *OEH*-ren bilatzaileari gazt. *avaro* definizioetan bilarazi eta Duvoisinin adibideak agertu zaizkit *jaraman* sinonimoaren azpian, artean Bibliakoren bat edo beste (Duvoisin 1858). *Klasikoen Gordailua*-n beraren TBaren itzulpeneko *jaraman*-en agerraldiak bilatu ditut, eta egiaztatu Duvoisinek *jaraman* dakarren bakoitzean Leizarragak *abarizioso* dakarrela (6 aldiz), eta *jaramankeria* dakarrenean Leizarragak *abarizia* (8 aldiz). Erabilera sistematiko honek ondorio nabarmenak ditu guretzat: baldin eta Leizarragak itzulpenean inoiz edo behin *zikhotz* erabili bazuen, esku zorrotz eta irmo batek — berea izan zein beste batena — haren aztarnak osoki ezabatu zituen, *abarizia* eta *abarizioso* maileguak hobetsirik.

Nokhu sarrera berezi batean agertzen da ZZn, dakigunez: «nokua edo hebaina, *cembeit membroz impotentia*», non *edo*-z lotutako bi sinonimo bai-

⁷ Manu Padilla lankideak hipotesia bermatzeko moduko adibide eder argi bat oparitu dit: «Egiategik 1782ko eskuizkribuan usu *arretor* idazten du, eta gero bere buruari *erretor* zuzentzen». Bilakabide hori, «gehienbat Nafarroa Behereko iparraldean eta ekialdean» ere ezaguna da (Zuazo 2014: 157), eta bearn. *arre-* bilakabidearekin dagoke loturik.

⁸ Bestela pentsa bagenezake ere, *zamat* berandu lekukotu da, eta lehenik ‘sortak egin’ adieran, zeinean Axularrek duen lehen tasuna (1643); ‘kargatu’ adieran Larramendiren hiztegiak (1745) eta testuetan Mogelek (c. 1802). Beraz, badirudi gaur egun euskara jasoan duen erabilera ugaria eta adiera bakartasuna Larramendiren hiztegiari eta haren ondoko literaturari zor zaiola (ik. *OEH*, s.v.).

taude sarrera-buru, gainerako sarreretan ez bezala. *Nokhu* ez da TBan agertzen, baina *hebain* bai, bi aldiz, bata bestearen segidan (Mt 15, 30 eta 15, 31). *Inpotent* ere bostetan ageri da, batean behintzat argiki ‘nokua’ adieran: *Listrako gizon oinez inpotent bat zegoen...* (Eg 14, 8; Dv *oinetarik hebain*). Frantsesak lagun gaitzake honetan: 1563ko edizioan (Izengabea 1563) *inpotent* dago bostetan, Leizarragarenean bezala; Mateoren agerraldietan, aldiz, *manchot* dakar bietan, euskaraz *mantxot* «manco, lisiado» eman duena (ik. *OEH*, s.v.). Honek gure hipotesia indar dezake, eta erakutsi, gainera, lexikoa zuzendu bazen, zuzenketa frantsesaren arabera egin zela, modu zehatz batean egin ere: *nokhu* frantsesez *inpotent* dioen pasarteetan ageri bide zen lehen bertsioan (ezin jakin behin, birritan ala bostetan), eta gero zuzentzaile irmoak maileguaz ordezkatu zukeen TBtik desagerrarazi arte, baina haren arrastoa ZZn utzirik; frantsesez *manchot* zioten adibideak, aldiz, bere horretan gelditu ziren, bilaketa eta ordezkapena frantses *inpotent* zegoen pasarteetan soilik egin zela iradokirik.

Garastia-ren kasua ezagun da lehendik: «Leizarraga (*Decl* ã 7v) da *kharrio* como equivalente suletino de *garasti* [sic]⁹ (que no encontramos en el texto)» (*OEH*, s.v. *garesti*). *OEH*-n gazt. *caro* bilatu eta TBko adibide bat ediren dut, Haranederrena (c. 1740): *Ez urrezko ez perlazko edergailluekien, ez soineko garastiosekien* (1 Tm 2, 9). *TB1828*-k ere *arropa kostutsuez* dio, adibidez, baina Leizarragarenak *abillamendu soberanziatakoz*. Baliteke, beraz, zerrendagileak oharra hartu ondoren pasarte honetan *garastiaz* > *soberranziatakoz* aldaketa egin izana norbaitek, baina kontua ez da hain garbia, zeren eta 1563 eta 1564ko itzulpen kalbindarrek «somptrueux» baitiote, ez *cher* edo *coûteux*-edo.¹⁰ Dena dela, *BibleGateway* online konkordantzian ing. *expensive* bilatuz *garastia*-ren balizko ordezeko hobeak aurkitu ditut, artean hoberena *prezio handitako* (3 aldiz).

TBan agertzen ez diren hitz hauetatik ondoriozta daiteke Leizarragaren TBak bi egoera izan zituela: (1) lehen bertsioa, nondik ZZko hitzak bildu ziren, *zama*, *zikhotz*, *nokhu* eta *garastia* barne; (2) zuzendutako bertsio berria, non lehenengo bertsioa hitz batzuk agerraldi guztietan hitz bat eta beraz ordezkatuak izan baitziren; bertsio berri honetatik aurrera egin bide zen TBM gai-aurkibidea, *zikhotz* eta *zama*-ren ordezkapenak eta *carga* baititu. *Nokhu / hebain* bikoteak ate bat ireki du ordezkapenak ez nolana hikoak, baizik eta frantsesaren arabera egindakoak direla uste izateko.

⁹ Uste dut *garastia* ulertu behar dela, berezko *-a*-rekin. Azalpenerako, ikus 2. eranskina.

¹⁰ Ia ezinezkotzat jo daiteke Leizarragak 1564ko edizioa erabiltzea, «hala izan balitz, besteak beste, (...) ez baitzukeen urte bat besterik izan berea burutzeko» (Salaberri Muñoa 2010: 112-113). Dena dela, duda pean dago oraindik zein izan zen Leizarragak erabili zuen edizio zehatza, bat eta bakarra izatekotan. Azken ikerketek 1562-63ko baterantz hurbildu gaituzte, Leizarraga lanean jarri baino lehenago «Genevan kaleratutako azken-azkenak» (Salaberri Muñoa 2010: 136). Gai honen bilakabidea ezagutu nahi izanez gero, jo bedi 3. oharrean aipatutako bibliografiara.

Azter dezagun azken hipotesi hau beste hiru hitzetan. *Zikhotz* erraza da, zeren *abarizioso*-ren agerraldi guztien jatorrizko frantsesa *auaricieux* baita 1563ko edizioan (7 aldiz). Aldiz, euskarazko *karga*-tik abiatuta frantsesezkoa ez da bat eta bera beti: *charge* (8 aldiz), *fardeau* (4 aldiz) eta *faix* (behin). Haatik, frantsesetik abiatu zirela aldezen ari garenez, pentsatu behar dugu ZZko *zama* fr. *charge* dagoen adibideetakoren batean zegokeela hasieran, edo guztietan, eta gero *karga*-z ordezkaturia izan zela. Honen antzera, *garastia* azaltzeko frantsesetik abiatuz gero bi ordain genituzke, *de grand prix* (2 aldiz) eta *precieux* (2 aldiz), euskaraz *prezio handitako* (3 aldiz) eta *prezioso* (behin) eman dutenak eta, hortaz, fr. *de grand prix* izan bide zen ordezkapenaren abiapuntua, haren kalkoa ere bada eta, *precieux*-etako bat behintzat harrapatu bazuen ere.

Ordezkapenaren nolakoari erreparatzen badiogu, aurreko ideian sakondurik, *zama* > *karga*, *zikhotz* > *abarizioso* eta *nokhu* > *inpotent*, deskribatu ditugun balizko hiru ordezkapen argienetan mailegu gardenek ordezkatu dituzte euskal hitzak;¹¹ eta ez edozein maileguk, frantsesezko bertsioan dagoenaren euskal kideak baizik (fr. *charge*, *inpotent* eta *auaricieux*, hurrenez hurren). Nolanahi ere, baina, eta *karga* eta *inpotent* zuberotarrek lehendik mailegatuak bide zituzten ZZren egilearen arabera, *zama* haiei ulertarazteko «cargá, hachia» eskaini baitzien, eta *nokhu* zein *hebain*-erako «cembeit membroz impotentia». Otera, *abarizioso* baliteke mailegu berri-berria izatea, neologismoa alegia, zuberotarrei «xekhena» sinonimoa eman baitzien, ez besterik.

Nolanahi ere den, hiru ordezkapenok gogora dakarkigute *peskadore*-z ZZn berean azaltzen den hautua *arranzale*-ren kaltetan; hots, gure hitzetan esanda, toki gehienetan *arranzale* erabili arren, TBan agertzen den testuinguru jakin batean —Jesusek apostoluei *Nic eguinen çaituztet guicarrançale* esan behar dienean— *pescadore* hobetsi zuten edo, orokorkiago esanda, euskal hitzaren adiera zabaldu baino, mailegatu nahiago izan zuten. Mounole eta Lakarrak (2018: 398) «simplex traslatio» delakoari buruz —hau da, Jainkoaren hitzari traiziorik ez egitearren ahalik eta itzulpen hitzez hitzekoena egiteko San Jeronimoz geroztik izan zen joeraz— esan digutenarekin bat dator honako hau: alegia, jatorrizko testuarekiko atxikimendu handia gailendu zitzaizola gaur egun «jatortasuna» deituko geniokeen hari. Bagenekien hori lehendik, euskarazko bertsioa frantsesezkoarekin erkatu dutenek erakutsi baitigute frantsesarekiko menpekotasun handia,¹² baina Zuberoako zerrendak erakutsi digu jadanik TBan ageri ez diren euskal hitzak —*zama*, *zikhotz*,

¹¹ «Euskal hitzak» diodanean, ez dut nahitaz «ondare zaharrekoak» esan nahi. Badirudi *zikoitz* izan badela (EHHE 582, s.v. *zur*), baina esango nuke zaila dela euskaldunarentzat *zama* eta *nokhu* nolakoak diren erabakitzea, zeina baita euren zahartasun erlatiboaren seinale argia, maileguak izatera: *noku* bearn. *noc*-etik (Larrasquet 1939, s.v.) eta *zama* lat. *sagma*-tik (OEH, s.v.) azaldu dira orain arte.

¹² Salaberri Muñoak (2014: 47) honakoak erkatu zituen: 1563 *chable*, *banque*, *maistre d'hostel*, *gendarmes*, *marcs*, *fascherie*, *iuppe*, *lunatique* eta *m'empesche* / Leizarragak *chable*,

nokhu eta *garastia*— bigarren itzulian maileguz edota kalkoz ordezkatu zi-rela, aski sistematikoki ordezkatu ere. Halaber, iduri luke zuzentzaileek nolabaiteko frantses konkordantzia bat izan zutela eskura.¹³ Nire iritzian, ZZk erakutsi digun hau sintoma bat baino ez da: baliteke, noski, ZZn arrastorik utzi ez duten hamaika hitz gehiago ordezkatu izana.

2. ZZko HITZEN TBko JATORRIAZ

TBan behin ere ez dauden hitzetarako azalpen bila aritu eta gero, ZZren eraketaz gainerakoek zer esan diezaguketan dugu aztertzeko: hasteko eta behin, TB osoko hitzak ditugun, ala atal bereziren batekoak bakarrik. Honi erantzuteko ezin ditugu TBan zehar hamaika aldiz ageri diren hitzak erabili, gorago aipatu ditugun *zeru*, *resuma*, *behatu*, *jaio*, *landa*, *libre* edo *azpian* bezalakoak, baina gutxienez hiru multzotakoak baliagarri izan dakizkiguke: lehena, behin baizik ez daudenak (guztira 7): *berariaz* (Kol 4, 8), *eskobakin* (1 Ko 4, 13), *ixter* (Ap 19, 16), *mugarri* (Eg 17, 26), *othoranza* (Eg 2, 46),¹⁴ *pitina* (Lk 15, 29) eta *umunzi* (Erm 4, 19);¹⁵ bigarrena, behin baino gehiagotan egon arren, agerraldi guztiak liburu bakarrean dituztenak (guztira 3): *babazuza* (Ap 8, 7; Ap 11, 19; Ap 16, 18 tit.), *xarthatu* (Erm 6, 5; Erm 11, 17; Erm 11, 19; Erm 11, 23 bitan; Erm 11, 24 bitan) eta *hebain* (Mt 15, 30 eta 31); herena, liburu bakar batean eta TBaren testutik kanpoko pasarteren batean baino ez direnak (guztira 2):¹⁶ *haran* (Lk 3, 5; IPHG) eta *erraxki* (ZZn *arraxki* 6; *Adv* ** 6r; Heb 12, 1).

Hamabi hitz hauek dioskutenaren arabera (12/67, % 19), TBaren lehenengo liburutik (Mt) hasi eta azkeneraino (Ap) heldu zen hitzak batzen aritu zena; honen erakusgarri, beheko zerrendan letra etzanez bereizirik daude hitzok lortzeko nahitaezkoak diren liburuak:

Mt - *Mk* - *Lk* - *Jn* - *Eg* - *Erm* - *1 Ko* - *2 Ko* - *Ga* - *Ef* - *Flp* - *Kol* - *1 Ts* -
2 Ts - *1 Tm* - *2 Tm* - *Tt* - *Flm* - *Heb* - *St* - *1 P* - *2 P* - *1 Jn* - *2 Jn* - *3 Jn* - *Ju* - *Ap*.

banquean, *mestedostalari*, *gendarmesac*, *marcoac*, *fascheria*, *iupa*, *lunaticoa* eta *empatchatzen nau*.

¹³ Bibliaren konkordantziak XIII. mendearen lehen erdialdetik aitzin landu dira (Rouse & Rouse 1974), lehenik Vulgatako latinez. Kalbindarren giroko frantses konkordantziaren batean pentsatu behar guk, apika.

¹⁴ *Othoranza* agerraldi bakarrekotzat eman dut, nahiz liburuan aurrerago *othorence-taco* (Ju 1, 12) forma ere agertu (mugagabeen *othorenza*, beraz). Azalpen gehiagotarako, ik. 2. eranskina.

¹⁵ *Umunzi*-k ere badu beste ordezkari bat TBan, *ume-unzi* (Lk 2, 23).

¹⁶ Nabarmena da TBko hiztegiak (IPHG eta TBH) zein TBM aurkibidea TBaren gorputzari dagozkiola, eta ez liburuaren hasiera aldera kokaturik dauden Erreginaren gutunari (ATI), *Heuskaldunei* idatzitako sarerari edota *Advertimendua* deritzan atalari. Honetan oinarrituta, uste dut adostu dezakegula ezen ZZ ere TBaren gorputzari bakarrik dagokiola, are gehiago TBaren itzulpenaren helburu erlijioso estuari erreparatzen badiogu (cf. Mounole & Lakarra 2018: 401-403). Nolanahi ere, ez dut aurkitu hipotesi honen aurkako datu garbirik, ondoko lerroetan agerian geratuko denez.

Liburu batean baino gehiagotan agertzen diren hitzen lehen agerraldia aintzat harturik —ez da ziurra, baina bai egiantzekoa, lehenengoan erreparatzea biltzaileak hitzari—, bi liburu erantsi dakizkioke nahitaezko liburuen zerrendari, Markosen ebanjelioa eta Apostoluen Eginak, behean jaso denez:

Mt - Mk - Lk - Jn - Eg - Erm - 1 Ko - 2 Ko - Ga - Ef - Flp - Kol - 1 Ts - 2 Ts - 1 Tm - 2 Tm - Tt - Flm - Heb - St - 1 P - 2 P - 1 Jn - 2 Jn - 3 Jn - Ju - Ap.

Lehen begiratuan bestela eman balezake ere, nahitaezko liburuak hain gutxi izatea ez da harrigarria: zerrenda txikia izateaz gainera, kontuan hartzekoak dira gure azterketan antzeman ditugun beste faktore batzuk. Ikus ditzagun.

ZZko hitz gehientsuen lehenengo agerraldia Mateoren ebanjelioan dago, alde handiz: 25/67, hots, herena baino gehixeago (% 37). TBtik kanpoko atalak alde batera utzirik (ATI, *Heus*, IPHG, TBH, TBM; ik. 16. oh.), Mateoren ebanjelioak azal ditzakeen ZZko hitzak 40 dira (% 60).

Mateo ez ezik, Markos eta Lukasen ebanjelioek batera harturik (40 + 5 + 6 hurrenez hurren) 51 hitzen kontu ematen digute (% 76), eta Joanesen ebanjelioa saltaturik (0), Apostoluen Eginak (4), Erromatarren gutuna (5) eta Korintiarren Lehen Gutuna (1) ere harturik, 61 hitzen kontu (% 90).

Hasierako liburuetakoa lehen agerraldien pilaketa ez da kasualitatezkoa, baizik eta bi faktoreren ondorio. Lehenengoa TBko liburuen tamaina da. Hurrengo zerrendan, liburu bakoitzak Leizarragaren itzulpenean hartzen duen orrialde kopurua zehaztu da parentesi artean:¹⁷

Mt (118) - Mk (74) - Lk (125) - Jn (94) - Eg (119) - Erm (50) - 1 Ko (48) - 2 Ko (32) - Ga (16) - Ef (17) - Flp (12) - Kol (11) - 1 Ts (11) - 2 Ts (6) - 1 Tm (14) - 2 Tm (10) - Tt (6) - Flm (3) - Heb (36) - St (13) - 1 P (14) - 2 P (9) - 1 Jn (13) - 2 Jn (2) - 3 Jn (2) - Ju (4) - Ap (58).

TBaren itzulpenaren 917 orrialdeetatik 628 (% 68) hartzen dituzte Mateoren ebanjeliotik eta Korintiarren Lehen Gutunera arteko liburuek: ia hiru laurden. Gainerakoak txikiagoak dira, batzuk hagitz txikiak. Tamainaren aldetik nabarmentzen diren hurrengo liburu bakarrak azpimarratu ahal izan ditudan hiru liburuetatik bi dira: Hebrearren gutuna eta Apokalipsia. Kolosiarren gutuna (Kol) bakarrik aldentzen da proposatzen ari garen korrelaziotik: hasiera alderago eta handiago, ZZn hitz gehiago.

¹⁷ Kopuruok lortzeko, Euskaltzaindiaren faksimilean (Leizarraga 1990) behealdean erantsi ziren orrialde-zenbaki arabiarrez baliatu naiz. Liburu baten bukaera orrialdearen bukaerarekin bat ez datorrenean, bi libururen artean partekatutako orrialdea bertan bukatzen denari ez, eta bertan hasten denari eman diot, jakin nahi dugunerako zehaztasun gehiagoren beharrik ez dagoelakoan.

Bigarren faktorea, biltzailearen lan egiteko modua izan liteke. Ezbairik gabe, ZZ TBa hasi eta buka irakurri izanaren ondorio da, zeren eta ezinbestean Kolosiarren gutuna (TBko 12. liburua), Hebrearren gutuna (19. liburua) eta are Apokalipsia ere (27. liburua, eta azkena) irakurri behar izan ziren zerrenda osatzeko. Liburuen tamainaz gain, beheranzko errendimenduaren legeak ederki azaltzen du nolatan ez den gainerako liburuetatik deus ere bildu. Dena dela, lan handixkoa ematen du hain etekin gutxi ateratzeko: 72 sarreraburu baino ez. Beraz, agian bestetan ari bitartean eratutako zerrenda da. Espekulazioetan oraingoz barneratu gabe, halere, saia gaitezke hitzen nolakoaren bitartez zerrenda nolatan eratu zen asmatzen.

3. ZZko HITZEN ZERGATIAZ

3.1. Zuberoatik kanpoko hitzak

Zuberoan *usanzatan ez diraden* hitzak direnez gero, lehen hipotesia da beren dialektotasunagatik aukeratuak izatea, hau da, egilearen iritzian zuberotarrek ulertzen ez zituztenak. Nongoak zehazki, eta Lapurdikoak izan litezke Leizarragaren jaioterriari begiratuz gero; berriz, Bonaparteren behe-nafarreraren eremukoak, batzuk behintzat, TB itzuli zuen haren hizkeraren barnealdeko —Lapurdiko kostaldetik kanpoko— kokaguneari begiratuz gero (cf. Urgell 2015). *Zeru, jaio* eta *azpian* gogoan hartzea aski da orokorrakoak ere badaudela ulertzeko, espero zitekeenez.

Horrela da askotan, ezbairik gabe. Adibide ezin gardenagoa dugu datibo pluralaren marka ezberdintasunaren berri ematen duen *ei* sarrera, atzizki hau Zuberoan «eta aldirietan» *er* esaten denaren baliokidea dela azaltzeko sortua.¹⁸ *OEH*-n bildutako lekukotasunen arabera —batez ere testuei erreparatu diegu, bai eta azkenaldiko hiztegi dialektal ziurragoei—, zaku berean sartze-koak dira hedadura gehiagoz edo gutxiagoz Zuberoaz mendebalderago lekukotu diren hurrengo formak:

arbuiatu, artha, aserretu, auhen, azkendu, azpian, babazuza, behazun, berariaz, errexki (**arrexki), fiadore, fits, gaixtagin, gakho, garastia, guthi-ziatu, hagitz, hagn, haran, hebain, hots, hurbil, igorziri, iguzki, iharduki, ilhargi, iraungi, ixter, jaio, kalte, landa, larrain, lothu, maiz, mugarri, neurri, neurtu, ordain, othoranza, pedazu, umunzi, urriki, xarthatu, xistmist, xito, zama, zeru, zigilatu, zikhotz.

Sartalderagokoak izan litezke baita hain ondo lekukoturik ez dauden *aurkhan*, *eskobatu* (*eskobakin* hapaxa ere bai, hortaz), *iraulzkatu*, *kadena*,

¹⁸ Ezaugarri honek dialekto-mugarri gisa orduan zeukan garrantzia ez bide zen txikia, bada. Bestalde, gogoratzekoa dugu *ABCn* Leizarragak *-er* darabilela (Schuchardt 1900: 210), Zuberoa eta aldirietako euskarari amore emanik (Schuchardten beraren adierazpidea gure eginez).

kharmin, *mendematu*, *pitina*, *resuma* eta *zigulu* ere, agian. Halaber, *elemosina* eta *flore*-ren kide herrikoiak ere sartalderagokoak dira, baldin eta TBan hauen idazkera ez balitz etimologikoa, fonetikoa baizik. Azkenik, ZZren egileak pentsatu bide zuen zuberotarrek adieraz gaizki ulertuko zituztela *behatu* ‘so egin, begiratu’, *errota* ‘eihera’ eta *nokhu* ‘hebaina’ (vs Z ‘entzun’, ‘arroberra’ eta ‘akatsa’, hurrenez hurren). Hala bada, 72 formatan halako ziurtasun batez 52-66 artean dialekto-arrazoiengatik hautatuak bide dira (% 72-92).

Norabide biko ariketa dugu. ZZren egileak diosku 1560-1570 inguruan zerrendako hitzak oro ez zirela entzuten Zuberoan, eta egiaztatu ahal izan dugu ondoren ere oro har ez direla erabili hango testuetan, ez hango hiztegi-tan jaso. Zuberoako zerrendaren egilearen «belarri ona» bermatzen du honek, eta duda gehiagoz aipatu ditugun hitzak egiantzekoago egiten. Alabaina, salbuespenak egon badaude, jarraian eztabaidatuko direnak.

3.2. Zuberoako salbuespenak

Salbuespen dira idazkera supradialektalak baliatu dituzten garai ezberdinetako zuberotarrak (Oihenart, Tartas, Egiategi eta Mirande). Iduriz, ZZko hitzen sartalderagokotasuna zertan kolokan jarri ez daukaten salbuespenak dira, beraz. Konparazioa ez da alferrikakoa izan, ordea, baizik eta atea zabaldu digu Oihenartek ere Leizarraga ongi ezagutu zuela frogatzeko, zeren eta *erraxki* (Mirandekin batera), *resuma* eta *iguzki* (Tartasekin batera), *hebain*, *kalte*, *kharmin* eta *zama* baititu, inguruko eta geroko zuberotarrek ez bezala; are nabarmenago, *othoranza* ere badu, nahiz oso litekeena den Leizarragaren testuarekiko akats bateratzailea izatea. Hurrengo batean arakatu beharreko harremana, inondik ere.¹⁹ Gainerakoan, bere aldetik *auhen* eta *kadena* darabiltza Egiategik (Egiat 159 & 237, hurrenez hurren).

Salbuespen batzuk ez dira salbuespen. Behin eta berriz gertatu zaigu *OEH*-ren dialekto-erreferentzietan «S» laburdura egotea, eta gero zubererazko testu, hiztegi eta dialekto-bildumetan ez egotea ezer. Errua ezin zaio *OEH*-ari egotzi, erreferentziak inorenetik hartuak baitira, Azkueren hiztegitik batik bat, zuzenean «ap. X» jarriz ez denean «Ref.» izeneko atalean aitortu ohi dutenez. Hauek dira S laburdura duten 15 hitzak (parentesi artean iturriaren laburdura: A = Azkue 1905-1906; Lh = Lhande 1926, eta honen «C» = L, BN, S; Lrq = Larrasquet 1939, eta honen «Sc» = nonahiko zuberera):

arbuaiatu (A), *artha* (A, Lrq), *auhen* (Lh «C»), *behatu* (A, Lrq), *gakho* (A), *hagun* (Lh «C»), *hebain* (A), *iguzki* (A), *ilhargi* (*hilargi* Lh «C»), *ixter*

¹⁹ Pouvreaux Leizarraga ezagutu bazuen (cf. Etxagibel 2014), zenbat errazago ez ote da beraren aholkulari egin zuen Oihenart euskalari jakintsuak ezagutzea? Dena dela, ezin ahantzi hitzetako batzuk atsotitzetan daudela (*hebain*, *kalte*, *kharmin*, *lazo*, baita *othoranza* dudazkoa ere), era batera hartu, edo bestera.

(Lrq), *larrain* (A), *lazo* (Lrq), *libre* (Lh, Lrq «Sc»), *pitina* (A) eta *resuma* (*erresuma* A, Lrq «Sc»).

Ixter Larrasqueten zubererazko hiztegian (1939) agertu agertzen da, baina «sens disparu» bezala. Azkueren «S»-ak eta Lhanderen «C»-ak dudazkoak edo are okerrak izan daitezke, inoiz Larrasquetek berak zuzendu bezala: *artha* ez dela gehiago («plus») erabiltzen dio, antzinago erabili zela pentsaturik, nonbait; eta *behatu*-rako «écouter» adiera soilik onartu zuen (s.v. *beha*), Azkuek «(BN, L, S), mirar, escuchar» zehazgabea errotik zehazturik. Finean, aztertu beharko da Azkuerenak Oihenart edo Tartas bezalako testuetatik ez ote diren, beste batzuetan igarri denez (Urgell 2000: § 12.1.1).²⁰

Badira salbuespen azalgaitzagoak, ordea: *lazo* ‘lakioa, segada’, Oihenartez eta Tartasez gain Maisterrek eta Intxauspek erabili dute, bai eta Larrasquetek bertakotzat eman, baina «peu usité» dela esan ere bai; *OEH*-n *libre*-ren ehunka adibide zuberotar ez badaude ere, bertan aurkitu dugu, erabilera eta adiera ezberdinetan sakabanaturik, *Xarlem* pastoralean, Etxahun zein Miranderen testuetan, bai eta Géze zein Larrasqueten hiztegieta ere. *Resuma*, bere aldetik, Oihenart eta Tartas (*resuma*), Maister (*erresoma*) eta *Xarlem* pastoralean (*resoma*) dago, eta are goizago Etxart-en gutunetan (*rezuma*). Azalpen bi daude. Lehenengoa, ZZ eratu zuenaren hizkeran ezezagunak izan arren, Zuberoako beste leku batzuetan ez izatea horrela, edo haren belarria ez izatea gorago iradoki dugun bezain hutsezina. Bigarren aukera da hizkuntza etengabe aldatuz doala gogoratzea, eta hizkuntz atalen artean lexikoa areago. Hirurak maileguak izanik, hiruretan bi gardenak gainera,²¹ baliteke Zuberoan oraindik sartu gabekoak izatea, ZZren egilearen ustez zuberotarrek *laxera*, *franko* eta *retatu* maileguak behar baitzituzten *lazo*, *libre* eta *resuma* ulertuko bazituzten.

Gehiago sakon liteke, baina beharbada espekulatiboegia litzateke: adibidez, *igorziri* ez zen Zuberoakoa ZZren arabera, baina Etxeparek, Leizarragak eta Axularrek erabili eta gero, beste aldaera batzuk nagusitu ziren Iparraldean, eta hauen artean zuberotarrek (Maister, Intxauspe) *irurziri* erabili dute. Nola jakin, ostera, Zuberoan zer gertatu den, bertatik hain testu arkaiko eta zahar gutxi izanik? Izan liteke adierazle aldaketa, hots, *ihurtzuri*-ren aldaera(k) ZZz geroztik sartu izana, aurreko lerrokadan aipatu ditugun maileguetan gerta zitekeenez; edo izan liteke adiera aldaketa, hau da, ‘trumoia, os-

²⁰ *Hebain* «paralítico» Oihenarten atsoitiz batekin (*Pr* 196) adibideztatu zuen, besteak beste, baina ez da argi ikusten 1. adierako (L, BN, S) markak 2. adiera honi dagozkion, nahiz *OEH*-k bi adierak bat egin dituen, eta laburdurak ere bai, beraz. Beti behintzat ez du «Oihenart = S» automatikoki egin, ordea: dudazkotzat eman dugun *othoranza* Azkuek (s.v.) «BN?» markatu zuen, nahiz aitortzen duen iturri bakarra Oihenarten atsoitiza izan.

²¹ *Resuma* ere mailegu argia da bere fonotaktikaren arabera, baina ez da hain aise azalzen, ez baitago ongi azal lezakeen formarik inguruko erromantzeetan (xehetasunetarako, ik. 2. eranskina).

totsa' eta 'tximista' adieren arteko kontua (1563ko frantsesezko TBan beti *tonnerre* dago), gorago aipatu ditugun *behatu*, *errota* eta *nokhu* hitzetan bezala.

3.3. Hitz zailak

ZZko sarrera-buru gehientsuak Zuberoatik kanpoko hitzak direla egiaztatu badugu ere, ez genuke begi-bistatik galdu behar Leizarragaren eta berari mandatua egin zioten eliz-agintarien helburua ez zela linguistikoa, are gutxiago dialektologiaren alorrekoa, hertsiki erlijiosoa baizik, ezinbestean hizkuntzaren bitartekotzez gauzatu beharrekoa bazen ere eta, beraz, hizkuntzaren baitan ahalik zorrozkiena landu beharrekoa (cf. Mounole & Lakarra 2018: 401-403).

Hortaz, hautu lexiko baten kontu emateko berariaz egindako *peskadore* sarrera (§ 1) gogora ekarririk, zilegi da pentsatzea agian ZZko sarrera gehiagoren xedea erlijio hitz berezituak azaltzea ere izan litekeela, zehatzago Leizarragaren lan-taldeak egindako neologismoak ziurrenera, zerrendagilearen iritziz zuberotarrek ulertuko ez lituzketenak, edota *peskadore* bezala aise onartuko ez lituzketenak beharbada. Halakoei, garai hartaz ari garelarik, egokiago dateke «hitz zailak» esatea, ingelesaren hiztegegintzaren historiari buruzko ikerketetan «hard word» izenarekin ezagun direnak, hau da, «...the new scholarly (especially Latinate) vocabulary of Renaissance English» (Osselton 1995: 5). Gure kasuan «erlijio hitz zailak», jakina. Honelakoan ohiko bilduma haietako bat da Leizarragak edota haren lan-taldeak euskaraz egokitu zuten hitz *difizilen* bilduma, hain zuzen: «Testamentu Berriko hitz eta minzatzeko manera difizil bakoitz batzu bere deklarationekin» (TBH).²²

Talde honetan sar daitezke argiki, nik uste, *abolitu*, *elemosina*, *reboltari*, bai eta ziurrenik *hurkoa* ere (iz., gehienetan genitiboarekin erabilia: *ire hurkoa*, etab.), zuberotar arrunten euskaran —euskaldun arrunten euskaran ere berdin— ez bide zeudenak. Honen alde dator Zuberoako ordainak edo hitz orokor arrunta (*kendu*), edo mailegu gordinak izatea (*aumoina*, *kereillos*, *proximoa*). Honen alde dator baita *abolitu*, *elemosina* eta *reboltari* «Leizarragaren hapaxak» izatea, hots, berak bakarrik erabilitakoak, eta *hurko*-ren historia ere azken batean Leizarragaren zordun izatea ere (ik. § 3.4). Itzulzen dituzten frantses hitzak, gainera, 1563ko edizioaren arabera, ia beti *abo-*

²² TBH «hard word» tradizioarekin lotu beharrekoa dela Lakarrak (1993: 13) ikusi zuen aurrenik, eta honela definitu zituen halako bildumak: «arestian hizkera landuan sartutako erdal mailebu ulertezinen [bilduma], hizkuntzako hitzik arruntenak berariaz kanpo uzten dituen». Frantsesezkoren baten egokitzapena dela, eta ez itzulpen hutsa, ederki erakutsi du Salaberri Muñoak (2014: 55-57).

lir (12/16), beti *aumosne* (24/24), beti *prochain* (25/25) eta ia beti *quereleux* (3/4) dira, hurrenez hurren.

Badugu neurgailu objektibo bat honetarako: izan ere, ZZn badira bukaerako eranskinetan ere, bai TBH hitz zailen hiztegitxoan (7 guztira), baita bereziki TBM gai-aurkibidean (28 guztira) aurkitzen diren hitz asko (35/72, ia erdiak), ZZn bildutako hitzen garrantziaren berri emateko moduan. Areago, haietako batzuk sarrera-buru agertzen dira TBHn (2 guztira) eta batez ere TBMn (14 guztira), honetan inoiz behin baino gehiagotan. Hona bertan ageri diren forman (TBMko lehen agerraldiak bakarrik jaso dira):

TBH (2): *Ciguilatzea, Resuma.*

TBM (14): *Artha, Asserretu, Behatzera, Ceru, Elemosyná, Fitsaren, Gaichtaguin, Gakoa, Guthiciatzea, Hurco, Iguzquia, Libre, Lotzea, Neurri.*

Sarreraren bigarren lekuan ere baditugu zenbait, nahiz zentzuari begiratuta egiazki sarrerako hitz garrantzizkoenak-edo diren:

TBM: Apostoluek *iharduki* (...), Binagrez eta *behazunez* (...), Deabruaren *lazoak* eta *laxerak*, Harri *arbuiatua* (...), Iniuria eta *kalte* (...).²³

TBM aurkibideak gorago bereizi ditugun hitz zail hipotetikoetatik bi berresten ditu, *elemosina* eta *hurko*, eta aurreko atalean (§ 3.2) balizko mailegu berritatzat jo ditugun *lazo* eta *libre* ere bai, bide batez. Badirudi, bada, TBak jasotzen duen informazio erlijiosoaren ikuspegitik garrantzizkoak diren hitzak ere badirela ZZn bildu zirenen artean, eta haietako batzuk Leizarragaren lan-taldeak propio egindako neologismoak izan daitezkeela, era ezberdinetakoak, bestalde: gehienak maileguz (*abolitu, elemosina, lazo, libre*), bakana —gure adibideen arabera— eratorpenaz (*rebolitari*) edo lehenagoko hitzari erabilera berriak emanez (*hurko* izenlaguna izen bihurturik).

3.4. Leizarragaren hapaxak eta euskal tradizioa

ZZren sarrera-buruetan zortzi hapax daude bilduta: lau hapax absolutu —mailegu bat eta hiru hitz eratorri (*abolitu, eskobakin, iraulzkatu* eta *rebolitari*)— eta lau aldaera Leizarragak bakarrik lekukotuak (*elemosina, mendematu, pitina* eta *zigulu*). «Hapax» hitza ohiko adiera hedatuan erabili dugu, hots, idazle baten ekoizpenean bakarrik agertzen dena adierazteko. «Hapax» deituko diegu ondoko lekukotasunik izatekotan Leizarragarenaren zordunak direlako guztiak seguruenik.

²³ Erreparatu TBMko *lazoak eta laxerak* horri, zuberotarrentzat emandako *lazo*-ren *laxera* ordaina TBaren itzulpenean behin ere ez, baina TBMn bai azaltzen baita: badirudi egin dugun hipotesiaren, alegia, TB¹ - ZZ - TB² - TBM kronologiaren alde letorkeela.

«Leizarragaren hapaxak» dira huts-hutsean *abolitu*, *elemosina*, *eskobakin*, *mendematu* eta *pitina*. Leizarragaren ondotik hiztegieta bakarrik eta, areago, haren idazlanak zuzen edo zeharka aipatu zituzten hiztegieta bakarrik ditugu *zigulu* (Pouvreau) eta *iraulzkatu* (Pouvreau eta Duvoisin).

Reboltari Leizarragaren hapaxa izan da 1900 arte, gero *OEH*-k (s.v. *erre-boltari*) *Fedearen Propagazioneko Urtekaria (Prop)* delakoaren eta Arestiren adibide bana bildu baditu ere. Urtekari hura *Annales de la propagation de la foi*-ren euskarazko itzulpena zen (1877-1936), Martin Landerretche eta Basile Joannateguy-k zuzendua, bai eta berek osoki itzulia ere, nonbait. Adibidea 1900ekoa izatea esanguratsua da, urte berean argitara baitzen Leizarragaren obren Linschmann & Schuchardt-en edizioa, J. A. Lakarra lankideak ikusarazi didanez; Arestirena ere ez da askea, haren «Léxico empleado por Leizarraga de Briscous» lekuko (Aresti 1973).

Historia konplexuagoko «Leizarragaren hapaxak» ere baditugu. *Hurko* izen gisa Etxeberri Ziburukoaren idazlanetan soil-soil lekukotu ondoren *hurkoa* Larramendiren hiztegian berragertu zen eta, honen eraginez, Lehen Euskara Modernotik aurrera Hegoaldean hedatu, nondik hasita, eta Larramendik berak gainbegiratu zuen Burgosko dotrinatik (1747). Baliteke Etxeberri beskoiztarrarengandik ikasi izana (cf. Urgell 2015), baina ia zalantzarik gabe baieztatu daiteke Larramendik horrela ikasi zuela, Leizarraga honen hiztegiaren literatur iturri nagusia baita, izan ere (Urgell 2000: 767). Beraz, anakronismoa litzateke Larramendiz geroko tradizio kristauan *hurko*-k izan duen arrakastagatik epaitzea beraren berritasun edo herrikoitasuna.

Eta, hortaz, bakarra ote *hurko*, ala Zuberotatik kanpoko hitzen taldean ziurtasun gutxiagoz sartu ditugunetako batzuk ere honetakoak dira? Zeren eta, besteak beste, ez baita inondik inora ere ezinezkoa beste hitzen batean Leizarragaren hautuak geroko tradizioari hasiera eman izana, hurrengo mendeko beste idazleen lexikoan izan zuen eragina jadanik frogatu denez gero: Axularrenean (Salaberri Muñoa 2000) eta Materrarenean (Urgell 2000: 776-777), adibidez.

Ez bide da aise erabakiko, baina zalantza hori ZZko hitzen batekin garbiago izatekotan, *azkendu* eta *lekhore* aipatuko nituzke: *azkendu* gure corpusen lapurtera klasikoko idazleetan soilik lekukotzen delako (Materia, Etxeberri Ziburuko, Haranburu, Pouvreau),²⁴ jadanik aipatu dugun Oihenartez gain (baina honek forma «zuberotarrago» batean: *azkentu*); eta *lekhore* ere, eskuarki inesiboan (*lekhorean*), Etxeberri Ziburukoak ia bakarrik erabilia (TBaren itzulpenen bat eta Goihetxe alegigilea kenduta), Bigarren Euskara Modernoan Hegoaldeko hizkuntza jasora igaro arte (Olabide, Zaitegi, etab.).

²⁴ Jakina da Pouvreauk Leizarragaren idazlanak ustiatu zituela hiztegia osatzeko; guri dagokigunez, ZZko 36 sarrera oso bildu zituela erakutsi du Etxagibelet (2014: 252, 130. oh.).

4. ONDORIOAK

Lehenengo ondorioa teorian ezin ezagunagoa izan arren, ezin gara esaten aspertu: testu baten inguruko lan filologikoak egin gabe testua ezagutzen dugula uste izatea ameskeria baizik ez da. Gabezia larriagoa da XVI. mendeko testuetan, non are forma bakoitza ere bermatzeak urrea balio bailezake euskararen historiarako. Zer esango, orduan, Euskara Arkaikoaren corpusaren % 80a edo gehiago egiten duten Leizarragaren idazkiez? Zer, Zuberoako euskararen lehen lekukotasuna den ZZ zerrendaz?

«Çuberoaco herrian usañatan ez tiraden hitz bakoitz batzu hango añçora itzuliac» hitz zerrendak berriro erakutsi digu hori, orri bat bera ere betetzen ez duen testu ñimiño bat izan arren eta oraingo honetan sarrera-buruak bakarrik aztertu arren, hau da, hasiera batean zubererazko ordainekin alderatuta biziki erakargarri edo interesgarritzat ezin eman zitezkeenak. Zuberoako zerrenda bera ez ezik, Leizarragak eta beraren lan-taldeak egin zuten itzulpena hobeto ezagutzeko bai datu berriak eta bai zantzu berriak eskaini dizkigu zerrendaren azterketa honek, bai eta bidenabar bestelako hainbat kontu ere. Datuetatik hasiko gara, bada, geroko interpretazio proposamenen abiapuntu eta oinarri baitira.

Zuberoako zerrendak 71 sarrera ditu, baina 72 sarrera-buru aztergai, «norka edo hebaina» sarreraren biak aintzat harturik. Hasierako helburua nongo eta nolako hitzak diren jakitea zen, eta zein erlazio duten Leizarragaren obrekin, Testamentu Berriaren itzulpenarekin batik bat. Bibliografia materialaren alderditik ikusi dugu ZZ TBaren ostean frantses itzulpen kalbindarrek izan ohi dituzten eduki osagarrien artean txertatua izan zela, IPHG izen berezien etimologi zerrendarekin, TBH hitz zailen zerrendarekin eta TBM gai-aurkibidearekin batera, TBH eta TBM artean kokaturik, TBHk azken orrian utzitako hutsunean, letra txiki-txikiaz.

Kokapenak adierazi legez, ZZko sarrera-buru guzti-guztiak ez, baina bai % 90etik gora (67/72) TBaren itzulpenetik hartuak dira, espero genezakeenez (§ 1). Batzuk hamaika aldiz ageri dira (*zeru* eta *resuma* gailentzen dira honetan); beste muturrean, baina, badaude behin bakarrik ageri direnak (hala nola *berariaz* eta *pitina*), edo liburu berean baino agertzen ez direnak (*babazuza* eta *xarthatu*, esate baterako).

ZZko hitz batzuk TBaren aurretiko ataletan ere agertzen dira, Erreginaren gutunean, *Heuscalduney* aitzin-solasean edo *Aduertimendua* delakoan; besteren batzuk IPHG, TBH edo TBMn ere aurkitu ditugu; hala ere, behin ere ez hauetan bakarrik. Ondorio gisa, hortaz, baieztatu dezakegu ZZko hitzak nondik hartuak izan ziren azaltzeko TBaren itzulpena aski eta sobera dela: alegia, ZZ TBaren itzulpenari dagokioke, berarekin batera TBaren atzeko aldean argitaratu ziren IPHG, TBH eta TBM bezalaxe.

TBaren barnean, bestalde, liburu bat eta bakarrean agertzen diren hamabi hitzak bakarrik erabiliz zein gainerakoen lehen agerraldiak erabiliz ondorio bertsura heldu gara (§ 2): hitz gehien-gehienak hasierako liburuetatik hartuak bide dira, Mateoren ebanjelioan hasi eta Korintiarren I. gutunera doan tartetik. Lehen arrazoia liburuen luzera da: batetik, hitzen % 90 orrialdeen % 68-tik aterea litzateke; bestetik, salbuespenak TBko gainerako zatian luzeenak diren Hebrearren gutunetik eta Apokalipsitik atereak dira. Bigarren arrazoia halako lanetan agindu ohi duen beheranzko errendimendua da. Beraz, bi joratan trinko dezakegu emaitza: liburua handiago eta hitz gehiago, hasieratik hurbilago eta hitz gehiago.

TBan agertzen ez diren bost salbuespen aurkitu ditugu (§ 1): *arraxki*, *zama*, *zikhotz*, *garastia* eta *nokhu*. Lehenengoa akats argia da: *arraxki* pro *erraxki*, A letrako hitzen artean oker kokatua, gainera; beste laurak, aldiz, harrigarriki TBan ez dauden hitzak dira —ez eta Leizarragaren gainerako lanetan ere—.

TBan badauden hitzak frogatu dugu, *OEH*-ren laguntzarekin, gehientzuek dialekto arrazoiengatik hautatuak izan zirela, espero bezala, Zuberoa baino oro har sartalderagokoak izateagatik (§ 3.1): halako ziurtasun batez % 72a horrelakoa da, eta eskuzabalago jokaturik % 92raino hel gintezke. Irizpide orokorra Zuberoako testu-hiztegietan jaso gabeak izatea izan da. Ondorio honetara iristeko, zalantzan ipini behar izan ditugu Azkueren hiztegian zubererazkotzat emandako forma batzuk, bai eta Lhandek Iparraldean orkortzat emandako batzuk ere (§ 3.2); batzuetan frogatu ahal izan dugu dialekto-marka hori oker dagoela Larrasqueten laguntzarekin (1939); bestetan idazkera nahasiago bat erabili nahi izan zuten idazle zuberotarren adibideetatik (Oihenart eta Tartas, nagusiki) inferitutako markak izan litezke. Azkueren hiztegiko dialekto-markek behar duten berrikuspen orokorraren beste erakusgarri bat baino ez da.

Azterketa horren hondarrak Maisterrengandik aurrera zubereran jaso diren pare bat mailegu garden dira (*lazo* eta *libre*), Larrasquetek ere bermatuak: ZZren egileak zuberotarrentzat *laxera* eta *franko* maileguak hautatu zituenek, pentsatzekoa da XVI. mendean ez, baizik eta beranduago hedatu ziratekeela han.

«Han, non?» galdetuz gero, erantzuna «edonon» da, nire iritzian, egiantzekoa baita Leizarragaren neologismoak izatea. Izan ere, bestalde, ZZko hitz batzuk ez Zuberoatik kanpoko dialekto-hitzak, baizik eta «hitz zailak» direla erakutsi dugu (§ 3.3), hau da, ingelesez «hard words» erabiltzen den zentzu bertsuan, TB itzultzeko Leizarragaren lan-taldeak euskararen historian lehenengoz erabilitako neologismoak. Ene usteko, hautagai onenak *lazo* eta *libre* bezalako bi mailegu dira (*abolitu* galizismoa eta *elemosina* latinismoa) eta *reboltari* eratorria, gero (ia) batere erabili ez direnak, eta *hurkoa* izena, laurak ere laurak erlijioaren arloko teknizismotzat jo daitezkeenak. Inoiz edo

behin hauek edo hauek bezalakoak (*hurko*, *azkendu* eta *lekore* aukeratu ditut) lapurtera klasikoan erabili izana ezin da hipotesi horren aurka erabili, errazki Leizarragaren eraginari —oraindik behar bezala aztertu ez denari— egotz dakiokela ematen baitu: zuzenean lapurtera klasikoan edota zeharka, Larramendiren hiztegiaren eraginez batez ere (§ 3.4).

Bestalde, ZZko sarrera gutxi batzuetan «sartalderagokoa» dena ez dira *hitzak*, baizik eta atzizkiak (-*ei* datibokoa), aldaerak eta adierak (§ 3.1). Aldaeren alorrean gure adibide onenak *zeru* (Z *zelu*) eta *xito* (Z *xitxa*) dira; adieretan, berriz, *behatu* ‘so egin’ (Z ‘entzun’), *errota* ‘eihera’ (Z ‘arrobera’) eta *nokhu* ‘hebaina’ (Z ‘akatsa’). Dialektotasunaren kontuarekin amaitzeko, azkenik, esan liteke oro har geroko lekukotasunek bermatu dutela zuberotarrak zer uler zezaketen eta zer ez erabakitzeke ZZren egileak zeukan gaitasuna.

Orain artean aipatu ditugun ondorioek geure buruari egindako lehenengo galderei erantzuten diete. Alabaina, ZZren azterketan aurreratu ahala gero eta nabarmenagoa izan zen ZZren egileaz eta haren eraketaz ez ezik, TBaren lanketaz ere zenbait berri edo zantzu genituela han. Honen kontu emateko, ordea, datuetatik hipotesietara igaro beharra dago.

ZZ hitz zerrenda Leizarragaren lan-taldeak TBaren eduki osagarrietan tartekatu zuen zerbait berria da, beste batek utzitako leku txikian nola edo hala sartua. Baliteke, bada, hasierako egitasmoan ez egotea. *Arraxki* akatsak bi gauza erakutsi dizkigu: batetik, Leizarraga ezin dela ZZren egilea, ez haren zuzentzailea izan, bestela akatsari erreparatu eta bere egiazko forman eta bere egiazko lekuan (E letran) berrezarriko baitzukeen. Bera ez izatekotan, inprentako langile erdaldunaren eta laguntzaile zuberotarraren artean, nik bigarrena hautatuko nuke: berez egiantzekoena izanik —hitzen hautatzailea eta zubererazko ordainen emalea zuberotarra izan behar—, *arraxki* forma ekialde hertsiko *arra-* aurrizkiak eragindako okerra delakoan. Ondorio handia, akats txiki batek eskainia.

Hark bildutako hitzak gutxi dira, ordea. Zer esan nahi du honek? Gainerako gutzia zuberotarrek ulertzea uste zuela? Ez nintzateke hainbeste esatera ausartuko, baina behingo agerpenek adierazten bide dute biltzaileak ez zuela TB osoa irakurri ZZ eratzeko helburu soilarekin, baizik eta TB «gain-begiratu eta zuzendu» bitartean —Oloroeko eliz-batzarrak agindu zizkien lanak— nolabaiteko entresaka egin zuela, eta hartatik sortu zuela hiztegi-txoa azkenik.

Beste alde batetik, *zama*, *zikhots*, *garastia* eta *nokhu* sarrera-buruak ZZn bai, baina TBn ez egotea, misterio hau azaltzeko proposamen bat egin dugu. Aurrenik egiaztatu dugu hitzok TBan agertu ager zitezkeela, baina haien lekuan beste batzuk daudela (*karga*, *abarizioso*, *prezio handitako* eta *inpotent*, hurrenez hurren), ez nolana hikoak, gainera, baizik eta 1563ko frantsesezko

argitalpenekoekin bat zetozenak (*charge, auaricieux, de grand prix* eta *impotent*).

Nola interpretatu hau? Nire ustez, Leizarragaren lan-taldeak oharkabean Zuberoako zerrendan TBaren itzulpena burutzeko egin zuten lanaren lau zantzu txiki horiek utzi zituzten. Zantzuok dioskute TBaren testuak bi egoera izan zituela. Lehenengo egoeran *zama, zikhotz, garastia* eta *nokhu* bazeuden eta, beraz, hortik bildu zituen ZZren egileak. Bigarren egoeran Leizarragaren (beste?) laguntzaile batek, agian konkordantzia moduko zer-bait erabiliz, TBko hitz batzuk sistematikoki gainbegiratu eta, beharrezkotzat jotzekotan, behin eta berriz hitz berarekin ordezkatu zituen. Alegia, ez ZZn aurkitu ditugun lau hitzok, hamaika gehiago baizik. TBM zerrendan, hau da, TBko gaien aurkibide luzean *auaritia* (ez *zikotz*-en eratorririk) eta *carga* (ez *zama*) ageri direnez, pentsatzekoa da 2. egoeraren ondorio dela aurkibide hau.

Ezin pentsatu ordezkapenak ausazkoak edo apetzakoak izan zirenik, baizik eta argi eta zehatz jokatu nahirik egindakoak. Zuzentzailearen arrazoia edo, hobeto esanda, haren irizpidea Mounole & Lakarrak (2018) proposatutako «simplex translatio» delakoa litzateke, hots, bertsiorik ahalik hitzez hitzekoena lortzea. Irizpide horri atxiki zitzaizkion beste itzulpenetan bezala (eurek Agricolaren suomierazkoa aipatzen dute), lexiko-hautapen edota ordezkapen hartan, dakigularik, euskal hitzak (ondare zaharrekoak zein mailegu irentsiak), koherente eta sistematikoki mailegu gardenez ordezkatu ziren, ez gutxitan neologismo hutsak bide zirenez, eskuarki frantses iturriak berak iradokitako galizismoak, inoizka latinismoak ere bai (cf. *elemosina*, bai eta *fluvio* ezagunagoa ere). Ordezkapen maileguzale eta neologiko horren adibide ziur bat dugu ZZn berean, *peskadore* sarreran, non azaltzen zaigun zergatik hobetsi den mailegu hori «gehienzi lekhueta» zerabilten *arranzale*-ren kaltetan. Hemendik datorke, bada, alde behintzat, Leizarragari egotzi ohi zaion maileguzaletasuna: laguntzaileen lan honetatik, alegia.

Leizarragaren itzulpenaren kanpoko historiak lagunduko digu hipotesia bermatzen eta zehazten. ZZko sarrera-buruen azterketak TBaren itzulpenaren bi egoera proposarazi dizkigu, ZZren aurrekoa eta ZZren ostekoa: TBaren kanpoko historiak dakigunarekin lotuz gero, bata Leizarragak bi urtetan-edo egin eta 1565eko Oloroeko eliz-batzarrean aurkeztua dateke (1563-1565), eta bestea laguntzaileek «gainbegiratu eta zuzendua», beharbada inprentara eraman zena (1565-1567). Gehiago egotea ere ez da ezinezkoa, jakina, baina *entia non sunt multiplicanda...*

Amaitzeko, lan filologikoak zeharkako ezagutzak ere ekarri ditu, ohi bezala. Batetik, proposatu dugu *garastia*-k berezko *-a* duela ZZn bederen, *ca-restia*-tiko etimologiarekin bat. Bestetik, Schuchardtek aipatu ez zuen akats bat hauteman dugu TBaren testuan (Erm 6, 5 *xartatu* pro *xarthatu*), eta zalantzakakoak diren bi forma gehiago: *scobaquin* (1 Ko 4, 13) agian pro *esco-*

baquin (ZZ) eta *othorança* (Eg 2, 46 eta ZZ) agian pro *othorença* (Ju 1, 12). Leizarragak baliatu frantses edizio zehatza bilatzeko bereziki ona dirudien pasarte bat ere aurkitu uste dugu (Ap 10 tit.), 1563ko Bonne-foyreña delakoaren kontra doakeena (ik. 36. oh.). Bestalde, iradoki dugu Oihenartek Leizarragaren testua bere lexikoa aberasteko erabili zuela, balizko akats bateratzaile bat eta guzti (*othoranza* bera), nahiz hemen bildu lehen aztarnak TB osoaren lexikoaren azterketarekin osatu beharko diren (§ 3.2). Ildo beretik agertu zaigu Etxeberrri Ziburukoa ere (§ 3.4). Hitz batzuen historia interpretatzen saiatu gara eta, tartean, *last but never least*, Larramendik, beti aipatu ohi diren neologismoetatik haratago, Hegoaldean hedarazi zituen Iparraldeko hitzen artean Leizarragaren batzuk ere badaudela egiaztatu dugu (*azkendu*, *hurko* eta *zamat* ‘kargatu’ adieran; ik. § 3.4).

Laburdurak

Ezer berezirik esan ezean, testu-egileei dagozkien laburdurak *OEH*-koak dira. Honako hauek dira halako maiztasun edo garrantzi batez erabili ditugunak:

Dv = Duvoisin 1858.

EHHE = Lakarra, Manterola & Segurola 2019.

He = Haraneder c. 1740.

MDELV = Agud & Tovar (1988-1994).

OEH = Mitxelena 1987-2005.

TB1828 = Izengabea 1828.

Leizarragaren TBko liburuak aipatzeko erabilitako laburdurak *Elizen Arteko Biblia*-renak dira (Elizen Arteko Biblia Elkarte 1998). Hona gainerakoak:

ATI = «A tresillustre Dame Ieanne d’Albret...» erreginaren gutunaren euskarazko testua.

Heus = «Heuscalduney» eta «Batbederac iaquiteco, eta maiz iracurtzeco duen Aduertimendua»²⁵.

IPHG = «Testamentu Berrian diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuen declaraciónea».

TBH = «Testamentu Berrico hitz eta minçatzeco manera difficil bakoitz batzu bere déclarationéquin».

TBM = «Testamentu berrico materien erideiteco taulá».

²⁵ Bestetan *Adv* laburduraz adierazi dugun testu bera da. 3. eranskinean eta bestetan biak *Heus* laburdurapean daude *EKC*-ean bezala, hemengo helburuetarako *Heus* eta *Adv* bata beste-tik banatzeak interes berezirik ez daukalakoan.

5. BIBLIOGRAFIA

- Agud, Manuel & Antonio Tovar. 1988-1994. Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca. *ASJU* 22:1etik aurrera atalka, eta gero *ASJU*-ren 13 (*a-ardui*), 19 (*ardun-beuden*), 24 (*beule-egileor*), 26 (*egiluma-galanga*), 30 (*galani-iloza*), 33 (*il-piztu-korotz*) eta 37. (*korpa-orloi*) gehigarrietan. <https://doi.org/10.1387/asju.8625>.
- Arcocha-Scarcia, Aurélie, Joseba A. Lakarra. 2019. Aspectos de la gramatización antigua de la lengua vasca. *Lengas* (86). <https://doi.org/10.4000/lengas.4115>.
- Aresti, Gabriel. 1973. Léxico empleado por Leizarraga de Briscous. *FLV* 13, 61-128. <https://binadi.navarra.es/registro/00006338>.
- Azkue, Resurrección M. de. 1905-1906. *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo-Paris: Paul Geuthner. <https://worldcat.org/oclc/458565356>.
- BibleGateway. *A searchable online Bible*. <https://www.biblegateway.com>.
- Duvoisin, Jean. 1858. *Bible Saindua*. Faks. (3 lib.). La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1972. Josu Landa Ijurkoren bertsio elektronikoa. *Klasikoen Gordailua*. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/D/DuvoisinBibleaIII.htm>
- Elizen Arteko Biblia Elkarte. 1998. *Elizen arteko biblia*. Lazkao, etab.: Bibli Elkarte Batuak & Euskal Herriko Elizbarrutiak. <https://worldcat.org/isbn/9788488774507>.
- Etzagibel, Javier. 2014. *Pouvreuren hiztegia testukritikaren eta metalexikografia- ren argitan*. Doktore tesia. Gasteiz: UPV/EHU. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/tesis?codigo=177785>.
- Gaskell, Philip. 1999 [1972]. *Nueva introducción a la bibliografía material*. Gijón: Trea. <https://worldcat.org/oclc/41143805>.
- Haraneder, Joannes. 1740. *Jesu Christoren Evangelio Saindua*. Patxi Altuna (arg.). Bilbo: Euskaltzaindia, 1990. <https://worldcat.org/oclc/432942879>. Bertsio elektronikoa, *Klasikoen Gordailua*. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/H/HaranederEbanjelioa.htm>.
- Izengabea. 1563. *Le Nouveau Testament, c'est à dire, la Nouvelle Alliance de Notre Seigneur Jesus Christ. Reveu & corrigé de nouveau sur le grec, par l'avis des ministres de Geneve. Avec annotations reuës [sic] & augmentees par M. Augustin Marlorat*. Geneva: Jean Bonne-foy.
- Izengabea. 1828. *Jesus-Christo gure Jaunaren Testament Berria. Lapurdico escurarat itçulia*. Baiona: Lamaignère. <https://worldcat.org/oclc/187467805>.
- Lakarra, J. A. 1993. *XVIII. mendeko hiztegitzaren etorkiez*. Doktore Tesia. Gasteiz: UPV/EHU. https://www.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Joseba_Lakarra_TESIA.pdf.
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Segurola. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/ehhe>.
- Larrasquet, Jean. 1939. *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*. Paris: Klincksieck. <https://worldcat.org/oclc/2900310>.
- Leizarraga, Joannes. 1571. *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*. Rochellan: Pierre Hautin. Joana III.a Albretekoaren erregina-ezkutua daraman alea: <https://binadi.navarra.es/registro/00009136>.
- Leizarraga, Joannes. 1990. *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria. Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechisme. Kalendrera. ABC edo Christinoen instructionea*. Theodor Linschmann, Hugo Schuchardt (arg.). Strassburg: K. J. Trübner. [Faksimilea Bilbo: Euskaltzaindia 1990]. <https://worldcat.org/oclc/932371373>.

- Leizarraga, Joannes. d.g. *Iesus Krist Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Josu Lavinen bertsiu digitala. Klasikoen Gordailua. <https://klasikoak.armiarma.eu/idazlanak/L/LeizarragaTesta.htm>.
- Lhande, Pierre. 1926. *Dictionnaire Basque-Français*. Paris: Gabriel Beauchesne. <https://worldcat.org/oclc/475789507>.
- Mitxelena, Koldo. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia. Diccionario General Vasco* (15 lib.), Bilbo: Euskaltzaindia. Online bertsiu zuzendu eta eguneratua: <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>.
- Morvan, Michel. d.g. *Diccionario etimológico vasco*. http://projetbabel.org/basque/diccionario_vasco.php.
- Mounole, Céline, Joseba A. Lakarra. 2018. Euskara Arkaikoa. In J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza, 345-468. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7188794>.
- Osselton, N. E. 1995. *Chosen words. Past and present problems for dictionary makers*. Exeter: University of Exeter Press. <https://worldcat.org/oclc/33233110>.
- Rouse, Richard H., Mary A. Rouse. 1974. The verbal concordance to the Scriptures. *Archivum Fratrum Praedicatorum* 44, 5-30. <https://biblio.ebaf.edu/bib/189430>.
- Ruiz Arzalluz, Iñigo. 1987. Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento. *ASJU* 21:3, 709-726. <https://doi.org/10.1387/asju.7933>.
- Ruiz Arzalluz, Iñigo. 1991. El modelo griego de Leizarraga: ¿una quimera filológica?. In J. A. Lakarra, I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 107-115. <https://doi.org/10.1387/asju.9165>.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2000. Axularren testu-zorrak. *FLV* 84, 193-209. <http://hdl.handle.net/10810/20515>.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2010. Iturri urdinen bila (Leizarragaren Testamentu Berria eta hari erantsitakoak). *Egan* 63:1-2, 109-149.
- Salaberri Muñoa, Patxi, 2014, *Leizarragaren idazlanetan barrena*, Bilbo: UPV/EHU. <https://worldcat.org/oclc/903111233>.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2020. Leizarragaren hitz difficultak (1571). Ohar zenbait. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde, K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo, UPV/EHU: 645-671. <https://worldcat.org/oclc/1192405117>.
- Sánchez González de Herrero, María de las Nieves. 2005. El léxico de los documentos alfonsíes. *Estudis romànics* 27, 41-72. <http://revistes.iec.cat/index.php/ER/article/view/39458>.
- Sanchís Calvo, M.^a Carmen. 1996. Influencias galorromances y del oriente peninsular en el léxico de la *Fazienda de Ultramar*. In A. Alonso González, L. Castro Ramos, B. Gutiérrez & J. A. Pascual Rodríguez (arg.), *Actas del III Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española (Salamanca, 1993)*, 2. lib. Madrid: Arco Libros. 1573-1581. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=555901>.
- Schuchardt, Hugo. 1900. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga. I. Ruiz Arzalluz & J. M. Vélez Latorreren itzulpena. In Leizarraga 1990, 131-240. <https://worldcat.org/oclc/932371373>.
- Urgell, Blanca. 2000. *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*. Doktore tesia. UPV/EHU. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Blanca_Urgell_TESIA.pdf.
- Urgell, Blanca. 2015. Tartas eta Leizarraga berrikusiak, edo nola aldatzen duen historia ikertzailearen begiradak. In B. Fernández, P. Salaburu (arg.). *Ibon Sarasola*.

- Gorazarre. Homenatge. Homenaje*, Bilbo: UPV/EHU. 647-663. <https://www.ehu.eus/ehg/sarasola/liburua/SarasolaGorazarre51.pdf>.
- Urgell, Blanca. prestatzen. «Leizarragaren Zuberoako hitz zerrendaren azterketa».
- Yanguas y Miranda, José. 1987. Diccionario de las palabras anticuadas que contienen los documentos existentes en los archivos de Navarra, y de su correspondencia con el lenguaje actual. *Archivo de filología Aragonesa* 39. 205-244. <https://ifc.dpz.es/recursos/publicaciones/09/72/07yanguas.pdf>.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/isbn/9788490272381>.
- Zulaika, Esther. 1999. *Ioanes Leizarragaren aditza*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea. <https://worldcat.org/isbn/9788486897314>.

1. eranskina. ZUBEROAKO ZERRENDAREN EDIZIOA

Edizio paleografikoa egin dugu, forma dudazko eta akastunak oharretan seinalaturik. Zerrenda den bezala ematea ezinbestekotzat jo dugu, baldin eta huts horietaz ez ezik, egileaz eta egiteko moduz ere esan ditugunak ulertuko badira. Hemen aztertu ez ditugun Zuberoako ordainez, ik. Urgell (prestatzen).

*Çvberoaco herrian vsañçatan eztiraden
hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac*

A	
abolitzea, <i>kencia</i> .	çama, <i>cargá, hachia</i> .
arbuyatzea, <i>refusatzia</i> .	cerua, <i>celuya</i> .
arrachqui, ²⁶ <i>ihiqui</i> .	charthatzea, <i>empeldatzia</i> .
artha, <i>ansia, achola, arrangura</i> .	chistmista, <i>chastá</i> .
asserretzea, <i>samurtzia, azkancia</i> .	chittoa, <i>chitchá</i> .
auhena, <i>marrascá</i> .	ciguilatzea, <i>sageratzia</i> . ²⁷
aurkan, <i>artecean, heinean, eretzian</i> .	cigulua, <i>sagetta</i> .
azpian, <i>pián</i> .	cikotza, <i>chekena</i> .
azquendu, <i>çupertu</i> .	
B	E
babaçuça, <i>chicherra</i> .	elemosyna, <i>aumoina</i> .
behaçuna, <i>guibelmína</i> .	errotta, <i>eihera</i> .
behatzea, <i>so eguitia</i> .	escobatzea, <i>ekortzia</i> .
berariaz, <i>expressuqui</i> .	escobaquinac, <i>ekorquinac</i> .
C	ey, <i>er</i> , datiuo singularian <i>ari</i> erraiten
cadená, <i>cathina</i> .	dena, Çuberoan eta aldirietan plu-
caltea, <i>damuya</i> .	ranean erraiten da <i>er</i> , eta bercetan
	gucietan <i>ey</i> : hala nola batez miñça-
	tzera erraiten da heuscalerri gucian

²⁶ *erraxki*-ren ordezkoko hutsa. Ik. § 1.

²⁷ Ziurrenik *sagetatzia*-ren ordezkoko hutsa (Urgell prestatzen).

guiçonari, amazteari, haourrari, eta anhitzez minçatzera, Çuberoan eta aldirietan *guiçonér, amaztér, haourér*, eta bercetan, guc heuscarazco translatione hunetan vsatu vkan dugun beçala *guiçoney, amaztey, haourrey, &c.*

F

fiadorea, *bermea*.
fitsa, *buscá*.
floreá, *lilia*.

G

gaichtaguina, *briganta*.
gakoa, *guiltza*.
garastia, *kario*.
guthiciatztea, *desiratzea*.

H

haguitz, *guciz, chit*.
haguna, *gramá*.
harana, *sakana*.
hotsa, *açança*.
hurbil, *hurren*.
hurkoa, *proximoa*.

I

iayo, *sorthu*.
ichterra, *azpia*.
igorciria, *durunda*.
iguzquia, *ekia*.
iharduquitea, *debatitzia*.
ilharguia, *arguiçaguia*.
iraulzcatzea, *itzulerauzcatzia*.
iraunguitea, *erhaitia*.

K

karmin, *mingatz*.

L

laçoa, *lachera*.
landa, *elguia*.
larraina, *eçcaratza*.
lekorea, *elgoria*.
libre, *franco*.
lotzea, *estecatzia*.

M

maiz, *naharo*.
mendematzea, *berunatzia*.
mugarria, *cedarria*.

N

neurria, *içaria*.
neurtzea, *içartzia*.
nokua edo hebaina, *cembeit membroz impotentia*.

O

ordaina, *ordaria*.
othorança,²⁸ *appairuya*.

P

pedaçua, *bethatchuia*.
pescadore, *arrançale*. Guehienci lekuetan *arrançale* erraitenagatic, heuscaldun anhitzi, ma. 4, 19 eta marc. 1, 17 *Nic eguinen çaituztet guiça pescadore* hobequi itzeuquiz, ecen-ez *Nic eguinen çaituztet guiçarrançale*, hala vsatu vkan dugu.
pitina, *ahugna*.

R

resuma, *retatuia*.
reuoltari, *quereillos*.

V

vmuncia, *haourhoia*.
vrriqui, *dolu*.

²⁸ Agian *othorença*-ren ordezko akatsa (ik. 2. eranskina, s.v. *othoranza*).

2. eranskina. TBko HITZAK

Lema egungo grafiaren eta egungo forma kanonikoaren arabera mol-datuta dago —hots, hasperenak eta hasperendunak errespetaturik, izenkiak mugagabeen eta aditzak partizipioan—, baina ondoren testuko forma eman dugu taket artean, irakurleak biak parean izan ditzan. Salbuespena egin dugu *re-* hasierako hitzetan (*resuma*, *reboltari*), berariaz honelaxe idatziak izan baitziren, *errota* ez bezala. Komeni denean, adiera erantsi dugu kakotx bakenen artean. Dialekto-markak *OEH*-koak dira: haren iturria ere jaso dugu Azkue (1905-1906) denean. Hitz guztien adibide bat behintzat ere eman dugu, egungo grafian.²⁹

ABOLITU [ABOLITZEA] ‘indargabetzea’: Leizarragak bakarrik erabilitakoa (*OEH*, s.v. *abolitu*). Eskuarki frantsesez «abolir» aditzaren formak direnen ordain gisa ageri da 1563ko edizioan (Mt 5, 17; 1 Ko 13, 8 bitan; 1 Ko 13, 10; 1 Ko 15, 24; Ga 2, 21; Ga 3, 17; Ga 5, 11; Ef 2, 15; 2 Ts 2, 8; Heb 8, 13 tit.; Heb 8, 13; Heb 9, 28), behin «fait abolition»-ena (Heb 7, 18), baita hirutan besteren ordain ere («aller» 1 Ko 13, 11; «prendre fin» 2 Ko 3, 13; «abrogee» Heb 7, 11 & 18 tit.). *Eztuzuela uste ezen legearen edo profetén abolitzera ethorri naizela: ez naiz ethorri abolitzera, baina konplitzera* (Mt 5, 17).

ARBUIATU [ARBUYATZEA]: (L, BN, S ap. A). Testuetan Iparraldekoa, baina ez Zuberoakoa (*OEH*, s.v. *arbuaiatu*). *Edifikazalék arbuaiatu duten harria kantoin buru egin izan da* (Mt 21, 42; 1563 «reiettee»).

*ARRAXKI [ARRACHQUI]: (*erraxki* G).³⁰ TBan bi aldiz ageri den *errachqui*-ren ordezko hutsa (*OEH*, s.v. 1 *errazki*; lehenago Schuchardt 1900: 31). Nolanahi ere, *erraxki* erdialdeko testu tradizioan baino ez dago *OEH*-aren arabera.³¹ *Erraz* bera, eta beraren aldaerak, ez dira behin ere aurkitzen Zuberoako testuetan, nolabaiteko idazkera supradialektalak erabili dituzten zuberotarretan agertu arren (Oihenart, Mirande; cf. *OEH*, s.v. *erraz*). *Sekulakotz zeruetako resuman heretatzeako moiena Ebanjelioan irakasten zaikunaren gainean, hain erraxki ahal daidigularik* (*Adv* ** 6r). *Gu erraxki trabatzen gaituen bekhata egotzirik* (Heb 12, 1).

ARTHA: (L, BN, S). Testuetan Iparraldekoa, baina ez Zuberoakoa (*OEH*, s.v. 1 *arta*). «S» laburdura Azkueri eta Larrasqueti (1939) egozten die *OEH*-k, baina Larrasquetek *artha* eta *arthatu* «ne sont plus usités» dio. *Mundu hunetako arthák eta abrastasunezko enganioak ithotzen duté hitza* (Mt 13, 22).

²⁹ Leizarragaren grafia gaurkoturik dago Lavinen bertsio elektronikoan (Leizarraga d.g.) eta, hortaz, handik elikatzen den *EKC*-n, baina ez beti zuzen. Lan honetan antzeman ditudanak honela zuzendu behar lirateke: Leiz. <k> = gaur <kh> beti, Leiz. <tiV> = gaur <ziV> beti (hala nola *auaritia* = *abarizia*), eta behin *latxera* pro *laxera* dago, hots, Leiz. <ch> = gaur <x> (ez <tx>).

³⁰ Uste nuen Azkueren dialekto-marka zela, *errazki*, *errezki* eta guri dagokigun *erraxki*-ren dialekto-markak eman zituela baitio *OEH*-k «Ref.» atalean, baina ez dut aurkitzerik izan haren hiztegian.

³¹ «Erdialdekoa» hemen Euskal Herriaren erdialdeari egiten dio erreferentzia, hots, betiere Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko alderdiren bati bederen, gehi batzuetan Gipuzkoako edota Nafarroa Beherekoaren bati ere. Ezaugarriek definitzen dute kasuan-kasuan «erdialdea» zer den, nolana ere.

- ASERRETU [ASSERRETZEA]: (G, AN, L, BN). Aldaerak aldaera, ez dago Zuberoako testuetan (*OEH*, s.v. *haserretu*). *Baina nik erraiten drauzuet, ezen nor ere aserretzen baitzaio bere anaieri kausa gabe, judizioz punitu izateko digne datela* (Mt 5, 22).
- AUHEN [AUHENA]: (G, L, BN, S). Iparraldeko testuetan, baina ez Zuberoakoetan, Egiategi salbu (*OEH*, s.v. *auhen*). *Boza Rhaman enzun izan da, deithore eta nigar eta auhen handi* (Mt 2, 18).
- AURKHAN [AURKAN] ‘aurrean, parean’: xx. mendean Hegoaldean *kontra* mailegua ordezkatzeko hedatu bazen ere, *aurka*-ren 1800 arteko adibide guztiak Leizarragarenak dira, *aurkaz* edo *aurkazean* (nafarrek *aurkas*-) lekukotzen duten Oihenart (O-SP), Elizalde (1735) eta Lizarraga Elkanokoa alde batera utzita (*OEH*, s.vv. *aurka* eta *aurkaz*):³² honek eman diezaguke noizbait izan zukeen hedaduraren heina. *Maria Magdalena eta Maria berzea ziraden han jarriak sepulkre aurkhan* (Mt 27, 61; 1563 «à l’endroit»). Cf. halaber *Zoazte zuen aurkhako burgura, eta bertan eridenen duzue asto eme bat estekatua* (Mt 21, 2; 1563 «à vis de vous») eta *Eta handik enbarkaturik, biharamunean ethor gintezen Khiosen aurkhara* (Eg 20, 15; 1563 «à l’endroit de Chios»).
- AZKENDU [AZQUENDU] ‘gelditu’: (BN-baig, Sc ap. A). Adiera honetan Iparraldeko Euskara Zaharrekoa batik bat (Mat, EZ, Harb, SP; *azkentu* Oihenartek; *OEH*, s.v.), agian Leizarragaren eraginez. *Jauna, hire profetak hil zitié, eta hire alda-reak desegin zitié, eta ni azkendu izan nauk neuror, eta ene arimaren ondoan diabiltzak* (Erm 11, 3; 1563 «ie suis demeuré»).
- AZPIAN ‘pean’: Postposizio gisa orokorra, Nafarroa Behereko zenbait kantonamendutan (*VocBN*, s.v. *azpi*), Zuberoan eta Pirinioetako mintzoetan izan ezik, xx. mendera arte ez dago zubererazko agerraldirik testuetan (*OEH*, s.v. *azpi*). *Badarik ere xakurrek jaten die mahain azpian haurren apurretarik* (Mk 7, 28).
- BABAZUZA [BABAÇUÇA] ‘txingorra’: (Lc, BN-lab ap. A). Iparraldeko testuetan, Zuberoakoetan izan ezik (*OEH*, s.v.). *Eta egin zedin xismist eta hots eta lur ikharatze, eta babazuza handi* (Ap 11, 19).
- BEHATU [BEHATZEA] ‘so egin’: (AN, L, BN, S, R-vid-uzt). *OEH*-k (s.v. 1 *behatu*) iragangaitz / iragankor oposaketan oinarritu da 1. eta 2. adierak bereizteko. Alabaina, ZZn adierari bakarrik erreparatzen zaio, eta alde honetatik *OEH*-k argi jaso du zubererazko testuetan ia bakarrik ‘entzun’ adieran kausitzen dela. Azkuek «S» laburdura ere badakar, baina ez du zehazten «mirar, escuchar» bi adieretatik zeinetan den; Larrasquetek (1939), ordea, «écouter» bakarrik onartu zuen (s.v. *beha*). *Haur da ene Seme maitea, huni beha zakizkiote* (Lk 9, 35). *Mendekatzen delarik Jainkoa ezagutzen ez tutenéz, eta Jesus Krist gure Jaunaren Ebanjelioari behatzen etzaizkionéz*. «Ceux [...] qui n’obeissent» (2 Ts 1, 8; He *obeditu*).
- BEHAZUN [BEHAÇUNA]: (G, AN-egüés-ilzarb-olza). XIX. mendera arte lapurterazko testuetan bakarrik (*OEH*, s.v. 1 *behazun*). *Eman ziezoten binagre edatera behazunarekin nahastekaturik* (Mt 27, 34).

³² Harenederrek ere badu adibide bat eta bakarra, dakidalarik, *aurkarat* (He 20, 15; ap. *EKC*), baina Leizarragak pasarte berean *aurkara* daukanez gero, honen bertsioaren egokitzapentzat jotzea zentzuzkoena litzateke. Haranederren TBak Leizarragarenenetik dituen zozrez ik. Ruiz Arzalluz (1987).

- BERARIAZ: (V, G, L, AN ap. A). Lapurterazko testuetan lekukotua XVIII. mendera arte (*OEH*, s.v.). *Zein igorri ukhan baitut zuetara berariaz, ezagut ditzanzát zuen egi-tekoak, eta konsola ditzanzát zuen bihotzak* (Kol 4, 8; 1563 «expressément»).
- EI [EY]: Gaur egun *-er* atzizkia «Nafarroa Behere guzti-guztian erabiltzen da eta Lapurdira ere sartzen da: Hazparden, Makean, Lekornen, Luhuson eta Itsasun berderen erabiltzen da» (Epelde 2003: 297 ap. Camino 2004: 467). Lehenago, «Nafarroa Behereko idazleetan datiboko morfema nagusiki *-er* da» (Camino 2008: 145). *Ezen kargu emanen drauela hizaz bere Aingeruei* (Mt 4, 6).
- ELEMOSINA [ELEMOSYNA]: Aldaera hau hapax da: Axularrengandik aurrera *erremusina* baino ez da jaso testuetan (*OEH*, s.v. *erremusina*), askoz ugariago den *amoina*-rekin batera (*OEH*, s.v.). 1563ko edizioaren arabera, beti-beti da fr. *aumosne*-ren ordaina (Mt 6, 1 tit.; Mt 6, 1; Mt 6, 2; Mt 6, 3; Mt 6, 4; Lk 11, 41; Lk 12, 33; Eg 3, 2; Eg 3, 3; Eg 3, 10; Eg 9, 36; Eg 10, 2; Eg 10, 4; Eg 10, 31; Eg 24, 17; 2 Ko 8, 1 tit.; 2 Ko 8, 11 tit; 2 Ko 9, 1 tit.; 2 Ko 9, 14 tit.; Flp 4, 18 tit.).³³ Deigarria da frantsesarekin bat ez etortzea: herrikoia ote, beraz, *OEH*-k dakarren etimologiaren arabera *erre*- aurrizkitzakoarekiko gurutzaketa gertatu aurretik? Sinesgaitza dirudi: formaren aldetik latinismoa dela esango nuke, <y> grafemak adierazten duenez (*eleemosyna*; cf. it. *elemosina*). Honela balitz, Leizarragaren lan-taldeak latinezkoa hobetsi zuen hitzen taldean sartu beharko litzateke, *fluvio* nabariarekin batera. *Bada elemosina egiten duanean, etzezala tronpetá jo erazi eure aitzinean* (Mt 6, 2).
- ERROTA 'eihera': (V, G, AN, B, L, S, Sal, R-is-uzt). *OEH*-ren (s.v.) emaitzak ikusirik, esan liteke Zuberoan *errota* 'arrobera' baino ez zatekeela. *Biga izanen dirade elkharrekin errotan ehaiten dukeitenik* (Lk 17, 35).
- ESKOBAKIN [ESCOBAQUINAC]: Hapaxa (*OEH*, s.v.). *Munduko skobakin bezala egin izan gara* (1 Ko 4, 13; 1563 «ballieures»). Erreparatu ZZ *esk-* vs TB *sk-* grafia ezberdintasunari. Nahiz lat. *scopa*-k grafia etimologikoa zilegiztatu, baliteke honako hau oharkabeko akatsa baino ez izatea, *escobatu* beti *e-z* idatzi zuenez gero (ik. hurrengo sarrera).
- ESKOBATU [ESCOBATZEA]: (*eskobau* V-gip). Testuetan ez da beste inon ageri XX. mendera arte (*OEH*, s.v.). *Erideiten du* [etxea] *hutsa, eskobaturik eta aphaundurik* (Mt 12, 44; 1563 «balliee»).
- FIADORE [FIADOREA]: Orokorra testuetan, Zuberoakoetan izan ezik (*OEH*, s.v.). *Hanbatenaz alianza hobeagoren fiadore egin izan da Jesus* (Heb 7, 22; 1563 «pleige»)³⁴
- FITS [FITSÁ]: (B, L-côte, BN). Batez ere Iparraldeko testuetan, Zuberoakoetan izan ezik (*OEH*, s.v.). *Zergatik dakusak eure anaieren begiko fitsa eta eure begiko gapiarioari ez atzaio ohartzen?* (Lk 6, 41).

³³ Leizarragak *elemosina* dakarren pasarteetako batean (2 Ko 9, 5 tit.) 1563ko edizioak ez dakar *aumosne*-rik, baina euskaraz ez eta frantsesez bai egin zen elisioaren ondorioa da: «1 Exhorte de faire aumosnes. 5 Qu'il nomme benediction» vs «1 Elemosyna eguitera ditu exhortatzen. 5 Liberalitate elemosyná deitzen». Bestalde, TBM aurkibidean hiru agerraldi ditu euskaraz (*Elemosina* sarrera bi, eta *Orationeak* sarrera), baina 1563ko edizioan ez dago *Aumosne* moduko sarrerarik, eta *Oraison* sarreraren ez dago horrelakorik.

³⁴ *Pleige* hitz zaharra da, «personne se portant caution, garant» esanahia zuena (<https://www.linternaute.fr/dictionnaire/fr/definition/pleige/> [azkenik ikusia: 2022-12-02]).

- FLORE [FLOREA]: (AN-ulz-ilzarb-olza, R). *Lore* eta aldaerak orokorrak dira, salbu eta zubererazko testuetan (OEH, s.v. *lore* 1). *Flore* aski ondo dokumentatu bada ere Etxepare eta Leizarragaz geroz, honen testuetan beharbada interpreta daiteke *lore* mailegu zaharraren idazkera etimologiko bezala. *Konsideraitzazue floreak nola handitzen diraden* (Lk 12, 27; 1563 «les lis»).
- GAIXTAGIN [GAICHTAGUINA]: Iparraldeko testuetan xx. mendera arte ez da lekukotzen zubereraz (OEH, s.v. *gaixtagin*). *Harekin kruzifika zitaten bi gaixtagin* (Mk 15, 27).
- GAKHO [GAKOA] ‘giltza’: (L, BN-arb-baig, S). Iparraldeko testuetan, Zuberoakoetan izan ezik (OEH, s.v. *gako*). «S» laburdura Azkuerena da, agian Oihenarten adibide batekin lotua (O Pr 466). *Hiri emanen drauzkiat zeruetako resumaren gakhoak* (Mt 16, 19).
- GARASTIA: (*garasti* L, BN). *Garas-* aldaera ohikoa da lapurtera klasikoko testuetan; aldaerak aldaera, baina, ez dago Zuberoakoetan, Larramendiren hiztegitik abiatu bide zen *garesti* erabiltzeko Hegoaldeko joeraren barruan koka dezakegun Miranderenean baino (OEH, s.v. *garesti*). *Kario* mugagabearen arabera, *garastia* ere mugagabe delakoan nago. Zorigaitzez, TBan agertzen ez diren hitzetako bat dugu hau, zeren eta, ziurragoa balitz, lekukotasun honek bermatuko bailuke gazt. *ca-restia*-tiko etimologia. OEH-n ez dago *-a* gabeko adibide garbirik Etxagarai donostiarra arte (Echag, c. 1830), beharbada arazo honekin ohartu gabez; *EKC*-ren arabera, aldiz, Kardaberatzenak dira aurrenekoak (*garesti* 1761) Hegoaldean eta Duvoisinena Iparraldean (*garasti* 1856). Berriz, mugagabe *-a*-duna izan liteke Axularren *Eztut nik urrikitzea (...)* horrein *garastia erosten* (388). Sakontzeko gaia da. *Garastia*-ren ordez, TBan *prezio handitako* sinonimoa dugu (fr. «de grand prix» Mt 26, 7; fr. «precieux» Mk 14, 3; «de grand pris» Jn 12, 3), baita *prezioso* ere behin (fr. «precieux»; Lk 7, 25).
- GUTHIZIATU [GUTHICIATZEA]: (BN-arb-baig). Iparraldeko testuetan, Zuberoakoetan izan ezik (OEH, s.v.). *Guthizia eztitzagunzat gauza gaixtoak, nola hek guthiziatu baitituzte* (1 Ko 10, 6).
- HAGITZ [HAGUITZ]: Erdialdekoa, testu-tradizioaren arabera (OEH, s.v.). *Izi zitezen hagitz* (Mt 27, 54).
- HAGUN [HAGUNA]: (L, BN, Sal, S, R). Testuen arabera, aldaera hau behe-nafarreran kokatzekoa dateke: ez kostako lapurteran, ezta zubereran ere bederen (OEH, s.v.). *Eta lurrera eroririk iraulzkatzen zen haguna lariola* (Mk 9, 20).
- HARAN [HARANA]: (gral.). Orokorra zatekeen noizbait, ekialdetik Arango harana lekuko, baina ez dago Zuberoako testuetan (OEH, s.v.). *Haran guzia betheren da eta mendi eta mendiska guzia beheraturen da* (Lk 3, 5).
- HEBAIN [HEBAINA]: (L, BN, S). Lapurterazko testuetan lekukotua, ez Zuberoakoetan, Oihenart salbu (O Pr 196; OEH, s.v.). *Orduan ethor zedin harengana anhitz jendetze, zutela berekin maingurik, itsurik, muturik, hebainik eta anhitz berzerik: eta ezar zitaten Iesusen oinetara, eta senda zitzan* (Mt 15, 30; 1563 «des manchots»). *Populuak mirets baitzezan zakuskianean mutuak minzaten, hebainak sendaturik, mainguak zabiltzala, itsuek ikusten zutela* (Mt 15, 31; 1563 «les manchots»).
- HOTS [HOTSÁ]: (gral.). Hegoaldeko testuetan ez bezala, Iparraldekoetan Leizarragaren ondoko garaietan interjekzio gisa baino ia ez da aurkitzen, Goihetxe eta Miranderenean salbu (OEH, s.v.). *Haién hegalen hotsa* (Ap 9, 9).
- HURBIL: (AN, B, L, BN). Erdialdeko testuetan (OEH, s.v.). *Emenda zaitzte: ezen zeruetako resuma hurbil da* (Mt 3, 2).

- HURKO [HURCOA]: (V, G, L). Izen gisa, Leizarragaz eta Etxeberri Ziburukoaz beste adibiderik ez dago Lehen Euskara Modernora arte (*OEH*, s.v. *hurko*): garai hartan Larramendiren hiztegian berragertzen da (1745), eta Hegoaldeko lehen adibidea Burgosko dotrinan dugu (1747). Litekeena da, beraz, izenlagun gisa izan zezakeen erabilera gorabehera, izen gisa neologismoa izatea, erlijio alorreko teknizismoa baita, ZZko kidea *proximoa* mailegua izateak ere iradokitzen duenez. 1563ko edizioaren arabera, frantses *prochain*-en kidea da beti (Mt 5, 43; Mt 19, 19; Mt 22, 37 tit.; Mt 22, 39; Mk 12, 33 tit.; Mk 12, 31; Mk 12, 33; Lk 10, 27 tit.; Lk 10, 29 tit.; Lk 10, 27; Lk 10, 29; Lk 10, 36; Eg 7, 27; Erm 13, 9; Erm 13, 10; Erm 15, 2; Ga 5, 14; Ef 4, 25; Heb 8, 11; St 2, 8; 1 Jn 3, 17 tit.).³⁵ *Onhetsiren duk eure hurkoa eure burua bezala* (Mt 19, 19).
- IGORZIRI [IGORCIRIA]: Etxeparek, Leizarragaz eta Axularrek erabili eta geroago beste aldaerak nagusituko dira, *ihortziri* batez ere. Zuberotarrek (Maister, Intxauspe) *irurziri* erabili zuten (*OEH*, s.v. *ihortziri*). *Enzun zuenak zioen igorziri bat egin zuela* (Jn 12, 29). Agerraldi guztietan frantses *tonnerre*-ren euskal ordaina da 1563ko edizioan (Mk 3, 17; Jn 12, 29; Ap 6, 1; Ap 8, 5; Ap 10, 2; Ap 10, 3 (bitan); Ap 14, 2; Ap 16, 18 tit.; Ap 16, 18; Ap 19, 6).³⁶
- IGUZKI [IGUZQUIA]: (G-nav-bet, AN, L, BN, S, Sal, R). Ez dirudi gero ere zuberotarren testuetan lekukotua denik (*OEH*, s.v. *eguzki*). Salbuespenak: Oihenartek poesietan (*Po* 35), baina atsotizetan *eki* (*Pr* 56); Tartasek beti (cf. *EKC*, s.v. *iguzki*), *ekhia iguzkia* adibide bakarrean izan ezik (*Onsa* 87); Arxuk *iruski* behin (*Arch Fab* 11), eta bestela *eki* (ib. 93). *Ezen hark ilkhi eraziten du bere iguzkia gaixtoén eta onén gainera* (Mt 5, 45).
- IHARDUKI [IHARDUQUITEA] ‘eztabaidatu’: (AN-erro, L, B). Ekialde zabalekoa, baina Zuberoakoa ez (*OEH*, s.v.). *Eztu ihardukiren, ez eta oihurik eginen, eta nehork eztu karriketaren haren boza enzunen* (Mt 12, 19; 1563 «il n’estriuera point»).
- ILHARGI [ILHARGUIA]: (AN-egüés-erro-ilzarb, Sal, Ae; -ll- V-arr-m-gip, G, AN-gip-5vill-erro, B, L, S; h- L, BN, S). Orokorra testuetan, idazle zuberotarretan izan ezik (*OEH*, s.v. *ilargi*), salbu eta Oihenart (*Pr* 593); «S» laburdura Lhanderen hiztegiako «C» laburduratik (= L, BN, S) aterea da. *Iguzkia ilhunduren da, eta eztu emanen ilhargiak bere ergia* [sic, *argia*-ren ordeztu]³⁷ (Mt 24, 29).
- IRAULZKATU [IRAULZCATZEA] ‘irauli’: Leizarragaz bakarrik erabilia, hiztegiek (SP, Dv) jaso badute ere, ziurrenik berarengandik. *Lurrera eroririk iraulzkatzen zen haguna lariola* (Mk 9, 20).
- IRAUNGI [IRAUNGUITEA]: (AN, L). Testuen arabera Iparraldekoa bai, baina ez Zuberoakoa (*OEH*, s.v. 1 *iraungi*). *Gehennara ioan adin, behin ere iraungiten ezten sura* (Mk 9, 43).

³⁵ TBMn bi agerraldi izan arren (*Hurco* eta *Hurcoa*), 1563ko edizioan ez dago *prochain* sarrerarik.

³⁶ Salbuespen bakarra Ap 10 tit. pasartekoa da, 1563ko frantsesezko edizioan izenburua zeharo ezberdina izanik, *tonnerre* agertzeko aukerarik ere ez dagoelako: «La predication de l’Evangile precede le iour du iugement. Aussi les mysteres de la parole se doyuent distribuir par ceus à qui le Seigneur les a commis» vs «Joanesek iretsi ukhan zuen liburuan zadukan Aingeruaz minzaturik, nola munduaren fina izanen den erakusten, eta nola zazpi igorzirien hotsak zigilatua izan diraden deklaratzeko». Baliteke pasarte hau Leizarragaz erabilitako frantsesezko edizioa zein izan zen zehazteko baliagarria izatea.

³⁷ Akats hau Schuchardtek atzemana da (1900: 160).

- IXTER [ICHTERRA]: (G-bet, AN-ulz, S). Testuetan behintzat, ez da zubererazkoa; ezain aldaeratan, gainera (*OEH*, s.v. *izter*). Laburdura Larrasqueteren hiztegitik (1939) bide dator, baina honek «cuisse» 1. adieran «sens disparu» dela dio (s.v. *ixter*), noizbait orokorra izan zela suposaturik, nonbait, eta adiera bizi bakartzat «gousse (d'ail), quartier (de noix), tranche (d'orange)» ematen du. *Eta zuen bere beztidurán eta ixterrean eskribuz izen haur* (Ap 19, 16). Pasarte berean Intxauspek azpi dakar, ZZko berria XIX. mendean ere berretsirik.
- JAIO [IAYO]: (V, G, AN, BN-baig). LEM baino lehen Iparraldean gutxi aurkitzen da, eta Zuberoan behin ere ez (*OEH*, s.v.). *Ala berri z bere amáren sabelean sar eta jaio ahal daite?* (Jn 3, 4).
- KADENA [CADENÁ]: (BN-erb). «La forma *kadena* la emplean Leizarraga y Eguiateguy (237), y con oclusiva aspirada [*khadena*] Joannateguy y Arbelbide» (*OEH*, s.v. *kate*). *Piarris bi jendarmesen artean, bi kadenaz estekatua* (Eg 12, 6).
- KALTE [CALTEA]: (V, G, AN, L, BN). Badu Oihenartek (O Pr 46), baina osterantzean ez da zuberotarren testuetan idoro (*OEH*, s.v.). *Baldin zerbait heriotarakorik edan badezate, eztraue kalterik eginen* (Mk 16, 18).
- KHARMIN [KARMIN]: 'mingotsa': (BN-erb). Gutxi lekukotua: Leizarragaren lanak ondo ezagutu zituzten Oihenart eta Pouvreaux bakarrik (*OEH*, s.v. 1 *karmin*). Oihenarten atsoitz batean bederen bada (O Pr 541). *Zenbait erro kharmin goiti jalgiten denek trubla etzaitzatenát.* (Heb 12, 15; 1563 «racine d'amertume»).
- LANDA: (V, G, AN, L, B, BN-erb-ad-baig-lab, Sal, R-uzt). Iparraldekoa, ez Zuberokoak (*OEH*, s.v. *landa*). *Konparatu da zeruetako resumá thesaur landa batetan gorderik dagoenarekin* (Mt 13, 44; 1563 «champ»).
- LARRAIN [LARRAINA]: (V, G, AN, L, B, S). Orokorra testuetan, zuberotarrenetan izan ezik (*OEH*, s.v.). «S» laburdura Azkuerena da, zehazki «Sc», baina ez dakit nondik aterea den. *Bere bahea bere eskuan du, eta garbituren du bere larraina* (Mt 3, 12). Intxauspek pasarte berean *ezkaratz* dakar.
- LAZO [LAÇOÁ]: (V-gip, S). Erreferentzia Larrasquetena (1939) da, eta bearnerazko *las*-etik hartutako mailegua dela dio (ezinezkoa bukaerako bokalarengatik): beraz, beranduago bederen ezaguna (izan) da Zuberoan: adibide bat dago Oihenarten atsoitzetan ere (O Pr 507), Maisterrenean, eta abar (*OEH*, s.v. 1 *lazo*). *Lazo batek bezala atrapaturen ditu* (Lk 21, 35).
- LEKHORE [LEKOREA]: (L ap. A). *Lekorea* 'kanpo aldea' da, normalean leku-kasuetan erabilia (*OEH*, s.v. *lekore*). Oker ez banago, Leizarraga da berezko lekukotasun (ia?) bakarra. Izen gisa Etxeberri Ziburukoak erabili zuen: *Gutziz hain ederra denaz geroztik lekhorea, l ederragoa dela du iuiatzen barrenea* (EZ Man I 132), baina *barrenea*-k erakusten digu hizkuntza bortxaka ari zela. Ostera, badu *lekhorean* (EZ Man II, 157, etab.). Duda gisa esango dut: ez ote da izango *lekorean leko* + *-rean* ablatibo zaharra, Leizarragaren beraren *lekhora* adlatiboak ere iradokitzen duenez? (ik. *OEH*, s.v. *lekora*; cf. *lekat* ere). *Haren ama eta anaieak zeuden lekhorean, harekin minzatu nahiz* (Mt 12, 46).
- LIBRE: (V-gip, BN, S). Euskalki eta garai guztietakoa omen, eta XX. mendean Larrasquetek (1939) bermatua zubereran (*OEH*, s.v.). *Beraz, libre dituk haurrak* [tributetatik] (Mt 17, 26; He, Ip *libro*).
- LOTHU [LOTZEA]: (V, G, AN, Sal). Lapurterazko testuetan bederen ohikoa, baina ez Zuberoakoetan (*OEH*, s.v. 1 *lotu*). *Idi bihitzen ari denari eztraukak ahoa lothuren* (1 Tm 5, 18).

- MAIZ: (G, AN, L, B, BN). Erdialdekoa (*OEH*, s.v. 1 *maiz*). *Ioanesen diszipuluék barur egiten dute maiz* (Lk 5, 33).
- MENDEMATU [MENDEMATZEA] ‘mahatsa biltzea’: Mailegu honen (cf. lat. *vindemiare*) aldaera hau Leizarragak bakarrik lekukotu du (*OEH*, s.v. *mendematu*). *Ezen elhorrietarik ez tute biltzen fikorik, ez eta sapparretarik mendematzzen mahatsik* (Lk 6, 44).
- MUGARRI [MUGARRIA]: (gral.). Orokorra testuetan, Zuberoan izan ezik (*OEH*, s.v.). *Haién habitazionearen mugarriak ezarrik* (Eg 17, 26).
- NEURRI [NEURRIA]: (V, G, AN, L, B, BN-baig, Ae, R). Orokorra testuetan, zuberotarrenetan izan ezik (*OEH*, s.v.). *Eta zer neurritz neurthuren baituzue, aldiz neurthuren zaiuzue* (Mt 7, 2).
- NEURTU [NEURTZEA]: (V, G, AN, L, BN, Ae, R). Orokorra testuetan, Zuberoan izan ezik (*OEH*, s.v.). *Gero neurt zezan haren murrailá ehun eta berrogei eta laur besotako, gizonaren neurritz, zein baita aingeruarena* (Ap 21, 17).
- NOKHU [NOKUA]: *nokua* ‘elbarria’ eta aldaerak Iparraldean ondo lekukotua dira (*OEH*, s.v. *noku* 1), eta ‘akatsa’ adieran baita zubererazko testuetan ere 1879tik aurrera (*SGrat*, Ip, *UNLilia*, etab.). Larrasquetek (1939) dio bearnesezko *noc* «tare, défaut physique»-tik mailegatua dela (s.v. *noku*). Ez dago behin ere ez TBan, ez Leizarragaren gainerako testuetan.
- ORDAIN [ORDAINA]: (V, G, AN, BN, Ae). Orokorra testuetan, Zuberoakoetan izan ezik (*OEH*, s.v.). *Hiri rendaturen zaik ordaina justoén resurrekziónean* (Lk 14, 14; 1563 «la pareille»).
- ? OTHORANZA [OTHORANÇA] ‘oturuntza’: Erdialdekoa (*OEH*, s.v. *oturuntza*); aldaera zehatza Oihenartek bakarrik lekukotua (O *Pr* 591). *Hartzzen zuten bere othoranza alegranzarekin* (Eg 2, 46). Badago beste agerraldi bat, baina *othorenza* forman: *Hauk dirade zuen karitatezko othorenetako makulák* (Ju 1, 12). Schuchardtek (1900) antzeman ez zituen Leizarragaren testuko arazo (ziurrenik) gutxietako bat da, Ruiz Arzalluz & Vélez Latorre itzultzaileek eraturtako «Índice de términos vascos» delakoaren arabera behintzat. *OEH*-k biak onartu ditu, segur aski *othoranza*-k ziurra dirudielako, bi aldiz agertzen baita testuan, TBaren itzulpenean eta ZZan; hala eta guztiz ere, *otoren-* ere aintzat hartu beharrekoa da, forma etimologikoa baita, izan ere. Haatik, gure azterketatik eratortzen da ZZk ez duela *othoranza* formaren alde derrigor egiten, zeren eta ZZren egileak badakigu ez zuela TBko hizkuntza bere osoan menderatzen, ***arraxki* forma akastunaren argitan (q.v.). Beraz, baliteke zer ikusi eta hura kopiatu izana, kasu honetan *othoranza*, akastuna zen ez zen jakiteko gaitasunik gabe. Dudan gelditzen da, bada, Leizarragari bi aldaera itzuri ote zitzaizkion, baina nik, hanbatik hanbatean, *othoranza* akatsa delakoaren alde nago, ondoko *alegranza*-ren *-anza* bukaerak kutsatua. Gainerako lekukotasunak bigarren eskukoak dira ia ziur (Oihenartez gainera, Larramendi eta Maurice Harrieten hiztegiak).
- PEDAZU [PEDAÇUA] ‘petatxua, adabakia’: Adiera honetan lapurterazkoa (*OEH*, s.v.). *Ne-hork eztrauka eratxekiten oihal pedazu latz bat abillamendu zar bati* (Mt 9, 16).
- PESKADORE ‘arrantzalea’: Testuetan zein hiztegiatan bakana (*OEH*, s.v.), ZZn azaltzen zaigun bezala Leizarragaren lan-taldearen hautu lexiko berezi bat izan zelako. *Zatozte ene ondoan, eta eginen zaituztet giza peskadore* (Mt 4, 19; ik. Mk 1, 16 ere).
- PITINA ‘antxumea, bitina’: (BN, S). Testuetan ez dago aldaera honen beste adibiderik (*OEH*, s.v. *bitina*). *Egundano pitina bat eztrautak eman neure adiskidekin atsegin hartzeko* (Lk 15, 29).

- RESUMA [RESUMA]: (L, AN, Sal, S). Iparraldekoa, zubererazko adibideak ere badaude Etxart-en gutunetatik aurrera (1616-1617; *OEH*, s.v. 1 *erresuma*). Mailegua dirudi fonotaktikagatik, baina ez du etorki ezagunik, dakidalarik.³⁸ *Berriz hura du eramaiten deabruak guzizko mendi gora batetara, eta erakusten drautza munduko resuma guziak* (Mt 4, 8).
- REBOLTARI [REUOLTARI]: XX. mendera arte Leizarragarenak lekukotasun bakarrak (*OEH*, s.v.). *Bada Jaunaren zerbitzariak eztik reboltari <reuoltari> izan behar* (2 Tm 2, 24). Hona hemen TBko adibideei dagokien frantses bertsioa 1563ko edizioan: «ceux qui sont addonnez à contention» (Erm 2, 8), «quereleux» (1 Tm 3, 3; 2 Tm 2, 24; Ju 16).
- UMUNZI [VMUNCIA] ‘umetokia’: (BN). Erdialdekoa ematen du aldaera ezberdinetan (*OEH*, s.v. *umontzi*). Behin baino ez dago TBan: *Sararen umunzi ia hiler*a (Erm 4, 19; 1563 «la matrice»). Bokal batuketarik gabeko aldaera ere badago, Schuchardtek (1900: 201) ikusi bezala: *Ar ume-unzia irekiten duen guzia* (Lk 2, 23; 1563 «la matrice»).
- URRIKI [VRRIQUI]: (G, AN, L, BN). Erdialdekoa, batez ere L eta BNko aldaera, tes-tuen arabera (*OEH*, s.v. 1 *urriki*). *Erruki izan* egituran bakarrik erabili zuen Leizarragak (*urrikitu* aditzarekin eta *urrikimendu* izenarekin batera): hemendik mugagabeen egotea. *Baldin tristetu bazaituztet ere epistolaz, ez tut urriki* (2 Ko 7, 8; 1563 «je ne m’en repen[s] point»).
- XARTHATU [CHARTHATZEA] ‘txertatzea’: (BN-ciz). Iparraldeko aldaera, Zuberoan lekukotu gabea (*OEH*, s.v. *txertatu*). *Harekin xart[h]atuak bagara haren hiltzearen konformitatez, haren resurrekzioaren konformitatez ere izanen gara* (Erm 6, 5). Gainerako adibide guztietan <th>duna da, ZZn bezala (ik. *EKC*, s.v. *xarta*-).
- XISTMIST [CHISTMISTA]: *Tximista*-ren forma etimologikoa bide da. Aldaera ugarietatik bat ere ez dago Zuberoako testuetan, *tximista* Egiategirengan baizik (*OEH*, s.v. *tximista*), baina honek ziurrenik Larramendiren hiztegian ikasi zuen. *Xistmist, igorziri, lur-ikharatze eta babazuza* (Ap 16 tit.).
- XITO [CHITOA]: (L, B). Aldaera hau ez dago Zuberoako testuetan, baizik eta eskuarki *txitxa* (Tartas, Egiategi, Intxauspe; *OEH*, s.v. *txita*), hain juxtu ZZk Zuberoakotzat ematen duena. *Zenbatean bildu nahi ukhan ditut hire haurrak, oilloak bere xitoak hegalean apira biltzen dituen bezala?* (Mt 23, 37).
- ZAMA [ÇAMA]: (gral.). Orokorra, Oihenartek badu adibiderik (O *Po* 56), baina osertantzean ez dirudi zuberotarretan lekukotua denik, ez testuetan, ez hiztegie-tan (*OEH*, s.v. 1 *zama*). TBan bera ez, baina badira beraren eratorriak: *zamaldun* (Eg 23, 23; Ap 9, 16 tit.), *zamari* (Ap 14, 20) eta *zamarizko* (TBH, s.v. *legio-ne*). Halere, *karga* eta *kargatu* (baita *deskargatu* ere) baino ez dago TBan, guz-tira 32 adibidetan, 17 *karga*-renak: 1563 «fardeau» (Mt 11, 30; Mt 23, 4 tit.; Mt 23, 4; Ga 6, 5), «faix» (Mt 20, 12) eta «charge» (Lk 11, 46; Eg 15, 28; Eg 21,

³⁸ Zentzu gabeko proposamen ugariaren artean (cf. *MDELV*, s.v.) zentzuzkoago dirudi Morvan (d.g.)-koak, lehen aztarna gisa behinik behin, zeinak lotzen baitu nafar erromantzezko *reismo* ‘erresuma’-rekin, Nafarroako Foru Orokorrean eta *Liber Regum* delakoan dagoena, biak ala biak XIII. mendekoak, besteak beste. Cf. Yanguas y Miranda (1987, s.v.). Fonetikoki ez da erraza azaltzen, dena den, Morvanek bestela pentsatu arren. Familia berekoa da okzitaniazko *regisme*, zeinaren txistukaria bigarrenkaritzat jo baita lat. *regime*-rekiko (cf. Sanchís Calvo 1996: 1576 eta Sánchez González de Herrero 2005: 55).

- 3; Eg 27, 10; 2 Ko 11, 9; Ga 6, 2; Heb 12, 1; Ap 2, 24). TBMn ere lau aldiz dago (s.vv. *carga* eta *cargatuac*).
- ZERU [CERUA]: (V, G, AN, L, BN, R). Orokorra, Zuberoan izan ezik (OEH, s.v.). *Emenda zaitzte: ezen zeruetako resuma hurbil da* (Mt 3, 2).
- ZIGILATU [CIGUILATZEA]: Iparraldean lekukotua, Zuberoan izan ezik (OEH, s.v.). *Liburu barnetik eta kanpotik eskribatu bat, zazpi ziguluz zigilatua* (Ap 5, 1).
- ZIGULU [CIGULUA]: Iparraldekoek (zuberotarrak salbu) lekukotzen duten *zigilu* formaren aldean (OEH, s.v. *zigilu*), *zigulu* aldaera hamaika aldiz agertzen da TBan, baina bertako hapaxa da (Pouvreuren hiztegiara bakarrik heldu dena), Leizarragak *zigilatu* aditzaren alboan erabilia, gure adibidean kasu. $i - u > u - u$ dagoenez, itxuraz, *zigilu* aldaera ezagunagoa baino ekialderagokoa izan liteke. *Liburu barnetik eta kanpotik eskribatu bat, zazpi ziguluz zigilatua* (Ap 5, 1).
- ZIKHOTZ [CIKOTZA] ‘zikoitza, zekena’: (V, AN?, R ap. A). Honezaz landa ez da Iparraldeko testuetan oso berandu arte aurkitu (Goihetxe, 1852), eta zubererazkoetan behin ere ez (OEH, s.v. *zikoitz*). TBan ez dago beste agerraldirik, adiera hori betiere *abarizioso* maileguarekin itzuli baita (Lk 16, 14; 1 Ko 5, 10; 1 Ko 5, 11; 1 Ko 6, 10; Ef 5, 5; 2 Tm 3, 2), eta berdin hari dagokion *abarizia* izen abstraktua ere (Mk 7, 22; Lk 12, 15; Erm 1, 29; Ef 5, 3; 1 Ts 2, 5; Heb 13, 5; 2 P 2, 3; 2, 14). Euskaraz *abarizioso* dagoenean, gainera, frantsesez beti *avaricieux* (1563).

3. eranskina. TBko AGERRALDIAK

Euskal Klasikoen Corpusean datuak jaso eta hurrengo taulan ZZko sarre-ra-buruak TBko agerraldi kopuruaren arabera antolatuta dira; kopuru hauetan Erreginaren gutunetik eta TBM aurkibiderainoko guztiak hartu dira kontuan, ZZko agerraldia barne.

hitza	TBn	liburuak
zeru	349	<i>Heus</i> , Mt, Mk, Lk, Jn, Eg, Erm, 1 Ko, 2 Ko, Ga, Ef, Flp, Kol, 1 Ts, 2 Ts, Heb, St, 1 P, 2 P, 1 Jn, Ap, TBH, TBM
resuma	225	ATI, <i>Heus</i> , Mt, Mk, Lk, Jn, Eg, Erm, 1 Ko, Ga, Ef, Kol, 1 Ts, 2 Ts, 2 Tm, Heb, St, 2 P, Ap, TBH, TBM
behatu	63	ATI, <i>Heus</i> , Mt, Mk, Lk, Jn, Eg, Erm, 2 Ts, 1 Tm, Tt, 2 P, 1 Jn, Ap, TBM
jaio	51	<i>Heus</i> , Mt, Mk, Lk, Jn, Eg, Erm, Ga, Kol, Heb, 1 Jn, Ap, TBM
landa	43	ATI, Mt, Mk, Lk, Eg, St, IPHG, TBM
libre	40	<i>Heus</i> , Mt, Jn, Erm, 1 Ko, Ga, Ef, Kol, Ap, TBM
azpian	39	<i>Heus</i> , Mk, Lk, Jn, Eg, Erm, 1 Ko, Ga, 1 Tm, Heb, St, 1 P, Ju, Ap, TBM
iguzki	35	<i>Heus</i> , Mt, Mk, Lk, Eg, 1 Ko, Ef, Ap, TBH, TBM
artha	33	Mt, Lk, Jn, Eg, Erm, 1 Ko, 2 Ko, Ga, Ef, 2 Tm, Tt, Heb, 1 Jn, Ju, TBM

hitza	TBn	liburuak
hagitz	31	Mt, Mk, Lk, Jn, Eg, 2 Ko, Flp, 2 Ts, 2 Tm, 2 Jn, 3 Jn
hurbil	27	Mt, Mk, Lk, Jn, Eg, Erm, Flp, Heb, St, Ap
lothu	27	Mt, Lk, Jn, Eg, 1 Ko, 1 Tm, TBM
hurko	26	<i>Heus</i> , Mt, Mk, Lk, Eg, Erm, Ga, Ef, Heb, St, 1 Jn, TBM
kalte	25	Mk, Lk, Eg, 1 Ko, 2 Ko, Flp, 1 Tm, 1 P, Ap, TBM
elemosina	25	Mt, Lk, Eg, 2 Ko, Flp, TBM
neurri	24	Mt, Mk, Lk, Jn, Erm, 2 Ko, Ef, Ap, TBM
gaixtagin	24	Mt, Mk, Lk, Jn, Eg, 2 Ko, TBM
abolitu	21	<i>Heus</i> , Mt, 1 Ko, 2 Ko, Ga, Ef, 2 Ts, Heb
iraungi	20	<i>Heus</i> , Mt, Mk, Erm, Ef, Kol, 1 Ts, Heb, Ap, TBM
aserretu	20	Mt, Lk, Ap, TBH, TBM
zigulu	17	Erm, 1 Ko, 2 Tm, Ap
iharduki	17	Mt, Mk, Lk, Eg, Erm, 1 Ko, 2 Tm, Tt, TBM
hots	17	<i>Heus</i> , Mt, Jn, Eg, Ap
gakho	17	<i>Heus</i> , Mt, Lk, Jn, Ap, TBM
arbuaiatu	17	Lk, 1 Ts, TBM
maiz	15	<i>Heus</i> , Mt, Mk, Lk, Eg, 2 Ko, Heb, TBH
lekhore	15	Mt, Mk, Lk, Eg, 1 P, Ap
kadena	15	Mk, Lk, Eg, Ef, 2 Tm, Ap, IPHG
xistmist	14	Mt, Lk, Eg, Ap
neurtu	14	Mt, Mk, Lk, 2 Ko, Ap, TBM
igorziri	14	Mk, Jn, Ap, IPHG
zigilatu	13	<i>Heus</i> , Mt, Jn, 2 Ko, Ef, Ap, TBH
ilhargi	13	Mt, Mk, Lk, Eg, 1 Ko, Kol, Ap, IPHG, TBH
guthiziatu	10	Mt, Eg, Erm, 1 Ko, Ga, 1 Ts, TBM
fits	9	Mt, Lk, TBM
aurkhan	9	Mt, Mk, Eg
xarthatu	8	Erm
lazo	8	Lk, Erm, 1 Ko, 1 Tm, 2 Tm, TBM
errot	8	Mt, Mk, Lk, Ap
peskadore	6	Mt, 2

hitza	TBn	liburuak
pedazu	6	Mt, Mk, Lk
ordain	6	Lk, 1 Tm
flore	6	Mt, Lk, 1 Ko, Ap, TBM
azkendu	6	Erm, 1 Tm
reboltari	5	Erm, 1 Tm, 2 Tm, Ju
mendematu	5	Lk, Ap
hagun	5	Mk, Lk, Ju
fiadore	5	Eg, Heb
behazun	5	Mt, Eg, TBM
kharmin	4	Eg, Heb
haran	4	Lk, IPHG
eskobatu	4	Mt, Lk
babazuza	4	Ap
xito	3	Mt, Lk
urriki	3	<i>Heus</i> , 2 Ko
larrain	3	Mt, Lk
iraulzkatu	3	Mk, 2 P
hebain	3	Mt
auhen	3	Mt, Lk
othoranza	3	Eg [Ju <i>othorencetaco</i>]
umunzi	2	Erm [Lk <i>ume-unzi</i>]
pitina	2	Lk
mugarri	2	Eg
ixter	2	Ap
berariaz	2	Kol
eskobakin	2	1 Ko
zikhotz	1	—
zama	1	—
nokhu	1	—
garastia	1	—
arraxki	1	—

Euskararen erregistro akademikoen garapenaz: hiztegia eta fraseologia¹

Igone Zabala Unzalu*

Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
HiTZ Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroa - Ixa ikerketa-taldea (UPV/EHU)

Laburpena: Erabilera-alor akademikoak funtsezkoak izan dira euskararen biziberritze prozesuan baina, alor horien konkistak hizkuntza-baliabideen garapen eta berregituratze handia eragin badu ere, esparru akademikoetan erabiltzen diren hizkuntza-baliabideek eta horien atzean dauden motibazio funtzionalek oso neurri txikian erakarri dute hizkuntzalariei arreta. Artikulu honetan, erregistro akademikoen garapenean gako diren elementu batzuei erreparatu diegu, bereziki hiztegi eta fraseologia akademikoari. Bestalde, diskurtso akademikoen garapenerako funtsezkoak diren nominalizazio-estrategiez eta gertaera-izenak sortzen dituzten atzizkien banaketa morfopragmatikoaz ere aritu gara.

Hitz gakoak: euskararen erregistro akademikoak, hiztegi akademikoa, fraseologia akademikoa, nominalizazio-estrategiak, atzizki eratorleen banaketa morfopragmatikoa.

1. SARRERA

Azken hamarkadetan aurrera eraman den euskararen biziberritze prozesua arrakastatsua izan dela esateko hainbat arrazoi daude. Izan ere, euskaldunen kopurua nabariki igo da, eta batez ere gazteen artean gertatu da igoera. 2016ko VI. Inkesta soziolinguistikoa egin zenean, 16-44 urteko EAEko biztanleen artean % 73,2 ziren euskaldunak. Gainera, zenbait iker-

* Igone Zabala. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila. Zientzia eta Teknologia Fakultatea (UPV/EHU). Sarriena auzoa, z/g (48940 Leioa). igone.zabala@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-1931-4136>.

¹ Lan honek Ministerio de Ciencia e Investigación erakundearen diru-laguntza jaso du HARTAvas ikerketa-proiektuaren barruan (PID2019-109683GB-C22). Coruñaiko Unibertsitateko eta UPV/EHUko taldeek aurrera daramagun HARTAvas (*Herramienta de Ayuda a la Redacción de Textos Académicos en Español y en Vasco*) proiektu koordinatuaren azpiproiektua da HARTAvas. A motako Talde Finkatuaren (Eusko Jaurlaritzak: IT-1570-22) ikerlanen barruan ere kokaturik dago.



ketaren arabera (Amorrortu *et al.* 2017), hiztun gazte horietatik % 67 hiztun berriak dira, alegia, euskara etxetik kanpo ikasi dutenak. Zalantza handirik ez dago ezagutzaren igoera horren arrazoietakoa bat behintzat hezkuntzan datzala.

Bestalde, euskara batuaren garapenari esker, euskaldunok hizketa-komunitate bat (*speech community*) osatzen dugu, Hymes-en (1974) eta Labov-en (1974) zentzuan. Ez hori bakarrik, euskararen erabilera-eremuak ere nabariki hedatu dira eta, hedapena posible izateko, eta bai hedapenaren beraren ondorioz ere, erabilera-eremu berrietan aritzeko hizkuntza-baliabideak ere garatu ditu euskarak: eremu-konkista edota elaborazioa (Laurén *et al.* 2002). Euskararen erabilera berri horietako batzuk, adibidez, komunikabideak eta literatura, orokortzat har daitezke, testuek denetariko gaiak jorratzen baitituzte eta hiztunen komunitate osoari zuzenduta baitaude, baina beste erabilera-alor batzuk espezializatutzat hartu behar dira, testuek jorratzen dituzten gaiak espezializazio maila askotakoak izaten direlako, eta solaskideak ere espezialitate-alorrez alorreko adituak izaten direlako: Fisika, Biologia, Medikuntza, Filosofia, Historia, Hizkuntzalaritza, Zuzenbidea...

Komunikazio-alor espezializatueta aritzeko behar diren hizkuntza-baliabideak, besteak beste, terminologia eta fraseologia, komunikazio-egoera akademikoetan garatzen dira eta, bereziki, unibertsitateetan. Euskal Herriko unibertsitateetan espezialitate-alor guztietako eskolak ematen dira euskaraz eta, horretarako, nahitaezkoa da hiztegi eta fraseologia akademikoa erabiltzea, baita kontzeptu espezializatuak adierazteko terminologia garatzea eta erabiltzea ere. Maila indibidualean, ikasleek unibertsitatean ikasten dituzte beren alorreko adituen komunitateko kide bihurtzeko behar dituzten erregistro akademikoak (Biber 2006): inolako hizkuntzatan ez dago erregistro akademikoen hiztun natiborik. Hori dela eta, unibertsitateko ikasleei ziklo bat bukatzen duten bakoitzean, lan akademiko bat idazteko eta ahoz defendatzeko eskatzen zaie, adituen komunitateko kide bihurtzeko ezagutzak eta komunikazio-gaitasunak garatu dituztela frogatu dezaten: gradu amaierako lana (GrAL), master amaierako lana (MAL) edota doktoretza-tesia.

Nolanahi ere, eremu akademikoen konkistaz eta elaborazioaz ari garenean, indibiduo maila ez ezik, komunitate maila ere hartu behar dugu kontuan (Laurén *et al.* 2002): euskararen erregistro akademikoen garapena alorrez alorreko diskurtso-komunitate espezializatueta gertatu da eta gertatzen ari da, denboran luzatzen den prozesua baita. Erregistroen garapenean bi motatako prozesuak edo indarrak bereiz daitezke, Cabré-k (2003) terminologiaren normalizazioan bereizten dituenak bestelako hizkuntza-baliabideetara ere zabalduta. Batetik, diskurtso-komunitate espezializatueta barruko autorregulazioa dago eta, bestetik, erakunde arauemaileen interbenzioa. Gainera, diskurtso-komunitateen barruko autorregulazioa bi modu-

tara egiten da: komunitateko kideek baliabide jakin batzuk erabiltzeko ados jartzen direlako edo/eta komunitateko kideek egiten duten erabilera dela eta baliabide batzuk finkatzen doazelako. Gure iritziz, funtsezkoa da erakunde arauemaileek diskurtso-komunitate akademikoen barruan gertatzen den garapen eta autorregulazioa kontuan hartzea, bi helbururekin: erregistro akademikoen garapen eta autorregulazioa ez oztopatzeko (Zabala *et al.* 2014) eta, areago, garatutako baliabideen harmonizazioan laguntzeko (Zabala 2021). Erregistro akademikoen garapenerako oztopo izan litekeen interbentzio itsua saihesteko, oso garrantzitsua da interbentzio hori ez oinarritzea beste erregistro batzuen azterketetatik ateratako ondorioetan. Izan ere, edozein hizkuntza oso desberdin gauzatzen da erabilera-eremu desberdinetan (Seoane & Biber 2021: 3).

...the differences in language use patterns across registers are so significant, in terms of both their quantitative scope and their functional importance, that any claim to describe general patterns of use for an entire language is highly suspect at best [...] it is interesting to note that the history of empirical register research is to a large extent coexistent with the history of empirical corpus-based research. In one respect, this relationship is not surprising: empirical register analysis are essentially not possible without corpus, because we need to have a collection of texts from a register — a corpus — in order to perform an empirical analysis of its linguistic characteristics. But the opposite relationship is not equally necessary: it is certainly possible to build a corpus and carry out corpus analyses that disregard register distinctions.

Euskararen erregistro akademikoak nola ari diren garatzen aztertzeko, nahitaezkoa dugu testu-corpus egokiak osatzea, alegia, egin nahi dugun deskripziorako erreferentziak diren testu-generoak biltzen dituzten eta erakunde arauemaileen interbentzioa ez ezik diskurtso-komunitate akademikoen barruko autorregulazioaren emaitzak ere islatzan dituztenak. Helburu horri begira hasi ginen osatzen Garaterm corpusa² 2010. urtean eta, batez ere, unibertsitateko irakaskuntza-materialak eta lan akademikoak (GrAL, MAL, doktoretza-tesiak) biltzen ari gara. *Garaterm* corpusaren azpicorpusetako bat da *HARTAeus* corpusa (Aranzabe *et al.* 2022), Universidade da Coruña-ko eta UPV/EHUko ikertzaile taldea aurrera eramaten ari garen *HARTAeus* proiektu koordinatuaren barruan osatu dena. *HARTAeus* euskarazko corpusa³ espainolezko *HARTAnoveles* corpusarekiko (Villayandre

² Ikus Zabala *et al.* (2013) *Garaterm* corpusaren kontsulta-interfazeak helbide honetan daude: <http://garaterm-corpusa.ix.eus/>.

³ *HARTAeus* corpusean kontsultak egiteko, *Garaterm* corpusaren kontsulta-interfaze aurreratuan «Non» sakatu eta «HARTAeus» corpuseko kontsultak iragaz daitezke. Kontsultak domeinu nagusien arabera, eta *Garaterm* corpusak eskaintzen dituen bestelako parametroen arabera ere iragaz daitezke.

2018) konparagarria izateko osatu da. 295 GrAL eta 104 MAL bildu dira: guztira 3.285.098 hitz. Bi hizkuntzetako corpusak konparagarriak izateko, lau hipereremutan banatu dira testuak: Arteak eta Humanitateak, Biologia eta Medikuntza, Zientzia Fisikoak eta Gizarte Zientziak. Hipereremu horien barruan, jakintza-alor xeheagoak ere bereizi dira. *HARTAe*us corpusak aukera ematen digu aztertzeko unibertsitateko ikasketak egin dituzten ikasleek, alegia, alorrez alorreko aditu berriek, unibertsitatean garatu dituzten ikerketa- eta komunikazio-gaitasunak egiaztatzeko idazten dituzten testuetan erabiltzen dituzten hizkuntza-baliabideak. Euskararen erregistro akademikoaren garapenaren ikerketari ekiteko corpus egokia dela deritzogu, corpusetan oinarritutako erregistroen ikerketarako oinarrien arabera (Biber & Conrad 2009: 10):

There is not a correct level on which to identify a register. Rather, it depends on the goals of your study. You may want to characterize the register of academic prose, a very general register. Or you may be interested in only research articles, a more specific register within academic prose. Or you might focus on medical research articles, or even only the methods sections of experimental medical research articles. All of these can be considered registers, differing in their level of generality...

Erregistro akademikoetan garrantzi berezia eman ohi zaie alorrez alorreko terminologiaren garapen eta normalizazioari. Izan ere, terminologia funtsezkoa da kontzeptu espezializatuak adierazteko, eta testu espezializatuaren bizkar-hezurra osatzen duela ere esan daiteke.⁴ Nolanahi ere, lan honetan euskararen kasuan gutxitan aztertu diren beste hizkuntza-baliabide batzuei erreparatuko diegu: lexiko akademikoari eta fraseologiari.

Hizkuntzaren azterketarako hurbilketa estrukturalistek, besteak beste gramatika sortzaileak, hizkuntza-osagaietan, eraketa-erregelatan, erregela horien errekurribotasunean eta hizkuntzaren sortzailetasunean jartzen dute arreta. Hori dela eta, hitz anitzeko segidak HAS (*multi-word sequences MWS*) bazterreko adierazpide bakantzat hartzen dituzte. Baina corpus-hizkuntzalaritzaren eskutik egun gero eta hedatuago eta onartuago dagoen ideia da HASak direla idatzizko eta ahozko diskurtsoen eraikuntza-blokeak. HASak dira finkatutako edo erdifikatutako hitz-segida errepikariak (Siyanova-Chanturia 2015). Testu-corpusetan oinarritutako azterketa enpirikoek agerian utzi dute hizkuntza errepikakorrak dela hizkuntzalaritzaren hurbilketa estrukturalistek eta sortzaileek aurreikusitakoa baino, eta HASak edozein hizkuntzarako hitzun natiboek ekoizten dituzten idatzizko eta ahozko diskurtsoen % 50tik gora direla (De Coxk *et al.* 1998). Estimazio horiek idatzizko diskurtsoak biltzen dituen corpus batean egiaztatu dituzte ikertzaile batzuek (Erman &

⁴ Euskararen terminologiaren garapenaz, ikus Zabala (2019).

Warren 2000), eta agerian utzi dute haien corpusean bildutako diskurtso horien % 52,3 HASak direla. Hortaz, esan daiteke hiztunok HAS errepikari ugari erabiltzen ditugula hizkuntza erabiltzen dugunean. Areago, egile batzuek diote testu akademikoak idazteko unitate fraseologiko erdiautomatikoak erabiltzen dituzten finkatutako diskurso-eskemak baliatzen ditugula (Paquot 2018). Hortaz, konbinazio lexiko akademikoak (KLA) helburu aplikatuko corpus-hizkuntzalaritzako lan askoren ikergaia izan dira. KLAak garatzeko eta finkatzeko, nahitaezkoa da erabilera partekatua egotea diskurtso-komunitate akademikoetan. *HARTAeus* corpora erabili dugu, hain zuzen ere, erregistro akademikoaren bereizgarriak diren KLAak euskarazko lan akademikoetan garatu eta finkatu ote diren egiaztatzeko. Izan ere, KLAak erregistro akademikoaren garapenaren adierazletzat har daitezke.

HARTAvas proiektuan, lexiko akademikoa eta konbinazio lexiko akademikoak (KLA) erauzteko, hiru modulu garatu dira *Erauzterm* termino-eraztean: lexiko akademikoa erauzteko modulua, kolokazioak erauzteko modulua eta diskurtso-formulak erauzteko eta diskurtso-funtzioa esleitzeko modulua (Aranzabe *et al.* 2022). KLAk testu akademikoetan maiztasun handiz azaltzen diren hitz (edo morfema) multzoak dira, semantikaren ikuspuntutik konposizionalak zein ez-konposizionalak izan daitezkeenak, eta diskurtso akademikoetan ohikoak diren funtzio erretorikoak estaltzen dituztenak: helburuak azaltzea, adibideak ematea, emaitzak alderatzea... Fraseologiak hitz anitzeko unitateak aztertzen ditu, eta unitate fraseologikotzat hartzeko erabiltzen dituen irizpideak dira konposizionaltasuna (gardentasunarekin nahastu behar ez dena)⁵ eta osagaien hautapen askea / baldintzatua (Mel'čuk 2015).

Nolanahi ere, euskara hizkuntza eranskaria da, eta ingeleseko eta beste hizkuntza flexibo batzuetako hitz anitzeko unitateetan deskribatu diren zenbait fenomeno hizkuntza eranskarietan morfema mailan gertatzen direla erakutsi dute hainbat lanek (Durrant 2013, Nam *et al.* 2016, Öksüz 2019): elementu jakin batzuen maiztasun handiko kookurrentzia, finkatutako elementu-multzoak (*bundles*) eta lexikoaren eta gramatikaren arteko uztardura. Izan ere, hizkuntza eranskarietan postposizioak eta menderagailuak maiz gauzatzen dira morfema lotu modura eta, beraz, *lexical bundle* esaten zaien konbinazioak ez ezik, *morphemic bundle* deritzenak ere hartu behar dira kontuan (Nam *et al.* 2016). HARTAvas proiektuan bi KLA mota aztertu ditugu: kolokazioak (*ondorioak atera, emaitzek erakutsi, lagin adierazgarri, emaitza esangarri*) eta diskurtso-formulak (*ondorio modura esan daiteke*). Diskurso-formula polilexikoak (*lexical bundles*) ez ezik (*lan ho-*

⁵ Erabat gardenak diren adierazpideak konposizionalak ere badira, baina alderantzizkoa ez da egia. Adibidez, gaztelaniazko *con respecto a* '-i dagokionez' erabat konposizionala da, baina *respectar* aditzaren esanahia ez dakiten hiztunek ezin dute ondorioztatu adierazpidearen esanahia, ikasten ez badute (Alonso-Ramos *et al.* 2017).

nen helburua da, oro har, labor esanda), diskurtso-formula monolexiko polimorfemikoak ere hartu ditugu kontuan: *laburbilduz*, *-i dagokionez*, *-z gain*).

Artikulu honetan, *HARTA*eus corpusetik lortutako datu batzuk eskainiko ditugu. Bigarren atalean lexiko akademikoaz eta kolokazioez arituko gara. Hirugarren atalean, diskurtso-formula akademikoak izango ditugu hizpide. Laugarren atalean, nominalizazioaz eta gertaera-izen eratorrien banaketa morfopragmatikoaz arituko gara. Azken atalean ondorioak laburbilduko ditugu.

2. LEXIKO AKADEMIKOA ETA KOLOKAZIOAK

Lexiko akademikoaren zerrendek testu akademikoen hiztegi-elementu bereizgarriak biltzen dituzte: hizkuntza baten maiztasun handieneko lexikoan ageri ez diren edo testu akademikoetan maiztasun bereizgarriaz erabiltzen diren hiztegi-elementuak. Hortaz, lexiko-zerrenda akademikoak diziplina artekoak izaten dira, eta diziplina bakoitzaren berariazko terminoak alde batera uzten dituzte (Cohead 2000, Drouin 2007, Gardner & Davies 200; García Salido 2021). Hasiera batean, halako zerrendak biltzeko helburua izan zen hizkuntzen helburu akademikoetarako irakaskuntzarako ikastaroak eta materialak prestatzea, baina berrikiago, testu akademikoen idazketarako laguntza-tresnak elikatzeko ere osatzen ari dira horrelako zerrendak (besteak beste, Frankenberg *et al.* 2018, Granger & Paquot 2015, García Salido *et al.* 2018). *HARTA*vas proiektuaren azken helburua da testu akademikoen idazketarako laguntza-tresna elikatzeko baliabide lexikoak biltzea.⁶ Hortaz, lexiko akademikoa hiztegi-elementu akademikoen erabilerari buruzko datuak lortzeko, zenbait elementuren erabileran egon litezkeen arazoak detektatzeko eta kolokazio akademikoak identifikatzeko erabiltzen ari gara.

Euskarazko lexiko akademikoa erauzteko, Elhuyarrek Internetetik bildutako *Dabilena* corpus orokorra (300.217.903 hitz) erabili da kontraste-corpus modura. Corpusaren lau hiperemuetan eta testuen gutxieneko portzentaje batean (testuen % 20tik gora) ageri diren hautagaiei corpusen arteko alderaketak egiteko erabiltzen den *log-likelihood* neurria aplikatu zaie. Ondoren, eskuz aukeratu dira lexiko akademikoaren zerrendarako erreferentziatzen hartu diren elementuak. Horretaz gain, *log-likelihood* negatiboa duten elementu

⁶ *HARTA*vas proiektuaren helburu xehea da euskarazko baliabideak biltzea, baina *HARTA*vasvas proiektu koordinatuaren helburu orokorra da gaztelaniarako eta euskararako baliabideak kontsulta-tresna bakar batean integratzea. Une honetan oraindik garapenean badago ere, *HARTA/TAILA* tresna helbide honetan dago kontsultagai: <http://harta.ixxa.eus/>.

batzuk ere berreskuratu dira, argi eta garbi elementu lexiko akademikoak dira ondorioztatu baita, eta *log-likelihood* negatiboa izateko arrazoiren bat aurkitu baita. Adibide bat da *pauso* / #*pausu* / *urrats* hirukotea. *HARTAeus* corpuseko testuetan *pausu* lemak ia *pauso* lemak beste agerraldi ditu eta *log-likelihood* positiboa (1.176,65), baina agerraldi horiek guztiak ortografia-akatsak dira, ez baitira erabili 'atseden' adierazteko, baizik eta *urrats* lemaren sinonimo modura. *Dabilena* corpusean askoz ere agerraldi gutxiago ditu *pausu* lemak eta, horietako asko *pauso* edo *urrats* izan beharko balira ere, erdia edo Urruñako Pausu auzoari egiten diote erreferentzia. Hartara, *urrats* lemak *log-likelihood* negatiboa (-1,6289) badu ere, lexiko akademikoan kontuan hartzeko modukoa dela pentsatu dugu. Oro har, hiru lema horiekin adierazi nahi den kontzeptuak askoz ere agerraldi kopuru handiagoa du *HARTAeus* corpusean *Dabilena* corpusean baino, eta testu akademikoan elementu bereizgarria dela esan daiteke, beraz.

1. taula

HARTAeus eta *Dabilena* corpusetan *pauso*, *pausu* eta *urrats* lemen agerraldi kopuruen alderaketa

	HARTAeus (agerraldi kopurua / M)	Dabilena (agerraldi kopurua / M)
<i>pauso</i>	182,64	107,42
<i>pausu</i>	176,55	28,82
<i>urrats</i>	156,46	178,74
Guztira	515,65	314,98

Lehen hurbilketatzat hartu behar den prozesuan, 846 elementuko zerrenda osatu dugu: 365 izen, 246 aditz, 182 adjektibo eta 53 adberbio. *Log-likelihood* altuena duten lau kategorietako lehen 20 elementuak jaso dira 2. taulan, alegia, *Dabilena* corpus orokorreko erabileratik gehien urruntzen diren elementu lexikoak. Elementu horietako batzuk egun erabat ezagun eta ohikoak egiten bazaizkigu ere, 70eko hamarkadaren bukaera aldera euskara unibertsitatean sartu berria zenean hasi ziren erabiltzen eta promozionatzen testu akademikoetarako. Esate baterako, zenbait zientzialariren arteko hainbat gogoeta eta eztabaidaren ondoren, *garatu*, *garapen* eta *lagin* erabiltzea sustatu zuen Jose Ramon Etxebarriak 1979 urtean *Anaitasuna* aldizkarian idazten zuen zutabearen (Txurruka 2020: 136-137).

2. taula

Log-likelihood balio handieneko 20 lemak kategoriaren arabera

Izenak	Aditzak	
	HARTAeus F (M)	Dabilena F (M)
irudi	3.570,37	484,32
taula	1.579,56	92,50
lagin	862,99	56,05
kasu	2.552,44	769,94
analisi	933,61	87,09
ekuazio	517,79	17,13
emaitza	1.786,25	450,50
sistema	1.981,68	591,21
atal	1.552,16	402,40
erlazio	665,73	62,82
metodo	737,88	85,73
parametro	418,86	25,47
ezaugarri	1.174,70	303,87
balio	1.384,13	415,57
prozesu	1.555,51	518,40
mota	1.209,10	332,20
modu	2.611,79	1.201,18
aldagai	465,74	42,09
egitura	987,79	240,70
sekuentzia	336,37	19,57
erabili	1.582,30	353,06
aztertu	769,54	115,65
lortu	1.154,91	293,47
kalkulatu	443,52	59,25
definitu	397,86	50,53
burutu	330,89	40,67
aipatu	739,70	241,41
ikusi	220,39	17,97
garatu	521,45	138,97
oinarritu	380,51	79,67
azaldu	601,50	190,01
identifikatu	195,12	20,62
eragin	770,45	331,14
agertu	300,75	66,11
neurtu	192,99	27,16
erlazionatu	245,05	47,13
inplementatu	119,02	8,04
konparatu	150,38	17,94
deskribatu	830,11	421,11
sortu	136,37	15,32
Adjektiboak	Adberbioak	
	HARTAeus F (M)	Dabilena F (M)
ezberdin	1.582,30	353,06
altu	769,54	115,65
desberdin	1.154,91	293,47
ageri	443,52	59,25
baxu	397,86	50,53
teoriko	330,89	40,67
beharrezko	739,70	241,41
maximo	220,39	17,97
digital	521,45	138,97
posible	380,51	79,67
berdin	601,50	190,01
erlatibo	195,12	20,62
egoki	770,45	331,14
esanguratsu	300,75	66,11
total	192,99	27,16
automatiko	245,05	47,13
konstante	119,02	8,04
esperimental	150,38	17,94
hurongo	830,11	421,11
minimo	136,37	15,32
hala	1.538,16	548,08
bezala	2.301,00	1.126,92
zuzen	440,17	64,96
azkenik	622,51	163,80
jarraian	390,86	91,99
egun	568,63	189,26
lehenik	297,10	59,46
behin	748,53	309,73
orokorrean	292,53	58,87
soilik	606,07	265,90
horrela	904,39	524,07
hain	591,76	331,26
honela	301,67	125,40
guztiz	378,07	193,96
nahiko	311,71	146,84
lehendabizi	94,67	20,26
ondoren	1.242,89	937,10
automatikoki	105,32	33,23
aurrerago	79,75	21,71
zehazki	1.75,95	85,50

Testu akademikoetan oso maiz ez dagokien esanahiarekin erabilia ikusten ditugun zenbait elementu ageri dira zerrendan: *pauso-#pausu-urrats; proba / froga; hazkunde /#hazkuntza, balio / balore*. Zerrendako beste elementu batzuk dira erabiltzaileei *a* itsatsiaren inguruko zalantzak sortzen dizkietenak: *garrantzi, emaitza, ordena*. Hortaz, lortutako zerrenda baliagarria da komunikazio akademikoari buruzko ikastaroetan eta material didaktikoetan erabiltzeko.

Gainera, lexiko akademikoaren zerrendatik abiatuta, kolokazio akademikoak lortu ditugu Gurrutxaga & Alegria-ren (2011) eta Gurrutxaga *et al.*-en (2018) neurriak integratuta dituen *Erauztermen* modulua erabiliz. Fraseologiaren tradizioaren arabera, kolokazioak dira harreman sintaktikoa duten hitz-bikoteen **konbinazioak, modu bereizgarrian asimetrikoak direnak**. Konbinazio asimetrikoak direla esan daiteke bikotekideetako baten (oinarriaren *base*) hautapena haren esanahiaren arabera era askean egiten bada ere bestea (kolokatuaren *collocate*) hautapena oinarriak murrizten duelako (Mel'čuk 1995, 1998). Konbinazioaren finkapenaren atzean dago erabilera-maiztasun handia, azkenean instituzionalizaziora eramaten duena, alegia, hiztun-komunitate baten norma bihurtzera.

Lexiko akademikoaren zerrendako elementu batzuek ez dute ematen kolokazio askorik, baina beste batzuk oso emankorrak dira. Asimetria horiek beste hizkuntza batzuetan ere gertatzen dira, eta esan dezakegu euskararako lortu dugun kolokazioen zerrenda konparagarria dela espainolerako lortu denarekiko (Aranzabe *et al.* 2022). *Emaitza* izenaren kolokazioak ikus daitezke 3. taulan.

Nolanahi ere, zenbaitetan diskurtso-komunitate akademikoetan erabile-ra-maiztasun handia dela eta instituzionalizatzen diren konbinazioak ez dira hiztegietan edo estilo-liburuetan kodifikatzen direnak. Adibidez, zenbait estilo-libururen eta hiztegiaren arabera, *urrats* izena *egin* aditzarekin kolokatzten da (*urratsak egin*). *Dabilena* corpus orokorrean ere, *urratsak egin* kolokazioa (8.735 agerraldi) *urratsak eman* kolokazioari (6.780 agerraldi) gailentzen zaio. *Pauso* izenaren kasuan, aldiz, *pausoak eman* (8.769 agerraldi) da gailentzen dena, eta *pausoak egin* konbinazioak ez du kolokaziotzat hartzeko langa gainditzen. *HARTAeus* corpusean, aldiz, *urratsak eman* eta *pausoak eman* konbinazioek baino ez dute gainditzen kolokaziotzat hartzeko langa. Aipatu beharrekoa da *pauso* izenak *jarraitu* eta *izan* aditzarekin ere ematen dituela kolokazioak *HARTAeus* corpusean eta, *urrats* izenak, aldiz, *eman* aditzarekin baino ez duela ematen kolokaziorik. *Dabilena* corpus orokorra askoz ere handiagoa da, eta askotariko kolokazioak ematen ditu *urrats* izenak corpus horretan, baita *jarraitu / jarraiki* aditzarekin ere. Erabileraren erabileraz finkatzen doazen joera idiosinkratikotzat har daitezke horiek, eta ez dirudi justifikatuta dagoenik testu akademikoetan *urratsak egin* kolokazioaren aldeko borroka sutsua egitea.

3. taula

Emaitza izenaren kolokazioak *HARTAEUS* corpusean,
maiztasunaren arabera antolatuta

Oinarria	Kolokatuak	
	Aditzak	
emaitza	ABS	izan, lortu, eman, aztertu, ikusi, hobetu, aurkeztu, erakutsi, azaldu, alderatu, jaso, konparatu, etorri, adierazi, analizatu, interpretatu, gainditu, ebaluatu, eskuratu, agertu, eskaini, hartu, baieztatu, behatu, erabili, kalkulatu, ulertu, kalkulatu, bildu, osatu, jaso
	ERG	erakutsi
	DAT	erreparatu, egokitu
	INES	ikusi, oinarritu, eragin, azaldu, islatu, baloratu, agertu
	SOZ	alderatu, konparatu
	ABL	abiatu, ondorioztatu
	Adjektiboak	
emaitza	on, hobe, orokor, positibo, egoki, zehatz, esperimental, negatibo, esanguratsu, adierazgarri, oker, analitiko, altu, global, interesgarri, nagusi, teoriko, ekonomiko, onargarri, hurbildu, baxu, kaxkar, argi, hobeago, txar, zuzen, fidagarri, garrantzitsu, kuantitatibo, erabilgarri, hoberen, fisiko	
	Izenak	
emaitza	analisi, interpretazio, azterketa, kartografia, fidagarritasun, konparaketa, zehaztasun, kalitate, deskribapen, lorpen, ondorio, estaldura	

Nolanahi ere, corpuseko datuak aztertuta, ikus daiteke ikasleen testuetan ohikoak diren zenbait kolokazio-desbideratze, corpusean kuantitatiboki gailentzen ez badira ere. Adibidez, *emaitzak*(ABS) *adierazi* (19 agerraldi) eta *emaitzek*(ERG) *erakutsi* (37 agerraldi) konbinazio zuzenek kolokaziotzat hartzeko neurriak gaintzen dituzte, baina ikasleen lanetan maiz ageri den eta okertzat hartu behar den *emaitzek*(ERG) *adierazi* (7 agerraldi) konbinazioak ez du gaintzen kolokaziotzat hartzeko langa. Nolanahi ere, euskara akademikoari buruzko ikastaroetan eta idazketarako laguntza-tresnetan kontuan hartu baharko lirateke halako desbideratzeak ere, erabilera okerrak zuzentzen laguntzeko. Izan ere, aditzen semantika lexikoaren desbideratzeak ere badira, eta agramatikaltzat ere har daitezke (Zabala 2003), baina hizkuntzalariak ez diren erabiltzaileentzat errazagoa da zuzenketaz jabetzea kolokazio-desbideratze modura azalduta desbideratze sintaktiko-semantiko modura azalduta baino.

3. FORMULA AKADEMIKOAK

Kolokazioek eta formulek zenbait ezaugarri komun dituzte, besteak beste, erabilera-maiztasuna eta elementuen hautapenaren murrizketak, baina desberdinak dira beste ezaugarri batzuei dagokienez. Hasteko, kolokazioak bi elementuko unitate fraseologikoak izaten dira, eta elementu horiek maiz ez dira jarraian agertzen diskurtsoan. Adibidez, *emaitza* izenak kolokazioa osatzen du *lortu* aditzarekin, nahiz eta batzuetan bi elementuak elkarrengandik urrun egon: **emaitzak** modu «*automatizatuago*» batean **lortu** nahi izan *ditugu*. Formulak, aldiz, diskurtsoaren zati jarraituak dira, eta askotan bi osagai baino gehiago dituzte. Formulak identifikatzeko, n-gramak (2-5 osagaiakoak) erazten dira, eta maiztasun-atalase bat gainditzen duten eta diskurtso-funtzio jakin batekin lot daitezkeen hitz-multzoak hautatzen dira. Corpus-hizkuntzalaritzaren tradizioan *lexical bundle* deritze hitz-multzo horiei, eta ohikoena izaten da atalasea izatea 10 agerraldi milioi bat hitzeko (Biber *et al.* 1999). HARTAVas proiektuan García-Salido *et al.*-en (2019) diskurtso-funtzioen sailkapena erabili da, Biber *et al.*-en (2004) eta Hyland-en (2008) sailkapenean oinarrituta dagoena, baina xeheagoa eta kontsulta-tresnaren erabilizaileentzat ulerterrazagoa dena. Guztira 39 diskurtso-funtzio erabili dira hiru bloketan banatuta. Ikus 4. taula. Azpimarratu beharrekoa da diskurtso-funtzio guztietarako formulak erauzi direla ondo garatutako hizkuntzetarako erabilitako mugak erabiliz: 10 agerraldi milioi bat hitzeko. Beste hizkuntza batzuetan ohikoa den bezala, bi hitzeko formulak dira ugarietak.

Erauzketa-modu horrekin bat datozen formula batzuen adibideak eta esleitu zaien diskurso-funtzioa dira hurrengo hauek: *aipatu bezala*, *aurretik aipatu den bezala* (Diskursoaren beste atal batera bideratzea), *aipatu beharrekoa da*, *azpimarratzekoa da* (Zerbait azpimarratzea edo nabarmentzea), *beste modu batera esanda* (Birformulatzea), *horrek ez du esan nahi* (aurkaritza adieraztea), *zenbat eta* (Korrelazioa adieraztea), *lan honen helburu nagusia da* (Helburuak aurkeztea), *besteak beste* (Adibideak ematea).

Nolanahi ere, zenbait formula monolexiko plurimorfemiko ere identifikatu dira (42 formula). Hona hemen adibide batzuk: *laburbilduz* (Laburbiltzea), *ondorioz* (Ondorioa adieraztea), *-i dagokionez* (Gai bat sartzea), *bestalde* (Informazioa gehitzea), *askotan* (Maiztasuna adieraztea).

Kontsulta-tresnari eta irakaskuntza-materialei begira, bi atal ez-jarraitu uztartzea eskatzen duten formula batzuen kasuan, atal biak aipatzea komeni dela uste dugu, corpusean maiz desegokiro erabilia ikusten baitira: *alde batetik ...bestetik* /*#bestalde* (Ordenatzea/Informazioa gehitzea); *zenbat eta* /*#gero eta...* /*orduan eta* (Datuen korrelazioa / progresioa adieraztea). Ohikoak diren beste akats batzuk ere identifikatu dira, adibidez, ortografia-akatsak (*kontutan hartu behar da*, *gutxi gora behera*, *pausuak eman -> kontuan hartu behar da*, *gutxi gorabehera*, *pausoak eman*), izen-kohesioaren akatsak

(*honek ez du esan nahi -> horrek ez du esan nahi*), hitz-hurrekera desegokiak (*lan honen helburua [...] da -> lan honen helburua da ...*), desegokitasun semantikoak (*hau da* formula kausa adierazteko erabiltzea, birformulaziorako erabili beharrean).

4. taula

*HARTA*eus corpusetik erauzitako diskurtso-formula akademikoei esleitutako diskurtso-funtzioen sailkapena

Testua egituratzea	Ikerketaren edukiari erreferentzia egitea	Iritzia ematea eta irakurleari zuzentzea
Informazioa gehitzea	Definitzea eta deskribatzea	Baieztapenak moteltzea
Konparatzea	Denominatzea	Beharra adieraztea
Mugatzea	Konparatzea	Ebaluazio bat adieraztea
Adibideak ematea	Taldeak ezartzea	Zerbait azpimarratzea edo nabarmentzea
Kausa adieraztea	Kantitatea adieraztea	Ziurtasuna adieraztea
Baldintza adieraztea	Datuen arteko korrelazioa adieraztea	Iturria aipatzea
Ondorioa adieraztea	Maiztasuna adieraztea	Posibilitatea adieraztea
Aurkaritza adieraztea	Datuen balioen progresioa adieraztea	
Kontzesioa adieraztea		
Lanari erreferentzia egitea	Denbora adieraztea	
Gai bat sartzea	Datuak aurkeztea	
Alternatiba bat aurkeztea	Ikergeraia aurkeztea	
Salbuespen bat sartzea	Hipotesiak aurkeztea	
Ordenatzea	Metodologia aurkeztea	
Diskurtsoaren beste atal batera bideratzea	Ondorioak aurkeztea	
Birformulatzea	Helburuak aurkeztea	
Laburbiltzea		

Unitate fraseologikoen ezaugarri bat da elementuen hautapen-askatasunaren murrizketa. Adibidez, *helburu* eta *xede* izenak erdisinonimoak badira ere, *helburu* izena daramaten 9 formula eta 15 kolokazio detektatu ditugu, baina ez dugu detektatu *xede* izena daraman inolako konbinazio lexiko akademikorik, *xede* lemak corpusean 404 agerraldi baditu ere. Hortaz, lanaren helburuak azaldu behar direnan, *lan honen helburua da* bezalako formulak

askoz ere hedatuago daude erabileran, #*lan honen xedea da* segida baino eta, beraz, egokiagozat har daitezke testu akademikoetarako.

4. NOMINALIZAZIOA ETA GERTAERA-IZENAK

Erregistro akademikoez ari garelarik, ezin dugu aipatu gabe utzi nominalizazioaren gaia. Izan ere, erregistro horien garapenean eragiteko helburua duten zenbait estilo-liburutan, nominalizazioa arazotzat hartzen da, erdara traskeski imitatuz «berezko euskal testuen» sistema bortxatzen duena (Alberdi & Sarasola 2001: 223-224; Garziak 2005: 86). Aholku horiek normalean ez dute kontuan hartzen nominalizaziorako joera gramatika-sistemearekin baino areago estiloarekin lotutako ezaugarria dela eta edozein hizkuntzatan erregistroetan zeharreko aldakortasun handia erakusten duela (Azpiazu 2004).

Nominalizazioa funtsezko eragiketa da jakintza eraikitzea eta transmititzea helburu duten diskurtso akademikoetan. Izan ere, nominalizazioaren bitartez lortzen den trinkotze eta abstrakzioari esker, kontzeptu konplexuak objektuak bailiran trata daitezke diskurtsoan (Iturrioz 2000). Ildo horretatik, oro har onartutako ideia da diskurtso akademikoez diskurtso orokorrekin baino gehiago ustiatzen dituztela izenak, eta idatzizko erregistroek ahozkoekin baino areago ustiatzen dutela nominalizazioa (besteak beste, Kocourek 1991, Biber *et al.* 1999, Biber 2006, Azpiazu 2004, Parodi & Venegas 2004, Castelló 2007, Zabala & Elordui 2010). Ideia hori frogatzen duten datu kuantitatiboak ere eskaini dira. Adibidez, Biber-ek (2006) *Longman Spoken and Written English Corpusean* 300.000 izen aurkitu ditu milioi bat hitzeko azpicorpus akademikoan eta, ahozko corpusean, aldiz, 150.000 izen milioi bat hitzeko. Ehunekoe-tan emanda, kalkulatu du azpicorpus akademikoaren esanahidun hitzen % 60 inguruan izenak direla. Areago, diskurtso akademiko idatziek diskurtso orokorrek eta ahozkoekin baino izen gehiago ez ezik, izen-sintagma luzeagoak ere erabiltzen dituzte (besteak beste, Kocourek 1991, Biber 2006, Quiroz 2008).

Nominalizazio deritzen fenomenoak oso konplexuak dira eta hizkuntzaren azterketa-maila guztietan (morfologia, sintaxia eta diskurtsoa, semantika eta pragmatika) azaleratzen dira horien aztarnak (Iturrioz 2000: 33). Maila horiek guztiak konektatuta daude eta, azken batean nominalizazio-estrategietara jotzeko motibazioa diskurtso-beharretatik sortzen bada ere, aditzetiko izenak (*azterketa*, *joera*, *antolakuntza*, *gainezarmen*, *zabalkunde*, *hartzaile*, *hondakin*, *neurgailu*...) eta adjektiboak (*desiragarri*, *disolbagaitz*, *emankor*, *eginkizun*...) behar semantiko-pragmatiko horien azken kristalizazioa dira: diskurtso-komunitateen barruko interakzio diskurtsiboen emaitza.


Euskarak, hizkuntza eranskarietan ohikoa den bezala, atzizki eratorle ugari ditu eta, erregistro akademikoaren garapenarekin lotuta, arreta berezia erakarri dute gertaera-izenek, atzizki ugari baititu euskarak horrelako izenak

sortzeko: *-era*, *-keta*, *-kuntza*, *-men/-pen/-mendu*, *-dura*, *-tza*, *-kunde*, *-zio* edo *-tze*. Estilo-liburuetan bi kezka aipatu ohi dira horien inguruan: a) Aditzean edo aditz-izenean (*apurtu*, *apurtze*) oinarritutako egiturak «egokiagoak» dirateke, aditzetiko izenetan (*apurketa*) oinarritutakoak baino. b) Aditzetiko izenetarako erabiltzen diren atzizkietan aldakortasun asistematikoa handia eta eraketa oker ugari bide daude. Hizkuntzalariek morfologia-eraketaren eta semantikaren ikuspuntutik aztertu dituzte, batez ere, gertaera-izenak (Azkarate 1991, 2008; Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea 2021). Azkaratek (2008), adibidez, atzizki emankorrenak hartzen duten oinaren eta eratorriaren semantikaren karakterizazioa egin du: *-era* atzizkiak *da* laguntzailea hartzen duten aditzekin konbinatzeko joera du (*etorrera*, *egoera*, *bilakaera*), baina zenbait aditz iragankorrekin ere elkartzten da (*idazkera*, *erabilera*...), eta kopapena, mugimendua, egoera, egoera-aldaketa edo modua adierazten duten izenak sortzen ditu. *-keta* atzizkia, aldiz, aditz iragankorrekin elkartzten da batez ere, baina ez predikatu psikologikoekin edo ez-ergatiboekin (*erosketa*, *erakusketa*, *prestaketa*). Azkenik, *-men/-pen/-mendu* atzizkia batez ere aditz psikologikoekin elkartzten da (*miresmen*, *gaitzezpen*, *adierazpen*).

Erregistroetan zeharreko aldakortasunaren ikuspuntutik egindako beste ikerketa batzuek, aldiz, agerian utzi dute faktore morfopragmatikoen eragin nabarmena dutela atzizki eratorleen emankortasunean, eta erregistroen bereizgarriak ere izan daitezkeela (Gallegos 2000; Lersundi *et al.* 2008; Guz 2009; San Martín *et al.* 2010). Ildo horretatik, aztertu dugu *HARTAEUS* corpusen gertaera-izenak sortzen dituzten atzizkien emankortasuna lau hipereeremuetan. Diskurtso-komunitate akademikoetan partekatzen eta finkatzen doazen balia bideak identifikatu nahi izan ditugu eta, beraz, 10 agerraldi milioi bat hitzeko baino agerraldi kopuru txikiagoa duten izenak baztertu ditugu, joera orokorretatik urruntzen diren erabilera indibidualak baztertzearren. Joera orokortzat hartu ohi denarekin bat etorrira (Azkarate 2008), *-zio*, *-keta* eta *-pen* atzizkiak dira emankorrenak corpus akademikoaren lau hipereeremuetan ere. Lemen banaketari dagokionez, aldea oso handia ez bada ere, badirudi Zientzia Fisikoetan eta Biologia eta Osasun Zientzietan oso antzera banatzen direla atzizkiak, eta Arteak eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak, aldiz, apur bat urruntzen direla horien joeratik: *-zio*, *-keta*, *-pen* eta *-dura* emankorra goak dira Zientzia Fisikoetan eta Biologia eta Osasun Zientzietan eta, *-era*, *-tza* eta *-men* atzizkiak, aldiz, apur bat emankorra goak Arte eta Humanitateetan eta Gizarte Zientzietan.


Agerraldi kopuruari ereparatuta, aldiz, ikus daiteke Zientzia Fisikoak gailentzen direla *-zio* atzikiaren erabileran, eta *-keta* atzikiaren erabileran, aldiz, behera egiten dutela, eta Arte eta Humanitateekin partekatzen direla. Biologia eta Osasun Zientziak gailentzen dira *-keta* atzikiaren erabileran, eta Arte eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak nabariki gailentzen dira *-era*, *-kuntza* eta *-men* atzizkien erabileran. Joera batzuk ikus badaitezke ere, kata txiki hau lehen hurbilketa bat baino ez da: espezialitate-alor xeheago-

tan zeharreko banaketa aztertu behar da, atzizki batzuk edo beste batzuk us-tiazteko motibazio semantiko-pragmatikoak detektatzeko.



1. irudia

Gertaera-izenak sortzen dituzten atzizkien emankortasuna
HARTAeus corpusaren lau hipereremuetan, ematen duten lema kopuruen arabera



2. irudia

Gertaera-izenak sortzen dituzten atzizkien emankortasuna
HARTAeus corpusaren lau hipereremuetan,
 agerraldi kopurua/ M, 10 agerraldi/M baino gutxiago dituztenak baztertuta

5. ONDORIOAK

Artikulu honetan, GrAL eta MAL testu-generoez osatutako *HARTAeus* corpusa (3.285.098 hitz) aurkeztu, eta erregistro akademikoen garapena aztertzekeo baliagarria dela defendatu dugu. Lexiko akademikoa, kolokazio akademikoak eta diskurtso-formula akademikoak erauzi ditugu corpusetik, ondo garatutako hizkuntzetarako erabili ohi diren neurriak eta atalaseak erabiliz. Hortaz, esan daiteke testu akademikoen idazketarako gako diren eraikuntza-bloketzat hartzen diren konbinazio lexiko akademikoak neurri batean behintzat garatuak direla euskaraz.

Gertaera-izenak sortzen dituzten atzizkiek *HARTAeus* corpusaren lau hipereremuetan (Arteak eta Humanitateak, Biologia eta Osasun Zientziak, Zientzia Fisikoak eta Gizarte Zientziak) duten emankortasuna ere aztertu dugu, eta zenbait joera antzeman daitezkeela erakutsi dugu. Garbi dago, ordea, joera morfopragmatiko sendoak antzemateko askoz ere azterketa xeheagoak egin behar direla.

Egin ditugun azterketak euskararen erregistro akademikoen ikerketarako lehen urratsak baino ez dira, etorkizunerako ikerketa-ildoak zabaldu nahi dituztenak.

6. BIBLIOGRAFIA

- Amorrortu, Estibaliz, Ane Ortega & Jone Goirigolzarri. 2017. Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 104(3). 11-49.
- Alberdi, Xabier & Ibon Sarasola. 2001. *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Alonso-Ramos, Margarita, Marcos García-Salido & Marcos García. 2017. Exploiting a Corpus to Compile a Lexical Resource for Academic Writing: Spanish Lexical combinations. In Iztok Kosem, Jelena Kallas, Carole Tiberius, Simon Krek, Miloš Jakubíček & Vit Baisa (arg.). *Electronic lexicography in the 21st century. Proceedings of eLex 2017 conference*, 571-586. Leiden (the Netherlands).
- Aranzabe, Maria Jesús, Antton Gurrutxaga & Igone Zabala. 2022. Compilación del corpus académico de noveles en euskera HARTAeus y su explotación para el estudio de la fraseología académica. *Procesamiento del Lenguaje Natural* 69. 95-103.
- Azkarate, Miren. 1991. *Irakaskuntza Proiektua*. Euskal Filologia Saila. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. UPV/EHU. (Argitaragabea).
- Azkarate, Miren. 2008. Gertaera- eta emaitza-izenak. In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.). *Gramatika jaietan. Patxi Goneagaren omenez*, 93-106. Bilbo: ASJU gehigarriak. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Azpiazu, Susana. 2004. *Las estrategias de nominalización*. Frankfurt: Peter Lang.
- Biber, Douglas, Stig Johanson, Geoffrey Leech, Susan Conrad, & Fenegan Edward. 1999. *Longman Grammar of Spoken and Written English*. Harlow: Pearson.

- Biber, Douglas, Susan Conrad & Viviana Cortes. 2004. *If you look at...: lexical bundles in university teaching and textbooks*. *Applied Linguistics* 25 (3). 371-405.
- Biber, Douglas. 2006. University Language. A corpus-based study of spoken and written registers. Amsterdam: John Benjamins.
- Biber, Douglas & Susan Conrad. 2009. *Register, Genre, and Style*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Cabré, Maria Teresa. 2003. Terminología y normalización lingüística. In Xabier Alberdi, Iñaki Ugarteburu & Pello Salaburu (arg.). *Espezialitate hizkerak eta terminologia jardunaldiak*, 11-25. Bibo: UPV/EHuko Argitalpen Zerbitzua.
- Castelló, Montserrat. 2007. Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Barcelona: Graó.
- Coxhead, Averil. 2000. A New Academic Word List. *TESOL Quarterly* 34 (2). 213-238.
- De Cock, Silvie, Sylviane Granger, Geoffrey Leech & Tony Mc Enery. 1998. An automated approach to the phrasicon of EFL learners. In Sylviane Granger (arg.). *Learner English on Computer*, 67-79. Londres: Addison, Wesley, Long.
- Drouin, Patrick. 2007. Identification automatique du lexique scientifique transdisciplinaire. *Revue Française de Linguistique Appliquée* 12 (2). 45-64.
- Durrant, Philip. 2013. Formulaicity in an agglutinating language: the case of Turkish. *Corpus Linguistics and Linguistic Theory* 9(1). 1-38.
- Erman, Britt & Beatrice Warren. 2000. The idiom principle and the open choice principle. *Text-Interdisciplinary Journal for the Study of Discourse* 20. 29-62.
- Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea. 2021. *Euskararen Gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Frankenberg-Garcia, Ana, Robert Lew, Jonathan C. Roberts, Geranti Paul Rees & Nirwan Sharma. 2018. Developing a writing assistant to help EAP writers with collocations in real time. *ReCALL* 31 (1). 23-39.
- Gallegos, Alfonso. 2000. Morfología y registro. Algunas relaciones entre tradiciones discursivas y morfología derivativa nominal en español. *Función* 21-24. 142-215.
- Granger, Sylviane & Magali Paquot. 2015. Electronic lexicography goes local: Design and structures of a need-driven online academic writing aid. *Lexicographica: International Annual for Lexicography* 31 (1). 118-141.
- García Salido, Marcos, Marcos García, Milka Villayandre & Margarita Alonso-Ramos. 2018. A Lexical Tool for Academic Writing in Spanish Based on Expert and Novice Corpora. In *Proceedings of the Eleventh International Conference on Language Resources and Evaluation*, 260-265.
- García Salido. 2021. Compiling an Academic Vocabulary List of Spanish. DOI:10.13140/RG.2.2.27681.33123
- Gardner, Dee & Mark Davies. 2004. A new academic vocabulary list. *Applied Linguistics* 35 (3). 305-327.
- Garzia, Juan. 2005. *Kalko okerrak*. Ikasmaterialen Aholku Batzordea. Estilo-liburua-aren bigarren atala. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Gurrutxaga, Antton & Iñaki Alegria. 2011. Automatic extraction of NV expressions in Basque: basic issues on cooccurrence techniques. In *Proceedings of the Workshop on Multiword Expressions: from parsing and generation to the real world*, 2-7.
- Gurrutxaga, Antton, Iñaki Alegria & Xabier Artola. 2018. Caracterización computacional de la idiomática: aplicación a la combinación nombre+verbo en eus-

- kera. In Ruiz Miyares, L. (arg.). *Estudios de Lexicología y Lexicografía. Homenaje a Eloína Miyares Bermúdez*. Santiago de Cuba (Cuba).
- Guz, Wojciech. 2009. English Affixal Nominalizations Across Language Registers. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics* 45(4). 461-485.
- Hyland, Ken. 2008. As can be seen: lexical bundles and disciplinary variation. *English for Specific Purposes* 27 (1). 4-21.
- Hymes, Dell. 1974. *Foundations in Sociolinguistics: An Ethnographic Approach*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Iturrioz, José Luis. 2000. Diversas aproximaciones a la nominalización. De las abstracciones a las macrooperaciones textuales. *Función* 21-24. 32-140.
- Kocourek, Rostislav. 1991. Textes et termes. *Meta* 36 (1). 71-76.
- Labov, William. 1974. *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Laurén, Christer, Johan Myking, & Heribert Picht. 2002. Language and domains: a proposal for a domain dynamics taxonomy. *LSP & Professional Communication*. Vol 2 (2).
- Lersundi, Mikel, Igone Zabala & Agurtzane Elordui. 2008. Aditzetiko izenen emankortasunaren azterketa morfopragmatikoa euskarazko corpus orokor eta berezitueta. In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.). *Gramatika jaietan. Patxi Goneagaren omenez*, 491-506. Bilbo: ASJU gehigarriak. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Mel'čuk, Igor. 1995. Phrasemes in Language and Phraseology in Linguistics. In Martin Everaert, Erik-Jan van der Linden, André Schenk & Rob Schreu (arg.). *Idioms: Structural and Psychological Perspectives*, 167-232. Hillsdale: Lawrence Erlbaum Associates.
- Mel'čuk, Igor. 1998. Collocations and Lexical Functions. In Anthony Paul Cowie (arg.) *Phraseology. Theory, Analysis and Applications*, 23-53. Oxford: Clarendon Press.
- Mel'čuk, Igor. 2015. Clichés, an Understudied Subclass of Phrasemes. *Yearbook of Phraseology* 5. 35-50.
- Nam, Kilin, Hyun-ju Song, & Jun Choi. 2016. A morpheme-based analysis of lexical bundles in Korean: an interface between corpus-driven approach and lexicography. *Lexicography. Journal of ASIALEX* 3. 39-62.
- Öksüz, Doğuş Can. 2019. Collocational processing in typologically different languages, English and Turkish: Evidence from corpora and psycholinguistic experimentation. PhD. Lancaster University.
- Paquot, Magali. 2018. Phraseological Competence: A Missing Component in University Entrance Language Tests? Insights from A Study of EFL Learners's Use of Statistical Collocations. *Language Assessment Quarterly* 15 (1). 29-43.
- Parodí, Giovanni & René Venegas. 2004. Bucólico: Aplicación computacional para el análisis de textos: Hacia un análisis de rasgos de la informatividad. *Literatura y Lingüística* 15. 223-257.
- Quiroz, Gabriel Ángel. 2008. Los sintagmas nominales extensos especializados en inglés y en español: descripción y clasificación en un corpus de genoma. Doktorretza-tesia. Universitat Pompeu Fabra.
- San Martin, Itziar, Joseba Ezeiza & Igone Zabala. 2010. Aditzetiko izenak erregistro bereizle gisa: corpus espezializatu baten azterketa morfopragmatikoa. In Xabier

- Alberdi & Pello Salaburu (arg.). *Euskararen garapena esparru akademikoetan*, 224-242. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Seoane, Elena & Douglas Biber. 2021. A corpus-based approach to register variation. In Elena Seoane & Douglas Biber (arg.). *Corpus-based Approaches to Register Variation*, 2-16. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Siyanova-Chanturia, Anna. 2015. On the «holistic» nature of formulaic language. *Corpus Linguistics and Linguistic Theory* 11. 285-301.
- Tutin, Agnès & Marie-Paule Jacques. 2018. Le lexique scientifique transdisciplinaire: une introduction. In Agnès Tutin & Marie-Paule Jacques (arg.). *Lexique transversal et formules discursives des sciences humaines*, 1-26. ISTE Editions.
- Txurruka, Jesus Mari. 2020. Nola sartu zen euskara Zientzi Fakultatean. In Jacinto Iturbe, Jesus Mari Txurruka & Aitor Castañeda (arg.). *Amets bikoitza. Euskara zientifikotzea eta zientzia euskaratzea*, 57-190. Bilbo: UPV/EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Villayandre, Milka. 2018. «HARTA» de noveles. Un corpus de español académico. *CHIMERA. Romance Corpora and Linguistic Studies* 5(1).131-140.
- Zabala, Igone. 2003. Causation and Semantic Control. Diagnosis of Incorrect Uses in Minorized Languages. In Bernard Oiharçabal (arg.), 255-284. *Inquiries into the Lexicon-Syntax Relations in Basque*. Bilbo: ASJU.
- Zabala, Igone. 2019. The Elaboration of Basque in Academic and Professional Domains. In Grenoble, Leonore, Pia Lane & Unn Røyneland (arg.) & Ivan Igartua & Lourdes Oñederra (euskal arg.). *Linguistic Minorities in Europe Online*. De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/lme.9612443>
- Zabala, Igone. 2021. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren ekarpena lexiko espezializatua- ren eta ez-espezializatua- ren harmonizazioan. In Andres Urrutia (arg.). *Arantzazutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa: 1968-2018. IKER 40*, 285-299. Bilbo-Madrid-Frankfurt: Euskaltzaindia-Iberoamericana Vervuert.
- Zabala, Igone & Agurtzane Elordui. 2010. Nominalizazioa estrategia diskurtsibogisa: corpus akademikoaren azterketaren beharra. In Xabier Alberdi & Pello Salaburu (arg.). *Euskararen garapena esparru akademikoetan*, 224-242. Bilbo: UPV/EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Zabala, Igone, Mikel Lersundi, Igor Leturia, Iker Manterola & Gotzon Santander. 2013. GARATERM: euskararen erregistro akademiko- en garapenaren ikerketarako lan-ingurunea. Xabier Alberdi & Pello Salaburu (arg.). *Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*, 98-114. Bilbo: UPV/EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Zabala, Igone, Itziar San Martin & Mikel Lersundi. 2014. Linguistic and sociolinguistic factors that influence the detection, implantation and circulation of natural terminology in academic uses of Basque. In Pascaline Dury, Jose Carlos de Hoyos, Julie Makri-Morel, François Maniez, Vincent Renner & Maria Belén Villar Díaz (arg.). *La néologie en langue de spécialité. Neology in specialized languages. La neología en lengua de especialidad*, 141-164. Lyon: Publications du CRTT.

Gehiago Hirugarren Zelestinako euskal pasarteez: Leideneko eta Municheko aleak (1536)¹

Eneko Zuloaga*, Dorota Krajewska**

Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Lan honek Gaspar Gómez de Toledoren *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina* (1536) erdal liburuan txertatutako euskarazko materialak aurkezten eta iruzkintzen ditu; zehazki, XX. mendearen hasieraz geroztiko euskal tradizioan *Perutxoren kanta* deitu izan dena eta zenbait aututan barreiatutako euskal hitzak. Testu gehienak aurretik ere landu izan dira euskalarien artean; baina, besterik ezagutzen ez zela-eta, bigarren ediziotik abiatuta egin dira edizio-azterketak. Lan honetan, berriz, Leideneko eta Municheko biblioteka banatan dautzan *editio princeps*ak izan ditugu abiapuntu: materialen edizioa presatzearekin batera, aurreko ikertzaileek ezagutu gabeko hitzen bat gehitu dugu, eta testuko euskara Arabakoa izan daitekeelako zantzuak daudela proposatu.

Hitz gakoak: euskal testuak; filologia; mendebaleko euskara; euskara arkaikoa.

1. SARRERA

1.1. Euskara Arkaikoko (1400-1600; ikus Mounole & Lakarra 2018) testuen corpusari begiratuta, erraz antzematen zaio halako aniztasun bat testu-generoei dagokienez: orrialde gehienak testu erlijiosoen hartzen badituzte

* Eneko Zuloaga. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, z/g (01006 Vitoria-Gasteiz). eneko.zuloaga@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0003-2579-6327>.

** Dorota Krajewska. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, z/g (01006 Vitoria-Gasteiz). dorota.krajewska@ehu.eus. <https://orcid.org/0000-0002-6909-985X>.

¹ Lan honek honako ikerketa-talde eta -proiektu hauen babesa izan du: «Monumenta Linguae Vasconum VI: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, PID2020-118445GB-I00) eta «Lingüística diacrónica, tipología e historia del euskera» (Eusko Jaurlaritza, IT1534-22).



ere, errefrauak, poemak, Erdi Aroko oihartzuna dakarten kantu-pasarteak, historialarien kronika eta lanetan tartekatutako material linguistikoak, ezkon-tza-zinak, auzibideetan barreiatutako hitz eta esaldiak, gutun pribatuak eta li-teratur lan erdaldunetan txertatutako euskal pasarteak aurki daitezke, besteak beste. Hain zuzen, Miren Azkarate irakaslea omentzea helburu duen lan ho-nek azken testu-mota horri heltzen dio, eta tradizioz *Perutxoren kanta* deitu izan dena du langai: testua dagokion obran eta testuinguruan kokatzen da, lehenbizi, eta testuaren edizioa eta iruzkin linguistikoa ematen dira, ondoren.

Arestian aipatutakoarekin bat etorriz, XVI. mendeko euskal testuen bil-duman bada azpi-sorta bat, erdal tradizioetako literatur lanetan txertatutako euskarazko hitz, esaldi edo kantuek osatzen dutena. Gehienbat Frantziako (bakan) eta Espainiako (batez ere) tradizioetako obretan aurki daitezke testu horiek, hala nola Rabelaisen *Pantagruelen* bigarren liburukian (1542; ikus TAV §3.2.5), Torres Naharoren *Comedia Tinelarian* (ca. 1513; ikus TAV §3.2.1), Martín de Santanderren *Rosabella* komedian (1550; ikus Ibi-sate 2001 eta Altuna 2001), Lope de Vegaren *Los ramilletes de Madrid* an-tzerki-lanean (ca. 1615; ikus TAV §3.1.23) edo hemengo aztergai nagusia dakarren Gómez de Toledo ia ezezagunaren *Tercera parte de la tragicome-dia de Celestina* (1536).

1.2. Ezagun da Espainiako Urrezko Mendeko literatur lanetan modako bihurtu zela *vizcaíno* delako pertsonaia *rústicoa*; alegia, bigarren edo hiru-garren mailako zereginak betetzen dituen zerbitzari euskalduna, gaztela-nia (edo, hobeto, *espacuençe* deitu izan den sasi-hizkuntza hibridoia; ikus Fernández 1996 eta Cid 2013) gaizki hitz egiteaz gain, bere diskurtsoan euskarazko hitz, esaldi edo kanta laburrak tartekatzen dituen. XVI.-XVII. eta XVIII.-XIX. mendeetako *bizkaitaren* karikatuzazioak bereizi beharraz, ikus Castillo & Ramírez (2008).

Aspaldirik (ikus Legarda 1953, Penas 1993, Etxague 2012) aztertutako pertsonaia estereotipatua da *bizkaitarra*, erabat topikoa, parodikoa eta kari-katureskoa, eta karakterizazioa hizkuntzaren erabileran islatzen da. Urrezko Mendeko *bizkaitaren* gaztelaniaren ezaugarri nagusia morfosintaxi itxural-datua edo desitxuratua da, funtsean (Frago 1986, Ramírez 2002, Castillo & Ramírez 2008): ezaugarri morfosintaktiko gutxi batzuk nahiko dira irakurleak pertsonaia topikoa identifikatu eta irrigai bihur dezan (Castillo & Ramírez 2008). Hain zuzen, aurreko ezaugarriak ditu *Tercera parte de la tragicome-dia de Celestina*ko pertsonaiak, *Perutxo* izeneko *bizkaitarak*, bere ugazabaren zaldia garbitzen eta atontzen diharduen zaldi-zainak. Hispanisten artean *Hirugarren Zelestina* deitzen duten lanean, Perutxok, gaztelania traketsa erabil-tzeaz gain, euskarazko kantutxo bat (edo kantu baten pasarte) eta zenbait hitz ematen ditu; zehazki, Gómez de Toledoren laneko XVI., XVII., XX. eta XXI. ata-letan ageri da Perutxo pertsonaia, eta XVI.ean, XX.ean eta XXI.ean daude euska-razko elementuak. *Perutxoren kanta* deitutakoa Gómez de Toledoren lanaren

XVI. autuan ageri da, maitasun-kanten kutsua du eta Sarasolak (1983: §5.1.4) «Poesía galante vizcaína» deitutakoarekin lot daiteke:

Dentro del exiguu panorama de la literatura profana vasca de los siglos XVI y XVII comienza a perfilarse un ámbito específico que tiene todos los visos de constituir un tímido intento de producción de la literatura de tipo cortesano. Los textos que se van conociendo nos permiten vislumbrar algo de lo que pudo haber sido el Parnaso Cantábrico del que habla Micoleta. (Bijuesca 2008: 68)

Areago, *Perutxoren kantako Lelo lirelo çarayleroba* leloa ez da ezezaguna; cfr. Mikoletaren (1653: 10v) «las coplas de *Lelori-lelori*, que suelen cantar las moças los días festivos, que no entran en la más grave poesía vazongada» azalpena eta Euskara Arkaikoko adibideok: *Refranes y sentencias* 515 *Leloa berri dan artean ayta* (izen gisa); Etxepare 8-22 *Etay lelory bay lelo pota franco vercia vego* eta 15-18 *Etay lelori bai lelo leloa çaray leloa*; Lazarraga B6:1-2 *Ihar, ihar, leloean lelo, / ihar, ihar, leloean*, B32:1-2 *Itai lelo, ibai lelo, / echean aray leloa*; eta Iburguen-Cachopín kronikako *Leloren kantu* apokrifoko 1-1/4 *Lelo y lelo / lelo yl lelo / leloa çarac / yl leloa* (adibide berankorrageotarako, ikus OEH, s.v. *lelo*).

1.3. XV.-XVI. mendeen arteko urteetan goia jo zuen Fernando de Rojas *bachilleraren Celestina* lanak.² Espainiako literatur tradizio zaharreko klasiko kanoniko eta gorenaren artean dago, argitaratu eta berehala arrakasta bete lortu zuen eta horrek beste argitalpen batzuk eta, areago, *Zelestina bigarrenkariak* ekarri zituen:

La Celestina no es sólo el título de una obra literaria, sino el de toda una familia; un tema que, a través del Siglo de Oro, pasa de mano en mano, dándonos la medida y el estilo más típico de cada uno de los autores que lo tratan. El interés por el motivo celestinesco, entre los escritores toledanos y salmantinos del siglo XV y de la primera mitad del XVI, es uno de los más

² Hasieran *Comedia de Calisto y Melibea* deitutako lanaren lehenengo edizioak 1499an eta 1500ean argitaratu ziren Burgosen eta Toledon, hurrenez hurren, nahiz eta adituen eztabaidagai izan den bietan zein jo behar den lehenengotzat: «Cuál de las dos es verdaderamente la *princeps* es cuestión debatida. Teniendo en cuenta las características tipográficas de la edición de Burgos, puede ser atribuida a Fadrique Alemán, pero un escudo del impresor incluido apócrifamente al final plantea algunas dudas acerca de la fecha. Esta edición consta de dieciséis actos con sus «argumentos» o resúmenes introductorios que explican la acción, pero en ella no figuran los textos preliminares ni los finales. La edición de Toledo de 1500 es la primera *Comedia* completa que conocemos, ya que incluye los textos preliminares. [...] La fechación de las primeras ediciones es otro rompecabezas crítico. Rojas debió de añadir sus quince actos a la *Comedia* en 1496, o más tarde, ya que empleó como libro de referencia un *Index* de frases de Petrarca impreso en Basilea en 1496. La *Comedia* debió de imprimirse inmediatamente después, aunque las ediciones de 1499 y 1500 sean las primeras que conocemos; existe, además, una tercera edición, Sevilla 1501, que es similar a la de Toledo» (Severin 2011: 11-12 eta 15).

curiosos fenómenos de la literatura española, prueba del interés permanente y popular que logró conservar este tema esencial en la Edad Media. (Criado del Val 1976: xlvi)

Guztira hiru *Zelestina bigarrenkari* ezagutzen dira, hirurak XVI. mendean lehenengo erdian argitaratuak: Feliciano de Silvaren *Segunda comedia de Celestina* (1534), Gaspar Gómez de Toledoren *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina* (1536) eta Sancho de Muñónen *Tragicomedia de Lisandro y Roselia* (1542). Hiruretan bigarrena interesatzen zaigu hemen, horrek biltzen baititu euskarazko zenbait pasarte *Perutxo* deritzon pertsonaiaren ahotik. Literatur kritikariek nabarmendu izan dutenez, oso informazio gutxi ezagutzen da Gaspar Gómez de Toledori buruz: «De Gaspar Gómez de Toledo sabemos todo lo que el propio autor nos ha querido decir» zioen Criado del Valek (1976: xlvi); alegia, izen-abizenak, sorterrria eta bere obratik erauz daitezkeen informazioak, hala nola Toledoko Gorteko giroari buruzkoak eta autoreak halako prestakuntza literario-kulturala zuelako ideia.

Gómez de Toledoren *Hirugarren Zelestina* Feliciano de Silvaren urte bi lehenago argitaratutako *Segunda comedia de Celestina*ren zordun eta jarraipen da: haren jarraitzaile zen eta hari eskaini zion. Obra bien inprimatzailea eta inprimalekua ere berbera izan zen: Pedro Tovanssek eman zituen, Medina del Campon; ikus xehetasun gehiago Estebanen (2020) lanean. Gómez de Toledoren lanak ez du aparteko grinik eragin literatur kritikarien aldetik: Menéndez y Pelayok (1943 [1907-1910]) gogor kritikatu zuen, ezelako meriturik aitortu gabe ia, eta ondotik etorritako iruzkinak ere ez dira xamurragoak izan, oro har:

Gaspar Gómez aprende bien el uso de las hablas jergales de la *Segunda comedia* a la que continúa, y además lo amplía. Pero no logra añadir ingrediente alguno que dé valor añadido a su obra, sino que la despeña con peripecias de corto vuelo, con incidentes secundarios sin entidad; lo único que podríamos alabarle es que acabe con esta Celestina espuria para que no pudiera seguir por el mundo literario a no ser que alguien se atreviera a resucitarla por segunda vez. (Navarro 2016: xxxiv)³

Gómez de Toledoren lana lehenengoz agertu eta hiru urtera berrargitaratu zen, 1539an, eta argitalpen bakoitzaren ale bakanak gorde dira. Lehenengo edizioaz den bezainbatean, orain arte *unicumt*zat jo izan da Leideneko Unibertsitateko bibliotekako alea; aldiz, lan hau egiten ari ginela Bavariako Estatu Bibliotekan (Alemania) beste ale bat ere aurkitu dugu, 2017an digitalizatua.⁴ Bigarren edizioaz den bezainbatean, bi ale ezagutzen dira: bat Es-

³ Ikus, halaber, Esteban (2020: 401) eta García Álvarez (2020).

⁴ Liburu osoa *online* kontsulta daiteke: <https://mdz-nbn-resolving.de/details:bsb11349498>.

painiako Biblioteka Nazionalean eta beste bat Londresko British Libraryn, nahiz eta azken hori ez dagoen osorik. Edizio gintzari dagokionez, oso berankorrek dira egindako lanak: Leideneko eta Municheko aleak ezagutzeke Mac E. Barrickek (1973) eta Manuel Criado del Valek (1976) eman zuten testuen edizioa; oraintsu, berriz, Rosa Navarrok (2016) edizio berria prestatu eta kaleratu du, Leideneko aletik abiatuta.

1.4. *Hirugarren Zelestinako* euskal testu gehienak ezagunak dira Menéndez y Pelayoren *Orígenes de la novela* (1943 [1907-1910]) lanaz geroztik, eta euskalarien artean hari jarraikiz eta garai bertsuan transkribatu ziren lehenengoz, Urkixoren (1910), Guerraren (1924) eta Lekuonaren (1925) eskuetatik, zeinek bere interpretazioak emanaz. Horien ondotik, Mitxelenak finkatu zuen testua TAVen, eta hori da orain arteko edizio kanonikoa.⁵ Gure edizioak ez ditu Mitxelenaren irakurketak aldarazten, baina berrikuntza txikia dakar: arestiko ikertzaileek ezin izan zuten, ez baitzen ezagutzen, Gómez de Toledoren lanaren *editio princepsa* erabili, eta bigarrena (1539) baliatu zuten; dirudienez, Londresko British Libraryn gordetzen den alea, Menéndez y Pelayok berak erabili zuena. Espainiako Biblioteka Nazionalean egun 1539ko edizioaren beste ale bat badago ere, Mitxelena aurreko ikertzaileek eta Mitxelenak berak Londresko alea erabili zuten. Hala zioen Urkixok: «Lo mismo me ocurre á mi, pues sólo he visto el ejemplar del Museo Británico» (1910: 574, 3. oin-oharra), eta haren RIEVeko faksimilearekin egin zuen lan Mitxelenak (TAV §3.1.15). Horrek azaltzen du, hain zuzen, euskalariok XVI-5r. orrialdeko *ordiçarra* hitza inon aipatu ez izana; izan ere, Londresko aleari falta zaizkion orrialdeetan dago berba hori dakarren pasartea. Guk geuk Leideneko Unibertsitateko (Herbehereak) eta Bavariako Estatuko Bibliotekako (Alemania) *editio princepsaren* aleak kontsultatu ditugu:⁶ *ordiçarraren* eta XXI. autuko *fidalgoren* lekukotasunak gehitu ahal izateaz gain, ohar paleografikoetan aipatutako ezberdintasun ezdeusen bat besterik ez dago 1536ko eta 1539ko edizioen euskal pasarteen artean.

2. TESTUEN EDIZIOA

Testuen edizioa prestatzean, aldaketa minimoak besterik ez ditugu egin, betiere irakurketa erraztera bideratuak. Euskarazko pasarteei dagokienez, puntuazioa eguneratu dugu, <u> eta <v> dagokien balio bokalikoaren edo kontsonantikoaren arabera eman ditugu, hitzen banaketa eguneratu dugu tar-

⁵ Navarrok, halere, Urkixoren (1910) eta Lekuonaren (1925) edizioei eta itzulpenei jarraitu zien 2016ko edizioan.

⁶ Bihoazkio gure eskerrik beroenak Koldo Ulibarri lankideari, hark emana baitzigun Leideneko alearen aurkikuntzaren berri zenbait urte lehenago.

tean hots-aldaketarik islatzen ez denean eta gure ustez falta diren letrak [] artean eman ditugu, ohi legez. Orrialdeen zenbaketa atalaren arabera egin dugu, atal bakoitzean hutsetik abiatuta; alegia, <2ra> aipatzen dugunean, dagokion autuaren 2. orrialdearen aurrealdeaz ari gara. Bestalde, orrialde batean testua zutabeka ageri denean, *a, b, c...* letrak eman ditugu orrialde-zenbakiaren ondotik. Testua ulertzen laguntzeko iruzkinak oin-oharretan eman ditugu, eta zuzenketa-proposamenak eta 1536ko eta 1539ko edizioen arteko aldeak amaierako aparatu kritikoan. Gaztelaniazko testuari dagokionez, CHARTA sareak testuen edizio kritikoak aurkezteko emandako irizpideei jarraitu diegu. Honatx, bada, testuak:

XVI. AUTUA

<2ra> ¡O Perucho, Perucho, cuán mala vida hallada le tienes! Linage hidalgo: tú cavallo limpias. No faltará de comer un pedaço *oguia* sin que trabajo tanto le tengas. Juras a mí, siempre cavallo a suzio mi amo le haze. Y Perucho almohaçando. Él nada le pena por carreras hazer en amores que tiene. Entre tanto, busco otro. Adereçarme le tengo si pide, y cantar le empieço bizcuença.

<2rb> Lelo lirelo çarayleroba.

Yaçoeguia⁷ ninçan,

aurten erua;

ay joat, gaviraya⁸

astor usua.⁹

5

Lelo lirelo çarayleroba.

<2rc> Ayt joat, gaviraya

aztobicarra:¹⁰

esso[c] amor[e]ari¹¹

gajo nachala¹²

10

y penas naçala,¹³

jatorquedala.¹⁴

Lelo lirelo çarayleroba.

⁷ *yaçoeguia*: 'iaz zoezia'; alegia, 'zuhurregia, zentzudunegia'.

⁸ *ay joat gauriaia*: 'ai, zoazkit, gabiraia' edo 'Gabiraia joan badakit'.

⁹ *astor usua*: 'aztore bikorra, lasterra'.

¹⁰ *aztobicarra*: 'astobizarra, Astobizakoa' edo 'aztor(e) bizkorra'.

¹¹ *esso[c] amor[e]ari*: TAVeko zuzenketekin, 'esaiok amoreari, maitaleari'.

¹² *gajo nachala*: 'gaixo naizela'.

¹³ *penas naçala*: 'penaz natzala'.

¹⁴ *jatorquedala*: 'datorkidala, etor dakidala'.

<2rd> Sigeril: ¡Precioso borrico es este, que se queja de la vida que passa y dize estar desesperado y pónese a cantar! ¡Y tal le dé Dios la salud como yo le entiendo! Aunque no dexaré de responder a algunos vocablos comunes que en bizcuença dizen. Y, por mi vida, si aguardo a oyr sus borricadas, según el espacio tiene, no acabe en tres horas de almoçar aquel cuartago. Determino de entrar a hazer que luego aderece una mula pa yr por quien tanto tengo de su sí como de su no si tardamos. ¿Qué músicas son estas, hermano Perucho? A buena fe que no puedes encubrir andar enamorado.

Perucho: ¡Con bueno te vienes! Cosas le dizes que no as entendido.

Sigeril: ¿Cómo no? Yo te prometo que era de amores el cantar. Por esso no lo niegues.

Perucho: Tu coraçón como tienes, ageno le juzgas. Que amo ronda amigas, tú no le faltas. Perucho, el trabajo de alimpiar lodo le hazes, que me se quiebran manos, polvo narizes hinche. Y claro le digo: a señor, mañana servir, no le tengo.

Sigeril: ¿Tan enojado estás sin propósito? Sepamos la causa.

Perucho: Sabe que quieres que yo entiendo, y, si digo, complirele.

Sigeril: No passes de ay, que te he menester pa otra cosa.

Perucho: ¿Tú a mí menester as? ¡Cabilz¹⁵ ordu [g]achez!

Sigeril: ¡Mala sea <2v> para la puta que te parió! Que bien te entendí que dixiste que me fuese nora mala y, si no mirara que eres un grandíssimo asno, más coces te diera que pelos tienes.

[...]

<3v> Sigeril: *Astoa*, mira que andes listo, que la segunda señora de dar y tomar es.

Perucho: Ea, *mandoa*, consejo a ti le busca, que a mí no le cumples tus monestaciones, que tanto le entiendes vizcayno como castellano.

[...]

<4r> Elicia: ¡Más hay de lo que piensas! Y plazer me harás que preguntes a Sigeril qué quiere dezir *astoa* y *mandoa*, porque los dos están de una y lo hablaban agora.

Sigeril: Señora Elicia, muy contraria te hallo para conmigo: que de verdad *astoa* quiere dezir ‘asno’ que yo le llamava, y él por bol-

¹⁵ *cabilz*: ‘zabiltza’.

verme la respuesta semejante dixo *mandoa*, que en romance es ‘mulo’.

[...]

<5r> Perucho: En balde no le dizen «*ordiçarra* siempre andas».

XX. AUTUA

<2r> Perucho: Razón hago si me enojo, que corto palabras siempre le fue, y más quise ausentar poco que hablar mucho. Que vosotros, en Castilla, *judeguas*, estáis que servís esclavo alcaldes, en ofrecimientos parolas y dádivas hazienda.

XXI. AUTUA

<2v> Perucho: Si corrí mucho, no pienses que corro por esso; ni anque burles harto, que *fidalgoa* me soy. Y no le viste Perucho ladrón hurtar, ni traydor ser.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

xvi-2ra-1 tienes] jat. *tieues*. | **xvi-2rb-2** yaçoegua] jat. *yaçoe guia*. | **xvi-2rc-9** esso[c] amor[e]ari] jat. *asso amorari* : 1539 *esso amorari* : TAV *esso[c] amor[e]ari*. | **xvi-2rc-10** gajo nachala] jat. *gajona chala*. | **xvi-2rd-20** cabilz ordu [g]achez] jat. *cabiliz orduachez*. | **xvi-4r-7** mandoa] jat. *mãdo a* : 1539 *mãdo a*.

3. IRUZKIN LINGUISTIKOA

3.1. *Perutxoren kanta* interpretazio-arazoz jositako testua da; izan ere, interpretazio argirik gabeko hitz eta pasarte ilunak ditu. Ondoko iruzkinean aipatuko ditugun kasuekin batera, aparteko lekua behar du **xvi-2rb-2** *aztobiçarra* formak, Mitxelenak testuaren *cruxtzat* jotakoa:

Se ha pensado en *Ast- / Aztobiçarra* ‘astobizano, de Astobiza’ y en *As-tobiçara* ‘(véteme) a Astobiza, pueblo de Álava, donde residiría la amada. Parece preferible ver, con M. de Lecuona, en los vv. 7-8, una expresión paralela a la que hallamos en los vv. 4-5 *aztor(e)* ‘azor’, más un adjetivo (*az-carra, bizcorra*??). (TAV 100)

Interpretazio gaitzekoa da, halaber, **xvi-2rc-11** y: «Si y en el último verso corresponde a alguna realidad, estaría por algo que tuviera dos sílabas en el

original (*cf.* vasc. *eta* ‘y’) con lo que la medida del final del cantar quedaría así: 7 - 5 - 7 - 5 - 10» (TAV 100).

3.2. Grafiaren esparruan testuak ez du aparteko erabilerarik. Txistukarietan ez dira frikariak eta afrikatuak bereizten, eta <ç> ematen da bietarako; frikari lepokaritzat ditugu XVI-2ra-1 & XVI-2rb-13 *çarayleroba* eta XVI-2ra-2 *ninçan* (baita, testua Euskal Herriko mendebalekoa izanik, XVI-2ra-2 *yaçoegui* ere); afrikatu lepokariak dira, bestalde, XVI-2rb-6 *naçala* ‘natzala’ (TAV 100) eta XVI-5r *ordiçarra*. Apikarietan ohiko banaketa agertzen da: <-s> kokapen inplosiboan (XVI-2rb-5 *penas*, XVI-3v *Astoa*) eta <-ss-> bokalartean (XVI-2rb-3 *essoc*). Sabaiaurreko frikaria <j>-z zein <ch>-z adierazten da ondoz ondoko adibide banatan: XVI-2rb-4 *gajo nachala*. Bestalde, irristari sabaikaria <j->-z ematen da sistematikoki: XVI-2ra-4 & XVI-2rb-1 *joat*, XVI-2rb-6 *jatorquedala*, XXI-8v *judeguas*.

3.3. Fonologiaren esparruan, XVI. menderako espero zitekeen bokalismoa dakar testuak kasu gehienetan; baina, XVI-2ra-3 *erua* arazotsua da, *o* > *u* /_V aldaketa berankorra baita mendebalean: XVIII. mendean ugaritua (*cf.* testu bereko *astoa* eta *mandoa*). Pentsa liteke *erua* - *usua* errimak baldintzatutako forma dela; bestela, Euskal Herriko mendebaleko adibide zaharrena izango litzateke. XVI-2ra-1 & XVI-2rb-13 *çarayleroban* -*oba* epentesia ikus lezake inork, baina esangurarik gabeko apain-lerroa izanik, ezin da lekukotasun ziurtzat jo (Zuloaga 2020: 295, 246. oh.), eta kronologikoki ere oso goiztiarra dirudi; *cf.* Madariagak (1565: 108) dakarren *Oa* toponimoa (Dima, Bizkaia), 1705eko fogeraioetan ere hala ageri eta 1745az geroztik *Oba* bihurtu zena.

Txistukarietan neutralizazio-zantzuak ikus litezke kokagune ahulenetan, herskari aurrean (XVI-2ra-5 *astor* ‘aztore’) eta hitz amaieran (XVI-2rb-11 *penas*), nahiz eta azken kasu horretan erromantzeko formak eragina izan zezakeen (*cf.* XVI-2v *cabilz* eta XVI-2v *[g]achez*). Beste alde batetik, *V(j)(t)z* > *V(j)(t)x* palatalizazioa (XVI-2rb-4 *nachala* ‘naizela’, XVI-2r *[g]achez* ‘gaitzez’) lagungarri da testua geografikoki kokatzeko, Bizkaian, Gipuzkoako hego-mendebaleko zenbait herri mugakidetan eta Arabako erdi-mendebalean lekukotu baita historikoki.

3.4. Morfologiaren esparruan Euskal Herriko mendebalean arrunt (izan) diren zenbait ezaugarri agertzen dira, hala nola XVI-2ra-1 *ninçaneko* -*a*- erro zaharra, XVI-2rb-12 *jatorquedala*-ko *j-* eta XVI-2r *cabilz* -*a* gabea. Horiez gain, -*txo* txikigarria dago, Bizkaiko testuetako -*txuren* aurka, nahiz eta *Perutxo* izen topikoan besterik ez dagoen eta horrek ez duen bermaleku sendorik ematen banaketa-gai sakonagoez aritzeko; ikus Zuloaga (2022: §8.6).

Aditzaren morfologiari loturik bi erabilera nabarmendu behar dira. Alde batetik, XVI-2rb-12 *jatorquedala* dago, Mounolek (2018 [2011]: 76-78) *ge-*

roaldiko subjuntibo deitutakoaren adibidea, Perutxoren kantatik kanpo Lazarra eskuizkribuan bakarrik deskribatua: *cfr.* A6: 6-8 *Gura deusut aguindu / gure errico abantajaoc / daiqueçula cantadu*, A14: 97-100 *Irago ce bequiqueo / bisitaçaca asteric, / cegaiti artu ez daiquean / oi beste servidoreric* eta A16:85-88 *Conjuraetan oy eta çaitut, / oean çaucidenean / gogaberatu çaquezquedala / beguioz nacusunean*. Beste alde batetik, XVI-2ra-4 *ay joat gavaraya* eta XVI-2rb-1 *Ayt joat gavaraya* pasartez bi irakurketa egin dira: Mitxelenak (TAV 99-100) *Ay* interjekzioa eta aginterazko forma bipertsonala zekuskien ('ai, zoazkit, gabiraia'); irakurketa horrekin egiten du bat EHHEk (s.v. *joan*). Mitxelenak berak, halere, *Ayt* botiboarekin lot zitekeela aipatu zuen, eta ikuspegi horrekin batago egin du Padilla-Moyanok:

Batetik, *ayt* ez optatibozko aurrizki, baizik eta auhenezko *ai* interjekzio gisara irakurtzeak inprentako huts baten zuzenketa inplikatzeko du, zeinetan okerreko karakterea kasualki *t* bailitzateke. Bestetik, Mitxelenak *ayt joat* formak optatiboa izateko iraganaldiko adizkia behar zukeela zioen arren, orainaldikoa ere izan liteke [...] nolana ere, ez litzateke harritzekoa bere azkenetan den ezaugarri baten aitzinean hitzunik halako zalantzarik ager lezaten. Azkenik, lehen irakurketak ere lekukotu gabeko forma bat eskatuko luke. (2016: 440)

3.5. Lexikoaren esparruan aipua behar dute zenbait formek. Lehenik, XVI-2ra-2 *yaçoequian zoegi* 'zogi, zuhur, burutsu' aldaera dago, EHHEren (s.v. *zogi*) arabera < *zuhur* + *egiri* lotua eta mendebalean *ziogi* eta *soigi* aldaerak ere badituena. Bigarrenik, XVI-2ra-5 *usuaren* 'lasterra' agerrerrak oso bakanak dira euskal testuen tradizioan (Urte, Harriet eta Lizardi), eta OEHK (s.v. *usu*) ez du baztertzeko esanguraren interpretazioa okerra izatea. Hirugarrenik, XVI-5r *ordiçarra* 'horditzarra' hitzaren lekukotzak ere oso urriak dira (OEH, s.v. *horditzar*), baina XVI. mendeko irainen artean agertzen da, hala nola Maiorak (2011) Nafarroa Garaian bildutako *hordiçarra* (1582) adibidean. Laugarrenik, XX-8v *judeguas* aldaerak bat egiten du mendebalerako eta, bereziki, Bizkairako espero zitekeenarekin (OEH, s.v. *judu* eta Landuciren *judua, juducastea, juducumea, juduandrea*). Aurrekoekin batera, XXI-2r *fidalgoa* aipa daiteke: mailegu gordina da, euskal tradizioan gutxitan lekukotua; OEHren arabera (s.v. *hidalgo*), Hego Euskal Herriko tradizioan Landucik dakar (*hidalgo* eta *hidalguía*, zehazki).

Esapideez denaz bezainbatean, testuak ez dakar aurretik ezagutzen ez zen eta garai bertuan paralelorik ez duen barbarik edo esapiderik: *cfr.* *Rosabella* komediako *Ordugayches etorri cinan!* (Altuna 2001: 175-176) eta XV.-XVI. mendeetako frantses kanta bateko *soaz, soaz ord(u) onarequi(n)* (TAV 99).

3.6. Aurrekoak aintzat hartuta, zalantzarik gabea da, aurretik ere onartua zenarekin bat etorritik, Perutxoren hizkera Euskal Herriko mendebalekoa

dela: hala erakusten dute bai ezaugarri fonologikoeak, bai ezaugarri morfolo-
logikoeak, bai lexikoak. Besterik da, ordea, *mendebal* deritzogun esparruaren
barruan kokapen zehatzagorik eman ahal izatea. $V(j)(t)z > V(j)(t)x$ palatali-
zazioak erakusten du testua Bizkaikoa edo oso hurreko eremu batekoa dela;
baina, testua Bizkaikoa balitz, *-txo* marka txikigarriaren *-txu* aldaera ekarri
beharko zukeen: *cfr.* Zumarragaren 3 *calderetachu bat*; *Refranes y senten-
ciaseko* 309 *Dolarabaco esachuetan baleuque andrea diruetan*; Iburguen-
Cachopín kronikako *Hordoñochu* edo Mikoletaren eskuizkribuko 10v *ne-
rechu*, 12r *Axechu*, 14r *saconchu*, 13v *oschu*. Heldulekua guztiz ziurra ez
bada ere (are gutxiago testuaren datetarako), Perutxoren euskara Bizkaitik
kanpokoa dela pentsa liteke, eta Arabako euskararekin lotu: kantuko zor-
tzigarren bertso-lerroko *aztobicarra* ‘astobizarra’ interpretatzeko eta leku-
kotasuna Astobiza aldearekin (Lezama/Amurrio, Araba) lotzeko argudio
bat (gehiago) izango litzateke aurrekoa. Hartara, onartu egin beharko litzate-
teke Arabako ipar-mendebalean gerora nagusitu zela *-txu* aldaera: *cfr.* *Do-
trinazko sermoitegiko* 16-80 *chorichu*, 20-110 *semechu*, 20-111 *semechuic*,
20-116 *mutilchuic*, 20-121 *Mutilchuic*, 21-17 *arbolechu*, 23-85 *alabachu*,
23-112 *Chiquichutaric*, 23-135 *alabachu*, 23-140 *alavachuen*, 24-158 *mu-
tilchu*, 24-158 *arrebachu* eta abarrak.

Bada proposamen horren alde egin lezakeen beste argudio bat ere, nahiz
eta arazotsua izan daitekeen alderdi kronologikotik begiratuta: mendebal za-
baleko euskararen *-obV* epentesia Arabako ipar-mendebalean (Baranbio eta
Orozko aldea barne) lekukotu da historikoki;¹⁶ baina, lekukotasun horiek
XVIII. mendean geroztikoak dira (gogoratu, halaber, Arratiako *Oa* toponi-
moko $>$ *Oba* aldaketa mende horren erdialdean ageri dela lehenengoz) eta
anakronia-arazoa egon liteke *Perutxoren kanta*, XVI. mendearen lehenengo
erdikoa, XVIII.-XIX. mendeetako ezaugarri eta banaketa linguistikoen arabera
kokatzean.

4. BIBLIOGRAFIA

- Altuna, F. 2001. *Rosabella*. 1550. urteko komedian lau esaldi euskaraz. *ASJU* 35(1).
271-280. <https://doi.org/10.1387/asju.8829>.
- Barrick, M. C. 1973. *Tercera Parte de la Tragicomedia de Celestina. A Critical
edition*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press. [https://worldcat.org/
isbn/9780812276022](https://worldcat.org/isbn/9780812276022).
- Bijuesca, J. 2008. Fragmentos de poesía vasca en la literatura española de los Siglos
de Oro: reescritura y manipulación. *Oihenart* 21. 61-72. [https://dialnet.unirioja.
es/servlet/articulo?codigo=2172752](https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2172752).
- Castillo, C. & Ramírez, J. L. 2008. La caracterización lingüística de los vascos en
la literatura: habla vizcaína frente a habla aldeana. In S. Gómez & J. L. Ramírez

¹⁶ Bizkaiko lekukotasunez, ikus Zuloaga (2013).

- (arg.), *Oihenart 23. Segundas jornadas de Lingüística Vasco-Románica: nuevos estudios*. 35-44. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3042320>.
- Cid, K. 2013. Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: sustrato vasco en el español. *Revista de lengua y literaturas catalana, gallega y vasca* 18. 263-282. <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.18.2013.10798>.
- Criado del Val, M. 1976. La «Familia celestinesca». In J. M. Valverde, M. Criado del Val, G. Verdín, V. Ruiz & J. de Torres, *Las celestinas*. Barcelona: Planeta. xliii-liii. <https://worldcat.org/oclc/605409748>.
- EHHE = Lakarra *et al.* (2019).
- Esteban, L. M. 2020. Gaspar Gómez de Toledo y la búsqueda de la fama. *Celestinesca* 44. 393-404. <https://doi.org/10.7203/Celestinesca.44.19441>.
- Etxague, J. 2012. El trasfondo lingüístico y cultural del 'habla vizcaína'. In B. Camus & S. Gómez (arg.), *El castellano del País Vasco*. ASJUren gehigarriak 70. Bilbo: UPV/EHU, 21-44. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4977227>.
- Fernández, T. 1996. Particularidades del castellano del País Vasco. *Revista de lingüística teórica y aplicada* 34. 95-120. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=16403>.
- Frago, J. A. 1986. Tópicos lingüísticos y tipos cómicos en el teatro y en la lírica de los siglos XVI-XVII. *Philologica Hispalensis* 1(1). 85-116. <https://doi.org/10.12795/PH.1986.v01.i01.06>.
- García Álvarez, J. P. M. 2020. Acercamientos críticos a la *Tercera parte de la Tragicomedia de celestina* de Gómez de Toledo: nuevas perspectivas de la celestinesca. *Celestinesca* 44. 385-392. <https://doi.org/10.7203/Celestinesca.44.19440>.
- Guerra, J. C. 1924. *Los cantares antiguos en euskera: viejos textos del idioma*. Donostia: Martin y Mena. <https://worldcat.org/oclc/932355243>.
- Ibisate, A. 2001. Frases en euskara desconocidas, en una comedia impresa en 1550. *ASJU* 35(1). 261-270. <https://doi.org/10.1387/asju.8827>
- Lakarra, J. A., Manterola, J. & Seguro, I. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehhe&Itemid=1193.
- Legarda, A. 1953. *Lo 'vizcaíno' en la literatura castellana*. Donostia: Euskalerriko Adiskideen Elkarte. <https://worldcat.org/oclc/434016643>.
- Lekuona, M. 1925. Viejos textos del idioma: el Cantar de Perucho. *RIEV* 16. 470-475.
- Madariaga, P. 1565. *Libro subtilissimo intitulado Honra de Escrivanos*. Valentzia: Iuan de Mey. <https://worldcat.org/oclc/1325704705>.
- Maiora, F. 2011. *Reino de Navarra. Euskera: injurias, coplas, frases*. Iruña: egilearen argitaletxea. <https://worldcat.org/oclc/796335346>.
- Menéndez y Pelayo, M. 1943 [1907-1910]. *Orígenes de la novela*. Madrid: CSIC. <https://worldcat.org/oclc/716518527>.
- Mikoleta, R. 1653. *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*. British Libraryko eskuizkribua. <https://worldcat.org/oclc/32691718>.
- Mitxelena, K. 2011 [1964]. *Textos arcaicos vascos*. Berrarg. in *Obras completas*, VI, 1-197. <https://doi.org/10.1387/asju.8577>.

- Mitxelena, K. & Sarasola, I. 1987-2005. *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413.
- Mounole, C. 2018 [2011]. *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique*. *ASJU* 48. Bilbo: UPV/EHU. <https://doi.org/10.1387/asju.19991>.
- Mounole, C. & Lakarra, J. A. 2018. Euskara Arkaikoa. In I. Igartua, J. Gorrotxategi & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 345-468. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7188794>.
- Navarro, R. 2016. Introducción. In R. Navarro (arg.), *Segundas Celestinas*. Madrid: Fundación José Antonio de Castro. xi-cxii. <https://worldcat.org/oclc/1026321925>. OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Padilla-Moyano, M. 2016. Zozo zuriaren xerka: euskararen optatiboaren historia. *Fontes Linguae Vasconum* 122. 433-462. <https://doi.org/10.35462/flv122.6>.
- Penas, A. 1993. El habla vizcaína en el teatro de Lope de Vega. *ASJU* 27(3). 815-820. <https://doi.org/10.1387/asju.8379>.
- Ramírez, J. L. 2002. Tipos cómicos y caracterización lingüística en el siglo XVIII. *Letras de Deusto* 94. 115-126. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=233310>.
- Sarasola, I. 1983. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU* 17. 69-212. <https://doi.org/10.1387/asju.7614>.
- Severin, D. S. 2011. Introducción. In D. S. Severin (arg.), *La Celestina*. Madrid: Cátedra. 11-45. <https://worldcat.org/isbn/9788437607009>.
- TAV = ikus Mitxelena (2011 [1964]).
- Urkixo, J. 1910. La Tercera Celestina y el Canto de Lelo. *RIEV* IV. 573-586. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3427781>.
- Zuloaga, E. 2013. Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta *Viva Jesús* dotrinen jatorriaz. In R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. 593-610. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4959716>.
- Zuloaga, E. 2020. Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz. Doktore Tesia. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/49846>.
- Zuloaga, E. 2022. *Mendebaleko Euskara Zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.

5. ERANSKINAK



1. irudia

Tercera parte de la tragicomedia de Celestina (1536) lanaren azala.
 Muniqueko alea (Bayerische Staatsbibliothek)



Perucho Perucho / quã mala vida ballada
le tieues : linage hidalgo tu cauallo limpias:
no faltara d' comer vn pedaço o guia / sin q' tra-
bajo tanto le tēgas juras a mi siēpre cauallo a
suzio mi amo le haze: y Perucho almohaçan-
do / el nada le pena por carreras hazer en amores q' tiene: en
tre tanto busco otro adereçar me le tēgo si pide: y cantar le
empieço bizcuença.

Lelo lirelo çarayleroba
yaçoe guia ninçan
aurten erua
ay joat gauraya
astoz vsua
lelo lirelo çarayleroba.

Ayt joat gauraya
aztobicarra
alfo amorari
gajona chala
y penas naçala
jatoz que dala
lelo lirelo çarayleroba.

(Si.) Precioso boursico es este: q' se q'ra d' la vida q' passa y
dize estar desesperado. y pone se a catar: y tal le d' dios la sa-
lud como yo le entiēdo: avn q' no derare d' respōder a algu-
nos vocablos cōmunes q' en bizcuēça dizē. y por mi vida si
aguardo a oyr sus boiricadas / segū el espacio tiene no aca-
be en tres bozas d' almohaçar aq' quartaço: e termino d' en-
trar a hazer q' luego aderece vna mula / pa yz por quie tãto
tēgo d' su si / como d' su no. Si tardamos (q' musicas son estas
hermano Perucho a buena se que no puedes encubrir an-
dar en amorado. (Peru.) Lon bueno te vienes cosas le di-
zes q' no as entiēdo. (Si.) Lomo no: yo te pmeto q' era de
amores el cantar: por esso no lo niegues. (Perucho.) Tu
coraçon como tienes: a geno le suzgas que amo ronda ami-
gas: tu no le faltas Perucho el trabajo de alimpiar lo do
le hazes q' me se quiebrã manos poluo narizes hinche: y cla-
ro le digo / a señor mañana seruir no le tengo. (Sig.) Lan
enojado eitas sin proposito: sepamos la causa. (Perucho.)
Sabe que quieres que yo entiēdo / y si digo complire le.
Si.) No passes d' ay: que te be menester pa otra cosa. (Pe.)
Tu a mi menester as cabiliz orduachez. (Sige.) Mala sea

2. irudia

Pe. No le busco faldilla que safire no more: mas camisa
 contar le quero si delgado tu liego en baldas le miro. **(Sig.)**
 No se sufre ya tal descortesia q̄ en publico le alces las bal-
 das: que basta que as echo mas d̄lo que p̄se ē besarla. **Eli.**
 Otra badajada oyremos d̄ aq̄ avn rato. **(Si.)** crudelissima
 porq̄ me llamas badafo. **(Eli.)** por que t̄go razō que d̄xiste
 vna tras otra muy notables. **(Si.)** Sepamos q̄ fuerō y pier-
 de el vn ojo. **(Eli.)** Ala se pierde los ētrābos que no estoy d̄
 burlas 7 si q̄es oyrlas: harto buena fue d̄zir que ē publico
 no me alcase las baldas dādo a entēder a este gauacho que
 en secreto no lo estoruaría: y no cōtēto ētre risas y palabras
 glolar que me auia besado: que mayor affrēta no podía ser
 en el mūdo que atreuerse esse aborcado a tal cosa y cōsentir
 lo yo. **(pe.)** si bese o no yo le callo. Si a horcar merezco apa-
 resado me esto de tus piernas le querría acōtescer que blā-
 cas bonitas le atapaste. **(Si.)** Esta es mas negra que nīgu-
 na: porque me pesce que sin tormēto cōfiessa que las vido.
Eli. Que gētil criāça que as cobrado de poco aca: que por
 que vn borracho diga nescedadas tu como testigo las d̄cla-
 ras: pues sabe te Sigeril que no soy d̄las que se picā d̄vsar
 palacio. **(Pe.)** Si nescedad y bouerias le hago mano enci-
 ma rodilla meri que caliēte muslo tenias. **(Eli.)** Estar la p-
 sona cō bestias y locos: mas que esto merezce oyr: y mejor
 fera dexaros y subir me. **(Si.)** Espera a goza que llama cele-
 stina y no se aq̄en. **(Pe.)** Oyes Areusa por tu vida que va-
 yas abaro 7 mires que negocios tiene aquella putilla de
 Elicia cō Sigeril: que a vna hora que le fue abrir y n̄fica a
 buelto. **(Are.)** Que me plaze. **(Eli.)** Areusa embia te la bar-
 buda cō sus malicias pa que acechases que baziamos: por
 esto biē que no sabra de ningūa trayciō que ayamos come-
 tido. **(Are.)** ya no la conosces: que es menester gastar pala-
 bras en lo que ves claro. **(Si.)** Astoa mira que andes listō
 que la segūda seņora de dar y tomar es. **(Pe.)** Ea mandoa
 consejo a ti le busca: que ami no le cūples tus monestacio-
 nes que tanto le entiendes Vizcayno/ como Castellano.

3. irudia

116

Areu. ¿es posible que auia borricadas enel portal y no lo
 sabia yo. (Elicia.) Mas ay delo que pienas: y plazer me ha
 ras que preguntes a Sigeril que quiere dezir astoa y man
 do: porque los dos estan de vna y lo habluan agora. (Si
 ge.) Señora elicia muy cōtraria te hallo para conmigo: que
 de verdad astoa quiere dezir asno que yo le llamaua: y el
 por boluer me la respuesta semejante dixo mado a que en
 romance es mulo. (Peru.) Todos Perucho asno le di
 zen: y esta gozguera bien le paresces. (Areusa.) Ay amores
 echa te me aqui vn poco gozaras de mis pechitos: que pa
 ra tí los tengo guardados. (Elicia.) ya me alegro algun
 tanto por ver que derando le yo: le as tomado tu: y en fin
 mal de muchos consuelo es: que no quedara con tentar te
 las tetas solamente. (Areu.) Mira que mal: si que no me
 bara correr sangre por mucha obra que meta: ni avn nos
 quemaran por ver nos juntos: que a buena fe nescia es qen
 a tal perla no da su cuerpo. (Sige.) Gran fauor es este bor
 racho y avn que tengo zelos dello yo lo callare. (Pe.) Tu
 no le quierres biuo boluer a Felides con mādado: que bor
 racho fantasia dizes: y llorando pagaras: que si quisieren
 bien tu no le as de cocar en embidia. (Eli.) Lalla mal go
 zo vea yo de tí: y requiebrate con la dama que tienes delan
 te. (Sige.) yo te certifico hasta oy vi tan sentido Vizcayno
 como este. (Peru.) Mos vayades señora: que por cierto lo
 dicho cumpliras: que buey cuerno hombre palabra ha
 zer que le dize tiene. (Areusa.) Soy contenta de esperar:
 mas ansí te me guarde Dios que no se lo que haga en tu
 seruicio. (Peru.) yo te lo tēgo hazer y seruire siempre que
 plazer es aura. (Are.) Pues pa que cūplas tu deseo y veas
 la vñitad cō q te amo: menester auemos subir arriba y è vna
 camara apartada que nadie nos vea hablaremos largo.
 (Peru.) Este lugar le basta que esotra hermosa y Sigeril
 no le abirán oso para mirar le. (Eli.) Que os parece que
 diligēte anda el moço. (Are.) Lē quedas essas manos que
 no te aprouecha nada que nos llama celestina. (Pe.) Quā

4. irudia

117

asentada: porq̄ en las ancas sera imposible q̄ puedas lle-
 gar. (Le.) Pues pon algo en estos estriuos para en q̄ a bir-
 me. (Si.) En esta tablica pôdras los pies q̄ es propia. (Le.)
 Ea ayudad me todos quatro a subir. (Si.) Elicia tē tu essa
 mula y Areusa le adobara las baldas en la silla. E yo r tu
 Perucho tendremos estas tablas y arriba con ella. (Are.)
 Siētes algo q̄ parece q̄ te cōgoras. (Le.) Due me faques
 esse manto vn poco hazia fuera. Agora estoy ami plazer
 daca a quel cançil onçillo beuere vnos tragos y despache-
 mos de aqui. (Eli.) Des le ay q̄ vna çubie delo tinto tiene.
 (Le.) Anda no cures de mas q̄ para el p̄sente harto me ba-
 sta. (De.) En balde no le dizē ordiçarra siēpie andas: (Are.)
 Sigeril por vida delo q̄ mas quieres q̄ me digas lo que di-
 ro este boirico a Celestina. (Si.) Calla cuerpo de dios q̄ la
 deshonro y a entender lo ella tendríamos pleyto. (Areu.)
 Dimelo a lo ydo q̄ no lo sabra nadie. (Si.) Ahuy clara uēte
 dirō que andata contino boiracha. (Are.) No pasede ay:
 que no salto razon para dezir lo. (Le.) Hijo perucho lleva
 de las riendas y guia nos bien que yo con esta varilla dare
 ala mula r Sigeril ya a detras por: reta guarda: yançi ami
 culpa sino fuere mos bien seguros. (Sigeril.) Dessa manera
 lo tenia yo determinado. y queda en buē hora hasta la bu-
 elta Areusa y Elicia. (De.) Tambien yo no le voy sin dios
 quedaros étrābas y acordare de ti Areusa si tu uo oluidas
 ya entiendes. (Areu.) Pierde cuydado y la magdalena os
 guie. (Le.) Lene gran cuydado dela casa que andā mil ve-
 llacos de noche y no barrūtē q̄ estays solas q̄ luego en ha-
 blando con Felides sere de buelta. (Areu.) No lleues pena
 que no somos niñas para bazer cosa defonesta.

Acto. xvij. Lastaño alguazil

va platicado cō Salerdo su porquerō q̄ andā a rōdar: y to-
 pā con Celestina como la lleuā Sigeril y Perucho: y por
 fer la hora vedada y ver la yz en mula la quissierā llevar ala

6

5. irudia

xvi. autuko <5r> orrialdea (Bayerische Staatsbibliothek)

des le manda entrar: y como a reydo conel sobre la diligencia que puso en defender la vieja del Alguazil le embia a la posada de Celestina a que le acuerde que vaya a do esta concertado. E introduzen se.

¶ Perucho. ¶ Sigeril. ¶ Felides.

Eno me he saluado de entre manos justicia mi posada abierta le veo: Sigeril rãbiẽ le miro passeãdo soltar se deuia la vieja q̄ hizo preguntar le hare: juras ami el ya hablar se me dẽre q̄ ẽ risa le noto q̄ esperiẽcia. (Si.) ¶ mi leal amigo que te as hecho esta noche que me dizẽ que te quieren prender por la cuchillada que diste al alguazil. (De.) q̄ prendimiento me quieren poner que espada nunca le eche mano. (Sig.) Para que es nada desso pues vi las marauillas que heziste por defender nos. (De.) ¶ Bi persona nada le hizo en justicia: tu burlas mi buyr no le cures cocar me que no sola esta deues: y castigar te lo he todo: que a buena se padre no le tienes Roldan ni parientes beto: nunca fusste. (Si.) Perucho no me entiẽdes y por esso te enojas por cada palabra. (De.) Razon bago si me enojo que corto palabras siempre le fue: y mas quise ausentar poco q̄ hablar mucho: que vosotros ẽ cañilla judeguas estays que seruís e clauo alcaldes en ofrecimientos parolas: y dadiuas haazienda. (Sig.) Si quies que te cuente lo que nos acõtescio calla y sabras lo. (De.) Dile todo acaba. (Sig.) El caso fue que Cañãño portãua en llenar ala vieja ala carcel y ami por el consiguiẽte que ni bastauan ruegos: ni prometimientos: ni amenazas. (De.) Tu que amenazas justicia no le creo: llorar besando le manos bien podrias gritos. (Sig.) escucha cuerpo de dios contigo y sabras si nos dero el Alguazil passar por mis importunaciones: o por intercession de otro. (De.) ¶ Pues sueltos venistes di quanto te quiereres. (Si.) Ello no es mas d̄ que no aprouechando nada lo

6. irudia

sas que bien las conozco. (Ce.) Conosce lo que quisieres q̄
 yo conosci lo q̄ beziste: y por mas claro lo q̄ huiste. (Eli.) co-
 mo señora estas burládo: o affrentas te de veras. (Ce.) Pre-
 gūta selo a su merced q̄ no negara la Verdad: si la cōtradire
 re aqui estoy yo q̄ no lo cōsentire. (pe.) Si corri mucho no
 piéses q̄ corro por esso: ni an q̄ burles harto: q̄ fidalgoa me
 soy: y no le viste perucho ladrō burtar: ni traydor ser. (Eli.)
 Ayn no te cōtetas q̄ en las primeras palabras te llamē co-
 uarde. (pe.) Derate desso q̄ la couardia yo me tome y na-
 die me hizo q̄ hiziesse: r̄ quicás fue por aprēder me a ligero
 andar: q̄ harto tenia nadie alcançar me estōces. (Eli.) Por
 mi vida perucho que ayn que nos bazes reyr q̄ a ti pones
 del lodo: y en de mas siendo enamorado no pareçe bien q̄
 digas tales palabras. (Ce.) y de quien se enamoro el boñri-
 co. (Eli.) De vna señora que biē conosces. (Ce.) Es d̄ si por
 dicha. (Eli.) No a buena fe: q̄ aute mis ojos escoso como en
 peras. (pe.) No le hables cosa escusada q̄ antes me q̄rria
 tu cuerpo q̄ le dixerá a otra q̄ mayor es y tu mas mocica le
 estas: que cierto fruta nueua mejor sabe que la que días se
 vende. (Ce.) De manera que das a entender que es Areu-
 sa. y que esta otra es mas mochacha y la tomarías d̄ mejor
 gana. (Eli.) De ser Areusa no dubdes que yo estaue presen-
 te a los requiebrros: empero a qual tiene mas afficiō no me
 entremeto. (Ce.) Sea a quien fuere sepamos de la bestia co-
 mo defenderá a vosotras que venistes ayer al mūdo: pues
 no tuuo saber para libiar a vna muger d̄ días como es Ce-
 lestina. (pe.) Tu de años muchos estas que no días. E si
 moça fueras al campo fuera yo vécedor por llevar fama en
 la empresa: mas de viejas tan vieja no me curo que forçar
 no la auran al camino. (Cele.) Ay dolor de mí porque me
 tengas en possession de muy vieja. P̄ues por los huessos
 de mi padre q̄ conozco yo es el pueblo biuda q̄ se quiere del
 posar: y el vulgo la tiene por mas moça: y me lleva nueue
 años co ocho y medio: que si en la vista parezco muy ancian-
 na: las canas me vienen de linage: y la vejez de enfermeda-

III 611

7. irudia

xxi. autuko <2r> orrialdea (Bayerische Staatsbibliothek)

Eranskina

Miren Azkarateren argitalpenak

- Artola, Lupe (arg.) (1978): *Euskara lantzen 0*. Donostia: Erein. <https://worldcat.org/isbn/978-84-85324-64-4>.
- Azkarate, Miren (1980a): Euskal Klasikoak saila, Hordagok argitaratua, I 1978-1980. *Mundaiç* 18. 97-99.
- Goenaga, Patxi (arg.) (1980): *Euskara lantzen 1*. Donostia: Erein. <https://worldcat.org/isbn/978-84-85324-09-5>.
- Azkarate, Miren (1980b): -N, -Z erlazio hizkiak denborazko aditz lagunetan Axular eta Etxeberri Sarakoarengan. *Euskera* 25(2). 401-416. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/1368.pdf>.
- Azkarate, Miren (1982a): Emakumea Euskalaritzan. *Euskera* 27(2). 507-509.
- Goenaga, Patxi (1982): *Euskara lantzen 2*. Donostia: Erein. <https://worldcat.org/isbn/978-84-85324-23-1>.
- UZEI (1982): *Hizkuntzalaritza Hiztegia*. Donostia: Elkar. <https://worldcat.org/isbn/978-84-7529-033-1>.
- Azkarate, Miren, David Farwell, Jon Ortiz de Urbina & Mario Saltarelli (1982): Word Order and WH-Movement in Basque. *North East Linguistics Society* 12(1). <https://scholarworks.umass.edu/nels/vol12/iss1/4>.
- Azkarate, Miren (1982b): Zehar galderak: «ba-» denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso zenbait. *Euskera* 27(2). 639-643. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51014.pdf>.
- Azkarate, Miren, Jon Ortiz de Urbina & Mario Saltarelli (1982): Governed Anaphors in Basque. *Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society* 8. 261-270. <https://journals.linguisticsociety.org/proceedings/index.php/BLS/article/view/2033>. <https://doi.org/doi/10.3765/bls.v8i0.2033>.
- Arzamendi, Jesús & Miren Azkarate (1983): Léxico de los refranes de B. de Zal-giz. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* 17. 265-327. <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/view/7618>. <https://doi.org/doi/10.1387/asju.7618>.
- Altuna, Patxi, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Alan King, Pierre Lafitte, Jose M. Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oyharçabal, Karnele Rotaetxe & Pello Salaburu (1985): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.es/dok/iker_jagon_tegiak/24569.pdf. <https://worldcat.org/isbn/978-84-235-0687-3>.

- Azkarate, Miren, Jose M. Larrarte, Maria Pilar Lasarte & Beñat Oyharçabal (1985): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I – eranskina*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/24569.pdf. <https://worldcat.org/isbn/978-84-235-0687-3>.
- Azkarate, Miren (1985): Euskal konposizioaren inguruan. *Euskera* 31(1). 171-175. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50556.pdf>.
- Akesolo, Lino, Miren Azkarate, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose M. Larrarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oyharçabal, Karmele Rotaetxe & Pello Salaburu (1987): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/6844.pdf. <https://worldcat.org/isbn/978-84-85479-42-9>.
- Azkarate, Miren (1987): *Hitz konposatuak euskaraz*. Doktore Tesia. UPV/EHU.
- Azkarate, Miren (1988): Zenbait egitura berri euskal hitz elkartuetan. *Euskara Biltzarra. 1: 1. Atala, Hizkuntz deskribapena* (Euskal Mundu-Biltzarra 2,1). 169-191. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-7542-588-7>.
- Azkarate, Miren (1990a): Euskal -garri vs. latinezko -bilis: bi erabilera ezberdin. In Miren Azkarate (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*, 19-39. Donostia: Deustuko Unibertsitatea. <https://worldcat.org/isbn/978-84-86897-10-9>.
- Altuna, Patxi, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Jose M. Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika & Pello Salaburu (1990): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak III*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/3812.pdf. <https://worldcat.org/isbn/84-85479-60-2>.
- Azkarate, Miren (1990b): Euskara: erdiko zikloko programazioaz nahas-mahas. *Tantak* 4. 111-127.
- Azkarate, Miren (1990c): *Hitz elkartuak euskaraz* (Euskal Filologia 3). Donostia: Deustuko Unibertsitatea. <https://worldcat.org/isbn/978-84-86897-09-3>.
- Azkarate, Miren (1990d): Neologisms and Lexicography in the Basque Language. In Thomas Magay & Judith Zigány (arg.), *Proceedings of the 3rd EURALEX International Conference, 4-9 September, 1988, Budapest*. 467-472. Budapest: Akadémiai Kiadó. <https://euralex.org/publications/neologisms-and-lexicography-in-the-basque-language/>. <https://worldcat.org/isbn/978-963-05-5863-1>.
- Azkarate, Miren (1991a): Basque Lexicography. In Franz Josef Hausmann, Oskar Reichmann, Herbert Ernst Wiegand & Ladislav Zgusta (arg.), *Wörterbücher: Ein internationales Handbuch zur Lexikographie*, vol. 3. 2371-2375. Berlin: de Gruyter. <http://doi.org/10.1515/9783110124217.3.21.2371>.
- Azkarate, Miren (1991b): Euskara batuko lexikoaren plangintzaz zenbait gogoeta. *Euskera* 36(3). 1115-1117. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/50275.pdf>.
- Altonaga, Kepa, Miren Azkarate, Martxel Ensunza, Jose M. Larrarte, Juan Karlos Odriozola, Lourdes Otaegi & Beñat Oyharçabal (1991): *Hitz-elkarketa/3: LEF Batzordearen lanak*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/11582.pdf.
- Sarasola, Ibon, Mikel Zalbide, Miren Azkarate, Jose Antonio Aduriz, Andoni Sagarna & Iñaki Segurola (1991): Hiztegi batua, lanketa-eta onespen prozedurak. *Euskera* 36(3). 1135-1145. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50277.pdf>.
- Sarasola, Ibon, Mikel Zalbide, Miren Azkarate, Jose Antonio Aduriz, Patxi Altuna & Andoni Sagarna (1991): LEF batzordearen proposamena Euskaltzaindiari. *Euskera* 36(2). 475-480. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50231.pdf>.

- Azkarate, Miren & Francisco Olarte (1991): Erator-atzizki ala eratorpen-atzizki? *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* 753-765. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/9225>. <https://doi.org/doi/10.1387/asju.9225>.
- Azkarate, Miren (1992a): Euskara estandarra eta hizkuntza-sexismoa. *ELE* 12. 91-98.
- Azkarate, Miren (1992b): *-ko / -dun* atzizkiez. *Luis Villasanteri omenaldia* (Iker 6), 91-112. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-85479-64-1>.
- Azkarate, Miren (1992c): Larramendiren hitz eraketa. In Joseba A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena, 1690-1990*. 207-220. Donostia: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-604-2150-4>.
- Azkarate, Miren (1992d): Miren Azkarate Villar anderearen Euskaltzaindian sartzea: agur-hitzak. *Euskera* 37. 1119-1139. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50166.pdf>.
- Azkarate, Miren (1993): Basque Compound Nouns and Generative Morphology: Some data. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics* (Current Issues in Linguistic Theory 105). 221-242. Amsterdam: John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.105.09azk>.
- Altuna, Patxi, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose M. Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jesus Mari Makazaga, Jose Antonio Mujika, F. Ondarra, Beñat Oyharçabal, Karmele Rotaetxe & Pello Salaburu (1994): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak IV*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/7630.pdf. <https://worldcat.org/isbn/84-85479-75-0>.
- Azkarate, Miren, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Alan King, Jose M. Larrarte, Jesus Mari Makazaga, Luis Mari Mujika, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Karmele Rotaetxe & Pello Salaburu (1994): I. Batasunerako proposamenak. II Okerrak zuzenduz. *Euskera* 39(3). 831-968. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49988.pdf>.
- Azkarate, Miren, Jose Antonio Aduriz, Patxi Altuna, Txipi Arbelbide, Martxel Ensunza, Patxi Goenaga, Jose M. Larrarte, Luis Mari Mujika, Beñat Oihartzabal, Lourdes Otaegi, Elixabete Perez Gaztelu, Andoni Sagarna, Patri Urkizu, Patxi Uribarren, Tomas Uribeetxebarria & Mikel Zalbide (1994): Lexiko Ebazpenen Finkapena. *Euskera* 39(3). 1035-1058. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49996.pdf>.
- Azkarate, Miren (1994): Oihenarten lexiko-sorkuntza. *Oihenarten laugarren mendeurrena* (Iker 8), 49-78. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-85479-73-3>.
- Azkarate, Miren & Lluïsa Gràcia (1995): Agentivity and modality in deverbal adjectives in Basque and in Catalan. *RGG. Rivista di grammatica generativa* 20. 3-32. <http://pascal-francis.inist.fr/vibad/index.php?action=getRecordDetail&idt=3283779>.
- Azkarate, Miren (1995a): Miren Azkarate euskaltzainaren erantzuna (Patxi Goenaga euskaltzainaren sarrera ekitaldian). *Euskera* 40. 683-688. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49344.pdf>.
- Azkarate, Miren (1995b): Sobre los compuestos de tipo sustantivo + sust/adj deverbal en euskera. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* (ASJU-ren Gehigarriak 38), 39-50. <https://doi.org/doi/10.1387/asju.9516>.

- Azkarate, Miren, Xabier Kintana & Xabier Mendiguren (arg.) (1996): *Elhuyar hiztegia: euskara-gaztelania, castellano-vasco*. 1. arg. Usurbil: Elhuyar. <https://worldcat.org/isbn/84-87114-06-7>.
- Azkarate, Miren (1996): Euskaltzaindiaren araugintza. *Euskera* 41(3). 557-582. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49696.pdf>.
- Biguri, Koldo & Miren Azkarate (1996): Miren Azkaraterekin berbetan. *Senez* 19. <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19960101/azkarate>.
- Azkarate, Miren (1997a): Euskal Terminologiaren Egoeraz. *Nazioarteko Terminologia Biltzarra: Donostia, 1997, Azaroa 12-13-14*. 249-272. Donostia: IVAP; UZEI. <https://worldcat.org/isbn/978-84-89135-04-8>.
- Azkarate, Miren, Olga Fullana, Lluïsa Gràcia & Juan Karlos Odriozola (1997): Euskarak, katalanak eta gaztelaniak atzizki eta aurrizkien bidez gauzatzen dituzten eratorpen-bideen arteko erkaketa: ondorio lexikografikoak. *Nazioarteko Terminologia Biltzarra: Donostia, 1997, Azaroa 12-13-14*. 771-783. Donostia: IVAP; UZEI. <https://worldcat.org/isbn/978-84-89135-04-8>.
- Azkarate, Miren (1997b): Hiztegi Batua. *Federiko Krutwig-i omenaldia* (Iker 10), 97-104. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/8416.pdf>. <https://worldcat.org/isbn/978-84-85479-87-0>.
- Alvarez Enparantza, Jose Luis, Miren Azkarate, Iñaki Gaminde, Anjel Lertxundi & Patxi Petrirena (1998): 30 urte euskara batuaren hastapenetatik: Mahai ingurua: Miren Azkarate, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia», Andu Lertxundi, Iñaki Gaminde. Moderatzailea. Patxi Petrirena. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria* 27. 21-34. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5852615>.
- Gràcia, Lluïsa, Teresa Cabré, Soledad Varela & Miren Azkarate (arg.) (1999): *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario. Resultados del proyecto de investigación DGICYT, PB93-0546-C04*. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://worldcat.org/isbn/978-84-8373-264-9>.
- Altuna, Patxi, Miren Azkarate, Pierre Charriton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose M. Larrarte, Jesus Mari Makazaga, Jose Antonio Mujika, F. Ondarra, Beñat Oyharçabal, Karmele Rotaetxe & Pello Salaburu (1999): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak V*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/37035.pdf. <https://worldcat.org/isbn/84-85479-94-7>.
- Azkarate, Miren (1999a): Euskaltzaindiaren araugintza (IV) : Aramaio, 1999-IX-25: araugintza. *Euskera* 44(2). 949-967. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/48960.pdf>.
- Azkarate, Miren (1999b): Jagon saila: gaurko egitasmoak. *Euskera* 44(1). 339-349. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49310.pdf>.
- Azkarate, Miren (1999c): Jagon Sailaren organigrama barne jardunaldietan zehar, 1979-1999. *Euskera* 44(1). 323-337. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49289.pdf>.
- Azkarate, Miren (1999d): Steps towards the Modernization of Basque: Challenges of a Standardized Lexicon. *Modernisierung des Wortschatzes europäischer Regional- und Minderheitensprachen*, 19-28. Tübingen: G. Narr. <https://worldcat.org/isbn/978-3-8233-5189-4>.
- Gràcia, Lluïsa & Miren Azkarate (2000): Prefixation and the head-complement parameter. In Wolfgang U. Dressler, Oskar E. Pfeiffer, Markus A. Pöchtrager & John R. Rennison (arg.), *Morphological Analysis in Comparison* (Current Issues in

- Linguistic Theory 201), 61-73. Amsterdam: John Benjamins. <https://benjamins.com/catalog/cilt.201.04gra>. <https://worldcat.org/isbn/978-90-272-3708-8>.
- Azkarate, Miren (2001a): Eguneroko hitzen lantaldea: proposamena. *Euskera* 46(1). 325-327. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49086.pdf>.
- Azkarate, Miren & Patxi Altuna (2001): *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean. <https://worldcat.org/isbn/978-84-8331-770-9>.
- Alberdi, Mirari, Miren Azkarate, Patxi Diaz de Lezana, Gale Garcia, Mikel Gorrotxategi, Guillermo Meaza, Nerea Mujika, Iker Etxebeste, Pablo Sagardoy & Jose Antonio Telleria (2001): *Izen geografikoen glosarioa: Euskal toponimoen normalizazioan erabiltzeko*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/izen_geografikoak.pdf. <https://worldcat.org/isbn/978-84-457-1779-0>.
- Azkarate, Miren (2001b): Komunikabideen lantaldea: proposamena. *Euskera* 46(1). 313-315. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49084.pdf>.
- Azkarate, Miren (2002): Hitz elkarketa, argumentu egitura eta theta-rolak. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* (ASJU-ren Gehigarriak 44), 91-103. <https://doi.org/doi/10.1387/asju.9636>.
- Perez Gaztelu, Elixabete, J.M. Contreras, Lluïsa Gràcia, Joan Rafel, Avel.lina Suñer, L. Turon, Miren Azkarate, Juan Karlos Odriozola & Igone Zabala (2004): Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco. In Elixabete Pérez Gaztelu, Igone Zabala & Lluïsa Gràcia (arg.), *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*, 109-160. San Sebastián: Univ. de Deusto. <https://worldcat.org/isbn/978-84-7485-942-3>.
- Azkarate, Miren (2006): Patxi Altuna: jesuita, euskaltzalea, irakaslea eta euskaltzaina (1928-2006). *Euskera* 51(1). 591-602. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/66532.pdf>.
- Azkarate, Miren (2008a): Hitz-elkarte sintetikoen argumentuak eta gertaerak. *Jean Haritschelhar-i omenaldia* (Iker 21). 117-134. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-95438-33-1>.
- Azkarate, Miren (2008b): Hiztegegintza eta euskararen normalkuntza. *Euskalgintza XXI. mendeari buruz: Hizkuntza ereduak, hiztegegintza, hizkuntzaren historia: Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarra. Azkue eta Urkixoren omenez. Bilbon, 2001-IX-17/19an* (Iker 19). 171-182. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-95438-26-3>.
- Azkarate, Miren (2008c): Gertaera- eta emaitza-izenak. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* (ASJU-ren Gehigarriak 51), 93-106. <https://doi.org/doi/10.1387/asju.9769>.
- Azkarate, Miren (2009): «Du contrat social»-etik «gizarte-hitzarmenera», edo nominalizazioen eragina diskurtso berezituetan. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* 43(1-2). 137-157. <https://doi.org/doi/10.1387/asju.1682>.
- Azkarate, Miren (2010): Ur lasterraren dama: Lourdes Oñederra Euskaltzaindian sartzea. *Euskera* 55. 45-54. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/75305.pdf>.
- Amundarain, Iñaki, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Jesus Mari Makazaga, Céline Mounole, Jose Antonio Mujika, Paskual Rekalde, Beñat Oyharçabal, Karmele Rotaetxe & Pello Salaburu (2011): *Euskal Gramatika: Lehen Urra-*

- tsak VII*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/75445.pdf. <https://worldcat.org/isbn/978-84-95438-79-9>.
- Azkarate, Miren (2011a): Flexioa eta hitz eraketa. In Pello Salaburu, Patxi Goenaga & Ibon Sarasola (arg.), *Sareko euskal gramatika*. Bilbo: UPV/EHU Euskara Institutua. <http://www.ehu.es/seg/morf/4/3>. <https://worldcat.org/isbn/978-84-693-9891-3>.
- Azkarate, Miren (2011b): Hitz motak. In Pello Salaburu, Patxi Goenaga & Ibon Sarasola (arg.), *Sareko euskal gramatika*. Bilbo: UPV/EHU Euskara Institutua. <http://www.ehu.es/seg/morf/4/1>. <https://worldcat.org/isbn/978-84-693-9891-3>.
- Azkarate, Miren (2011c): Morfemak eta erroak. In Pello Salaburu, Patxi Goenaga & Ibon Sarasola (arg.), *Sareko euskal gramatika*. Bilbo: UPV/EHU Euskara Institutua. <http://www.ehu.es/seg/morf/4/2>. <https://worldcat.org/isbn/978-84-693-9891-3>.
- Azkarate, Miren (2012a): Karmele Esnal Zulaika (1932-2012): andereño Karmele. *Euskera* 57(1-2). 407-419. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/76828.pdf>.
- Azkarate, Miren (2012b): The Current Situation of the Basque Language. In Pello Salaburu & Xabier Alberdi (arg.), *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country* (Current Research Series 9). 113-135. Reno: Center for Basque Studies. <https://worldcat.org/isbn/978-1-935709-30-5>.
- Azkarate, Miren (2013a): Arrue Proiektua: 2011ko Ebaluazio Diagnostikoaren irakaspenak / 'El proyecto Arrue: lecciones del diagnóstico de evaluación del año 2011' / 'The Arrue project: teaching from the 2011 evaluation diagnosis. In Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba, Xabier Aizpurua & Belén Uranga (arg.), *Ikasleak hitzun: 2011ko Arrue proiektua: ikerketaren emaitza, adituen iritzi-azalpenak*, 209-214. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-457-3315-8>.
- Azkarate, Miren (2013b): Txillardegi gogoan. *Jakin* (195). 111-140. <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulu/txillardegi-gogoan/360>.
- Azkarate, Miren (2014a): Hain zuzen (ere). In Xabier Alberdi Larizgoitia (arg.), *Birformulazioa eta birformulatuzaileak euskaraz*, 273-293. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://worldcat.org/isbn/978-84-9082-060-5>.
- Azkarate, Miren (2014b): Hain zuzen (ere) diskurtso-markatzailea: lokailu ala operadore? In María José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerez kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, 191-207. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://worldcat.org/isbn/978-84-9082-092-6>.
- Azkarate, Miren & Elixabete Perez Gaztelu (2014): *Hitz elkarketa 2: LEF batzordearen emaitza*. Bilbo: Euskaltzaindia. <http://hdl.handle.net/10810/13907>. <https://worldcat.org/isbn/978-84-95438-92-8>.
- Azkarate, Miren (2015a): Euskal lexikografia: kodetetik garatzera. In Beatriz Fernández Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre. Homenatge, homenaje*, 119-136. Bilbao: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://worldcat.org/isbn/978-84-9082-097-1>.
- Azkarate, Miren (2015b): La terminología vasca en el siglo XXI. *Terminàlia* (12). 60-62. <https://doi.org/10.2436/20.2503.01.83>. <https://doi.org/doi/10.2436/20.2503.01.83>.
- Azkarate, Miren & David Lindemann (2018): Basque Lexicography and Purism. *International Journal of Lexicography* 31(2). 132-150. <https://doi.org/doi/10.1093/ijl/icy003>.

- Azkarate, Miren (2019a): Adjektibo erreferentzial ala erreferentzia-adjektibo? Euskaltzaindiaren gomendio baten hariari tiraka. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz-ahots: M. L. Oñederra irakaslearen omenez* (Zabalduz), 99-113. Bilbao: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://worldcat.org/isbn/978-84-13-19064-8>.
- Azkarate, Miren (2019b): Alan Kingen hilberri txostena (1954-2019). *Euskera* 64. 280-234. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/82737.pdf>.
- Alberdi, Xabier, Miren Azkarate, Joseba A. Ezeiza, Leire Imaz & Ixusko Ordeñana (2019): *UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen hiztegi juridikoa*. Bilbao: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ehu.eus/ehg/juridikoa/pdf/HiztegiJuridikoa.pdf>. <https://worldcat.org/isbn/978-84-13-19091-4>.
- Azkarate, Miren (2020a): Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki. *Jakin* 238. 207-220. <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulua/azurmendi-euskara-batuaren-bilbe-eta-irazki/4369>.
- Camino, Iñaki, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (2020): Euskara estandarrek bernakularizazio aldiaren. *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena: Koldo Zuazori gorazarre*, 601-615. Bilbao: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://worldcat.org/isbn/978-84-13-19266-6>.
- Azkarate, Miren (2020b): Gramatikaren auzi batzuk. *Euskera* 65(2). 257-281. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/83016.pdf>.
- Azkarate, Miren (2020c): Lege hizkera euskaraz: begiratu bat historian zeharrekoari eta zenbait gogoeta XXI. mendekoaz. In Itziar Laka (arg.), *Hitzak sarean. Pello Salabururi esker onez*, 24-38. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ehu.eus/ehg/salaburu/liburua/HitzakSarean02.pdf>. <https://worldcat.org/isbn/978-84-13-19111-9>.
- Azkarate, Miren (2021): Euskara batuaren nondik norako linguistikoak. In Andres M. Urrutia (arg.), *Euskaltzaindiaren VII. Biltzarra: Arantzasutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa 1968-2018* (Iker 40). 197-212. Iberoamericana; Ver-vuert; Euskaltzaindia. <https://doi.org/doi/10.31819/9783968691589-014>.
- Salaburu, Pello, Patxi Goenaga, Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Ane Berro, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Alan King, Jesus Mari Makazaga, Céline Mounole, Jose Antonio Mujika, Beñat Oyharçabal & Paskual Rekalde (2021): *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://worldcat.org/isbn/978-84-12-29889-5>.
- Azkarate, Miren & Elixabete Pérez Gaztelu (2021): Procesos de estandarización: los casos del euskera y del gallego. *Treballs de Sociolingüística Catalana* 31. 81-94. Institut d'Estudis Catalans. <https://doi.org/doi/10.2436/20.2504.01.179>.
- Costa-Carreras, Joan, Henrique Monteagudo & Miren Azkarate (2023): Estandarología comparada entre lenguas de España: el concepto de estándar en la normativización lingüística académica. In Dolores Corbella, Josefa Dorta & Rafael Padrón (arg.), *Perspectives en linguistique et philologie romanes (I et II)* (Bibliothèque de Linguistique Romane (BiLiRo) 18). Paris: Éditions de Linguistique et de Philologie.

Itziar Aduriz
Eneko Agirre
Manex Agirrezabal
Jokin Aiestaran
Izaskun Aldezabal
Iñaki Alegria
María Jesús Aranzabe
Xabier Arregi
Jose M. Arriola
Xabier Artola
Aitzol Astigarraga
Amaia Astobiza
Ane Berro
Marije Bidaguren
Iñaki Camino
Klara Ceberio
Emilio Delgado
Arantza Diaz de Ilarraza
Agurtzane Elordui
Ainara Estarrona
Izaskun Etxeberria

Nerea Ezeiza
Beatriz Fernández
Ines M^a Garcia-Azkoaga
Asier Gonzalez Casado
Galder Gonzalez
Alexander Gurrutxaga
Antton Gurrutxaga
Oroitz Jauregi
Dorota Krajewska
Joseba A. Lakarra
David Lindemann
Jesus Mari Makazaga
Miren Lourdes Oñederra
Lourdes Otaegi
Eli Pociello
Pello Salaburu
Leire Sanchez-Dorronsoro
Kepa Sarasola
Blanca Urgell
Igone Zabala
Eneko Zuloaga

IKERTUZ

Ikerketa lanak
Trabajo de investigación



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN